HONDARRIBIKO UDALA

Hondarribiko Agenda 21:

IRAUNKORTASUN DIAGNOSTIKOA

2008ko apirila

Izadi 21

Agenda 21 Hondarribia

Hondarribiko Iraunkortasun Diagnosiaren idazketan eta berrikuspenean parte hartu duten erakunde eta entitateak

- Auif S.A. (Autobuses Urbanos de Irun y Fuenterrabia)
- Bidasoa Bizirik (Bidasoaldeko Garapen Agentzia)
- Bidasoa-Txingudi eskualdeko hezkuntza zentroak
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa
- EEE (Euskal Energiaren Erakundea)
- Eusko Jaurlaritza
- Euskotren
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Gipuzkoako Merkataritza Bazkundea
- Hondarribiko Udala
- Hendaiako Udala
- Iberdrola
- IHOBE (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa)
- Irungo Udala
- Iparbus
- Izadi 21
- LKS S. Coop.
- Plaiaundi Parke Ekologikoa
- Renfe
- San Markos-eko Mankomunitatea
- Txingudiko Zerbitzuak (Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatea)

Aurkibidea

Orrialdea

0. SARRERA: AGENDA 21 8
0.1 Garapen iraunkorraren eta agenda 21en aurrekariak....8
0.2 Hondarribiako tokiko Agenda 21 (txingudiko udaltalde 21)....10

1. SOZIO-EKONOMIAKO DIAGNOSIA....16
1.1 Sarrera....16
1.2 Demografia-azterketa....17
1.2.1 Historia-bilakaera....17
1.2.2 Egungo populazioa eta biztanleria-dentsitatea....18
1.2.3 Biztanleriaren egitura....21
1.2.4 Hazkunde begetatiboa, migrazio-saldoa eta immigrazioa....23
1.2.5 Ikasketa maila eta euskara....29
1.2.6 Demografia-azterketa: ondorioak eta iraunkortasunaren ikuspegitik egin daitezkeen ekarpen nagusiak....37
1.3 Ekonomia-azterketa....40
1.3.1 Lan-merkatua eta batez besteko errentak....40
1.3.2 Tokiko ekoizpen-egitura....55
1.3.3 Ekonomia-azterketa: ondorioak eta iraunkortasunaren ikuspegitik egin daitezkeen ekarpen nagusiak....76
1.4 Estrategia-azterketa....80
1.4.1 Historia-bilakaera....80
1.4.2 Egungo estrategia-eremua....82
1.4.3 Etorkizuna: funtzio eta azpiegitura berriak....84
1.5 Gizartearen eta bizi-kalitatearen azterketa....90
1.5.1 Ekipamenduak eta oinarrizko zerbitzuak....90
1.5.2 Sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea....126
1.6 Ekonomia-jarduerek iraunkortasunean duten eragina....134
1.6.1 Hondarribiko ekonomia-jarduerek ingurumenean duten eragina....135
1.6.2 Gizartearen eta bizi-kalitatearen azterketa ondorioak eta iraunkortasunaren ikuspegitik egin daitezkeen ekarpen nagusiak....151
1.7 Hondarribiko eredu sozioekonomikoari buruzko hausnarketak iraunkortasunaren ikuspegitik....154

1.8 Hondarribiko eredu sozioekonomikoari buruzko sintesia, iraunkortasunaren ikuspegitik 162

2. LURRALDE ANTOLAMENDUA 166

2.1 LURRALDE ANTOLAMENDUAREN ARTEZPIDEAK ETA LURRALDE PLANAK 166

2.1.1 Lurralde-antolamendua, EAEn 166

2.1.2. Plangintzen bateragarritasuna 170

2.2 Hondarribiko hiri-eredua 171

2.2.1 Hondarribiko hiri-ereduaren bilakaera 171

2.2.2 Hirigintza-eredua eta egun indarrean dagoen planeamendua egitean proposatutako garapen-aukerak 179

2.2.3 Hiri-lurra lurzoruen erabileraren banaketa orokorrean 181

2.2.4 Bizitegi-erabilera hiri-eremuan 185

2.2.5 Bizitegien garapenaren ikuspegia, Lurraldearen Zatikako Planaren Aurrerakinaren arabera 191

2.3 Berdeguneak 195

2.3.1 Berdeguneetako horniduren bilakaera 195

2.3.2 Hondarribiko berdegune-kopurua eta horien tipologia 196

2.4 Jarduera ekonomikoetarako lurrak 199

2.4.1 Industria-lurrak 199

2.4.2 Hirugarren sektoreko jardueretako eremuak 202

2.5 Bideetako azpiegiturak 206

2.5.1 Indarrean dagoen plangintza egin uneko diagnosia 206

2.5.2 Indarrean dagoen plangintzan, bide-komunikazioko sistemari buruz egindako proposamenak 208

2.5.3 Bide-azpiegituren exekuzioaren egungo egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak 210

2.6 Portuetako eta aireportuetako azpiegiturak 214

2.6.1 Arrantza-portua 214

2.6.2 Kirol-portua 214

2.7. Eskualdeko trenbide-azpiegiturak eta azpiegitura intermodalak 225

2.7.1. Aurreikusitako jarduketak eta Jaizkibelgo korridore intermodala 225

2.7.2. Jarduketen deskripzioa, eskura dugun informazioaren arabera 227

2.8. Hondarribiko lurralde-antolamenduari buruzko hausnarketak, iraunkortasunaren ikuspegitik 235

2.9. Hondarribiko Lurralde Antolamendua, iraunkortasunaren ikuspegitik. Laburpena 254

3. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA 258
3.1. Pertsonen mugikortasuna 258
3.1.1. Motorizazioa 258
3.1.2. Aparkalekuak 261
3.1.3. Mugikortasunaren ezaugarriak 262
3.1.4. Joanetorriak oinez eta bizikletaz 282
3.1.4.2. Bidegorriak 285
3.1.5. Bidaiarientzako garraio publikoa 289
3.2. Eskualdeko trafikoa 309
3.2.1. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planaren zenbait proposamen 314
3.3. Trenbide-sarea 315
3.3.1. Proiektuak 315
3.4. Aireportua 318
3.5. Garraioaren eta mugikortasunaren inguruko laburpena iraunkortasunaren ikuspegitik 323
3.6. Hondarribiko garraioari eta mugikortasunari buruzko sintesia, iraunkortasunaren ikuspuntutik 324
4. NATURA INGURUNEA 327
4.1. Natura Inguruneare Deskribapena 327
4.2. Landare-estalduraren azterketa eta bilakaera 332
4.2.1. Landaredi potentziala 332
4.2.2. Gaur egungo landaredia 336
4.2.3. Flora exotikoa 345
4.3. Ibai-ibilguen egoera ekologikoa 346
4.4. Fauna 349
4.4.1. Fauna-katalogoa 349
4.4.2. Fauna-unitateak 361
4.4.3. Espezie Mehatxatuak 365
4.4.4. Natura-interesa duten enklabe nagusiak 368
4.5 LURRALDEKO BALIABIDE NATURAL NAGUSIEN ANTOLAMENDUA ETA BABESA 372
4.5.1. Natura-ingurunea antolatzeko tresnak 371
4.6. Natura-inguruneare antolamendua eta babesa Hiri-Planeamenduan 373
4.6.1. Hirigintza-jarduerarako eremuak 71 "Jaizkibel Mendia" 374
4.6.2. Hirigintza-jarduerarako eremuak 70 "Jaitzubia" 375
4.6.3. Hirigintza-jarduerarako eremuak 69 "Higer" eta 72 "San Telmo" 375

4.7. Antolamendurako udalaz gaineko tresnek natura-ingurunean izan duten eraginaren azterketa 377
4.7.1. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Plana 377
4.7.2. Nekazaritza eta basogintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana 380
4.7.3. EAEko ibaien eta erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana – Isurialde Kantauriarra 381
4.7.4. EAE-ko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana 382
4.8. Babesteko neurriek bere gain hartzen dituzten natura-guneen berariazko azterketa 386
4.8.1. Jaizkibel Mendia 386
4.8.2. Txingudiko badia eta Jaitzubiko ibarra 398
4.9. HONDARRIBIKO NATURA-INGURUNEARI BURUZKO HAUSNARKETAK IRAUNKORTASUNAREN IKUSPEGITIK 408
4.10. HONDARRIBIKO NATURA-INGURUNEA, IRAUNKORTASUNAREN IKUSPUNTUTIK. SINTESIA 422
5. INGURUMEN BEKTOREAK 425
5.1. Ura 425
5.1.1. Sarrera 425
5.1.2. Uraren ziklo integrala Txingudin 426
5.1.3. Iraunkortasunaren analisia: Ura 459
5.2. Lurzorua 461
5.2.1. Sarrera 461
5.2.2. Iraunkortasunaren analisia: lurzorua 462
5.2.3. Kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak egiten dituzten instalazioak, Hondarribian 464
5.2.4. Iraunkortasunaren analisia: kutsa daitezkeen lurzoruak 466
5.3. Energia 468
5.3.1. Sarrera 468
5.3.2. Energia-balantzea 470
5.3.3. Eraginkortasun energetikoa 477
5.3.4. Iraunkortasunaren analisia: energia 478
5.4 Hondakinak 479
5.4.1. Sarrera 479
5.4.2. Hondakinen sorrera eta kudeaketa Txingudin 484
5.4.3. Etxeetako hiri-hondakin birziklagarriak 487
5.4.4. Bide-garbiketa 513

5.4.5. Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala 2002-2016 (PIRUAT) 515
5.4.6. Iraunkortasunaren analisia: hondakinak 531
5.5. Atmosfera 536
5.5.1. Sarrera 536
5.5.2. Emisio atmosferikoaren iturri nagusiak 537
5.5.3. Kiotoko protokoloa 541
5.5.4. Inmisio atmosferikoaren mailak 542
5.5.5. Iraunkortasunaren analisia: atmosfera 543
5.6. Ingurune hotsa 547
5.6.1 Sarrea 547
5.6.2 Ingurune-hotsaren emisio iturri nagusiak 549
5.6.3 Inguruneare soinu-presioa Hondarribian 551
5.6.4 Hondarribiko ingurune hotsaren araubidea 553
5.6.5 Iraunkortasun analisia: ingurune hotsa 553
5.7. Hondarribiko ingurumen-bektoreak, iraunkortasunaren ikuspuntutik. Sintesia 555

6. Hondarribiko diagnosia: hautemandako joera nagusien analisia 559

0. SARRERA: AGENDA 21

0.- SARRERA: AGENDA 21

0.1 GARAPEN IRAUNKORRAREN ETA AGENDA 21EN AURREKARIAK

Hondarribiko iraunkortasun diagnostikoa udalerriko Tokiko Agenda 21en prozesuaren baitan kokatzen den hasierako dokumentuetako bat da, zeinaren bidez udalerriko errealitatea iraunkortasunaren ikuspuntutik aztertzen den. Baina, zer da **garapen iraunkorra** eta zertan datza **Tokiko Agenda 21**en prozesuak?

Galdera honi erantzuteko hurbilpen historiko bat egitea ezinbestekoa da, aipatu kontzeptuak zein testuinguru historikotan kokatzen ziren ulertzeko.

Aspalditik ezaguna da ingurumenaren egoerak gure gizartearen garapenean duen eragina eta aldi berean, gizakion ekoizpen eta kontsumo ohiturek sortzen dituzten ingurumen, ekonomia eta gizarte eraginak. Nazioarte mailan erakunde, organismo eta gizarte eragile ezberdinek ere erlazio honen garrantzia azpimarratu dute behin baino gehiagotan.

1972. urtean Estocolmoko hirian Nazio Batuen Elkarteak Giza Ingurumenari buruzko Konferentzia antolatu zuen. Bertan, Konferentzia parte hartu zuten kideek lehenengo aldiz aitortu zuten nazioarteko mailan munduko ingurumen arazoa eta arazoaren garrantziaz ohartarazi zuten. Urte berean, *Club de Roma* izenaz ezaguna den adituen taldeak Ameriketako Estatu Batuetako Massachusetts-eko Institutu Teknologikoko Meadows irakasleari gizarte mehatxatzen duten joera eta arazo ekonomikoei buruzko ikerketa sakon bat egiteko eskatu zioten. Ikerketa horren emaitza *Hazkundearen Mugak* izeneko txostena izan zen, *Meadows Txostena* bezala ere ezagutzen dena. Dokumentu horretan bereziki azpimarratu zen mendebaldeko gizarteetako ekoizpen eta kontsumo eredua jasanezina dela etorkizunera begira, munduko baliabide naturalak agortu ezinak balira bezala jokatzen duelako eta mundu mailan sortzen dituen gizarte eta ekonomiazko desorekak izugarriak direlako. Txostenaren ondorioek zeresan handia izan zuten mundu mailan, hala nola; petrolioaren prezioa izugarri igo zen, mendebaldeko gizarteetako herrialdeetan krisialdi ekonomikoa pairatu zuten, mundu mailako lehen talde ekologistak sortu ziren, energia iturri alternatiboak bilatzeko lanei ekin zitzaion, eta abar.

1987an Nazio Batuen Elkartearen Ingurumen eta Garapenaren Batzordeak "*Gure etorkizun komuna*" izeneko txostena (*Brundtland* txostenarekin ere ezaguna dena) argitaratu zuen. Aipatu txostena garai hartan Norvegiako

presidentea zen Brundtlan andereak zuzendu zuen. Bertan adierazten zen ingurumena eta garapenaren arteko oreka lortzea datorren urteetako arazo nagusienetakoa izango zela. Azpimarratu behar da 1987 urtean finkatu zen Garapen Iraunkorra kontzeptua nazioarte mailan: ***garapen iraunkorra gaur eguneko beharrak asetzeko gai den garapena da eta, aldi berean, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarriko ez duen garapen eredu gisa uler daiteke***.

Testuinguru honetan, Nazio Batuen Elkarteak 1992. urtean, Rio de Janeiron (Brasil), Ingurumen eta Garapenerako Nazio Batuen Batzarra ospatu antolatu zuen: *Lurraren batzarra*. Konpromiso ugari hartu ziren bertan:

- Aldaketa Klimatikoari buruzko Hitzarmena
- 21 Programa (Agenda 21 izenaz ere ezaguna dena)
- Biodibertsitatearen Zaintzarako eta Lehorteen Aurkako Hitzarmenak
- Basoen Babeserako Adierazpena
- Ingurumena eta Garapenari buruzko Rioko aitorpena

Aipatu konpromisoetatik, dagokigun gaiari erreparatuz, 21 Programa/Agenda 21 litzateke azpimagarriena, garapen iraunkorraren alde lan egiteko ekintza plan globala delako. Agenda 21 dokumentuaren 28. kapituluan jasotzen denez, iraunkortasunarekin zerikusia duten arazo eta irtenbideetariko asko tokiko ekimen eta erakundeen parte hartze eta elkar laguntzaren menpe daude. Horregatik Agenda 21en helburuak lortzeko nahitaezkoa da tokiko erakundeen parte hartzea; herritarrenganako erakunderik gertuena den heinean, garapen iraunkorraren aldeko hezkuntza sustatu eta jendearen inplikazioa bilatzeko administrazio organorik egokien da.

2002. urtean, Johanesburgon ospaturiko Lurraren II. Gailurrean (*Rio + 10* delakoa), Agenda 21en aplikazio eraginkorra lortzeko agintaritza maila guztietan indartu eta hobetzeko konpromisoa onartu zen.

Europako Batasunari erreparatuz gero, 1973 urteaz geroztik bultzatu ziren ingurumen programez gain (une honetan VI. Programa 2002-2012 dago indarrean), bi une azpimarra ditzakegu: Europako Garapen Iraunkorraren Aldeko Estrategiaren onarpena (2001) eta Aalborg-eko Konferentziaren sorrera (1994). Lehenari dagokionez, dokumentu honek Europa mailatik iraunkortasunaren alde lan egiteko lerro estrategikoak eta ekintzak finkatzen ditu, estatuek beren iraunkortasun estrategia propioak onartu behar dituztela aginduz. Bigarrenari dagokionez, 1994 urtean, Danimarkan kokatuta dagoen Aalborg izeneko hirian, Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Sarea sortu zen eta Aalborg-eko Ituna deritzona onartu zuten bertaratutako agintariek.

Aalborg-eko Ituna iraunkortasunaren alde lan egin nahi duten herri eta hirietako agintariek beren konpromiso islatzeko balio duen dokumentua da.

Eusko Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2002. urtean Eusko Jaurlaritzak Garapen Iraunkorren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Euskal Ingurumen Esparru Programa (2002-2006) onartu zituen. Esparru Programari dagokionez, berriki 2007-2010 urteetarako programa berria onartu da (EAEko II. Ingurumen Esparru Programa). Txosten honetan etorkizuneko belaunaldien bizi kalitatea baldintzatuko ez duen egungo bizi kalitatearen hobekuntza lortze aldera gizarteak erdietsi beharreko ingurumen helburuak jasotzen dira, ekonomia eta gizarte eragileentzako jardunbide batzuk ezarriz, Tokiko Agenda 21 prozesuaren bitartez aurrera eraman daitezkeenak. Beraz, Tokiko Agenda 21ak udalerri edo eskualde mailatik garapen iraunkorrerako bidean aurrera pausoak ematea ahalbidetzen duten lan tresnak eta era berean, prozesu bat dira.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar eskola komunitatean 21 Programa (Agenda 21) barneratzearen beharra. Izan ere, etorkizuneko belaunaldiek eskoletan jasoko dituzte euren bizitza eta garapena baldintzatuko dituzten irizpide eta baloreak. Horregatik, Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean Eskolako Agenda 21 aurrera eramaten dira, eskola komunitatea osatzen duten eragileek ere garapen iraunkorraren bidean aurrera pausoak ematen laguntzeko.

0.2. HONDARRIBIAKO TOKIKO AGENDA 21 (TXINGUDIKO UDALTALDE 21)

2004ko azaroan Txingudiko Udaltalde 21 ekimena martxan jarri zen Hondarribian eta Irunen Tokiko Agenda 21en prozesuak abiarazteko (udalerri bakoitzean prozesua martxan jartzeko, nahiz eta ekintza asko batera garatu – komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak esate baterako-). *Udaltalde 21*ak EAEn Tokiko Agenda 21ak abiarazteko martxan jarritako eskualde bereko udalerriek osatzen duten lan taldea da, Eusko Jaurlaritzako Ihobe Sozietate Publikoak, Foru Aldundiek eta eskualdeko mankomunitate edo agentziek ere osatzen dutena (azken hauek koordinazio funtzioa izaten dute).

*Udaltalde 21*ek izaten duten iraupena mugatua izan ohi da; lan talde hauek sortzen dira Tokiko Agenda 21en hasierako fasean (diseinu fasea) eta behin udalerriak *Udalsarea 21*ean sartzean -Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea- udalerri bakoitza Tokiko Agenda 21en bigarren faseari ekiten dio (Tokiko Ekintza Planen ezarpena fasea) eta bidea ez du normalean *Udaltalde 21* moduan egiten, Udalsarea 21 osatzen duten udalerriekin batera baizik.

Udaltalde 21en kide diren udalerriek Tokiko Agenda 21en diseinu fasean eman beharreko oinarrizko pausoak honakoak dira:

- Ordezkari politiko eta teknikoak prozesuaren inguruan informatu (Agenda 21en helburuak, faseak, eta abar azalduz): Hondarribian eta Irunen udal langileei zuzendutako Agenda 21en informazio saioak 2005eko 1. hiruhilekoan egin ziren.

- Aalborg-eko Ituna sinatzea: Europako Herri eta Hirien Iraunkortasunaren Aldeko dokumentua da eta berau sinatzean Europako udalerriek garapen iraunkorraren alde lan egiteko duten konpromisoa aipatu dokumentuan islatzen dute. Hondarribiko udalak Aalborg-eko Ituna 2008ko otsailaren 27ko udalbatzan sinatu zuen. Irunek 2000. urtean sinatu zuen Aalborg-eko Ituna.

- Diagnostiko teknikoaren idazketa eta onarpena udal plenoan: Irunen udal diagnostikoa lehenik bozeramaileen batzordean onartu zen (2006ko ekainean) eta ondoren udal plenoan 2007ko otsailean. Hondarribian udal diagnostiko udal langileen artean 2006ko irailean aurkeztu zen, ondoren udaleko alderdi politikoetako ordezkariei helarazi zitzaien eta azkenik 2008ko otsailaren 27ko udal osoko bilkuran onartu zen.

- Herritarrek parte hartzeko mekanismoak martxan jartzea: Hondarribian Agenda 21 Tokiko Ekintza Plana idazteko lanak hasten diren Agenda 21en Herritarren Foroa abiaraziko da. Irunen kasuan, 2006ko uztailean udalak "Irun 21 Kontseilua" sortu zuen, eta bertan Irungo edo Irunekin nolabaiteko zerikusia zuten udalerriko elkarte, entitate eta pertsona adituek parte hartu zuten.

- Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana diseinatu eta plenoan onartzea: Hondarribia aurki hasiko iraunkortasunerako I. Tokiko Ekintza Plana diseinatzen udaleko langileen eta herritarren parte hartzearekin batera. Irungo udalak bere I. Tokiko Ekintza Plana 2007ko otsailean onartu zuen udalbatzan.

- Jasangarritasunaren aldeko Euskal Konpromisoa izenpetzea: Hondarribiko udalak ez du oraindik sinatu. Irungo udalak Tokiko Ekintza Plana eztabaidatu zen udalbatza berean onartu zuen aipatu dokumentua.

Pauso hauek emanda, udalerriek Tokiko Agenda 21en diseinu fasea amaitu egiten dute eta Tokiko Ekintza Plana ezartzeko faseari ekiten diote *Udalsarea 21*en sartu ostean. Bidasoa-Txingudi eskualdeari dagokionez, Irungo udalak 2007ko otsailerako aurreko pausoak bete zituenez Udalsarea 21en sartu zen eta Txingudiko Udaltalde 21i amaiera eman zitzaion.

Dena den, badaude Udalsarea 21en sartu arren Udaltalde 21 moduan ere lan egiten jarraitu nahi duten udalerriak ere, iraunkortasunaren prozesuan elkarrekin hainbat ekintza eramateko (eskualde mailako ekimenak gauzatzeko: komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak esaterako).

1. SOZIO-EKONOMIAKO DIAGNOSIA

1. SOZIO-EKONOMIAKO DIAGNOSIA

1.1 Sarrera

Hondarribiko demografiaren, ekonomiaren eta gizarte-alderdien ezaugarriak oinarrizkoak dira udalerriak eta bertako biztanleek inguruan duten eragina ulertzeko. Herritarrek egiten dituzten jarduerek lurraldea bera modelatzen dute, eta, aldi berean, inguruak bere mugak eta baldintzak ezartzen dizkie udalerrian egiten dituzten jarduera horiei.

Hondarribiko sozio-ekonomiako bilakaeran ez zen aldaketa handirik izan XIX. mendeko bigarren erdira arte; hain zuzen, aldaketa horien eragile nagusia egun ditugun azpiegiturako elementu handien eraikuntza izan zen (A-8 eta aireportua izan ezik, XX. mendean eraiki baitziren). Garai hartan sozio-ekonomiako harreman-sistema berria osatu zen eskualdean, eta Hondarribia estatuko uda-garaiko gune eta Irungo jolasaldi- eta aisialdi-eremu bihurtu zen; hala ere, arrantza-, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerei ere eutsi egin zien.

Espezializazio horrek eta populazioaren eta bizitegi-ehunaren hazkundeak ingurumen-ondorio garrantzitsuak eragin ditu lurraldean. Horregatik, Hondarribian edonolako politika-erabakiak hartu edo sozio-ekonomiako aldaketa bat zehaztu aurretik, garrantzitsua da ingurumen-alderdiak kontuan hartzea, udalerriko ingurumen-kalitatean, herritarren bizi-kalitatean eta, beraz, udalerriko funtzionamenduan ondorioak izango baititu.

Dokumentu honetan, Hondarribia udalerriko sozio-ekonomiako egoeraren azterketa egin da; hain zuzen, azterketa hori hasiera-puntua izango da Txingudiko Tokiko Agenda 21 artikulatuko duten estrategia-gaiak definitzeko.

1.2 Demografia-azterketa

1.2.1 Historia-bilakaera

Hondarribiko hirigintza-eraldaketa oso nabarmena izan da 1900. urtetik aurrera: padura asko eta asko lehortu da ordutik aurrera. Zehazki, 1914an, 5.400 biztanle bizi ziren bertan, eta egungo hiriguneko eremu nagusiaren oinarrizko trazadurak dagoeneko finkatuta zeuden; hau da, hirigunea Portura mugitu zen, eta, Alde Zaharrean, berriz, eraikuntza publiko garrantzitsuenak gelditu ziren.

Hala ere, 1915-1955 aldian, hiri-bilakaeran geldialdi txiki bat izan zen. Zehazki, 1955ean, populazioa 8.000 biztanlera iritsi zen, eta, jada, garai hartan, nabarmenak ziren etxe bat izateko zailtasunak, udalerriak izan zuen sozio-ekonomiako espezializazioa zela-eta. Hain zuzen, espezializazio horrek baldintzatu zuen hiri-bilakaera, XIX. mendearen erditik aurrera.

1956. urtean nabaritu zen lehenengo aldiz Hondarribiak izandako hirigintza-eraldaketa handia. Aldi horretan, hainbat plangintza-tresna sortu zituzten, eta horien bidez eskura jarri ziren ordutik egindako aldaketa handiak gauzatu ahal izateko behar ziren eremu eta irizpideak. Esaterako, 1960rako, jada egina zen Hondarribiko lehen plangintza-proiektua, eta, hori oinarri hartuta, hainbat esku-hartze egin ahal izan ziren. Esku-hartze horiek, hain zuzen, garrantzi oso handia izan dute udalerriko hiri-bilakaeran (besteak beste: Amuteko, Alde Zaharreko, Azken Portuko eta Campiñako plan partzialak).

1972ko Plangintza Orokor berria (esku-hartze horiek ere bere baitan hartzen zituena) hedapeneko ekonomia-egoera baten isla zen, eta, bertan, herriko irisgarritasuna asko hobetu zen, Jaitzubiko errepidea eraiki baitzen. Plan berri hartan, 7.000 etxebizitza berri aurreikusi ziren (11.000 aurrez zeudenak kontatuz gero), eta horietako gehienak ekonomia-maila altuko eta dentsitate ertaineko edo baxuko merkaturako ziren; gainera, paisaia-kalitate ezin hobeko lurretan kokatuta. Planak XIX. mendetik izandako hiri-bilakaeraren eredua indartu zuen, eta funtzionalki Irunen mendean zegoen uda-garaiko herri txiki bat izatetik estandar altuko bizitegi handi (hau da, Donostiako

metropoli-arearen maila berekoa) izatera pasa nahi zen, inplizituki. Plan horretan, industriari ez zitzaion garrantzia handirik eman, eta elkarren artean loturarik ez zuten bakar batzuk ezarri ziren. Bestalde, ia ez zegoen komunitate-ekipamendurik, ez eta eremu librerik ere; etxebizitza-dentsitate txikiak, ordea, gabezia hori arindu egiten zuen.

1. grafikoa
HONDARRIBIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA (1900-2004)



Iturria: Eustat.

1.2.2 Egungo populazioa eta biztanleria-dentsitatea

Hondarribiak 28,8 km^2-ko azalera du, gutxi gorabehera, eta, 2004an, 15.986 biztanle bizi ziren bertan; ondorioz, bertako populazio-dentsitatea altu samarra zen (555,1 biz./km^2), Gipuzkoako lurralde historikoarekin alderatuta. Datu berriagoei erreparatuz, 2007an Hondarribiak 16.364 biztanle zituen, bertako populazio-dentsitatea 568,19 biztanlekoa zen $Km^{2.}$

Auzoka aztertuz gero, 2004an Portua gunean populazioaren %15,74 bizi zen, eta atzetik Akategi eta Soroeta zeuden, populazioaren %15,59 eta %10,68 zutenak. Aldiz, Mendelu auzoan zegoen biztanle gutxien; zehazki, populazioaren %4,8.

2. grafikoa. HONDARRIBIKO POPULAZIOA, EREMUKA (2004)



Iturria: Hondarribiko Udala.

Auzokako biztanleen banaketari dagokionez, 2006ko Bidasoa bizirik agentziaren 2006 urteko txostena aintzat hartuz, populazioa Akartegi eta Gornutz auzoetan pilatzen dira (%16), Soroeta eta ingurua (%10,4), Mendelu (%10), Portua (%9,4) eta Alde Zaharra (%9,1). Bestalde, populazio gutxien duten auzoak Jaitzubia, Gibeleta eta Zubieta (%5,2) dira, Portua eta hondartzako kai-muturraren artean dagoen zonaldearekin batera.

Esan beharra dago Mendelu dela gehien hazi den auzoa, %7 inguru 2005eko datuekin alderatuz gero. Honekin batera, Itsasargiaren eta Guadaluperen zonaldea ere %3,5a hazi dira. Bestalde, Puntala eta inguruaren eta Soroeta eta inguruaren populazioak behera egin du (%1 inguru bi zonaldeetan).

BIZTANLERIAREN AZKEN URTEOTAKO BILAKAERA

Aurrez aipatu bezala, Hondarribiko biztanleria-bilakaera kontuan hartuta, azken urte hauetan izaten ari den hazkundea da elementurik azpimarragarriena. Hain zuzen, 1991-2004 aldian, Hondarribia %18 baino gehiago hazi da; dena den, 2002tik hona, hazkunde-erritmo hori moteldu egin da, pixka bat.

Horri dagokionez, 2001eko Erroldaren datuak erreferentziatzat hartuta, honako hau ikus daiteke: Gipuzkoako lurralde historikoan nahiz EAEn,

biztanle-kopuruak ia bere horretan eutsi dio, ia erabat (Gipuzkoan %1,3 hazi da eta EAEn %2 egin du behera); Hondarribian, berriz, %18,2ko igoerak izan dira (lehen ere aipatu da).

1. taula. BIZTANLERIA-BILAKAERA, 1981-2004.

	1981	1991	2001	2004	91/01 aldakuntza ald. abs.	%	91/04 aldakuntza ald. abs.	%
Hondarribia	11.380	13.524	15.044	15.986	1.520	11,2	2.462	18,2
Bidasoa-Txingudi	64.714	66.800	71.645	75.757	4.845	7,3	8.957	13,4
Gipuzkoa	694.681	676.488	673.563	685.596	-2.925	-0,4	9.108	1,3
EAE	2.141.809	2.164.041	2.082.587	2.120.348	-81.454	-3,8	-43.693	-2,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren Errolda. Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Joera positibo horri hamarkada askotan eutsi zaio, 1981-1991 aldian ere Hondarribiak %18 baino **hazkunde handia**goak izan baitzituen **biztanlerian**.

3. grafikoa
BIZTANLERIA-ALDAKUNTZA, Bidasoa Txingudi eta Gipuzkoako LH (1993-2004) (1993=100)



Iturria: Irungo Udala eta Hondarribiko Udala

Azken aldian biztanlerian izan den etengabeko hazkundea oso nabarmena da, inguruko udalerri gehienek izan duten joerarekin alderatzen badugu. Horren arrazoiak, besteak beste, hazkunde begetatiboaren bilakaera positiboa eta migrazio-saldoaren joera positiboa izan dira.

Hain zuzen, Caixak egindako Espainiako Ekonomia Urtekarian agertzen diren datuen arabera, 2000-2004 aldian, Hondarribia, Irun eta Zarautz izan dira

biztanlerian hazkunde handiena izan duten 10.000 biztanletik gorako udalerriak, Gipuzkoan.

2. taula. BIZTANLERIA-ALDAKUNTZA, 2000-2004

	ald. % 2000-2004
Hondarribia	**%5,8**
Irun	%4,2
Errenteria	-%2,7
Pasaia	-%4,2
Oiartzun	%4,9
Lezo	%2,1
Eibar	-%3,2
Elgoibar	-%1,7
Zumarraga	-%1,8
Zarautz	%6,1
Tolosa	-%1,5
Donostia	%1,3

Iturria: 2005eko Espainiako Ekonomia Urtekaria. La Caixa.

Geografikoki, 2003. urtearekiko biztanleria-bilakaerak erakusten duenez, igoera handiagoa izan da Kosta eta Amute eremuetan (%11,3ko). Arkollako eremuan, berriz, %6,9 hazi da biztanleria, eta Akartegi eta Gornutzen %3,2. Datu horiek aztertzean hauteman daitekeenez, biztanleak Hondarribiko erdigunetik urrunago dauden eremuetara mugitzen ari dira.

1.2.3 Biztanleriaren egitura

Biztanleria-egituraren ikuspegitik, honako hauek dira Hondarribiaren ezaugarri nagusiak:

- **Biztanleria adin-taldeka banatuz** ikus daitekeenez, 2001ean, Hondarribiko biztanleria ez zen Gipuzkoako lurralde historikoko gainerako udalerrietakoa bezain zaharra.

3. taula. BIZTANLERIAREN BANAKETA, ADIN-TALDEEN ARABERA (1996-2001)

	0-19		20-64		65 eta gehiago	
	1996	2001	1996	2001	1996	2001
Hondarribia	%21,5	%19,9	%65,3	%66,4	%13,2	%13,8
BIDASOA TXINGUDI	**%21,6**	**%19,3**	**%64,1**	**%65,2**	**%14,2**	**%15,5**
GIPUZKOA	**%20,6**	**%18,5**	**%64,0**	**%64,7**	**%15,4**	**%16,8**

Iturria: Eustat. Biztanleriaren Errolda 1996-2001

- Dena den, azken 25 urteetan, 65 urtetik gorako biztanleak %50 ugaritu dira (Gipuzkoan, %73) eta 19 urtetik beherakoak, berriz, erdira gutxitu dira (Gipuzkoan %47). Beraz, oso agerian gelditu da **biztanleriaren zahartzeko joera**; Gipuzkoa osoarekin alderatuz, ordea, erritmoa motelagoa da Hondarribian.

4. taula.
HONDARRIBIKO BIZTANLERIAREN BANAKETA, ADIN-TALDEEN ARABERA (1981-2004)

	1981	1986	1991	1996	2001	2004	Var.81-04
0 - 19	%35,10	%31,90	%27,10	%21,50	%19,90	%18,7	-%16,4
20 - 64	%55,40	%58,20	%61,50	%65,30	%66,40	%66,4	%11,0
>= 65	%9,60	%9,90	%11,40	%13,20	%13,80	%14,9	%5,3

Iturria: Eustat. Biztanleriaren Errolda 1981-2001. Hondarribiko Udala

4. grafikoa. HONDARRIBIKO BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA (2004)



Iturria: Hondarribiko Udala

5. grafikoa



Iturria: Hondarribiko Udala

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, 2004an, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko proportzioa honako hau zen: 102 gizonezko 100 emakumezko. Proportzio hori ez dator bat eskualdeko nahiz Gipuzkoako Lurraldeko proportzioarekin, azken bi horietan 96 gizonezko 100 emakumezko baitaude.

5. taula. HONDARRIBIKO BIZTANLERIA, GENEROAREN ARABERA (2004)

	Emakumezkoak guztira	Gizonezkoak guztira	Gizonezkoak/ Emakumezkoak
Hondarribia	7.922	8.064	1,02
Bidasoa Txingudi	38.338	37.419	**0,98**

Iturria: Hondarribiko Udala

1.2.4 Hazkunde begetatiboa, migrazio-saldoa eta immigrazioa

Biztanle-kopuruaren bilakaeraren jatorriak bi dira: hazkunde begetatiboa eta migrazio-saldoa.

6. taula. Mugimendu begetatiboak Bidasoa-Txingudi eskualdean (2004)

	Jaiotzak	Heriotzak	Hazk. begetatiboa
Hondarribia	170	111	59
Bidasoa-Txingudi	**793**	**610**	**183**

Iturria: Hondarribiko Udala
Egilea: Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Bidasoa-Txingudi eskualdeko mugimendu begetatiboa positiboa izan da, 2003an baino 183 pertsona gehiago bizi baitira orain; Hondarribian, zehazki, 59 pertsonako hazkunde begetatiboa izan da, 2003/2004 aldian.

6. grafikoa. hondarribiko hazkunde begetatiboa, 1981-2004



Iturria: Hondarribiko Udala

7. grafikoa



Iturria: Hondarribiko Udala.

- Horri dagokionez, Hondarribiko jaiotze-tasa Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoa baino apur bat handiagoa da; heriotza-tasa, aldiz, txikiagoa da.

7. taula. JAIOTZE-TASA (x 1.000 bizt.) (2004)

	Jaiotza-tasa	Heriotza-tasa
Hondarribia	10,6	6,9
Gipuzkoa	9,2	8,8
EAE*	8,7	8,8

Iturria: Geuk egina. *2002ko datuak.

MIGRAZIO-MUGIMENDUAK

Azken hamarkadan, Bidasoa-Txingudi eskualdeko bi udalerrietako migrazio-saldoa positiboa izan da; zehazki, 2004. urtean, 753 pertsonakoa izan zen migrazio-saldoa.

8. taula. migrazio-mugimenduak bidasoa-txingudi eskualdean (2004)

		2003-2004
Hondarribia	Populazio-igoera	225
	Hazkunde begetatiboa	59
	Migrazio-saldoa	**166**
Irun	Populazio-igoera	701
	Hazkunde begetatiboa	124
	Migrazio-saldoa	**577**

Bidasoa-Txingudi	Populazio-igoera	926
	Hazkunde begetatiboa	183
	Migrazio-saldoa	**743**

Iturria: Irungo Udala eta Hondarribiko Udala

Atzerriko etorkinei dagokienez, Bidasoa-Txingudi eskualdean 2004an 3.164 etorkin zeudela azpimarratu behar da; **eskualdeko biztanleriaren %4,2**. Horietatik **599 Hondarribian bizi ziren**, eta erroldatutako biztanleriaren %3,7 osatzen zuten.

Hondarribian Europar Batasunetik kanpo dauden estatuetako biztanleak bizi dira, eta, horien artean, senegaldarrak (%12,5), perutarrak (11,8) eta kolonbiarrak (%9,3) dira nagusi.

9. taula. Erroldatuta dauden etorkin atzerritarren kopurua (2004)

Etorkinak	EB	% Pop. Guzt./saldoa	EB ez	% Pop. Guzt./saldoa	GUZTIZKOA	% Pop. Guzt./saldoa
Hondarribia	246	1,54	353	2,21	**599**	3,7
Bidasoa-Txingudi	1.063	1,4	2.101	2,77	**3.164**	4,2

Iturria: Irungo Udala eta Hondarribiko Udala
Egilea: Bidasoa activa Bidasoa bizirik

2003arekiko bilakaera positiboa izan da, eskualdean bizi diren erkidegoz kanpoko etorkinen populazioa %18,23 handitu baita; Hondarribian, berriz, %4,7ko hazkundea izan du.

Auzoen araberako banaketa dela-eta, etorkin-kopuru handiena Alde Zaharrean eta Akartegin bizi da (%16,2 eta %20,1, hurrenez hurren).

10. taula.
Etorkin atzerritarrak, eremuen arabera. Hondarribia, 2004

	Nº
1. sekzioa (Alde Zaharra)	%16,2
2. sekzioa (Puntal)	%4,0
3. sekzioa (Portua)	%10,2
4. sekzioa (Portutik kai-muturrera arte)	%6,7
5. sekzioa (Soroeta)	%9,2
6. sekzioa (Amute)	%6,5
7. sekzioa (Mendelu)	%7,8
8. sekzioa (Akartegi)	%20,1
9. sekzioa (Sokoa)	%9,4
10. sekzioa (Jaitzubia)	%4,3
11. sekzioa (Saindua)	%5,6
Guztira	**%100,0**

Iturria: Hondarribiko Udala

2006ko datuei erreparatuz, eskualdean erroldatuak dauden etorkin kopurua 4.358koa da. Kopuru honen %84a Iruni dagokio eta %16a Hondarribiari.

Etorkinak diren biztanleria, Hondarribiko biztanleria osoaren %4,6a da. Portzentaje hau eskualdeko bataz bestekoaren azpitik dago, hots, %5,7aren azpitik.

2005-2007 urteen bitartean egon den etorkinen kopuruaren igoera jarraian agertzen diren grafikoan eta tauletan ikus daiteke. Estatuko gainontzeko Autonomia Erkidegoetatik datozen herritarren kopurua ere 8. Grafikan jasotzen da:

8. Grafikoa

Inmigrazioaren bilakaera orokorra. 2005-2007



Iturria: Hondarribia udala. Estatistika arloa

11. Taula. 2006AN ETORKINAK ZIREN BIZTANLEAK

	HONDARRIBIA		BIDASOA BEHEA	
JATORRIA	**Biztanle kopurua**	**% / biztanleko**	**Biztanle kopurua**	**% / biztanleko**
Europa	343	2,1	1846	2,4
▪ UE-15	267	1,6	1.217	1,6
▪ UE-25	50	0,3	429	0,6

▪ Europa bestelakoak	26	0,2	200	0,3
Amerika	248	1,5	1.731	2,2
▪ Ipar Amerika	24	0,1	41	0,1
▪ Amerika Bestelakoak	224	1,4	1.690	2,2
Asia	25	0,2	186	0,2
Afrika	134	0,8	592	0,8
Besteak	1	0,0	3	0,0
Guztira	**751**	**4,6**	**4.358**	**5,7**

Datuak: Bidasoa Bizirik. 2007 Urteko memoria – Datu Sozioekonomikoak/Iturria: Irun eta Hondarribiako udaletxeak

Taulan ikus daitekeenez, bai Hondarribia eta bai eskualde mailan dauden etorkinen jatorria gehienbat Europa eta Amerika dira (batez ere Latinoamerika).

12. Taula. ETORKINAK DIREN BIZTANLEAK, JATORRIAREN ARABERA SAILKATUTA (2006)

	HONDARRIBIA		BIDASOA BEHEA	
JATORRIA	Biztanle kopurua	%/Etorkin bizt.	Biztanle kopurua	%/Etorkin bizt.
Frantzia	153	20,4	483	11,1
Portugal	33	4,4	473	10,9
Kolonbia	43	5,7	451	10,4
Maroko	47	6,3	308	7,1
Errumania	43	5,7	294	6,7
Ekuador	18	2,4	291	6,7
Brasil	19	2,5	269	6,2
Peru	45	6,0	188	4,3
Argentina	23	3,1	131	3,0
Txina	6	0,8	115	2,6
Ukraina	18	2,4	103	2,4
Algeria	7	0,9	87	2,0
Alemania	26	3,5	80	1,8
Senegal	67	8,9	77	1,8
Dominikar Errepublika	14	1,9	70	1,6
Besteak	189	25,1	938	21,5
Etorkinak Guztira	**751**	**100,00**	**4.358**	**100,00**

Datuak: Bidasoa Bizirik. 2007 Urteko memoria – Datu Sozioekonomikoak/Iturria: Irun eta Hondarribiako udaletxeak

Taulan agertzen diren datuei erreparatuz, Hondarribian bizi diren etorkinen jatorriak batik bat Frantzia (%20,4), Senegal (%8,9), Maroko (%6,3), Peru (%6), Errumania (%5,7) eta Kolonbia (%5,7) dira.

Etorkin kopurua azken urteetan handituz joan da, bereziki azken 6 urteotan. Hondarribian erroldaturik dauden etorkinen goranzkoa %15a izan da 2005 eta 2006 urteen artean. Eskualdean berriz, goranzkoa %11 izan da, beraz, Hondarribia eskualdeko bataz bestekoaren gainetik kokatzen da.

Taulan azaltzen diren datuez gain, etxebizitza eta etorkinei buruzko ondorengo datuak aipa daitezke:

Atzerritar kopurua, honako adin segmentuei erreparatuz:

23 eta 35 urte bitartekoak:	189
36 eta 55 urte bitartekoak:	149

- Atzerritarren datuak direla eta Europakoak ez diren herri guztiak hartu dira kontuan (Ameriketako Estatu Batukoak izan ezik)
- Europako herrien artean Bulgaria, Errumania, Portugal eta Polonia hartu dira kontuan.
- Herri horietako atzerritar gehienak alokairuan bizi dira.

Erroldaturik ez dauden etorkinen inguruko daturik ez dago. Beraz, alderdi honi buruzko datu falta dagoela ondoriozta daiteke.

1.2.5 Ikasketa maila eta euskara

- **BIZTANLEEN IKASKETA-MAILA OROKORRA**

2001eko Erroldako datuen arabera, alde nabarmenak hauteman daitezke Hondarribiko biztanleriaren eta Gipuzkoako lurralde historikoko eta EAEko biztanleriaren ikasketa-mailen artean. Izan ere, Gipuzkoan eta EAEn, analfabetoen eta ikasketa-gabeko pertsonen kopurua biztanleria osoaren %5 da; Hondarribian, berriz, ehuneko horrek behera egiten du, zehazki, %1,5era jaitsi arte. Era berean, erdi eta goi-mailako eta goi-mailako ikasketak dituen

biztanleriaren ehunekoa %20 da EAEn eta Gipuzkoan, eta Hondarribian, ostera, altuagoa: %26,2.

9. grafikoa.
10 urtetik gorako biztanleria ikasketa-mailaren arabera banatzean izandako bilakaera (2001)



Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta

- **HEZKUNTZA-ESKAERA**

Hezkuntza-eskaerari dagokionez, 03-04 ikasturtean, irakaskuntza ez unibertsitarioan matrikulatuta zegoen ikasle-kopurua 2.192ra igo zela azpimarratu behar da. Datu horiek 99/00 ikasturteari zegozkienekin alderatuz gero, matrikulazio-kopuruak apur bat gora egin zuela ikus daiteke, nahiz eta haur-hezkuntzan eta lehen-hezkuntzan hazkunde hori nabarmena izan (+%26,3 eta +%15,2, hurrenez hurren). Era berean, bitarteko hezkuntza-

mailetan (DBH, Batxilergoa eta LH) izandako ikasle-jaitsiera ere azpimarratu behar da.

13. taula.
Hondarribian matrikulatutako ikasleen bilakaera, mailaren eta titulartasunaren arabera. 99/00 eta 03/04 ikasturteak

	Ikasturteak		Ald. %
	1999/2000	2003/2004	
Haur Hezkuntza	517	653	26,3
Lehen Hezkuntza	739	851	15,2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	543	530	-2,4
LOGSE Batxilergoa	241	134	-44,4
Lanbide Heziketa	64	24	-62,5
Guztira	**2.104**	**2.192**	**4,2**

Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta

Oharra: Udal-iturrien arabera, egun hezkuntza berezia nahiz HHE daude. HHEn 10 ikasle izaten dira urtean, batez beste; ikasturte honetan, ordea, Senegaldik etorritako beste 25 pertsona gehitu behar dira.

Egun, datu zehatzagoak daudenez, ondorengo taulan jasotzen da 2007-2008 ikasturtean udalerriko hezkuntza zentroetako eskaintzari buruzko informazioa:

14. Taula. Hondarribiko hezkuntza eskaintza (2007-2008)

IKASTETXEA	ESKAINTZA	HIZKUNTZA EREDUA	ERLIJIO EREDUA	IKASLE KOPURUA
IES TALAIA BHI (Eskola Publikoa)	• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (276 ikasle) • Batxilergoa (89 ikasle) • Erdi zikloko moduloa (18 ikasle)	D eredua	LAIKOA	383
CEP TALAIA LHI (Eskola Publikoa)	• Haur hezkuntza (363 ikasle) • Lehen hezkuntza (498 ikasle)	D eredua	LAIKOA	861
CPEIPS AMA GUADALUPEKOA HLBHIP (Ikastetxe	• Haur hezkuntza (190 ikasle) • Lehen hezkuntza	Haur hezkuntzan B eta D eredua, eta gainontzeko eskaintzan B eredua,	KRISTAUA	793

Pribatua eta hitzartua)	(302 ikasle) • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (211 ikasle) • Batxilergoa (90 ikasle)	Batxilergoa izan ezik (A eredua)		
CPEIPS SAN JOSÉ HLBHIP – HIJAS DE LA CRUZ (Ikastetxe Pribatua)	• Haur Hezkuntza (112 ikasle) • Lehen Hezkuntza (152 ikasle) • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (72 ikasle)	Haurtzaindegian eta Haur Hezkuntzan: D eredua, eta "B indartua" beste etapetan	KRISTAUA	336

Iturria: www.hondarribia.org /www.talaiabhi.net/ www.amaguadalupekoa.net/ www3.planalfa.es/hondarribicruz/ www.euskalnet.net/talaiahh

15. Taula. Hondarribiko eskoletako matrikulazioak (2006-2007 ikasturtea)

Eskaintza	**Publikoa**	**Pribatua**	**Guztira**
Haur Hezkuntza/Lehen Hezkuntza/Bigarren Hezkuntza	1.088	1.060	2.148
Batxilergoa	68	78	146
C.F.G.M. (2)/L.R.P.	19	-	19
C.F.G.S. (3)	-	-	-
Besterik	-	-	-
Guztira	**1.175**	**1.138**	**2.313**

(1) Haurtzaindegia eta 2 urteko gelak barne; (2) Erdi mailako Lan Hezkuntza; (3) Goi mailako Lan Hezkuntza

Iturria: Bidasoa Bizirik. 2006 Urteko Memoria – Datu Sozioekonomikoak

Etorkizuneko hezkuntza ekipamenduei dagokionez, 2007ko apirilaren 1ean entregatu zen Udaletxean haurtzaindegi berriaren proiektua. Egin behar izan diren aldaketak direla bide (lurrazpiko aparkalekua barne), aurrekontua 1,4 miloi euro izatetik 2,1 miloi eurotara igaro da. Proposamena onartua izan zen udal plenoan, Branka taldearen aurkako bozka jasoz.

Faroko igoeran hasi eta eskuinean dagoen berdegunean egingo da, Loraitz etxebizitzen aurrez aurre. Haurtzaindegi berria 2010 urte hasierarako martxan izango da eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat 108 plaza egongo dira. Lanak 2008ko maiatza edo ekainean hasiko dira eta haurtzaindegia 2010 urte

hasierarako amaituta egotea espero da. Haurreskola partzuergoaren bornean sartuko da. Loraitzeko haurtzaindegiaren aurrekontua 2,17 milioi €koa da. Azalera 2.138 metro karratukoa izango da, beheko solairuan 1.159 metro, 65 metro gehiago bulegoak egiteko lehen solairuan eta beste 914 metro garaje bat egiteko. Bertan, 30 edo 35 autorentzat tokia izango du langile eta gurasoek erabiltzeko.

- **EUSKARA**

Hondarribian **Gipuzkoan eta EAEn baino askoz ere handiagoa da euskaldunen ehunekoa**: zehazki, **%60,5**; horrek, **ordea, ez du adierazi nahi** eguneroko bizitzako hainbat eremutan **hizkuntza normaltasunez erabiltzen denik**. Hau da, Hondarribiko biztanleriaren %28,6k euskara etxean hitz egiteko soilik erabiltzen du.

16. taula.
2 urtetik gorako biztanleria, euskara-maila orokorraren arabera (2001)

		1996	2001
Hondarribia	-Euskaldunak	%60,5	%60,5
	-Ia euskaldunak	%18,9	%18,5
	-Erdaldunak	%20,7	%21,0
BIDASOA TXINGUDI	-Euskaldunak	%35,5	%38,3
	-Ia euskaldunak	%17,7	%18,3
	-Erdaldunak	%46,8	%43,4
Gipuzkoa	-Euskaldunak	%49,7	%51,5
	-Ia euskaldunak	%18,0	%19,7
	-Erdaldunak	%32,3	%28,9
EAE	-Euskaldunak	%30,9	%32,3
	-Ia euskaldunak	%19,7	%23,1
	-Erdaldunak	%49,4	%44,6

Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta

Irakaskuntza ez unibertsitarioko erregimen orokorrean euskarak duen erabilera-mailaren ikuspegitik, ikasleen erdia baino gehiago D[1] ereduan matrikulatu zen, 03/04 ikasturtean, eta ikasleen ia %46 B[2] ereduan. %3,2k soilik hautatu zuen A[3] eredua.

[1] D eredua: irakasgai guztiak euskaraz ematen dira, gaztelania izan ezik.
[2] B eredua: hezkuntza-eredu elebiduna ematen da, irakasgaiak gaztelaniaz eta euskaraz irakatsiz.
[3] A eredua: irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira, euskara irakasgaia izan ezik.

Bestalde, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza oinarri hartuta, ez da inor matrikulatu A eta X[4] ereduetan; D eredua, berriz, matrikulatutakoen %52k hautatu du. Azkenik, gainerako %48 B ereduan matrikulatu da.

Gainerako mailetan, D eta B ereduko matrikulazioak dira nagusi, ikasleen %51 eta %46 dute, hurrenez hurren. A ereduko matrikulazioak, beraz, gutxiengoa dira: %3.

10. grafikoa.
Irakaskuntza ez unibertsitarioen erregimen orokorreko ikasleak, irakastereduen arabera. Hondarribia



Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta

Dena den, irakastereduek ere ez dute bermatzen harreman pertsonaletan euskara normaltasunez erabiltzea. Udalak 2002an egindako ikerketa baten arabera, **12-17 urte bitarteko gazteen %25ek soilik erabiltzen du euskara hizkuntza nagusitzat lagunekin dituen harremanetan; familia-harremanetan, berriz, ehuneko horrek gora egiten du, %33,6ra iritsi arte**.

[4] X eredua: irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira, eta euskara ez da irakasten.

17. taula.
Hizkuntza nagusia familia arteko harremanetan. 12-17 urteko gazteak.
Hondarribia, 2002

	Sexua		Adina			Guztira
	Giz.	Emak.	12-13 urte	14-15	16-17	
Euskaraz bakarrik edo batez ere euskaraz	16,7	15,9	15,9	15,1	17,9	16,3
Euskaraz, erdaraz baino gehiago	18,5	15,9	21,9	14,1	16,8	17,3
Euskaraz eta erdaraz	23,5	20,8	26,5	28,1	13,2	22,2
Erdaraz, euskaraz baino gehiago	18,1	20	12,6	14,1	28,9	19
Erdaraz bakarrik edo batez ere erdaraz	22,8	26,9	22,5	28,1	23,2	24,7
Ed/Ee	0,4	0,4	0,7	0,5	-	0,4

Iturria: Hondarribiko Udala

18. taula.
Hizkuntza nagusia lagun arteko harremanetan. 12-17 urteko gazteak.
Hondarribia, 2002

	Sexua		Adina			Guztira
	Giz.	Emak.	12-13 urte	14-15	16-17	
Euskaraz bakarrik edo batez ere euskaraz	9,6	9,8	8,6	7,6	12,6	9,7
Euskaraz, erdaraz baino gehiago	18,9	11	22,5	6,5	17,9	15,2
Euskaraz eta erdaraz	18,9	17,1	23,8	20,5	11,1	18,1
Erdaraz, euskaraz baino gehiago	33,8	35,5	21,9	35,1	44,2	34,6
Erdaraz bakarrik edo batez ere erdaraz	18,5	25,3	22,5	29,2	13,7	21,7
Ed/Ee	0,4	1,2	0,7	1,1	0,5	0,8

Iturria: Hondarribiko Udala

Euskara biziberritzeko plana

Hondarribiko Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra egiteko konpromisoa hartu zuen 2004ko martxoaren 23an. Hala, 2004ko ekainaren 21ean Euskararen Aholku Batzordea sortu zen, eta 2004ko abenduaren 23an 2005-2008 Plan Estrategikoa eta 2005erako Kudeaketa Plana onartu ziren.

Planaren helburu nagusia *hizkuntza-politikan beharrezko neurriak hartzea eta sustatzea da, hala nahi duenak euskaraz bizitzea bermaturik izan dezan. Azken batean, euskararen aldeko ekintzak indartzea da, Euskal Herrian euskara erabiltzea guztiz normala izan dadin, bai eremu pertsonalean, bai gizarte-eremuan eta baita eremu ofizialean ere.*

Aipatutako Aholku Batzordeaz gain, beste hainbat erakunde daude Hondarribian euskararen erabilera sustatzeko diseinatuta. Horietako batzuk Udalak sortuak dira, eta beste batzuk Mugaz Gaindiko Partzuergoak sortuak:

- Euskararen Aholku Batzordea (Udala):

  Batzorde hori hainbat elkarte, talde eta ikastetxetako eta Udal Euskaltegiko ordezkariek osatzen dute, eta, horiez gain, euskara-zinegotzia eta euskara-teknikaria daude.

  Urtean, bilera orokor bat edo bi egiten dituzte. Parte hartzen duten ordezkari horietatik, ikastetxeetakoak eta Euskaltegikoak dira dinamikoenak.

- Euskara Batzordea (Udala):

  Euskara Batzordea udal-zinegotziek osatzen dute, eta, bertan, udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako zinegotziek har dezakete parte. Euskara Batzordearen bileretan, Aholku Batzordeak edo beste erakunde edo pertsona batek egindako proposamenak aztertzen dituzte.

  Informazio-batzorde bat da, eta bertan proposamenak egin eta Udalbatzak, Tokiko Gobernu Batzordeak edo Alkatetzak erabakitzen ditu.

- Euskara Zerbitzua (Udala):

  Euskara Zerbitzuaren zeregina euskara sustatzeko batzordeetan erabakitzen dituzten ekintzak aurrera eramatea da (esaterako, euskara merkataritzan sustatzeko kanpaina). Halaber, Hondarribiko biztanleei hizkuntza-aholkularitzako zerbitzua eskaintzen die, eta, horrez gain, euskarari buruzko ordenantzak betearazteaz arduratzen da.

  Udaleko euskara sailak garatzen dituen ekintzekin amaitzeko, aipatu beharra dago udalak eguneroko lana aurrera eramateko dituen tresna informatikoa guztia (ordenagailuetako lanerako tresnak) euskaraz ere ezartzea aurreikusten dela.

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak ere eskualdean euskara sustatzea du helburuetako bat. Horregatik, 2003an, **Euskararen Lan**

Batzordea sortu zuten, eta horren lehen proiektua **Bertso Eskola** bat sortzea izan zen (2003). Horrez gain, **Gelaz Gela** proiektua ere garatu zuten, Bertso Eskolarekin lotuta; proiektu horren bidez, bertsolaritza ezagutarazi nahi zaie ikasleei. Horretarako, eskualdeko bertsolarien laguntza izaten dute; izan ere, gelaz gela joaten dira, gazteei bertsolaritzaren hastapenak irakatsiz eta, agian, zaletasuna sortuz, eta Bertso Eskolan parte hartzera animatuz.

Bestalde, Partzuergoak Euskaraz egin daitezkeen **Aisialdi-jardueren Gida** argitaratu du. Gida horretan, jarduerak Euskaraz egiten dituzten eskualdeko elkarte guztiak bildu dira.

Azkenik, **Badian Euskaraz** web orria dago; bertan, gazteentzako informazio erabilgarria biltzeaz gain, foro bat eta jokoak eta lehiaketak egiteko lekua daude. Web orri horrek Euskaraz hitz egin eta bizi nahi duen herritarren beharrak asebetetzen ditu, joko horien bidez gazteen artean euskararen erabilera indartzeaz gain.

1.2.6 Demografia-azterketa: ondorioak eta iraunkortasunaren ikuspegitik egin daitezkeen ekarpen nagusiak

Hondarribiak 28,8 km^2-ko azalera du, gutxi gorabehera, eta, 2007an, **16.364 biztanle** bizi ziren bertan; ondorioz, bertako populazio-dentsitatea altu samarra da (568,2 biz./km^2), Gipuzkoako lurralde historikoarekin alderatuta (340,1 biz/Km^2, 2001ean).

Auzoka aztertuz gero, 2006 urteko datuak ditugula aintzat hartuz, populazioa Akartegi eta Gornutz auzoetan pilatzen dira (%16), Soroeta eta ingurua (%10,4), Mendelu (%10), Portua (%9,4) eta Alde Zaharra (%9,1). Bestalde, populazio gutxien duten auzoak Jaitzubia, Gibeleta eta Zubieta (%5,2) dira, La Marina eta hondartzako espigoiaren artean dagoen zonaldearekin batera.

Esan beharra dago Mendelu dela gehien hazi den auzoa, %7 inguru 2005eko datuekin alderatuz gero. Honekin batera, itsasargiaren eta Guadaluperen zonaldea ere %3,5a hazi dira. Bestalde, Puntala eta inguruaren eta Soroeta eta inguruaren populazioak behera egin du (%1 inguru bi zonaldeetan).

Hondarribiko eta eskualdeko demografia-jokabidea inguruko udalerri gehienekiko bereizten duen ezaugarria biztanleriaren etengabeko hazkundea da. Zehazki, **2001-2004 aldian, Hondarribia 40ko hamarkadatik egin izan duen erritmo berdintsuan hazi da**: +%15, hamarkada bakoitzean.

Hori dela-eta, Hondarribia izan da, Irun eta Zarautzekin batera, 2000-2004 aldian biztanlerian hazkunde gehien izan duen 10.000 biztanletik gorako udalerria, Gipuzkoan. **2001-2007 epealdian Hondarribia 8,60%ko ehunekoan hazi da.**

Biztanleria adin-taldeka banatuz ikus daitekeenez, Hondarribia ez da Gipuzkoako lurralde historikoko gainerako udalerriak bezain zaharra. Dena den, azken 25 urteetan, 65 urtetik gorako biztanleak %50 ugaldu dira (Gipuzkoan, %73) eta 19 urtetik beherakoak, berriz, erdira gutxitu dira ia-ia (Gipuzkoan %47). Beraz, **biztanleriaren zahartzea** agerikoa da.

Biztanle-kopuruaren bilakaeraren jatorriak bi dira: **hazkunde begetatiboa eta migrazio-saldoa**. Lehengoari dagokionez, urtetik urtera joera positiboari eutsi dio, batez ere, 2001etik. Horri dagokionez, Hondarribiko jaiotze-tasa Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoa baino apur bat handiagoa da; heriotza-tasa, aldiz, txikiagoa da.

Migrazio-mugimenduei dagokienez, 2004an, 599 etorkin atzerritar bizi ziren Hondarribian; zehazki, erroldatutako biztanleriaren %3,7. Auzoka banatuz gero, etorkin atzerritar gehienak Alde Zaharrean eta Akartegin zeuden; %16,2 eta %20,1, hurrenez hurren. Datu eguneratuak kontutan hartzen baditugu, 2007 urtean 825 etorkin zeuden erroldatuta Hondarribian, zehazki, biztanleri osoaren %5.

Hondarribiko **biztanleriaren ikasketa-mailei** dagokienez, biztanleen %1,5 analfabetoa eta ikasketarik gabea da; aldiz, Gipuzkoan eta EAEn, ehuneko horrek gora egin eta %5era iristen da. Era berean, biztanleriaren %20k ditu goi-erdi mailako eta goi mailako ikasketak EAEn eta Gipuzkoan; Hondarribian, ordea, biztanleen %26,2k ditu ikasketa horiek.

Hezkuntza-eskaerari dagokionez, 07-08 ikasturtean, irakaskuntza ez unibertsitarioan matrikulatuta zegoen ikasle-kopurua 2.737ra igo zela azpimarratu behar da. Datu horiek 99/00 ikasturteari zegozkienekin alderatuz gero, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan matrikulazio-kopurua nabarmen igo zela ikus daiteke (1999/2000 ikarturtean 2.104 matrikulazio egon ziren). Beraz, 2007/2008 ikasturtean %12,78ko igoera eman zen matrikulazioetan (1999/2000 ikasturtearekiko).

Hondarribian **Gipuzkoako lurralde historikoan eta EAEn baino askoz ere handiagoa da euskaldunen ehunekoa**: zehazki, **%60,5**; horrek, **ordea,**

ez du adierazi nahi eguneroko bizitzako hainbat eremutan **hizkuntza normaltasunez erabiltzen denik**.

Irakaskuntza ez unibertsitarioetako erregimen orokorrean euskarak duen erabilera-mailaren ikuspegitik, Haur eta Lehen Hezkuntzan ez dago inor A eta X irakastereduetan matrikulatuta; D eredua, berriz, ikasleen %52k hautatzen du eta B eredua %48k. Dena den, irakastereduek ere ez dute bermatzen harreman pertsonaletan euskara normal erabiltzea. Hain zuzen, **12-17 urte bitarteko gazteen %25ek soilik erabiltzen du euskara hizkuntza nagusitzat lagunekin dituen harremanetan; familia-harremanetan, berriz, ehuneko horrek gora egiten du, %33,6ra iritsi arte.**

1.3 Ekonomia-azterketa

1.3.1 Lan-merkatua eta batez besteko errentak

- **BIZTANLERIA AKTIBOA**

Hondarribiko **biztanleria aktiboa** biztanleria osoaren %47,8 zen 2001ean; kopuru hori, hain zuzen, Gipuzkoako lurralde historikoko aktibo guztien %2,2 zen (biztanleria-pisuaren antzeko ehunekoa).

19. taula. Hondarribiko biztanleria, jardueraren arabera. (2001)

	Guztira	Aktiboak LANE					Ez aktiboak LANE
		Guztira	Landunak LANE	Langabeak LANE			
				Guztira	Lehen lana	Lan eginak	
Hondarribia	15.044	%47,8	%44,1	%3,7	%0,7	%3,0	%52,2
BIDASOA TXINGUDI	71.645	%48,3	%43,6	%4,7	%0,6	%4,1	%51,7
Gipuzkoa	673.563	%48,0	%43,3	%4,7	%0,9	%3,8	%52,0
EAE	2.082.587	%46,9	%41,4	%5,4	%1,2	%4,2	%53,1

Iturria: EUSTAT

Jarduera-tasa %47,8 izan zen 2001ean; kopuru hori, zehazki, eskualdeko jarduera-tasa baino txikiagoa zen (%48,3), baina EAEkoa baino handiagoa (%46,9).

11. grafikoa. Jarduera-tasen bilakaera (1986-2001)



Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta

Sexuaren araberako jarduera-tasei dagokienez, emakumezkoa etengabe lan-merkatuan sartzeak igoera handiak eragin zituen 1991-2001 aldian (%30etik %39,6ra, zehazki). Bien bitartean, gizonezkoen jarduera-tasa %55en inguruan egon da, denbora-tarte horretan guztian.

• OKUPAZIOA

Hondarribiko **biztanleria landuna eta egoiliarra** 6.640 pertsonak osatzen zuten, 2001ean. Kopuru horrek adierazten duenez, %32,4ko igoera gertatu zen 1991n zegoen landunen kopuruarekiko; igoera hori, gainera, **Gipuzkoako lurralde historikoan izandakoa** (%24,1) **baino askoz ere handiagoa izan zen**.

Sektoreen arabera banatuta, **Zerbitzuak** sektorea zen nagusi 2001ean, %66,3 betetzen zuen; atzetik, berriz, industria (%20,6) eta lehen sektorea zituen (%7). Horri lotuta, Hondarribian badira azpimarratu beharreko beste hainbat elementu ere; besteak beste:

- Biztanleria landun eta egoiliarraren bilakaerak zerbitzuak sektorerako joera orokorra erakusten du. Hala, 1996-2001 aldian, zerbitzuetan lan egiten zuten pertsonen ehunekoa lau puntu igo zen.
- 2001. urtean, **lehen sektorean** lan egiten zuen biztanleriaren ehunekoa (%7) **ia lau aldiz handiagoa zen** Hondarribian **Gipuzkoan eta EAEn baino** (%1,7 eta %1,8, hurrenez hurren). Hori, funtsean, arrantzak zuen

garrantzian oinarritzen zen, Hondarribiko biztanleria landunaren %5,6k jarduera horretan egiten baitzuen lan.

20. taula. Biztanleria landuna, jarduera-motaren arabera (2001)

	Lehen Sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Hondarribia	%7	%20,6	%6,1	%66,3
BIDASOA-TXINGUDI	**%2,3**	**%21,7**	**%9,8**	**%66,1**
Gipuzkoa	**%1,7**	**%31,5**	**%8,2**	**%58,5**
EAE	**%1,8**	**%27,5**	**%8,7**	**%62,1**

Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta

Biztanleria landunaren bilakaera sektoreka banatu ondoren ikus daitekeenez, 1996-2001 aldian, okupazioan izandako hazkundeak nabarmenagoak izan ziren zerbitzuekin (+%32,5) eta eraikuntzarekin (+%60) lotutako jardueretan.

Era berean, azpimarratu beharra dago aldi horretan bi jarduerak soilik galdu zutela landun-kopurua: alde batetik, arrantzak eta akuikulturak, eta bestetik, energia elektrikoaren, gasaren eta uraren ekoizpenak eta banaketak.

21. taula.
Hondarribiko biztanleria landunaren bilakaera, jarduera-motaren arabera (1996-2001)

	1996	2001	1996 %	2001 %	Ald. % 96-01	Hazkunde-ekarpena
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basogintza	83	92	%1,56	%1,39	10,84	%0,7
Arrantza, akuikultura	472	371	%8,86	%5,59	-21,40	-%7,7
Lehen Sektorea	**555**	**463**	**%10,42**	**%6,97**	**-16,58**	**-%7,0**
Erauzketa-industriak	7	8	%0,13	%0,12	14,29	%0,1
Manufaktura-industriak	1.121	1.308	%21,05	%19,70	16,68	%14,2
Energia elektrikoaaren, gasaren eta uraren ekoizpena eta banaketa	64	52	%1,20	%0,78	-18,75	-%0,9
Industria-sektorea	**1.192**	**1.368**	**%22,38**	**%20,60**	**14,77**	**%13,4**
Eraikuntza	**254**	**406**	**%4,77**	**%6,11**	**59,84**	**%11,6**
Merkataritza eta konponketa	687	929	%12,90	%13,99	35,23	%18,4
Ostalaritza	311	412	%5,84	%6,20	32,48	%7,7
Garraioa, bilgegiratzea eta komunikazioak	468	587	%8,79	%8,84	25,43	%9,0
Finantza-bitartekaritza	163	180	%3,06	%2,71	10,43	%1,3

Alokairua, higiezinak eta enpresentzako zerbitzuak	321	489	%6,03	%7,36	52,34	%12,8
Administrazio publikoa	305	382	%5,73	%5,75	25,25	%5,9
Hezkuntza	519	622	%9,75	%9,37	19,85	%7,8
Osasun- eta albaitaritza-jarduerak; gizarte-zerbitzuak	300	437	%5,63	%6,58	45,67	%10,4
Bestelako gizarte-jarduerak eta zerbitzu pertsonalak	219	263	%4,11	%3,96	20,09	%3,3
Etxean lan egiteko pertsonak hartzen dituzten etxeak	30	100	%0,56	%1,51	233,33	%5,3
Lurraldeaz gaindiko erakundeak	1	2	%0,02	%0,03	100,00	%0,1
Zerbitzuak-sektorea	**3.324**	**4.403**	**%62,42**	**%66,31**	**32,46**	**%82,1**
Guztira	**5.325**	**6.640**	**%100,00**	**%100,00**	**24,69**	**%100,0**

Iturria: Eustat

12. grafikoa
Hondarribiko biztanleria landunaren bilakaera, sektoreen arabera (1996-2001)



Iturria: Eustat

Lan kontratu mugagabeei dagokionez, 2005 urtean erregistratutako kontratu mugagabeak biztanleen ‰205,10 izan zen. Sexuaren eta adinaren arabera sailkatuz gero, datuak honakoak dira:

22. Taula. Adina eta sexuaren araberako kontratu mugagabeak (2005)

	Kontratu mugagabe guztien %
Emakumeak	38,41
< 30 urte	35,87
> 45 urte	22,83

Iturria: Udalmap – Ogasun eta Herri Administrazio Saila- sistemako datuak, Bidasoa bizirik agentziak erratutakoak

Bestalde, autoenpleguaren datuei erreparatuz gero (autonomoak diren langileak) Hondarribian 2007ko abenduaren 31ko data aintzat hartuz, 1.544 pertsona autonomo zeuden. Hala ere, ez dago sektoreka banatutako daturik autonomoei dagokionez.

Udalak sortzen duen enplegu eskaintzari dagokionez, honako taulan jasotzen dira udaletxeko lanpostuei buruzko informazioa:

23 Taula. Udaletxeko lanpostuak

	KARRERAKO FUNTZIONARIOAK	FUNTZIONARIO INTERINOAK	KONTRATU MUGAGABEKO LANGILEAK	KONTRATU MUGATUKO LANGILEAK	GUZTIRA
LANGILE KOPURUA	64	15	0	27	106

Iturria: Hondarribiko udala (2005-12-31ko datuak)

Lanbideen araberako azterketa eta lan-egoera

Lanbideen araberako azterketak erakusten duenez, langile kualifikatuak (%18), merkatari eta tabernariak (%16) eta laguntza-teknikariak (%13) dira biztanleria landun gehien duten taldeak, Bidasoa Txingudin.

Hondarribian, landunen ehuneko altuena teknikari profesionalek dute (%16,58) eta, horien atzetik daude laguntza-teknikariak (%15,2) eta merkatari eta tabernariak (%14,22).

24. taula. Biztanleria landuna, lanbideen arabera (2001)

	Hondarribia		Gipuzkoa		EAE	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Zuzendari kudeatzailea	733	11,04	19.493	6,68	64.016	7,42
Teknikari gaitua	1.101	16,58	37.445	12,84	53.213	13,77
Laguntza-teknikaria	1.009	15,2	36.731	12,6	46.686	13,01
Administrazio-langilea	579	8,72	26.161	8,97	16.973	9,57
Merkataria, tabernaria	944	14,22	43.766	15,01	60.574	14,62
Nekazaria, Arrantzalea	420	6,33	4.067	1,39	12.094	1,4
Langile kualifikatua	888	13,37	55.723	19,11	24.619	18,05
Makina-operadorea	552	8,31	44.052	15,11	47.586	13,12
Langile ez kualifikatua	409	6,16	23.797	8,16	11.233	8,9
Indar Armatuak	5	0,08	371	0,13	1.125	0,13
Guztira	**6.640**	**100%**	**291.606**	**100%**	**862.407**	**100%**

Iturria: EUSTAT

Gipuzkoako eta EAEko kopuruekin alderatuz, bi gauza ikus daitezke: alde batetik, gerentzia- eta teknikari-postuetan lan egiten duten biztanleen ehunekoa altuagoa da, bai eta lehen sektorekoa ere, arrantzaren eraginez; eta bestetik, kualifikazio gabeko langileen eta makina-operadoreen ehunekoa txikiagoa da.

Jarraian jasotzen dira Gizarte SegurantzaN izena emanda dauden pertsona kopurua.

25. Taula. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN PERTSONAK HONDARRIBIAN (2007), ERREGIMENAREN ARABERA

OROKORRA	AUTONOMOAK	ETXEKO LANGILEAK	NEKAZARITZA	IKATZA	ITSASOA	GUZTIRA
2.493	1.544	158	48	0	124	4.367

Iturria: Bidasoa bizirik.

- **LANGABEZIA**

2005eko abenduan, 559 pertsonak zuten izena emanda, EINeko bulegoetan, eta, beraz, langabezia-tasa %7,77koa zen, EAEkoa baino baxuagoa (%8,55) eta Gipuzkoakoa baino apur bat handiagoa (%7,55).

26. taula. Langabe-kopurua EINen

2004ko abendua		2005eko abendua		04/05 aldakuntza	
Ald. abs.	Tasa	Ald. abs.	Tasa	Ald. abs.	%

Irun	2.347	8,57	3.000	10,95	653	%27,82
Hondarribia	**452**	**6,29**	**559**	**7,77**	**107**	**%23,67**
Bidasoa-Txingudi	2.799	8,09	3.559	10,29	760	%27,15
Gipuzkoa	20.248	6,27	24.401	7,55	4.153	%20,51
C.A.P.V	71.622	7,34	83.390	8,55	11.768	%16,43

Iturria: EIN

Egilea: Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Aurkeztutako estatistiketan kontuan izan behar da arrantzaleak lehorrean egon ohi direla urritik otsailera/martxora arte; beraz, EINeko bulegoetan izena emanda duten pertsonen kopuruak gora egiten du, arrantza gelditzen den aldi horretan.

13. grafikoa. Langabezia-bilakaera Bidasoa-Txingudi eskualdean (1995-2005)



Iturria: EIN

Egilea: Bidasoa activa Bidasoa bizirik

2005eko maiatzetik aurrera, beste metodologia bat jarri zen martxan (SISPE), eta horrek eragin egin zion, apur bat, erregistratutako pertsona langabeen kalkuluari. Gertaera horrek aurreko grafikoan azaldu den hazkunde garrantzitsuan eragin zuen, aipatutako datatik aurrera.

Adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta, Hondarribiko langabeen %60,6 emakumezkoak eta gainerako %39,4 gizonezkoak direla adierazi behar da. Adinari dagokionez, langabe gizonezkoen kopuru handiena 25-34 urte bitarteko adin-taldean dago; horiek, hain zuzen, langabezian dauden gizonezko guztien %30 dira. Halaber, langabezian dauden emakumezkoen kopuru handiena 45-54 urte bitarteko adin-taldean dago (%28).

14. grafikoa. Hondarribiko langabeak, adin-taldeen eta sexuaren arabera (2003-2004)



Iturria: EIN; Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Langabeak ikasketa-mailaren arabera banatuz ikus daitekeenez, eskualdeko langabeen kopuru garrantzitsu batek (%45ek) bigarren hezkuntzako lehenengo etapako ikasketak ditu.

15. grafikoa. Hondarribiko langabeak, ikasketa-mailaren arabera. 2005



Iturria: EIN; Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Jarduera-motaren arabera, Hondarribiko EINn izena emanda duten 559 langabeetatik 404k (%72) zerbitzuak sektorean egiten zuen lan, lehen, eta 87k (%16) industrian.

16. grafikoa. Hondarribiko langabeak, ekonomia-jardueraren arabera (2005)



Iturria: EIN; Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Azkenik, bakoitzaren **lanbide-taldeari** dagokionez, Hondarribiko langabeen %21,29 kualifikazio gabeko langileak dira, eta, atzetik, administrazio-langileak daude (%18,78).

17. grafikoa. Hondarribiko langabeak, lanbide-taldeen arabera (2005)



Iturria: EIN; Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Langabezian dagoen biztanleria aztertu ondoren, Hondarribiko langabeen profilaren erradiografia egin da; honako hau, hain zuzen: emakumezkoa, 30-39 urte bitartekoa, Bigarren Hezkuntzako lehenengo maila arteko ikasketak dituena, zerbitzuetan lan egina eta kualifikazio gabeko langileen taldekoa.

27. taula. Hondarribiko langabeen profila (2005) %

Sexua: Emakumezkoa	(%61)
Adina: 45-54 urte	(%28)
Ikasketa-maila: Bigarren Hezkuntzako lehen etapa	(%46)
Ekonomia-jarduera: zerbitzuak	(%72)
Lan-taldea: langile ez kualifikatuak	(%21)

Iturria: EIN
Egilea: Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Enpleguak kezka handia sortzen du Hondarribian. Hori argi gertatu zen **Herritarren Hautemate-inkestan** lortutako emaitzetan; inkesta hori, zehazki, 2005eko irailean eta urrian egin zuten. Herritarrei hainbat galdera egin zitzaizkien, alderdi zehatz batzuetan oro har zuten asebetetze-maila jakiteko, eta, jasotako erantzunen arabera, "lan-aukerak" eta horien "kalitatea" baloratzen dituzte gutxien.

28. taula. Asebetetze-maila orokorra (1-4 eskala)

Udalerriko inguru naturalaren kalitatea.	3,4
Natura-eremuen kopurua (berdeguneak, ibaiak...)	3,3
Eraikitako eremuen kalitatea (kaleak...) Garbiketa, egoera eta irudia	3,2
Zaletasunak gauzatzeko aukerak	3,2
Udalerriko segurtasun-maila	3,1
Gizarte-zerbitzuen eta zerb. sanitarioen hornidura eta kalitatea	3,0
Kultura-, kirol- eta aisialdi-zerbitzuen hornidura eta kalitatea	3,0
Hezkuntza-ekipamenduen hornidura eta hezkuntza-kalitatea	3,0
Ingurumen-zaratarен maila	2,9
Etxeb. lortzeko aukera eta horien kalitatea	2,3
Enplegu-kalitatea	2,2
Hiriari eragiten dioten erabaki-hartzeetan parte hartzeko aukerak	2,2
Enplegu-aukerak	2,0

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

Horri dagokionez, biztanleriaren %20,4k dio ez dagoela "batere gustura" dauden lan-aukerekin, eta %41,2k, berriz, lan-aukerek "gutxi asebetetzen" dutela.

Adinaren arabera banatuta, ez dago alde handirik balorazioari dagokionez. Hala ere, biztanle gazteenek pentsatzen dutenez, etxea lortzea eta horren kalitatea dira gutxien asebetetzen dituzten elementuak.

29. taula. Asebetetze-maila orokorra, adin-taldeka (1-4 eskala)

	TOTAL	EDAD					
		18-29	30-39	40-49	50-59	60-69	Más de 70
Acceso a la vivienda y calidad de la misma	2,3	1,9	2,2	2,2	2,4	2,6	2,6
Oportunidades de empleo	2,0	2,0	2,0	2,1	1,9	2,0	2,0
Calidad del empleo	2,2	2,3	2,3	2,1	2,1	2,4	1,9
Cantidad de espacios naturales (espacios verdes, ríos...)	3,3	3,3	3,2	3,4	3,3	3,3	3,4
Calidad del entorno natural del munic.	3,4	3,5	3,2	3,5	3,4	3,5	3,3
Calidad del espacio construido (calles, ...) limpieza, estado e imagen	3,2	3,3	3,0	3,2	3,3	3,3	3,4
Dotación y calidad de los serv. Sociales y sanitarios	3,0	2,8	2,8	2,9	3,2	3,3	3,3
Dotación y calidad de los serv. Culturales deport y ocio	3,0	2,9	3,0	3,0	3,1	3,0	3,3
Dotación de equipamientos educativos y calidad de la enseñanza	3,0	2,7	3,0	3,0	3,2	3,2	3,2
Oportunidades de participar en los procesos de toma de decisión que afectan a la ciudad	2,2	2,0	2,1	2,2	2,3	2,3	2,5
Nivel de seguridad en el munic.	3,1	3,3	3,2	2,9	3,1	3,1	3,1
Oportunidades de practicar sus hobies	3,2	3,1	3,1	3,3	3,3	3,3	3,3
Nivel de ruido ambiental existente	2,9	3,0	2,9	2,8	2,8	2,9	2,8

Media con resultado m ás elevado

Media con el resultado inferior

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

Inkestatutako pertsonen lan-egoera kontuan hartuz gero, argi ikusten da langabezian daudenek enpleguarekin lotutako gaiak baloratzen dituztela gutxien.

30.taula. Asebetetze-maila orokorra, lan-jardueraren arabera (1-4 eskala)

	TOTAL	SEXO		ACTIVIDAD LABORAL					
		Hombre	Mujer	Parado/a	Asalariado/a	Autonomo/a Empresario/a	Ama/o de casa	Estudiante	Jubilado
Acceso a la vivienda y calidad de la misma	2,3	2,3	2,3	2,2	2,1	2,0	2,5	2,1	2,8
Oportunidades de empleo	2,0	2,0	2,0	1,7	2,1	2,1	2,0	2,2	2,0
Calidad del empleo	2,2	2,2	2,2	2,6	2,2	2,1	2,0	2,5	2,2
Cantidad de espacios naturales (espacios verdes, ríos...)	3,3	3,3	3,3	3,4	3,3	3,1	3,4	3,4	3,4
Calidad del entorno natural del munic.	3,4	3,3	3,4	3,3	3,3	3,4	3,4	3,5	3,4
Calidad del espacio construido (calles, ...) limpieza, estado e imagen	3,2	3,1	3,3	3,5	3,1	3,1	3,4	3,3	3,2
Dotación y calidad de los serv. Sociales y sanitarios	3,0	3,0	3,1	2,9	2,9	2,9	3,2	3,1	3,2
Dotación y calidad de los serv. Culturales deport y ocio	3,0	3,1	3,0	3,4	3,0	3,0	3,1	3,0	3,1
Dotación de equipamientos educativos y calidad de la enseñanza	3,0	3,0	3,1	3,4	2,9	3,1	3,1	2,8	2,9
Oportunidades de participar en los procesos de toma de decisión que afectan a la ciudad	2,2	2,2	2,3	1,5	2,2	2,0	2,4	2,1	2,6
Nivel de seguridad en el munic.	3,1	3,1	3,1	2,8	3,1	3,3	3,2	3,5	2,9
Oportunidades de practicar sus hobies	3,2	3,2	3,2	3,6	3,1	3,3	3,2	3,1	3,3
Nivel de ruido ambiental existente	2,9	2,8	3,0	2,7	2,8	2,8	3,0	3,0	2,9

Media con resultado más elevado

Media con el resultado inferior

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

Azkenik, azpimarratu beharra dago langabeziari buruzko balorazio txarrak Hondarribiko eremu guztietan egin direla, Gornutzen (Montaña) eta Jaitzubian izan ezik.

31. taula. Asebetetze-maila orokorra, auzoka (1-4 eskala)

	TOTAL	BARRIO HONDARRIBIA										
		Alde zaharra	Amute-kosta	Akartegui	Arkolla	Gomutz (montaña)	Jantzubia	Mendelu	Portua	Puntalea	Zimizarga	NS/NC
Acceso a la vivienda y calidad de la misma	2,3	2,4	2,1	2,2	2,6	2,5	2,7	2,4	2,1	2,6	2,7	2,3
Oportunidades de empleo	2,0	2,0	2,0	2,0	2,3	2,5	2,3	2,3	1,8	2,0	2,1	1,9
Calidad del empleo	2,2	2,0	2,1	2,4	2,3	3,0	2,8	2,3	1,9	2,1	2,2	2,1
Cantidad de espacios naturales (espacios verdes, ríos...)	3,3	3,3	3,2	3,3	3,0	4,0	3,2	3,4	3,2	3,4	3,8	3,5
Calidad del entorno natural del munic.	3,4	3,4	3,2	3,4	3,1	3,0	3,3	3,4	3,3	3,5	3,6	3,6
Calidad del espacio construido (calles, ...) limpieza, estado e imagen	3,2	3,1	2,9	3,3	2,9	4,0	3,2	3,2	3,3	3,5	3,4	3,6
Dotación y calidad de los serv. Sociales y sanitarios	3,0	3,2	2,7	3,0	2,9	3,5	3,2	3,1	3,1	3,3	2,9	3,4
Dotación y calidad de los serv. Culturales deport y ocio	3,0	3,1	2,8	3,1	3,1	3,5	2,7	3,1	3,1	3,4	2,9	3,1
Dotación de equipamientos educativos y calidad de la enseñanza	3,0	3,1	2,8	3,0	3,0	3,5	2,8	3,0	3,0	3,6	3,0	3,2
Oportunidades de participar en los procesos de toma de decisión que afectan a la ciudad	2,2	2,3	2,2	2,1	2,0	2,0	2,2	2,4	2,1	2,6	2,5	2,3
Nivel de seguridad en el munic.	3,1	3,4	3,0	3,1	3,3	4,0	2,9	3,1	3,1	3,3	3,0	3,1
Oportunidades de practicar sus hobies	3,2	3,3	3,1	3,2	3,4	3,5	3,2	3,2	3,2	3,4	3,0	3,3
Nivel de ruido ambiental existente	2,9	2,8	2,6	3,1	2,9	4,0	3,1	2,8	2,8	3,1	3,4	2,9

Media con resultado más elevado

Media con el resultado inferior

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

- **ERRENTA PERTSONALA ETA FAMILIA ERRENTA**

2001eko *Errenta Pertsonalaren eta Familia Errentaren Estatistikaren* arabera, Bidasoa-Txingudi eskualdeko biztanleen errenta pertsonala, familia-errenta eta errenta gordina txikiagoa da Gipuzkoan eta EAEn baino. Hala ere, udalerrika aztertu ondoren ikusten denez, **Hondarribiko familia-errenta eskualdeko batez bestekoa baino altuagoa da, eta, errenta pertsonala, berriz, Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoa baino altuagoa.**

32. taula. 2001eko Errenta Pertsonala eta Familia Errenta

	Batez besteko errenta pertsonala	Batez besteko familia-errenta
Hondarribia	13.382	29.194
Irun	11.001	25.326
Bidasoa-Txingudi	**11.496**	**26.165**
Gipuzkoa	**13.022**	**30.218**
EAE	**12.676**	**30.009**

Iturria: EUSTAT

Ildo honetan, biztanleriaren ekonomia baliabideen informazio gehigarria jasotzen duten datu gehigarriak lortu dira. Lehenik eta behin, aipatu behar da errenta pertsonal erabilgarriari buruzko datua 2003 urtekoa dela, 11.231,00€koa dena (iturria: Lugabe-Lurralde Garapenerako Euskal Behatokia):

33. Taula. ERRENTA PERTSONAL ERABILGARRIA (HONDARRIBIA, 2003)

Errenta pertsonal erabilgarria	11.231,00€

Iturria: Euskal Herriko Lurralde Garapenaren Behatokia

Oinarrizko errenta jasotzen duten Hondarribiko bizikidetza unitateei dagokionez, ondoren taulan 2003 urtez geroztik lortutako datuak jasotzen dira:

34. Taula. OINARRIZKO ERRENTA JASOTZEN DUTEN BIZIKIDETZA-UNITATEAK

Urtea	Biztanleen ‰
2003	2,73
2004	2,82
2005	2,61

2006	3,86

Iturria: Udalmap – Ogasun eta Herri Administrazio Saila- sistemako datuak, Bidasoa bizirik-ek erraztutakoak

Taulan ikus daitekeenez, 2003 – 2005 urteen artean ez da alde handirik ikusten media 2,72 delarik. 2006 urtean berriz, oinarrizko errenta jaso zuten bizikidetza-unitate kopurua biztanleen ‰ 3,86 izan zen, aurreko hiru urteen batezbestekoaren gainetik.

Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetza – unitateen kopurua honakoa da:

35. Taula. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTEN BIZIKIDETZA UNITATEAK

Urtea	Biztanleen ‰
2003	4,36
2004	5,31
2005	4,25
2006	8,09

Iturria: Udalmap – Ogasun eta Herri Administrazio Saila- sistemako datuak, Bidasoa bizirik-ek erraztutakoak

Taulari erreparatuz, 2005 eta 2006 urteen artean igoera garrantzitsua eman dela ikus daiteke, ia-ia bikoiztu egin delarik Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetza – unitateen kopurua.

Bi taulak kontutan hartzen badira, ikus daiteke 2004 urtean igoera txikia izan zela bi prestakuntzetan. Era berean, 2006 urtean jasotzen da kopuru handiena hainbat kasuetan.

Kotizazio gabeko pentsioen jasotzaileak honakoak izan dira:

36. Taula. PENTSIOAK JASOTZEN DITUZTEN BIZTANLEAK

Urtea	Biztanleen ‰
2003	3,12
2004	2,76
2005	2,92

Iturria: Udalmap – Ogasun eta Herri Administrazio Saila- sistemako datuak, Bidasoa bizirik-ek erraztutakoak

Taulan agertzen diren datuetan ikus daitekeenez, kasu honetan, 2003 urtean erregistratzen dira prestakuntza jaso zuten herritar gehien. Bestetik, 2005 urtean goranzko txiki bat ere erregistratzen da.

1.3.2 Tokiko ekoizpen-egitura

1.3.2.1 Orain gutxi izandako bilakaera

Historikoki, Hondarribiaren bilakaera estatuko uda-garaiko eremu eta Irungo jolasaldi- eta aisialdi-eremu izatean oinarritu da; baina, aldi berean, arrantza-gune izateari eutsi dio.

Biztanleria landunari buruzko atalean aztertu den bezala, Hondarribiko udalerria **gero eta lotuago dago hirugarren sektoreari**, bertako biztanleria landuna eta egoiliarra sektoreka banatzeari dagokionez. Zerbitzuekin lotutako jardueren garrantzia handitzen ari dela gauza jakina da, balio erantsiaren egitura aztertuz gero; izan ere, azken horrek Udalerriko lau ekonomia-sektoretan sortutako balio garbiaren berri ematen digu.

37. taula. Hondarribiko Balio Erantsiaren egitura, 1996-2000

	Lehen Sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
1996	8,1	16,3	4,7	70,9
2000	6,1	19,4	10,8	63,8

Iturria: EUSTAT

Ikusten den bezala, zerbitzuak sektoreak guztizkoaren ia %64ko ekarpena egin zion udalerriko BEGi, 2000. urtean; dena den, azken urteotako bilakaera aztertzean ikusten denez, industria eta eraikuntza izan dira hoberenak BEGi egindako ekarpenei dagozkienez.

1.3.2.2 Lehen Sektorea

Jarraian, Hondarribiko Lehen Sektorearen ezaugarriak aztertuko dira. Lehenik, sektore-egoerari buruzko azterketa orokor bat egin zen (ustiapen-kopurua, tipologia, horietan lan egiten duen biztanleria...), eta, ondoren, azterketa hori oinarri hartuta, nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza eta arrantza azpisektoreak aztertu ziren.

- **NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA BASOGINTZA**

Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik elkarteak emandako datuen arabera, 2004an, **462 hektarea** zeuden **Hondarribian**, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basozaintza-jardueretan erabiltzeko. Azalera hori, zehazki, **276 ustiapenen** artean banatuta zegoen; beraz, **1,63 hektarea zegokion ustiapen bakoitzari**, batez beste.

38. taula. Lehen Sektorea: azalera eta ustiapen-kopuruak. 2004, Hondarribia.

	Aitortutako azalera guztia	Ustiapen-kopurua	Ustiapenen batez besteko neurria
Hondarribia	462	276	1,67
Irun	1.621	460	3,52
Bidasoa Txingudi	**2.083**	**736**	**2,83**

Iturria: Bidasoa activa-Bidasoa bizirik

Jarduera-motei dagokienez, nekazaritzarekin lotutako jarduerek %80 ordezkatzen dute, eta beste %14 basogintzarako erabiltzen da.

39. taula. Azalera-banaketa, erabileraren arabera. 2004, Hondarribia.

2003. URTEA	HONDARRIBIA	%
NEKAZARITZA-LURREN AZALERA	380	%82,25
BASO-USTIAPENEN AZALERA	67	%14,50
BESTE BAT	15	%3,24
GUZTIRA	**462**	**%100,00**

Iturria: Bidasoa activa-Bidasoa bizirik

Ustiapen-tipologia dela-eta, ustiapenen %55 nekazaritza-jarduerak garatzeko erabiltzen da, batez ere; %30 abeltzaintzarako; eta %15,6 basogintza-sektorerako.

40. taula. Ustiapen-tipologiak. 2004, Hondarribia.

USTIAPEN-TIPOLOGIAK	HONDARRIBIA	% GUZTIRA
FRUTA EKOIZTEKO USTIAPENAK	45	%16,30
BARAZKIAK EDO LOREAK EKOIZTEKO USTIAPENAK	88	%31,88
NEGUTEGIA DUTEN USTIAPENAK	19	%6,88
BEHI-HAZIENDEN USTIAPENAK	51	%18,48
ARDI-HAZIENDEN USTIAPENAK	30	%10,87
BASO-USTIAPENAK SOILIK	11	%3,99
BASO-EKOIZPENEN USTIAPENAK	32	%11,59

GUZTIRA	**276**	%100,00

Iturria: Bidasoa activa-Bidasoa bizirik

Zehazki, 2004an, abeltzaintza-jardueraren baitan, 2.165 abelburu zeuden guztira, Hondarribian: %51,5 ardiak eta %35 behiak.

41. taula. Ganadua, tipologiaren arabera, Hondarribian (2004)

	BURUAK	%
ARDIA	1.114	%51,5
BEHIA	753	%34,8
ZALDIA	240	%11,1
AHUNTZA	58	%2,7
TXERRIA	0	%0,0
GUZTIRA	**2.165**	**%100,0**

Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

- **ARRANTZA**

Hondarribiko arrantza-jarduerak garrantzi handia du, bai okupazioari dagokionez, bai jarduerari dagokionez. Izan ere, lehen sektorean biztanleria landunaren %7k egiten du lan, eta kopuru horren %5,6k arrantza-jardueran.

Hondarribiko flotari dagokionez, 2004an, **30 ontzi eta 321 tripulatzaile** zeuden, eta guztiek baxura azpisektorean egiten zuten lan.

ONTZIAK

Jarduerak azken urteetan izandako bilakaera aztertuz gero, ontziak asko gutxitu direla ikus daiteke. Izan ere, 2000-2004 aldian, 40 ontzi izatetik 30 izatera pasatu zen (%25 gutxiago), eta horrek, gainera, eragin handiagoa izan zuen artisau-arrantzan (%-37,5 eta sei ontzi gutxiago) ur-azaleko arrantzari baino (%-16,7 eta lau ontzi gutxiago).

42. taula.
Ontzi-kopuruaren bilakaera, arrantza-motaren arabera
(2000-2004)

	2000	2001	2002	2003	2004	00-04 aldakuntza(%)
Artisautzakoa	16	15	15	11	10	-37,5
Ur-azalekoa	24	24	23	23	20	-16,7
GUZTIRA	**40**	**39**	**38**	**34**	**30**	**-25,0**

Iturria: Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia.

Hondarribiko ontziek 16,13 urte dituzte, batez beste. Zehazki, ur-azaleko arrantzan aritzen diren ontziek batez besteko hori gainditu egiten dute (16,95 urte) eta artisau-arrantzako ontziek, berriz, 14,5 urte dituzte, batez beste.

TRIPULATZAILEAK

30 ontzietan 321 tripulatzaile daude, guztira; horietatik 271k (%84,4) ur-azaleko arrantzan jarduten dute (%84,4) eta 50ek (%15,6) artisau-arrantzan.

2000. urteari dagokionez, tripulatzaile-kopuruak %13,7 egin du behera. Artisau-arrantza modalitatean heren bat gutxiagok egiten du lan (%-32,4), eta ur-azaleko arrantzan %10 gutxiagok.

43. taula. Tripulatzaile-kopurua, arrantza-motaren arabera (2000-2004)

	2000	2001	2002	2003	2004	00-04 (%) aldakuntza
Artisautzakoa	74	71	69	53	50	-32,4
Ur-azalekoa	298	316	312	311	271	-9,1
GUZTIRA	**372**	**387**	**381**	**364**	**321**	**-13,7**

Iturria: Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia.

ARRANTZA EKOIZPENA

Hondarribiko flotak 5.970.550 Kg harrapatu zituen 2004an, eta horrek 14.083.942 euroko irabazia eragin zuen. 2000ko egoerarekin alderatuz, harrapaketa-kopuruak behera egin du (%-30,9); aldiz, irabaziak %10 handitu dira. Dena den, 2003ko urtea berezia izan zela azpimarratu behar da, denboraldi-erdia "Prestige" ontziak isuritako fuel-olioa jasotzen pasa baitzuten; horregatik, irabaziak eta harrapaketak ohikoak baino txikiagoak izan ziren.

44. taula.
Harrapaketen guztizkoen bilakaera Hondarribian, Kg-en eta euroen arabera (2000-2004)

	2000	2001	2002	2003	2004	00-04 aldakuntza (%)
Kilogramo	8.646.655	9.800.478	7.254.485	3.745.877	5.970.550	-30,9
Euroak	12.808.452	14.756.949	12.966.244	10.596.416	14.083.942	10,0

Iturria: Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia.

Harrapatutako espezieen artean, berdela besteen gainetik nabarmendu behar da, guztira harrapatutakoaren heren bat ordezkatzen baitu. Atzetik, hegaluzea (%23,1) eta atuna (%18,95) ditu.

18. grafikoa. Hondarribiko flotak 2004an harrapatutako espezieak (%)



Iturria: Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia.

19. grafikoa
Hondarribiko flotak gehien harrapatutako espezieen bilakaera (2000-2004)



Iturria: Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia.

1.3.2.3 Industria eta Eraikuntza

2004ko *Ekonomia Jardueren Direktorioak* emandako datuen arabera, Hondarribian **55 industria-establezimendu** daude, eta horiek **187 langileri** ematen diete lana. Bestalde, establezimendu horiek ertainak dira, langile-kopuruari dagokionez; hau da, 3 eta 4 langileko lantegiak dira.

45. taula.
Industria-establezimenduak eta langile-kopurua, jarduera-motaren arabera. Hondarribia (2004)

	Establezimenduak		Enplegua		Batez besteko neurria
	Kop.	%	Kop.	%	
Beste mineral batzuk erauztea	2	%3,64	11	-	-
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	6	%10,91	19	%10,16	3,2
Ehungintza eta jantzigintza	1	%1,82		%0,00	0,0
Larrua eta oinetakoak	0	%0,00	0	%0,00	0,0
Egurra eta kortxoa	5	%9,09	11	%5,88	2,2
Papera, edizioa eta arte grafikoak	13	%23,64	35	%18,72	2,7
Industria kimikoa	0	%0,00	0	%0,00	0,0
Kautxoa eta plastikozko materialak	2	%3,64	16	%8,56	8,0
Metalezkoa ez den beste industria	2	%3,64	7	%3,74	3,5
Metalurgia eta metalezko produktuak	9	%16,36	9	%4,81	1,0
Makinak eta mekanika-ekipoak	2	%3,64	4	%2,14	2,0
Material eta ekipo elektrikoak	1	%1,82	-	-	
Garraio-materialak	8	%14,55	19	%10,16	2,4
Era askotako manufakturak	2	%3,64	56	%29,95	28,0
Energia elektrikoa, gasa eta ura	2	%3,64	-	-	-
Industria guztira	**55**	**%100,00**	**187**	**%100,00**	**3,4**

Iturria: Bidasoa bizirik

20. grafikoa. Establezimendu kopurua aktibitatearen baitan



Iturria: Bidasoa activa Bidasoa bizirik

"Papera, edizioa eta arte grafikoak" jarduerak du establezimendu-kopuru gehien (13), eta, ondoren, "metalurgia eta metalezko produktuak" (9) eta "garraio-materialak" (8) jarduerak daude; hiru jarduera horiek, hain zuzen, establezimendu guztien % 55 osatzen dute.

Lan elkartuari dagokionez, "hainbat manufakturen industriak" enpleguaren %30 osatzen dute eta "papera, edizioa eta arte grafikoak" enpleguaren %18,7 (56 eta 39 langile dituzte, hurrenez hurren).

Eraikuntzari[5] dagokionez, Eustatek emandako datu batzuen arabera, 2004an, eraikuntzako 155 establezimendu zeuden Hondarribian, eta, horietan, 308 pertsonak egiten zuten lan.

Establezimendu-tamainari dagokionez, bestalde, 10 industria-enpresatik ia bederatzitan 5 langile edo gutxiago daudela adierazi behar

[5] Estatistika horretan, obrak prestatzea, higiezinak eta ingeniaritza zibileko obrak eraikitzea, eraikinetako eta obretako instalazioak egitea, eraikinak eta obrak amaitzea, eta eraikuntza- edo eraiste-tresnak alokatzea, langile eta guzti.

da. Era berean, 50 langiletik gorako industria-enpresarik ez egotea ere azpimarragarria da.

Eraikuntza-sektorean, kopuru horiek adierazgarriagoak dira, enpresen %93k 2 langile baino gutxiago baitituzte.

46. taula. Establezimenduak, tamainaren eta jarduera-motaren arabera. Hondarribia (2004)

	Guztira	0-2	3-5	6-9	10-19	20-49	>50
Beste mineral batzuk erauztea	2		1	1			
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	6	2	4				
Ehungintza eta jantzigintza	1	1					
Larrua eta oinetakoak	0						
Egurra eta kortxoa	5	3	2				
Papera, edizioa eta arte grafikoak	13	8	4		1		
Industria kimikoa	0						
Kautxoa eta plastikozko materialak	2	1			1		
Metalezkoa ez den beste industria	2	1		1			
Metalurgia eta metalezko produktuak	9	9					
Makina eta ekipo mekanikoak	2	1	1				
Material eta ekipo elektrikoak	1	1					
Garraio-materialak	8	5	3				
Era askotako manufakturak	2			1		1	
Energia elektrikoa, gasa eta ura	2	2					
Industria guztira	**55**	**34**	**15**	**3**	**2**	**1**	**0**
Eraikuntza	**155**	**144**	**6**	**2**	**1**	**1**	**1**

Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik.

1.3.2.4 Zerbitzuak sektorea

Hondarribiko zerbitzuak sektorean 1996-2001 aldian izandako okupazio-hazkundearen ondorioz, **sektore hori Gipuzkoako lurralde historikoko eta EAEko batez bestekoaren gainetik jarri da, enpleguari dagokionez.** Hala, zerbitzuetan **lan egiten duen biztanleria EAEkoa baino 4,2 puntu gorago** dago Hondarribian.

2004ko *Ekonomia Jardueren Direktorioak* emandako datuen arabera, Hondarribian **864 industria-establezimendu daude, eta horiek 2.654 langileri ematen diete lana**. Bestalde, establezimendu horiek ertainak dira, langile-kopuruari dagokionez; zehazki, 3,1 langileko lantegiak dira.

47. taula.
Hondarribiko establezimenduak eta Zerbitzuak sektorea, jarduera-motaren arabera (2004)

	Establezimenduak		Enplegua		Batez besteko neurria
	N°	%	N°	%	
Merkataritza eta konponketa	251	%29,1	512	%19,3	2,0
Ostalaritza	125	%14,5	460	%17,3	3,7
Garraioa, biltegiratzea eta komunikazioa	98	%11,3	246	%9,3	2,5
Finantza-bitartekaritza	20	%2,3	54	%2,0	2,7
Alokairua, higiezinak eta enpresen zerbitzuak	174	%20,1	192	%7,2	1,1
Administrazio publikoa	5	%0,6	123	%4,6	24,6
Hezkuntza	37	%4,3	349	%13,1	9,4
Osasun- eta albaitaritza-jarduerak; gizarte-zerbitzuak	36	%4,2	430	%16,2	11,9
Bestelako gizarte-jarduerak eta zerbitzu pertsonalak	118	%13,7	288	%10,9	2,4
Zerbitzuak guztira	**864**	%100,0	**2.654**	%100,0	**3,1**

Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

"Merkataritza eta konponketa" jarduerak ditu establezimendu eta enplegu gehien (251 eta 512, hurrenez hurren); zehazki, guztizkoaren %29,1 eta %19,3. Aipatutako jarduera horren atzetik, "Alokatzeak, higiezinak eta enpresentzako zerbitzuak" eta "Ostalaritza" jarduerak daude, eta horiek establezimendu guztien %20,1 eta %14,5 osatzen dute.

Lan elkartuari dagokionez, merkataritza eta konponketa jardueraren atzetik, "Ostalaritza" (enpleguaren %17,3) eta, neurri txikiagoan, "Osasun- eta albaitaritza-jarduerak" daude (enpleguaren %16,2); bi jarduera horietan, 460 eta 430 pertsonak egiten dute lan, hurrenez hurren.

MERKATARITZA JARDUERA

- Handizkako merkataritza:

Eustaten Ekonomia Jardueren Direktorioko datuen arabera, 2004an, 47 handizkako establezimendu zeuden Hondarribian. Merkataritza-

establezimendu horietan 145 pertsonak egiten zuten lan; hau da, zerbitzuak sektoreak sortzen duen enplegu guztiaren %5,5ek.

Hain zuzen, Caixak urtero egiten duen Espainiako Ekonomia Urtekarian agertzen denaren arabera, 1.000 biztanletik gorako inguruko herrien artean, Hondarribiak du (Lezorekin batera) handizkako merkataritzaren indize txikiena.

- Txikizkako merkataritza:

Eustaten Ekonomia Jardueren Direktorioko datuen arabera, 2004an, 142 txikizkako establezimendu zeuden Hondarribian. Merkataritza-establezimendu horietan 279 pertsonak egiten zuten lan; hau da, zerbitzuak sektoreak sortzen duen enplegu guztiaren %10,5ek.

Handizkako merkataritzaren indizearekin gertatzen den bezala, txikizkakoan ere Hondarribiaren egoera okerrenetarikoa da, inguruko gainerako udalerriekin alderatuz; Lezon soilik da egoera okerragoa.

- Merkataritza-dentsitatearen indizea:

Merkataritza-indizearen dentsitateari dagokionez (1.000 biztanleko dauden merkataritza-establezimenduen arabera neurtua), Hondarribian 54 establezimendu daude 1.000 biztanleko; hau da, Lurraldeko batez bestekoa baino kopuru txikiagoa du.

48. taula.
ZERBITZUAK SEKTOREKO ESTABLEZIMENDUAK ETA MERKATARITZA-DENTSITATEAREN INDIZEA. BIDASOA-TXINGUDI ESKUALDEA. 2004

	Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	Bankua, seguruak eta enpresen zerbitzuak	Zerbitzuen beste jarduera batzuak	Zerbitzuak guztira	Merkataritza-dentsitatearen indizea
Hondarribia	474	194	196	864	57,4
BIDASOA TXINGUDI	3.377	1.127	979	5.483	**76,5**
Gipuzkoa	25.812	11.884	9.879	47.575	**70,6**

Iturria: Eustat. Geuk egina.

Beraz, udalerriko merkataritza-eskaintza **murritza** dela esan daiteke; gainera, honako eremu hauetan biltzen da, batez ere: Portuan (San Pedro kalea eta inguruak), Alameda-Damarrin, Eroski supermerkatuaren eta

Sokoaren inguruan, zezen-plazako "BM" supermerkatuan eta Soroetako "Dia"n.

Merkataritza-eskaintza urri horri, ordea, eskualdean nahiko hurbil dauden tamaina handiko merkataritza-guneak gehitu beharko litzaizkioke (esaterako, Txingudi Merkataritza Parkea edo ondoan duen Irun herriko eskaintzak); horiei esker asetzen dira Hondarribiko biztanleen premiak.

Dena den, horrek guztiak eragiten duen mugikortasuna kezkagarria da iraunkortasunerako; izan ere, Iruneko merkataritzak eta Txingudi Merkataritza Parkeak sortzen duten erakarpena dela-eta, ibilgailu asko mugitzen dira.

Aurrez aurkeztutako datuei jarraiki, Caixak urtero egiten duen Espainiako Ekonomia Urtekarian agertzen denaren arabera, 1.000 biztanletik gorako inguruko herrien artean, Hondarribia da merkataritza-indize txikia duen udalerrietako bat.

49. taula.
Hondarribiko Handizkako, Txikizkako eta Guztizko Merkataritza Indizea, 2004

	Handizkako MI	Txikizkako MI	Merkataritza I
Irun	176	152	161
Oiartzun	80	56	65
Errenteria	34	57	48
Pasaia	46	17	28
Hondarribia	**26**	**15**	**19**
Lezo	26	8	15

Iturria: 2005eko Espainiako Ekonomia Urtekaria. La Caixa.

Azkenik, aipatu beharra dago, 2007 urtean udalerriko komertzioa indartzeko helburua duen akordioa aurkeztu zela Udaletxean. Akordioan parte hartu dutenak honakoak dira: HIGER merkatari eta zebitzu Elkartea, Bidasoa Bizirik (Bidasoako Garapen Agentzia) eta Hondarribiko Udala. Martxan jarriko den lehenengo ekintzen artean, udalerriko komertzioen inguruko ikerketa bat egitea izango da (2008ko lehen hiruilerokoan egingo da).

OSTALARITZA

Turismoari oso lotuta dagoen ostalaritza-jarduerari dagokionez, Caixak egindako Espainiako Ekonomia Urtekariko datuen arabera, Hondarribian 127 jarduera zeuden jatetxeekin eta tabernekin lotuta, 2004an. Kopuru horiek

jatetxeen eta tabernen erdi-mailako indizea adierazten dute, eta Irunek eta Errenteriak soilik gainditzen dute.

50. taula. Hondarribiko jatetxeen eta tabernen indizea 2004

	Jatetxeen eta tabernen indizea
Irun	412
Errenteria	229
Hondarribia	**127**
Pasaia	112
Oiartzun	68
Lezo	48

Iturria: 2005eko Espainiako Ekonomia Urtekaria. La Caixa.

Bestalde, **Hondarribiko Ostalaritza Elkartea** dagoela azpimarratu behar da, hirian dauden jatetxe eta ostatu gehienek osatua. Elkartearen helburuak, besteak beste, turismoa eta gastronomia sustatzea eta erakundeekin (bai tokikoekin, bai lurraldeaz gaindiko erakundeekin) bitarteko-lanak egitea dira.

GARRAIOA

Salgaiak errepidez garraiatzeko enpresak.

Eskualdean lan egiten duten garraio-enpresa guztien %13,89 Hondarribian daude. Era berean, eskualdeko kamioi-multzoaren %7,9 Hondarribiko enpresetakoak dira.

51. taula. Enpresa- eta kamioi-kopurua, udalerriaren arabera (2004)

	ENPRESAK		KAMIOIAK	
	Arinak	Astunak	Arinak	Astunak
Hondarribia	23	43	26	79
Irun	116	293	196	1.034
GUZTIRA	**139**	**336**	**222**	**1.113**

Iturria: Bidasoa activa-Bidasoa bizirik

Ibilgailu astunak dituzten garraio-enpresei dagokienez, aurreko urtean baino lau enpresa gutxiago erregistratu dira. Hala ere, ibilgailu-kopuruak gora egin du; zehazki, 21 kamioi gehiago daude, eta %1,92 osatzen dute, batez beste. Hazkunde nabarmenena 10 kamioi baino gehiago dituzten enpresetan izan da, horiek %5,1 hazi baitira batez beste, aurreko urtearekiko.

Errepidez garraiatzen duten enpresek 1.335 kamioi zituzten **eskualdean**. 2004an. Bilakaerak erakutsi duenez, %1,14 hazi zen aurreko urtearekiko.

Zehazki, eskualdeko 336 garraio-enpresek 1.113 ibilgailu astunekin egiten dute lan, eta beste 139 enpresak 222 ibilgailu arinekin.

52. taula. Salgaiak errepidez garraiatzeko enpresak (2004)

	ARINAK			ASTUNAK		
	Enpresak	%	Kamioiak	Enpresak	%	Kamioiak
1 kamioi	111	79,86	111	182	54,17	182
2-5 kamioi	24	17,27	67	108	32,14	332
6-10 kamioi	2	1,44	15	32	9,52	249
10 baino gehiago	2	1,44	29	14	4,17	350
Guztira	**139**	**100**	**222**	**336**	**100**	**1.113**

Iturria: Bidasoa activa-Bidasoa bizirik

21. grafikoa
Ibilgailu astunak erabiltzen dituzten enpresa-kopuruaren bilakaera, tamainaren arabera (1999-2004).



Iturria: Bidasoa activa-Bidasoa Bizirik

Ibilgailu arinekin lan egiten duten enpresek izandako urte arteko bilakaera kontuan hartuta, beherakada bat izan da 2004. urtearekiko, bai enpresei dagokienez, bai kamio-multzoari dagokionez (%8,5ko eta %2,6ko batez

besteko jaitsiera, hurrenez hurren). Beherakada nabarmenena tamaina txikiagoko enpresetan gertatu da (hau da, kamioi bakar bat duten horietan); 2003. urtearekiko %11,2 jaitsi da.

22. grafikoa
Ibilgailu arinak erabiltzen dituzten enpresa-kopuruaren bilakaera, tamainaren arabera (1999-2004)



Iturria: Bidasoa activa Bidasoa bizirik

TURISMOA

Turismo-jarduera Hondarribiko nahiz Gipuzkoako kostalde guztiko ezaugarria da. Turismoan, ospe handiko eremua da, eta jarduera horren kudeaketan garrantzi handiko agenteek hartzen dute parte. Horregatik da **Hondarribia Gipuzkoako eta euskal kostako turismo-gune nagusietako bat**; hori, gainera, garbi gelditzen da **udako hilabeteetan, Hondarribiko biztanleak bikoiztu egiten baitira**.

Jardueraren ikuspegitik, Hondarribia hirugarren sektoreko erreferentziazko eta erakargarritasun handiko gunea izan da historikoki, Gipuzkoako lurralde historikoan: **turismoak**, oro har, ostalaritza eta jarduera-ludikoak bultzatzeko sektore eragiletzat jokatu du, eta, zeregin horretan eragina izan

dute, neurri handi batean, bertako paisaia-balioek (naturalek nahiz hirigintzakoek).

Ikuspegi horren baitan, Hondarribiko turismo-eskaintza hiru ardatzetan egituratu da:

- Opor-turismoa eta aisialdikoa.
- Natura-turismoa.
- Kultura-turismoa.

Eskaerako turismo-mota horri guztiari erantzun ahal izateko, Hondarribian eta, hedapenez, eskualde osoan, egoitza- eta zerbitzu-azpiegitura garrantzitsua dute; hain zuzen: 43 establezimendu, 2.414 pertsonarentzako lekua dutenak.

53. taula. Bidasoa-Txingudiko egoitza-azpiegitura, 2004

	Establezimenduak	Lekuak
Hotelak	14	942
Ostatuak	11	271
Landa-turismoak	8	80
Landa-etxeak	3	29
Hoteletako aparteko ostatuak	2	12
Apartamentuak	1	50
Kanpina	2	790
Aterpetxeak	2	240
Guztira	**43**	**2.414**

Iturria: Bidasoa activa-Bidasoa Bizirik

Bidasoa-Txingudin dauden beste turismo-eskaintzen datu garrantzitsuak jarraian azalduko dira:

54. taula. Bidasoa-Txingudiko ostalaritza-eskaintza, 2004

	Establezimenduak
TABERNA	336
KAFETEGIA	31
JATETXEAK	145
OSTALARITZA-ESKAINTZA	**512**

Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

55. taula. Ostatu emateko establezimenduen batez besteko enplegua, 2004

	Establezimenduak
Goi-denboraldia	332
Behe-denboraldia	284

Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

Hondarribian, gainera, kultura-, paisaia- eta arkitektura-ondare garrantzitsua dago. Jarraian agertzen den taulan, udalerriko ekipamendu eta jarduera nagusiak zehaztu dira, modu laburrean:

56. taula. Hondarribiko turismo-baliabide nagusiak

Udalerria	Turismo- eta kultura-intereseko lekuak eta ekipamenduak
Hondarribia	• Parrokia-eliza • Carlos V.aren gaztelua • Mugaretenea etxea • Egiluz jauregia • Zuloaga jauregia • Casadevante etxea • Udaletxea • Hondarribiko hirigune historikoa • Harresia • Santa Mariako atea • San Nicolaseko atea • "Polvorin" • Jaizkibel mendiko dorreak • San Enrique gotorlekua • Guadalupe gotorlekua • San Telmo gaztelua • Guadalupe ermita

Iturria: Hondarribiko Udala.

Eskariaren ikuspegitik, Bidasoa-Txingudiko hotel-establezimenduen betetze-maila %62,3ra igo zen, 2004an (aurreko urteko kopurua baino handiagoa); zehazki, abuztuan izan zen betetzerik handiena, eta %95 baino balio handiagoak izan ziren.

23. grafikoa. Bidasoa-Txingudiko urteko okupazioaren batez bestekoa, 2003-2004



Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

Zehazki, Hondarribian Irunen baino okupazio handiagoa da urte osoan, abenduan izan ezik; abuztuan, esaterako, okupazioa ia erabatekoa izan zen.

24. grafikoa. Bidasoa-Txingudiko urteko okupazioaren batez bestekoa, udalerrien arabera. 2004



Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

Bidasoa-Txingudiko turismo-jardueraren beste datu garrantzitsu batzuk jarraian azalduko dira:

57. taula. Eskualdeko Turismo Jarduerak (2004)

TURISMO-JARDUERA	
GAUALDIEN BATEZ BESTEKOA	**1,87 egun**
TURISTEN JATORRIA	
NAZIONALAK	%68,61
ATZERRITARRAK	%31,39

Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

TURISMOA SUSTATZEKO EKINTZAK

Turismo-jarduerak kudeatzeaz arduratzen diren erakundeei dagokienez, Udalak berak, Bidasoa Bizirik Eskualdeko Garapen Agentziak nahiz Mugaz Gaindiko Partzuergoak egindako lana aipatu behar da.

Udalak sustapen-lanak egiten ditu, eta lan hori honako hauetan oinarritzen da, batez ere: herriari buruzko liburuxkak eta informazioa argitaratzean, postalak egitean eta aldizkari espezializatuetan publizitatea sartzean.

Bestalde, Bidasoa Bizirik agentziak eta, bereziki, bere turismo-departamenduak urteak daramatza eskualdea turismo-helburutzat sustatzeko hainbat jarduera garatzen. Halaber, eskualdeko turismo-eskaintzak agerpen handia izan zuen hainbat ekitaldi, azoka eta jardunalditan, 2004. urtean. Bidasoa Bizirik agentziako turismo-departamendua Tolosan (Frantzia), Madrilen, Bordelen, Bartzelonan, Bilbon, Jaenen, Gasteizen, Zaragozan, Cornellan, Valladoliden eta beste hainbat hiritan izan zen, Euskadiko turismo-guneak (Destinos País Vasco) sistemaren bitartez. Era berean, negozio-turismoaren sustapena ere garrantzitsua izan da; izan ere, Ficoba erakustazokan hainbat azoka, kongresu eta konbentzio egin dira, eta, ondorioz, eskualdean gaualdiak eta irabaziak ugaldu dira.

Hiriko turismoa sustatzeko beste bitarteko bat www.bidasoaturismo.com web orria da. Orrialde horretan, eskualdeko turismoari, oro har, eta bertan egiten

diren kongresuei buruzko informazio guztia biltzen da, bai eta erreserbak egiteko gunea eta albiste-zerbitzu bat ere. Web orri horren bidez, Bidasoa Bizirik agentziak bisitari-kopurua handitzea eta etorritako bisitari horiek ahalik eta informazio gehien eskura izatea nahi du. Hain zuzen, 2004an, mezu elektronikoen bidez egindako informazio-eskaerak asko ugaritu zirela antzeman zen.

Bisitarien arreta-zerbitzuari dagokionez, Hondarribian turismo-bulego finkoa dago, eta horrek, Irungo bulegoekin batera, ia 50.000 kontsulta erantzun zituen, 2004. urtean; kontsulta horietako gehienak (%57,6), gainera, internet bidez egin ziren.

25. grafikoa. Bidasoa-Txingudiko turismo-bulegoetako kontsultak, 2004



Iturria: Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik

Halaber, **Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoarentzat** turismoa oinarri izan da mugaz gaindiko lankidetza-harremana (agerikoa eta desiratua) eraikitzeko. Hori dela-eta, Partzuergoan lan-batzorde bat sortu zen, turismoaren inguruan eskualdeko mugaz gaindiko errealitatea sustatzeko.

Partzuergoak zenbait proiektu garatu ditu, une oro Badia bateratu baten irudikapena aintzat hartuta. Gainera, hiru hiriak osagarriak dira turismo-eskaintzari dagokionez, hiru ikuspegitatik: Irungo merkataritza, Hondarribiko ondarea eta Hendaiako bainuetxe-turismoa.

Egun, turismo-sustapenarekin lotutako 4 proiektu ari dira garatzen:

2003. Kartografia-proiektua
2004. Badiako irudiak eskuratzea.
2005. Sustapen-materialak eguneratzea eta argitaratzea.

4. Turismoa sustatzeko kanpainak

TURISMO-INDIZEA

Aurrez aurkeztutako datuei jarraiki, Caixak urtero egiten duen Espainiako Ekonomia Urtekarian agertzen denaren arabera, 1.000 biztanletik gorako inguruko herrien artean, Hondarribia da turismo-indize handiena duen udalerria, eta, Gipuzkoako beste turismo-gune garrantzitsu batzuekin alderatuz gero (esaterako, Zarautz eta Zumaiarekin), askoz ere handiagoa. Soilik, Donostia gailentzen zaio.

58. taula. Hondarribiko Turismo-indizea, 2003

	Turismo-indizea
Irun	34
Errenteria	-
Hondarribia	**38**
Pasaia	2
Oiartzun	9
Lezo	-
Zarautz	18
Zumaia	3
Donostia	444

Iturria: 2005eko Espainiako Ekonomia Urtekaria. La Caixa.

1.3.2.5 Non lan egiten du eta bizi da Hondarribian bizi den eta lan egiten duen jendea?

Iraunkortasunaren ikuspegitik, galdera bikoitz honi erantzun ahal izatea azpimarratu behar da: **Non lan egiten du eta bizi da Hondarribian bizi den eta lan egiten duen jendea?**

Aurreko gaiari buruz hausnartzeak Hondarribia zein hiri-mota den ezagutzen lagun diezaguke, bai sortzen duen mugikortasunaren ikuspegitik, bai bere euskarri izaeraren ikuspegitik.

Gai horri lehen erantzun bat eman ahal izateko, hainbat estatistika-iturri hartu dira kontuan, ez baitago horretarako azterketa sakonik. Horri lotuta, zenbait hurbilketa daude, esaterako, Lurraren Lurraldearen Arloko Planak Ekonomia-jarduerarako egindakoa; bertan agertzen denez, eskualdeko *industria-enpleguen kopurua bigarren sektorean lan egiten duen biztanleria baino askoz*

ere txikiagoa da. 1.500 industria-enpleguren defizita adierazten du; hain zuzen ere, Donostialdea eskualdera eta Nafarroara (Lesaka, Bera...) joandakoak.

Proposatu den gaiari erantzun ahal izateko, Hondarribian bizi eta bertan lan egiten duen pertsona-kopuruari buruzko datuak hartu behar dira oinarri. Horien arabera, **Hondarribian bizi diren 10 langiletik 7k udalerritik kanpo egiten du lan**.

26. grafikoa
Biztanleria landunaren lanak eragindako mugikortasuna. 2001, Hondarribia.



Iturria: Eustat

Gainera, beste aldagai batzuk kontuan hartzen baditugu (esaterako, establezimendu-kopuruaren bilakaera eta sortutako enpleguaren bilakaera), 1996-2001 aldian Hondarribiaren hazkunderako pausoak ez direla oso iraunkorrak izan ondoriozta daiteke; izan ere, establezimenduen eta enpleguaren ehunekoetan izan diren hazkundeak ez dira udalerrian bertan lan egiten duten biztanleen hazkundearen maila berekoak izan. Hau da, establezimenduen, enpleguaren eta biztanleria landunaren kopurua %20 baino gehiago hazi da; aldiz, herrian bertan lan egiten duten biztanleak %3,6 soilik hazi dira. Beraz, Hondarribia **lohiri** gisa indartzen ari dela esan daiteke.

59. taula.
Establezimenduen, enpleguaren, biztanleria landunaren eta bere buruaren euspenaren kopuruaren bilakaera. 1996-2001, Hondarribia[6]

Hondarribia	1996	2001	Ald. Abs.	Ald. % 96-01
Establezimendu-kopurua	788	997	209	26,5
Sortutako enplegu-kopurua	2.421	2.933	512	21,1
Biztanleria egoiliarra eta landuna	5.325	6.640	1.315	24,7
Udalerrian bertan lan egiten duten egoiliarrak	1.954	2.024	70	3,6

Iturria: Eustat. Geuk egina.

Datuak kontuan hartuta, **Hondarribiko biztanleriaren %70ek, gutxi gorabehera, udalerritik kanpo lan egiten duela** esan daiteke (Irungo kasuan, %40k egiten du lan bertatik kanpo), eta Hondarribian sortutako gainerako %30a Hondarribikoak ez diren pertsonek betetzen dute.

1.3.3 Ekonomia-azterketa: ondorioak eta iraunkortasunaren ikuspegitik egin daitezkeen ekarpen nagusiak

Hondarribiko **biztanleria landuna eta egoiliarra** 6.640 pertsonak osatzen zuten, 2001ean. Kopuru horrek adierazten duenez, %32,4ko igoera gertatu zen 1991n zegoen landunen kopuruarekiko; **igoera hori, gainera, Gipuzkoako lurralde historikoan izandakoa** (%24,1) **baino askoz ere handiagoa izan zen**. Neurri handi batean, udalerrian izandako biztanleria-hazkundeak eragin zuen igoera.

Sektoreen arabera banatuta, **Zerbitzuak** sektorea da nagusi (%66,3), eta, atzetik, industria (%20,6) eta lehen sektorea ditu (%7).

Lanbideen araberako azterketak erakusten duenez, langile kualifikatuak (%18), merkatariak eta tabernariak (%16) eta laguntza-teknikariak (%13) dira biztanleria landun gehien duten taldeak, Bidasoa Txingudin. Gipuzkoako eta EAEko kopuruekin alderatuz, **biztanleria landunen ehunekoa altuagoa da gerentzia- eta teknikari-postuetan** eta lehen sektorean (arrantzaren eraginez).

[6] Ez dira lehen sektorearekin lotutako jarduerak sartzen. Beraz, ontziak eta tripulatzaileak ez dira bertan sartzen.

Biztanleria landun eta egoiliarraren bilakaerak **zerbitzuak sektorera bideratutako joera orokorra** erakusten du. Hain zuzen, 1996-2001 aldian, zerbitzuetan lan egiten zuten pertsonen ehunekoa lau puntu igo zen.

Hala ere, **lehen sektorean** lan egiten duen biztanleriaren **ehunekoak altua izaten jarraitzen du** Hondarribian (%7), **Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino ia lau bider handiagoa** (%1,7 eta %1,8, hurrenez hurren). Hori, funtsean, **arrantzaren** garrantzian oinarritzen da, Hondarribiko biztanleria landunaren %5,6k jarduera horretan egiten baitu lan.

Biztanleria landunaren bilakaera sektoreka banatuta ikus daitekeenez, 1996-2001 aldian, okupazioan izandako hazkundeak nabarmenagoak izan ziren zerbitzuekin eta eraikuntzarekin lotutako jardueretan (+%32,5 eta +%60, hurrenez hurren).

2005eko abenduan, 559 pertsonak zuten izena emanda EINeko bulegoetan, eta, beraz, langabezia-tasa %7,8koa zen –**EAEkoa baino baxuagoa** (%8,5) **eta Gipuzkoakoa baino apur bat handiagoa** (%7,5)–. Horregatik, enpleguak kezka handia sortzen du Hondarribian. Hori argi ikusten da **Herritarren Hautemate-inkestan** lortutako emaitzetan, biztanleek "enplegu-aukerak" eta "horien kalitatea" baloratu baitzituzten gutxien.

Tokiko ekoizpen-egiturari dagokionez, **lehen sektorearen** baitan arrantzak garrantzia handia du, bai okupazioari dagokionez, bai jarduerari dagokionez. Zehazki, Hondarribiko flota **30 ontzik eta 321 tripulatzailek** osatzen zuten, 2004an; dena den, azken urteetan asko jaitsi da ontzi- eta tripulatzaile-kopurua.

Bestalde, EAEko gainerako lekuen joerari jarraiki, **nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak moteltzen ari dira, pixkanaka, eta jarduera baztertu bihurtuz doaz, gero eta gehiago**; hala ere, bere horretan eusten diotenak gero eta profesionalagoak dira.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak babestea eta laguntzea helburu orokorra da, lurraldeak funtzio asko izaten jarrai dezan; dena den, etengabe ezerezean gelditzen da, ekonomia-errentagarritasun handiagoa duten beste interes batzuen alde egiten baita. Horrek, gainera, sektorea baztertzea eta landa-lurra beste erabilera batzuetarako hartzea eragin dezake, ustiapenak erabat sendotuta daudenean eta ekonomia-dimentsio garrantzitsua dutenean izan ezik.

Industria-jarduerari dagokionez, Hondarribian **55 industria-establezimendu** daude, eta horietan **187 langilek** egiten dute lan, guztira. Industria-enpresen kopuru txiki hori "papera, edizioa eta arte grafikoak", "metalurgia eta metalezko produktuak" eta "garraio-materialak" jardueretan oinarritzen da, batez ere, eta, hiru jarduera horien artean, establezimendu guztien % 55 osatzen dute.

Eraikuntzari dagokionez, Hondarribian 155 establezimendu daude eraikuntza-sektorean, eta horiek 308 langileri ematen diete lana; beraz, argi erakusten du sektore horrek udalerrian duen garrantzia.

Zerbitzuak sektorean, bestalde, **864 establezimendu** daude Hondarribian, **eta, horietan, 2.654 langilek egiten dute lan, guztira**. "Merkataritza eta konponketa" jarduerak, berriz, establezimendu eta enplegu gehien ditu: zehazki, guztizkoaren %29,1 eta %19,3. Aipatutako jarduera horren atzetik, "Alokatzeak, higiezinak eta enpresentzako zerbitzuak" eta "Ostalaritza" jarduerak daude, eta horiek establezimendu guztien %20,1 eta %14,5 osatzen dute.

Merkataritzak, beraz, garrantzia handia du udalerriko ekoizpen-egituran; baina, hala ere, **merkataritza-dentsitatearen indizea** (1.000 biztanleko dauden establezimendu-kopuruaren arabera neurtua) Lurraldeko batez bestekoa (%70,6) baino baxuagoa da. Hain zuzen, Caixak urtero egiten duen Espainiako Ekonomia Urtekarian agertzen denaren arabera, 1.000 biztanletik gorako inguruko herrien artean, Hondarribiak du merkataritza-indize txikiena. Ildo honetan, aipatu behar da 2007ko abenduan HIGER Elkarteak, Bidasoa Bizirik eta Hondarribiko Udalak udalerrio merkataritzaren eta komertzioen alde egingo duen akordioa sinatu zutela.

Ondorioz, udalerriko **merkataritza-eskaintza murritza** dela esan daiteke; gainera, honako eremu hauetan biltzen da, batez ere: Portuan (San Pedro kalea eta inguruak) eta Alameda-Damarrin, Eroski supermerkatuaren inguruan.

Horri lotuta, kezkagarria da iraunkortasunerako **horrek guztiak eragiten duen mugikortasuna**; izan ere, Iruneko merkataritzak eta Txingudi Merkataritza Parkeak sortzen duten erakarpenaren eraginez, ibilgailu asko mugitzen dira.

Turismoari oso lotuta dagoen **ostalaritza-jarduerari** dagokionez, Espainiako Ekonomia Urtekariko datuen arabera, Hondarribian 127 jarduera zeuden jatetxeekin eta tabernekin lotuta, 2004an. Kopuru horiek jatetxeen eta

tabernen erdi-mailako indizea adierazten dute, eta Irunek eta Errenteriak soilik gainditzen dute. Bestalde, **Hondarribiko Ostalaritza Elkartea** dagoela azpimarratu behar da, hirian dauden jatetxe eta ostatu gehienek osatua. Hain zuzen, elkartearen helburu nagusia turismoa eta gastronomia sustatzea da.

Turismoa Hondarribia udalerriari zuzenean lotuta dagoen ezaugarria da. Turismoan, ospe handiko eremua da, eta jarduera horren kudeaketan garrantzi handiko agenteek hartzen dute parte. Horregatik da **Hondarribia Gipuzkoako eta euskal kostako turismo-gune nagusietako bat**; hori, gainera, garbi gelditzen da **udako hilabeteetan, Hondarribiko biztanleak bikoiztu egiten baitira**.

Horri jarraiki, Caixak urtero egiten duen Espainiako Ekonomia Urtekarian agertzen denaren arabera, inguruko herrien artean Hondarribia da turismo-indize handiena duen udalerria, eta, Gipuzkoako beste turismo-gune garrantzitsu batzuekin alderatuz gero (esaterako, Zarautz eta Zumaiarekin), askoz ere indize handiagoa du.

Non lan egiten du eta bizi da Hondarribian bizi eta lan egiten duen jendea? Galdera bikoitzari honako erantzun hau eman behar zaio: **Hondarribian bizi diren 10 langiletik ia 7k udalerritik kanpo egiten du lan.** Sortzen den mugikortasuna oso faktore kezkagarria da iraunkortasunari dagokionez. Gainera, establezimenduen, enpleguaren eta biztanleria landunaren eta egoiliarraren kopurua %20 baino gehiago hazi zen, 1996-2001 aldian; aldiz, herrian bertan lan egiten duten biztanleak %3,6 soilik ugaritu ziren. Beraz, Hondarribia **lohiri** gisa indartzen ari dela esan daiteke.

Datuak kontuan hartuta, **Hondarribiko biztanleriaren %70ek, gutxi gorabehera, udalerritik kanpo egiten du lan**, eta Hondarribian sortutako lanaren %30 Hondarribikoak ez diren pertsonek betetzen dute.

1.4 Estrategia-azterketa

1.4.1 Historia-bilakaera

Estrategia-ikuspegitik, orain arteko erreferentzia garrantzitsuena 93ko Bidasoako Estrategia Plana izan da. Une hartako baldintza sozio-ekonomikoak kontuan hartuta, planak goi-mailako ekonomia-edukia zuen, Europar Batasuneko mugak irekitzeak eragindako aldaketen aurrean Eskualdeak erantzun eta jarrera sendo bat hartu ahal izateko. Hauek dira planaren helburu nagusiak:

1 Banaketa- eta komunikazio-jardueretan, Europarekin lotura sendoa egitea, logistika-zerbitzu berriak garatu eta ezarri ahal izateko.
2 Industria-sektoreak errenta eta enplegua sortzeari egiten dion ekarpena handitzea, eta, batez ere, dagoeneko existitzen diren enpresen mantenuari eta garapenari mesede egitea, bai eta enpresa eta enpresa-zerbitzu berriak sortzeari eta erakartzeari ere. Hori guztia, gainera, sektoreen mugaz gaindiko integrazioa lortzeko ikuspegitik.
3 Merkataritza-sektorea sendotzea, ekonomia-dinamizaziorako oinarrizko sektore izan dadin; horretarako, egungo merkataritza-horniduraren lehiakortasuna arrazionalizatu eta hobetu behar da, bai eta merkataritza-formula berriak garatu ere.

Ikus daitekeenez, une hartako baldintza sozio-ekonomikoek eragina izan zuten aipatutako plana hiru jarduera-sektore hauetan soilik oinarritu zedin: logistika eta garraioa, industria-sektorea eta merkataritza-sektorea.
Plan horretan ez dira aintzat hartzen Hondarribiko jarduera-sektore guztiak.

60. taula
93ko Bidasoako Estrategia Planean gauzatutako estrategia-ildo eta jarduketa nagusiak.

Estrategia-ildoa	Egindako jarduerak
1. Gune intermodal bat eraikitzea eta sustatzea, merkantziak transferitzeko	1996an, Euskomodal enpresa sortu zuten, eta honako hauek osatu zuten: Decoexsa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta hamalau erakunde publiko eta enpresa pribatu. Oraindik egiteke dagoen Merkantzien Gune Multimodalaren bideragarritasuna aztertzeko hainbat ikerketa egin dira.
2. ZAISA Merkantzien Gune Integrala indartzea, Europako banaketa-sarean sartuta dagoen	Enpresak ZAISA I eta II eremuetan jarri ziren, eta horri lotutako enpleguak sortu ziren; bestalde, Irungo

Estrategia-ildoa	Egindako jarduerak
logistaka-eremuaren buru eta eragiletzat	ekonomia-jarduera indartu zen.
3. Bidasoa-Txingudiko banaketa- eta garraio-institutua sortzea	Garraio, Merkataritza eta Marketin Institutua (ITC) sortu zuten, eta, bertan, formazio arautuko eta ez arautuko ikastaroak eman, enpresa-garapeneko azterketak egin, aholkularitza-zerbitzua eskaini eta garraio- eta merkataritza-enpresei aholkuak eman ziren.
4. Industria-lurren ondare publikoa osatzea eta sustatzea, eta kudeaketarako baltzu publiko bat sortzea	Industria-lurrak zehazteko azterketak egin, urbanizatu eta industria-eremuak garatu zituzten.
5. Merkataritzarako udaleko hirigintza-programak sortzea, eta merkataritza sustatzeko eta bultzatzeko baltzu bat sortzea	Irungo merkataritzarako hirigintza-azterketa egin, merkataritza-eremuaren ingurua eta irisgarritasuna hobetzeko ekintzak abian jarri, udal-merkatua berritu eta, eskualdean, merkataritza-sektorearen asozianismoa handitu zen.
6. Udalaz gaindiko proiekzioa duen merkataritza-gune bat sortzea	Ekimen pribatuko Txingudi Merkataritza Parkea eraiki zen, Araso eremuan (Bentak).
7. Eskualdea turismo-gune bakartzat prestatzea: turismo-jardueren gune bat eta mugaz gaindiko lankidetza-batzorde bat sortzea	Bidasoa Turismoa bulegoa sortu zen (eskualdea sustatzeko lan egin duena), eta hiru udalerrien arteko landidetza sustatu zen: Irun, Hondarribia eta Hendaia.
8. Hiriko garraio kolektiboaren sare bateratu bat sortzea	Uda-sasoirako, hiru udalerriak lotzen dituen autobus-linea bat sortu zuten, eta, era berean, Hondarribia eta Hendaia urte guztian zehar lotuko dituen itsas-linea ere jarri zuten.
9. Urak saneatzea eta Txingudiko badiaren ezkerraldeko ubideak garbitzea, eta balio handiena duten natura-elementuak leheneratzea eta bultzatzea	Urak saneatu eta Txingudiko badiaren ezkerraldeko ubideak garbitu ziren; Irun eta Hondarribiko hiri-hondakinen eta industriako hondakin asimilagarrien isurketak biltzaile baten bidez bildu eta tratatu zituzten; eta balio handia duten natura-elementuak leheneratu eta bultzatu zituzten: hondartzak eta itsasertza, Jaizkibel, Aiako Harriak eta Txingudiko Badia.
10. Hondarribiko eta Hendaiako kirol-portuak garatzea, bai eta Hondarribian arrantzarako prestatuta dauden instalazioak ere	Hendaiako kirol-portua garatu eta, hondartzaren goiko aldean, Hondarribiko kirol-portua eraiki zuten.

Iturria: Geuk egina.

93ko Bidasoako Estrategia Plana gauzatzeak, beraz, eskualdeko logistika- eta garraio-sektoreen erreferentzia Europan sendotzea eragin du, eta,

Hondarribiaren kasuan, turismo- eta aisialdi-jardueren erreferentzia-gunetzat indartzea.

1.4.2 Egungo estrategia-eremua

Egun, Hondarribiak turismo-sektorean espezializatzen jarraitzen du. Hala ere, Europako eta eskualdeko egungo testuinguru berria dela-eta, mugaz gaindiko lankidetza-eremu berri bat aztertzen ari da. Bestalde, ezin da ahaztu Euro-barrutian (Hondarribia-Irun-Hendaia) eta Baiona-Donostia Euro-hirian Hondarribiak duen leku estrategikoa.

1.4.2.1 Euro-barrutia: Hondarribia-Irun-Hendaia

1998ko abenduaren 23an, Mugaz gaindiko Lankidetzarako Administrazioen arteko Hitzarmena sinatu zuten Hondarribiko, Irungo eta Hendaiako udalek. Beraz, Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa sortu zuten, eskualdean proiektu berritzaileak dinamizatzeko, elkarren arteko inbertsioak bultzatzeko eta, hiru udalerrien artean, gizarte- eta ekonomia-bilakaeraren eredu bat bateratzeko.

Hasiera batean, gai jakin batzuetan lan egitea proposatu zuten: turismoa, kultura, ongizatea eta ekonomia-bilakaera; eta, horretarako, enpresen arteko harremanak sustatu, komunikazio-bideak hobetu eta eskualdea baloratzeko ikerketak egin zituzten.

Oraingoz, **Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak** proiektu zehatz batzuk garatu ditu, honako alor hauetan: turismoa, kultura eta hezkuntza, enplegua eta formazioa, komunikazioa, kirola, ekonomia-bilakaera, gizarte-zerbitzuak, eta azpiegitura eta zerbitzu publikoak.

Era berean, probako saiakuntza bat egin du Siutz eraikinean, eguzki-plakak jarri baitituzte Energia Alternatiboen Lantegikoek; horrez gain, Hendaia Txingudiko Hondakinen Kudeaketa Planean sartu da. Proiektu horiek, azken batean, mugaz gaindiko lankidetza sendotzeko bidean eman beharreko

pauso eta aurrerapen txiki batzuk dira, eta, horien bidez, eskualdea indartu nahi dute, EAEn eta Pirinio Atlantikoetan.

1998tik, lankidetza hori errealitate bihurtzeko lanean ari diren arren, oro har, epe luzerako prozesua dela adierazi behar da. Ez da egokia epe laburrerako emaitzak bilatzea, denbora behar baita loturak indartzeko eta dituzten harremanak sendotzeko.

Euro-barrutia sendotzean, eskualdea ere indartu egingo da Europan, eta, gutxi gorabehera, 100.000 biztanle izatera iritsiko da. Ez da handiusteko helburu bat, baizik eta Europar Batasunaren helburu bera lortu nahi da. Udalerri bakoitzak hausnarketa eta aukera horretan sakondu eta bere egiten duen heinean, integrazioaren eta lankidetzaren arrakasta erreala handiagoa izango da.

Aipatutako proiektuak albo batera utzita, udal-politiketan eta erabaki-hartzeetan gero eta gehiago aipatzen da 100.000 biztanleko gune baten errealitatea. Hori da, esaterako, Irungo merkataritza-gune handiaren (eskualde osoa asebete nahi duena), Hendaiako hondartzaren edo Hondarribiko jatetxeen kasua. Hain zuen, errealitate horrek balio erantsi bat eman behar dio eskualdeari poliki-poliki, eta, ondorioz, duen balio estrategikoa indartu beharko du. Gai hori sakontzea udaleko eta eskualdeko helburu nagusietako bat izan beharko litzateke.

Hondarribia, Irun eta Hendaiaren arteko harremanak indartzeko baliabide bat eskualdeko Agenda 21 garatzea litzateke. Proposamen konplexua eta zaila da, baina, aldi berean, justifikatua:

1 Horri esker, ekonomia-, gizarte-, ingurumen- eta kultura-jarduketak garatzeko estrategia jar daiteke abian eskualdean, eta, horrela, eskualdeaz gaindiko testuinguru batean kokatuko da.
2 Politika-buruzagien eta toki-administrazioen arteko loturei egiten die mesede.
3 Herritarren arteko harremanak indartzen ditu, eskualdeko errealitatearen, eztabaiden, etorkizunerako proiektuen... azterketan oinarrituta.

1.4.2.2 Baiona-Donostia Euro-hiria

Irunek, Hendaiak eta Hondarribiak Baiona-Donostia Euro-hiria deiturikoaren geografia-gunea osatzen dute. Hori epe luzerako proiektu bat da,

bilakaerarako denbora, azterketa, eztabaida eta eskualdeaz gaindi dauden erakundeen apustu politikoa behar baititu. Beraz, goizegi da (eta, agian, arriskutsuegia ere bai) Baiona-Donostia Euro-hiriak Hondarribian eta eskualdean eragin ditzakeen abantailak eta ondorioak zehazteko.
Bestalde, garrantzitsua da Hondarribiak eta eskualdeak konurbazioan egun duten edo izan beharko luketen papera lantzea. Era berean, Euro-barrutian izandako esperientzia bera pauso baliagarria da Euro-hiria osatu aurretik. Bidasoaren bi aldeetako gizarte-, kultura-, ingurumen- eta ekonomia-harremanak mesedegarriak izateak sinergiak sortzea eta balio erantsia izatea adierazten dute, eta, noski, horiek lurraldean bertan eragin behar dute.

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialean bertan, "eremu funtzionaleko ekonomia-jarduera berriak eta hirugarren sektorekoak Baiona-Donostia Euro-hiriaren Proiektuan sartzeko estrategia" lantzeko beharra aipatzen da, goragoko eskalan dagoen lurralde-antolamendu horrek espazioak, azpiegiturak eta hornikuntzak osatzeko aukera argiak ematen baititu. Lan-tresnak eta –erremintak landu egin behar dira, derrigorrean, Euro-hiria errealitate konkretu bat izan dadin.

Azterketa iraunkorra kontuan hartuta, Euro-hiriaren eraginez, hainbat aldaketa izango dira eskualdean: azpiegiturak, ekipamendu-hornidurak, egoitza-eremuak eta ekonomia-jarduerak gauzatzeko eremuak... Azken batean, Donostiaren eta Baionaren artean, hiri jarraitu bat errealitate egitea da, eta, beraz, horri buruz hausnartu beharko da, iraunkortasuna kontuan hartuta. Hori guztia, gainera, prebentziozko ikuspegitik egingo da, eta ikuspegi zentzagarria ez da hainbeste kontuan hartuko. Hori dela-eta, baliteke Hendaia, Irun eta Hondarribia Euro-barrutiko Agenda 21en garapenak erreferentziatzat balio izatea Euro-hirian aplikatzen denean.

1.4.3 Etorkizuna: funtzio eta azpiegitura berriak

Hondarribiko etorkizuneko eremua (atal honetan aipatuko dena) udalean, eskualdean, lurraldean... egindako hainbat planek zehaztuko dute, horien eraginez Hondarribiko lurrak itxuraldatuko baitituzte, datozen urteetan.

Aztertutako dokumentu guztietan, Hondarribia aisialdian eta turismoan espezializatutako egoitza-gunetzat aztertu da. Zehazki, EAEko Lurraldea Antolatzeko Artezpideen arabera, Hondarribian *nabarmena da funtzio-espezializazio hori*; izan ere, hala eragin dute lurralde- eta hiri-ezaugarri bereziek, bi errealitateetan (hiritarra eta metropolikoa) duen periferia-

posizioak eta eremu horietan poliki-poliki ezartzen ari den integrazio- eta egituratze-prozesu funtzionalak. Espezializazioa bi faktoretan oinarritu da:

- Bertako lurren eta hirigunearen paisaia- eta hiri-kalitate bikaina eta aisialdiko jarduerak aurrera eramateko guneak izatea.
- Ekoizpen-jarduera garrantzitsurik ez izatea, arrantza eta turismo-zerbitzuak izan ezik; izan ere, azken bi horiek ez dute udalerrirako behar beste lan sortzen, eta, ondorioz, kanpoko lanen mendean egotera behartzen du.

27. grafikoa
Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Eremu Funtzionalerako LAAetan jasotako zehaztapenen sintesia.



Iturria: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak

61. taula. Hondarribian eragiten duten udalaz gaindiko planak

Plana	Edukia
EAEko Lurralde Antolamendurako Artezpideak	EAEko Lurralde Antolamendurako Artezpideak erreferentziatzat hartzen dira lekuak antolatzeko eta horien erabilera zehazteko; azrtezpide horietan, honako hau proposatu da Hondarribirako: ▪ Udal-plangintza Irunekin bateragarri egiteko mekanismoak aplikatzea, honako helburu hauek kontuan hartuta: 2006. Garraio-lotune bat osatzea 2007. Merkataritza- eta turismo-garapenerako ahalmena optimizatzea 2008. Industria-jarduerak garatzea 4. Ekologia- eta ingurumen-interes handiko eremutzat babestea
EAEko Errepideen Plan Orokorra eta Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plana	▪ A-8ren Bentakeko lotunea handitzea (dagoeneko egina dago) ▪ Amute-Mendelu saihesbidea (Irunerako eta Hondarribirako sarbideak) ▪ Donostiako eremuaren inguruan beste saihesbide bat ▪ N-1 errepidea bitan banatzea Pasaia eta Hondarribia-Irun-Behobia artean
Jarduera Ekonomikoetarako Lurrak Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana (aurrerapen-bidean)	Plan horretan jarduera ekonomikoetarako lurren eskaera aurreikusi da: hain zuzen, ordenan eskuragarritzat eta bideragarritzat jotzen den lur-kopurua baloratu da: 500/600 Ha Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Eremu Funtzionalean. Eskualderako honako hau proposatu da: ▪ Jarduera berritzaileak garatzen dituzten enpresa-parke baten sorrera bultzatzea Zubietan, Hondarribia eta Irun arteko lurretan, eta parke hori udalaz gaindikoa izatea. Eta Irun: ▪ Hirigune nagusietako bat bezala kokatzen du, bai eta komunikazio-korridore eta ekonomia-jarduera berrietarako lurrak garatzeko gune nagusietako bat bezala ere.
Ibaiertzak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana	Udal-plangintzan, lurzoru urbanizaezinetako ibaiertzetan honako kategoria hau ezartzea aurreikusi da plan horretan: "Azaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezinak". Aztertzen dituen ibaiak eta errekak Bidasoa eta Jaitzubia arroetan sartzen dira.
Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Plana (aurrerapen-bidean)	Txingudiko Badiako Babestutako Eremu Naturala, 2000ko Natura Sarea proposamenean sartua.

Iturria: Geuk egina.

Aipatutako plan bakoitzean adierazitako proposamenak bildu eta lurralde-antolamenduari aplikatu zaizkio, *Donostiako eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren aurrerakin-dokumentuan*; dokumentu hori, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu zuten, 2003ko otsailean.

62. taula.
Donostiako eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren proposamenak – Aurrerakina. 2002ko abendua.

Plana	Edukia
Aurrerapen-bidean dagoen Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Arloko Plana	Aurrerakin-dokumentua (2002ko abendua) irekia da, eta, bertan, bi eremu proposatzen dira lurralde-antolamendurako: alternatiboa eta funtzionala. Hauek dira Bidasoa Behererako proposamen nagusiak: ▪ Ingurumenean eragiten duten jarduerak garatzea eta ingurumen hori babestea, korridore ekologikoen, hiri-inguruko parkeen eta urperatu daitezkeen ibarren antolamendu integratuaren bitartez; eta horrez gain, erliebe ertaineko muinoak berdegune naturaltzat indartzea ▪ Garraio eta Komunikazio Sareari dagokionez. 2009. Kanpoko autobidea. A-8ren bigarren ingurabidea Bidasoaraino luzatzea 2010. Saihesbide guztietatik, egungo A-8 autobidea hiri-barneko banaketa-bide nagusi bihurtzea 2011. N-1 errepidearen funtzioaz berriro hausnartzea 2012. N-121 errepidea bultzatzea, Nafarroarekin lotzeko errepide nagusitzat 2013. Irun hirigunetik zeharkatu eta hiriaren iparraldea eta hegoaldea lotzen dituen bide bat zabaltzea 2014. Olaberriako haran gainera iristeko bide berria egitea 2015. Irun eta Hendaiako geltokietako trenbide-sistema osoa birmoldatzea 2016. Errepide bidezko garraioari zerbitzuak ematen dizkieten plataforma intermodal eta poligono berriak egitea ▪ Azpiegituren eta Zerbitzuen Sareari dagokienez, 2017. Usategieta gainan Uraren Biltegi Nagusia jartzea 2018. 220 Kw-ko linea elektrikoaren bide berria jartzea ▪ Udal-kokalekuen sistema, 2019. Oinezkoak eta bizikletaz doazenak ibiltzeko ibilbide arinen sarea sortzea 2020. Etxebizitza-parkeak zenbatzea eta ekonomia-jardueretarako lurren aurreikuspenen neurriak ezartzea 2021. Hiria zabaltzeko eremu berri izan daitezkeenak banatzea: Olaberria eta Ibarla haranetako lurrak 2022. BOEak egiteko lur publikoen kudeaketak egitea 2023. Zubietan eta Usategietan enpresa- eta

	hornidura-parkeak jartzea 2024. Hiria dinamizatu nahi den guneetan hirugarren sektoreko nukleoak eta hornidura-nukleoak indartzea ▪ Planifikazio-estrategiei dagokienez, honakoak adierazi dira: 2025. Etorkizuneko komunikazio-sarea osatzeko estrategia-interesa duten eremuak 2026. Dagoeneko dauden erabilerak lekuz aldatzeko eremuak 2027. Hirigintzako hazkunde berriak egiteko eremuak

Iturria: Geuk egina.

Lurralde Plan Partzialeko proposamenak lurralde-antolamenduari dagokion atalean xehetasunez aztertu arren, kontuan izan behar da LPPk urbanizatzeko joeran eta ekonomia-bilakaerarekin lotutako azpiegituren eta ekipamenduen sormenean sakontzen duela. Nahiz eta eredua ingurumena zaintzen saiatu, planak nahierara jokatzen du eremu garrantzitsu eta naturalenetan, eta lurraldeko gainerako zatiak (artean aldatu ez zirenak) bilakaeraren zerbitzura uzten ditu.

Bertan, esku hartzeko beharra azpimarratzen da, bereziki, azpiegiturak atalean; izan ere, Donostialdea eta Bidasoa Beherea leku estrategikoan daude, Iberiar Penintsula Europako gainerako lurraldeekin lotzen duen komunikazio-ardatzean. Horri dagokionez, eskualdean esku-hartze ugari egiten dira. Hau da, lur horiek azpiegitura handien euskarritzat erabiltzen dira –errepidez nahiz trenbidez–, eta horrek eragin handiak izan ditzake Hondarribian bizi diren pertsonengan.

Beraz, Hondarribian azpiegiturak asko garatuko dira, eta, aukeratutako ereduaren arabera (funtzionala edo alternatiboa), eragin handiagoa edo txikiagoa izango du udalerriko lurretan. Lurraldeko esku-hartzea ekonomia-bilakaeraren helburu eta lehentasunen mende dago. Bilakaera hori, hain zuzen, arrantzara bideratutako portu-azpiegituretan eta turismo- eta aisialdi-zerbitzuen modernizazioan eta hobekuntzan oinarritzen da, eta, horretarako, harrera-guneak (estuarioa, hondartza, Higer, Jaizkibel, Portua auzoa eta Alde Zaharra) ugaldu eta Jaizkibelen eta Higerren aisialdirako eremuak egokitu, hondartza-zerbitzuak antolatu eta hornitu, kirol-portu bat eraiki eta egoitza-guneen edukiera handitu behar dira.

Ondorengo **28. grafikoan** Donostialdea eta Bidasoa Beherako aurreikusten diren eta jadanik existitzen diren hainbat azpiegitura azaltzen dira. Honetarako, Donostialdea-Behe Bidasoaren LZP alternatiboaren mapa hartu da oinarritza.


AEROPUERTO
EUSKOMODAL
SUPERPUERTO
CENTRO DE DONOSTIALDEA
INTERMODAL DE LARRAMON
INTERMODAL DE LOIOLA
BAJO BIDASOA
INTERMODAL DE ASTIGARRAGA
INCINERADORA
OARSOALDEA
BAJO ORIA
URUMEA
CORREDORES DE TRÁNSITO EXTERIOR
SEGÚN MODELO ALTERNATIVO
A-8, N-1 y Autovía de Navarra
Viajeros largo reccorrido, TAV y Mercancías RENFE
E: 1/150.000

1.5 Gizartearen eta bizi-kalitatearen azterketa

1.5.1 Ekipamenduak eta oinarrizko zerbitzuak

1.5.1.1 Hezkuntza, Kultura eta Kirola

- **HEZKUNTZA-ESKAINTZA**

Bidasoa-Txingudi eskualdeko hezkuntza-eskaintzan 31 ikastetxe aurki daitezke; horietatik 20 ikastetxe publikoak dira eta 11 pribatuak. Ustez, 31 ikastetxe horiek **eskualdeko behar guztiak asetzen dituzte**, oro har.

Hondarribian, zehazki, hezkuntza ez unibertsitarioko etapa guztiak daude, goi-mailako Lanbide Heziketa izan ezik.

63. taula.
ERREGIMEN OROKORREKO IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXEEN DIREKTORIOA, BIDASOA-TXINGUDIN

	HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA		HEZKUNTZA BEREZIA		HHE		DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA		BATXILERGOA		LH	
	PUBL	PRIB	PUBL	PRIB	PUBL	PRIB	PUBL	PRIB.	PUBL	PRIB.	PUBL	PRIB.
Hondarribia	1	2	0	1	0	1	1	2	1	1	1	1
Irun	6	6	1	1	1	0	4	4	2	2	3	1

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila eta Hondarribiko Udala.

Ondorengo taulan, informazio zehatzagoa azaltzen da:

64. Taula. HONDARRIBIKO HEZKUNTZA ESKAINTZA (2007-2008)

IKASTETXEA	ESKAINTZA	HIZKUNTZA EREDUA	ERLIJIO EREDUA	IKASLE KOPURUA
IES TALAIA BHI (Eskola Publikoa)	• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (276 ikasle) • Batxilergoa (89 ikasle) • Erdi zikloko moduloa (18 ikasle)	D eredua	LAIKOA	383
CEP TALAIA LHI	• Haur hezkuntza (363 ikasle)	D eredua	LAIKOA	861

(Eskola Publikoa)	• Lehen hezkuntza (498 ikasle)			
CPEIPS AMA GUADALUPEKOA HLBHIP (Ikastetxe Pribatua eta hitzartua)	• Haur hezkuntza (190 ikasle) • Lehen hezkuntza (302 ikasle) • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (211 ikasle) • Batxilergoa (90 ikasle)	Haur hezkuntzan B eta D eredua, eta gainontzeko eskaintzan B eredua, Batxilergoa izan ezik (A eredua)	KRISTAUA	793
CPEIPS SAN JOSÉ HLBHIP – HIJAS DE LA CRUZ (Ikastetxe Pribatua)	• Haur Hezkuntza (112 ikasle) • Lehen Hezkuntza (152 ikasle) • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (72 ikasle)	Haurtzaindegian eta Haur Hezkuntzan: D eredua, eta "B indartua" beste etapetan	KRISTAUA	336

Iturria: www.hondarribia.org /www.talaiabhi.net/ www.amaguadalupekoa.net/ www3.planalfa.es/hondarribicruz/ www.euskalnet.net/talaiahh

65. Taula. HONDARRIBIKO ESKOLETAKO MATRIKULAZIOAK (2006-2007 IKASTURTEA)

Eskaintza	**Publikoa**	**Pribatua**	**Guztira**
Haur Hezkuntza/Lehen Hezkuntza/Bigarren Hezkuntza	1.088	1.060	2.148
Batxilergoa	68	78	146
C.F.G.M. (2)/L.R.P.	19	-	19
C.F.G.S. (3)	-	-	-
Besterik	-	-	-
Guztira	**1.175**	**1.138**	**2.313**

2028. Haurtzaindegia eta 2 urteko gelak barne; (2) Erdi mailako Lan Hezkuntza; (3) Goi mailako Lan Hezkuntza

Iturria: Bidasoa Bizirik. 2006 Urteko Memoria – Datu Sozioekonomikoak

Etorkizuneko hezkuntza ekipamenduei dagokionez, 2007ko apirilaren 1ean entregatu zen Udaletxean haurtzaindegi berriaren proiektua. Egin behar izan diren aldaketak direla bide (lurrazpiko aparkalekua barne), aurrekontua 1,4 miloi euro izatetik 2,1 miloi eurotara igaro da.

Faroko igoeran hasi eta eskuinean dagoen berdegunean egingo da, Loraitz etxebizitzen aurrez aurre. Haurtzaindegi berria 2010 urte hasierarako martxan izango da eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat 108 plaza egongo dira. Lanak 2008ko maiatza edo ekainean hasiko dira eta haurtzaindegia 2010 urte hasierarako amaituta egotea espero da. Haurreskola partzuergoaren bornean sartuko da. Loraitzeko haurtzaindegiaren aurrekontua 2,17 miloi €koa da. Azalera 2.138 metro karratukoa izango da, beheko solairuan 1.159 metro, 65 metro gehiago bulegoak egiteko lehen solairuan eta beste 914 metro garaje bat egiteko. Bertan, 30 edo 35 autorentzat tokia izango du langile eta gurasoek erabiltzeko.

- **HEZKUNTZA-ESKAERA**

Aurrez aipatu bezala, 03-04 ikasturtean, irakaskuntza ez unibertsitarioan matrikulatutako ikasle-kopurua 2.192ra iritsi zen, Hondarribian. Datu horiek 99/00 ikasturteari zegozkienekin alderatuz gero, matrikulazio-kopuruak apur bat gora egin zuela ikus daiteke; baina, zehazki, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ehuneko horiek oso garrantzitsuak izan ziren (+%26,3 eta +%15,2, hurrenez hurren).

Hori dela-eta, azken urteetan, hezkuntza-eskaera asko hazi dela ikus daiteke. Igoera hori hainbat faktorek eragin dute:

1 Hazkunde begetatiboa, Haur Hezkuntzan leku-eskaera handia eragin duena.
2 Egoiliar-kopurua handitzea, bai atzerritik etorritakoak, bai eskualdetik eta ingurutik etorritakoak.
3 Beste udalerrietatik etorritako ikasle-kopurua (esaterako, Irundik).

- **KULTURARAKO ETA GAZTEENTZAKO ZERBITZU ETA EKIPAMENDU ESKAINTZA**

Hondarribiko kultur ekipamenduei dagokienez, erakunde baten ekintzak gauzatzeko behar besteko edukiera duen ekipamendu espezifiko baten gabezia aipatu behar da, lehenenik eta behin. Egun, barruti itxi batean egin beharreko jarduera guztiak Hondartza udal-polikiroldegian eta Zuloaga Etxean egiten dira batik bat (Kultura Ekipamendu Publikoei dagokienez).

Hondarribiak ondorengo ekipamendu kulturalak ditu:

- Hondarribiako bolborategia: harresidun hiriaren interpretazio zentroa. Bolborategi zaharrean kokaturik dago, Javier Ugarte kalean. Eraikinaren helburu nagusia bisitariei hiriaren sarrera ematea da. Honetarako ikus-entzunezko ikuskizun bat eratu da. 2006 urtean, 485 bisitari jaso zituen uztaila eta abuztua bitartean.
- Zuloaga Etxea: Hondarribiako Udal Liburutegia da. Alde Zaharrean kokaturik dago, Kale Nagusian. Liburutegia, artxiboa, hemeroteka eta liburutegi gordailuaz gain, 70 pertsonako aforoa duen Ekitaldi Aretoa eta erakusketa gela bat aurki daiteke. Liburutegiak 5.400 bazkide ditu eta 2006 urtean 17.000 mailegu egin ziren.

Etorkizunean aurreikusita dauden azpiegiturak honakoak lirateke:

- Musika Eskolaren eraikin berria, Musika banda eta Txistulariak. Alde Zaharrean.
- Marinako Auditoriuma
- Hondarribiko Historiaren Interpretazio Zentroa
- Naturaren Interpretazio Zentroa (Goikoerrota)
- Arrantzaren Interpretazio Zentroa (*Carro varadero)*

Hondarribiko egungo ekipamendu publiko eta pribatuen eskaintzaren laburpen taula:

66. taula. Ekipamendu publiko eta pribatuen eskaintzaren

EKIPAMENDUA	AFOROA	EKIPAMENDUA DARABILTZEN ERAGILEAK	ESKAINITAKO EMANALDIAK	OHARRAK
EKIPAMENDU PUBLIKOAK				
Musika Eskola	Aforoa txikia da dauden beharrei erreparatuz.	Musika Banda eta eskoletako irakasleak	Ez dira antolatzen	-------
Liburutegia	Ekipamendu hau txikia geratu da	Herritar guztiei irekia, nahiz izanez gero erabil dezaten	Erakusketak beheko solairuan	-------
Zuloaga Etxeko aretoa	Baditu bere gabeziak baina besterik ezean	Herritar guztiei irekia, lehenago dagokion eskaria	Txarlak, konferentziak, bideo emanaldiak,	-------

	nahiko erabiltzen dela baiezta daiteke.	eginez	eta abar.	
Hondartza kiroldegia	500 bat pertsona sar daitezke	Udalak edo alokatzen duen edozein eragilek erabili dezake	Kontzertuak, pailazoak, dantza emanaldiak, antzerkiak, eta abar	Akustika ona dauka halako ekitaldiak antolatzeko
Jostaldi pilotalekua	600 bat pertsonentzako aforoa du	Udalak edo alokatzen duen edozein eragilek erabili dezake	Bazkari herrikoiak, haurrentzako jokoak, eta orokorrean akustikak berebiziko garrantzia ez duen edozein motatako kultur ekitaldiak	Akustika txarra dauka eta ez du balio edozein motatako ekitaldirik antolatzeko
EKIPAMENDU PRIBATUAK				
Udalerriko elizak	Nahiko aforo ederra dute	Udalak eta kultura eragileek, aurrez hala eskatuz gero	Kontzertuak	
Paradorea	100 bat pertsona	Paradoreari ondo iruditzen zaion pertsona orok erabil dezake, beti ere bezeroak kontuan izanik	Kontzertuak, hitzaldiak, eta abar	

Iturria: Hondarribiko udala

Kultur ekipamenduen premiei dagokionez, lehenik eta behin *auditorium* baten beharra azpimarratzen du udaletxeak, eta agian beste txikiago bat ere. Aldi berean, baita erakusketa aretoa, musika eskola eta liburutegi egoki bat, ikasleek ikasteko gela batzuk, ludoteka bat… bezalako ekipamenduen beharra ere ezin da ahaztu.

Areto pribatuen erabilpenari erreparatuz, udalak ekipamendu pribatuak erabiltzen ditu aurreko koadroan ikus daitekeen moduan (elizak eta Paradorea doan erabili izan ditu udalak). Aipatu behar da, era berean, lokalak ere alokatzen dituela udalak herriko artistek –margolariek, esate baterako- erabilpena eman diezaieten.

Herriko kultur eragileen iritziari dagokionez, lehen aipatutako gabeziak beraiek ere sumatzen dituztela azpimarratu behar da eta kultur azpiegitura gehiago eskatzen dituzte. Udalak gabeziei aurre egitea espero du, 2008 urtetik aurrera aurreikusten diren ekimenei esker (Musika Eskola berria, Hondarribiko Interpretazio Zentroa, …). Epe motzera, Musika Eskola berriaren proiektua esleituta dagoela aipatu behar da,

eta bere barnean musika ikasteko gelatik aparte, *auditorium* txiki bat egongo da (150 pertsona) eta bi solairu bestelako kultural erabilera izateko gai izango dena.

2008. urtean Musika Eskolako lanak hasi eta Hondarribiko Interpretazio Gunearen abiatzea aurreikusten dira. Era berean, Itsas Etxea handitzeko azterketa bat egitea eskatuko da, eta osasun zentroa, auditorio eta Kultur Etxea hobetu nahi dira

Udalerrian ospatzen diren ekitaldi garrantzitsuenak ondorengo taulan jaso dira:

67. taula. Ekitaldi garrantzitsuenak

HILABETEA	EGUNA	JARDUERA
Urtarrila	4	Erregeen postaria
Urtarrila	5	Erregeen desfilea
Urtarrila	5	Jaiotza biziduna
Otsaila		Inauteri-kartelen erakusketa
Otsaila/Martxoa		Inauteriak
Apirila		Aste Santuko argazkien erakusketa
Apirila		Musika erlijiosoaren zikloa
Apirila		Pazko asteko ospakizunak
Maiatza	15	San Isidro
Maiatza		Betiko kantuen jaialdia
Maiatza		Gitarrako nazioarteko jaialdia
Maiatza/Ekaina		Mendeluko jaiak
Ekaina		Erdi Aroko argazkien erakusketa
Ekaina		Erdi Aroko azoka
Ekaina	23	San Juan bezpera
Uztaila		Karmen
Uztaila	24	Euskal Antzerkia
Uztaila	22/24	Magdalena jaiak
Uztaila	23/23	Arkolla auzoko jaiak
Abuztua	14	Musika Bandaren udako kontzertua
Abuztua	3. igandea	Herri Giroa
Abuztua	12/15	Jaitzubia auzoko jaiak
Abuztua	3. aste burua	Bidasoa folk
Iraila	6/11	Zaindariaren jaiak
Iraila	1/15	Zaindariaren jaietako argazkien erakusketa
Iraila/Urria		Txingudi Eguna
Azaroa	22	Santa Zezilia - Kontzertuak
Azaroa		Tolosako lehiaketako kontzertua
Abendua	21	San Tomasak
Abendua	24	Gabonetako kanten lehiaketa eta Olentzero
Abendua	25	Jaiotza Biziduna

Arte plastikoetako bekadunek egiten dituzten arte-erakusketei dagokienez, urtero, udalerriko hiru artisten lanak erakusketan jartzen dira, eta artista horiei beka bana ematen zaie, urtebeteko epean dituzten proiektuak gara ditzaten.

Era berean, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren **Kulturako Lan Batzordea** lanean ari da bere kultur produktu propioak proposatzeko; horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- Txingudi Eguna. Helburua antolatutako ekintzetan ahalik eta herritar gehien biltzea da. Txingudi Egunaren XII edizioa 2007eko irailean izan zen.
- Bidasoa Folk. Ekitaldi horren helburuak munduko musikak eta eskualdeak ezagutzea eta Euskal Herriko kultur ondare aberatsa gehiago baloratzea dira. 2007ean, Partzuergoak zazpigarren edizioa aurkeztu zuen.
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak antzerki-ikastaroak ere antolatzen ditu. Antzerkian interesa duten, antzerki-teknika batzuk ikasi nahi dituzten (inprobisazioa, pertsonaiak sortzea, gorputz-adierazpena edo ahotsa lantzea) eta gai hori lantzeko antolatutako asteburuetan eskualdeko profesionalen arteko lankidetza bultzatu nahi duten pertsona batzuk elkartzen dira, eta, azkenik, lan horri guztiari amaiera emateko, ikuskizun txiki bat antolatzen da, hiru hirietan.

Gazteen alorrari dagokienez, Hondarribiko gazteek zerbitzu hauek dituzte eskura: Gazteentzako Informazio Zerbitzua, Gaztelekua, "Psicocybe Enea" (musika jotzeko erabiltzen duten udal eraikina) eta Prebentzio Komunitarioko Zerbitzua. Bestalde, establezimendu horiek gazteei zuzendutako hainbat jarduera antolatzen dituztela aipatu behar da; besteak beste: tailerrak, ikastaroak, ikuskizunak eta elkartrukeak.

- **EKIPAMENDUAK ETA KIROL-ZERBITZUAK**

Hondarribiko indar-gune garrantzitsuenetako bat, bizi-kalitatea kontuan hartuta, bertako **kirol-ekipamenduen** eskaintza zabala da:

1 Polikiroldegia: Hondartza polikiroldegiak 10.000 m^2-ko azalera du, eta, horrez gain, kanpoko pistak daude. Honako instalazioak ditu:

- 2 igerileku
- Squash-erako kantxak
- Rokodromoa
- Balio anitzeko 2 areto
- Spinnig praktikatzeko sala
- Muskulazio eta fitnesserako sala
- Futbol zelaia (belar artifiziala)
- Kirol anitzeko pista
- Futbito eta Saskibaloirako jokalekuak
- 4 Tenis pista
- 3 paddle pistak

2006 urtean Hondartza Polikiroldegiak 6.438 bazkide zituen.

2 Arraun-elkartea.

3 Tiro-eremua: Jaizkibel mendian dago udal-jabetzako eremu hori, eta, guztira, 8.078,40 m^2 ditu.

4 7 kirol-gune auzoetan; zehazki: Soroetan, Amuten, Mendelun, Planetasen, Puntalen, Santiagotxon eta Jaitzubian.

5 Jostaldi pilotalekua: 1.700 m^2-ko azalera du, eta, bertan, 800 pertsona sar daitezke: 600 eserita eta 200 zutik.

6 Hondartza futbol-zelaia.

7 Hondarribiako Kirol Portua: guztira 653 amarradura ditu, gehiengo eslora 16 metro dituzten ontzientzat zuzenduta. Honetaz gain, 65 amarradurako dike "soziala" ere badu.

1997an eraiki zuten polikiroldegia, eta, geroztik, hainbat handitze- eta hobetze-lan egin dituzte (kanpo-eremua, gimnasioa...). Horrekin guztiarekin, udalak kirola egiteko ekipamendu- eta zerbitzu-eskaintza zabala eskaini nahi die Hondarribiko herritarrei.

Hori dela-eta, ekipamendu-eskaintza horren bitartez, kirol-jarduera erraztu nahi da, hiru ikuspegi hauek kontuan hartuta:

- Formazioa (eskola-kirola): 11 eta 14 urte bitarteko ikasleen %70ek, gutxi gorabehera, eskola-kirolean parte hartzen du.
- Kirola aisialdirako edo denbora pasatzeko: (ibilaldiak, bidegorriak, mendi-ibilaldiak...)
- Lehiatzeko kirola, udal-instalazioen bitartez

Gainera, eskaintza hainbat ikastarorekin eta modalitate guztietako gimnasia-eskolekin dago osatuta, eta kiroldegian bertan ematen da. Horri dagokionez, saturazio apur bat nabari da, dagoeneko Hondarribian bizi diren 5.500 bazkide baitaude (biztanleria osoaren %34); eta horiei, gainera, beste 700 bazkide gehitu behar zaizkie, Irungoak eta Iparraldekoak.

2008an Amuteko kirol gune berria eraikitzeko lanak hasiko dira, besteak beste, frontoia eta erabilera anitzeko pista.
Azkenik, sailerako web gune bereziaren sorrerarako 24.000 € bideratuko dira.

Dohainik diren kirol instalakuntzei dagokionez, honako kokapena, egoera eta mantenua dute:

- Mendelun eta puntalean badaude kirol instalakuntza sinple batzuk. Ez dira beste munduko gauza eta bere mantenua ere ez da gehiegizkoa.

- Amuten egungo instalazioak egoera oso txarrean daude baina proiektu berria ia bukatua dago. Frontoi bat, pista polibalente bat eta minibasket jokatzeko pista bat ere aurreikusia dago.
- Soroetari dagokionez, bertan ere proiektu txiki bat egiteko asmoa dago.

Eskualdeko ekipamenduen kudeaketaren koordinazioa eta kirol politika bateratuari erreparatuz gero, aipatu behar da egun ez dagoela koordinazio gehiegirik baina neurri batean komenigarria izango litzateke. Dena den, hor daude Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, eskualdeko udalerriekin elkarlanean, aurrera eramaten dituen ekintza komunak (urtez-urteko memoria argitaratzen du Partzuergoak informazio gehigarria eskuratu nahi izanez gero).

Azkenik, hainbat kirol-kluben eta udalaren beraren artean dauden hitzarmenak aipatu behar dira; hitzarmen horiei esker, klubek udal-instalazioak erabil ditzakete, eta, horren ordainetan, formazio-jarduerak gauzatzeko konpromisoa hartzen dute, bai eskola-kirolaren baitan, bai kanpaina horretatik kanpo.

Bestalde, Mugaz Gaindiko Partzuergoaren Kiroleko Lan Batzordeak, urtero, ekintza batzuk antolatzen ditu hainbat kirol-jardueratan, horiek osatzen dituzten aktore desberdinen artean lankidetza-foro bat eratzeko; horrela, kirola egiteak mugaz gaindiko eskualdeetan dituen arazoak aztertu, eztabaidatu eta horien konponbideak proposatu, eskualde horietan era guztietako jarduerak sustatu, eta, azkenik, "mugarik gabeko kirolaren aldeko adierazpena" zabaldu nahi dituzte.

Ekintza garrantzitsuenen artean, honako hauek azpimarratu behar dira: Txingudi Korrika, martxoan hiru hirien inguruetan egiten den herri-lasterketa; Bidasoa Itzulia (maiatzean egiten da); Bidasoako Jaitsiera hegatsak jantzita (Bidasoa ibaian ospatzen da maiatzean); eta Eskola-kirolaren Jaia. Azken horretan, eskualdeko hainbat ikastetxek hartzen dute parte, eta ekintza batzuk proposatzen dituzte 10-12 urteko ikasleentzat; horrela, tenisean, zirkoan, errugbian, saskibaloian, kartingean, gimnasian, judoan eta eskaladan aritzeko aukera ematen diete, besteak beste.

1.5.1.2 Osasun-zerbitzuak eta zerbitzu sozioasistentzialak

OSASUNA

Osasun-alorrean, Hondarribian osasun-zentro bakarra dago, eta, bertan, medikuntza orokorraren premia guztiak asetzen dituzte.

Hori dela-eta, asistentzia espezializatuagoa behar izanez gero, udalerriko pazienteak eskualdeko beste osasun-zentroetara eramaten dituzte; esaterako, Irungo osasun-zentrora.

68. taula. OSASUN ZERBITZUAK BIDASOA-TXINGUDIN

Udalerria / Eremua	Guztira	Anbulatorioak	Kontsultategiak	Osasun-zentroak	Larrialdi-zerbitzuak	Hiri-inguruetako zentroak	Osasun mentaleko zentroak	Mutuen Asistentzia Zentroa	Beste batzuk
Hondarribia	1	0	0	1	0	0	0	0	0
BIDASOA TXINGUDI	*5*	*1*	*0*	*2*	*1*	*0*	*1*	*0*	*0*

Iturria: Geuk egina.

Egun dagoen osasun ekipamendua ez da nahikoa udalerrian dauden beharrei erantzuteko orduan. Hori dela eta, anbulategiaren eraikina handitzeko oinarrizko proiektua idatzi da.

"Euskal Sistema Sanitario Publikoaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Plana 2007-2012"ak Hondarribiako Osasun Zentroa hobetzeko inbertsioak aurreikusten ditu.

Bestalde, Bidasoa Ospitalearen instalakuntzak handitzea aurreikusten da (42 ohe berri) baita kontsultara zuzenduta dagoen eremua handitzea eta egokitzea (1.550.000€ eta 630.000€ hurrenez-hurren).

Honetaz gainera, Planak, Osasun Zentroak dituen gastuaren zati bat ordaintzea aurreikusten du. 1,7 milioi euro baino gehiagoko presupuestoa du ondorengo ekintzak gauzatzeko:

- Obra, birgaiketa eta bestelako azpiegiturak eta instalakuntzen hobekuntza.
- Bestelako birgaiketa obrak

ZERBITZU SOZIOASISTENTZIALAK

Zerbitzu sozioasistentzialen ikuspegitik, Hondarribiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamenduak bi helburu ditu: alde batetik, gizarte-baliabideak eskuratzeko dauden desberdintasunak baztertzea, eta bestetik, pertsonen, familien eta gizartearen oreka-gabezia arinak diagnostikatzea, prebenitzea eta zaintzea. Horretarako, oinarrizko bost eremutan gauzatzen du bere jarduera:

1 **Baliabideei buruzko informazioa ematea, baloratzea eta orientatzea** (minusbaliotasuna aitortzea, aparkatzeko txartela, bono-taxia, toxikomanoentzako arreta, familia ugariak...)

2 **Bizikidetzarako laguntza** (tele-alarma, etxez-etxeko laguntza-zerbitzua, minusbaliotasunak dituzten pertsonentzako laguntza teknikoak, familiaren esku-hartzea, tratamendu psikosoziala...).
3 **Aukerako egoitza** (zaharren egoitzak, eguneko zentroak, aldi baterako egonaldiak, 3. adinekoentzako oporrak, larrialdietarako ostatuak, haurrak hartzeko etxeak...).
4 **Iraupenerako estaldura** (kotizazio gabeko pentsioa, ongizate-funtsaren pentsioak, udaleko diru-laguntzak, gizarte bazterketaren aurkako borroka-plana...).
5 **Prebentzioa eta gizarteratzea** (Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzuaren aldaerak).

2004ko datuen arabera, guztira 661 espediente ireki ziren; beraz, 2002ko datuekin alderatuz, %137ko igoera izan zen.

2006ko datuei dagokionez, urtean Departamenduak irekitako 666 espedienteetatik gehienak baliabideei buruzko informazioa emateari, baloratzeari eta orientatzeari buruzkoak (%42,8), bizikidetza-unitateari laguntza (%35,9).

"Bizikidetza unitateari laguntza" arloari dagokionez, izapidetu diren espedienteen urtez urteko igoera nabari da: 2004 urtean 107, 2005 urtean 186 eta 2006an 239. Aldiz, "alojamendu alternatibo" eta "biziraupen estaldura"ri erreparatuz gero, ireki diren espedienteen kopurua jaitsi egin da. Aipatu beharra dago "Prebentzioa eta Gizarteratzea"ri dagozkion espediente kopurua 10ekoa izan dela 2005 eta 2006 urteen bitartean (hori dela eta, ez dira ondorengo grafikoan isladatzen).

29. grafikoa
Irekitako espediente guztiak, Programen arabera (2004-2006)



Iturria: Hondarribiko Udala. Gizarte Zerbitzuen urteko memoriak

Gehiago sakonduz gero, 2005 eta 2006 urteei dagozkion honako datuak azpimarra daitezke:

Baliabideen informazioa, balorazioa eta orientazioa:

69. Taula. Baliabideen informaziorako, baloraziorako eta orientaziorako programak (2005-2006)

Tramitazioa	2005	2006	Guztira
Minusbalia gradua	110	115	225
Dependentziaren balorazioa. Sakontzen	112	104	216
Minusbaliatuen estazionamendurako txartelak	26	32	58
Bono-taxia	-	-	-
Familia ugaria	25	31	56
Heldu	14	13	27

Datuak: Gizarte Zerbitzuen Departamentuko 2005 – 2006 memoria

Gehien eskatzen diren zerbitzuak ezindu fisikoari lotutakoak dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak duen minusbaliatuen zerrendan, Hondarribiko 658 pertsona agertzen ziren 2005 urtean eta 703 pertsona berriz 2006 urtean.

Bizikidetza–Unitateari laguntza:

70. Taula. Bizikidetza-Unitateari zuzendutako laguntza programak (2005-2006)

Erabiltzaileak	2005	2006	Guztira
Tele alarma	55	101	156
Etxean bertan ematen den laguntza zerbitzua	90	106	196
Minusbalia laguntzak	34	48	82
Interbentzio familiarra (familia unitateak)	13	9	22

2005 eta 2006 urteak parekatzen badira, zerbitzuak erabili dituzten pertsona kopuruak gorantz egin duela ikus daiteke; batez ere tele alarma eskatu duten pertsona kopuruak.

Alojamendu alternatiboa:

71. Taula. Alojamendu alternatiborako programak

Eskaerak	2005	2006	Guztira
Zaharren egoitzak	29	34	63
Eguneko Zentroak	10	9	19
Aldizkako egonaldiak	21	17	38
Adingabekoen harrerako familiak	Familiak: 4 Adingabekoak: 7	Familiak: 3 Adingabekoak: 5	Familiak: 7 Adingabekoak: 13

Hondarribiak Eguneko Zentro bakarra du, "Gibeletea" izenekoa. Hasieran, 18 pertsonentzako lekua zuen harren, egun, 24 zaharrentzako egoitza pribatua da. Plaza guzti hauetatik 8 Diputazioarekin hitzartutakoak dira, hain zuzen ere menpekoak diren pertsonentzat zuzendutakoak.

Eguneko Zentroan eman diren mugimenduak honakoak izan dira:

72. Taula. Eguneko zentroaren erabilera

	Eskaerak	Alta hartutako berriak	Baja hartutakoak	Itxaron zerrendan
2005	10	5	1	5
2006	9	1	1	6

Taulan jasotzen direnaz gain, ondorengo zerbitzuak ere badira:

- Terma programa – Hirugarren adinekoentzat oporrak
- Larrialdietarako alojamenduak eta gizarteratze baliabideak

73. taula. Larrialdietarako alojamenduak-Gizarteratze Baliabideak (2005-2006)

	Larriald. Alojamendua	Gizarteratze baliab.
2005	2	-
2006	3	10 (eskaera)

- Hirugarren adineko pertsonen harrerako familiak: ez da eskaerarik bideratu.

Biziraupen estaldurari zuzendutako prestazioak:

Iraupenerako estalduraren prestazioei dagokienez, azken urteetan era horretako laguntzak etengabe hazi direla ikus daiteke. Hala, gizarte-zerbitzuek 2004rako egindako memoriaren arabera, 105 familiak jaso zuten laguntza, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeari jarraiki (Oinarrizko Errenta: 17 familiak; Gizarte Larrialdiko Laguntza: 45 familiak; eta OE eta GLL biak batera: 43 familiak). Kopuru horien arabera, beraz, %40ko igoera izan zen 2002tik.

Gizarte-bazterketaren aurkako legeari jarraiki ematen diren laguntzen titularren ezaugarri soziologiakoak direla-eta, gehienetan, bakarrik bizi diren adineko emakumezkoak eta bakarrik bizi eta beren ardurapean seme-alabak dituzten emakumezkoak izaten dira.

74. taula. Sexuaren, adinaren eta familia-osaketaren aldaerak

Familia-unitateak	Bakarrik 42		Bikotearekin 31		Guraso bakarra 27		Besteak 5
105	Gizonezkoak	Emakumeak	Seme-alabekin	Seme-alabik gabe	Gizon.	Emak.	
GUZTIRA	**18**	**24**	**23**	**8**	**1**	**26**	**5**
< 25 urte	0	1	0	4	0	1	2
26 – 35 urte	4	3	13	1	0	6	1
36 – 45 urte	3	4	5	3	0	12	2
46 – 55 urte	6	5	5	0	1	4	0
56 – 65 urte	4	7	0	0	0	3	0
> 66	1	4	0	0	0	0	0

Iturria: Hondarribiko Udala. Gizarte Zerbitzuen 2004ko memoria.

Zehazki, Gizarte Larrialdietako Laguntzei, aldian behin ematen diren diru-prestazioei eta gastu espezifikoei aurre egiteko behar besteko baliabideak ez dituzten pertsonei emandako diru-laguntzei dagokienez (ohikoak eta ezohikoak, eta gizarte-marjinazioko egoerak prebenitzeko, baztertzeko edo arintzeko beharrezkoak direnak), 2004an, 150.755,80€ gastatu ziren; hain zuzen, kopuru horren %34,6 Udalak ordaindu zuen eta gainerakoa Foru Aldundiak. Kopuru hori, zehazki, 2002an emandako diru-laguntzen kopurua baino %51,7 handiagoa izan zen.

Kontzeptuka aztertuz gero, etxebizitzarekin lotutako laguntzak dira garrantzitsuenak, laguntza horien guztien ia %74 osatzen baitute.

75. taula. GIlren banaketa, kontzeptuen arabera. Hondarribia (2004)

Kontzeptua	Zenbatekoa	%
☐ **Alokairua eta amortizazioa**	111.205,82 €	%73,8
☐ **Mantenua**	30.203,50 €	%20,0
☐ **Aurrez egindako zorrak**	4.972,79 €	%3,3
☐ **Oinarrizko premiak:**	2.793,19 €	%1,9
☐ **Higikorrak eta konponketak**	1.598,49 €	%1,1

Iturria: Hondarribiko Udala. Gizarte Zerbitzuen 2004ko memoria.

Horri dagokionez, beharrezkotzat jo da gizarte-alokairuarekin lotutako beharretan izaten ari den hazkundeari "arretaz" begiratzea.

Denboran berriagoak diren datuei dagokionez, jarraian agertzen dira 2005 eta 2006 urteari dagozkion biziraupen estaldurari zuzendutako prestazioen inguruko 2005 eta 2006ko datuak:

76. Taula. Biziraupen estaldurari zuzendutako prestazioak

	PENTSIO EZ KONTRIBUTIBOAK		GIZARTE SEGURANTZAREN ONDARE PENTSIOAK		UDAL LAGUNTZA EKONOMIKOAK		GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO PLANA*	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
ESKAERAK	7	6	7	6	11 familia	6 familia	103 familia	105 familia
JASO DUTEN PERTSONA KOPURUA	40	35	7	6				

Iturria: Gizarte Zerbitzuen saileko 2005-2006 Memoria

Gizarte Bazterketaren aurkako Planari dagokionez, honako datuak jaso dira:

77. Taula.Gizarte bazterketaren aurkako planaren programak izandako eskaera kopurua eta jaso duten familia kopurua

	GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO PLANA			
	GIZARTERATZEA BULTZATZEKO GUTXIENEKO SARREAK-OINARRIZKO ERRENTA		GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	
	2005	2006	2005	2006
ESKAERAK	34	49	153	251
JASO DUTEN FAMILIA KOPURUA	57	64	97	102

Iturria: Gizarte Zerbitzuen saileko 2005-2006 Memoria

Gizarte Zerbitzuen Departamentutik egiten diren gaikako lan jarduera nagusiei dagokionez, honakoak aipa daitezke:

1. – Emakumea
2. – Hirugarren adina
3. – Enplegua eta Prestakuntza
4. – Elkarte, erakunde, proiektu eta zerbitzuei zuzendutako diru laguntzak.

Gaikako lan hauen zehaztasunak jakin aurretik, ondorengo grafikoan EAEko eskulade desberdinetan dauden osasun zentroak errepresentatzen dira (1.000 biztanleko):

30. grafikoa

Gizarte Zerbitzuen zentroak eskualdeko (2005)

Gizarte Zerbitzuen zentroen ratioa / 1.000 hab.



Iturria: EAEko gizarte zerbitzuen sektorea. FCAVN 2005

Ratio handiena Arabak du, araneko zonaldea izan ezik (bertan Gasteiz aurkitzen da). Eskualde hauetan populazio-dentsitatea oso bajua da eta beraz, ez dira oso adierazgarriak. Bidasoa Behearen kasuan, EAEko batezbestekoaren azpitik dagoela aipatu behar da eta gainera, ratio txikien duen eskualdea da (0,5).

Gaikako lan ildo horiei dagokionez, interesgarria gertatzen da Hondarribiko udalak horietan 2005 eta 2006 urteetan zehar aurrera eraman dituen jarduera nagusiak laburbiltzea (datuak Hondarribiko udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak, udaleko estatistika arloak eta Bidasoako Garapen Agentziak erraztu ditu):

A) EMAKUMEAK

Emakumeei bereziki zuzendutako honako zerbitzuak eskaintzen dira:

- Ekintza positiborako udal plana:Udaletxeak "Osasun Kirol" programari diru laguntza ematen dio. Programa hau, bularreko minbizia duten emakumeei zuzenduta dago eta kirol Medikuntzaren Kabineteak antolatzen du "Hondartza Kiroldegian"

- EMEKI Emakumeen Elkartearekin elkarlana:Programaketaren berri ematen da interesatuak egon daitezkeen pertsonei eta elkarteak antolatzen dituen hainbat ekitalditan parte hartzen du.

- Erditze eta erditze ondorengo prestakuntza:Osakidetzak bideratzen duen zerbitzua da, emagin nagusiaren eginbeharren barruan txertatuz. Jostaldi Pilotalekuaren ondoan dagoen eraikuntzan ematen da zerbitzua. Udaletxeak lokala jartzen du eta mantentze-lanei lotutako gastuak beregain hartzen ditu. Gizarte Zerbitzuen Departamentuak koordinazio lanak egiten ditu.

B) ETORKINAK

Udaletxearen estatistika departamenduak emandako datuen arabera, Hondarribian 825 pertsona zeuden erroldatuak 2008 urtean. Hauek dira azken 3 urtetako datuak:

78. taula. Atzerriko etorkinak. Hondarribia (2005-2007)

HONDARRIBIAN ERROLDATUAK DAUDEN ETORKINAK	
2005	647
2006	756
2007	825

Iturria: Udaletxeko estatistika departamendua. Guk egina.

Estatuko autonomi erkidego desberdinetatik etorritako eta Hondarribian erroldatuak dauden pertsonen inguruko datuak honakoak dira:

79. taula. Estatuko etorkinak (2005-2007)

HONDARRIBIAN ERROLDATUAK DAUDEN ETA JATORRIA ESTATUKO AUTONOMI ERKIDEGOAK DUTEN PERTSONA KOPURUA	
2005	788
2006	801

2007	813

Iturria: Udaletxeko estatistika departamendua. Guk egina.

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuak **HELDU zerbitzua** du etorkinentzat. Pertsona hauek Espainian egoteko autorizazio administratiboa ez dutenez, gizarte bazterketa sufritzeko arrisku handia dute. Zerbitzu honen bitartez, pertsona hauen atentzio eta erantzun hobea ziurtatu nahi da.

80. taula. 2005-2006 urteetan tramitatutako espedienteen laburpena.

	ESPEDIENTEA BIDERATU DEN URTEA	
	2005	**2006**
TRAMITATU DIREN ESPEDIENTE KOPURUA	14	13

D) PERTSONA MINUSBALIATUAK:

Pertsona minusbaliatuek honako informazio, balorazio eta orientazio zerbitzuak dituzte:

- Minusbalioa-minusbaliotasuna: Gizarte Zerbitzuetako departamendutik, minusbalio eta dependentzi maila lortzeko eskaerak egiten dira:

- Minusbalio mailaren onarpena: minusbaliatu egoera lortzeko, %33ko minusbaliotasuna eduki behar da. Portzentaia Gipuzkoako Foru Aldundiko Balorazio Taldeak erabakitzen du.

81. taula. Minusbalio mailaren onarpena (2005-2006)

URTEA	BIDERATUTAKO ESPEDIENTEAK	ESKATZAILEAK	
		EMAKUMEA	GIZONA
2005	110	49	61
2006	115	71	44

- "Sakontzen" Dependentziaren balorazioak: hauek dira udaletxetik bideratutako espedienteak (balorazioa Foru Aldundiko Balorazio Taldeak egiten du):

82. taula. "Sakontzen" Dependentziaren balorazioak (2005-2006)

URTEA	BIDERATUTAKO ESPEDIENTEAK	ESKATZAILEAK	
		EMAKUMEA	GIZONA
2005	112	76	36
2006	104	64	40

- Minusbaliatuentzako aparkaleku txartelak: Diputazioak informe bate gin ondoren, udaletxeak ematen ditu. Txartelak pertsonalak dira eta pertsonak kotxean egon behar du erabili ahal izateko.

83. taula. Minusbaliatuen aparkaleku txartelen eskaera kopurua (2005-2006)

	ESPEDIENTEA BIDERATU ZEN URTEA	
	2005	**2006**
BIDERATUTAKO ESPEDIENTEAK	26	32

Bizikidetza-Unitateari zuzendutako zerbitzuak honakoak dira:

- Telealarma zerbitzua: Minusbaliotasun maila handia duten pertsonei dago zuzenduta. Larrialdi egoera batean egon ezgero, Sos-Deiak zerbitzuarekin harreman zuzena dutelarik.

84. taula. Telealarma Zerbitzua (2005-2006)

URTEA	ESKAERAK	ALTA BERRIAK	BAJAK	ALTAN DAUDEN ETXEBIZITZAK ABENDUAREN 31ERAKO	ZERBITZUAREN ZENBATEKOA €
2005	23	18	3	55	3.335,72
2006	33	28	8	101	3.942,21

- Minusbaliatuei zuzendutako laguntzak:

- Laguntza teknikoak: pertsonen irisgarritasunarentzat lagungarriak izango diren dispositivo eta baliabide teknikoak ematea da helburua. Diru laguntza bat ematen zaie zenbait ekintza egiteko edo laguntza tekniko moduan hartzen diren zenbait tresna lortzeko. Kontutan hartzen da ere hauen lagapena minusbaliatuen gizarteratzerako mesedegarri izan daitezen.

85. taula. Minusbaliatuentzat eskaera teknikoak (2005-2006)

URTEA	ESKAERAK	ZENBATEKOA (€)
2005	18	37.257,30
2006	18	35.792,79

- "Kalez-kale" Programa: gurpil-aulki baten baitan edo fisikoki zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako udal zerbitzua da. Helburua, etxetik kalera ateratzeko irisgarritasun aldetik zailtasunak dituzten pertsona hauei alternatiba bat ematea da.

86. taula. "Kalez-Kale" Programari eskaerak(2005-2006)

URTEA	ESKAERAK	ZENBATEKOA (€)
2005	5	5.448,96
2006	6	7.841,78

D) HIRUGARREN ADINA

Honakoak dira Departamentuak aurrera eramaten dituen ekintza eta prestazio nagusiak:

- Kasino Zaharra adinekoen egoitza: 2006ko memoria Hondarribiko web orriaren informazio praktikoa atalean jasotzen da (www.hondarribia.org).

- Hautazko ostatu prestazioak: 3. adinekoen egoitzan sartzea, eguneko zentroa, aldirako egonaldiak, 3. adinekoen oporraldiak, 3. adinekoei zuzendutako harrera familiak.

    - 3. adinekoen egoitza: datu interesgarrienak ondorengo tauletan azaltzen dira:

Taula. 3. adinekoen egoitzan sarrera kopurua (2005-2006)

URTEA	ESKAERA KOPURUA	DEPENDENTZI MAILA		SEXUA	
		AUTONOMOAK	DEPENDIENTEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
2005	29	2	27	13	16
2006	34	3	31	15	19

Taula. . Kasino Zaharreko plazetan emandako mugimenduak (2005-2006)

URTEA	SARRERAK	BAJAK
2005	9	9
2006	12	13

Taula. Autonomak diren pertsonen plazetarako Udalak emandako diru laguntzak (2005-2006)

AÑO	Nº PLAZAS	COSTE SUBVENCIONADO
2005	9	9
2006	12	13

- Eguneko Zentroak: pertsona helduei arreta ematea durte helburu. Hondarribian eguneko zentro bat dago, hots, "Gibeleta" eta izaera pribatua du.

Taula. Eguenko Zentroaren plazetan eman diren mugimenduak (2005-2006)

URTEA	ESKAERA KOPURUA	ALTA BERRIAK	BAJAK	PERTSONAK ITXOITEN
2005	10	5	1	5
2006	9	1	1	6

- Aldirako egonaldiak: Normalean familaren arreta duten baina bakarrik bizitzeko zailtasunak dituzten pertsona heldueialdiko arreta eskeintzea da helburua. Era berean, pertsona helduekin bizi diren senideei laguntza ere eskeintzen zaie, beraien denbora librea disfrutatzeko aukera eskeiniz.

Taula. aldirako egonaldietaraka eskaera kopurua (2005-2006)

AÑO	Nº SOLICITUDES	VARIABLE SEXO	
		HOMBRES	MUJERES
2005	21	3	18
2006	17	2	15

- Termal programa eta 3. adinekoen oporraldiak: BAZetik, eskaera orriak ematen dira eta gero INSERSOra bidali.

- 3. adinekoei zuzendutako harrera familiak: Gipuzkoan 1989 urtetik egiten da eta beraien alojamendu eta arreta beharrakak asetu ditzazketen pertsonei dago zuzenduta. Ez da eskaerarik bideratu 2005 eta 2006 urteetan.

- Bizikidetza unitateari laguntzak: azpimarratzekoa da dentro de "Sendian" programa, dependentzia duten pertsonekin bizi diren familiei zuendutako programa da.

Taula. "Sendian" programak izandako eskaera kopurua(2005-2006)

URTEA	ESKAERAK	SEXUA	
2005	11	7 G	4 E
2006	24	9 G	15 E

- Bestelako ekintzak: 3. adinekoei zuzendutako prestazioak jasotzen dituen liburuxka (2005 eta 2006 urteetan argitaratu zen).

Azkenik, gai honi dagokionez, aipatu beharra dago udaletxeak 2006 urtean INEMeko tokiko entitateei zuzendutako Lana Sustatzeko Programaren bidez Gizarte Langile bat kontratatu zuela 3. adinekoaren egoerari buruzko azterketa bat egiteko. Ikerketa hau dagoeneko amaituta dago.

Ikerketaren helburua Hondarribiko 75 urtez gorakoen beharrak aztertzea da, pertsona horien mendekotasun egoerak nahiz gizarte errealitatea ezagutzeko asmoz. Horrela, behin alderdi horiek ezagututa, pertsona horiei gizarte baliabideen inguruan informatzea –aipatu baliabideak era egokian erabil daitezen- eta etorkizun hurbilean sor daitezkeen behar berriak aurreikustea izango litzateke ikerketaren xedea.

Ikerketa 3 zatitan banatuta dago; lehenik 3. adineko pertsonei bai orokorrean bai partikularki eskaintzen zaizkien baliabideak daude, ondoren, egin ziren inkesten inguruko datu zehatzak agertzen dira eta azkenik, ikerketaren ondorio nagusiak jasotzen dira.

a. adineko pertsonei eskaintzen zaizkien baliabideei dagokionez, jarraian agertzen den taulan laburbiltzen dira:

87. taula. 3. ADINEKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO ZERBITZU ETA BALIABIDEEN LABURPENA

OROKORREAN	PARTIKULARKI
SENDIAN PROGRAMA Laguntza teknikoa keta irisgarritasuna Laguntza ekonomikoa Asteburuko egoitza arreta Atsedenaldi luzea Familia prestakuntza Laguntza psikologikoa Laguntza taldeak Pizgarri fiskalak	LAGUNTZA EKONOMIKOAK GIBELETA EGUNEKO ZENTROA
EGUNEKO ZENTROA	KASINO ZAHARRA JUBILATUEN ETXEA
EGOITZAK	KALEZ-KALE PROGRAMA
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA	HARRERA PROGRAMA
TELEALARMA	SENDIAN PROGRAMA
VIVIENDAS TUTELADAS/APARTAMENTOS TUTELADOS	SAN GABRIEL EGOITZA
	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA
	INFORMAZIOA, BALIOSPEN ETA ORIENTAZIO ZERBITZU OROKORRA
	TELEALARMA

Iturria: Hondarribikoa din nagusien beharrei buruzko ikerketa

Ikerketaren bigarren atalean ikerketan zehar egindako inkesten inguruko emaitzak jasotzen dira, adin nagusien ezaugarri aipagarrienak deskribatzen direlarik. Aipatu inkestak 75 urtez gorako pertsonei egin zaizkie –arreta berezia jasotzeko beharra duten pertsonak direla uste baita-, 140 pertsonen eredu aleatorioa aintzat hartuz, bertatik kanpo utziz jarraian aipatzen diren pertsonak:

- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren onuradunak diren pertsonak
- San Gabriel Egoitzan dauden pertsonak
- Udaleko Gizarte Zerbitzuek zaindutako pertsonak

- Udalerriko landa eremuan bizi diren pertsonak, Behemendi Landa Garapenerako Elkarteak geografi eremu honetan azterketa bat egitea aurreikusita baitago.

Bizilekura joan aurretik elkarrizketak egiteko aukera aztertu zen telefono bidez, elkarrizketa bakoitzak ordu erdiko iraupena izango zuela zehaztuz.

Galdetegia zortzi ataletan banatu zen: Identifikazio datuak; familia-egoera; etxebizitza; osasuna; aisialdira eskainitako denbora; gizarte baliabideen ezagupena; egoera ekonomikoa eta gabeziak. Honela, datu mordoa eskuratu ahal izan zen, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:

88. taula. INKESTETATIK LORTUTAKO DATU NAGUSIENAK

GALDETEGI-ATALA	DATUAK
GALDEKETA EGINDAKO BIZTANLERIA PORTZENTAIA SEXUAREN ARABERA	**Gehiengoa emakumeak: 79,29%**
FAMILIA-EGOERA	
Norekin bizi den	%55ak bakarrik %40,71ak bikotekidearekin %4,29ak anai-arrebarekin
Familia-erlazioa	Gehiengoak erlazioa du: %97,86ak Gainera maiztasun handiarekin elkar ikusten dute: %95,71ak
Eguneroko jardueretan familiak eskaintzen dien laguntza	Gehiengoak badu familiaren laguntza: %69,29ak
Familia udalerrian bizi da	Gehiengoa bai: %81,43ak
Etxeko lanak egiteko familia-laguntza informala	b. %65,71ak laguntza hau badu c. %41,43ak familia d. %34,29ak kontratatutakoa - %2,86ak auzokoak
ETXEBIZITZA	
Etxebizitzaren egoera juridikoa	Inkestatutakoen artean: - %86,29ak jabeak - %8,57ak alokairuan - %5,71ak usufruktuan
Bizigarritasun baldintzak	Inkestatutakoen artean: - %50,71ak komuna egokitua du - IGOGAILUA: %22,14ak badu %9,29ak ez du baina behe solairuan bizi da %68,57ak ez du eta goi solairuetan bizi da - BEROKUNTZA SISTEMA: %100ak sistemaren bat du.

	Ez da sistemaren kalitatea bereiztu
Oztopo arkitektonikoak	%90,71ak badute. Ez da zehazten
Etxebizitza-kalitatea (kokapen, azalera, ekipamendu eta altzari irizpideak)	%42,86ak kalitate egokia %41,43ak onargarria %10ak xumeak
OSASUNA / MENDEKOTASUNA	**%31,43ak nolabaiteko mendekotasun agertzen dute** **%97,86ak nolabaiteko osasun zaintza du**
Mugikortasuna	Nahikoa ona: %43,57ak bastoia darabil %3,57ak makuluak %2,14ak gurpildun ahulkiak
Oinarrizko funtziak betetzeko laguntza	%12,86ak norberaren garbitasunerako laguntza %7,86ak jaikitzeko eta etzateko laguntza %9,29ak janzteko eta eranzteko laguntza
Uzkiaren kontrola	%91,43ak bakarrik moldatzen da %7,14ak laguntza behar du %4,29ak hirugarren pertsona baten beharra du
Izandako gaixotasuna	%30ak bihotzeko arazoak %8,57ak diabetea %2,86ak arazo psikologikoa %10,71ak inplanteak beheko gorputz-adarretan %62,82ak bestelako gaixotasunak (entzumena, ikusmena, erreuma, arnasketa sistemakoak)
AISIALDIA	
Telebista ikusi	%94,29ak ikusten du - hauetatik %10,7ak berriak soilik
Irratia entzun	%79,29ak - Kirol-saioak, erligio-saioak eta musika-saioak
Irakurketa	%78,57 egunkaria irakurtzen du, gehienek etxean
Paseatu	%81,43ak paseatzen du
Irteera keta bidaiak	%24,29
Zaharren egoitza (Kasino Zaharra)	%67,86ak ezagutzen du %25,71ak hurbiltzen da %21,43ak antolatzen diren ekimenak ezagutzen ditu %8,57ak ekimenetan parte-hartzen du
Joste-lanak	10,5%
Margolaritza, idazketa, marrazketa eta argazkilaritza	3,5%
Baratza	2,8%
GIZARTE BALIABIDEEN EZAGUTZA	**%69,29ak ezagutzen ditu**
Antiguo Kasino	%67,86ak ezagutzen du
Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua	%68,57ak ezagutzen du

Eguneko Zentroa	%65,71ak ezagutzen du
Telealarma	%48,77ak ezagutzen du
Asteburuan Atseden eta *Aldi baterako Egonaldiak programak*	%17,14ak ezagutzen du
Laguntza ekonomikoak	%14,29
Zerbitzu edo laguntza eskaera	Oso portzentaia baxua: %3,57
Gabezien hautematea	e. %3,57ak beharrezko ikusten du etxez etxeko janari zerbitzu bat f. %3,1ak Hondarribia eta Eskualdeko Hospitalearen arteko zuzeneko zerbitzua - %2,5ak Alde zaharrean eskailera mekanikoen ezarpena eta zirkulatzeko erraztasun handiagoa
PENTSIOAK	**%82,14ak nolabaiteko pentsioa jasotzen du**
Euren kotizazioaren araberakoak	%35
Alarguntza-pentsioa	%44,28
ZBDA edo kotizaziopekoak ez direnak	%2,81
Norberaren pentsioak	%17,81ak(gainera denak emakumezkoak), ez du norberaren pentsiorik jasotzen

Iturria: Hondarribiko adineko pertsonen beharrak jakiteko ikerketa

Ikerketaren azken atalak inkestan jasotako datuetan oinarritutako **ondorioztapenak** jasotzen dira. Funtsean hauek dira:

- Emakumeak ugariagoak dira, batez eta alargunak (%46,42) eta ezkongabeak. Bakardadea nozitzeko aukera gehien duen taldea osatzen dute. Nahiz eta egun pertsona autonomoak izan, baliabide ekonomiko baxuko eta osasun arazoak izateko erraztasun handiko taldea izanik, **arrisku** egoera aurkitzen den sektorea osatzen dute. Honenbestez, jarraipen eta arreta neurri bereziak behar dituzte.

- Zaharrenen diren pertsona kopurua ugaritzea aurreikusten da, eta honenbestez, zerbitzu formalen eskaera handipen bat aurreikusi daiteke. Hala ere, laguntza informala nagusi izango da hurrengo urteetan ere. Gizarte-politikei dagokienez, adineko pertsonei zuzendutako arreta zerbitzuen garapena eta bizimodu osasuntsuen sustapena izango dira mendekotasunari aurre egiteko neurri nagusiak.

- Etxebizitzari dagokionez, irisgarritasun arazoak azpimarratu behar dira (elkarrizketatutako pertsonen %90,71ak oztopo arkitektonikoren bat pairatzen dutela adierazten du eta %68,57ak igogailurik gabe eta goi solairuetan bizi direla). Interesgarria izan daiteke oztopo arkitektonikoak

desagertarazi asmoz zenbait Udalek abian jarritako dirulaguntza araudia egokitzeko erabakiarekin bat egitea.

- Gizarte Zerbitzu oso gutxi erabiltzen direla nabarmentzen da.

- Laguntza zerbitzu baten beharra ikusten da, bai etxean nola Erresidentzian, paseatzeko, gestio txikiak gauzatzeko, medikuarenera hurbiltzeko,… Zerbitzu hau NAGUSILANek eskaintze du gaur egun boluntarioen bitartez, baina baliteke etorkizunera begira profesionalizatu behar izatea.

- Ikerketa hau egin duen langilearen arabera, pertsonak berak, familiak eta gizarteak Adineko pertsonen egoera zein den ulertzea irtenbiderako pausu nagusia da, era honetan gizarte sektore honen isolamendu eta marjinazio ekidin nahi bada.

Bestalde, 2007an landa lurrean bizi diren pertsonen beharrei buruzko azterketa bati hasiera eman zitzaion eta 2008an bukatzea aurreikusita dago.

E) TRATU TXARREN BIKTIMAK:

- Esku-hartze familiarra: bizikidetza-unitateari zuzendutako sostengu zerbitzua da, bai adingutxikoei bai eta tratu txarren eta/edo eraso sexualen biktimak diren pertsonei ere. Gizarte Zerbitzuen memorian jasotako datuak ondorengo taulan azaltzen dira:

89. taula. Esku-hartze familiarraren zerbitzua (2005-2006)

URTEA	FAMILIA UNITATEAK	ESKU-HARTZE MOTA	KOPURUA
2005	13	Con menores	6
		Orientación jurídica, acogida y atención psicológica a víctimas de malos tratos y/o agresiones sexuales	7
2006	9	Con menores	5
		Orientación jurídica, acogida y atención psicológica a víctimas de malos tratos y/o agresiones sexuales	4

- "Biolentzia sexistaren prebentzioa"-ren inguruko jardunaldiak: Bidasoa-Txingudi mugaz bestaldeko Patzuergoak antolatu zituen, Pretakuntza eta Langileen Birziklatze ekintzen baitan.

- 2005-2006 ekintzak: Biolentzia sexistaren prebentziorako proiektu pilotoa.

F) ADINGABEAK:

Adingabeei zuzendutako alojamendu alternatiboen baitan, aipatzekoa da Adingabeen Harrera-Familiak. Ondorengo taulan programari atxikitutako familien eta harrera izan duten adingabekoen datuak azaltzen dira:

90. taula. Adingabeen Harrea-Familia kopurua (2005-2006)

URTEA	FAMILIA KOPURUA	ADINGABEAK
2005	4	7
2006	3	5

Gizarteratze arazoak dituzten adingabeei zuzentzen zaien zerbitzua da. Adingabeari, lehen mailakoa ez den senide batek ematen dio harrera, babesik gabe gelditu ez dadin. Ildo berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, zenbait ekintza jasotzen ditu (ekonomikoak) adingabeen babesgabetasun egoera atzeraezina bihurtu ez dadin.

Departamendutik 2005-2006 urteetan martxan jarritako beste zenbait ekintzak honakoak dira:

- "Adingabeekin gizarte-hezkuntza interbentzioa ikuspuntu integral batetik" ("Bidasoako Jardunaldi Pedagogikoak", Irun)
- Foru Aldundiaren Plan estrategikoa adingabeen eremuan (2006)

G) EMPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

Gizarte Zerbitzuen departamentua enplegu eta prestakuntza zerbitzuekin koordinatzen da helburu bikoitzarekin; batetik, Hondarribiko erabiltzaileen beharrei erantzuna ematea eta bestetik, baliabide berrien azterketa eta sustapenean lan egitea.

2005 eta 2006 urteetan enplegu eta prestakuntza zerbitzuetara (eskualdekoa, LLHHkoko edo EAE mailakoa, nazionala) 78 pertsona bideratu ditu udalak. Era berean, prestakuntza ikastaroak edo eskainitako lan postuei erantzuna eman diezaioketen pertsonen zerrendak ere gauzatzen ditu udalak.

Departamenduak ondorengo zerbitzuekin egiten du lan:

- Bidasoa Garapenerako Agentzia (Bidasoa activa-Bidasoa bizirik)
- INEM
- LANBIDE
- KUTXA ZEHARO
- KATEA
- SARTU-ERROAK

2005-2006ko ekintza nabarmenak zerrendatzen dira jarraian:

- "Equal-Gertu: eguneroko bizitzatik merkatua sortuz" proiektuan parte hartzea (2005-2007): proiektu hau Equal Europar Ekimenaren baitan kokatzen da. Enpresak sortzen laguntzen du, alde batetik enpresak sortzeko eta egonkortzeko beharrezko baliabideak eskainiz, eta bestetik, Eguneroko Zerbitzuen arloan enpresen sorrerarako egon daitezkeen aukerak berriak identifikatu eta aurrera eramatea baimenduz. Informazio gehiago Udaletxeko Gizarte Zerbitzuen urteroko memorian edo proiektuaren web gunean eskura daiteke: www.equal-gertu.com.

- Lan poltsa: Gizarte Zerbitzuek dauden eskaeren inguruko informazioa errazten dute, edozein pertsonak edo erakundek Sailera langile bila jotzen duenean. Era berean, Gizarte Zerbitzuek Udalak lanpostu ezberdinetarako egiten dituen deialdien berri eta erakunde ezberdinek antolatutako formazio ikastaroen inguruko informazioa ematen dute (INEM, BIDASOA BIZIRIK, LANBIDE, etab.)

- Udal enplegu programak: 2005 eta 2006 urteetan Sailetik Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuek kudeatutako Udal Enplegu Programetan txerta daitezkeen pertsonak proposatu ditu ("Itsaz bazterra Garbitu" eta "Artebide" lan-txertaketa programak) .

Amaitzeko, Hondarribiak, **2004-2006** aldirako, **Prebentzio Komunitarioko Udal Plana** zuela gogoratu behar da. 2007ko Azaroan 2008-2012 denboraldirako Plana aurkeztu zen Udaletxean.

Hondarribiko Prebentzio Komunitarioko Zerbitzua 1998an sortu zuten, eta, geroztik, laguntza-tresna berritzaileak abian jarri ditu zailtasunak dituzten pertsonei laguntzeko eta biztanleria osoaren osasuna sustatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Hain zuzen, Hondarribian egindako lana bat dator Eusko Jaurlaritzak hartutako

jarraibide berriekin (prebentzio-programa guztietan komunitario baldintza ezarri baitu). 2004-2006 Planak honako helburu hauek zituen:

91. taula. Prebentzio Komunitarioko Udal Planaren helburuak (2004-2006)

Helburu nagusiak	Lehentasunezko helburu espezifikoak	Eragiten dion gizarte-bizatzako eremua
Hondarribiko Prebentzio Sarea indartzea.	-Komunitate-mahaietako parte-hartzaileen espektroa zabaltzea. -Komunitate-mahaien ospakizuna sistematizatzea. -Elkarteak eta kirol-ekipamenduak inplikatzea. -Laguntza-sare naturalak indartzea. -Sare publikoak ezartzea. -Agente bakoitzak prebentzioari egiten dion ekarpena zehaztea. -Lankidetza-protokoloak optimizatzea.	Burua eta dinamizatzailea: Komunitateko Prebentzio Zerbitzua Gazteria (Udala) Gizarte Ongizatea (Udala) Eskolak Anbulatorioa eta farmaziak Elkarteak Kirol-klubak
Gizarte-zirkulazioko ibilbideak sortzea.	-Belaunaldi-arteko topaketa-guneak zabaltzea. -Hausnarketa-guneak sendotzea (guraso-elkarteak...). -Gizarteratzeko baliabideak ugaritzea (enplegua eta kultura). -Gazteekin eskualde- eta belaunaldi-arteko trukeak egitea. -Gazteekin pedagogia intentsiboko jarduerak gehitzea. -Osasunarekin lotutako gai garrantzitsuetan parte-hartzea bultzatzea.	Burua eta dinamizatzailea: Komunitateko Prebentzio Zerbitzua Gazteria (Udala) Gizarte Ongizatea (Udala) Kultura (Udala) EIN Bidasoa Bizirik Elkarteak Artistak Enpresa pribatuak
Eremu sozio-sanitarioak mugatzen laguntzea.	-Lokal autogestionatuen arazoa lantzea. -Arriskuak gutxitzeko aholkularitza-zerbitzua ematea. -Bitartekariak prestatzea. -Eragiten dieten profesionalak prestatzea.	Burua eta dinamizatzailea: Komunitateko Prebentzio Zerbitzua Gazteria (Udala) Gizarte Ongizatea (Udala) Udaltzaingoa (Udala) Hirigintza (Udala) Eskolak Anbulatorioa eta farmaziak Ostalaritza...

Iturria: Hondarribiko Udala.

Bestalde, Mugaz Gaindiko Partzuergoak bi argitalpen zabaldu ditu, Gizarte Ongizateko Lan-batzordearen bitartez: alde batetik, Bidasoa-Txingudiko Gizarte Ongizateari buruzko gida bat, hiru hizkuntzatan; eta, bestetik, **Mugaz Gaindiko Gida Praktikoa**. Azken horren helburua Bidasoa-Txingudi eskualdeko herritar, profesional eta enpresei mugaz gaindiko eremu horretan aurre egin behar dieten baldintza orokorrak ezagutaraztea da.
Azkenik, Biolentzia Sexistaren Prebentzioari buruzko proiektu bat egin zuten 2004an, proba moduan, egungo testuinguruan erabil daitezkeen emaitzak lortu nahian.

Azkenik, 2007ko azaroan, ***Drogodependentziaren aurkako Prebentzio Komunitarioaren Udal Plana 2008-2012*** aurkeztu da. Iritzi eta ideia desberdinak ezagutzeko helburuarekin, lau mahai komunitario eratu dira: 1go mahaia GAZTERIA SAILA, 2. mahaia OSASUN SAILA, 3. mahaia GIZARTE KOMUNITARIAREN SAILA eta azkena, ESKOLA ETA FAMILIA SAILA dira. Bateratze-

lan hauen jardunaldiak bukatzean, ekarpen guztiak jasoko dituen informea egingo da eta bertatik Planaren proposamen bat idazten hasiko da. Proposamena idazterakoan, errebisio fasea egingo da parte-hartu duten guztiekin azken jardunaldi batzuk antolatuz. Errebisioa bukatzean Udalbatzari aurkeztuko zaio onespena izan dezan.

1.5.1.3 Etxebizitza

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean dauden aurreikuspenen arabera, Hondarribiko biztanleriak hazkunde txiki bat izango du; eraiki beharreko etxebizitzei dagokienez, beraz, hazkunde hori are nabarmena izango da, 90etik izan den goranzko joerari eutsiz.

92. taula. Etxebizitzetan aurreikusitako hazkundea Hondarribian

1991-1996 aldiko etxebizitza-hazkundea	2002-2010 aldiko etxebizitza-hazkundea	2010-2018 aldiko etxebizitza-hazkundea
%9,63	%12,92	%10,84

Iturria: Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren aurrerakina

LPPren aurrerakinean Hondarribiko egoitza-hazkundearen edukiera aipatu da, parkean 16 urtetan (2002-2018) izango den hezkuntza-proiekzioan oinarrituta: 1.400/1.800 etxebizitzako hazkundea, hain zuzen. Edonola ere, aipatutako LPP hori gelditua dago tramitazioari dagokionez; beraz, horren edukiak erreferentziatzat baino ez du balio.

- **ETXEBIZITZA-MOTA ETA OKUPAZIOA**

2004an, 7.628 etxebizitza zeuden guztira Hondarribian; horietatik %74 okupatuta zeuden eta gainerako %26a hutsik. Zenbaki horiek, beraz, argi erakusten dute **etxebizitza-kopuru handi bat bigarren etxebizitzak direla; batez ere, udaran betetzen direnak.**

93. taula. Etxebizitza okupatuen eta hutsen zerrenda, sekzioka. Hondarribia, 2004.

	Okupatuak	Hutsak	Guztira	% hutsak
1. sekzioa (Alde Zaharra)	604	231	835	%27,7
2. sekzioa (Puntal)	457	100	557	%18,0
3. sekzioa (Portua)	605	197	802	%24,6
4. sekzioa (Portutik kai-muturrera arte)	374	166	540	%30,7

5. sekzioa (Soroeta)	599	110	709	%15,5
6. sekzioa (Amute)	592	114	706	%16,1
7. sekzioa (Mendelu)	493	100	593	%16,9
8. sekzioa (Akartegi)	832	555	1.387	%40,0
9. sekzioa (Sokoa)	417	274	691	%39,7
10. sekzioa (Jaitzubia)	292	33	325	%10,2
11. sekzioa (Saindua)	390	93	483	%19,3
Guztira	**5.655**	**1.973**	**7.628**	**%25,9**

Iturria: Hondarribiko Udalak egindako ikerketa.

Eremuka hartuz gero, etxebizitza hutsen ehuneko altuenak 8., 9. eta 4. sekzioan daudela ikus daiteke; gainera, Farotik Guadaluperako (Akartegi) eremuan %40raino iristen da kopuru hori.

Etxebizitza-motei dagokienez, arauen arabera antolatutako eraikinak honela taldeka daitezke:

- *Etxebizitza eremu zaharrak:* 1.219 etxebizitza dira; horietatik 160, gutxi gorabehera, etxebizitza berriak dira, eta gehienak Alde Zaharrean daude.
- *Zabalgunea:* horma bitarteko eraikuntzei dagozkie. 1.100 etxebizitza dira (horietatik 100 berriak), eta, gehienak, Portu auzoan daude.
- *Eraikuntza irekia:* 3.653 etxebizitza (etxebizitza guztien ia erdia); bertan dago etxebizitza berrien kopururik handiena (1.100 etxebizitza), eta, gehienak, herritarrei zuzenduriko udal-ekimenezkoak dira.
- *Garapen txikia:* 1.508 etxebizitza; horietatik 599 etxebizitza berriak dira, eta gehienak Campiñan eta haren inguruan eraiki gabe zeuden lur-zati gutxi haiei dagozkie.
- *Eraikuntza bakana:* 407 etxebizitza (265 berriak); Jaizkibel Urbanizazioa, Arkolla, Erribera, Domingotxonea, Gaztelu eta Basako eremu berriaren mugan. Etxebizitza horiek baliabide asko zituzten etorkinek betetzea aurreikusi zen Arauetan, eta, kasu askotan, bigarren etxebizitzatzat izatea.

Beste elementu garrantzitsua etxebizitzetako okupazio-mota da. Esaterako, **etxebizitza bakoitzean bi pertsona bizi dira, batez beste, eta okupatutako etxe horien %70ean 3 pertsona edo gutxiago bizi dira.**

94. taula.
Etxebizitza okupatuak, bertan bizi den pertsona-kopuruaren arabera.
Hondarribia, 2004

	1	2	3	4	5	6	7	8
1. sekzioa (Alde Zaharra)	219	159	121	84	14	3	2	1
2. sekzioa (Puntal)	66	105	103	126	43	8	2	2
3. sekzioa (Portua)	174	168	119	92	25	16	5	4
4. sekzioa (Portutik kai-muturrera arte)	107	98	69	69	24	4	2	1
5. sekzioa (Soroeta)	91	171	149	142	33	11	2	

6. sekzioa (Amute)	140	192	139	86	21	8	4	
7. sekzioa (Mendelu)	62	142	115	108	41	11	6	5
8. sekzioa (Akartegi)	163	191	192	189	62	23	9	
9. sekzioa (Sokoa)	74	91	101	97	35	12	6	
10. sekzioa (Jaitzubia)	59	96	74	44	6	11	2	
11. sekzioa (Saindua)	63	74	80	102	46	13	5	4
Guztira	**1.218**	**1.487**	**1.262**	**1.139**	**350**	**120**	**45**	**17**
%	**%21,6**	**%26,4**	**%22,4**	**%20,2**	**%6,2**	**%2,1**	**%0,8**	**%0,3**

Iturria: Hondarribiko Udala.

Erosotasun-**indize** orokorra 74koa da Bidasoa Txingudin, **Gipuzkoako batez bestekoa baino 2,6 puntu baxuagoa.** Hondarribian, berriz, erraz gainditzen da indize hori, 76,9ra iristen baita.

95. taula.
SAILKATUTAKO ETXEBIZITZA NAGUSIAK, INSTALAZIOEN ETA ZERBITZUEN ARABERA. EROSOTASUN INDIZE OROKORRA 2001

	Ur-korrontea		Ur bero zentrala l	Berogailua			Telefonoa	Hodi-bidezko gasa	Erosotasun-indizea
	Publ.	Prib.	Badute	Zentrala	Banakakoa	Beharrdenean	Badute	Badute	
Hondarribia	99	1	31,7	5,5	71,3	20,9	99,7	88,4	76,9
Irun	98,9	1	20	3,3	56,8	36,8	99,7	93,1	73,2
Bidasoa Txingudi	**99**	**1**	**22,6**	**3,7**	**59,9**	**33,3**	**99,7**	**92**	**74**
Gipuzkoa	**97**	**2,8**	**26,1**	**8,5**	**54,9**	**34,3**	**99,7**	**74,2**	**71,4**
EAE	**98,3**	**1,6**	**28,5**	**14,3**	**51,3**	**31,5**	**99,2**	**67,2**	**70,6**

Iturria: 2001eko errolda

- **ETXEBIZITZA PARKEEN BILAKAERA**

Diagnostiko honetako lurralde-antolamenduari buruzko atalean zehatz-mehatz azalduko den bezala, indarrean dagoen udal-plangintzaren arabera, Hondarribian 874 etxebizitza berriren beharra aurreikusi da; horregatik, Udalak eraikin-aprobetxamendu bat erreserbatuko du erabilera publikoko eremuetan, etxebizitza-kopuru horiek egiteko. Bestalde, beste 1.300 etxebizitza merkatu librean salduko dira, eta horiek herritarrek edo herritik kanpo bizi direnek (bigarren etxebizitza moduan) erosi ahal izango dituzte.

Horrela, 8 urtean 2.200 etxe gehiago eginez gero, kalifikatutako lurzoruan 8.150 etxe egongo lirateke; beraz, 16.500 biztanleko populazio finkoa izango litzateke, gutxi gorabehera, eta, udaran, 30.000 biztanlera iritsiko litzateke.

Etxebizitza-parkean esku hartzeko eta neurriak ezartzeko irizpideen artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- Hiri-bilakaera une horretan dagoen hiri-eremura eta horren inguru hurbilera mugatzea.
- Lurraren udal politika bat garatzea, Hondarribiko biztanleei, epe motzera, ertainera eta luzera, prezio eskuragarriko etxebizitzak bermatuko dizkiena; hori eginez soilik lortuko baita biztanleriak herritik kanpora irteteko izan duen joera (80ko hamarkadatik etengabe gertatu dena) geldiaraztea.
- Hiri-bilakaera 8.150 etxebizitzara mugatzea aurretiko politikatzat jotzen da; hain zuzen, honela adierazi da, hitzez hitz: "erabaki hori guztiz justifikatua da, bilakaera horri esker Hondarribiko biztanleriaren hazkunde begetatiboaren beharrak oso epe luzera beteta egongo baitira (...), eta, gainera, hirigunearen gehiegizko hazkundea gelditu nahi da, gauza jakina baita bertako biztanleen bizi-kalitatean ondorio negatiboak eragingo dituela".

Arauetan aurreikusitako *udal-ekimeneko esku-hartzeen arabera*, 838 etxebizitza egingo dira: 470 lehenengo lau urteetan eta 368 bigarren laurtekoan.

96. taula. Aurreikusitako ekimen publikoko etxebizitzak edo etxebizitza mistoak (Arau Subsidiarioak)

EREMUA	Dagoen etxebizitza-kopurua	Aurreikusitako etxebizitza publikoak	Aurreikusitako etxebizitza pribatuak
SAURA ENEA	36	34	--
KOMENTOAURRE	17	109	--
LONJA	3	114	68
DAMARRI	60	78	--
ZEZEN PLAZA	--	135	--
PRESA	--	67	36
MULIATE	--	230	111
LAU HAIZETA	--	71	34
Guztira	**116**	**838**	**249**

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak. Memoria, 1995eko abendua.

Eremu horretan egindako esku-hartzeetatik, honako hau ere nabarmendu behar da: Alde Zaharreko eta Madalen Auzoko birgaitze osoa. Birgaitze horrek 950 etxebizitzari eragingo die, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan egingo da.

Arau Subsidiarioetan aurreikusitako esku-hartze pribatu garrantzitsuenei dagokienez, dokumentu hau egiteko unean (2005), honako hauek gauzatuta zeuden (358 BOE eta 68 libreak):

- Komentoaurre
- Lonja
- Zezen-plaza

Saura Enea eta Lau Haizeta eremuetan ez da aurrera egin. 2005eko uztailerako, Damarri eta Presa eremuetako oinarrizko proiektua idatzita eta exekuzio-proiektuaren erredakzioa esleituta zeuden. 2005eko azarorako, berriz, Muliateko Plan Partziala eskuan izatea espero da.

97. taula. Aurreikusitako esku-hartze pribatu garrantzitsuenak (Arau Subsidiarioak)

EREMUA	Dagoen etxebizitza-kopurua	Aurreikusitako etxebizitza publikoak
JAIZKIBEL URB.	73	133
HIRUZUBI	82	27
AMUTE	122	42
ALDE ZAHARRA	765	154
ITURRIBERRI	6	38
KAIZARRA	4	24
ERREKABEA	--	54
LABREDER	--	119
BASAKO	5	50
ARROKA	134	20
LURGORRI	485	26
Guztira	**1676**	**687**

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak. Memoria, 1995eko abendua.

Eremu horien garapenak honela daude egun:

- Guztiz eginak: Iturriberri, Errekabea, Labreder, Arroka.
- Erdizka eginak: Jaizkibel Urbanizazioa (50 etxebizitza berri, gutxi gorabehera), Alde Zaharra (50 bat etxe berri).
- Egin gabeak: Hiruzubi, Amute, Kai zaharra, Basako, Lurgorri.

Ondorengo lerroetan, etxebizitzaren inguruko zenbait datu eta adierazle azaltzen dira. Alokairuaren inguruko datuak oso eskasak dira.

98. taula. Hondarribiko etxebizitzaren inguruko adierazleak

Udaletxeko datuak (2006)	
Etxebizitzak:	
Guztira	7.729
Hutsak	1.883
Bertan norbait bizi direnekoak	5.846

Udalmap		
adierazlea	**urtea**	**datua**
Hutsik dauden familia-etxebizitzak	2001	% 4,97
Azken bost urteetan amaitu diren etxebizitza babestuak	2005 2004	$^{0}/_{00}$ 10,96 (biztanle) $^{0}/_{00}$ 11,11 (biztanle)
Etxebiden dauden etxebizitza-eskabideen kopurua	2006 2005	$^{0}/_{00}$ 22,02 (biztanle) $^{0}/_{00}$ 15,12 (biztanle)
Etxebizitza babestuen (BOE) beharraren estaldura azken bost urteetan	2006	% 0,00 (eskabide)
Etxebizitza azken bost urteetan adjudikatu dituen etxebizitza babestuak (BOE)	2006 2005 2004	$^{0}/_{00}$ 0,00 (biztanle) $^{0}/_{00}$ 0,00 (biztanle) $^{0}/_{00}$ 0,00 (biztanle)
50 urtetik gorako antzinatasuna daukaten familia-etxebizitzak	2001	% 13,90

Babes Ofizialeko Etxebizitzen Pleguak (2006)	
Babes ofizialeko etxeentzat eskaera kopurua	504
Zozketarako etxe kopurua	144
Zozketan sartu ziren biztanle kopurua	176
Baldintzak betetzen ez zituzten zozketan parte hartzeko biztanle kopurua	328

Gainera, **biztanleria adinaren arabera** sailkatuz gero, etxebizitzaren inguruko datu hauek lortzen dira (iturria: Udaletxea):

- 23 eta 35 urte bitarteko biztanleria: 3.126
  - Etxean bizitzen 3 urte baino gehiago daramatzatenak: 2.589
    → Etxearen jabe direnak:797
    → Etxearen jabe ez direnak: 1.792
    Azken hauei dagokionez, etxean bizitzen 10 urte baino gehiago daramatzatenak: 969
  - Bakarrik edo bikote-lagunarekin bizi direnak: %14,5
  - Bikote-lagun eta seme-alabekin bizi direnak: %9
  - Gurasoekin bizi direnak: %76,5

- 36 eta 55 urte bitarteko biztanleria: 5.060
  - Etxean bizitzen 3 urte baino gehiago daramatzatenak 4.533
    → Bakarrik bizi direnak: 355

- Jabe direnak: 264
- Jabe ez direnak:91

Hondarribiko 2007ko auzoz auzoko etxebizitzei dagokionez, honako taulan jaso dira datu adierazgarrienak:

99. taula. Etxebizitzen egoera. Hondarribia 2007

Atala – Auzoa	Bertan norbait bizi direnekoak	Hutsak
Alde zaharra	641	239
Puntal eremua	485	136
Marina	603	192
Marina inguruak	399	151
Soroeta eremua	616	91
Kosta – Amute	596	79
Jaitzubia – Gibeleta	527	103
Faro – Guadalupe	910	505
Sokoa eremua	433	284
Mendelu	325	33
Arkolla – Zimizarga – Zezenplaza – Saindua	414	78
Guztira	**5949**	**1891**

Iturria: Hondarribiko udaletxea

1.5.2 Sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea

1.5.2.1 Elkartegintza

Dinamismoa etengabe galtzen ari dela ikusi arren, Hondarribian era askotako elkarte ugari daude: kulturalak, gazteenak, gastronomikoak, kirol-klubak, auzo-elkarteak...

2005eko irailean eta urrian egindako Herritarren Hautemate-inkestan, Hondarribiko herritarrei talde edo elkarteren batean parte hartzen zuten galdetu zitzaien. Hona hemen jasotako erantzunetatik ondoriozta daitekeena:

- Jasotako erantzunen %60k dioenez, ez du parte hartzen elkarte bakar batean ere.

- Hamar erantzunetik ia bik (%19,2) adierazten dutenez, aisialdi-elkarteetako kide dira, eta erantzunen %10,8k ongitzako erakundeetan laguntzen dute (GKEak).
- Atzetik, beste era batzuetako elkarteak daude; esaterako:

    - Sindikatuak (%6,8)
    - Auzo-elkarteak (%3,6)
    - Alderdi politikoak (%1,6)
    - Talde ekologistak (%1,2)

31. grafikoa. Honako elkarte hauetako kide al zara?



Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

1.5.2.2 Herritarren parte-hartzea udal-politikan

Egun, mekanismo gutxi batzuk baino ez daude herritarrek udal erabakietan parte har dezaten.

Esaterako, Euskararen Aholku Batzordea dago, eta, bertan, hainbat elkarte, talde, ikastetxe eta Udal Euskaltegiko ordezkariek, euskara-zinegotziak eta euskara-teknikariak hartzen dute parte. Gainera, aipatu beharra dago Udalaren Prebentzio Komunitarioko Planean fase ezberdinetan parte hartu duten mahai komunitarioak (eragile desberdinak parte hartzen dute: elkarteak, udaletxeko langileak, etab.).

Ildo honetan, aipatzekoak dira alkatetzatik Hondarribiko auzo elkarte ezberdinetan egiten diren aldebiko bilerak. Horietan, alkateak Udaletxeak aurreikusten dituen epe motz, ertain eta luzerako proiektuak azaltzeaz gain, elkarteetako kideen galderak erantzuteko aukera ematen du. Honela, elkarteen proposamenak entzun eta jasotzen ditu eta auzo bakoitzean eragin zuzena izango duten egitasmoez hitz egiten da.

Azkenik, Txingudiko Udaltalde 21en eskutik 2005 urtean egindako Herritarren Pertzeptzio Inkestari erreparatuz gero, herritarrei hainbat galdera egin zitzaizkien, alderdi zehatz batzuetan oro har zuten asebetetze-maila jakiteko, eta, bertan, "herriari eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera" alderdiak jaso zuen bigarren balorazio txarrena; hain zuzen, "enplegu-aukerak" alderdiak soilik atera zuen balorazio txarragoa. Beraz, herritarren iritziz erabaki-hartzeetan parte-hartzeko zailtasunak daudela ondorioztatu behar da.

100. taula. Asebetetze-maila orokorra (1-4 eskala). (2005)

Udalerriko inguru naturalaren kalitatea.	3,4
Eremu naturalen kopurua (berdeguneak, ibaiak...)	3,3
Eraikitako eremuen kalitatea (kaleak...), garbitasuna, egoera eta irudia	3,2
Zaletasunak gauzatzeko aukerak	3,2
Udalerriko segurtasun-maila.	3,1
Gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu sanitarioen hornidura eta kalitatea	3,0
Kultura-, kirol- eta aisialdi-zerbitzuen hornidura eta kalitatea	3,0
Hezkuntza-ekipamenduen hornidura eta hezkuntza-kalitatea	3,0
Ingurumen-zarataren maila	2,9
Etxeb. bat lortzeko aukera eta horren kalitatea	2,3
Enplegu kalitatea	2,2
Hiriari eragiten dioten erabaki-hartzeetan parte hartzeko aukerak	2,2
Enplegu-aukerak	2,0

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

Balorazio hori txikiagoa da, inkestatutako pertsonak gazteagoak diren heinean. Zehazki, 18-29 urte bitarteko biztanle-multzoak 4tik 2 puntu eman dizkio balorazioan.

101.taula.. Asebetetze-maila orokorra, adin-taldeka (1-4 eskala)

	TOTAL	EDAD					
		18-29	30-39	40-49	50-59	60-69	Más de 70
Acceso a la vivienda y calidad de la misma	2,3	1,9	2,2	2,2	2,4	2,6	2,6
Oportunidades de empleo	2,0	2,0	2,0	2,1	1,9	2,0	2,0
Calidad del empleo	2,2	2,3	2,3	2,1	2,1	2,4	1,9
Cantidad de espacios naturales (espacios verdes, ríos...)	3,3	3,3	3,2	3,4	3,3	3,3	3,4
Calidad del entorno natural del munic.	3,4	3,5	3,2	3,5	3,4	3,5	3,3
Calidad del espacio construido (calles, ...) limpieza, estado e imagen	3,2	3,3	3,0	3,2	3,3	3,3	3,4
Dotación y calidad de los serv. Sociales y sanitarios	3,0	2,8	2,8	2,9	3,2	3,3	3,3
Dotación y calidad de los serv. Culturales deport y ocio	3,0	2,9	3,0	3,0	3,1	3,0	3,3
Dotación de equipamientos educativos y calidad de la enseñanza	3,0	2,7	3,0	3,0	3,2	3,2	3,2
Oportunidades de participar en los procesos de toma de decisión que afectan a la ciudad	2,2	2,0	2,1	2,2	2,3	2,3	2,5
Nivel de seguridad en el munic.	3,1	3,3	3,2	2,9	3,1	3,1	3,1
Oportunidades de practicar sus hobies	3,2	3,1	3,1	3,3	3,3	3,3	3,3
Nivel de ruido ambiental existente	2,9	3,0	2,9	2,8	2,8	2,9	2,8

Media con resultado más elevado

Media con el resultado inferior

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

Inkestatutako pertsonen lan-egoera kontuan hartuz gero, langabezian dauden pertsonek *herriari eragiten dioten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerak* baloratzen dituzte gutxien.

102. taula. Asebetetze-maila orokorra, lan-jardueraren arabera (1-4 eskala)

	TOTAL	SEXO		ACTIVIDAD LABORAL					
		Hombre	Mujer	Parado/a	Asalariado/a	Autonomo/a Empresario/a	Ama/o de casa	Estudiante	Jubilado
Acceso a la vivienda y calidad de la misma	2,3	2,3	2,3	2,2	2,1	2,0	2,5	2,1	2,8
Oportunidades de empleo	2,0	2,0	2,0	1,7	2,1	2,1	2,0	2,2	2,0
Calidad del empleo	2,2	2,2	2,2	2,6	2,2	2,1	2,0	2,5	2,2
Cantidad de espacios naturales (espacios verdes, ríos...)	3,3	3,3	3,3	3,4	3,3	3,1	3,4	3,4	3,4
Calidad del entorno natural del munic.	3,4	3,3	3,4	3,3	3,3	3,4	3,4	3,5	3,4
Calidad del espacio construido (calles, ...) limpieza, estado e imagen	3,2	3,1	3,3	3,5	3,1	3,1	3,4	3,3	3,2
Dotación y calidad de los serv. Sociales y sanitarios	3,0	3,0	3,1	2,9	2,9	2,9	3,2	3,1	3,2
Dotación y calidad de los serv. Culturales deport y ocio	3,0	3,1	3,0	3,4	3,0	3,0	3,1	3,0	3,1
Dotación de equipamientos educativos y calidad de la enseñanza	3,0	3,0	3,1	3,4	2,9	3,1	3,1	2,8	2,9
Oportunidades de participar en los procesos de toma de decisión que afectan a la ciudad	2,2	2,2	2,3	1,5	2,2	2,0	2,4	2,1	2,6
Nivel de seguridad en el munic.	3,1	3,1	3,1	2,8	3,1	3,3	3,2	3,5	2,9
Oportunidades de practicar sus hobies	3,2	3,2	3,2	3,6	3,1	3,3	3,2	3,1	3,3
Nivel de ruido ambiental existente	2,9	2,8	3,0	2,7	2,8	2,8	3,0	3,0	2,9

Media con resultado más elevado

Media con el resultado inferior

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

Azkenik, azpimarratu beharra dago *herriari eragiten dioten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerari* buruzko balorazio txarrenak Gomutz (Montaña) eta Jaitzubia eremuetan egin dituztela. Aldiz, balorazio hoberenak Puntalean eta Zimizargan egin dituzte.

103. taula. Asebetetze-maila orokorra, auzoka (1-4 eskala)

	TOTAL	BARRIO HONDARRIBIA										
		Alde zaharra	Amute-kosta	Akartegui	Arkolla	Gomutz (montaña)	Jantzubia	Mendelu	Portua	Puntalea	Zimizarga	NS/NC
Acceso a la vivienda y calidad de la misma	2,3	2,4	2,1	2,2	2,6	2,5	2,7	2,4	2,1	2,6	2,7	2,3
Oportunidades de empleo	2,0	2,0	2,0	2,0	2,3	2,5	2,3	2,3	1,8	2,0	2,1	1,9
Calidad del empleo	2,2	2,0	2,1	2,4	2,3	3,0	2,8	2,3	1,9	2,1	2,2	2,1
Cantidad de espacios naturales (espacios verdes, ríos...)	3,3	3,3	3,2	3,3	3,0	4,0	3,2	3,4	3,2	3,4	3,8	3,5
Calidad del entorno natural del munic.	3,4	3,4	3,2	3,4	3,1	3,0	3,3	3,4	3,3	3,5	3,6	3,6
Calidad del espacio construido (calles, ...) limpieza, estado e imagen	3,2	3,1	2,9	3,3	2,9	4,0	3,2	3,2	3,3	3,5	3,4	3,6
Dotación y calidad de los serv. Sociales y sanitarios	3,0	3,2	2,7	3,0	2,9	3,5	3,2	3,1	3,1	3,3	2,9	3,4
Dotación y calidad de los serv. Culturales deport y ocio	3,0	3,1	2,8	3,1	3,1	3,5	2,7	3,1	3,1	3,4	2,9	3,1
Dotación de equipamientos educativos y calidad de la enseñanza	3,0	3,1	2,8	3,0	3,0	3,5	2,8	3,0	3,0	3,6	3,0	3,2
Oportunidades de participar en los procesos de toma de decisión que afectan a la ciudad	2,2	2,3	2,2	2,1	2,0	2,0	2,2	2,4	2,1	2,6	2,5	2,3
Nivel de seguridad en el munic.	3,1	3,4	3,0	3,1	3,3	4,0	2,9	3,1	3,1	3,3	3,0	3,1
Oportunidades de practicar sus hobies	3,2	3,3	3,1	3,2	3,4	3,5	3,2	3,2	3,2	3,4	3,0	3,3
Nivel de ruido ambiental existente	2,9	2,8	2,6	3,1	2,9	4,0	3,1	2,8	2,8	3,1	3,4	2,9

Media con resultado más elevado

Media con el resultado inferior

Iturria: Herritarren Hautemate-inkesta, 2005

1.5.3. GAZTERIA

Gazteak biztanleriaren atal oso garrantzitsua osatzen dute, besteak beste, Hondarribiko etorkizuna direlako. Honenbestez, komenigarria iruditu zaigu beraien inguruko zenbait alderdi lantzea.

Gazteei zuzendutako zerbitzu eta tailerren erabilpen mailari dagokionez, ondorengo datuak jaso dira:

104. Taula. SAINDUA GAZTELEKUKO PROGRAMAZIOA (2006)

DATA	Tailerrak	Ikastaroak	Lehiaketak	Irteerak	Hitzaldiak
URTARRILA ABENDUA	Eskulanak Sukaldaritza Bitxigintza Diaboloa Skate moduluak	Baxua Kapoeira Sabel dantza Gitarra Perkusioa Batuka dantza	Skate	Eskia	Manga

GUZTIRA	**5**	**6**	**1**	**1**	**1**

Iturria: Gaztelekuaren urteko Memoria

Aipatu beharra dago aipatu ekintzak gauzatu ahal izateko 4-5 pertsonen taldea sortzea beharrezkoa dela, nahiz eta ekintzaren arabera kopurua aldatu egiten den.

105. Taula. PROGRAMATUTAKO EKINTZETATIK BURUTURIKOAK (2006)

DATA	Tailerrak	Ikastaroak	Lehiaketak	Irteerak	Hitzaldiak
URTARRILA ABENDUA	Sukaldaritza Skate Moduluak	Gitarra Baxua Sabel dantza Kapoeira Perkusioa	Skate	Eskia	Manga
Guztira	**2**	**5**	**1**	**1**	**1**

Iturria: Gaztelekuaren urteko Memoria

Honekin batera, Gabonetarako Gaztelekuak programaketa berezia antolatzen duela esan behar da. Honakoa da 2006-2007ko Gabonetan antolatu zen txapelketa bereziaren baitan aurrera eraman zen ekintza sorta:

- Mahai jolasak
- Herri kirolak
- Play Station 2
- Sasi baloia
- Batuka dantza
- Txokolatada

Bestelako ekintzak:

- Sarea taldea
- Gazte Forum-a
- Marsellako esperientzia
- Europar boluntario baten jasotzea

Azkenik, honakoak dira 2006an Gaztelekuak antolatutako ekintzetan izandako parte hartzaile kopurua:

106.TAULA. Gaztelekutan parte hartzen duten pertsona kopurua

Hitzaldia	Tailerrak	Ikastaroak	Txapelketak	Irteerak
30	40	43	15	43

Saindu Gaztelekuari nahiz Gazte Informazio Bulegoari buruzko datu gehigarriak eta zehatza horien urteko edo ikasturteko memorietan aurki daitezke.

Berez ez dago autogestionatutako lokalik. Dena den, Psilocybe-Enea Psilocybe elkarteak kudeatzen du. Aipatu elkarteak udalarekin hitzarmen bat sinatu zuen eraikina kudeatzeko eta udal diru-laguntza bat jasotzen du lan hori egiten laguntzeko.

1.6 Ekonomia-jarduerek iraunkortasunean duten eragina

Gure gizartearen egungo bilakaerak erosotasun- eta ongizate-maila handiagoak ekartzen dituen arren, gure ingurune-kalitatean ere eragin nabarmena dute. Inguru hori, gainera, ezinbestekoa zaigu geure burua pertsona gisa garatzeko eta gure bizi-kalitatea hobetzeko, eta, horrez gain, baita ekonomia-jardueraren bilakaerarako beharrezko diren baliabide naturalak lortzeko ere. Azken batean, BPG handitzen den heinean, gure gizarteak ere baliabide eta ondasun gehiago eskatzen ditu, eta, ondorioz, gure jarduerek gu mantentzen gaituen ingurunean duten eragina ere handiagoa da. Era berean, argi utzi behar da BPGren hazkundeak (ekonomia-hazkundearen adierazle nagusiak) ez duela ezinbestean gizarte- edo ekonomia-aurrerapena adierazten, eta are gutxiago gure gizarteko bizi-kalitatearen hobekuntza. Hondarribia ez dago errealitate horretatik urrun.

Kapitulu honetan, ekonomia-jarduerek ingurunean duten eragina (zuzena nahiz zeharkakoa) ezagutzen, kuantifikatzen eta baloratzen saiatuko gara. Eragina esatean, Hondarribian dauden ekonomia-jarduerek ingurunean egiten duten presioa nahiz Hondarribiko ekonomia-bilakaerak lurraldean bertan eragiten duen presioa (zeharkakoagoa eta hautematen zailagoa dena) adierazi nahi da. Ez da lan erraza; izan ere, ikuspegi naturalistegia edo udalerri-bilakaeraren guztiz kontrakoa dela esan dezakete. Bilakaera horrek, bestalde, enplegua sortzen du, eta, beraz, Hondarribiko biztanleei eta herriari berari ongizate apur bat eragin diezaioke. Garapen iraunkorraren edo iraunkortasunaren bidez, oreka lortu nahi da (beraz, gauza zaila) ekonomia-bilakaeraren eta –aurrerapenaren, Hondarribiko biztanleen gizarte-ongizatearen eta kultura-garapenaren, eta lurraldeko ingurumen naturala babestearen eta baloratzearen artean. Hau da, prebentzioz jokatuz, interesak bateratu nahi dira, eta, hori ezinezkoa izanez gero, pertsonen eta lurraldearen interesei eta baliabideei lehentasuna eman eta ekonomia-bilakaeraren aurretik jarri nahi dira.

Hondarribian gauzatutako ekonomia-jarduerek ingurumenean eta gizartean izan duten eragina ezagutu eta baloratu nahian, eragin horiek aztertu egingo dira jarraian, eta, horretarako, baliabide-kontsumoa, hondakin-sorkuntza eta jarduerari lotutako teknologia-arriskuak hartuko dira kontuan; horrez gain, udalerrian egiten den ingurumen-kudeaketa ere aztertuko da, bai enpresa-ikuspegitik, bai udal-erakundearen ikuspegitik.

1.6.1 Hondarribiko ekonomia-jarduerek ingurumenean duten eragina

Kapitulu honen helburua Hondarribiko ekonomia-jarduerek ingurumenean duten eragina (zuzena nahiz zeharkakoa) ezagutzea, kuantifikatzea eta baloratzea da. Horretarako, honako alderdi eta gai hauek aztertuko dira:

- Ekonomia-jarduerek egiten duten baliabide-kontsumoa: ura eta energia.
- Hondakin-sorkuntza eta atmosferara isurtzen diren kutsatzaileak.
- Industrien teknologia- eta ingurumen-arriskua.
- Hondarribiko enpresen sentsibilizazioa eta ingurumen-kudeaketa.

1.6.1.1 Baliabide-kontsumoa

Dokumentu honetako beste kapitulu batean, ur- eta energia-kudeaketa zehaztasunez aztertu da; baina, hala ere, jarraian, kontsumoari buruzko sektore-azterketa bat egingo da, ekonomia-jardueretan bereziki oinarritua.

Ur-kontsumoa

Etxekoa ez den sektoreak (ez dago Hondarribiko ur-kontsumoari buruzko xehetasun handiagoko banaketarik) 333.188 m^3 kontsumitzen ditu urtean, gutxi gorabehera, 2004an fakturatutako kontsumoari buruzko informazioaren arabera. Hain zuzen, Hondarribian fakturatutako ur-kontsumo guztiaren %27,3 da. Eskura dugun informazioaren arabera, eskualdeko ur-kontsumoan gorazko joera izan da 2002-2004 aldian.

Jarraian Txingudiko Zerbitzuak elkarteak bildutako datuak azalduko dira:

107. taula. Ur-kontsumoaren bilakaera, etxetik kanpoko erabileran

Erabilerak	2002			2003		
	Irun	Hondarribia	GUZTIRA	Irun	Hondarribia	GUZTIRA
Etxekoak ez	1.241.503	346.068	1.587.571	1.230.124	343.834	1.573.958
Kontsumoa GUZTIRA	4.034.110	1.178.803	5.212.913	4.036.799	1.196.825	5.233.624

Erabilerak	2004		
	Irun	Hondarribia	GUZTIRA
Etxekoak ez	1.214.400	333.188	1.547.588
Kontsumoa GUZTIRA	4.137.580	1.218.310	5.355.890

Datu eguneratuagoei erreparatuz gero, Txingudiko Zerbitzuen mankomunitatearen 2006ko memorian jasotan dagoenez jarraituz, honako datuak aipa daitezke:

Irun eta Hondarribia udalerriak edateko urez hornitzeko bi iturri daude. Alde batetik, hornidura-sare nagusia, batez ere, Endarako urtegiak osatzen duena;

5.000.000 metro kuboko bolumena du eta gai da egunero Elordiko edateko ur-araztegia behar adinako urez hornitzeko, batez beste, 25.308 metro kubo egunero (293 l/s). Eta bestetik, ordezko horniketa; bolumen txikiagokoa da eta, batez ere, Jaizkibelen bildutako urek hornitzen dute.[7] Endarako urtegiaren ondoan Domikokoa dago, 0,365 Hm^3-ko bolumena duena.

108. taula. Hartutako ura jatorriaren

JATORRIA	BOLUMENA (m^3)	%
Endarako urtegia	8.390.280	90,1
Jaizkibel	922.019	9,9
Guztira	**9.312.299**	**100**

109. taula. Kontsumora bideratutako uraren jatorria



[7] Uraren ziklo osoa. 2006ko memoria. Txingudiko Zerbitzuak, SA

Bestalde, diagnosiaren 1.1.2.3 puntuan (*Edateko uraren banaketa eta kontsumoa*) ur kontsumoari buruzko zehaztapenak jasotzen dira. Mankomunitateko 2006ko memoriarekin datuak eguneratu direnez, hauek dira ur kontsumoari buruzko laburpen taulak:

110. taula. Hondarribiako Ur Kontsumoa (2000-2006)

	HONDARRIBIKO KONTSUMOAK URTEZ URTE (M^3)						
	2.000	**2.001**	**2.002**	**2.003**	**2.004**	**2.005**	**2.006**
Etxekoa	872.302	828.980	812.048	827.063	851.747	833.252	813.637
Etxekoa ez dena	335.028	319.546	346.068	343.834	333.188	325.951	324.287
Lorategia eta etxebizitza konbinazioa	5.452	12.110	13.984	21.945	29.910	36.833	41.037
Igerilekua eta etxebizitza konbinazioa	1.902	3.928	6.703	3.983	3.465	4.915	4.120
GUZTIRA	**1.214.684**	**1.164.564**	**1.178.803**	**1.196.825**	**1.218.310**	**1.200.951**	**1.183.081**

111. taula. Txingudiko Ur Kontsumoa (2000-2006)

	TXINGUDIKO KONTSUMOAK URTEZ URTE (M^3)						
	2.000	**2.001**	**2.002**	**2.003**	**2.004**	**2.005**	**2.006**
Etxekoa	3.509.882	3.555.969	3.575.325	3.594.411	3.726.336	3.639.012	3.566.497
Etxekoa ez dena	1.418.346	1.524.486	1.587.571	1.573.958	1.547.588	1.530.354	1.531.522
Lorategia eta etxebizitza konbinazioa	13.629	30.794	41.571	59.469	75.714	87.306	99.924
Igerilekua eta etxebizitza konbinazioa	2.451	5.664	8.446	5.786	6.252	8.138	8.019
GUZTIRA	**4.944.308**	**5.116.913**	**5.212.913**	**5.233.624**	**5.355.890**	**5.264.810**	**5.205.962**

2000. eta 2006. urteen artean, Hondarribiko udalerrietako biztanle kopurua 14.863 izatetik 16.073 izatera iritsi da; hau da, %8,14 gehitu da biztanleria 2000. urtearekin alderatuz gero. Epe horretan ur-kontsumoak beherantz egin du, hain

zuzen, %2,6. Txingudiko eskualdean aldiz, kontsumoa %5,3 areagotu da, eta biztanle kopurua %6,9.

Erabileran, berriz, 2000. eta 2006. urteen artean, Hondarribian etxeko kontsumoa % 6,7 gutxitu da, eta etxekoa ez dena %3,2 gutxitu.

2006. urtean etxeko ur-kontsumoa Hondarribian 138,7 litro/biztanle/egunean izan da. Azken datu horri etxea-lorategia-igerilekua hirukotea gehitzen badiogu, kontsumoa, gutxi gorabehera, honako hau da: 146,4 litro/biztanle/egunean.

Udal instalazioetako ur-kontsumoari dagokionez, ondorengo taulan jasotzen dira eskuragarri dauden azken datuak:

112. Taula. HONDARRIBIKO UDAL INSTALAZIOETAKO UR-KONTSUMOA (2004-2007)

KONTSUMOAK (Urteak / m^3)	2004	2005	2006	2007
PEDRO AGUINAGALDE IKASTOLA	1.495	1.421	1.600	0 (Lanak)
PUNTAL IKASTOLA	57	82	100	97
SORETA ESKOLAURREA	240	95	113	90
SATARKA IKASTOLA	911	902	963	834
TALAIA IKASTOLA	---	---	494	991
HONDARTZA KIROLDEGIA	25.971	27.884	28.565	32.656
HONDARTZA FUTBOL ZELAIA	3.546	4.860	5.327	2.681
HONDARRIBIKO UDALETXEA	184	194	247	283

URTEKO UDAL KONTSUMOAK (iturriak, ureztaketa eta udal eraikinak, goian aipatutakoak izan ezik)	23.499 m3	32.842 m3.	28.514 m3.	18.874 m3.

Ur-kontsumoaren kopuruari eusteko, Txingudi Zerbitzuak elkartea kontsumo arrazionalari buruz etengabe ari da ekintzak aurrera eramaten. Uraren inguruko adituen foro guztietan, gero eta gehiago onartzen da uraren erabilera arrazionala bultzatzeko faktore nagusia prezioa dela. Horri dagokionez, Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateak bezeroei uraren benetako prezioa ezartzen die beti, Ebko Uraren esparru Zuzentarauak agintzen duen bezala.

Honi gehitu behar zaizkio, era berean, mankomunitateak aurrera eramaten dituen ingurumen hezkuntzako ekintzak:

- Doako bisita gidatuak (ikus dokumentu honen 5.1. puntua edo Txingudiko Zerbitzuen www.txinzer.com web gunea)

- Uraren nazioarteko eguna dela eta antolatutako ekintza sorta: uraren nazioarteko eguna martxoaren 22an ospatzen da mundu osoan eta lehengo urtean Eusko Jaurlaritzak mankomunitatea hautatu zuen Euskadin aipatu eguna ospatzeko egoitza nagusia moduan. Horrela, martxoaren 22an, "Uraren eskasiari aurre egitea" izenburupean, Ura natur baliabidearen eta garapenaren arteko harremana uztartzen zituen jardunaldia antolatu zen Atalerrekako hondakin uren araztegiaren erabilera aretoan.

Energia elektrikoaren kontsumoa

Informazio-falta dela-eta (ez dago Hondarribiko petrolio-deribatuen eta gas naturalaren kontsumoari buruzko erreferentziarik), Hondarribiko ekonomia-jarduerek egiten duten energia elektrikoaren kontsumoa soilik azter daiteke.

Energia elektrikoaren kontsumo guztia kontuan hartuta, industria-jarduerak %5 (2.662.306 Kw/urtean) soilik kontsumitzen du eta zerbitzuak sektoreak guztizkoaren %47,6 (24.938.363 Kw/urtean). 2002ko eta 2004ko kontsumoak alderatuz gero, energia elektrikoaren kontsumoa goraka doala ondoriozta daiteke, bai eta ekonomia-jardueren kasuan ere.

113. Taula. EKONOMIA SEKTOREAREN ENERGIA-KONTSUMOAREN EBOLUZIOA (2002-2004)

	Fakturatutako energia (KW/ordua)		
Sektore ekonomikoa	**2002**	**2003**	**2004**
Etxebizitzak	22.441.495	21.928.498	24.509.134
Industria	2.584.928	2.785.862	2.662.305

Zerbitzuak	21.836.745	23.396.314	24.938.363
Sailkatu gabeak	152.262	215.243	220.183
Guztira, urtean	47.015.430	48.325.918	52.329.984

Iturria: Iberdrola

2006 urteari dagokionez, honakoak dira udalerriko elektrizitate kontsumoei buruz lortu ditugun datuak:

114.Taula. Energia-Kontsumoa sektore ekonomiko motaren arabera (2006)

SEKTORE EKONOMIKOA	2006AN FAKTURATUTAKO ENERGIA
Etxebizitzak	25.384.237
Industria	2.017.269
Zerbitzuak	25.074.534
Sailkatu gabeak	247.313
Guztira, urtean	52.723.353

Iturria: EAEko elektrizitate datuak 2006 (Ihobe)

Taulan ikus daitekeen moduan, 2004ko datuekin alderatuz, energiaren kontsumoa sektore guztietan igo da Industria sektorea izan ezik (2004 urtean 2.662.305 KW/ordu kontsumitzetik 2006an 2.017.269 KW/orduko kontsumitzera igaro da).

Hondarribian dauden ekonomia-jardueren energia elektrikoaren eraginkortasuna neurtzeko, enplegu bakoitzak sortutako energia elektrikoaren kontsumoa hartu daiteke oinarri. Hauek dira 2004ko informazioaren arabera lortutako ratioak:

115. taula.
Hondarribiko ekonomia-jarduerek egiten duten energia elektrikoaren kontsumoa. 2004. urtea

	Industria-jarduerak eta eraikuntza	Hirugarren sektoreko jarduerak
Energia elektrikoaren kontsumoa/enpleguko	14.236 Kw/enpleguko	9.396 Kwh/enpleguko

Iturria: Geuk egina, Iberdrolaren eta Bidasoa Bizirik agentziaren informazioan oinarrituta.

Beraz, Hondarribiko industria- eta eraikuntza-jarduerek energia gehiago behar dute hirugarren sektoreko jarduerek baino, sortutako enpleguaren arabera. Beraz, haren eragina ere handiagoa da.

Energiaren alorrean, Hondarribiko udalak eta EVEk (Energiaren Euskal Erakundea) 2006ko uztailaren 10an hitzarmen bat sinatu zuen udalerrian energiaren kontsumo gutxitu eta aurrezpena sustatzeko asmoz elkarrekin mota ezberdinetako ekintzak aurrera eramateko.

Ordutik hona gauzatu diren sentsibilizazio ekimenak honakoak izan dora:

- Energia Bizi izeneko erakusketa mugikorra: Hondarribian egon zen 2006kon uztailaren 10 eta 16a bitartean
- Kontsumo baxuko bonbillen doako banaketa:

  - 2007ko azaroak 26: 119 unitate banatu ziren
  - 2008ko apirilan Hondarribian 500 bonbilla dohainik banatzea aurreikusten da

Aldi berean, energia aurrezteko udalak aurrera eramandako beste ekintzetako bat Gabon garaiko argiterian kontsumo baxuko bonbillen ezarpena izan da. Ekintza hau 2007ko eta 2008ko Gabonetan gauzatu da.

Bestetik, aipatu ez dagoela energia aurrezteko plan berezirik. Dena den, kontuan hartu behar da diagnosian zehar antzemandako hutsuneei edo hobekuntza alderdiei erantzuna emateko asmoz, Hondarribiko Agenda 21en I. Ekintza Planean horri aurre egiteko ekintza lerro zehatz bat finkatu daitekeela.

Gasaren zein elektrizitatearen kontsumoen inguruan, aipatu beharra dago Tokiko Agenda 21en prozesuetan murgilduta dauden udalerrien kasuan, iraunkortasun adierazleen sistema bat martxan dagoela duela urte batzuetatik hona. Adierazle sistema horren baian, energiaren aldagaia ere neurtzera bideratzen diren adierazleak daude, tartean, gasaren eta elektrizitatearen kontsumoak.

Gasaren eta elektrizitatearen kontsumoak ezagutzeko, horiek hornitzen dituzten enpresetara eskaera bideratu behar da. Hori egin zen udala Hondarribiko diagnostikoa idazten hasi zen garaian, eta soilik Iberdrolak erraztutako datuak lortu ziren (Gas Naturalek ez). Hori dela eta, diagnosian elektrizitate kontsumoaren datuak agertzen dira eta ez gasarenak. Egoera hori ikusita, Tokiko Agenda 21en prozesuetan sartuta dauden beste udalerri batzuekin batera, Txingudiko Udaltalde 21etik (Irungo diagnosian ere gauza bera gertatzen zelako) Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ihoberi eskatu zitzaien energia hornitzaile diren enpresekin harremanetan jartzeko, datuak errazteko garaian trabarik jar ez zitzaten. Gauzak horrela, Ihobek zentralizatzen ditu

orain udalerrien datu eskaera horiek (Ihobek egiten du eskaera eta gero honek udalerri bakoitzari dagozkion datuak bidaltzeaz arduratzen da) baina horretarako, Ihobek jarri duen baldintza da udalerria *Udalsarea 21*en kide izatea. Hori dela eta, Hondarribia Udalsarea 21en sartzen denean, datu horiek lortzeko erraztasun handiagoa egongo da.

1.6.1.2 Hondakin-sorkuntza eta gas kutsatzaileen isurketa

Hondarribiak ekosistema baten moduan funtzionatzen du, materia eta baliabideak erabili eta zaborra eta hondakinak sortzen baititu; horregatik, ekonomia-jarduerek horri dagokionez duten eragina kuantifikatu egin behar da. Hau da, hondakin-sorkuntza (hirian asimilagarriak direnak nahiz industrian sortutako hondakin arriskutsuak) eta atmosferara egiten den gas kutsakorren isurketa lotu behar dira.

Lehenengo kasuan hurbilketa bat egin daiteke, baina, bigarrenean, ez da posible. Informazio-falta dagoenez, talde teknikoak ezin du gas kutsakorren isurketa (esaterako, CO_2) kalkulatu, ez eta Hondarribiko energia-kontsumoari lotua ere.

Hondakin-sorkuntza

Ingurumen-bektoreei buruzko kapituluan sakonago aztertu dira Hondarribiko hondakinak sortzearekin lotutako alderdiak; hala ere, jarraian, alderdi garrantzitsuenak aipatuko dira, udalerriko ekonomia-jarduerarekin zuzenean lotutako hondakin-sorkuntzaren ikuspegitik. Horrela, industria-, eraikuntza- eta eraispen-jardueretatik eratorritako hondakinak, hondakin arriskutsuak eta lehen sektoretik eratorritako hondakinak sortzeari buruzko datuak aztertuko dira.

Industria-hondakinak:

2004. urtean, 9.309 tona hondakin bildu ziren Industria-poligonoetan, eta, Txingudiko Zerbitzuak elkartearen arabera, hondakin horiek honela banatu dira:

- **Industria-hondakin geldoak (4.413 tona):** San Markoseko industria-hondakin geldoak (%20), industria-hondakin geldoak birziklagarriekin nahastuak (%0-19 tona), Arason bildutako geldoak (%17), San Nartzisotik Arasora bitarteko plastikoak (%2), araztegi-hondarrak (%3), eta industriako bolumen handiko gaiak (%3).

Uren araztegiaren areak Industria Hondakin Geldo moduan sailkatzen dira eta aldi berean, hondakin balioztagarriak dira. 2006 urtean orotara 838.609 kilo are kudeatu ditu Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateak; 2005 urtearekin alderatuz, %33,67 gehiago kudeatu da.

Hilabetez hilabete mankomunitateak kudeatu dituen kopuruak 2006ko memorian jasotzen dira.

Aipatu beharra dago uren araztegian araztutako uretatik eratorritako hondakinak batez ere materia organikoz osatuta daudela. Hondakin horiek lehorketa prozesu batean sartzen dira eta bertatik aprobetxa daitekeen material bat eskuratzen da, ondoren porlan enpresek erregai moduan erabiltzeko aukera izanik.

- **Industria-hondakin birziklagarriak (4.896 tona):** Portzelana (%5), industria-kartoia (%10), baimendutako kudeatzaileen kartoia (%13), paletak/egurra/zurgintza (%22), plastiko birziklagarriak (%0-22 tona), pneumatikoak (%0-14 tona) eta burdinak eta metalak (%5)[8].

Industria-hondakinei dagokienez, honako hau ikus daiteke:

- Enpresek lehen baino gehiago hartzen dute parte zatiak bereizten.
- Industrialdeetan zeuden industriako bolumen handiko gaiak botatzeko gune beltzak kentzen ari dira, hainbat enpresak (besteak beste, arotz-lan metalikoak egiten dituzten enpresek) hondakinak San Nartzisora eramaten baitituzte.
- Industria-arotzeria sartzeak eta industria-egurren bilketa-lerroa zabaltzeak (altzariak eta tratatutako egurrak ere kontuan hartuz) eragin positiboa izan du, birziklatutako egur-kopurua handitu egin baita.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak:

Egun, obra txikietan sortzen diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinak San Nartzisoko garbigunean biltzen dituzte. Hondakin horiek, azkenik, San Markoseko eta Arasoko zabortegiak estaltzeko eta egokitzeko bigarren mailako materialtzat erabiltzen dira.

8 Ehunekoak guztizkoaren gainean daude kalkulatuta

2004an, 1.816 tona kudeatu ziren; hala ere, horrelako hondakin-motak kontrolik gabe botatzen dituzte zenbait eremutan, eta, beraz, ez dago botatako kopuruei buruzko daturik.

Hondakin arriskutsuak:

Irungo eta Hondarribiko enpresek eta hainbat erakundek sortutako hondakin arriskutsuak baimendutako gestoreek kudeatzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila arduratzen da kudeaketa horiek egokiak izateaz. Hondarribian modu espezifikoan sortutako hondakin arriskutsuen kopuruari edo tipologiari buruzko daturik ez dago eskuragarri.

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak hondakin arriskutsuak kudeatzeko zerbitzua ematen die urtean 10 tona baino gutxiago sortzen dituzten enpresei. Ohiko prozesua honako hau izaten da: enpresak Ganberari kontsulta egin, gero enpresa kudeatzaileak mezu bat bidali edo dei bat egin, ondoren eskaintza egin, onarpen-dokumentuak bidali, eta, azkenik, hondakinak bildu.

Hurrengo taulan, azken 7 urteetan, Gipuzkoan, Merkatal Ganberak emandako zerbitzuaren bitartez kudeatu diren hondakin-kopuruak adierazi dira. Ikus daitekeenez, bilakaera oso positiboa izan da.

116. taula. Ganberak emandako zerbitzuaren bitartez kudeatu diren hondakin-kopuruak. Gipuzkoa

	2.001	2.002	2.003	2004	2005	2006	2007
Jasotako deiak	265	385	337	294	302	280	
DSA duten enpresa kopurua	123	228	340	407	506	586	639
Bilketa kopurua	85	199	289	335	399	416	450
Kudeatutako Kg kopurua	148.510	238.619	360.243	434.465	443.298	433.959	523.761

Iturria: Gipuzkoako Merkataritza Ganbera

DSA duten enpresa kopurua: Gestorearen onespen dokumentoa jaso duten enpresa kopurua. Honetarako enpresak lehenagotik gestorearen eskaintza onartu behar du. Urtez urte batzen den zifra metatua da.

Bilketa kopurua: artero emnadako zerbitzuak.

Txingudiko eskualdean aztertu diren enpresak eta zerbitzuaren bidez kudeatu dituzten hondakinak honako taula honetan zehaztu dira:

117. taula. Txingudiko eskualdean aztertu diren enpresak eta zerbitzuaren bidez kudeatu dituzten hondakinak

Periodo	Empresas informadas	Han recibido oferta	Han aceptado la oferta	Retirada	Kg Gestionados
2001-2003an Bildutakoa	109	70	27	45	61.180
2004	22	15	8	42	59.266
2005	23	31	11	42	36.262
2006	14	18	3	44	37.648
2001-2006an Bildutakoa	168	134	49	173	194.348
2007ko lehen hiruilekoa	10	18	3	21	34.891
2007ko bigarren hiruilekoa	6	5	1	21	21.861
2007an Bildutakoa	16	23	4	42	56.752

Iturria: Gipuzkoako Merkataritza Ganbera

Eskualdeari buruzko datu historikoak aldi labur bati dagozkionez, ezin da ekoizle txikien kudeaketaren bilakaera zehatz-mehatz baloratu. Lortu diren datuek, 2001 eta 2007 urteen artean eman den eboluzioa positiboa izan dela adierazten dute.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak

Eskualdeko ekoizleek belar-bolak "biltzeko" plastikoak eta negutegi-plastikoak gaika biltzeko zerbitzua dute; hain zuzen, zerbitzu hori Foru Aldundiko Nekazaritza Departamenduak sustatu eta Behemendi Landa Garapen Elkarteak gauzatzen du.

Abeltzaintzan sortutako hondakinei dagokienez (gorozkiak edo mindak eta animalia hilak), nekazaritza-hondakinekin gertatzen den bezala, Behemendi elkarteak txizak kudeatzeko zerbitzu bat ematen du; hain zuzen, upelen bidez ukuiluko txizak kentzen dituzte, eta, ondoren, ongarri organikotzat zelaietan zabaldu edo, bestela, tratatzeko eramaten dituzte.

Gas kutsatzaileak atmosferara isurtzea

Hondarribian gauzatzen dituzten ekonomia-jarduerek eta udalerriko ibilgailuek atmosferara gas kutsakorrak isurtzen dituztela jakinik, azterketa berezi eta espezifiko bat egin beharko litzateke. Autonomia-erkidegoan zertxobait aztertu da ibilgailuen trafikoari dagokionez, baina ez dago gai horri buruzko

azterketa zehatz eta xeherik. Beraz, ezin da jakin Hondarribiak zehazki duen eragina.

Udalerriko energia-kontsumoaren ondorioz atmosferara isuritako CO_2ari buruz ez dago beharrezko informaziorik, ez udalerrikoa, ez probintziakoa. Beraz, ezin da kalkulatu eta ezta gutxi gorabeherako hurbilketarik egin ere.

1.6.1.3 Industrien teknologia- eta ingurumen-arriskua

Zerbait txarra gertatzeko aukera edo horren maiztasuna, eta gertaera horrek sor ditzakeen ondorioen larritasuna bateratzen direnean, gertaera hori **arriskutsua** dela esaten da. Teknologia-istripuak gure inguruan uneoro dauden arriskuen ondorio dira, baina gu gertaera horietara ohituta gaude, ez baitira askotan gertatzen; azken batean, pertsonak hiltzen direnean edo ekonomia-galera handiak gertatzen direnean soilik pizten dute gure arreta.

Arrisku-mota horietatik ohikoenak industria-jardueretako suteak izaten dira; horiek, hain zuzen, ekoizpen-, garraio- edo biltegi-gune batean gertatutako isuri edo leherketek eragiten dituzte. Horregatik, prebentziorako industrietan egiten diren lanak funtsezkoak dira pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren segurtasun-maila gorena lortzeko.

Era berean, merkantzia arriskutsuen garraioetan gertatzen diren ezbeharren maiztasuna ere azpimarratu behar da.

EAEko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak lurraldean gertatzen diren istripuei eta ingurumenean nahiz pertsonen osasunean eraginak izan ditzaketenei buruzko estatistika bat du. Erantsitako irudian, 1995-2000 aldian eremu horretan izandako bilakaera zehaztu da.

32. grafikoa
Ingurumenean eta pertsonen osasunean eraginak izan zituzten gertaerak. EAE, 1996-2003



Iturria: Ingurumen-adierazleak, 2004, Eusko Jaurlaritza

Ikusten den bezala, istripu gehien industrian gertatu ziren. 1999tik joerak behera egin du. Garraioan gertatutako istripuei dagokienez ere, bilakaerak behera egin du, eta, batez beste, urteko 10 istripu gertatu dira. Azkenik, hondamendi naturalak ez ziren oso garrantzitsuak izan aldi horretan.

1.6.1.4 Enpresen sentsibilizazioa eta ingurumen-kudeaketa

Zaila da enpresek duten sentsibilizazioaren eta ingurumen-kudeaketaren maila ezagutzea, enpresetan gai horri buruzko azterketa espezifikorik egin ezean. Eskura horrelako azterketarik ez dugunez, ingurumen-kudeaketaren sistemaren baten ziurtagiria duten enpresak aztertu dira, ziurtagiri horiek dituzten enpresek sentsibilizazio-maila handiagoa dutela uste baita.

Enpresetan ingurumen-kudeaketaren sistemak jartzeak enpresa horiek ingurumenarekiko jokabidea hobetzeko duten inplikazio-maila zehazten du, neurri batean; hain zuzen, Europar Batasunaren Ingurumen-kudeaketa eta –ikuskaritza egiteko sistema (EMAS) eta Estandarizaziorako Nazioarteko Araua (ISO-14001) ingurumen-ekintza positiboak sustatzen dituzten lanak ezartzeko diseinatu ziren. Horiez gain, Euskadin beste tresna bat dago: Ekoscan; tresna horren bidez, pauso txiki batzuk eman nahi dira, ondoren ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzeko.

CIVEXek (Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa) 2005ean emandako datuen arabera, EAEn 704 ziurtagiri zeuden 2004an; hain zuzen, 1996ko urtearekin alderatuta hazkunde handia gertatu zen (ziurtagiriak 2,6 aldiz biderkatu ziren. Kopuru hori, zehazki, Ebko gainerako herrialdeetako batez bestekoan baino handiagoa da (horietan, ziurtagiri guztien kopurua 2,21 aldiz biderkatu zen).

Bidasoa–Txingudi eskualdean, enpresa pribatu eta publiko ugarik dute sistema horietako bat, baina tokiko erakunde publiko bakar batek ere ez. Horien neurria eta gauzatzen dituzten jarduerak askotarikoak dira, erantsitako taulan ikus daitekeen bezala.

Ingurumen-kudeaketako sistema baten ziurtagiria duten Bidasoa-Txingudiko enpresak

1.	Autoberri SL
2.	Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA (CAF)
3.	Construcciones Vaquero Azpiroz SAL
4.	Doman SA
5.	Fundación Inasmet
6.	Herramientas Eurotools SA
7.	Iberia Líneas Aéreas de España SL
8.	Paradores de Turismo de España SA (edo EMAS)
9.	RENFE (Irun) (eta JTMI)
10.	Talleres Yarza SA
11.	TESA
12.	Wincanton Transeuropea España SLSU
13.	Woco Tecnica SA

Iturria: Bidasoa bizirik

Aurreko zerrenda horretatik, ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria duen enpresa bakarra dago teknologia-arrisku apur bat duten enpresen zerrendan. Hain zuzen, Herramientas Eurotools, SA.

Era berean, ingurumen-kudeaketako sistema jartzeko lehenengo fasea hasi duten enpresen beste zerrenda bat dago; hau da, Hasierako Ingurumen Diagnostikoa edo Ekoscan. Honako hauek dira:

Ekoscan edo Hasierako Ingurumen Diagnostikoa duten enpresak

1.	Aiadek SA
2.	Betapack SA
3.	Construcciones Dumboa SA
4.	Diproca SA
5.	Fast, PCB SL
6.	Bidasoako Eskualde Ospitalea
7.	Jomisa
8.	La Bacaladera
9.	Poliéster Gabiria
10.	Luso Española de Porcelanas SA (P Bidasoa)
11.	Sicesal SA
12.	Talleres Pamendi SL
13.	Tiradores Egoki SA
14.	Woco Tecnica SA

Iturria: Bidasoa bizirik

Kopurua adierazgarria da, eta, gainera, etorkizunean (hurbilean edo ez hain hurbilean) ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria zein enpresa berrik jaso dezaketen (edo, gutxienez, horietako batzuk zeintzuk izango diren) adieraz dezake.

Gaur egun ingurumen kudeaketa sistemaren bat duten Hondarribiako enpresak jasotzen dira ondorengo taulan:

118. Taula. INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMAREN BAT DUTEN HONDARRIBIKO ENPRESAK

ISO 14001	EMAS	Ekodiseinuaren Araua	Ekoscan Araua
1. Bidasoako Ospitalea 2. Hondarribiko paradorea 3. Iberia-Líneas Aérea de España	Hondarribiko paradorea	Ez dago zertifikatutako enpresarik	Bidasoako Ospitalea

Iturria: Ihobe

1.6.1.5 Udalaren ingurumen-kudeaketa

Hondarribiko udalean egiten den ingurumen-kudeaketari dagokionez, ez dago horretarako zehazki ezarritako mekanismorik. Horri dagokionez, udalean

egiten diren baldintza-pleguetan ez dago irizpide nagusirik ingurumen-klausularen bat jartzeko beharrari/egokitasunari buruz; hau da, departamendu bakoitzak bere erabakia hartzen du.

1.6.2 Gizartearen eta bizi-kalitatearen azterketa ondorioak eta iraunkortasunaren ikuspegitik egin daitezkeen ekarpen nagusiak

Hondarribiko hezkuntza-eskaintzan, hezkuntza ez unibertsitarioko etapa guztiak daude, goi-mailako Lanbide Heziketa izan ezik.

Eskaintza horretan, guztira 2.373 ikasle daude egun, eta egun (2007-2008) plaza guztiak betetzen dira, plaza eskaera hori handitzen ari delarik, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako mailatik hasita. Horrek hainbat arrazoi izan ditzake, baina, batez ere, hazkunde begetatiboa, egoiliar-kopuruaren hazkundea nahiz inguruko herrietatik datorren ikasle-kopuru handia azpimarratu behar dira.

Gazteagoak diren ikasleentzako leku-eskaintza dela-eta, aipatu behar da udalerrian ez dagoela 0-2 urte bitarteko haurrentzako **udal-haurtzaindegirik**; hala ere, ziklo hori ikastetxe gehienetan eskaintzen da. Bestalde, haurtzaindegi berriaren proiektua aurrera dijoa eta 2010 urterako martxan egotea espero da. 108 plaza izango ditu 0-3 bitarteko haurrentzat. Dena dela ere, behar hori epe laburrera kontuan hartu beharko litzatekeela pentsatzen da, zerbitzu horren eskaera izaten ari den hazkundea aintzat hartuta. Hori dela eta, haurtzaindegi berri baten proiektua martxan dago jada –Loraitzeko haurtzaindegia- (2010 urterako eraikina prest egotea aurreikusten da).

Kultura-ekipamenduei dagokienez, Hondarribian kulturari lotuta sor daitezkeen beharrei erantzun ahal izateko ekipamendu espezifiko baten gabezia nabari da, neurri batean. Hau da, polikiroldegiaz eta Zuloaga liburutegiaz gain, ez dago erakunderen batek prestatutako ekitaldiak egiteko leku egokirik. Barruti itxi batean egin behar diren ekitaldiak udal-polikiroldegian ospatzen dira. Ondorioz, iritzi desberdinak daude ekipamendu berri bat egiteko beharrari edo behar ezari buruz.

Aldiz, kultur jardueren eskaintza garrantzitsua da; hala ere, aurrez aipatutako arrazoia dela-eta, ekitaldi ia guztiak udaran egiten dira.

Hondarribiko bizi-kalitatea kontuan hartuta, bertan dagoen indar-gune garrantzitsuenetako bat **kirol-ekipamenduen** eskaintza zabala da.

Gainera, eskaintza hainbat ikastarorekin eta modalitate guztietako gimnasia-eskolekin dago osatuta, eta kiroldegian bertan ematen da. Horri dagokionez, saturazio apur bat nabari da, dagoeneko Hondarribian bizi diren 5.500 bazkide baitaude (biztanleria osoaren %34); eta horiei, gainera, beste 700 bazkide gehitu behar zaizkie, Irungoak eta Iparraldekoak, hain zuzen.

Zerbitzu sozioasistentzialen ikuspegitik, Hondarribiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamenduak bi helburu ditu: alde batetik, gizarte-baliabideak eskuratzeko dauden desberdintasunak baztertzea, eta bestetik, pertsonen, familien eta gizartearen oreka-gabezia arinak diagnostikatzea, prebenitzea eta zaintzea. 2006ko datuen arabera, guztira 666 espediente ireki ziren; beraz, **2004ko datuekin alderatuz, %0,7ko igoera izan zen**.

Departamenduak irekitako 666 espediente horietatik gehienak baliabideei buruzko informazioa emateari, baloratzeari eta orientatzeari buruzkoak (%29) nahiz bizikidetza-unitateari laguntzakoa (%27,5) izan ziren.

Bizi-kalitatearen eta iraunkortasunaren ikuspegitik, Hondarribian honako elementu hauek azpimarratu behar dira, eta, gainera, arreta berezia jarri behar zaie:

- Biztanleria zahartzea eta adineko pertsonak egoitzetan sartzea (2006ean 34 pertsona sartu ziren zaharren egoitzetan, zeinetatik 15 gizonezkoak eta 19 emakumezkoak ziren). Hain zuzen, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak orain gutxi argitaratutako txostenaren arabera, **Bidasoa-Txingudi eskualdean dago gizarte-zerbitzuko egoitza-sarearen estaldurarik txikiena, EAE guztitik**.
- **Iraupenerako estalduraren prestazioak:** azken urteetan, horrelako laguntza-motak ugaldu egin dira. Dena den, 2006an, 123 familia onuradun izan ziren; hau da, 2004ko kopuruekin alderatuz, %32,4ko beherapena gertatu zen. Aitzitik beharrezkotzat jo da **gizarte-alokairuarekin lotuta dauden premiei** (azken aldian, ugaltzen ari direnak) arreta jartzea.

2005eko irailean eta urrian Herritarren Hautemate-inkestan lortutako emaitzen arabera, herritarren **asebetetze orokorraren maila** ertain-altua da honako gai hauetan, 1-4 bitarteko eskalan 3 puntu eman baitzizkieten: gizarte- eta osasun-zerbitzuen hornidura eta kalitatea, kultura-, kirol- eta aisialdi-zerbitzuena eta hezkuntza-zerbitzuena.

Hala ere, kultura- eta aisialdi-eskaintza Hondarribiko bosgarren arazo nagusia bezala agertzen da. Sailkapen horretan, baztertuen dauden segmentuentzako laguntzak ere agertzen dira; arazo hori, ordea, 10. postuan dago.

2007an, 7.840 **etxebizitza** zeuden guztira Hondarribian; horietatik %75,9 okupatuta eta gainerako %24,1a hutsik. Zenbaki horiek, beraz, argi erakusten dute **etxebizitza-kopuru handi bat bigarren etxebizitzak direla; batez ere, udaran betetzen direnak**.

Beste elementu garrantzitsua etxebizitzetako okupazio-mota da. Esaterako, **etxebizitza bakoitzean bi pertsona bizi dira, batez beste, eta Hondarribian okupatuta dauden etxe horien %70ean 3 pertsona edo gutxiago bizi dira**.

Dinamismoa etengabe galtzen ari dela ikusi arren, Hondarribian era askotako **elkarte** ugari daude: kulturalak, gazteenak, gastronomikoak, kirol-klubak, auzo-elkarteak... Hala ere, hautemate-inkestaren bidez bildutako erantzunen %60k dioenez, ez du horrelako elkarte bakar batean parte hartzen.

Bestalde, **herriari eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerek** bigarren balorazio txarrena jaso dute, herritarren asebetetze orokorraren mailaren arabera; hain zuzen, "enplegu-aukerak" alderdiak soilik atera du balorazio txarragoa. Balorazio hori okerragoa da, inkestatutako pertsonak gazteagoak diren heinean. Zehazki, 18-29 urte bitarteko biztanle-multzoak 4 puntutik 2 eman dizkio balorazioan.

1.7 Hondarribiko eredu sozioekonomikoari buruzko hausnarketak iraunkortasunaren ikuspegitik

DEMOGRAFIA-DINAMIKA OSO POSITIBOA

- 1991-2004 aldian, Hondarribia %18 baino gehiago hazi da urtean, eta, dagoeneko, 16.000 biztanleko kopurua gainditu du.

Hori dela-eta, Hondarribia izan da, Irun eta Zarautzekin batera, 2000-2004 aldian biztanlerian hazkunde gehien izan duen 10.000 biztanletik gorako udalerria, Gipuzkoan.

Auzoka aztertuz gero, 2006 urtean, populazio gehiena Akartegi eta Gornutz auzoetan pilatzen da (%16), Soroeta eta ingurua (%10), Mendelu (%10), Portua (%9) eta Alde Zaharra (%9). Bestalde, populazio gutxien duten auzoak Jaizubia, Gibeleta eta Zubieta (%5) dira, La Marina eta hondartzako esoigoiaren artean dagoen zonaldearekin batera.

- Hondarribiko biztanleria gero eta zaharragoa da; baina, hala ere, Gipuzkoako lurralde historikoaren eta EAEren azpitik dago, apur bat.

Biztanleria **adin-taldeka banatuz ikus daitekeenez**, Hondarribiko biztanleria-egitura ez da Gipuzkoako lurralde historikoko gainerako udalerrietakoa bezain zaharra. Dena den, azken 25 urteetan, 65 urtetik gorako biztanleak %50 ugaldu dira (Gipuzkoan, %73) eta 19 urtetik beherakoak, berriz, ia erdira gutxitu dira (Gipuzkoan %47). Beraz, **biztanleriaren zahartzea** agerikoa da.

- Hazkunde begetatiboa asko indartu da, eta atzerritarren immigrazioak, berriz, hazkunde geldoa izan du.

Biztanle-kopuruaren bilakaeraren jatorriak bi dira: hazkunde begetatiboa eta migrazio-saldoa. Lehenengoari dagokionez, urtetik urtera joera positiboari eutsi dio eta etengabe haziz joan da; batez ere, 2001etik. Horri dagokionez, Hondarribiko jaiotze-tasa Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoa baino apur bat handiagoa da; heriotza-tasa, aldiz, txikiagoa.

Migrazio-mugimenduei dagokienez, 2007an, 825 etorkin atzerritar bizi ziren Hondarribian; zehazki, erroldatutako biztanleriaren %5.

IKASKETA MAILA ALTUA ETA EUSKARAREN ERABILERA ERTAINA ETA BAXUA

- Hondarribiko biztanleriaren ikasketa-maila Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoaren gainetik dago.

Izan ere, Gipuzkoan eta EAEn, analfabetoen eta ikasketa-gabeko pertsonen kopurua biztanleria osoaren %5 da; Hondarribian, berriz, ehuneko horrek behera egiten du, zehazki, %1,5era jaitsi arte. Era berean, erdi- eta goi-mailako eta goi-mailako ikasketak dituen biztanleriaren ehunekoa %20 da EAEn eta Gipuzkoan, eta Hondarribian, ostera, altuagoa da: %26,2.

- Haur Hezkuntza zikloan hezkuntza-eskaera handia da.

07-08 ikasturtean, irakaskuntza ez unibertsitarioan matrikulatuta zegoen ikasle-kopurua 2.373ra iritsi zen. Datu horiek 99/00 ikasturteari zegozkienekin alderatuz gero (2.104 matrikulazio), matrikulazio guztien kopuruan hazkunde handia gertatu zela ikus daiteke, zehazki %12,78a.

Gertaera hori oso adierazgarria da, hezkuntza-ekipamenduen eskaintza ugaltzen ari diren biztanleria-beharretara egokitzeari dagokionez.

- Euskaldun-kopuru handia; horrek, ordea, ez du adierazi nahi euskararen erabilera normalizatua denik

Hondarribiko **euskaldunen ehunekoa Gipuzkoako lurralde historikoko eta EAEko batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da, %60,5 euskaldun**, hain zuzen; **hala ere, horrek ez du esan nahi** eguneroko bizitzako hainbat esparrutan **hizkuntzaren erabilera normalizatua denik**.

Euskara erregimen orokorreko hezkuntza ez unibertsitarioetan erabiltzeari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzan ez dago inor A eta X ereduetan matrikulatuta; D ereduan, berriz, matrikulatutako ikasleen %52 daude, eta, B ereduan, %48. Aldiz, irakastereduak berak ez du adierazten euskara harreman pertsonaletan normal erabiltzen denik. Hau da, **12 eta 17 urte bitarteko gazteen %25ek soilik erabiltzen du euskara hizkuntza nagusi bezala lagunekin izaten dituzten harremanetan; aldiz, familia arteko harremanetan, ehuneko horrek gora egiten du (%33,6).**

BIZTANLERIA LANDUNAREN HAZKUNDE GARRANTZITSUA

- Biztanleria egoiliarra eta landuna Gipuzkoan baino erritmo azkarragoan ari da hazten; batez ere, zerbitzuak sektorean.

Hondarribiko **biztanleria egoiliarra eta landuna** 6.640 pertsonak osatzen zuten 2001ean. Kopuru hori 1991ekoekin alderatuz gero, landunen kopuruak %32,4ko hazkundea izan zuen, eta hazkunde hori, gainera, **Gipuzkoako lurralde historikoan izandakoa** (%24,1) **baino askoz ere handiagoa** izan zen; neurri batean, biztanlerian izandako hazkundeak eragin zuen igoera hori.

Sektoreka banatuz gero, **Zerbitzuak** sektorea da ugariena (%66,3), eta, atzetik, industria (%20,6) eta lehen sektorea (%7) ditu. Hondarribian, bestalde, honako beste gauza hauek ere azpimarratu behar dira:

Lanbideen arabera egindako azterketaren arabera, Gipuzkoako eta EAEko kopuruekin alderatuz, **biztanleria landunen ehunekoa altuagoa da gerentzia- eta teknikari-postuetan** eta lehen sektorean (arrantzaren eraginez).

Biztanleria landun eta egoiliarraren bilakaerak **zerbitzuak sektorera bideratutako joera orokorra** erakusten du. Hala, 1996-2001 aldian, zerbitzuetan lan egiten zuten pertsonen ehunekoa lau puntu igo zen.

Hala ere, **lehen sektorean** lan egiten duen biztanleriaren **ehunekoak altua izaten jarraitzen du** Hondarribian (%7), **Gipuzkoako eta EAEkoa baino ia lau bider handiagoa** (%1,7 eta %1,8, hurrenez hurren). Hori, funtsean, **arrantzaren** garrantzian oinarritzen da, Hondarribiko biztanleria landunaren %5,6k jarduera horretan egiten baitu lan.

- Langabezia-tasak onargarriak dira, baina herritarrengan kezka sortzen du.

2005eko abenduan, Hondarribiko **langabezia-tasa** %7,8 zen, **EAEkoa baino txikiagoa eta Gipuzkoako baino apur bat handiagoa** (%8,5 eta %7,5, hurrenez hurren). Hala ere, langabezia **kezka-iturri da** Hondarribian, **Herritarren Hautemate-inkestako** emaitzen arabera; izan ere, herritarrek "enplegu-aukerak" eta horien "kalitatea" baloratu zituzten gutxien, etxe batean sartzeko aukerarekin eta herritarrei eragiten dieten erabaki-hartzeetan parte hartzeko aukerekin batera.

HONDARRIBIA: INDUSTRIA-EHUNAREN BILAKAERA URRIA ETA LANESKUA KANPORATZEN DUEN UDALERRIA

- Arrantza-jarduera garrantzitsua da oso, baina egoera korapilatsuan dago.

Hondarribiko flota **30 ontzik eta 321 tripulatzailek** osatzen zuten, 2004an; dena den, azken urteetan asko jaitsi da ontzi- eta tripulatzaile-kopurua.

- Industria-ehunaren bilakaera urria.

2004 urtean Hondarribian **55 industria-establezimendu** zeuden, eta **horietan 187 langilek** egiten zuten lan, guztira. Industria-enpresen kopuru txiki hori "papera, edizioa eta arte grafikoak", "metalurgia eta metalezko produktuak" eta "garraio-materialak" jardueretan oinarritzen da, batez ere, eta hiru jarduera horien artean, establezimendu guztien % 55 osatzen zuten. 2006 urtean 53 establezimendu zeuden Hondarribian, 213 langilerekin. Hau da, 2004an baino establezimendu gutxiago zeuden baina lan gehiago eskeintzen zuten. "Papera, edizioa eta arte grafikoak" jarduerak dute establezimendu-kopuru gehien, eta, ondoren, "garraio-materialak" eta "metalurgia eta metalezko produktuak" jarduerak daude.

Eraikuntzari dagokionez, Hondarribian 155 establezimendu zeuden eraikuntza-sektorean 2004 urtean, eta horiek 308 langileri ematen zieten lana; beraz, argi ikusten da sektore horrek udalerrian duen garrantzia. 2006 urtean 266 pertsonei lan ematen zioten 169 establezimendu zeuden. Beraz, nahiz eta establezimendu kopurua handitu, eskeinitako lana %13,6 jeitsi da.

- Zerbitzuak **sektorearen bilakaera handiagoa,** batez ere, turismoan eta ostalaritzan.

Hondarribian **864 industria-establezimendu daude zerbitzuak sektorean, eta horietan 2.654 langilek egiten dute lan, guztira**. "Merkataritza eta konponketa" jarduerak, berriz, establezimendu eta enplegu gehien ditu: zehazki, guztizkoaren %29,1 eta %19,3, hurrenez hurren. Aipatutako jarduera horren atzetik, "Alokatzeak, higiezinak eta enpresentzako zerbitzuak" eta "Ostalaritza" jarduerak daude, eta horiek establezimendu guztien %20,1 eta %14,5 osatzen dute.

Udalerriko **merkataritza-eskaintza**, bestalde, **txikia** dela esan daiteke, nahiz eta merkataritzak udalerriko ekoizpen-egituran garrantzia izan.

Ondorioz, **merkataritza-dentsitatearen indizea** lurraldeko batez bestekoa (70,6) baino baxuagoa da; era berean, Espainiako Ekonomia Urtekariko datuen arabera, Hondarribiak du inguruko herrien artean merkataritza-indize txikiena. 2006 urtean merkataritza-dentsitatea 13,73 establezimendu/1.000 biztanlekoa zen.

Dena den, udalerriko merkataritza sustatze aldera Higer elkarteak, Hondarribiko udalak eta Bidasoa bizirik-ek 2007 urtearen amaieran sinatutako akordioarekin hutsune honi aurre egiteko pausoak ematea aurreikusten da.

Iraunkortasunerako kezkagarria da horrek guztiak eragiten duen mugikortasuna; izan ere, Iruneko merkataritzak eta Txingudi Merkataritza Parkeak sortzen duten erakarpena dela-eta, ibilgailu asko mugitzen dira.

- Hondarribia turismo-gune garrantzitsu bezala.

Turismoa Hondarribia udalerriari zuzenean lotuta dagoen ezaugarria da. Turismoan, ospe handia du Hondarribiak, eta jarduera horren kudeaketan garrantzi handiko agenteek hartzen dute parte. Horregatik da **Hondarribia Gipuzkoako eta euskal kostako turismo-gune nagusietako bat**; hori, gainera, garbi gelditzen da **udako hilabeteetan, Hondarribiko biztanleak bikoiztu egiten baitira**. 2006 urtean, Ostalaritza eta zaharberritze establezimenduak 144 ziren. Hauetatik %53,5a tabernak ziren, %41,7a jatetxeak eta %4,9a kafetegiak.

Horri jarraiki, Espainiako Ekonomia Urtekarian agertzen denaren arabera, inguruko herrien artean Hondarribia da turismo-indize handiena duen udalerria, eta, Gipuzkoako beste turismo-gune garrantzitsu batzuekin alderatuz gero (esaterako, Zarautz eta Zumaia), askoz ere indize handiagoa du.

- Hondarribia: lohiria.

Iraunkortasunaren ikuspegitik, galdera bikoitz honi erantzun ahal izatea azpimarratu behar da: **Non lan egiten du eta bizi da Hondarribian bizi den eta lan egiten duen jendeak?** Hain zuzen, **Hondarribian bizi diren 10 langiletik 7k udalerritik kanpo egiten du lan**. Gainera, establezimenduen, enpleguaren eta biztanleria landunaren eta egoiliarraren kopurua %20 baino gehiago hazi zen, 1996-2001 aldian; aldiz, herrian bertan lan egiten duten biztanleak %3,6 soilik ugaritu ziren. Beraz, Hondarribia **lohiri** gisa indartzen ari dela esan daiteke.

Datuak kontuan hartuta, **Hondarribiko biztanleriaren %70ek, gutxi gorabehera, udalerritik kanpo lan egiten duela** esan daiteke, eta Hondarribian sortutako lanaren %30 Hondarribikoak ez diren pertsonek betetzen dute.

EKIPAMENDU HORNIDURA ONARGARRIA, BAINA HUTSUNE BATZUEKIN

- Adin txikienetako hezkuntza-ekipamenduetan aurreikusitako premiari buruzko kezka.

Hondarribiko **hezkuntza-eskaintzan**, hezkuntza ez unibertsitarioko etapa guztiak daude, goi-mailako Lanbide Heziketa izan ezik.

Eskaintza horretan, guztira 2.373 ikasle daude 2007-2008 iksturtean, eta **eskaera hori handitzen ari da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako mailatik hasita**. Horrek hainbat arrazoi izan ditzake, baina, batez ere, hazkunde begetatiboa, egoiliar-kopuruaren hazkundea nahiz inguruko herrietatik datorren ikasle-kopuru handia azpimarratu behar dira.

- Kultura-ekipamenduetan hutsuneak, baina kultura-jardueren eskaintza garrantzitsua eta osoa

Hondarribian, polikiroldegiaz eta Zuloaga liburutegiaz gain, ez dago erakunderen batek prestatutako ekitaldiak egiteko leku egokirik. Egun, barruti itxi batean egin behar diren ekitaldiak udal polikiroldegian ospatzen dira. Hori dela-eta, iritzi desberdinak daude ekipamendu berri bat egiteko beharrari edo behar ezari buruz.

Aldiz, kultur jardueren eskaintza garrantzitsua da; hala ere, aurrez aipatutako arrazoia dela-eta, ekitaldi ia guztiak udaran egiten dira (estalperik gabe), metereologia-baldintzen aitzakiaz.

- Kirol-ekipamenduen eskaintza bikaina.

Hondarribiko bizi-kalitatea kontuan hartuta, udalerriko indar-gune garrantzitsuenetako bat bertan dauden **kirol-ekipamenduen** eskaintza zabala da.

Gainera, eskaintzan hainbat ikastaro eta modalitate guztietako gimnasia-eskolak sartzen dira, eta kiroldegian bertan izaten da. Horri dagokionez,

saturazio apur bat nabari da, dagoeneko Hondarribian bizi diren 5.500 bazkide baitaude (biztanleria osoaren %34); eta horiei, gainera, beste 700 bazkide gehitu behar zaizkie, Irungoak eta Iparraldekoak, hain zuzen.

- Osasun azpiegitura desegokiak

Hondarribian osasun-zentro bakarra dago, eta, bertan, medikuntza orokorraren premia guztiak asetzen dituzte. Egun dagoen osasun ekipamendua ez da nahikoa udalerrian dauden beharrei erantzuteko orduan. Hori dela eta, anbulatorio berri baten oinarrizko proiektua idatzi da.

"Euskal Sistema Sanitario Publikoaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Plana 2007-2012"ak Hondarribiako Osasun Zentroa hobetzeko inbertsioak aurreikusten ditu.

Bestalde, BidasoaOspitalaren instalakuntzak handitzea aurreikusten da (42 ohe berri) baita kontsultara zuzenduta dagoen eremua handitzea eta egokitzea (1.550.000€ eta 630.000€ hurrenez-hurren).

- Gizarte-zerbitzuen eskaeren hazkunde garrantzitsua

2006an, guztira 666 espediente ireki ziren Gizarte Zerbitzuen Departamenduan; beraz, **2004ko datuekin alderatuz, %0,7ko igoera** izan zen.

Bestalde, **zaharren egoitzetan 34 pertsona** sartu zituzten 2006an, zeinetatik 15 gizonezkoak eta 19 emakumezko ziren. Hain zuzen, Bidasoa-Txingudi eskualdeak du Gizarte Zerbitzuko egoitza-sarearen estaldura txikiena, EAE guztian. Eskualde-mailan, beraz, egoitza-lekuen defizitaz hitz egin liteke.

Azken urteetan, **iraupenerako estalduraren prestazioak** murriztu egin dira. Aldiz, 2006an, 123 familia onuradun izan ziren; hau da, **2004ko kopuruekin alderatuz, %32,4ko murrizketa** gertatu zen. Dena den, beharrezkotzat jo da **gizarte-alokairuarekin lotutako premiei** (azken aldian, ugaltzen ari direnak) arreta jartzea.

- Etxebizitza-merkatuaren hedapen handia, eta bigarren etxea duten pertsonen ehuneko garrantzitsua.

2007an, 7.840 etxebizitza zeuden guztira Hondarribian; horietatik %75,9 okupatuta zeuden eta gainerako %24,1a hutsik. Eustaten arabera, 2001ean, etxebizitzen %23 bigarren etxeak ziren. Zenbaki horiek, beraz, argi erakusten dute **etxebizitza-kopuru handi bat bigarren etxeak direla; batez ere, udaran betetzen direnak**.

Beste elementu garrantzitsua etxebizitzetako okupazio-mota da. Esaterako, **etxebizitza bakoitzean bi pertsona bizi dira, batez beste, eta Hondarribian okupatuta dauden etxe horien %70ean 3 pertsona edo gutxiago bizi dira**.

Azkenik, ezin da ahaztu hainbat arrazoi direla-eta pertsona eta familia batzuek sostengu eta laguntzak behar izaten dituztela (unean unekoak nahiz aldian behingoak), beren etxean baldintza duinetan bizitzen jarraitu ahal izateko. Hain zuzen, Udalak ematen dituen Gizarte-behar Larrietarako Laguntzen ehuneko garrantzitsu bat etxebizitza-gastuak ordaintzeko erabiltzen dira. Beraz, oso garrantzitsutzat jo da gizarte-laguntzako etxebizitzen politika indartsu bat aurrera eramatea, batez ere, alokairuarena.

- Asoziazionismoaren eta herritarren parte-hartzearen maila txiki samarra, udal-politikan.

Era askotako **elkarteen** kopuru garrantzitsua dagoen arren, **Herritarren Hautemate-inkestaren** bidez bildutako erantzunen %60k ez du horrelako talde bakar batean ere parte hartzen.

Bestalde, Herritarren Hautemate-inkestan, **herriari eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerek** bigarren balorazio txarrena jaso dute, herritarren asebetetze orokorraren mailaren arabera; hain zuzen, "enplegu-aukerak" alderdiak soilik atera du balorazio txarragoa. Balorazio hori okerragoa da, inkestatutako pertsonak gazteagoak diren heinean. Zehazki, 18-29 urte bitarteko biztanle-multzoak 4 puntutik 2 eman dizkio balorazioan.

1.8 Hondarribiko eredu sozioekonomikoari buruzko sintesia, iraunkortasunaren ikuspegitik

65. taula.

40ko hamarkadatik, biztanleria etengabe hazi da
• Inguruko herri gehienetan ez bezala, Hondarribian biztanleriak gora egin du urtero, 40ko hamarkadatik. • Hain zuzen, 2001-2004 aldian, Hondarribia 40ko hamarkadatik hazi den antzeko erritmoan hazi da (+%15 hamarkada bakoitzean). 2007ko abenduaren 31ean Hondarribiak 16.364 biztanle zituen. 2001-2007 epealdian biztanleria %8,46 batean hazi da. Horren arrazoiak funtsean bi dira: ▪ Hazkunde begetatibo positiboa. ▪ Migrazio-saldoaren igoera.
Biztanleria zahartzearen sintomak
• Azken 25 urteetan, ordea, 65 urtetik gorako biztanleak %50 igo dira, eta 19 urtetik beherako biztanleak, berriz, ia erdira jaitsi dira; joera hori orokorra da Gipuzkoan eta EAEn.
Okupazioa vs langabezia
• 1991 eta 2001 artean, lanean dagoen biztanlerai egoiliarra %32,4 hazi da; igoera hori Gipuzkoan izandakoa bainoo askoz ere handiagoa da (%24,1). • Langabezia-tasari dagokionez, 2005eko abenduan %7,8 izan zen; EAEko tasa baino baxuagoa eta Gipuzkoakoa baino apur bat handiagoa (%8,5 eta %7,5, hurrenez hurren). • Hondarribiko langabearen profila honako hau da: 45-54 urte bitarteko emakumea, Bigarren Hezkuntzako 1. etapako ikasketa-maila duena, zerbitzuetan lan egin duena eta kualifikaziorik gabeko lan-taldean sartzen dena.
Zerbitzuak, udalerriko ekonomia-jarduera nagusia
• Zerbitzuak dira nagusi udalerriko ekonomia-jardueran, lanean dagoen biztanleriaren %66,3k jarduera horretan egiten baitu

lan; atzetik, industria (%20,6), eraikuntza (%6,1) eta lehen sektorea (%7) ditu.

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorea moteltzen ari da, etengabe, eta jarduera baztertu bihurtzeko bidean da: profesional-kopurua behara doa pixkanaka, eta gero eta gehiago dira jarduera horretan jarduten duten langile mistoak; hau da, baserriko lanaz gain, industrian edo zerbitzuetan egiten dute lan.
- Arrantzak garrantzi handia du Hondarribian, bai okupazioari dagokionez, bai jarduerari dagokionez. Hain zuzen, %7k egiten du lan lehen sektorean, eta horietatik %5,6k arrantzarekin lotutako lanetan dihardu.
- Industria metalurgian oinarritzen da, batez ere; baina, hala ere, udalerrian ez du presentzia handirik.
- Hondarribiko zerbitzuetan lan egiten duten biztanleak EAEkoak baino 4 puntu gorago daude; zehazki, merkataritza eta konponketarekin, hezkuntzarekin, eta logistika eta garraioarekin lotutako jarduerak dira nagusi udalerriko ekonomian.

Merkataritza-sektorea, dinamismo gutxi?

- Hondarribiko merkataritza-dentsitatearen indizearen arabera, 54 establezimendu daude 1.000 biztanleko; kopuru hori, Lurraldeko batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da (70,6).
- Hiri-inguruko merkataritza-gune handiak aurrera doaz, eta horrek, aisialdiarekin eta erosketekin lotutako arrazoiak direla-eta, mugikortasuna handitzea dakar.

Hondarribia erreferentziazko turismo- eta aisialdi-gunea

- Ostatu hartzeko azpiegitura garrantzitsuak.
- Lurraldearen eta hirigunearen paisaia- eta hiri-kalitate bikaina, eta, horrez gain, turismoarekin eta aisialdiarekin lotutako erabilerak garatzeko azpiegitura handiak.
- Inguruko herrien artean, Hondarribia da turismo-indize handiena duen udalerrietako bat.

Non lan egiten du / bizi da Hondarribian bizi den / lan egiten duen jendea?

- Hondarribian bizi diren 10 langiletik ia 7k udalerritik kanpo egiten du lan.

- Establezimenduen, enpleguaren eta lanean dagoen biztanleria egoiliarraren kopurua %20 hazi zen, 1996-2001 aldian; aldiz, udalerrian bertan lan egiten duten biztanleak %3,6 soilik igo ziren. Beraz, Hondarribia lohiri gisa indartzen ari dela esan daiteke.
- Era beran, Hondarriban sortutako enpleguaren %30 udalerrikoak ez diren pertsonek betetzen dute.

Ekipamendu-horniduren argilunak

- Adin txikienetarako hezkuntza-ekipamenduen beharra aurreikusi dela-eta, arretaz jokatu behar da.
- Kultura-ekipamenduan hutsuneak daude, nahiz eta kultura-jardueren eskaintza garrantzitsua eta osoa izan.
- Kirol-ekipamenduen eskaintza bikaina.
- Gizarte-zerbitzuen eskaeren eta itxaronzerrenden igoera garrantzitsua, udalerrian. Eskualdeari dagokionez, adineko pertsonentzako egoitzetan leku gutxiegi daude.
- Etxebizitza-merkatuaren hedapen indartsua eta bigarren etxebiziten ehuneko garrantzitsua.

Asoziazionismo-maila txikia eta erabaki-hartzeetan parte hartzeko aukera urriak

- Hainbat tipologiatako elkarte-kopuru handia dagoen arren, hautemate-inkestaren bitartez lortutako erantzunen %60k ez du parte hartzen inolako elkartetan.
- Bestalde, herriari eragiten dioten erabaki-hartzeetan parte hartzeko aukerei dagokienez, herritarren asebetetze-mailan bigarren balorazio txarrena jaso du; "enplegu-aukerek" soilik jaso dute balorazio okerragoa. Balorazio hori, gainera, txarragoa da inkestatutakoen adinak behera egiten duen heinean; hain zuzen, 18-29 urte bitarteko gazteen artean, 4tik 2 puntu lortu ditu.

2. LURRALDE ANTOLAMENDUA

2. LURRALDE ANTOLAMENDUA

2.1 LURRALDE ANTOLAMENDUAREN ARTEZPIDEAK ETA LURRALDE PLANAK

2.1.1 Lurralde-antolamendua, EAEn

Hondarribiko lurralde-antolamendua zehaztean, toki-ikuspegiaz gain, udalerriaz gaindiko ikuspegia ere kontuan hartzen da, lurraldea bere osotasunean egituratu nahi baitu, udalerri-mugak alde batera utziz. Egituratze hori EAEko Lurralde Antolamendurako Artezpideetan (1997) oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Legearen (4/1990 Legea) garapenean, hain zuzen.

Lurralde Antolamendurako Artezpideek (LAA) EAErako lurralde-eredu egokiena zehazten dute, maila bereko herrien sistema polinuklearrean oinarrituta. Zehazki, Vitoria-Gasteizi, Bilbaoko Metropoliari eta Donostialdeari egiten die erreferentzia. Kokatze horretan, Bidasoa-Txingudik leku geo-estrategiko garrantzitsua du, eta, gainera, Donostialdeko eremuan sartzen da (azken hori hiri jarraitu baten moduan ulertzen baita).

LAAen behe-mailako garapena, eremu funtzionalen arabera, Lurralde Plan Partzialean (LPP) oinarrituz planifikatzen da. 2003ko urtarrilean, *Donostialdeko eta Bidasoa Behereko LPPren aurrerakin-dokumentua* aurkeztu zen publikoki, lurralde hori udalaz gaindiko eskalan egituratzeko eta antolatzeko helburua zuena; horretarako, bizitegien, ekonomia-jardueren eta azpiegituren beharrak eta kokaleku berriak hartu ziren erreferentziatzat (lurraldeko elementu egituratzaile nagusi izaki), eta ingurumen fisikoaren eta lurraldearen baldintzak bete ziren. Dokumentu horren izapidetzea geldirik dago une honetan, eskumendunak ados jartzeko zailtasunak eta bere edukiari buruzko irizpide desberdinak egon baitira; bestalde, aurkeztutako alegazioei ez diete erantzun. Egun, Gipuzkoako Foru Aldundian beste oinarri batzuk lantzen ari dira, edukia berriro sortzeko balio izan dezaketenak.

LAAn zehaztutakoaren arabera, Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren baitan, *lurraldean eragin eta hori antolatzen lagun dezaketen beste plan batzuk* sartu eta kontuan izan behar dira (nahiz eta maila baxuagoa izan). Hauek dira:

- *Kantauri Isurialdeko bazterrak eta ibaiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana;* plan hori, hain zuzen, indarrean dago 1999ko martxoaren 24tik,

abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ondoren.

- *Gune Hezeetako Lurraldearen Arloko Plana.* Behin betiko onartu eta EHAAn argitaratu zuten, 2004ko azaroaren 19an. Gune hezeetako inbentarioan Txingudiko eremua eta padurak sartzen dira.

- *Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.* Lehenengo onarpena jasoa du (2005/02/28an argitaratutako Ordena). Itsasoko eta Lurreko Jaberi publikoa babestea, ikuspuntu soziala nahiz balio ekologikoak eta ingurumenekoak eta baliabideak kontuan hartuta.

- *Nekazaritza eta basogintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.* Lehenengo onarpena jasoa du (05/01/10ean argitaratutako Ordena). Alde batetik, nekazaritzako eta basogintzako erabilerak planifikatzeko eta kudeatzeko bideratutako jarduerak iradoki eta bideratu nahi ditu, eta, ondoren, lurraldearen antolamendu osoko plangintza-eremuan sartu; eta bestetik, nekazaritza-sektorearen interesak defendatu, beste erabilera batzuen gainetik.

Hondarribian, era berean, Lurraldearen beste Arloko Plan batzuk daude:

- *Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Plana.* 2001/02/27ko 41/01 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zuten. Dekretu horren helburu nagusia lurralde-antolamenduan garraiorako azpiegitura berria sartzea da; hain zuzen, Europako bide-zabalera bere baitan hartzen duena eta Euskadin Trenbide Sare berri bat jartzeko aukera ematen duena. Horrez gain, dauden sareetan planteatzen diren gainerako jarduketak osatu eta koordinatu nahi ditu.

- *Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren Lurraldearen Arloko Plana.* Behin betiko 2004/12/21eko 262/04 Dekretuz onartu zuten.

- *Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako Lurraldearen Arloko Plana.* Aurrerakin-fasean dago (2003/07/24an argitaratutako Ordena). Prestaketa-aldian dauden azpiegiturak lurraldean nola kokatu eta horien neurriak nola hartu arautzen du aurrerakin-fasean; eta, horretarako, eremuak, dimentsio orokorrak, eta eskualdeen eta eremuen araberako

kokapena proposatzen dira. Portu-, aireportu-, bide- eta trenbide-azpiegiturei egiten die erreferentzia. Dirudienez, egun Aurrerakina berriro egiten ari dira.

Pasaia-Irun korridorean azpiegitura berriak sortzeko ekimen ugari izateak eta Paisaiako Badia lehenera ekartzeko asmoak egoera-aldaketa ekarri du; ondorioz, Hondarribia eta Irun kudeaketako sozietate publikoan (Jaizkibia SA) sartu dira, eta, horrez gain, ekintzak integratzeko hainbat plan egin dira. Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako eta Sustapenerako Departamendua honako hauek gauzatzen ari da:

- *Jarduketa Plan Integrala.* 2005eko maiatzaren 25ean, Pasaia aldeko Erakunde-arteko Batzordeak (Jaizkibiaren bitartez zabaldu dena) egindako bileran, Jarduketa Plan Integral bat sortzea erabaki zuten; hain zuzen, 2006ko lehen seihilekorako prest izatea espero da. Horretarako, aurrez zeuden ekimenekin egindako aurrerakina hartu da oinarri, eta horri partaideen eskaerak gehitzen ari zaizkie.

- *Lurralde Antolamenduaren Proiektuko Eskema Gidatzailea.* 2006ko otsailerako amaitzea espero da. Bere helburuetako bat lurraldea antolatzea da, arloetako orientazioak gainditu nahian, eta, horretarako, zeharkako arrazoibideak eraiki nahi ditu. Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiak agintzen du, baina kanpoko laguntza ere jasotzen ari da; hain zuzen, Kataluniako, Granadako eta Euskadiko Unibertsitate Politeknikoen laguntza.

Beste era bateko babes-tresnek ere eragiten dute, esaterako:

- *Herri onurako mendiak (MUP).* Azaroaren 21eko 108/1995 Foru Dekretuaren bitartez, onura publikoko mendien irudiak basoetako ondare publikoa mantendu, sendotu eta indartu du, Onura Publikoko Mendien katalogoan sartu ondoren. Katalogo horretan sartuta dagoen mendia eskumen publikoko edo demaniokoko ondaretzat izendatzen da, eta, ondorioz, hirigintzako plangintza-tresnek basogintzako erabilerarako lurzoru urbanizaezintzat hartzen eta sailkatzen dute. Irudi horren baitan dago Jaizkibel mendiaren zatirik handiena.

- *Akuiferoen ahultasuna.* Iragazkortasun handiko eta ertaineko lurrei eta intereseko akuiferoak (edo ustiapenean daudenak) dituzten edo akuifero-mota horien drainatze-arroak diren lurrei dagozkie. Bi mota bereizten dira, ahultasun-mailaren arabera: altua eta ertaina. Eremu horiek lurraldearen

planifikazio eta antolamenduan eta lurzoruaren erabileran kontuan hartu behar dira, gaitz edo isuri kutsakor batek aldakuntzaren bat eragin eta bertan dagoen baliabidearen erabilera krisian jarri baitezake. Eremu horiek hornikuntzarako erabiltzen dira batzuetan, eta, beste batzuetan, ureztatzeko.

Jarraian agertzen den taulan jasotzen dira egun onartuta eta onartze bidean dauden Antolamendu Plangintzak:

119. taula. Egun onartuta eta onartze bidean dauden Antolamendu Plangintzak

LURRALDE ARLOKO PLANAK	
ONARTUTAKOAK	**ONARTZE BIDEAN DAUDENAK**
EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana	EAEko Kultura Ondareko Lurralde Arloko Plana.
EHEko Errepideen Plan Orokorra.	EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
Arabako Errepideen Arloko Plana.	EAEko Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
Bizkaiko Errepideen Arloko Plana.	EAEko Portuak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde Arloko	EAEko

Plana.http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/industria/pts_e.htm	Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako Lurraldearen Arloko Plana
EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.	
EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana.	

LURRALDEAREN ZATIKO PLANAK
Aprobatu gabe dago oraindik Donostialdea-Behe Bidasoa aldeko Lurraldearen Zatiko Plana

Iturria: www.ingurumena.net

2.1.2. Plangintzen bateragarritasuna

LAAek proposatutako baliabideen artean (Hondarribian eta Irunen eragin zuzena dutenak), udalerri-taldeetarako plangintza osatuak egiteko beharra aipatu da; besteak beste, aipatutako bi udalerri horietarako.

Bi udalerri horietako *udal-plangintzen bateragarritasunaren helburuak* honako hauek dira:

- Udalerriko plangintza koordinatzea, eta Irungo Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko determinazioak eta Hondarribiko Arau Subsidiarioak modu integratuan eta beren errealitate funtzionalarekin eta morfologikoarekin elkarrekikotasunean egon daitezen ahalegintzea.
- Bi udalerriei modu berean eragiten dieten gatazkak konpontzeko edo aukerak gauzatzeko lurralde-eskala egokia bilatzea. Horregatik uste da udalerriaren eremu itxia gainditzen duten analisiak, proposamenak eta kudeaketak eskatzen dituzten arazoak izateak, derrigorrean, plangintzaren bateragarritasuna eskatzen duela.
- LAAetan proposatutako udalaz gaindiko lurralde-ereduaren ezarpena bideragarri egitea.
- Bi udalerrietako lurzoruen erabileran osagarritasun eta espezializazio desiragarri bat lortzea.

- Hiriaren irudi integratua eta erakargarria lortzea.

Era berean, LAAetan Irun eta Hondarribiak eratzen eta osatzen duten hiri-eremuaren ezaugarri nagusiak modu zehatzean aztertzen dira. Horri lotuta aipatu behar da mendekotasuneko eta osagarritasuneko ekonomia-harremanen garrantziak agerian uzten duela bi nukleoen egungo integrazio urbanistikoa eta funtzionala.

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinak errealitate horretan sakondu du, eta, era berean, hiri-antolamendua udalerriaz gaindiko ikuspegitik planteatu behar duten hainbat eremu espezifiko identifikatu ditu. Hori da, esaterako, Jaitzubiko hiri-bilakaera integratuaren kasua; zehazki, Irungo eta Hondarribiko udalek plangintzen bateragarritasunerako protokolo bat sinatu dute, aurrerapen gehiago jakinarazi gabe.

2.2 Hondarribiko hiri-eredua

2.2.1 Hondarribiko hiri-ereduaren bilakaera

2.2.1.1 Erdi Aroko nukleoa eta kostalderako hedapena

Hondarribiko hiri-bilakaerari gainbegiratu bat eman dakioke indarrean dauden Arau Subsidiarioen Memoria (1995ean idatzia) erreferentziatzat hartuz.

Hondarribiko hirigunea Jaizkibelen hegoaldean dago, estuarioaren ondoan, eta Erdi Aroko jatorria duen nukleo harresituaren ingurua hartzen du. Dokumentatutako lehen erreferentzia historikoak XII. Mendekoak dira; hain zuzen, hiribilduari buruzko lehen aipamena 1180an egin zen, "Undarribia" izenarekin agertu baitzen Santxo VI.a jakintsuak Donostiari emandako foruan. Hiribildua 1203ko apirilaren 18an sortu zen, Alfontso VIII.aren agindupean, berak eman baitzuen hiri-gutuna.

Harresiak Errege Katolikoek eraiki zituzten, eta, horien barnean, Erdi Aroko trazatu bat hartu zen; trazatu horrek, gerora, hainbat zabalkuntza izan zituen, hiri-bilakaerak aurrera egin zuen heinean (parrokia-eliza harresi zaharren zatien gainean eraiki zuten). Harresi errenazentistak, berriz, Karlos V.aren

erregealdian eraiki zituzten (gaur egun harresiz inguratuta ezagutzen dugun barrutia eta bere erregealdian handitutako gaztelua, lehenengoz Antso Abarka Nafarroako erregeak eraiki zuena).

Lehenengo irudikapen grafikoetan (XVII. Mendean) Magdalena auzoa edo aldiria agertzen da; bertan, arrantzaleak bizi ziren. Gerora, Portua auzoa bilakatu da. XVIII. Mendearen amaieratik, nukleoa hedatuz joan da eta hainbat auzo sortu dira: Campiña, Zumardia eta Puntalea; auzo horiek, zehazki, mendebaldetik, hegoaldetik eta ekialdetik inguratzen dute Erdia Aroko alde zaharra. Era berean, Irunekin lotzeko bideetan, Amute eta Mendelu nukleoak sortu dira.

33. grafikoa. Hondarribiko irudikapen grafikoa, 1873



Iturria: Armadaren Geografia Zerbitzua.

Udalerriko gainerako kokalekuak barreiatuagoak daude, barrutiaren 3.805 Hatan sakabanatuta, eta horietatik gehienak, gainera, Jaizkibelen hegoaldean. Horiek landa-auzoak eratuz banatzen dira: Gornutz (Montaña), ekialdean; Akartegi (hirigunearen gainean), Zimizarga eta Arkolla (hirigunearen mendebaldean); Kosta (Santa Engrazia eta Amute ubideen arteko ibarrean) eta Jaitzubia, izen bereko haranean.

Hiri-bilakaerako bultzada handiena XIX. Mendeko bigarren erdian gertatu zen, egun existitzen diren azpiegitura-elementu handiak eraiki zirenean (A-8 autobidea eta aireportua izan ezik, horiek XX. Mendeko azken erdian eraiki baitzituzten). Horrela, sozio-ekonomiko harremanen sistema berri bat ezarri zen, Bidasoa Behereko eskualdean. Sistema horretan, Hondarribia estatuko uda-garaiko eremu eta Irungo jolasaldi- eta aisialdi-eremu bihurtu zen; baina, aldi berean, arrantza-gune izateari eutsi zion.

2.2.1.2 XX. Mendearen hasierako egoera

Aldaketa horien ondorioz, hirigintzan eraldaketa sakona hasi zen, eta, jada, 1900. urtean oso agerikoa zen. Urte hartako planoetan, hainbat elementu ikus zitezkeen; esaterako, Guadalupeko Gotorlekurako eta Higer Itsasargirako errepideak. Bi errepide horiek 1885. urtekoak dira, gotorlekua eraiki zen garaikoak, gutxi gorabehera. 1859an, Portuko kai berria eraikitzen hasi ziren, eta, herriko biztanleriaren hazkundearen eta udatiarrei ostatu emateko beharrak sortzen zuen presioaren ondorioz, kai horren eta San Pedro kalearen arteko eremua eraikinez betetzen jarraitu zuten; horrela, betegarriak zituen zabalgune bat osatu zen, eta Butroi Pasealekua sortu zuten.

XX. mendearen hasieran, jada nabaria zen padura asko eta asko lehortu zirela, bai eta okupazioan izandako aurrerapena ere; hain zuzen, lehortze hori Jaitzubiko ubide-ahoan (San Pabloko itxitura), Eskapatxulon eta Santa Engraziako ubiderako bidean (San Isidoroko itxitura) amaitu zen. Era berean, Santa Engraziako presa ere lehortuta zegoen, eta, horrez gain,Puntalean eta Bidasoako ubidearen aurrean gero eta lur gehiago lehortu ziren.

1914an, Hondarribian 5.400 biztanle zeuden. Garai haietan, egungo hirigunearen eremu nagusiaren oinarrizko bideak sendotuta zeuden, dagoeneko, Santa Engraziako ubidearen, Campiñako muinoaren eta Portuko zabalgunea iparraldetik mugatzen duen estugunearen artean. Zabalgune hori jada beteta zegoen Butroi Pasealekuaren ondoko eraikin txikiekin (gerora ordezkatu egin zituztenak). Hondartza, berriz, pasealeku horren amaieran hasten zen, eta, bertan, lorategiak zituzten txaletak eraikitzen hasi ziren; txalet horiek, gainera, Guadalupe Errepidean ere egin zituzten. Alde

Zaharrean (erotzear zeuden harresietan), esku-hartze ugari egin ziren, eta horietako askoren ordez eraikin pribatuak egin zituzten.

Portuko zabalgunearen ezaugarriak (bide-trazadura, eremua, topografia) eta hondartzatik gertu egoteak mesede egiten diote merkataritza-guneak jartzeari eta hiri-erdigunea leku horretara mugitzeari; Alde Zaharrean, ordea, eraikin publiko garrantzitsuak gelditu dira: Udaletxea eta Parrokia-eliza. Horrela eraiki zen Hondarribiko nukleo nagusia, Sabino Arana Goiri kalea eta, beranduago, kale horrekin lotzeko Zuloaga kalean egin zen luzapena salbu.

2.2.1.3 Hiri-bilakaera 1915-1955 aldian

1915-1955 aldian, geldialdi bat izan zen hiri-bilakaeran. Zehazki, 1955ean, Hondarribian 8.000 biztanle zeuden, gutxi gorabehera. Bide-trazadurei dagokienez, garai hartako gertaera garrantzitsuena egungo Sabino Arana kalearen irekiera izan zen; kale hura "Errepide Berria" (1933) deituaren jarraipena zen, Amutera iritsi arte, eta Hondarribiko sarbideetan aldaketa handiak eragin zituen. Gainerakoan ez zen aldaketa handirik izan, eta bizitegi-eremu berri gutxi garatu ziren; besteak beste, Puntaleko zabalgunea eraikitzen hasi ziren, eta, aldi berean, Faroko eta Guadalupeko errepideetan eta egungo Baserritar Etorbidean etxeak eta txaletak ugaritu egin ziren. Dirudienez, orduan eraiki zituzten mende-amaieran Kosta auzoan eta Errepide Berriaren hasieran zeuden eraikinen zati handi bat.

Azpiegitura orokorrei dagokienez, berriz, Errepide Berriaz gain, Irunerako tranbia desagertzea eta estuarioko lanen hasiera izan ziren gertaera azpimarragarrienak; azken horretan, zehazki, babes-portua eraiki, sarrerako errepidearen pareta egin eta egun Iterlimen eraikina dagoen lekuko senadiak itxi zituzten. 1951n amaitu zituzten errepideko lanak Guadalupen eta Pasaian.

34 grafikoa. Airetik egindako Hondarribiko argazkia, 1954.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Garai hartako hirigintzan, uda-garaiko udalerriei zuzendutako hirigintza-eredua zen nagusi, eta, gainera, bereziki nabarmena zen garai hartako Madrileko diseinuaren eragina, erregimen politiko berriak inposatua. Salbuespentzat Arrantzaleen Herria aipatu behar da, horrela hasi baitziren bertako herritarrei zuzendutako gizarte-laguntzako etxebizitzak publikoki sustatzeko esku-hartzeak. Beraz, horrek adierazten duenez, lurraren prezio altuak eta etxe batean sartzeko zailtasunak aspaldikoak dira; hain zuzen, Hondarribiko sozio-ekonomiako egituran izan zen espezializazioaren ondorio zuzena izan zen, XIX. Mendearen erditik bertako hiri-bilakaera baldintzatu baitzuen.

2.2.1.4 Hiri-planifikazioa eta horrek lurraldean izan zuen eragina (1956-1995)

1956tik aurrera, Hondarribiko hirigintzan eraldaketa handiak izan ziren; hain zuzen, nazioarteko isolamendu-aldia amaitzeak Estatu osoan eragin zituen aldaketen eta Lurzoruaren Legea (planifikazioaren formulazio orokorra eragin zuena) onartzearen ondorioz. Horrela, 1957an, Hondarribiko lehen plangintza-proiektua egin zuten, baina ez zuen behin betiko onarpena jaso. 1959an, beste proiektu bat idatzi zuten, eta hori erdizka onartu zuen Batzorde Probintzialak, 1960an; hala ere, ez zen sekula aurrera atera. Hau da, Hondarribiak plangintza-dokumentu bat zuen, baina zituen hutsuneak zirela-eta, ez zuen eraginik izan.

1960ko plan horren babespean, plangintza partzialaren zenbait espediente formulatu ziren, eta horiek berehala gauzatu ziren; baina, ez zuten neurri handi batean plangintza errespetatu. Esku-hartze horiek (gerora, 1972ko Plan Orokorrean sartu zirenak) eragin handia izan zuten Hondarribiko hiri-bilakaeran; besteak beste, lehenengo fasean, poligono hauetako plan partzialak izapidetu ziren: 20 (Amute), 26 (Alde Zaharra), 31 (Azken Portu) eta 33 (Campiña). Bigarren fasean (1967-1969), berriz, beste poligono hauetako ordenantzak onartu ziren: 2,7 eta 56 (Jaizkibel), 25 (Damarri), 29-A (Butroi pasealekua) eta 35 (Iterlimen).

1972an onartutako Plan Orokor berriak (hedapeneko ekonomia-egoeran eta Jaitzubiko errepidea eraikitzeak irisgarritasunean eragindako hobekuntzaren ondorioz sortua) erabateko eskala-aldaketa proposatu zuen, garapenaren neurriak ezartzean; hain zuzen, 7.000 etxe berri baino gehiago planifikatu zituen (11.000 aurrez zeudenekin). Horietako gehienak ekonomia-maila altuko merkatura zeuden zuzenduta eta dentsitate ertaineko eta txikiko eraikin-tipologia zuten; gainera, paisaia-kalitate bikaineko lurraldean kokatu zituzten. Planaren helburua XIX. Mendearen erdialdetik Hondarribiko hiri-bilakaera baldintzatu zuen eredu sozio-ekonomikoa eta funtzionala indartzea zen, eta, aldi berean, une hartan bilakaerak sortzen zuen baikortasunera egokitzea.

Planean inplizituki zegoen filosofia uda-garaiko herri txiki bat –funtzionalki Irunen mendean zegoena– estandar altuko bizitegi handi bihurtzea zen, Donostiako metropoli-arearen maila berekoa. Plan horretan, industriari ez zitzaion hainbesteko garrantzia eman, eta elkarren artean loturarik ez zuten bakar batzuk baino ez ziren ezarri. Bestalde, ia ez zegoen komunitate-ekipamendurik, ez eta eremu librerik ere; ordea, etxebizitza-dentsitate txikiak gabezia hori arindu egiten zuen.

1972ko Plan Orokorra indarrean egon zen 21 urte horietan, poligono hauetako plan partzialak soilik izapidetu ziren: 12, 14 (Irungo 16. poligonoaren zati

batekin batera) eta 15 Mendelun eta 24 (Iparraldeko Sektorea). Horrez gain, hainbat espediente egin zituzten: Portuko zabalgunearen Iparraldeko zatia antolatzeko espedienteak (dentsitatea gehiegi handitu zutenak), Campiñako Plan Partziala aldatzeko hainbat espediente (plana zenbait sustatzaileren interesen arabera egokitu zutenak) eta Alde Zaharra antolatzeko espediente bat edo beste.

1955etik gauzatu den hiri-bilakaerak eraldaketa handiak eragin ditu Hondarribian. Azpiegiturei dagokienez, babes-portua eta horren errepidea eraiki ondoren, ibaia bideratu eta ibai-ahoko barra kendu zen; horrela, hondartza sortu zen eta horren atzeko aldea bete zen. 1955ean eta 1961ean amaitu ziren aireportua eraikitzeko bi faseak, Amuteren eta hirigunearen arteko errepide berria egin ostean. 1963an, berriz, N-1 errepidetik Hondarribira sartzeko sarbide berria egin zuten, zehazki, Jaitzubiko haranetik barna; eta, horri esker, udalerrirako sarrera nabarmen hobetu zen.

Hirurogehiko harmarkadan, eraikuntzan egin ziren esku-hartzeak garrantzitsuak izan ziren. 1967. urtera arte, hainbat esku-hartze egin ziren: Jesus Obrero eta Los Planetas taldeak eraiki zituzten Mendelun (aurrez egindako Plan Partzialik gabe), Campiñan egindako esku-hartzeak (Soroeta, Guadalupe eta Cerverales, herritarrei zuzenduta; Bizkundi, Brunenea, Goxoki eta Ondarregi, udarako apartamendu-multzoek osatuak), eraikin berriak Butroi Pasealekuan, eraikuntza bakanak (Faroaren errepidean), Puntaleko zabalgunea. Era berean, 18. poligonoan industria-pabiloilak eraikitzen hasi ziren.

1967. urtetik egungo Arau Subsidiarioak idatzi ziren arte (1995), *honako jarduketa hauek gauzatu ziren* eremu bakoitzean, dokumentu honetan bildutako Memoria erreferentziatzat hartuta:

- *Jaizkibel Urbanizazioa*. Urbanizazioaren zati garrantzitsu bat eta Golf Kluba eraiki zituzten, baina etxebizitza-kopuru txikia (Hondarribiari zegokion zatian aurreikusitakoak baino %15 gutxiago); beraz, etxebizitza berrien eraikuntza gelditu egin zen.
- *Mendelu*. 1975ean 12. poligonoko plan partziala onartu zuten, eta, geroztik, 14. eta 15. poligonoak egiten joan dira.
- *Zumardia*. 70eko hamarkadan, 25. poligonoan aurreikusitako etxebizitzen zati bat eraiki zen, baina, gero, gelditu egin zen horien garapena.
- *Alde Zaharra*. 60ko hamarkada-amaieran eta 70eko hamarkada-hasieran, San Nikolas, Leiba Jenerala eta Juan de Laborda kaleen arteko eremua bete zuten, eta, ondorengo urteetan, beste etxebizitza batzuk eraiki zituzten.

- *Puntalea*. A sektorea eraiki zuten (Herriberan), eta, bertan, 104 BOE, ibaiertzeko pasealekua eta egungo San Markos parke publikoa egin zituzten.
- *Portua*. Eraikinak ordezkatu egin zituzten HAPNren aldaketen arabera egokituz, eta, horrez gain, plan horrek baimendutako beste aprobetxamendu batzuk garatu zituzten.
- *Campiña*. Plan Partziala aplikatzen jarraitu da, baina ez dira zehaztutako kudeaketa-mekanismoak aplikatu eta ez dira urbanizazioko eta lur-lagapeneko betebeharrak bete; aldiz, baimena eman da, oro har, partzela independenteetan jarduteko. Ondorioz, elkarren artean loturarik ez duten eraikin-motak eta hiri-trazadurak osatu dira; baina, hala ere, kalitatezko ingurumenean dago, dentsitate txikia eta eremu berde pribatuen zaintza dela-eta. 56 Ha-ko hedapena zuen eta, bertan, 2.000 etxe baimendu zituzten; hain zuzen, egungo Arau Subsidiarioak idatzi zituztenean (1995), etxe horietatik 1.600 eraikita zeuden.
- *Faroko errepidea*. 38. poligonoan etxebizitza bakanak eraiki zituzten, plan partzialari jarraiki, eta 37. eta 38. poligonoetan, berriz, beste esku-hartze batzuk egin zituzten, Plan Orokorreko aurreikuspenak errespetatu gabe (antolamendu orokorraren ikuspegia, ekipamendurako lur-lagapenik gabekoa edo oso urrikoa).
- *Iterlimen/Lurgorri*. Aurreikusitako bolumena ia oso-osorik gauzatu zen, eta, gainera, urbanizazio-betebeharrak errespetatu gabe.
- *Higer*. Gaztelu Zahar eremuan ez da eraikitzen jarraitu, eta, beraz, 42. poligonoaren gauzapena bertan behera gelditu da. San Diego finka, berriz, turismo-kanpamentu bihurtu da.

Aldi horretan, industria berri gutxi ezarri ziren (18. poligonoa baino ez zegoen); horietako gehienak, gainera, Mendelutik hurbilen dagoen zatian eraiki zituzten, aireko zortasunik gabeko gunean, hain zuzen. Aurretiko plangintzarik ez zuenez, gauzapen horretan arazoak izan ziren; besteak beste, barne-sarbideen antolaketa eskasa eta ibaiertzaren gehiegizko okupazioa.

Bide-sareari dagokionez, aldi horretako esku-hartze garrantzitsuena Irungo Iparraldeko Saihesbidea eraikitzea izan zen, eta, horren bidez, Jaitzubiko errepidea N-1 errepidearekin eta nazioarteko zirkulazioarekin lotu zen. Azpiegituretan beste lan garrantzitsu batzuk ere egin ziren; besteak beste: Babes Portuko kai-muturra handitu eta atrakatze-kaia eraiki, arrantza-dartsena berriko zatitzat erabiltzeko.

Landa-eremuetan, bestalde, etxe familiabakar ugari eraiki dituzte, batez ere, Arkollan eta Jaitzubian; ondorioz, nekazaritza-ustiapenean atzera egin da.

Arau Subsidiarioetako Memoria erreferentziatzat hartuta, *1972ko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren emaitzei buruzko balantzea* egin daiteke, 1995ean bildu zenaren arabera:

- Plana indarrean sartu zenerako, etxebizitzen eskaintza zabala eta lurzoru eraikigarriaren erreserba ugari zeuden, eta horien plan partzialak onartuta zeuden: Alamedan, Campiñan eta Iterlimen. Bestalde, Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiak 131 etxebizitza eraikitzea bultzatu zuen, bertan bizi ziren herritarrentzako. Gainera, Plan Orokorrean baimenduta zegoen poligono-kopuru garantzitsua sustatzea; horri esker, beraz, etxebizitza eskuragarriak eraiki ahal zitezkeen.
- Hala ere, Udalak utzikeriaz jokatu zuen ekimen planifikatzailean, eta, beraz, ez zen horrelakorik gertatu. Kofradiaren sustapenak eta, beranduago, Herriberan eta Lonjan izandakoek soilik eragin zuten sustatzaile pribatuek bultzatutako etxebizitza-monopolioan.
- Interlimen eremua jabetza publikoko zona itsas-lehortarraren administrazio-emakida bat lortu ondoren garatu zen; gertaera hori, gainera, Arau Subsidiarioen Memorian bertan harrigarritzat jo ziren baldintzetan gertatu zen. Campiñan, legezko prozedurak eta epeak bete gabe eraiki zituzten jabeek; hala ere, Udalak finkatutako eraikigarritasun murriztuaren eraginez, arazoak konpondu egin dira. Batez ere, eremu horretan eraiki zituzten udalerriko etxebizitzak, 1972ko Plan Orokorra indarrean egon zen bitartean, bai eta Mendelun ere; azken eremu horretan, zehazki, Irungo eskaerei erantzun zitzaien, neurri handi batean.
- Industria-erabilerari dagokionez, Plan Orokorrean bost eremu kalifikatu ziren; horietatik, ordea, bakarra sustatu zuten, eta gerora, gainera, proiektua bertan behera gelditu zen. Azalera handiak kalifikatuz, industrializazioa indartzen ahalegindu ziren, baina ez zuen arrakastarik izan, hirigintza-ikuspegia desegokia baitzen (hala agertzen da, behintzat, Arau Subsidiarioetako Memorian).
- Zirkulazio-arazoa –hau da, hondartzara mugitutako zirkulazioarentzat alternatibarik ez izatea– ez zen konpondu.

Egun indarrean dauden Arau Subsidiarioetan 1972ko Plan Orokorrari buruz egin den balorazioan, oro har, planaren eraginkortasun eskasa azpimarratu da; izan ere, partzela eraikigarrien erreserba handia zuten plan partzialak errespetatu egin zituen, inolako kritikarik egin gabe, eta, horrez gain, ez zituen ez hiri-lurrak xehetasunez aztertu, ez landa-eremua benetan ikertu, ez azpiegitura nagusiak sortzeko sistema bat eratu. Era berean, horren eragile nagusia Udalaren iniziatiba-falta izan zela aipatzen da, garapen-plangintza bultzatzea ekimen pribatuen esku utzi baitzuen. Hainbat urtetan behar bezala

garatu ez zen hirigintza-politikak, ordea, bere ordain positiboa izan zuen: eraikuntza-prozesu hedakorretik babestuz, zenbait lurralde-eremu garrantzitsu mantendu izana; izan ere, Plan Orokorrari jarraiki, lur horietan eraiki zitekeen.

2.2.2 Hirigintza-eredua eta egun indarrean dagoen planeamendua egitean proposatutako garapen-aukerak

1995ean Arau Subsidiarioei buruz egindako Memorian Hondarribiko bilakaeran izan zitezkeen arazoen eta aukeren diagnostikoa egin zen; hau da, udal-plangintzaren ikuspegitik landu behar zirenen diagnostikoa. Tokiko Agenda 21ekin lotuta duen interesa eta balio estrategikoa kontuan hartuta, jarraian alderdi garrantzitsuenak aipatuko dira:

EAEko Lurraldea Antolatzeko Artezpideen arabera, Hondarribian *nabarmena da funtzio-espezializazioa*; izan ere, hala eragin dute lurralde- eta hiri-ezaugarri bereziek, bi errealitateetan (hiritarra eta metropolikoa) duen periferia-posizioak eta eremu horietan poliki-poliki ezartzen ari den integrazio- eta egituratze-prozesu funtzionalak.

Espezializazioa bi faktoretan oinarritu da:

- Bertako lurren eta hirigunearen paisaia- eta hiri-kalitate bikaina eta aisialdiko jarduerak egiteko guneak izatea.
- Ekoizpen-jarduera garrantzitsurik ez izatea, arrantza eta turismo-zerbitzuak izan ezik; izan ere, azken bi horiek ez dute udalerrirako behar beste lan sortzen, eta, ondorioz, kanpoko lanen mendean egotera behartzen du.

Egoera horri buruz, Arauek konpondu beharreko zenbait alderdi adierazi dira Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioen Memorian; gai horiek, hain zuzen, jarraian adieraziko dira, dokumentu horretatik zuzenean hartuta:

- Udalerriaren bizitegi-espezializazioa arazo garrantzitsuentzat aipatu da, kalitate eta prezio altuko higiezin-eskaintza berria egin baita, erdi- eta goi-mailako baliabideak dituzten eskualdeko eta metropoli-areako biztanleriari zuzendua.
- Egoera hori indartu egin da 70eko hamarkadatik; izan ere, hemen bigarren etxebizitza zuten Euskadi kanpoko biztanleen ordez aipatutako

ezaugarriak dituzten biztanleak etorri dira, eta, ondorioz, espekulazio-merkatu indartsua eratu da.

- Prozesu hori dela-eta, baliabide gutxi zituzten bertako biztanle askok eta askok udalerria utzi egin behar izan dute, eta Irunera eta metropoli-areako beste udalerri batzuetara joan behar izan dute, prezio eskuragarriko etxebizitzak eta lana bilatzera.
- Bertako biztanleak beste udalerrietara joate horretan eragina izan du, baita ere, Hondarribiko periferia-posizioak eta bertako garraio publiko eskasak; izan ere, arazo horren eraginez, zaila da udalerrian bizitzea eta, aldi berean, lana herritik kanpo egitea.
- Hamarkada batean (1985-1995 aldian), higiezin-produkzioa udalerriko biztanleriaren araberako erritmoan mantendu zen (100 etxebizitza/urtean); baina orduan ere eraikitako etxebizitza gehienak kanpotarrek erosi zituzten, eta udalerriko bikote berri askok ezin izan zuten horietan sartu.
- Aurrekoari lurzoru eskuragarrien falta gehitzen bazaio (Arau Subsidiarioetan aurreko Plan Orokorreko gehiegizko okupazioaren irizpideak zalantzan jarri eta gero), arazo hori are eta gatazkatsuagoa bihurtzen da.

Produkzio-jarduerei dagokienez, aduanak desagertzeak udalerriko produkzio-jarduerak indartzeko beharrari buruz pentsatzea ekarri zuen. Hain zuzen, arrantza-portuaren azpiegitura amaitzearen eta bertako turismo- eta aisialdi-zerbitzuak modernizatu eta hobetzearen garrantzia aipatu zen; eta, horretarako, harrera-guneak ugaritu (estuarioa, hondartza, Higer, Jaizkibel, Portu auzoa eta Alde Zaharra) eta horien narriadura eta degradazioa geldiarazi behar zen. Horri dagokionez, Arau Subsidiarioen Memorian zenbait jarduketa zehaztu ziren: Jaizkibelen eta Higerren aisialdi-guneak egokitzea, hondartza-zerbitzuak antolatzea eta hornitzea, kirol-portu bat egitea, eta bizitegi-guneen edukiera handitzea.

Industria-jardueretan, bestalde, industria txikia eta tokiko merkataritza-zerbitzuak ezartzea proposatu zen; hain zuzen, prezioak eta kokalekua direla-eta, eskaintza egokirik ez zutenak. Eskualdeko produkzio-jardueraren krisia zela-eta, egokitzat jo zen industria-eremu berrien eta ingurumen- eta eraginkortasun-kalitate handiagoko zerbitzuen eskaintza handitzea; hau da, industriako eta hirugarren sektoreko inbertsio-proiektu berriak erakarriko zituen zerbitzuen eskaintza handitzea. Horretarako, Jaitzubi haranaren egokitasuna aipatu zen.

Era berean, Alde Zaharrean sartzeko bide-sistemaren eta aparkaleku-edukieraren eskasia ere aipatu zen, bai eta hondakin-uren tratamenduaren eskasia ere.

Azkenik, Arau Subsidiarioetan natura-, paisaia-, hirigintza- eta historia-ondarea babestearen eta horiei balioa ematearen arazoa kontuan hartu behar dela ere adierazi zen, ekonomia-jardueraren elementu bereizgarrietako bat eta euskarri baita, eta, gainera, hiri-bilakaeraren presioak direla-eta, narriadura handiak jasaten ari baita. Horri dagokionez, honako hauek aipatu ziren: Jaizkibel, Txingudiko estuarioa eta Jaitzubiko eta Kostako ibarrak, eta hondartza birgaitzea; Jaizkibel mendiaren hegoaldea urbanizatzeko eta nekazaritza-ustiapenak etxebizitza bakanekin ordezkatzeko prozesuak geldiaraztea; eta Alde Zaharra, Madalen auzoa eta baserri historikoen multzoa (landa-lurreko ezaugarri direnak) babestea eta horiei balioa ematea.

2.2.3 Hiri-lurra lurzoruen erabileraren banaketa orokorrean

Udalerriaren azalera guztiak 3.084,00 hektarea ditu; horien %17,9 (551,6 Ha) hiri-eremuak dira, eta gainerakoak (2.532,4 Ha) lurzoru urbanizaezin.

Hiri-eremuaren baitan, bizitegi-erabilerarako guneak daude, eta 373,4 Ha dituzte; hau da, udalerriko lurzoru guztiaren %12,1. Horien zatirik handienak, zehazki, Eraikuntza bakanak (223,4 Ha), Garapen Txikikoak (66,4 ha) eta Eraikuntza Irekiak (63,7 Ha) egiteko dira. Nukleoaren jatorrizko eremuek, berriz, azalera askoz ere txikiagoak betetzen dituzte: Etxebizitza eremu zaharrek 13,7 Ha eta Zabalguneak 6,1 Ha.

120. taula. Udalerriko zonabanatze orokorra

EREMUAK	HIRI-LURRAK Ha	HIRI-LUR EGOKIAK Ha	HIRI-EREMUA GUZTIRA Ha	LUR URBANIZAEZINA Ha
BIZITEGI-ERABILERA	347,2	26,0	373,3	--
INDUSTRIA-ERABILERA	7,4	4,9	12,2	--
HIRUGARREN SEKTOREKOAK	5,7	38,8	44,5	--
LANDA-LURRAK	--	--	--	846,4
KOMUNIKAZIOKO SIST. OROK.	73,0	15,2	88,2	28,8
EREMU LIBREEN SIST. OROK.	61,2	--	61,2	1.657,3
KOMUNITATE-EKIPAMENDUA	27,2	--	27,2	--
UDALERRIA GUZTIRA	466,5	84,9	551,6	2.532,4

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak. Memoria, 1995eko abendua.

Industria-erabilerako eremuek ez dute asko betetzen (12,2 Ha), ezta hirugarren sektorean erabiltzeko eremuek ere; azken horien azalera handi bat, ordea, lur urbanizagarrien baitan dago, enpresa-parkeari dagokiona, hain zuzen (38,8 Ha).

Komunikazio-sistemak 28,8 Ha ditu, eta horietatik portualdea (21,3 Ha, 1995ean) eta aireportua (34,3 Ha) nabarmendu behar dira; aldiz, bide-azpiegiturek 25,4 Ha dituzte (20,4 errepideek eta 12,1 herri barruko bideek).

Banaketa horretan ikusten denez, bizitegi-erabilerarako lurrek garrantzia handia hartu dute, jatorrizko nukleotik asko hedatu baita; lur horietan, gainera, eraikuntza bakanak oso garrantzitsuak dira. Jaizkibel urbanizazioan 199,1 Ha hiri-lur daude; hau da, udalerriko etxe-lurren erdia baino gehiago. Arrantzak duen garrantzia dela-eta, portuak eremu handiak betetzen ditu; azken horiek, gainera, handitu egin dira azken aldian. Era berean, aireportuak okupatutako lurra ere nabarmendu behar da (Hondarribiko hiri-eremuaren %6,2).

35. grafikoa. Airetik egindako Hondarribiko argazkia, 2001.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Etxebizitza kopuruaren eboluzioa aztertzen badugu, emaitza ondorengoa da:

36. Grafikoa.

Etxebizitza kopuruaren eboluzioa hondarribian (2001-2006)



Iturria: Bidasoa bizirik

Azken urteotan etxebizitza kopuruak gorantz egin badu ere, badirudi joerak mantentze aldera egin duela.

121. Taula. Etxebizitzak auzoen arabera. Hondarribia (2006):

Auzoa	Etxebizitzak	%
Alde Zaharra	813	10,5
Puntal	596	7,7
La Marina	795	10,3
Marinatik Espioira	548	7,1
Soroeta	706	9,1
Kosta, Amute, Aireportua	674	8,7
Jaizubia, Gibeleta eta Zubieta	626	8,1
Faroa-Guadalupe	1.401	18,1
Sokoa	717	9,3
Mendelu	357	4,6
Arkoll-Semisarga-Saindua	492	6,4
Guztira:	7.725	

Iturria: Bidasoa bizirik

Etxebizitza kopuru handiena duten auzoak Faroa-Guadalupe, Alde Zaharra eta Marina dira hurrenez hurren.

Nekazal lurrei dagokionez, datu hauek jaso dira:

Udalmap-eko adierazlea	Datua
Nekazaritza eta arrantza sektorean okupatutako biztanleria	%6,97

38. Grafikoa. Nekazal lurraren bilakaera. Hondarribia(2001-2006):



Iturria: Bidasoa bizirik

Grafikoan ikus daitekeenez, nekazal lurrak behera egin du azken urteotan.

2006an, 1.610 hektareatatik, %76a Irunekoa zen eta beraz, %24a Hondarribikoa. Orduan 2006an, nekazal lurrei dagokionez, Hondarribiak 386,4 hektareak zituen.

2.2.4 Bizitegi-erabilera hiri-eremuan

Indarrean dagoen udal plangintzaren helburua lurraldearen edukiera objektiboak eta tokiko biztanleriaren premiek baldintzatutako hiri-bilakaera da; hau da, turismo-jardueraren hazkunde selektiboagoa duena, lurralde-balioak gehiago errespetatzen dituena eta funtzionalki orekatuagoa dena.

Bertako biztanleriarentzat 874 etxebizitza berri egiteko premia zorrotza zegoela kalkulatu zen, eta Udalak ekimen publikoko eremuetan etxebizitza-kopuru hori egiteko eraikuntza-aprobetxamendua erreserbatu zuen. Bestalde, beste 1.300 etxebizitza merkatu librean salduko lirateke, eta horiek herritarrek edo herritik kanpo bizi direnek (bigarren etxebizitza moduan) erosi ahal izango lituzkete.

Horrela, 2.197 etxe gehiago eginez gero (1.500 bat lehen mailako bizitegitzat), 8 urtetan, kalifikatutako lurzoruren edukiera guztia 8.150 etxebizitzara iritsiko litzateke (horietatik 330 bat lurzoru urbanizaezinean). Beraz, 16.500 biztanleko populazio finkoa egongo litzateke, eta udaran 30.000 biztanlera iritsiko litzatekeela aurreikusi da.

Etxebizitza-parkean esku-hartzeko eta neurriak ezartzeko irizpideen artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- *Hiri-bilakaera* une horretako *hiri-eremura* eta horren inguru hurbilera *mugatzea (justifikatutako salbuespenik izan ezean).* Arau Subsidiarioen arabera, baldintza horiek arrazoitzen dute Udalbatzak etxe-lurren merkatuan irmoki jokatzea, urtean batez beste 70/80 etxebizitza baino gehiago ez eraikitzeko (600/700 etxebizitza 8 urtetan); horrela, ez lirateke lur erabilgarriaren erreserbak hain azkar agortuko, eta, era berean, ez lituzkete kanpotik etorritakoek okupatuko. Hain zuzen, Arau Subsidiarioetan, etxebizitza berriak egiteko gordetako azaleraren zati bana deskalifikatu egin da (Jaitzubian, Kostan, Arkollan, Akartegi gaineko Jaizkibelen mendi-mazeletan, Higerren eta Guadalupen), eta, horrez gain, etxebizitza bakanek landa-eremua bereizketarik egin gabe betetzea eragotzi da.
- *Hondarribiko biztanleei, epe motzera, ertainera eta luzera, prezio eskuragarriko etxebizitzak bermatzen dizkieten lurraren udal-politika aurrera eramatea,* biztanleria herritik kanpora joatea (80tik etengabe gertatu dena) geldiarazteko. Halaber, lurrak lortzeko eta sustatzeko mekanismoak ezartzea proposatu da (lurraren udal ondarea sortuz edo jabeek BOEak eraikitzeko hitzarmenak eginez), herritarrek etxebizitzak prezio eskuragarrian lortu ahal izan ditzaten eta beste udalerrietara joan beharrik izan ez dezaten.

Etxe-lurrak



Iturria: 2004ko udal-plana.

- Hiri-bilakaera 8.150 etxebizitzara mugatzea aurretiko politikatzat jo da; hain zuzen, honela adierazi da, hitzez hitz: "erabaki hori guztiz justifikatua da, garapen horri esker Hondarribiko biztanleriaren hazkunde begetatiboaren beharrak oso epe luzera beteta egongo baitira, eta ekologia- eta paisaia-balio handia duten eremuak urbanizazio-prozesutik babestuko baitira; izan ere, babestu ezean, aldaketa handiak izango lituzkete, udalerri mugakideetan eta, zehazki, Irunen bizitegi-erabilerako lur-erreserbak direla-eta. Horrez gain, hirigunearen gehiegizko hazkundea gelditu nahi da, gauza jakina baita bertako biztanleen bizi-kalitatean ondorio negatiboak eragingo dituela".

- Hasierako jarrera-hartze horren arabera, ez du zentzurik biztanleria-bilakaeraren hipotesi desberdinak egitea eta kanpo-eskaerari erantzutea; planteamendu hori, hain zuzen, proposatutakoaren jarrera politiko alternatiboa izango litzateke Memoriaren arabera.

Arauetan aurreikusitako *udal-ekimeneko esku-hartzeen arabera*, 838 etxebizitza egingo dira; 470 lehenengo lau urteetan eta 368 bigarren laurtekoan.

AURREIKUSITAKO EKIMEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK EDO ETXEBIZITZA MISTOAK (Arau Subsidiarioak)

EREMUA	AZALERA GORDINA (m^2)	DAGOEN ETXEBIZITZA-KOPURUA	AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA PUBLIKOAK	AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA PRIBATU BERRIAK	DENTSITATEA (ETXEB./Ha)*
SAURA ENEA	10.805	36	34	--	65,0
KOMENTOAURRE	19.139	17	109	--	60,1
LONJA	26.098	3	114	68	70,0
DAMARRI	16.458	60	78	--	80,0
ZEZEN PLAZA	26.529	--	135	--	51,0
PRESA	15.140	--	67	36	68,0
MULIATE	62.413	--	230	111	54,6
LAU HAIZETA	39.095	--	71	34	26,9

(*). Antolamendutik kanpo daudela pentsatzen direnak ez dira kontuan hartu

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak. Memoria, 1995eko abendua.

Gainera, Udalak 150 bat etxebizitza gehiago egiteko lurra (edo diru-baliokidea), sinatutako hitzarmenen bidez lortua, eta etxe berriak egiteko aprobetxamenduaren %15 izan zezakeela pentsatzen zen.

Eremu horretan egindako esku-hartzeetatik, honako hau ere nabarmendu behar da: Alde Zaharreko eta Madalen Auzoko birgaitze osoa, hain zuzen. Birgaitze horrek 950 etxebizitzari eragiten die, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan egin da.

1.3. koadroan, Arau Subsidiarioetan aurreikusitako esku-hartze pribatu garrantzitsuenak bildu dira, baina horiei udal-titulartasunaren %15 edo hitzarmenen bidez esleitutako aprobetxamendua kendu behar zaie.

Dokumentu hau egiteko unean (2005), 358 BOE eta 68 etxebizitza libre eginak zeuden honako leku hauetan:

- Komentoaurre
- Lonja

- Zezen-plaza

Saura Eneako eta Lau Haizeta eremuetan ez da aurrera egin. 2005eko uztailean jada idatzita zegoen Damarri eta Presa eremuetako oinarrizko proiektua eta exekuzio-proiektuaren erredakzioa, berriz, esleituta. 2005eko azarorako, bestalde, Muliateko Plan Partziala eskuan izatea espero da.

AURREIKUSITAKO ESKU HARTZE PRIBATU NAGUSIAK (Arau Subsidiarioak)

EREMUA	AZALERA GORDINA (m^2)	DAGOEN ETXEBIZITZA-KOPURUA	AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA PRIBATU BERRIAK	DENTSITATEA (ETXEB./Ha)*
JAIZKIBEL URB.	1.991.798	73	133	1,0
HIRUZUBI	11.675	82	27	84,8
AMUTE	37.155	122	42	58,6
ALDE ZAHARRA	115.505	765	154	78,4
ITURRIBERRI	2.245	6	38	169,3
KAIZARRA	2.712	4	24	103,3
ERREKABEA	23.854	--	54	23,0
LABREDER	36.271	--	119	32,8
BASAKO ARROKA	83.120	5	50	6,6
LURGORRI	55.843	134	20	27,4
	42.182	485	26	121,4

(*). Antolamendutik kanpo daudela pentsatzen direnak ez dira kontuan hartu

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak. Memoria, 1995eko abendua.

Eraikuntza-eremuak kendu ondoren gelditutako hiriko bizitegi-guneen batez besteko dentsitatea 49,7 etxebizitza/hektareako da; kopuru hori, hain zuzen, inguruko beste hirigune batzuetakoa baino askoz ere txikiagoa da.

Eremu horien garapenari dagokionez, hau da egungo egoera:

- Guztiz eginak: Iturriberri, Errekabea, Labreder, Arroka.
- Erdizka eginak: Jaizkibel urbanizazioa (50 etxe berri, gutxi gorabehera), Alde Zaharra (50 bat etxe berri).
- Egin gabe: Hiruzubi, Amute, Kai zaharra, Basako, Lurgorri.

Tipologia kontuan hartuta, antolamenduan sartutako eraikinak honela taldeka daitezke:

1. *Etxebizitza eremu zaharrak:* 1.219 etxebizitza dira; horietatik 160, gutxi gorabehera, etxebizitza berriak dira, eta gehienak Alde Zaharrean daude.
2. *Zabalgunea:* horma bitarteko eraikuntzei dagozkie. 1.100 etxebizitza dira (horietatik 100 berriak), eta, gehienak, Portu Auzoan daude.
3. *Eraikuntza Irekia:* 3.653 etxebizitza (etxebizitza guztien ia erdia); bertan dago etxebizitza berrien kopururik handiena (1.100 etxebizitza), eta, gehienak, herritarrei zuzenduriko udal-ekimenezkoak dira.
4. *Garapen txikia:* 1.508 etxebizitza; horietatik 599 etxebizitza berriak dira, eta gehienak Campiñan eta haren inguruan eraiki gabe zeuden lur-zati gutxi haiei dagozkie.
5. *Eraikuntza bakana:* 407 etxebizitza (265 berriak); Jaizkibel Urbanizazioa, Arkolla, Erribera, Domingotxonea, Gaztelu eta Basako eremu berriaren mugan. Etxebizitza horiek baliabide asko zituzten etorkinek betetzea aurreikusi zen arauetan, eta, kasu askotan, bigarren etxebizitzatzat erabiltzea.

Egun (2004/12/31ko datuak), 7.736 etxebizitzako *parkea* dago Hondarribian, eta horien %25,6 hutsik daude. Beraz, etxebizitza-parke osoaren batez besteko okupazioa 2,06 pertsonakoa da; kopuru horrek, ordea, gora egiten du etxebizitza hutsak kontuan hartzen ez badira.

Etxebizitza-parkea eta okupazioa, 2004/12/31

BIZI DIREN PERTSONAK	ETXEBIZITZA-KOPURUA
1	1.278
2	1.466
3	1.255
4	1.175
5	359
6	113
7	73
Kolektiboak	33
Etxebizitza hutsak	1.984
GUZTIRA	7.736

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Etxebizitza hutsei dagokienez, adierazi Udalak ez duela kudeaketarako plan berezirik. Lan horren kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak darama, Etxebide (www.etxebide.info) eta Visesa (www.visesa.com) zerbitzuen bitartez

2.2.5 Bizitegien garapenaren ikuspegia, Lurraldearen Zatikako Planaren Aurrerakinaren arabera

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean dauden aurreikuspenen arabera, Hondarribiko biztanleriak hazkunde txiki bat izango du; aldiz, eraiki beharreko etxebizitzei dagokienez, hazkunde hori are nabarmenagoa izango da, 90etik izan den goranzko joerari jarraiki. Hazkunde hori, zehazki, %13koa izango da, batez beste, XXI. Mende honetako lehen hamarkadan eta ia %11koa bigarren hamarkadan.

Hondarribian etxebizitzetan aurreikusitako hazkundea

1991-1996 aldiko etxebizitza-hazkundea	2002-2010 aldiko etxebizitza-hazkundea	2010-2018 aldiko etxebizitza-hazkundea
%9,63	%12,92	%10,84

Iturria: Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldeko Zati Planaren aurrerakina

Egoera horretan, etxebizitza bakoitzeko okupazio-tasak beherako joerari eusten dio, eta 2018. urtean 1,81era iritsiko da; hau da, hiriaren eta eraikuntzen hedapen-prozesuak aurrera jarraitzen du, biztanleriak bere horretan jarraitu arren.

Bilakaera eta etxebizitzen aurreikuspenak

URTEA	BIZTANLERIA	ETXEBIZITZAK	PERTSONAK/ETXEB.
1991	13.524	5.901	2,29
1996	14.453	6.469	2,23
2002	15.393	7.301	2,11
2004	15.955	7.736	2,06
2010	16.055	8.244	1,94
2018	16.585	9.138	1,81

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakina

Adierazle honetan, etxebizitza hutsak eta bigarren etxebizitzak ere sartu dira; horregatik da garrantzitsuagoa kopuruak bereiztea analisia egiteko. Hondarribiko kasuan faktore horrek garrantzi handia du; hori, hain zuzen, LPPren Aurrerakinean dauden datu homogeneoak kontuan hartuz egindako hurrengo koadroan hauteman daiteke. Etxebizitza nagusiak kontuan hartuta, okupazio-tasa aldatu egin da 1991tik 2018ra (3,41 eta 2,60, hurrenez hurren); hau da, murrizketa hori askoz ere adierazgarriagoa izan da, etxebizitza-parkea osotasunean hartuta baino.

9. koadroa
Bilakaera eta etxebizitza nagusien eta bigarren etxebizitzen edo hutsen aurreikuspenak

URTEA	BIZTANLERIA	ETXEBIZITZA NAGUSIAK	BIZT./ETXEB. NAGUSIKO	BIGARREN ETXEBIZITZAK ETA HUTSAK
1991	13.524	3.968	3,41	1.933
1996	14.453	4.516	3,20	1.953
2002	15.393	5.097	3,02	2.204
2010	16.055	5.755	2,79	2.489
2018	16.585	6.379	2,60	2.759

Iturria: Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldeko Zati Planaren aurrerakina

LPPren Aurrerakinean honela planteatu da Irun eta Hondarribiko bizitegi-hazkundearen edukiera osoa; hain zuzen, 6.200-8.000 etxebizitza berri egitea aurreikusi da. Hondarribiko etxebizitza-parkearen hazkundean 16 urteko (2002-2018) proiekzioa egin da; zehazki, 1.400-1.800 etxebizitza berri egitea aurreikusi da. Aurrez aipatu bezala, plan horren izapidetzea gelditua dago; horregatik, eduki horrek erreferentziatzat baino ez du balio.

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko LPPren funtzio-ereduaren sintesia Hondarribian



Iturria: geuk egina, Donostialdeko eta Bidasoa Behereko LPPtik hartutako informazioan oinarrituta

Etxebizitza-parkearen hazkunde horren ondorioz, beste lur batzuk landu behar dira. Zehazki, hiri-eremuari dagokionez, Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean udalerri-eremu zabal bat aipatu da, eta hori "hirigintza-garapenak egin daitezkeen eremutzat" hartu da. Bizitegi-erabilerarekin lotutako esku-hartzeei dagokienez, planimetrian bizitegiak egiteko hiru gune ikus daitezke, eta horiek udalerriko plano ofizialeko erreferentziak kontuan hartuta identifikatu dira.

- *Jaizkibel Urbanizazioaren ingurua.* Hiri-lurraren hedapena hiru gune nagusitan, eta, bertan, dentsitate txikiko bizitegiak eta hornidurak egitea proposatu da (<20 etxebizitza hektareako). Hiru gune horiek 60 Ha-ko hedapena izango dute, gutxi gora behera, eta Ameztiko errekan (Zaldunbordaren ekialdeko muinoa eta ibarra, Irunen jarraitzen duena), Idurmentietako erreka (Kaikuegi azpiko ibarra) eta Putzuaundiko erreka-Esteutz erreka.
- *Arkolla-Zimizarga*. Gutxi gorabehera, 150 Ha-ko eremu zabala da, Bekoerrotako errekaren, Jaizkibelgo errepidearen eta Santa Engraziren artean kokatua; egun, landa-etxeak daude bertan. Aldi berean, bertan dentsitate txikiko bizitegiak eta hornidurak egitea proposatu da.
- *Santa Engrazia-Etxakineko erreka.* 20 bat Ha-ko azaleraren gainean dago, eta, bertan, dentsitate ertaineko bizitegiak eta hornidurak garatzea proposatu da (20-60 etxebizitza, hektarea bakoitzean).

2.3 Berdeguneak

2.3.1 Berdeguneetako horniduren bilakaera

Hiri bateko berdeguneak aparkatzeko eta paseoan ibiltzeko eremu landatuak edo arbolaz betetako guneak dira; hiri-eremu berdetzat, berriz, hiri-lurretan edo lurzoru urbanizagarrietan dauden berdeguneak soilik hartzen dira. Hiri-azterketa bat eginez gero, hiri-eremu berdeak hauek izango lirateke:

- *Sistema orokorreko berdeguneak.* Hiri osoaren eskura dauden berdeguneak dira. Lurzoruaren Legean zehaztutako gutxieneko berdegune-kopurua betetzen dela jakiteko kontatzen dira.
- *Eremu libre eta berdegune egituratuak.* Hiriko auzoetako berdeguneei dagozkie, eta horiek ez dira kontatzen Lurzoruaren Legerako.
- *Tokiko berdeguneak*: batez ere, inguruan bizi diren biztanleek erabiltzen dituzte. Horietan, gainera, haurrentzako jokuak izaten dira, eta etxebizitzen inguruan kokatuta egon behar izaten dute.

Lurzoruaren Legean zehaztutakoaren arabera, sistema orokorreko berdeguneen erreserba-estandarra honako hau da: 5m^2/biztanle bakoitzeko. Tokiko sistemei dagokienez, aurreikuspenak hiriak dituen aukeren araberakoak dira, eta plan partzialetan zehazten dira. Dena dela ere, tokiko sistemetako gutxieneko estandarra honako hau da, egoteko guneetan eta haur-jokoak daudenetan: 1 m^2/biztanle bakoitzeko.

1972ko Plan Orokorrean Hondartza eta 28-A poligonoa (5.680 m^2-ko Javier Ugarte lorategiek osatua) soilik hartu ziren erabilera publikoko berdegune. Hau da, 11.000 etxebizitzako lekuan eta hondartza kontuan hartu gabe, 0,1 m^2 zegoen biztanle bakoitzeko, nahiz eta Lurzoruaren Legean biztanleko 5 m^2 zehaztu.

Plan horrek, halaber, berdeguneentzako zenbait kokapen zehaztu zituen poligono batzuetan; indarrean zeuden Arau Subsidiarioetako Memoriaren arabera, ordea, ez zuten hirigintzaren zantzu bakar bat ere, ez eta behar besteko hedadura ere. Estuarioaren ertzeko 24. poligonoan 15 metro zabaleko pasealeku bat egitea soilik jotzen zuten bideragarri samartzat.

Plan Partzialetan zehaztutako eremu libreei dagokienez, oso gutxi ziren horrelako azalerak egin zitezkeen guneak.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan alderdi horri buruz egindako diagnosian, plangintza-aurreikuspenen eskasia eta hornidura-mota horien egoera paradoxiko eta onargarria aipatzen da; izan ere, tokiko zenbait hornidurak zerbitzu handia ematen diote eskualdeari. Aurrekoari, hain zuzen, mesede egiten diote honako hauek: hiri-garapenetako eraikin-dentsitate txiki samarra, lorategi pribatuen ugaritasuna (bide publikoetatik ikus daitezkeenak), hondartzaren zabaltasuna, Sabino Arana etorbideko berdeguneen leku estrategikoa, San Pedro kalea eta estuario-ertzeko pasabideak. Halaber, Higer eta Jaizkibel eremuak ere kontuan hartu behar dira.

Arau Subsidiarioen dokumentuan agertzen denez, baliteke horiek idatzi zirenean (1995) defizit zehatz batzuk eta hobetu beharrekoak izatea, nahiz eta egoera mesedegarria zen.

Zehazki, eremu libre orokorrei dagokienez, plangintza egitean, arreta gehien honako hauetan jarri beharko litzakeela aipatu da: estuario-ertzeko eremuetako harrera-guneen edukiera hobetzen, eta Higer eta Jaizkibel eremuak hobeto prestatzen (hau da, eremu horietako harrera-guneen edukiera handitzea eta narriadura geldiaraztea).

Tokiko berdeguneak direla-eta, bestalde, Alde Zaharreko, Portuko, Campiñako, Amuteko eta Mendeluko horniduran defizit-egoerak daudela aipatu da. Horietatik guztietatik, azken bietan egoera okerragoa dela eta esku-hartzeko premia handiagoa dagoela gaineratu da.

2.3.2 Hondarribiko berdegune-kopurua eta horien tipologia

Sistema orokorreko berdeguneei dagokienez, indarrean dagoen plangintzan Higer eta San Telmo eremuak (165.860 m^2) aipatzen dira; hau da, Arauak betetzeko aurreikusitako hornidura estandarra 6,63 m^2/biztanleko izango litzateke.

Higer/San Telmo inguruan parke bat egitea aurreikusi da, eta, bertan, orain dagoen kanpin pribatuaz gain, baliteke udal-kanpin bat egitea, bai eta aisialdirako osagarri diren ostalaritza-zerbitzuak jartzea ere. Aparkalekua txukuntzea eta handitzea, atsedenlekuak eta pic-nic guneak jartzea (San Telmo eta ingurua) eta bainatzeko zonaldeetara joateko bideak (Asturiaga,

Amuitz) eta itsasorako sarbidea hobetzea proposatu da, bai eta baliabide artifizialen bidez babestutako bainurako zonaldeak egokitzea ere.

Arau Subsidiarioetan proposatutako eremu libreen sistema orokorra eta gaurdaino egindakoa

EREMUAK	Azalera (m^2)	2005eko gauzapen-maila
Higer	19.700	Ez da gauzatu
San Telmo	146.160	Ez da gauzat
Guztira	165.860	

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak eta Hondarribiko Udala

Eremu horien gaur egungo garapenari dagokionez, gaurdaino ez da ezer egin. Bere garaian, Plan Berezi bat agindu eta esleitu zen, baina ez da bete.

Hiri-eremu libreei dagokienez, berriz, helburua 20 m^2/biztanleko baino hornidura handiagoa jartzea da, eta, batez ere, garapen berriko eremuetako esku-hartzeak aipatzen dira. 1995ean, 184.435 m^2-ko azalera zuen, eta, horrez gain, aurreikusitako esku-hartze berriak edo handitzeak kontuan hartuta, beste 71.725 m^2 gehiago izango zituen.

Aurrez zeuden eta Arau subsidiarioetan aurreikusi ziren eremu libreen tokiko sistema

DAUDENAK	Azalera (m^2)	ARAU SUBSIDIARIOETAN AURREIKUSITAKO BERRIAK / HANDITZEAK	Azalera (m^2)	2005eko gauzapen-maila
Jaizkibel Urbanizazioa	88.800	Jaizkibel Urbanizazioa	12.730	Gauzatu da. Zuhaiztitzat mantendu da
Mendelu Gibeleta	7.200	Sauraenea	2.000	Ekaitz-putzua gauzatu da
Alameda	3.875	Komentuaurre	4.400	Gauzatu da
Damarri	1.487	Damarri	889	Ez da gauzatu
Alde Zaharra	30.517	Alde Zaharra	10.345	Gauzatu da
Puntalea	11.121	Presa	1.845	Ez da gauzatu
Bretxa Azpia	12.035	Muliate	6.138	Ez da gauzatu
Soroeta	5.920	Zezen-plaza	5.000	Gauzatu da
Madalen Auzoa	3.470	Lonja	8.191	Gauzatu da
Portua	6.670	Saindua	1.190	Gauzatu da
Sokoa	3.140	Labreder	5.000	Gauzatu da
Arroka	10.200	Soroeta	1.500	Gauzatu da
		Madalen Auzoa	3.930	Gauzatu da
		Portua	1.790	Gauzatu da
		Domingotxonea	4.887	Gauzatu da
		Lau Haizeta	1.890	Ez da gauzatu
GUZTIRA	**184.435**	**GUZTIRA**	**71.725**	

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak eta Hondarribiko Udala.

Hauek izan ziren aurreikusitako jarduketa garrantzitsuenak:

- *Sauraenea*: arkupedun hiri-plaza, Mendelu auzoko erdigune izango zena, eta Zubimusu ubidearen ertzeko pasealekua. Ez da horrelakorik egin,

baizik eta ekaitz-ura jasotzeko putzu bat jarri da, urak gainezka egiteko arriskua gutxitzeko.

- *Komentuaurre*: arkupedun hiri-plaza, Amute eta Kosta eremuetako jardueren erdigune adierazkorra osatuko zuena.
- *Alde Zaharra*: Harresiak eta gotorlekuak, harresitutako barrutiak eta Olazabal Etxeko lorategi-zati batzuk pasealeku eta eremu libre bihurtzea.
- *Muliate*: Parke lineala, Mendebaleko Bidearen ertzean.
- *Zezen-plaza*: Eremu libreak Harresilanda kalearen inguruan; gainera, Biteri Eskolarekin eta San Nikolaseko Errebellin kalearekin lotu beharreko eremuak bere baitan hartzen zituen.
- *Lonja*: Erribera pasealekua, oinezkoentzako ibilbidea eta arkupedun plaza bat.
- *Soroeta*: Zolatutako plaza, merkataritza-gunearen aurrean.
- *Labreder* eta *Domingotxonea*: Hilerria ez ikusteko parkea.
- *Madalen Auzoa* eta *Portua:* Santiago eta San Pedro kaleak oinezkoentzat jartzea.
- *Kai zaharra*: Bidasoako Pasealekua, Butroi Pasealekua eta plaza lotzea.

Egungo egoera koadroan adierazi da, eta, ikusten denez, ekintza gehienak gauzatu dira; guztira, 60.963 m^2. Bi kasutan (Damarrin eta Presan), oinarrizko proiektua egin zen, eta, orain, exekuzio-proiektua idazten ari dira.

2.4 Jarduera ekonomikoetarako lurrak

2.4.1 Industria-lurrak

2.4.1.1 Industria-lurren bilakaera, 1995. urtera arte

Aurrez aipatu bezala, Hondarribiko hiri-ereduak turismoan eta egoitza kualifikatuan espezializatzera eraman du. Eredu horren eraginez, 1972an, udalerrian ia ez zegoen industriarik, ontziola txiki bat eta artisautzako kontserba-industria batzuk baino ez zeuden.

1972ko Plan Orokorrean, beraz, industrian erabiltzeko azalera handia (35,2 Ha) kalifikatu zen, bost eremutan. Hala ere, ez ziren premia errealei egokitutako lurrak ezarri. Arau Subsidiarioetako Memorian zehazten denaren arabera, hauek ziren premia nagusi horiek: arrantza-sektoreari laguntzeko industria jartzeko lurra, eta behar bezala kokatutako lur-zati bat, hirigunean desegoki kokatutako tailerrak, biltegiak eta industria-zerbitzuak, pixkanaka, bertara aldatzeko.

Zehazki, kokaleku horietako hiru ez ziren aurrera atera, urruntasuna, marjinaltasuna eta eragiten zuten ingurumen-inpaktua zirela-eta. N-1eko eremuan industria-ezarpen bat jartzeari dagokionez, zentzua eskala handiko industria bat jartzeak soilik izango zuela pentsatu zen; horrek, ordea, ez zuen udalerriko industria-arazoa konpontzen. Beraz, bi kokaleku onartu ziren: Faroko haztegiak eta Eskapatxulo. Lehenengoak aurrez zegoena sendotu zuen; eta, bigarrenak, berriz, aprobetxamendu-mugak zituen, aireportu-pistatik hurbil egoteak sortzen zuen mendekotasuna zela-eta.

Aurreikuspen horien ondorengo bilakaera izan da Eskapatxulo poligonoan egin den gauzapen bakarra (Faroko haztegia itxi egin zen), bere kokapena dela-eta jasan ahal izan duen aldaketa bakarra, eta, bilakaera horretan, garrantzia handia izan du Irungo laneskuak. Aurrez ez zen plangintza partzialik egin, eta, beraz, gehiegi okupatu zela eta eraikuntza-kalitate baxuarekin, aparkaleku gutxirekin eta ibaitik oso hurbil egin zutela ondorioztatu da. 1995ean, 4,5 Ha-ko azalera zegoen industria-erabilerarako egokitua; zehazki, 3,5 Ha Eskapatxulon zeuden, eta gainerako azalera, berriz, sakabanatutako industria-guneen artean osatzen zuten (Eskabetxe, Arenas Sagarzazu eta beste batzuk). Bestalde, N-1en ondoan dagoen autoak desegiteko tokia ere kontuan hartu behar da; izan ere, horren egoera asko hobetu da, eta, gainera, legalizatu egin da.

2.4.1.2 Diagnosia eta indarrean dauden Arau Subsidiarioetako proposamenak

Egoera hori dela-eta, indarrean dagoen udaleko plangintza-dokumentuan zenbait erabaki hartu dira industria-lurren plangintzari dagokionez; laburbilduz, hau adierazi da:

- Industria-sektorea marjinala da Hondarribian; zehazki, industria txikiak eta industria-zerbitzu batzuk daude, eremu mugakideetan, eta, horiez gain, beste zenbait tailer ere aurki daitezke, arrantza-sektoreari eta hiriguneari zerbitzuak ematen dizkietenak.
- Gertaera hori, ordea, ez da kontrakotzat hartu behar, metropoli-eremuko lan-merkatuan; izan ere, horri esker, Hondarribiko ingurumena eta paisaia bere horretan mantendu da, eta hori, gainera, turismo-zerbitzuen euskarri da.
- Beharrezkotzat jo da lurrak prestatzea, bai hiriguneko artisau-tailerrentzat, bai lur horietan arrantza-sektoreari laguntzeko beste tailer eta industria txiki batzuk ezartzeko ere (zehazki, hirigunean inguruan kokatuko zirenak).
- Horrez gain, hemendik gutxira N-1en ondoan –Gaintxurizketan (Zaldunborda)– egin behar duten sendotzea salbu, Jaitzubiko lurraldean (ezarpen berriak egin daitezkeen gune bakarra) ohiko industriak ez garatzeko irizpideari eutsi behar zaio. Lurralde horrek "enpresa-parkea" egiteko baldintza ezin hobeak dituela adierazi da, bertako paisaia-kalitatea, garraio-azpiegiturekiko kokapen bikaina, eta zerbitzu eta aisialdi-guneekiko hurbiltasuna direla-eta.

Diagnostiko horri jarraiki, lurzoruaren 12,2 Ha industria-erabilerarako esleitu dira Arau Subsidiarioetan, eta horietatik 5,4 Ha garapen berrirako. Eremu horien artean, zenbait intentsitate handiko industria-gunetzat hartu dira (hau da, dimentsio ertaina eta txikia duten industriak, partzela atxikien gaineko uharteetan daudenak); zehazki, Eskapatxuloko eremuak (dagoeneko eraikitzea nahiko zail dagoen eremuak) eta Zaldunborda II eta Txiplao eremuak (biak garapen berrikoak).

Txiplao udal ekimeneko gunea da; eta bertara hiriguneari zerbitzuak ematen dizkieten tailer txikiak eta era horretako beste ekimen berriak (Irungo eskaintzaren mendean gehiegi daudenak) eramatea pentsatu da.

Industria-erabilerako guneak, Arau Subsidiarioen arabera

EREMUA	ERABILERA BEREZIA	AZALERA GORDINA (m^2)	PARTZELEN AZALERA m^2	SABAIEN AZALERA m^2
Zaldunborda II	Industria	30.235	12.095	18.141
Eskapatxulo	Industria	44.990	17.954	17.954
Txiplao	Industria	18.626	7.450	9.313
Zaldunborda I	Desegitea	14.000	700	1.400
Molla	Itsas/arrantz. Ind.	14.525	5.671	6.740
Itzaberri (eremu ez industriala)	--	--	--	2.641
INDUSTR. EREM. GUZTIRA		122.376	43.970	56.189

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak. 1995eko abendua.

Ibilgailuak desegitea (Zaldunborda I) eta Molla ibilbideko dartsenan egiten diren itsas-arrantzako industrien erabilerak sendotu egin dira, eta, ondorioz, eremu horretan eta Itzaberrin beste zenbait garapen egin ahal izan dira.

Orotara, industria-partzela okupagarriaren 43.970 m^2 garatzea aurreikusi da, eta horietatik 19.411 m^2 garapen berrikoak dira. Eraikin-aprobetxamendu osoak 56.181 m^2 ditu, eta horietatik 32.817 m^2 garapen berriko lurrak dira. Estandarra 120 m^2/enpleguko izanik, lur berriaren eskaintzan 270 lanpostu sartzea kalkulatu zen.

Garapen berriko eremu horietako egungo egoerak adierazten duenez, Zaldunborda II ez da garatu; Txiplao eremuan, aldiz, okupazioa erabatekoa izan da. Txiplaon garatzen dituzten jardueren zati bat tokikoak dira (ostalaritza, mekanika-tailerrak, beirategiak, itsaski-haztegiak), eta horietako gehienak, gainera, lekuz aldatutakoak dira; kasu horiek poligonoaren hasierako plangintzarekin bat datoz. Gainerako jarduerak (marmolgintza...), berriz, udalerritik kanpoko sustatzaileek ezarritakoak dira.

Planoan ezarpen horiek aurki daitezke, eta, horiez gain, hirugarren sektorerako lurrak ere zehaztu dira. Erreferentzia moduan, planoan Hondarribia nahiz Irungo mugak sartu dira.

Ezarpen berriei buruz udalak dituen aukerei dagokienez, Zaldunborda I handitzea (era askotako ekonomia-jarduerak gauzatzeko) eta Zubieta eremua txikitzea aurreikusi da; gainerako lurrak, berriz, etxeak egiteko erabiliko lirateke. Proposamen hauek aztertuko dituzten Arau Subsidiarioak berrikusten ari dira, une honetan.

Ekonomia-jarduerak gauzatzeko lurrak, Bidasoa eskualdean.



Iturria: 2004ko udal-plana.

2.4.2 Hirugarren sektoreko jardueretako eremuak

Merkataritzari dagokionez, Hondarribia Irun eta Donostiaren mende dago, eta, beraz, bigarren mailako gunea da; bertan, eguneroko erosketak egiteko hornidura egokia dago, eta, horrez gain, espezializatutako zenbait denda aurki daitezke.

Merkataritza-gune handiak eraikitzeak erakarpen-gune berriak eta saltokien arteko lehia ekarri ditu, eta, horrek, noski, eragin handia izan du tokiko saltokien mantenuan. Horri lotuta eta Hondarribian duen eragina dela-eta, Arason (Irun) dagoen Txingudi Merkataritza Parkea aipatu behar da, 1997an eraikia eta 250.000 m^2-ko azalera gordina duena. Bertan, hauek aurki

ditzakegu: hipermerkatu bat, azalera ertaineko 5 establezimendu espezializatu, neurri txikiko 65 establezimendu eta 11 zinema-areto.

Beraz, Hondarribiko merkataritza-egitura nahiko xumea da. Lekuari dagokionez, batez ere Portuan bildu da (San Pedro kalean eta inguruetan), leku hori ere ostalaritzaren eta hiri-jardueren gune nagusi baita; hau da, garai batean Alde Zaharrak betetzen zuen funtzioa betetzen du orain. Topografia-baldintzek, irisgarritasunak eta hondartza hurbil izateak eragin dute lekualdatze hori; era berean, Campiña, Hondartza eta Interlime eremuetan, besteak beste, saltoki gutxi edo batere ez izateak eragina izan du biltze horretan.

Bestalde, Alameda-Damarri eremuan merkataritza garatzen hasi dela ikus daiteke; zehazki, Eroski supermerkatuaren inguruan. Mendelu eta Amute eremuetan ere eguneroko saltoki txikiak daude, baina Irunen eragina agerikoa da.

Azken urteetan egin diren jarduketak Arau Subsidiarioetan jasotako proposamenetan oinarritu dira, eta horiek, neurri batean, garatu egin dira.

Hirugarren sektorean egin zen proposamen nagusia ekimen publikoz sustatutako Zubieta enpresa-parkea eraikitzea izan zen; bertan, hirugarren sektoreko hainbat establezimendu misto (bulegoak, enpresa-egoitzak, zerbitzu-enpresak, ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduren bat eta ekipamendu publikoak) eta industria arina eta teknologia-maila altukoa ezartzea proposatu zen. Hori guztia egiteko, 388.106 m^2-ko azalera eta 135.837 m^2-ko sabai eraikigarria aurreikusi zen.

Esku-hartze hori oraindik ez da gauzatu, eta, horretan, Sprilur sozietatearen eta Hondarribiko Udalaren parte-hartzeak eragina izan du. Bestalde, lurraren zatirik handiena Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela ere kontuan izan behar da. Sprilurrek bideragarritasun-azterketa bat egin du, baina, egindako kontsulten arabera, esku-hartze hori ez zegoen programatuta. 2005 amaieran, ordea, ekimena berriro aurrera eramateko asmoa azaldu du Sprilurrek; hain zuzen, eskualdeko estaldura eta Irun eta Hondarribiko udalen parte-hartzea aztertu denean. Poligono-dimentsioa, bestalde, aurreikusitakoa baino txikiagoa izango litzateke, Udala ekonomia-jardueren erabilera

murrizteko aukera aztertzen ari baita (zehazki, egun Zubieta finka dagoen eremura); hori, hain zuzen, aurrez ere aipatu da.

Eskualdeari dagokionez, berriz, ekonomia-jarduerak aurrera eramateko beste lur-eskaintza batzuk egin edo aurreikusi dira, baina beste joera batzuei jarraitu diete: Arretxe-Ugalde poligonoetan (190.640 m^2-ko azalera gordina eta 91.000m^2-ko sabai eraikigarria), Bentako koartel zaharrean (38.205 m^2 eta 21.677 m^2, hurrenez hurren) eta Araso iparraldean eta Sasikoetxean (93.888 m^2 eta 37.555 m^2); horiek guztiak Irunen daude. Lehenengo biak okupatuta daude dagoeneko, eta, hirugarrenerako, berriz, erabilera mistoak aztertu dira (trenbide-erabilerakoak eta industria-erabilerakoak.

Zubieta enpresa-parkeaz gain, Zaldunborda II eremuan esleitutako eraikin-aprobetxamenduaren (6.688 m^2) %40an merkataritza-jarduerak ezartzea proposatu da Hondarribiko Arau Subsidiarioetan; horietan, gainera, 2.000 m^2 dituzten 4. mailako azalera ertainak sartzen dira.

Azkenik, Arau Subsidiarioetan tokiko merkataritza-gune berriak egitea proposatu da, eta, guztira, 23.652 m^2-ko azalera bete ahal izango dute, gehienez ere; gune berri horiei, gainera, une horretan (1995) zeuden 44.451 m^2 gehitu behar zaie.

2.4.2.1 Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren Lurraldearen Arloko Plana.

2004ko abenduaren 21ean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak behin betiko, eta, horren arabera, Bidasoa Beherean desoreka izugarria dago industriako enplegu-kopuruaren eta jarduera horretan lan egiten duen pertsona-kopuruaren artean; zehazki, 1.500 lanpostuko defizita dago. Era berean, garraioko, komunikazioko eta merkantzia-banaketako zerbitzuak ematen dituzten poligonoetan eskaera ez dela asebetetzen adierazten du.

Bidasoa Behereko jarduketa-irizpide orokortzat garraio-zerbitzurako plataformak sortzeko politika bultzatzea proposatu zuen. Horrez gain, Zubietan jarduera berritzaileen beste enpresa-parke bat sortzea ere aipatu zen, Miramonen eta Zuatsun dauden eskaintzen osagarri izateko; azken horietan, hain zuzen, handitze-fasean daude, eta okupazio-maila handia da.

Lurzorua publikoki sortzeko lanen artean, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren Lurraldearen Arloko Planean honako hauek aipatu dira:

- *Enpresei zerbitzuak emateko eta Jarduera Aurreratuak garatzeko parke bat, Zubietan.* Zubietako finkan eta inguruan enpresa-parke bat egitea. 25/40 Ha.
- *Logistika intermodalen plataformak, Irunen.* Trenbideko eta errepideko trukeetarako instalazioen sorkuntza publikoa. Alternatiben kokalekua eta bideragarritasuna aztertzea. Trenbide-instalazio zaharkituak oso-osorik berrantolatzea.
- *Garraio-jardueretarako poligonoak eta Irungo merkantzia-banaketa.* Zaisa Garraio-gunea garatzea, handitze berriak eginez. 25/40 Ha.
- *Eskualde-mailako poligono berria Irunen.* Arretxe-Ugaldeko eta Arasoko alternatibak garatzea. 25/40 Ha.

Eskaera handia izan denez, zenbait ekimenen garapena eta estaldura azkartu egin da, eta, dagoeneko, garatuta daude: Arretxe-Ugaldeko poligonoa (20 Ha) eta Zaisa III (26,3 Ha).

2.5 Bideetako azpiegiturak

2.5.1 Indarrean dagoen plangintza egin uneko diagnosia

2.5.1.1 Hiriarteko bideen egoera

Era horretako bide bakarra N-1 errepidea da; errepide horrek, hain zuzen, eskualde-mailako antolamendua du Irun-Donostia hiri-korridorean, eta, aldi berean, A-8 autobidetik ibiltzen ez diren nazioarteko garraioek ere erabiltzen dute.

Arauak idatzi ziren unean (1995), ez zegoen edukiera-arazorik; egun, ordea, asko aldatu da kontu hori, eta bidea handitzea aurreikusi da (aurrerago azalduko da). Hain zuzen, Gebalarre baserrirako, ikastolarako eta ospitalerako sarbideetan unean uneko arazoak izaten dira. Era berean, arazoak izaten ziren Hondarribiko sarrerako errepidean; bereziki, lehentasunek eta seinaleztapenek eragindakoak. Azkenik, Mendeluko zeharbidea aipatu behar da, hor ere arazoak sortzen baitira.

2.5.1.2 Hiriguneko sarbideen egoera

Bi elementuk osatzen dute: Jaitzubiko errepidea (Donostiarako zirkulazioa) eta Mendelutik barna Irunera doan bidea (Irunerako, iparralderako eta Nafarroarako zirkulazioa).

Lehenengoan bidea eskasa zen (eta egun ere hala da) Mendelutik Jaitzubira joateko bide zaharraren elkargunean. Bigarrenean, berriz, errepide-edukiera ez da nahikoa bertatik pasatzen den zirkulaziorako, eta, horrez gain, ingurumen-inpaktu negatiboa eragiten du errepideak zeharkatzen duen hiri-eremuan. Arauetan, bi bideek Amute parean duten elkargunean sortzen diren arazoak aipatzen ziren.

Amuteko zubitik hasita, aireportura doan errepidean behar besteko edukiera zegoela pentsatzen zen, baina zirkulazioa Portu aldera bideratzen zuen, eta, ondorioz, auto-ilarak eta eragozpenak sortzen ziren hiri-eremuan. Egoera horrek, gainera, okerrera egin zuen hirigintza-aurreikuspenak garatu ez eta, ondorioz, bide alternatibo erosorik egin ez zelako. Bide alternatibo hori errepide zaharra da; zehazki, Amuten hasten da, eta Santa Engrazitik, Harresilandatik eta Guadalupeko errepidetik igaro ondoren, Baserritar etorbidean amaitzen da. Hasieran bihurgune asko zituen, eta

Harresilandarainoko errepiderik ere ez zegoen (gerora egin zuten); horrez gain, erlaitzerako errepidea zabaldu zuten (Donostia kalea); horrek guztiak, beraz, asko mugatzen zuen errepidearen eraginkortasuna.

2.5.1.3 Antolaketako eta sarbideko bide-sarea

Arau Subsidiarioen arabera, hirigune osoan barne-antolamenduko eta sarbideko lau maila bereizten dira, egitura desberdinak dituztenak; horiek, hain zuzen, hiriaren bi antolatzaile nagusietan oinarritzen dira:

- *Alde Historikoko barne-sarea.* Sare-formako trazatua du, eta kaleak estuak dira, oinezkoentzat eta animaliek tiratutako garraioentzat prestatuak. Arazo nagusitzat aparkaleku-falta aipatzen da, bai kaleak estuak direlako, bai, eraikuntza-tipologia dela-eta, garajeak eraikitzea zaila delako. Ondorioz, plazak ibilgailuz betetzen ziren.

- *Portu auzoko sarea.* Santiago eta San Pedro kaleen bi lerroko egiturak eta egitura horren paraleloan dagoen Zabalguneko sare ortogonalak osatzen dute. Azken eremu horretan, irisgarritasuna bikaina da; baina, bertako zirkulazioak eta oinezkoen mugimenduak, etxebizitzen eta hirugarren sektoreko establezimenduen dentsitate handiak eta garajeak egiteko zailtasunak eragin negatiboa dute bertan.

- *Puntaleko Zabalgunearen bide-sarea.* Sabino Arana etorbideak eta Bidasoa pasealekuak eta zeharkako elementuek osatzen dute. Behar besteko edukiera du, baina unean uneko arazoak izaten dira (Miramar eraikina).
- *Campiñako bide-sarea.* Bi banaketa-ardatz nagusi ditu hegoalderako eta iparralderako norabideetan (Guadalupeko errepidea-Baserritar etorbidea eta Donostia kalea), eta, horrez gain, karakterizazio formalik gabeko zeharkako sare bat dago. Une hartan garatu gabe zegoen elementu nagusia Donostia kalea zen, eta horrek barne-zirkulazioa oztopatzea eta Guadalupeko eta Portuko errepidea gehiegi kargatzea eragiten zuen.

Elementu horiez gain, Faroko eta Guadalupeko errepidea aipatzen dira. Bi errepide horiek turismo-funtzioa dute, eta, horrez gain, nekazaritza- eta aisialdi-eremuetarako sarbide dira; gainera, horietan ez da arazo berezirik izaten, aparkalekuak antolatzeko eta egokitzeko premia izan ezik.

2.5.2 Indarrean dagoen plangintzan, bide-komunikazioko sistemari buruz egindako proposamenak

2.5.2.1 Errepide-sarea

Arau Subsidiarioetan, aireportura doan lehengo oinarrizko bidea (N-1 eta N-638 errepideek osatua) sendotu da, eta, Euskadiko Errepideen Planari jarraiki, ez da bide-elementu berririk proposatu.

0.3. planoa. Hondarribiko errepide-sarea.



Iturria: 2004ko udal-plana.

Maila txikiagoko zenbait esku-hartze proposatu dira, diagnostikoan bildutako arazoak konpontzeko:

- *N-1 errepideko galtzada handitu eta lau errail egitea, Zubietako lotune erdiaren eta A-8 autobideko sarbidearen (Bentak parean) artean.* Lehen etapan (Arauen lehenengo lau urteetan), lotura erdiaren eta Bidasoako ospitaleko sarbidearen arteko zatia proposatu zen (maila bereko elkargune bat eginez). Bigarrenerako, berriz, ospitaleko sarbidearen elkargunean maila bikoitzeko konponbidea bilatzea eta autobidearen sarbidera arteko galtzada handitzea proposatu zen, baina ez da horretarako eperik zehaztu.
- *N-1 errepide-zatia zuzentzea, Mendeluko bide-zubiaren irteeran (Donostiarako norabidean).* Bihurgune arriskutsuak kentzea.

- *Amuteko biribilgunea eta aireporturako errepidea handitzea eta lau bide jartzea (N-638).* Planteamendua elkarguneetako ibilgailu-edukiera handitzea da, eta, horrela, Kosta kalean funtzio hori desagerraraztea. Hori egiteko beste arrazoietako bat Hondarribian (Plaiaunditik barna) beste bide-adar bat egitea da.

- *Hondarribiko errepide berria- Plaiaunditik barna.* "Bi gehi bi erraileko" zatia, Amuteko biribilgunearen eta Plaiaundi institutuak N-1 errepidearen iparraldeko saihesbidearen gainean duen lotunearen artean, eta, horrez gain, zubi bat egin nahi da Zubimusuko ubidearen gainean. Bide hori Letxunborro etorbidearen luzapenarekin osatzen da.
- *Mendebaleko bidea eraikitzea.* Arau Subsidiarioetan udalerriko bide-sistemari buruz egin den proposamen garrantzitsuena eta premiazkoena da, horrela Sabin Arana kalea, San Kristobal eta Portu auzoa ardatzeko joan-etorriak gutxituko lirateke-eta. Trazadura Aireportu bidearen iparraldean hasten da, ibarrean eta paduran izan ditzakeen ondorioak gutxitzeko, eta, gero, Santa Engraziatik barna pasatuz, Jaizkibel bidean amaitzen da, Cartonajes Eder pabiloi zaharraren gainean dagoen biribilgunean.
- *Bidasoa ospitaleko sarbide berria, N-1 errepidetik.* Arrisku egoera zela-eta, ahalik eta azkarren egin behar zela pentsatu zen. Lehenengo fasean, maila berean egitea pentsatzen zen, eta, gero, bigarren fasean, N-1 errepidea handitu eta lau errail egin nahi ziren, maila bikoitzeko biribilgune batekin.

2.5.2.2 Hiri-barneko bide-sarea.

Arauetan proposatutako bide-eskema berria aurreko atalean aipatutako esku-hartzeetan oinarritzen da, batez ere; aldiz, udal-titulartasuneko bide-sarean proposatzen direnek ez dute garrantzi handirik. Jarraian garrantzitsuenak aipatuko dira:

- Kosta kaleko sarbide berria, Aireportu bidetik
- Minasoroeta kaletik Mendebaleko bidean sartzeko elkargunea eta Harresilanda kalearen luzapena
- Harresilanda kalea eta Donostia kalea lotzea
- Arrokako biribilgunea
- Alde Zaharreko eta Portu auzoko zirkulazioa berrantolatzea eta mugatzea

2.5.3 Bide-azpiegituren exekuzioaren egungo egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak

2.5.3.1 Plangintzako aurreikuspenen estaldura eta exekuzioaren egungo egoera

Errepide-sareari dagokionez, Arauetan bildutako jarduketak kontuan hartuta, hau da egungo egoera:

- Mendebaleko bidea eta lotura-biribilguneak. Aireportu Bideko biribilgunea, bidea eta Santa Engraziko biribilgunea egin dira. Horrela, hondartza-ingururako sarbidea erraztu da, Sabino Arana kalearen eta Portu auzoaren bide alternatiboa erabiliz.

- Arauetan aurreikusitako bide horri jarraipena emateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamenduak "GI-3440 eta GI-3361 errepideen saihesbidea Hondarribian eraikitzeko proiektua egin zuen, 2000. urtean (2. fasean); hain zuzen, Cartonajes Eder pabiloiaren inguruan biribilgune bat eginez, aipatutako bidea osatzen lagunduko zuen. 2005eko ekainaren 16ko GAOn, proiektua jendaurrean jarri zen, bai eta jabetza kentzeko okupatu beharko ziren ondasun eta eskubideak ere. Lanak 2005. urtearen amaieran edo 2006. urtearen hasieran has daitezke.

- Amuteko biribilgunea eraikitzeari eta Aireportu bidean (N-638) lau errail egiteari dagokionez, oraingoz, Amuteko zubiaren handitze-lanak egin dira. 2004an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Bide Azpiegituren Departamenduak Amute eta aireportuko biribilgunearen arteko galtzada bikoizteko proiektua idazteko eskatu zuen.

- Hondarribira Plaiaunditik sartzeko errepide berrian ez da asko aurreratu, eta, gainera, aireportu-pista handitzeak eragina izan du bide horretan; beraz, horri dagokionez, bere eraginpean egongo da, behin betiko (printzipioz dagoneko itxita dagoela ematen du). Dirudienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak (Bide Azpiegituren Departamendua) gai hori lantzeari ekin dio, berriro ere.

- Bidasoa ospitaleko sarbide berriari dagokionez, ez da ezer egin N-1 errepidearekin maila bereko lotura egiteko, ez eta, gero, maila bikoitzeko biribilgunea egiteko ere; azken hori, hain zuzen, bat dator lau errail egitearekin.

N-1 errepideari dagokionez, eskualde osoa igarotzen duten bide guztietan aldaketak aurreikusi dira, bi proposamenetan: "N-1 errepidea Irundik pasatzen den lekua handitzeko aurreproiektua eta Iparraldeko lotunearen proiektua" eta Gainxurizketa eta Benten lotunea bitan banatzea.

Lehenengo jarduketa 476. eta 481. kilometro-puntuen artean egingo da (5.200 metroko luzera); bide-zati horretan, 6 biribilgune eta lotune bat daude. Egungo bidea bitan banatuko da (bi errail norabide bakoitzean), eta, horretarako, Iparraldea etorbidearen gainean bidezubi bat, Dunboako ubidearen gainean zubi bat eta oinezkoentzako azpiko lau pasabide eraikiko dira. Bestalde, Iparraldeko lotunearen berrantolaketa azpimarratu behar da, biribilgune baten eta saihesbidearekin lotzeko adarraren bidez. 36 miloi euroko gastua aurreikusi zen, eta horietatik 7 milioi berrantolaketa horri zegozkion. Jarduketa hori faseetan egitea aurreikusi da; 2003. urtean, lehenengo jarduketa egitea erabaki zen (Iparralde etorbidearekin lotzea), eta garapenarekin 2005eko bigarren hiruhilekoan hastea aurreikusi zuten. Zehazki, 9,6 milioi euroko kostua aurreikusi da. "*Iparralde etorbidearen lotunea CN-1 saihesbidean berrantolatzeko eraikuntza-proiektua*", 2002ko abuztuan idatzi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gaintxurizketa-Bentak bitan banatzeko bigarren faseari dagokionez, proiektua 2005ean ari dira idazten, eta lanen eskaintza urte honetan bertan egitea da helburua; zehazki, 20 milioi euroko kostua aurreikusi da.

Bide-zati hori Errenteriaren eta Irungo Benten artean aurreikusitako bidearen baitan sartzen da, eta, horretarako, "*Errenteria eta Irungo Benten arteko N-1 saihesbidearen informazio-azterketa*" egin zen, 2002ko ekainean. Alternatiba-azterketa horretan, Tunelik GABEKO Iparraldea deitua hautatu zuten.

Alternatiba hori egungo errepideen (N-1 eta GI-2638 errepideak) desberdina da Gaintxurizketaren aurreko bide-zatian, egun Lezoko landa-eremu direnak zeharkatzen baititu; Irunen kasuan, berriz, N-1eko errepide-zatia baliatzen du, baina lau errail egingo lirateke.

2.5.3.2 Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialeko bide-azpiegituren proposamenak

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakin-dokumentuan (izapidetze-prozesua geldirik dago une honetan; beraz, erreferentziatzat soilik hartu beharko da), eskualdeko lurraldea planifikatutako eta aurreikusitako azpiegituretan oinarrituta antolatzen da, eta bi eredu proposatzen dira: funtzionala eta alternatiboa. Bien arteko desberdintasuna, komunikazio-azpiegituren leku-banaketan oinarritzen da, neurri handi batean. Errepide-sareari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepideko Lurralde Plan Partziala hartzen da oinarri. Hauek dira Bidasoa Beherean eragin handiena duten bi ereduen proposamen nagusiak:

13. koadroa
Bidasoa Beherean eragiten duten Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren bide-azpiegituren proposamenak

EREDU FUNTZIONALA	• A-8 autobidea Larzabal-Arragua eta mugaren arteko ardatzat sendotzea, bai lurraldeaz gaindiko komunikazio-elementutzat, bai metropolia banatzeko elementutzat; hori, gainera, bidesari eta guzti. • Bidesaririk gabeko ardatz alternatibo moduan, Pasaiaren eta Irun-Behobiaren arteko N-I errepidea pixkanaka bitan banatzen joatea.
EREDU ALTERNATIBOA	• A-8 autobidean beste saihesbide bat egitea, autobidearen beraren hegoaldetik; bidesaria egongo da eta lotura-gune gutxi. • Egungo A-8 autobidearen bide-zatia Donostialdeko eta Bidasoa Behereko metropoliak zeharka banatzeko ardatz bihurtzea, bidesaririk gabe. Horrez gain, hiri-lotura berriak egingo dira (Usategieta, Irun-Arretxe, Irun-Olaberria) garapen berriko eremuetara edo gainerako bide-sarearen lotuneetara. • Irungo iparralderako eta Hondarribirako sarbideak egitea, N-I errepidea bitan banatuz (Bentakeko lotunetik hasita), eta Amuten (aireportuaren mendebaldean) beste bide-lotune bat ezartzea. • Sare desberdinen arteko elementuen artean loturak egitea; esaterako: Gaintxurizketa gaineko bideen eta A-8 autobidearen artean edo N-1 errepidearen eta A-8 autobidearen artean, Irundik pasata. • N-121-A errepidea egokitzea Bidasoatik Nafarroara joateko ardaztzat; horretarako, bidean hobekuntzak egingo dira, Nafarroako bide-zatiko ibilbide osoan aurreikusitako jarduketei jarraiki.

Iturria: Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partziala.

Hondarribiari dagokionez, ez da aldaketa handirik hauteman udal-plangintzan bildutakotik; esaterako, Irun eta Hondarribi iparralderako sarbidea, N-1 errepidea bitan banatuz; Amuteko bidea; eta N-121-A errepidearen prestaketa.

Bestalde, Gaintxurizketa inguruan (udalerri-mugan bertan) egiten diren jarduketen ugaritasuna dela-eta, Zaldunborda eremua indartu beharra proposatu da, bide-azpiegitura handietatik hurbil gelditzen baita.

2.6 Portuetako eta aireportuetako azpiegiturak

2.6.1 Arrantza-portua

Arrantzara bideratutako portu-horniduraren kokalekua aldatu egin da historian zehar. Tradizioz, ibaia izan da atrakaleku, eta gerora ere hala jarraitu du, lonja zaharretik hurbil baitago. Beranduago, Asturiaga portuaren eraikuntza-lanen aurrekariek 1730era garamatzate, baina lanak ez ziren hasi XX. Mendean ondo sartu arte. 50eko hamarkada-hasieran, babes-portuko lanak egin zituzten.

Denboraldi luze baten ondoren, zegoen jarduera eta flota ikusita, hainbat handitze-lan egin dira. Horrela, 90eko hamarkadan Hegoaldeko dikea egiten hasi ziren, eta dartsena bat eta zenbait instalazio egin zituzten, epe luzean flota babesteko behar besteko edukiera zutenak.

Hauek izan dira dartsena eta instalazio berri horietan egindako lan garrantzitsuenak:

- Lonja berri bat eraikitzea, Kai Zaharrekoa ordezkatuz (azken hori 2005ean eraitsi zuten).
- Dartsena hegoaldetik ixten duen dike bat eraikitzea, kaien edukiera handitzeko eta hondakinak hondartzara mugitzea geldiarazteko.
- Kaiak handitzea.
- Ontzitegi-gurdi berri bat eraikitzea.
- Flotari laguntzeko biltegiak eraikitzea ("xaiak")

Portu horretan sartzeko (kirol-portura eta hondartzara sartzeko bezala), Hondarribiko barne-bidea erabiltzen da; aurrez aipatu bezala, ordea, Portuan saturazio-arazoak daude, eta, beraz, horiek konpontzeko, bide alternatiboak hobetzeko lanetan ari dira.

2.6.2 Kirol-portua

Lurraldearen garrantzia dela-eta, hirugarren sektoreko erabileren artean, kirol-portua azpimarratu behar da, Plan Berezi baten baitan garatzen dena. Instalazio hori 2001ean inauguratu zuten, eta 15 hektareako azalera betetzen du. Hektarea horietan, aurrez, hondartzako hondarra zegoen, bai eta beranduago eremu horretan bertan botatako betegarriak ere. Eremu hori,

zehazki, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko eremuan sartzen da, oso-osorik.

Kirol-portuaren azaleraren banaketa

ERABILERA	AZALERA (m^2)
Portuko lehorreko azpiegiturak	21.089
Dartsena-uraren azalera	60.266
Bideak eta aparkalekuak	28.239
Bidegorria	3.003
Oinezkoentzako eremuak	25.981
GUZTIRA	150.144

Iturria: Garraio eta Herri Lan Saila. Eusko Jaurlaritza. "Hondarribiko kirol-portuko ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa", 1997.

Erabilitako hondartza-azaleraren zatia berreskuratzeko, dartsena hondeatzean ateratako hondarrak (300.000 m^3) bota zituzten, eta, horrela, hondartzaren itsasertzeko lerroa 75 metro gehiago luzatu zuten. Ondorioz, 130 metro zabaleko hondartza egin zen, aparkaleku- eta paseo-bazterraren eta itsagora-mailaren artean. Ontziak atrakatzeko 652 leku daude, eta beste 522 leku ibilgailuak aparkatzeko.

2.6.3. Aireportua

Lurraldearen ezaugarri nagusiak

Aireportua 1955ean inauguratu zuten, 1.200 metroko pistarekin; gerora, ordea, handitu egin zuten, zehazki, 1959-1961 artean. 34,3 Ha-ko azalera betetzen du, eta aurrez laborantzarako erabiltzen ziren lurretan dago (garai batean, padurak zirenak).

Aireportuan instalazio hauek daude:

- Hegaldi-eremua. Pistak 1.754 metroko luzera du, eta horiek 1.581 metroko oinarrizko luzera eta 45 metroko zabalera dute; horrez gain, zolatutako bazterrak daude (7,5 metrokoak). Pistara irteteko hiru kale daude, baina ez dago errodadurarako pistarik.
- Aireontziak aparkatzeko plataforma. 410 x 65 metro eta 26.500 m^2 ditu, eta, horrez gain, helikopteroak lurreratzeko pista.

- Aire-geltokiak. 1968an eraiki zuten, eta 90 x 30 metro eta bi pisu ditu. Koadroan, horien erabilerak aurkeztu dira.

15. koadroa. Aireportuko aire-geltokien banaketa

ERABILERA	AZALERA (m^2)
Itxarongela	1.100
Ontziratze-gela	190
Ekipajea jasotzeko gela	213
Merkataritza-eremua eta bulegoak	2.737

Iturria: Aena, 2003.

- Aparkalekua. Aparkalekuan 333 leku daude; horietatik 30 taxientzako dira, 48 ibilgailuak alokatzeko eta 255 erabilera orokorrerako; egun, gainera, doan da.
- Industria-eremua. Sei kirol-hegazkin sartzeko hangarra.
- Kontrol-dorrea.
- Sua itzaltzeko zerbitzua. HEZINEren 6. maila du; horregatik, 3 ibilgailu daude, eta bakoitzean hiru suhiltzaile egoten dira.
- Hornidura-eremua. Edateko uraren 30 m^3-ko biltegia dago. Horrez gain, 640 Kw-ko bi transformadore dituen zentral elektrikoa, eta bi sorgailu-talde daude (bakoitzak 225 Kw ditu). Ez dago erregaiak biltzeko ontzirik, ez eta suteetan ura hartzeko sarerik.

Aireportuaren eraginez, inguruan *eraikuntza-garapenerako zortasunak* daude. Aeronautika-zortasunean hiru maila daude:

- Eremu hori ebakitzen duen lekuan, gehienez ere 46 metroko kota dago, eta, beraz, ezin da kota horren gainetik eraiki, salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- Aireontzien hurbiltasunari eta aireratzeari dagozkionak; kasu horietan, aireportuaren inguru hurbileko eremuetan aireko zortasuna dago altuerari dagokionez.
- Kontrol-dorreak nahiz eremu igorleak eta baliza-irratiak zenbait muga jartzen dituzte, 300 metroko eremuan, eta, horien bitartez, eremu horretan dauden eraikinen gehienezko kota zehazten dute: 25, 60 eta 106 metro, hurrenez hurren.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, onartze-garaian (1997) zegoen instalazioa sendotzea proposatu da; horri esker, zerbitzua ematen duten eraikinetan handitze-lan txiki batzuk egin ahal izango dira, bai eta aparkaleku-ondoan gasolina-zerbitzu bat eraiki ere (aurrez dituen instalazioen osagarri).

2.6.3.1. Plan Zuzentzailea eta instalazioak handitzea

Donostiako aireportuko Plan Zuzentzailea Sustapen Ministerioak onartu zuen, 2001eko uztailaren 17ko Ordenari jarraiki (abuztuaren 7ko BOE). Plan horretan, aireportua egokitzeko berdingidak zehaztu dira, egungoak nahiz etorkizunekoak.

Lurraldearen ikuspegitik, Plan Zuzentzailearen proposamen azpimarragarriena pista handitzea da, 1.950 metroko luzera bete arte (N-1 errepideraino iritsiz); ondorioz, beharrezkoa da Mendelu auzoko biztanleria eta ekonomia-jarduerak lekuz aldatzea. Koadroan, bere edukiaren alderdi garrantzitsuenak nabarmendu dira.

Plan Zuzentzailean aurreikusitako jarduketen laburpena

AIREONTZIAK MUGITZEKO AZPISISTEMA	JARDUERAK
Hegaldi-pista	04 gune nagusia handitzea eta 22 ataria berriro kokatzea, 1.850 m-ra iritsi arte. Pista-ardatzean balizak jartzea. Bi atarietan, hurbiltze-argien sistema xumeak instalatzea
Sarbide-kaleak eta aireontziak aparkatzeko plataforma	2.7. m^2-ko handitzea. Sarbiderako kale berri bat eraikitzea.
AIREPORTUKO JARDUEREN AZPISISTEMA	**JARDUERAK**
Bidaiari-eremua	Aire-geltokiaren eraikina eta aparkalekua handitzea
Zamaketa-gunea	Bidaiariak aire-geltokiaren eraikinera eramatea.
Industria-eremua	--
Aireportuko zerbitzuen eremua	--
Energia-hornidurarako ermeua	Hidrokarburoen logistika-konpainia (CLH) beste leku batean kokatzea. Ur beltzak saneamendu publikoaren sistemara lotzea Araztegia jartzea
ERRESERBA-EREMUA	**JARDUERAK**
Aireportuan egiten diren erreserbak	Lurren jabetza kentzea, kalifikazio desberdinak eginez. Mendelu erreka desbideratzea.
ZERBITZUAN DAUDEN BESTE BATZUK	**JARDUERAK**
Proposatutako zerbitzu-eremu berriko jarduerak	Inguruko bidea eraikitzea. Inguruko hesia instalatzea.

Iturria: Donostiako aireportuko Plan zuzentzailea. AENA.

Instalazioak birmoldatzeari dagokionez, eta horri buruz Plan Zuzentzailean ezarri denari jarraiki, Espainiako Aireportuak eta Airezko Nabigazioa (AENA) erakundeak oinarrizko azpiegiturak birmoldatzeko proiektu teknikoak idatzi ditu; birmoldaketa horien bitartez, hain zuzen, aireportuko funtzionamendua hobetu eta Plan Zuzentzailean etorkizunerako aurreikusi den eskaera asebete nahi da. "Donostiako aireportua birmoldatzeko proiektuaren laburpen-memoria" dokumentuan (2003), Ingurumen-inpaktua ebaluatu aurreko fasean, zenbait jarduketa deskribatu ziren; horietatik, hain zuzen, honako hauek azpimarratu beharko lirateke, lurraldean duten eragina dela-eta:

- Aire-geltokia handitzea eta birmoldatzea. Egungo instalazioa handitzea
- Ibilgailu-aparkalekua handitzea. Egun 285 aparkaleku daude (ibilgailuak alokatzeko beste 48 lekuez gain), eta 496ra iritsi nahi da; horrela, 5.000 m^2-ko azalera okupatuko da, barrutiaren kanpoaldean.
- Aireontziak aparkatzeko plataforma handitzea. Egungo plataformak 12.000 m^2 ditu, eta horietatik 10.500 m^2 aireportu-barrutitik kanpo daude.
- Pista inguratzen duen azalera aldatzea. Belardiek okupatutako azalerak errotik aldatzea, eta zementu-legarraz, agregatu gorriz eta landare estaltzaileez tapatzea.
- Suaren aurkako plataforma. Praktikak egiteko errepide-ondoan dagoen plataforma.

Jarduketa horiek gauzatzeko, jabetza kentzeko prozedura jarri da abian, eta prozedura horrek etxebizitza-eraikin bati (oso-osorik desagertuko dena) eta nekazaritzan erabiltzeko hainbat partzelari eragin die.

Egun, Plan Zuzentzailearen gauzapen-prozesua etenda dago, Hondarribiko Udalak pista-luzatzeari buruzko alegazioak aurkeztu baitzituen; zehazki, pista luzatuko balitz, 224 etxebizitza eta 20 industria- edo merkataritza-lokal eraitsi beharko lirateke. Espainiako Gobernuak hartutako erabaki politikoaren arabera, pista ez da luzatuko, baina, hala ere, instalazioak hobetzen jarraitzea erabaki da. Une honetan, aire-geltokian zenbait lan egiten ari dira; baina, dirudienez, beste esku-hartzeak ez dira gauzatuko (aireontzi-aparkalekuak, ibilgailu-aparkalekuak). Bestalde, ibilgailuak aparkatzeko ordaintze-sistema erabiltzearen ondorioak aztertzen ari dira.

2.6.3.2. 2006. urtetik aurrera jazotako gertakarien eguneratzea

ABIAPUNTUA:
Aireportuaren Plan Zuzentzaileak 2001. urtean pista 600 metrora arte luzatzea jasotzen zuen. Egitasmo honek sortutako gorabeherek, aipatu plana berrikustera eta beste aukera batzuk aztertzera eraman zuen.

2006KO MARTXOA:
Donostia-San Sebastián Plan Estrategikoaren Batzorde Betearazleak Donostia-Hondarribiko Aireportuaren instalakuntzak hobetzeko akordio bat adosten du. Batzordearen arabera, aireportua lehen mailako helburu estrategikoa da. Horretarako honako arrazoiak aipatzen dituzte:

- Arrazoi ekonomikoak
- Turismo arloaren sustapena

Honek, instalakuntzaren hobekuntza eta sendotzea ekarriko luke, betiere Txingudiko badiaren ingurumena babestuz, eta aireportuak inguruan kokaturiko etxeetan eta Irunen aurreikusitako hiritartze proiektuetan duen eragina aztertuz.

Batzorde honetan aireportuaren inguruko puntuak adostu ziren:

- Etorkizunean Hondarribiko aireportua sendotzeko bideragarritasun-azterketa egitearen ardura izango duen lan-mahai baten eraketa.

- Sustapen Ministerioak 2001eko uztailaren 17ko Aginduan Donostiako Aireportuaren Plan Zuzentzailearen Berrikuspen Proposamenean aipatzen den 2-b alternatibaren bideragarritasuna zehaztera bideratutako gestioak eta ekimenak garatzea:

    - Pistaren egungo luzera mantendu eta bere ertzetan segurtasun eremuen ezartzea (RESA).
    - Aireratze eta lur-hartzeko laguntza elektronikoa sustatzea
    - Aireportu-instalazioen handitze eta berritzea
    - Aireportura iristen den garraio publikoaren irisgarritasuna hobetzea

- Lan-Mahaia osatzen duten eragileei akordioaren berri ematea

- Gipuzkoako Foru Aldundiari proiektuaren azterketa eta garapena ikuskatzeko sor litekeen Elkartean Donostiako Udalaren parte-hartzea eskatzea.

2006ko UZTAILA:

Uztailaren 13ko FOM/2017/2006 Aginduaren bidez Donostiako Aireportuaren Plan Zuzentzailea onartzea. Laburki esanda, Plan Zuzentzaileak honakoa jasotzen zuen:

- Prozedura berrien bidez hegaldien maiztasuna areagotu egingo da aurreikusitako eskaerari egokitzeko. Gainera, azpiegiturak OACI araudiari egokitzeko jarduerak ezartzen dira. Pistaren luzera nahikoa da aurreikusitako eskaerari zerbitzu emateko, hortaz ez da egokitzapenerako ekintzarik aurreikusten.
- Zenbait eremutan Terminala handitu, aparkalekua estali edo energia horniduran hobekuntzak egiteko beharra ikusten da.
- Aireportua handitzeko garaian azpiegituren eta jardueren planifikazio egokia egitea beharrezkoa da, Espainiako trafiko eta garraio beharrei eta aireportu-erabiltzaileen eta inguruan bizi direnen eskaerei erantzun ahal izateko. Honenbestez, ezinbestekoa da 1998ko Donostiako aireportuaren Plan Zuzentzailea berrikustea beharrezko egokitzapenak egiteko eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailako abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166 artikuluan jasotzen den erabilpen gune berrien mugaketarako. Lege honen arabera, Sustapen Ministerioak, interes orokorreko aireportuen kasuan (Hondarribikoa esaterako), aireportuaren jardueretarako eta lan osagarrietarako erabilpen eremu bat mugatu behar du, garatu eta hazteko erreserba eremuak izendatzeaz gain. Era berean, aire-trafikoarekin erlazio zuzena izateagatik edo erabiltzaileei zerbitzu emango dielako industria eta komertzio erabilerak antolatuko dituen plan zuzentzailea onartu beharko du.
- Agindu honetan onartutako Plan Zuzentzailea aireportuaren zerbitzu-eremua mugatzen du, eta 2020 urte bitartera arte handitu eta garatu ahal izateko eremuak jasotzen ditu. Azkenik aipatu, Planak ingurumenaren gaineko eraginaren murriztea eta inguruko hirigintza-garapenarekin bateragarri izatea duela helburu.

Plan Zuzentzaile berri honek 2020 urtera arteko trafiko-hazkuntza jasan ahal izateko jarduerak proposatzen ditu.

Honakoak dira ekintza aipagarrienak:

1. Pista OACI araudiari egokitzea
2. Plataformaren zirkulazioaren berrantolaketa
3. Terminaleko eraikina handitu eta eremuen berrantolaketa
4. Terminalean ekipajea jasotzeko gune berria ezartzea
5. Taxi zerbitzua handitzea
6. Aireportuaren gainerako azpiegiturak aurreikusitako garapenerako egokitzea

Era berean, Planean ondorengo xedapenak jasotzen dira:

Lehena:
Aireportuaren aurreikusitako hedapen handiena baimentzen duen antolamendurako eta garapenerako gidalerroak definitzen dira, eta aireportuaren zerbitzu-eremua mugatzen da.

Bigarrena:
Aireportuaren zerbitzu-eremuak 37,381 hektarea ditu: 29,640 hektarea hegazkinen mugimendurako azpisistemari dagozkio, 4,310 aireportuaren jardueretako azpisistemari dagozkio eta 3,431 aireportuaren erreserba eremuari. Banaketa hau Planaren Eranskinean jasotzen den 44. planoan ikus daiteke. Aldi berean, 12,593 hektarea baztertzen dira hautatutako aukerarako beharrezkoak ez direlako (Planaren 4.3. planoa)

Aireportuari dagozkion azalera eta antolamenduaz ari gara hizketan, eta ez hirigintza-planeamenduaz. Honenbestez, eskuduntza duen aire-agintaritzak aldaketak egin ditzake bere nahiaren arabera.

Hirugarrena:
Zerbitzu-eremua 4.1 planoan azaltzen den banaketa homogeneoa du:

1. Hegazkinen mugimendurako azpisistema

    1.1 Aire eremua
    1.2 Sorospen instalakuntzak

2. Aireportuko jardueretarako azpisistema

    2.1 Bidaiarien gunea: bidaiarien garraioarekin erlazionatutako azpiegitura eta zerbitzuak
    2.2 Zama-gunea: merkantzien aire garraioa
    2.3 Hegazkinaren laguntzarako gunea: hegazkinen harrera eta konponketarako

2.4 Zerbitzu-eremua: aireportuaren arreta eta kudeaketa teknikoa. Bertan aurkitzen dira teknikariak, kontrolerako dorrea, SEI eta instalazio irrati-elektrikoak.

2.5 Energia-hornidura gunea

3. Aireportuaren erreserba gunea: Instalazio berriak garatzeko eremua eta edozein gune handitzeko eremua.

Laugarrena:

Aireportuen inguruko lurrak eta instalazioak, eta bidaietarako laguntzak ezarrita dauden zorrei edo uztailaren 21eko 48/1960 Legearen eta otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuak adierazitakoaren menpe daude. Plan Zuzentzailearen 5.1, 5.2, 5.3 planoetan aireportuaren zor aeronautikoak daude, bai 792/1976 Errege Dekretuak ezarritakoak bai aurreikusitako garapenera arte proposaturikoak. Era berean, 6.1, 6.2, 6.3 eta 6.4 planoetan inguratzaile akustikoak islatzen dira.

Bostgarrena:

Hegazkin militarrek erabili ahal izateko gune bat ezartzen da, eta baita bere laguntza zerbitzuak, zeina lur-eremuan hasierako, erdibideko eta amaierako hurbiltze faseak, aireportuaren mugimendu-eremua, hegazkinen kokapenerako urruneko plataformak eta eraikinik gabeko eremuak, plataforma inguruak osatzen duten. Defentsa Ministerioak adierazitako beharrei erantzunez egingo dira plataforman eta lur-eremuan hegazkinak uzteko zehaztapenak. Era berean, agintaritza publiko ez aeronautikoek beren jarduerak eta zerbitzuak aireportuko lur-eremuan aurrera eraman ditzaten behar diren espazioak egokituko dira.

Seigarrena:

Aireportuaren Plan Zuzentzailean jasotako inbertsio-programa aurreikusitako trafiko hazkuntza eman ahala betetzen joanen da.

Zazpigarrena:

Donostiako aireportuaren Plan Zuzentzaileari onarpena ematen dion Sustapen Ministerioaren 2001eko uztailaren 17ko Agindua indargabetzea.

2007KO URTARRILA

Urtarrilaren 22an Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia-San Sebastián, Irun eta Hondarribiko Udalek eta Gipuzkoako Bazkundeak Ortzibia, S.L. elkartea osatzen dute, aireportuaren hobekuntza eta modernizaziorako ekintzak aurrera eraman eta aireportua sustatzeko asmoarekin. Elkartea osatu ondoren, Administrazio Kontseilua osatzen duten

11 ordezkari izendatu zituzten: Eusko Jaurlaritzak aukeratutako hiru kide, Diputazioak aukeratutako hiru kide, beste bi kide Gipuzkoako Bazkundeak aukeratuta eta beste hiru udal bakoitzak aukeratuta. Aireportuaren eta hegazkin-konpainien egoera, hegaldien maiztasuna, bidaiari kopurua, etab. Azaltzeko txosten labur bat aurkeztu ondoren, "*hurrengo urtetan Europa mailako distantzia ertaineko eskualdeko hegaldiei esker aireportuaren garrantzia handitu egingo dela*" adierazi zuten, eta horrenbestez, aireportua sustatzearen beharra aldarrikatu zuten.

- 2006. urte hasieran aireportua eta Donostiako autobus geltokia lotzen dituen autobus zerbitzua hasi bazen ere, aireportua eta hirigune nagusiak garraio publikoaren bidezko lotura ez dago oso garatua.

2007ko UZTAILA

Plan zuzentzaile berriak egungo aireratze pista aldaketarik gabe mantentzen du, alegia, 1.754 metrotako luzerarekin. Horietatik 300 metro erreserbatuta daude, nazioarteko hegazkintza zibilaren araudiak agintzen duen bezala (OACI), albo bakoitzean segurtasun tartea ezartzeko –bakoitza 150 metrotako luzerarekin-.

Azkenean Aenak segurtasun tarte hauen ezarpen-lanen tramitazioa abiarazi zuen: Europak agindutako 150 metrotako bi segurtasun tarte eraikitzeko lan eskaintza argitaratu zuten.

Aireportuaren handitze lanetara itzuliz, 2007ko azaroan Hondarribiko Udal Plenoak, aho batez, aireportuaren handitze lanen aurkako jarrera azaldu zuen Udaletxeko Kapitulu-Gelan izandako Pleno monografiko batean.

2008KO URTARRILA

Bien bitartean, aireportuaren Plan Zuzentzaile berriak eragingo zituen ondorioak konpontzeko neurriak eztabaidatzen hasi ziren. Plan estrategikoak hegazkintza pribatua eta betearazlea sustatzea proposatzen du galera komertziala ekiditeko. Honetarako Hondarribiko aireportuari Biarritzekoarekin ibilbide komunak egiteko proposamena luzatzen zion. Ortzibia elkarteak eskatutako aireportu gipuzkoarrarentzako plan estrategikoak adierazten duenez, Hondarribiko aireratze pistaren luzeera murriztu ondoren "komenigarria" litzateke aireportu lapurtarrarekin elkarlanean aritzea "hegaldien sustapen eta garapena" Terminal horretatik "era bateratuan" egiteko. Biarritzeko hegaldi-kopurua handitu egin liteke Biarritz-Girona arteko hegaldietarako Ryanair bidai enpresa erakarriko balute. Irlandako bidai

agentzia hau "epe ertainera begira interesgarriena dirudi" akitaniar hiria Madrilekin lotzeko hegaldi-linea ere abian jartzeko. Egitasmo hau aurrera eramateko, Biarritzeko kudeatzaileekin batera marketing kanpaina bat adostu beharko litzateke. Hau oinarritzat hartuz, plan estrategikoak hegaldi pribatuak eta betearazleak "modalitate ezberdinetan" garatzearen garrantziaz hitz egiten du.

2.7. Eskualdeko trenbide-azpiegiturak eta azpiegitura intermodalak

2.7.1. Aurreikusitako jarduketak eta Jaizkibelgo korridore intermodala

Eskualdearen bilakaeran eta iraunkortasunean duten garrantzia dela-eta, aurreikusitako jarduketak aztertu egin dira; horietako gehienen lurralde-ikuspegia, ordea, gehiago da eskualde-mailakoa udalerri-mailakoa (Hondarribikoa) baino.

Jarduketak abiadura handiari eta zirkulazio intermodalari lotutako azpiegitura handien eraikuntzan oinarritu dira. Zehazki, hauek dira proposamen nagusiak:

- EAEko Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planean aurreikusitako trazatuak
- Geltoki intermodalak (Euskomodal (egun RENFEk dagoen eremuetan) eta Araso Irunen, eta Larramon Lezon)
- Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialeko trenbide-azpiegituren proposamenak
- Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako Lurraldearen Arloko Plana.

Proposamen horiek, orain, Jaizkibelgo garraio-korridorearekin edo korridore intermodalarekin lotuko dira; eremu horretarako, hain zuzen, zenbait jarduketa proposatu dira Irun-Pasaia korridorean, eta horiek intermodalitatean eragingo dute. Besteak beste, Pasaiako portua (kanpoaldea handitzeko aurreproiektua duena), Irungo geltoki intermodalak (orain, Irungoak eta Lezokoak) eta plataforma logistikoak. Gai horiek lantzeko, Jaizkibel Korridoreko eta Pasaialdeko Erakunde-arteko Batzordean parte hartzeko aukera zabaldu egin da, eta Irungo eta Hondarribiko udalei horretarako aukera eman diete.

Bidasoa Behereko ordezkariek 2005eko maiatzaren 25ean egindako bileran hartu zuten parte, eta, horiez gain, Sustapen Ministerioko ordezkariak ere azaldu ziren. Bilera hartan, Jarduketa Plan Integrala egitea erabaki zuten, eta, aldi berean, hiru ikerketa egiteko eskaeraren berri eman zen; zehazki, Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoari, Granadako Unibertsitateari eta EHUko Arkitektura Eskolari eskatu zitzaien ikerketak egiteko. Egindako eta aurreikusitako jarduketak biltzen dituen Aurrerakina egina dagoenez, 2006ko lehenengo seihilekorako Plana izatea aurreikusi da. Halaber, plana kudeatzeaz

arduratuko den sozietate bat sortzea adostu da (Jaizkibia, SA), eta bertan parte hartuko dute; era berean, kapital guztiaren zati bat onartzea adostu zen: 4 milioi euro, hain zuzen.

17. koadroa. Jarduketa Plan Integralaren Aurrerakina.

HIRIGINTZAKO LURRAK LEHENERA EKARTZEA - La Herrera - Auditz-Akular (etxebizitzak) - Pasai Donibaneko sarbideak - Arragua (etxebizitzak) - Ondartxo (haztegia eta ontziola)
EKONOMIA JARDUETARAKO LURRAK - Araso (Irun)
AZPIEGITURAK **Bideak:** - Industria-poligonoak bidez lotzea, Donostiako 2. ingurabidea, N-1 errepidea bitan banatzea (Lezon), Jaizkibelgo kanpoko dartsenara sarbideak, Herrera – A-8 autobidearen lotunea, Hondarribiko bideak, Amute – Aireportua bidea bitan banatzea, Oiartzungo biribilgunea, Beraungo zubia, eta Pasai Antxorako sarbidea **Trenbideak:** - Euskotren bitan banatzea, Arasoko plataforma intermodala, kanpoko dartsenara sarbideak, Trenbide Sare berria, UIC nazioarteko bidea porturaino luzatzea, eta Irungo geltoki intermodala **Portuak:** - Kanpoko portua, industria-poligonoa Bordalabordan, eta arrantza-lonjak **Askotarikoak:** - Aireportua (pista luzatzea), Herrerako kultura-ekipamendua, oinezkoentzako pasabidea (Kaputxinos), pabiloilak D. Bosco auzoan.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

Bestalde, Hondarribiko Udalak 100.000 € (kapitalaren %2,5) ematea erabaki zuen, osoko bilkuran. Udal horren ordezkarien arabera, beharrezkotzat jo da Plan honetan proposamen hauek sartzea:

- *N-1 errepidea bitan banatzea, Hondarribiko udalerri-parean.* Bertan, maila baikoitzeko biribilgune bat aurreikusi da, eskualdeko ospitalera sartzeko bidearen elkargunean. Oraingoz, aurreproiektua da, eta horren finantzaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku egongo litzateke.

- *Euskotren – aireportua – hiri-erdialdea – hondartza lotzeko trenbidea.* Horren aurreproiektu bat egiten ari dira. Horren finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren esku dago.
- *Zaldunborda industria-eremua.* Zokueta ubidearen haranean eta horren inguruan. Aztertzen ari dira.
- *Zubieta enpresa-parkea.* Plangintzan instalazio horretarako aurreikusitako eremuaren zatia betetzen du (%50, gutxi gorabehera), eta, eremu horren erdian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finka bat dago.
- *Golf-zelai publikoa Jaizkibelen (Justiz).* Aurreproietu-fasean dago. Proiektu hori Euskadiko Golf Federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hondarribiko Udalak (lur-sailen jabea) finantzatzea nahi da.

Jarraian, maila orokorreko proposamen zehatz bakoitzaren ezaugarriak garatuko dira: Diagnostiko hau egiteko, ezin izan da informazio guztia eskura izan, zenbait proposamenen hasierako heltze-egoera dela-eta; horregatik, ez da izan lurralde-antolamendua eta tokiko iraunkortasuna (lur-erabilera, mugikortasuneko eraginak, ingurumen-kalitatea...) lantzeko datu garrantzitsurik, ez eta azpiegitura horien funtzionaltasunari buruzko informaziorik ere. Tokiko iraunkortasunerako hain garrantzitsuak diren alderdiei buruzko informazio-falta, beraz, Tokiko Agenda 21 honen ondoren egingo diren dokumentuetan osatu beharko da.

2.7.2. Jarduketen deskripzioa, eskura dugun informazioaren arabera

2.7.2.1. Lurraldearen Arloko Planean aurreikusitako trazadurak

EAEko Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planean, Irun-parean honako trenbide-egitura hau eraikitzea aurreikusi zen, epe luzera:

- Astigarraga-Bentak, nazioarteko zabalerakoa (UIC); trazadura berria aurreikusi zen, eta merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko erabili nahi zen.
- Bentak-Akize, UIC zabalerakoa; A-8 autobidearen hegoaldetik pasatzen zen trazadura berria aurreikusi zen, eta, bertan, bidaiariak garraiatuko ziren.
- Bentak-Irun, UIC zabalerakoa; neurri batean egungo trazadurari eutsiko zion, eta bertan merkantziak soilik garraiatuko ziren.

- Pasaia-Bentak, UIC zabalerakoa; egungo trazadurari eutsiko zion, eta bertan merkantziak soilik garraiatuko ziren.
- Donostia-Irun, RENFE zabalerakoa; egungo trazadurari eutsiko zion, eta, bertan, merkantziak eta bidaiariak garraiatuko ziren.
- Donostia-Hendaia, zabalera metrikokoa; egungo trazadurari eutsiko zion, eta bidaiariak soilik garraiatuko zituen.
- Hondarribia-Irun, metro arina.

Lehenengo lau zatiek *abiadura handiko euskal Y* deituaren zati dira edo horrekin lotuta daude. Azpiegitura hori modu bateratuan iritsiko da Bentetara (abiapuntua Gasteizen izango du), eta, bertan, merkantziak nahiz bidaiariak garraiatuko dira. Bentetatik trenbideak aurrera jarraituko du (A-8 autobidearen hegoaldetik), eta Biriatu inguruan Bidasoa ibaia gurutzatuko du; adar horretan bidaiariak soilik garraiatuko dira: Aldiz, beste adarra Irun aldera abiatuko da, eta, han, merkantziak nazioan garraiatzeko korridore nagusiarekin lotuko da; gainera, trenbideak nazioarteko zabalera izango du.

Era berean, Europako zabalera duen trenbide-zati bat ezarriko da Pasaia eta Bentak artean, horrela Pasaiako portuarekin lotura egingo baita.

Proposamen horien aurrerapen-mailari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak trenbide-zati bateko lanak egiteko eskaintza egin du 2005ean; zehazki, Bentetatik (Araso) hasi eta RENFE eta Euskotrenen egungo trenbideekin lotura egiten duen gunera iritsi arteko trenbide-zatikoak (Wagon Lits eremuan). Eskaini den ibilbidean aldaketa batzuk egin dira, hasiera batean aurreikusitako ibilbidearekiko. Arazo horiek direla-eta, egoera honek aldaketak izan ditzakeela pentsatu da; zehazki, 2005eko maiatzaren 25ean, Pasaialdeko Erakunde-arteko Batzordearen bileran (aurrez aipatua) egindako proposamen berriaren ondorioz. Izan ere, proposamen horren arabera, geltoki intermodala Lezon (Larramon, Gaintxurizketan) kokatuko litzateke, eta Irungo Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako trenbidearen trazadurari eutsiko litzaioke.

Aurreikusitako beste lanen artean, RENFEren eta Euskotrenen egungo linea hurbilak sartu dira, horien maiztasuna handitu egingo baita.

Azkenik, Lurraldearen Arloko Planean zeharkako metro arin bat ezartzea aurreikusi da; horri esker, Txingudiko Badia konektatuta egongo da Hondarribitik Irunera arte, eta, gainera, egungo garraio-sistema osatuko da. Metro hori Hondarribitik igaroko litzake, Santa Engrazia paretik; hasiera batean, N-638 errepidetik egingo luke aurrera, aireportuaren ondotik, eta, gero, GI-3110 errepidetik; horrela, Irungo udalerri-mugara iritsiko litzake, eta, han, Zubimusu ubidea gurutzatuko luke. Bide beretik jarraituz, Irungo erdigunera joango litzake, eta, han, aurrez dagoen trenbide-egitura zeharkatuko luke; ondoren, Kolon Pasealekutik Oxinbiribil eremu mistoraino jarraituko luke, trenbidea amaitzen den lekuraino. Trazadura horri esker, aireportuarekin eta RENFE eta Euskotren lineekin lotura intermodalak egin daitezke.

Proposamen horiei dagokienez, 2005eko apirilean "Irun eta Hondarribiko aireportua tren bidez lotzeko alternatibaren azterketa" proiektua eskatu du Hondarribiko Udalak. Azterketa hori Hondarribiko Udalak Azpiegituren Plan Integralean egindako proposamenarekin lotu da; kasu honetan, ordea, hondartzaraino luzatu da.

2.7.2.2. Geltoki intermodalak

Euskomodal Irungo geltoki intermodalaren eraikuntza sustatzeko elkartea da, eta, bertan honako hauek hartzen dute parte: Gipuzkoako Foru Aldundia, Irungo Udala, Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, Decoexa, Algeposa, Renfe, Eusko Trenbideak, Argitrans, Ortagui, Soaltran Pasaia eta Pasaiako Portuko Garraio Kooperatiba.

Lurraldeari lotutako alderdiei dagokienez, egun, trenbideak 100 hektarea okupatzen ditu, Bentak eta Plaiaundi artean, eta, gainera, batere ordenarik gabe. Intermodalak ez dakar lur gehiago okupatzea, baizik eta eskuragarri daudenak arrazionalizatzea adierazten du. Intermodalak erabateko berrantolaketa ekarriko du; zehazki, hiru jarduketa-ardatz ditu: hegoaldeko konexioa nazioarteko zabalerarekin eta etorkizuneko euskal 'Y'rekin (nazioarteko sarea izango duena), geltoki berria eta Plaiaundiko trenbideetako hondartza egokitzea, 800 metro luzeko tunelen azpitik doazen trenbideak lortzeko.

Funtzionaltasunari dagokionez, proiektu honen jarduera-aukera nagusiak tren batetik bestera zama mugitzeko premian oinarritzen dira, trenbideak aldatu egiten baitira; arazo hori, ordea, konpondu egingo da euskal Y eraikitzen

denean (2012 arte, gutxienez, ez dute amaituko). Hala ere, bere horretan jarraituko duten edo hartu litezkeen zenbait zerbitzuri erantzuteko premiak jarraitu egingo du. Egun, geltoki intermodalen hiru proposamen daude eremuan, eta horrek helburuak birplanteatzea dakar. Euskomodalen proposamenaren osagarritasuna bilatu nahi da; hau da, aurrez aipatutako funtzioaz gain, formaziorako eta Pasaiako portuari zerbitzua ematen dieten konboiak gordetzeko erabili nahi da, trenbideen espazioa eta lor daitezkeen ibilbide-zati zuzenak direla-eta (beste leku batzuetan hori ezin da egin).

Merkantzien eta ibilgailuen mugimenduan izan den hazkundeak nahiz logistikarekin lotutako eremu osagarrien beharrak eskualdeko lurraren eskaera handitu eta bertako bide-azpiegituretan eragin dezake. Dirudienez, ondorio horiek ez dira ebaluatu.

EAEko Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planean halakorik agertzen ez den arren, *Araso iparraldean* geltoki intermodal bat jartzea aurreikusi da, Euskotren sareko merkantziak (batez ere, bobinak eta burdinez egindako materialak) garraiatzea optimizatzeko; hala ere, erabilera hori ez da kontuan hartu sare horretarako Lurraldearen Arloko Planean (bidaiariak soilik).

Beraz, Irunen jartzea aurreikusi diren merkantzien bi geltoki intermodalak elkarren urruti daude, eta, gainera, Euskomodalen kasuan, A-8 autobidetik ere nahiko urruti.

2.7.2.3. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialeko trenbide-azpiegituren proposamenak

Era berean, Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakineko trenbide-sarea bi eredutan oinarritu da: eredu funtzionalean eta eredu alternatiboan, abiadura handiko trenaren, RENFEren eta Euskotrenen lineak aintzakotzat hartzen dituena. Eskualdeko bi eredu horietan eragiten duten proposamen nagusiak xehetasunez adieraziko dira jarraian; horiek, hain zuzen, ondorio garbiak dituzte lurralde-egituran.

Bidasoa Beherean eragiten duten Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren trenbide-azpiegituren proposamenak

EREDU FUNTZIONALA	Abiadura handikoa	▪ Euskadiko Trenbide Sare Berriaren trazadura: abiadura handikoa, UIC zabalerakoa eta, funtsean, bidaiariak garraiatzeko egokitua. A-8 autobidearen paraleloan egongo da, eta Irungo egungo trenbide-eremuan sartuko da, Frantziako sarearekin lotzeko. Trazadura Irunen hegoaldetik luzatzea aurreikusi da, Bidasoa bidaia Biriatu parean gurutzatu arte. ▪ UIC zabalerako trenbide-adarrak merkantzientzako, Irungo geltokiaren eta Pasaiako portuaren artean.
	RENFE	▪ Egungo trazadura sendotzea, eta merkantziak eta aldiriko zerbitzuak aldi berean izatea. Abiadura handiko trenarekin lotunea, Astigarragako geltoki berrian eta Irunen. ▪ Irungo geltokia oso-osorik birmoldatzea eta hiru lineatako (AHT, RENFE eta Topoa) eta autobusetako bidaiariak bilduko dituen geltoki intermodal bihurtzea, bai eta egungo instalazioei probetxua ateratzea ere (errepide eta trenbide bidezko merkantziak).
	Euskotren	▪ Merkantziak garraiatzeko sarearen ahalmena hobetzea, ustiapen-edukiera handituko duten neurriak hartuz; hori, gainera, bidaiari-garraioarekin bateragarria izango da. ▪ Trenbidea, oro har, bitan banatzea.
EREDU ALTERNATIBOA	Abiadura handikoa	▪ Euskadiko Trenbide Sare Berriaren trazadura berria proposatzea, edukiera bikoitza izango duena: ibilbide luzeko bidaiariak eta merkantziak garraiatuko ditu. UIC edo RENFE zabalera izango du (kanpoko aldean eta hiri-inguruan garrantzi handiagoa izango du), eta Irungo Bentetan amaituko da, Irungo hirigunea zeharkatzen duen korridorearekin. Trenbide horri esker, Urumea inguruko arazoak bereziki gutxituko dira. ▪ Donostialeko eta Bidasoa Behereko Merkantzien eta Ibilbide Luzeko Bidaiarien Geltoki Nagusia Irungo egungo geltokian jartzea; horretarako, geltoki hori birmoldatu egin beharko da hiru trenbide-lineetako (AHT, RENFE eta Topoa) eta autobusetako bidaiariak biltzen dituen geltoki intermodal bihurtzeko, bai eta egungo instalazioei probetxua ateratzeko ere (errepide eta trenbide bidezko merkantziak). ▪ Irunen eta Pasaiako portuaren arteko adarra merkantzientzako, UIC zabalerakoa.

	RENFE	▪ Egungo trazadura sendotzea, eta aldiriko trenen zerbitzua indartzea, geltoki eta geraleku berriak eginez. Horrez gain, Irungo eta Hernaniko egungo geltokien bidez, Abiadura Handiko sarearekin lotuko da. ▪ Poliki-poliki, merkantzien hiri barneko garraioa ezabatzen joatea, kanpoko sare berrira lekualdatzeagatik. Etorkizunean, Irundik Pasaiako portura merkantziak eramatea. ▪ Irungo geltokia osorik birmoldatzea eta hiru trenbide-lineetako (AHT, RENFE eta Topoa) eta autobusetako bidaiaren geltoki intermodal bihurtzea, bai eta egungo instalazioei probetxua ateratzea ere (errepide eta trenbide bidezko merkantziak).
	Euskotren	▪ Merkantziak garraiatzeko sarearen ahalmena hobetzea, ustiapen-edukiera handituko duten neurriak hartuz; hori, gainera, bidaiari-garraioarekin bateragarria izango da. ▪ Trenbidea, oro har, bitan banatzea.

Iturria: Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakina

2.7.2.4. Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako Lurraldearen Arloko Plana (PTSRILT)

Planaren Aurrerakina egina dago (2003/07/24an argitaratutako Ordena), eta, horren helburua, hiri-sareen, produkzio- eta logistika-guneen eta horiek atzerriarekin dituzten nodoen arteko lotura-sare bat eratzea da. Horrek, beraz, azpiegitura-sistema integral baten beharra dakar (errepideak, trenbideak, portuak eta aireportuak). Aurrerakinean agertzen diren baldintzek eta alternatibek helburu bikoitza dute:

- Intermodalitatea sustatzea (merkantziena nahiz bidaiariena), pilaketak prebenitzeko eta gutxitzeko, lotura eraginkorrak egiteko eta garraio-kate multimodalen erabiltzeko.

- Indar handiko logistika-egitura jartzea, EAEn dauden ekoizleei eta banatzaileei kostuak gutxituko dizkiena eta logistika- eta garraio-jardueren aukerak garatuko dituena.

PTSRILTren helburu nagusia honako hau da: bidaiariak modalitatez aldatzeko sareen nodo-tipologiak zehaztea eta logistika-jarduerak egitea, azalerak kalkulatzea, nodo horien kokaleku egokienak mugatzea, eta azalerak eta ezaugarriak kalkulatzea, eta, azkenik, kokaleku-aukerak aztertzea. Tresnei dagokienez, planak Lurralde Plan Partzialen eta Lurraldearen Arloko Planen arteko interfazeak estali nahi ditu.

Planaren helburua Euskadiko Logistika Plataforma osoa eratzea da, logistikari dagokionez EAEk estatuan eta Europan duen garrantzia handitzeko; horretarako, barne-aukerak, penintsula-kontinentea loturan duen kokapena, atlantikoan eta penintsulan duen banaketa eta ozeanoaz bestaldeko atea (portuak) baliatuko dira. Penintsula-kontinentea loturak aukera eman dezake modalitate-aldaketako gune bat edo batzuk erakargarri bihurtu eta lehen modalitateaz beste leku bateko instalazioetan aldatzen zutenak edo modalitatez aldatzen ez zuten merkantzia berriak bertara erakartzeko.

Egituratutako logistika-instalazioen lau tipologia daude:

- *Logistika-gune handia.* Banaketa-enpresa eta logistika- edo garraio-operadore handientzat, balio erantsi handiagoa duten logistika-jarduerak garatzen dituztenentzat (biltegiratzea, etiketatzea, eskaerak antolatzea (picking), aparkatzea...). 1.500 Ha-ko azalera izango luke, eta Arabako Lautadan kokatuko litzateke.
- *Logistika-jarduerak garatzeko eremuak (ZAL),* portuei eta aireportuei lotuak. Itsasoko eta aireko garraio-enpresa eta logistika-operadoreentzat. Guztira, 250 bat Ha.
- *Logistikari laguntzeko guneak.* Logistikari laguntzeko instalazioak ezartzeko; horietan, bi tipologia bereiz daitezke: *Eskualdeko banaketa-guneak* (hiri-eremu handietan daude, eta paketeria, mezularitza, askotariko kargen garraio eta logistika-operadoreen enpresentzat) eta *garraio-sistemari laguntzeko guneak* (kamioilarientzako eta gidarientzako zerbitzuak, truck-centerrak, aparkalekuak). 450 Ha behar dira horretarako.
- *Plataforma intermodala.* Trena-errepidea eta trena-trena (bide-zabalera) modalitate-aldaketak egiteko da; bereziki, garraio konbinatuko operadoreentzat, modalitatez aldatzeko premia duten logistika-operadoreentzat eta premia hori duten beste garraiolari handientzat (batez ere, nazioartekoentzat). Azalera, guztira, 300 Ha.

Gipuzkoan, honako hauek proposatu dira:

- Plataforma intermodal bat (Bidasoa inguruan jarriko litzatekeena): gehienez ere 100 Ha okupatuko lituzke, eta hektarea horiek Biriatu inguruan eta Oiartzun, Irun eta Hondarribia udalerrietan kokatuko lirateke.
- Eskualdeko lau banaketa-gune, Donostialdean (Lanbarrenen, Iruni ere zerbitzuak emateko –50 hektarea–), Orian, Deban eta Urolan.
- Pasaiako portuari laguntzeko ZAL bat (50 Ha-koa); eremu hori Lezon, Pasaian, Oiartzunen eta Errenterian jarriko litzake.

Kokalekuak ez dira zehaztu, eta, adierazi dutenez, Gipuzkoan zaila izango da logistika-erabilerarako lurrak aurkitzea, epe ertainean.

2.8. Hondarribiko lurralde-antolamenduari buruzko hausnarketak, iraunkortasunaren ikuspegitik

HONDARRIBIKO HIRI-EREDUAREN BILAKAERA

- ***XIX. Mendeko bigarren erditik aurrera, hiria zabalduz joan zen, hirira iristeko bideak hobetzearen eta aisialdirako eta uda-garaiko gunetzat espezializatzearen ondorioz; horiek izan dira, hain zuzen, udalerriak gerora izan duen bilakaeraren ezaugarri***

Hondarribiko hiri-bilakaerak ez zuen aldaketa handirik eragin hiriaren jatorrizko nukleoan, XIX. Mendeko bigarren erdira arte; hain zuzen, aldaketa horien eragile nagusia egun ditugun azpiegituretako elementu handien eraikuntza izan zen (A-8 eta aireportua izan ezik, XX. Mendean eraiki baitziren). Garai hartan sozio-ekonomiako harreman-sistema berria osatu zen Bidasoa Beherean, eta Hondarribia estatuko uda-garaiko gune eta Irungo jolasaldi- eta aisialdi-eremu bihurtu zen; hala ere, arrantza-jarduerari ere eutsi egin zion.

Hondarribiko hirigintza-eraldaketa oso nabarmena izan zen 1900. urtean; padura asko eta asko lehortu da ordutik. Portuan jada betegarriz egindako zabalgunea ikus zitekeen, bai eta udatiarrentzako eraikinen eraikuntza ere. Zehazki, 1914an, 5.400 biztanle bizi ziren bertan, eta egungo hiriguneko eremu nagusiaren oinarrizko trazadurak dagoeneko finkatuta zeuden; hirigunea Portura mugitu zen, eta, Alde Zaharrean, berriz, eraikuntza publiko garrantzitsuenak gelditu ziren.

- ***1915-1955 aldian, hazkunde hori moteldu egin zen. Etxebizitza batean sartzeko sustapen publikoko lehenengo ekimenak***

Hala ere, 1915-1955 aldian, geldialdi txiki bat egin zen hiri-bilakaeran; zehazki, 1955ean, 8.000 biztanle zeuden udalerrian. Bereziki, egungo Sabino Arana etorbidea eta Amuteraino doan "Errepide berria" (1933) zabaldu zituztela azpimarratu behar da, bai eta babes-porturako estuarioan egin zituzten esku-hartzeak ere. Bizitegi-kokalekuak ez zituzten asko garatu, eta, gainera, aldi horren azken zatian, nabaria izan zen Madrileko eragina eraikitze-diseinuan. Ordea, Arrantzaleen Herria eraikitzen ere hasi ziren, eta horrela hasiera eman zioten herritarrentzako etxebizitzak sustatzeari. Garai hartan, dagoeneko nabariak ziren etxebizitza batean sartzeko zailtasunak;

arazo hori, hain zuzen, XIX. Mendearen erdialdetik hiri-bilakaera baldintzatu zuen sozio-ekonomiako espezializazioaren ondorio zuzena izan zen.

- ***1956tik, hirigintzan eraldaketa handia gertatu zen; zehazki, plangintza-tresna oso hedakorrak onartu zituzten, baina, aldi berean, ez ziren oso eraginkorrak antolamendurako.***

1956tik aurrera, nabaria izan zen Hondarribiko hirigintza-eraldaketa, neurri handi batean, estatuan indartutako joeraren eraginez; izan ere, nazioarteko isolamenduaren amaierak eta Lurzoruaren Legearen onarpenak horretarako bidea eman zuten. Aldi horretan, zenbait plangintza-tresna sortu zituzten, eta, horien bidez, eskura jarri ziren ordutik egindako aldaketa handiak egiteko behar ziren eremu eta irizpideak.

Ondorioz, 1960rako, jada egina zen Hondarribiko lehen plangintza-proiektua, eta, hori oinarri hartuta, hainbat esku-hartze egin ahal izan ziren (baina, neurri handi batean, plangintza errespetatu gabe). Esku-hartze horiek, hain zuzen, garrantzi oso handia izan dute udalerriko hiri-bilakaeran (besteak beste: Amuteko, Alde Zaharreko, Azken Portuko eta Campiñako plan partzialak). Bigarren fasean (1967-1969), Iterlimenen, Butroi pasealekuan eta Damarrin dauden poligonoetako planak onartu zituzten.

1972ko Plangintza Orokor berria (esku-hartze horiek ere bere baitan hartzen zituena) hedapeneko ekonomia-egoera baten isla da, eta, bertan, herriko irisgarritasuna asko hobetu zen, Jaitzubiko errepidea eraiki baitzen. Plan berri hartan, 7.000 etxe berri aurreikusi ziren (11.000 aurrez zeudenak kontatuz gero), eta horietako gehienak ekonomia-maila altuko eta dentsitate ertaineko edo baxuko merkaturako ziren; gainera, paisaia-kalitate ezin hobeko lurretan kokatuta. Planak XIX. Mendetik izandako hiri-bilakaeraren eredua indartu zuen, eta funtzionalki Irunen mendean zegoen uda-garaiko herri txiki bat izatetik estandar altuko bizitegi handi (hau da, Donostiako metropoli-arearen maila berekoa) izatera pasa nahi zen, inplizituki. Plan horretan, industriari ez zitzaion garrantzia handirik eman, eta elkarren artean loturarik ez zuten bakar batzuk ezarri ziren. Bestalde, ia ez zegoen komunitate-ekipamendurik, ez eta eremu librerik ere; ordea, kokaleku-dentsitate txikiak gabezia hori arindu egiten zuen.

1956-1995 aldian gertatutako hiri-eraldaketa honako jarduketa garrantzitsu hauetan ikus daiteke:

- Babes-porturako errepidea egitea, ibaia bideratzea, hondartza egitea eta atzeko aldean betegarriak sartzea.

- Aireportua eraikitzea (1955 eta 1961), eta Amuteren eta hirigunearen arteko errepide berria egitea.
- N-1 errepideko sarbide berria Jaitzubian (1963); gerora iparraldeko saihesbidea eraiki zuten, eta, ondorioz, N-1 errepidean sartu zen.
- 60ko urteetan, eraikuntzako esku-hartze handiak egin zituzten Josu Langile eta Planetas taldeek: Campiñan, Guadalupen eta Cerveralesen herritarrentzat egindako esku-hartzeak, uda-garairako apartamendu-blokeak (Bizkundi, Goxoki, Ondarregi), Puntaleako Zabalgunea eta industria-pabiloien multzoak.
- 1977tik 1995era bitartean, bizitegien esku-hartzeak egin zituzten: Jaizkibel urbanizazioan, Mendelun, Zumardian, Alde Zaharrean, Herriberan, Farorako errepidean, Iterlimen-Lurgorrin eta Campiñan.
- Babes-portuko kai-muturra eta Kai Berriko atrakatze-kaia.

Lurralde-egituraketan eta –okupazioan duen garrantzia dela-eta, estuarioan egindako aldaketak eta etxebizitzako zenbait esku-hartze azpimarratu behar dira, Campiñan eta landa-eremuan egindakoak, esaterako.

Estuarioko eta itsasertzeko uretan hiri-lurrak egiteari dagokionez, jarduketek kosta-lerroaren erabateko aldaketa eragin zuten, eta, garai batean bezala, padura asko eta asko lehortu ziren.

Etxebizitzak egiteari dagokionez, Campiñako eraikuntzak azpimarratu behar dira, bai horien garrantziagatik (56 Ha-ko hedadura, eta 2.000 etxebizitza baimendu), bai kudeaketa-moduagatik; azken horren eraginez, hiri- eta mugikortasun-arazoak sortu dira. Ez ziren zehaztutako kudeaketa-mekanismoak ezarri, ez eta urbanizazioko eta lur-lagapeneko betebeharrak bete; ondorioz, loturarik gabeko tipologia eta trazadura bultzatu zen. 1960ko eta 1972ko plangintzaren eraginkortasuna urria izan zen, eta, gainera, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aitortzen den bezala, plangintzaren benetako gauzapena ekimen pribatuen eskuetan gelditu zen; horregatik, Hondarribiko egungo hiri-antolaketan arazoak izan dira. Horri dagokionez, sustatzaileei mugak jartzean izandako dentsitate txikiak, sor zitezkeen ondorioak gutxitu ditu neurri batean, bestela nahasmen handia sor baitzezakeen.

Landa-eremuan, bestalde, Jaizkibel urbanizazioaren gauzapenak eta familia bakarreko etxebizitzen kopuru altuak (bereziki, Arkollan eta Jaitzubian) garrantzia izan dute Hondarribiko ezaugarri den bilakaera-ereduan: sakabanatua eta dentsitate txikikoa.

- ***Indarrean dauden Arau Subsidiarioen (1995) diagnostikoa: bizitegi-espezializazioa, espekulazio-merkatua eta baliabide gutxiago dituzten herritarrek udalerria uztea***

Egungo Arau Subsidiarioetan jasotako diagnostikoaren arabera, 1995eko egoera, oro har, egun ere aplika zitekeen.

Hondarribian nabaria da bertako lurralde- eta hiri-ezaugarriek eragindako funtzio-espezializazioa; hau da, arrantza-jardueraz gain, turismo- eta aisialdi-zerbitzuek soilik dute garrantzia. Udalerria bizitegietan espezializatu izana arazo da etxebizitzak eskuratzeko; izan ere, horien eskaintza erdi- eta goi-mailako baliabideak dituzten eskualdeko eta metropoli-areako biztanleriarentzat da, batez ere. Egoera hori indartu egin da 70eko hamarkadatik; izan ere, hemen bigarren etxebizitza zuten Euskadi kanpoko biztanleen ordez bertako biztanleak daude, eta, ondorioz, espekulazio-merkatu indartsu bihurtu da, Arau Subsidiarioen arabera.

Prozesu horren eraginez, baliabide gutxi dituzten herritar askok eta askok udalerria utzi eta Irunera edo inguruko beste udalerrietara joan behar izan dute, etxebizitza eta lana lortzera. Gainera, garraio publikoaren eraginkortasun-faltak eta udalerriaren posizio periferikoak zail egiten dute udalerrian bizitzea eta, aldi berean, lana egitea. Egindako eraikuntzak garrantzitsuak izan arren, eraikitako etxebizitzen zati handi batean kanpotarrak bizi dira, Arau Subsidiarioen diagnosian agertzen denez.

Industria-jarduerei dagokinez, industria txikiak lekuz aldatzea eta sortzea, eta tokiko merkataritza-zerbitzuak bultzatzea izan da asmoa.

HIRI LURREN ERABILERAK

- ***Batez ere, bizitegi-lurzorutzat erabiltzen dira; gehienak dentsitate txikikoak dira, eta alde handia daukate jatorrizko hirigunearekin.***

Arau Subsidiarioetan zehaztutakoari jarraiki, Hondarribiko hiri-eremua zabala da, eta 551,6 Ha betetzen ditu; hau da, udalerriaren %17,9. Lurzoru horietan bizitegiak eraikitzen dituzte, batez ere; zehazki, 373,4 Ha (%12,1). Lurraldea okupatzen duten bizitegien ezaugarri nagusia horien dentsitate txikia da; ezaugarri hori, hain zuzen, ez dator bat jatorrizko hirigunearekin eta lehenengo zabalguneekin.

- Horrela, 223,4 Ha eraikuntza bakanen eremuei dagozkie; horietan, 407 etxebizitza aurreikusi ziren Arau Subsidiarioak aplikatu ondoren, eta hiri-lurren %59,5 betetzen dute. Gainerako dentsitatea honako hau da: 1,7 etxebizitza hektarea bakoitzeko. Horrez gain, lurzoru urbanizaezinean sakabanatuta dauden beste 330 etxebizitza kontuan hartu behar dira.
- Beste 66,4 Ha Garapen txikiko eremuei dagozkie; horiek azaleraren %17,9 eta etxebizitzen %19,2 betetzen dute, eta batez besteko dentsitatea honako hau da: 21 etxebizitza hektarea bakoitzeko.
- Eraikuntza libreak, bestalde, 63,7 Ha (hiri-lurren %17,1) betetzen ditu; udalerriko etxebizitza gehienak (%46,5) horrelakoak dira, eta batez besteko dentsitatea 57,3 etxebizitza hektarea bakoitzeko da.
- Etxebizitza eremu zaharrak dauden eremuek (13,7 Ha) eta Zabalguneak (6,1 Ha), bestalde, azalera txikiagoak okupatzen dituzte; zehazki, hiri-lurren %5,4. Hala ere, bertan dago etxebizitzen %29,2, honako dentsitate hauek baitituzte, hurrenez hurren: 83,9 eta 168,6 etxebizitza hektarea bakoitzean.

Kopuruak gehituz gero ikus daitekeenez, azken hiru tipologia horietan (hiri-lurren %22,4 betetzen dutenak) udalerriko etxebizitzen %75,6 sartzen da.

Lurrazal-eremuak eta etxebizitzak, tipologien arabera

TIPOLOGIA	Azalera (Ha)	% Azalera	Etxebizitzak	% Etxebizitzak	Etxebizitzak / Ha
Etxebizitza eremu zaharrak	13,7	3,7	1.219	15,5	83,9
Zabalgunea	6,4	1,7	1.073	13,7	168,6
Eraikuntza librea	63,7	17,1	3.653	46,5	57,3
Garapen txikiko eraikuntza	66,7	17,9	1.508	19,2	21,0
Eraikuntza bakanak	222,3	59,5	407	5,2	1,7
GUZTIRA	373,3	100,0	7.860	100,0	21,1

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak, 1995. Arauen indarraldia amaitzen denerako aurreikusitako kopuruak.

Iraunkortasunari buruzko eskuliburuetan agertzen denaren arabera, 75 etxebizitza hektarea bakoitzeko dentsitate positiboa da (adierazle hori gutxi gorabeherakoa da, kasu bakoitzean hainbat eta hainbat faktore berezik eragiten baitute); Hondarribiko dentsitatea, berriz, 21,1 da, eta, eraikuntza bakanen eremuak aintzat hartzen ez direnean, 49,7. Erreferentziatzat

hartutako dentsitatea baino handiagoa duten kasuetan saturazio-egoera dagoela esaten da, eta txikiagoa dutenetan, berriz, hedapeneko erabilera egiten dela eta lurra behar baino gehiago kontsumitzen dela; azken horrek, gainera, zerbitzuen kostua handitu eta garraio publikoen erabilera oztopatzen du, erabiltzaile-kopuru txikia dela-eta.

- ***Indarrean dagoen plangintzari buruzko diagnostikotik ondorioztatutako helburuak: garapena lurralde-edukieraren eta herritarren premien mendean jartzea. Hazkundea mugatzea***

1997an onartutako Arau Subsidiarioetan, lurraldearen edukiera objektiboak eta bertako herritarren premiek baldintzatutako bizitegiak garatzea izan zen helburu; eta, horrez gain, turismo-jardueraren hazkunde selektiboagoa bultzatu zuten, lurralde-balioak gehiago errespetatzen zituena eta funtzionalki orekatuagoa zena. Hala ere, hazkundea gogor bultzatu zen, eta, 8 urterako, 2.197 etxebizitza aurreikusi ziren; ondorioz, etxebizitza-parkea handitu eta 8.150 etxebizitzaraino iritsi zen, eta, era berean, biztanleak ere 16.500 izatera pasatu ziren (udan, berriz, 30.000ra iristen ziren).

  - Hiri-bilakaera aipatutako kopurura eta epe luzera mugatzea erabaki zen, eta, gainera, aurretiko politikatzat jo zen; izan ere, bilakaera horri esker, Hondarribiko udalerriaren hazkunde begetatiboaren premiei erantzun, ekologia- eta paisaia-balio handia duten eremuak urbanizazio-prozesutik babestu eta hirigunearen gehiegizko hazkundea geldi zitezkeen.

  - Orduko hiri-eremuko eta horren inguru hurbileko hiri-bilakaera mugatu zen, salbuespen-kasuren batean izan ezik. Udala lurzoruaren merkatuan sartu zen, eraikitze-erritmoa moteldu eta lur erabilgarriaren erreserbak agortu ez zitezen; horretarako, aurreko plangintzan bizitegi-erabilerarako aurreikusitako lur-eremuen zati bat deskalifikatu eta landa-eremuan etxebizitza bakanak bereizi gabe egitea geldiarazi zen.

  - Lurzoruaren udal-politika bat garatu zen, herritarrei prezio eskuragarriko etxebizitzak bermatzeko eta 80ko hamarkadatik gertatzen ari zen kanporatze-prozesua geldiarazteko.

- ***Plangintzaren esku-hartzeko proposamenak: dentsitate ertaineko bizitegiak handitu egin ziren, baina, era berean, dentsitate txikikoak ere handitu egin ziren***

Irizpide egoki bati jarraiki, Arau Subsidiarioetako proposamenean, eraikuntza irekiko etxebizitzak ugaltzea aipatu zen; hain zuzen, multzo horretakoak ziren aurreikusitako etxebizitza berri gehienak (%49,6), dentsitate ertaineko eremuetan jarriko zirenak. Horrela, tipologia horretako etxebizitzak %33,0 izatetik %46,5 izatera pasa ziren. Horregatik, udal-ekimen publikoko esku-hartzeak eta esku-hartze mistoak bultzatu ziren, eta 838 etxebizitza publiko eta 239 libre egitea aurreikusi zen. Esku-hartzeko eremuetako dentsitateak (etxebizitza berriak ere kontuan hartuta) honela zehaztu ziren, eremu gehienetan: 50-80 etxebizitza hektarea bakoitzeko.

INDARREAN DAUDEN ARAUETAN PROPOSATUTAKO ETXEBIZITZA-TIPOLOGIAK

TIPOLOGIA	ARAU SUBSIDIARIOEN AURREKO ETXEBIZITZEN %	ARAU SUBSIDIARIOEN ONDORENGO ETXEBIZITZEN %	ARAU SUBSIDIARIOETAN PROPOSATUTAKO ETXEBIZITZEN %
Etxebizitza eremu zaharrak	18,8	15,5	6,7
Zabalgunea	12,5	13,7	4,2
Eraikuntza irekia	33,0	46,5	49,6
Garapen txikiko eraikuntza	16,0	19,2	27,6
Eraikuntza bakanak	2,7	5,2	11,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Hondarribiko Plangintzako Arau Subsidiarioak, 1995.

Aipatu bezala, Hondarribiko etxebizitzetan tipologia-aldaketa gertatu zen, eta, ordutik, hain muturrekoak ez ziren dentsitateak eta sustapen publikoak edo mistoak bultzatu ziren; hala ere, tipologia-aldaketa horren parean, dentsitate txikiko politikari eutsi egin zaio. Hain zuzen, Arau Subsidiarioetan proposatutako etxebizitza berrien ia %40 eraikuntza bakanei (%11,9) eta garapen txikiko eraikuntzei (%27,6) dagozkie; guztira, 864 etxebizitza. Horrela, etxebizitza-mota horrek garrantzia hartu du udalerriko parkean.

Lurrak edo horien diru-baliokidea hitzarmenen bidez lortzearen oinarrian kanpo-eskaria asebetetzeko etxebizitzak egiteko interesa dago. Metodo horri esker, etxebizitza publikoak sustatzeko epe laburreko diru-sarrerak lortzen

dira; baina, aldi berean, eragin negatiboa du lur-kontsumoan eta epe luzerako udal-ekonomian, zerbitzu publikoen kostu-handitzea dela-eta.

- ***Benetako garapena: 1996-2004 bitartean, 1.267 etxebizitza gehiago egin zituzten, sustapen publikoaren ia %30***

Etxebizitza-parkeei buruzko datuen arabera, 1.267 etxebizitza gehiago egin zituzten 1996. urte amaieratik 2004. urte amaierara. Horietatik ia %30 etxebizitza babestuei dagokie, eta gainerakoak etxebizitza libreei. Etxebizitza-parkearen bilakaera 2007 urterarte goranzkoa izan den arren, badirudi hazkundearen joera egonkortzea dala.

Ekimen publikoko etxebizitzei edo etxebizitza mistoei dagokienez, 1997an Arauak onartu zituztenetik 2005era bitartean, 358 etxebizitza publiko eraiki dituzte (838 aurreikusi ziren), Komentaurren, Lonjan eta Zezen-plazan, eta beste 145 eraikitzeko plangintza nahiko aurreratuta dago (Damarri eta Presa). Sustapen horretan 68 etxebizitza libre daude guztira, baina 249 aurreikusi ziren. Oraindik ez da egin etxebizitza-kopuru handiena duen esku-hartzea (Muliate: 230 etxebizitza publiko eta 111 pribatu), baina aurrera doa.

Esklusiboki pribatuak diren esku-hartzeei dagokienez, 633 etxebizitza berri osatzen zituzten esku-hartze nagusiak erreferentziatzat hartuta, gutxi gorabehera, 331 eraiki dituzte, horietako gehienak garapen txikiko eremuetan (193 etxebizitza Arrokan, Labrederren eta Errekabean). Era berean, beste era bateko esku-hartzeak ere gauzatu dira: eraikuntza bakanak (50 Jaizkibel urbanizazioan), Eraikuntza irekiak (38 Iturriberrin) eta Etxebizitza eremu zaharrak (50 Alde Zaharrean).

ETXEBIZITZA PARKEA ETA HORREN ERAGINA LURRALDEAN

- ***Etxebizitza-parkea handitu da, eta etxebizitza bakoitzeko okupazio-tasa jaitsi***

Biztanleriaren eta etxebizitza-parkearen hazkundea alderatuta, honako hau ikus daiteke: 1996-2004 bitartean, biztanleria %10,4 (1.502 biztanle) hazi den arren, etxebizitza-parkean izan den hazkundearen ehunekoa ia bikoiztu egin da: +%19,6 (1.267 etxebizitza). Gainera, bigarren etxebizitza zuten jabeen zati batek etxebizitza nagusia Hondarribian finkatu dutela kontuan hartuta, parkearen hedapena oso nabarmena da.

Hau da, 2004 amaieran, Hondarribiko parkean 7.736 etxebizitza zeuden (horietatik %25,6 hutsak); beraz, okupazio-tasa honako hau zen: 2,06 pertsona etxebizitza bakoitzeko (hutsak kontuan hartu gabe: 2,77 pertsona etxebizitza bakoitzeko).

Parametro horretan, oro har, jaitsiera garrantzitsua izaten ari da, Gipuzkoa eta EAE osoan. Familia-osaketan izan diren aldaketen ondorioz, premiak eta etxebizitza-parkeak ugaritzen ari dira, baina biztanlerian ez da hazkunderik gertatu. Hondarribian, gainera, etxebizitza hutsak direla-eta, etxebizitza-aprobetxamendua are txikiagoa da.

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean agertzen denari jarraiki, joera behera doa, eta etxebizitza bakoitzean 1,81 pertsona izatera iritsiko da 2018an (Hondarribiko parke osoan). Kontuan etxebizitza nagusiak soilik hartzen badira, adierazleak gora egiten du: 2,60 pertsona etxebizitza bakoitzeko.

Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean, 2018an 9.138 etxebizitzako parkea beharko da Hondarribian, 16.585 biztanle aurreikusi baitira. Horrela, 2004an zegoen etxebizitza-kopuruaz gain beste 1.402 etxebizitza gehiago egingo direla aurreikusi da; hain zuzen, okupazio-tasaren jaitsiera da hazkunde horren eragile nagusia.

- ***Bizitegi-lurzoruaren kontsumo-faktoreen portaera; portaera hori dela-eta, 2018. urterako baliabideak agor daitezke, biztanleria oso gutxi hazten ari den arren***

Hazkundeak lurraldean duen eraginari dagokionez, jarraian azalduko diren faktore hauek lur-kontsumoaren igoera eragiten dute, nahiz eta biztanleriak bere horretan jarraitu edo gutxi hazi.

  - Dentsitate txikia
  - Bigarren etxebizitzen eta etxebizitza hutsen kopuru altua
  - Etxebizitzetako okupazio-tasaren jaitsiera

Azken faktore horretan eragitea zaila dela kontuan hartuta, beste bi faktoreetan eragin behar da lur-kontsumoa gutxitzeko.

Bigarren etxebizitzei eta etxebizitza hutsei dagokienez, Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean bildutako ikuspegien arabera, 2018an 2002an

baino 535 etxebizitza gehiago egongo dira (2.204 izatetik 2.759 izatera pasako da), eta dentsitate txikiko etxebizitzen sustapena are eta handiagoa izango da.

- Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean, dentsitate txikiko lau eremu handi bereizi dira Hondarribian, bizitegiak egiteko (<20 etxebizitza hektarea bakoitzeko); horiek 210 Ha dituzte guztira, eta Campiñako eremu zabalak betetzen dituzte. Era berean, dentsitate ertaineko beste eremu bat ere aipatzen da, 20 Ha dituena (20-60 etxebizitza hektarea bakoitzeko).

- Udal-plangintza berrian, enpresa-parkea (38,8 Ha) txikiagotzea aztertu da, eta, horrez gain, bertako zati nagusia tipologia desberdineko bizitegi-eremuak jartzeko bideratu da.

Bizitegi-lurrek 373 Ha okupatzen dituzte egun, baina, asmo horiek betez gero (eta beste esku-hartze batzuk kontuan hartu gabe), kopuru hori 600 Ha baino gehiago izatera irits liteke, 2018an; beraz, udalerri-azaleraren ia %20 gaindituko litzake. Bizitegi-lurren hedapen hori ez dator bat aurreikusitako biztanle-hazkundearekin (630 biztanle gehiago); hau da, egungoak baino %4 gutxiago.

Iraunkortasunaren ikuspegitik, bilakaeraren honako elementu negatibo hauek azpimarratu beharko lirateke, ingurumeneko, paisaiako eta lur-kontsumoko alderdiez gain: epe luzera udalerriari eragindako gastuak (zerbitzuak), mugikortasun-sistemaren eraginkortasun-falta eta udalerriko etorkizuneko garapen-itxaropenak amaitzea; izan ere, babestutako natura-eremuez eta Jaitzubiko ibarren bat edo bestez gain, 2018an bizitegi-eremuen *argazki finkoa* ikusiko litzake Hondarribian.

BERDEGUNEAK ETA ESTANDARREN ESTALDURA MAILA

- ***Inguruaren kalitateak eta etxebizitza-dentsitateak hornidura-estandarren estaldura-eza arintzen dute***

Hondarribiko lurraldearen paisaia-kalitate handia, itsasertzeko eta Campiña inguruko eremuen eskuragarritasuna eta eraikuntzen dentsitate txikia (zirrikituetan berdeguneak dituena) dela-eta, Hondarribia leku atsegina da

bizitzeko. Higiezinen merkatuak berak hori berresten du. Irudi horrek, ordea, bi kontraesan ditu:

- Berdeguneak jabeek soilik erabili ahal izaten dituzte, sarritan. Urbanizazioak hirigunean edo eraikuntza bakanetan eraikitzean, eremu horiei begiratu baino ezin zaie egin; hau da, ezin da eremu horietan sartu. Horri dagokionez, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitako garapenetan berdegune irekiak proposatu dira; hala ere, horiek gutxienekoa izango lirateke dagoeneko daudenekin alderatuz.

- Lurzoruaren Legean, gutxieneko hornidura batzuk zehaztu dira, baina Hondarribia oso urrun dago oraindik horiek betetzetik. 1972ko Plan Orokorrean, 0,1 m^2/biztanleko hornidura jaso zen; Legean, berriz, 5 m^2 aurreikusi ziren berdegune orokorretarako. Desfase horrekin amaitzeko, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan 165.860 m^2-ko Higer/San Telmo parkea aurreikusi zen, baina, oraindik, ez da egin. Hiri-eremu libreei dagokienez, Arau Subsidiarioetan honako helburu hau ezarri zen: 20m^2/biztanleko; hau da, 1995ean zeuden 184.435 m^2-ri 71.725 m^2 gehitzea aurreikusi zen. 2005ean, helburu horren %85 bete da.

EKONOMIA JARDUERAK GAUZATZEKO LURRAK

- ***Tokiko industria-lurrak eta enpresa-parkea, indarrean dagoen plangintzaren helburuak***

Udalerriko ekonomia-espezializazioaren eraginez, industria-jarduera gutxi bultzatu dira, eta horiek, gainera, Irundik oso hurbil kokatu dira. Garapen garrantzitsu bakarra Eskapatxulokoa izan da (3,5 Ha); poligono hori, ordea, gehiegi okupatu da, eta, gainera, bertako eraikuntza-kalitatea baxua da, aurretiko plan partzialik gabe eraiki baita. 1972ko Plan Orokorrean kalifikatutako industria-lurren beste proposamen batzuk (35,2 Ha) ez ziren aurrera eraman, ez baitzetozen bat une hartako premia errealekin: arrantza-sektoreari laguntzea eta hirigunean zeuden enpresak lekuz aldatzea.

Horregatik, indarrean dauden Arau Subsidiarioen arabera, bazterreko industria-sektorea izatea (tailer eta industria-zerbitzu txikiak, Irunekin muga egiten duten eremuetan, eta arrantza-sektoreari eta hiriguneari zerbitzuak ematen dizkieten tailerrak) ez da negatibotzat hartu behar metropoli-areako lan-merkatuan; izan ere, horri esker, Hondarribiko ingurumen- eta paisaia-kalitatea babestu eta turismo-zerbitzuen garapena bultzatu da.

Diagnostiko horri jarraiki, Gaintxurizketan hasi berri den garapena sendotu da; hain zuzen, bertako kopuruak ez dira oso altuak (30.235 m^2 Zaldunborda II eremuan). Horrez gain, Molla eta Itzaberri eremuak ere bultzatu dira, nautikari lotutako erabilerarako edo dagoeneko bertan dauden etxebizitzak osatzeko. Ekimen nagusitzat Txiplao proposatu da; eremu horrek 18.626 m^2-ko azalera gordina du, eta, bertan, enpresa txikiak eta hirigunetik mugitutakoak jarriko dira. Eremu guztiak batuta, 32.817 m^2 ditu garapen berrirako.

Tokiko joera horiek kontuan hartzeaz gain, Arau Subsidiarioetan 38,8 hektarea kalifikatu dira Zubietako enpresa-parkerako; izan ere, eremu horretarako egokiena hirugarren sektore mistoa eta teknologia-maila handiko industria arina jartzea dela uste da, bai eta ohiko industria-jarduerak alde batera uztea ere.

- ***Helburuak birplanteatzea, eta, birplanteatze horretan, ohiko jarduerak gauzatzeko lurrak bereziki bultzatzea, Jaizkibelgo korridore intermodala egin ahal izateko (2005etik, udalerria azken horrekin elkartu da)***

Dirudienez, ekonomia-jardueretarako lurrak garatzeko irizpideak aldatu egin dira azken urteetan. Zubieta garatzeko zailtasunak eta Jaizkibelgo korridore intermodala eraikitzea direla-eta, Hondarribiko Udalak Zaldunborda-Zokueta eremuan (Gaintxurizketan) ohiko industria-eremua sortzeko proposamena Jarduketa Plan Integralean sartzea eskatu du. Bestalde, Zubietako enpresa-parkea eraikitzeko bideratutako eremua, gutxi gorabehera, %50 txikitzea proposatu da, bai eta gainerako lurrak bizitegi-lurtzat kalifikatzea ere. Proiektu hori ere aipatutako planean sartzeko eskatu da.

- ***Tokiko merkataritza-sektorearen egitura murritza; egitura horrek, gainera, ekipamendu handien eta horiek irudikatzen duten ereduaren eragina hautematen du***

Hondarribiko merkataritza-hornidura murritza da, eguneroko saltoki txikiak eta espezializatutako zenbait denda soilik baitaude. Establezimendu-kopuru jakin bat honako gune hauetan soilik dago: San Pedro kalean eta inguruan (hori ere ostalaritzarako eta hiri-jarduerak garatzeko gune nagusitzat hartzen da), Zumardia-Damarri eremuan, Eroski supermerkatuaren inguruan, Sokoan, Soroetako Dia supermerkatuan eta Zezen-plaza eremuan (BM supermerkatuaren inguruan).

Irungo merkataritza eta, batez ere, merkataritza-ekipamendu handien hedapena lehia gogorra da, eta, beraz, zaildu egiten du udalerrian behar besteko merkataritza izatea. Lurraldean merkataritza-ekipamendu handiak ezarri direnez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila egoera planifikatzen, jarraitzen eta kontrolatzen ari da. Iraunkortasunaren ikuspegitik, merkataritza-ekipamenduak jartzeak (normalean, hiritik kanpo eta atzerriko ereduari jarraiki) ondorio nabarmenak ditu hiri-portaeran; besteak beste, honako hauek:

- Hiri-inguruko lur-eremu handiak okupatzea eta lurralde-egitura aldatzea, bide-sistema osagarriak agertzen baitira.
- Ibilgailu-garraioan mugitzeko premiak handitu egiten dira.
- Ondorioz, azalera handien ekonomia-hedapena dela-eta, hiriguneko merkataritza-establezimenduak krisian sartzen dira, horiek ez baitira hain modernoak eta, horrez gain, ezin baitute marka handiekin eta frankiziekin lehiatu.
- Hirigunea hustu eta kaleak bertako biztanleriaren elkarbizitza-gunetzat duen balioa desagertu egiten da.

BIDE, PORTU ETA AIREPORTU AZPIEGITUREN LURRALDE IRAUNKORTASUNA

- ***Aspalditik datorren antolamendu arazoa, bai eta motorizazioa sustatzeko azpiegitura berrien arazoa ere; arazo horiek, hain zuzen, barrualdeko bide-azpiegitura berriekin eta kanpoaldearekin lotzen dutenekin konpontzen saiatzen dira***

Hondarribiari zerbitzuak ematen dizkieten bide-azpiegituretako ezaugarri nagusiak honako hauetan oinarritzen dira: alde batetik, barrualdeko bide-sareak ezin du hiri-zirkulazioa bereganatu, eta, bestetik, portu- eta aisialdi-lurretarako sarbideek (kirol-portua, hondartza) Portua gehiegi kargatzen dute. Campiñako bide-sarearen formak eta eremu horren gauzapen anarkikoak ibilbide alternatiboen erabilera zaildu du. Iraunkortasunaren ikuspegitik, arazo horren jatorrietako bat autoan oinarritutako mugikortasuna da, argi eta garbi, bai eta lurralde-antolamendua bera ere, ibilgailuen erakarpen-guneak (aparkalekuak) bultzatzen ez dituenez, horiek hiriguneetatik pasatzera behartzen dituena. Bi arazo horiek nabarmenak dira Hondarribian, eta horien

eragina gero eta handiagoa da; hain zuzen, hondartza-ingurua aisialdirako eta aparkalekurako eremu nagusi bihurtzen ari da.

Hori konpontzeko, beraz, erdigunea arintzea erabaki da, bide alternatibo bat eginez; aukera hori, hain zuzen, Arau Subsidiarioetan aipatu zen, eta, dagoeneko, faseetan eraikitzen ari dira. 2005eko ekainean, jendaurrean jarri zuten bidearen azken zatia, eta lanei urte honen amaieran edo 2006ko hasieran ekitea espero da.

Kanpoarekin lotzeari dagokionez, orain arteko bilakaeran Irunekin eta N-1 errepidearekin eta A-8 autobidearekin lotzeko ahalegina nabari da. Azken hori irekitzeak eragin zuen, hain zuzen, Hondarribiko egungo sozio-ekonomiako egoera, eta bizitegi-eta aisialdi-erabileraren garrantzia indartu zuen. Eredu hori indartzeak eta motorizazioa handitzeak defizit-egoera iraunkorra eragin du azpiegituretan, nahiz eta gai horretan jarduketak egin. Horri dagokionez, egungo N-638 bikoiztea eta hori Irun iparraldeko saihesbidearekin lotzea (Plaiaundi aldetik) aurreikusi dira. Era berean, N-1 errepidea zabaltzeko asmoa dago (Jaitzubiko haranean), bai eta eskualdeko ospitalearen eremuan bi mailako biribilgunea egiteko ere. Aurrerapen gehiago egin dira N-1 errepidea Errenteriaraino handitzeko (eta Lezo parean trazadura berria egiteko) lanetan.

Esku-hartze horien eraginez, epe laburrera gutxitu egingo da zirkulazioan egun dagoen saturazioa eta Portuko barne-zirkulazioa. Hala ere, bide azkarragoak izateak zirkulazioa bultza dezake; faktore horrek, hain zuzen, garatzen ari diren beste elementu batzuekin batera (ibilgailu-parkea, hiri-bilakaera, bisitariak erakartzeko gaitasuna, pasadako zirkulazioa eta herriko sarrera eta irteera) beste jarduketa batzuk egiteko premia eragin dezake, bai epe ertainera, bai epe luzera. Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinak ere ildo berari jarraitzen dio; hain zuzen, proposamen horiek bertan jaso dira. Euskotrenen sarea hondartzaraino luzatzeko udalak egindako proposamena, bestalde, aldekoa da, honako alderdi hauek kontuan hartuta.

- ***Arrantza-instalazioak, leku berean bilduak***

Instalazioak handitzean, lehen leku desberdinetan zeuden arrantza-jarduerak bateratzea lortu da; horrela, zentralitate-baldintza bikainak dituen eremu bat berreskuratu ahal izan da, Arau Subsidiarioen arabera. Era berean, hirigintza-ikuspegitik, estuario-ertzeko oinezkoentzako bidean dagoen etena (Butroi eta Bidasoa pasealekuen artekoa) konpon daiteke; izan ere, ontzitegiak oraindik hor jarraitzen du, eta Kai Zaharreko lanak ere egiteke daude.

Hegoaldeko dikea eraikitzearen beste helburuetako bat kaian sortutako hondakinak hondartzara ez pasatzea zen. Horri dagokionez lortu diren emaitzak aztertzeko ez dago informazioarik.

- ***Jarduerak kirol-portuan bildu dira, baina ez du bere hasierako helburuetako bat lortu: badiako amarratzeak ordenatzea***

Hondartzaren goiko aldean jartzea beste aukera batzuk aztertu ondoren erabaki zen, besteak beste: Puntalean eta babes-portuaren eta hondartzaren arteko zatian. Hondarribiko kirol-portuak ingurumenean duen inpaktuari buruzko azterketaren arabera, hautatutako aukerak bere abantailak zituen: lurretik eta itsasotik sarbide erraza izatea, ontziak hondartza-eremutik urrunduz ordenatzea, eta Txingudiko Badiatik behar bezain urrun egotea. Eragozpenen artean, berriz, hauek aipatu behar dira: alde batetik, kai-muturreko etena (neurri batean, itsas pasealekuarekin eta oinezkoentzako pasealekuarekin konpentsatu zuten eta, azkenean, ontzat eman zen hori egin ez izana), eta bestetik, hondartzaren goiko aldearen zati handi bat okupatzea (hain zuzen, dragatzeetako hondarrak botata hondartza handitu zuten, eta, horrela, oztopo hura konpentsatu zuten).

Estuarioko okupazioa gutxitzeari dagokionez, ez da lortu aztertutako ontzi-kopurua gutxitzea; "Hondarribiko Kirol-portuko sozio-ekonomiako eskaera, kudeaketa eta eragina" azterketaren arabera, 630 ontzi zeuden 1992an: 325, klub nautikoan; 135, Butroi pasealekuan; 60, Puntalean eta 110 Santa Engrazian. Kirol-portuan, ordea, aurrez Klub nautikoan eta badiako beste gune batzuetan zeuden beste 300 ontzi sar zitezkeen. Hala ere, egun, ontzi ugari ikus daitezke aingura botata, eta, gainera, 267 ontzi daude itxaronzerrendan.

Leku-eskaera horrez gain, beste era bateko eskaera dagoela pentsa daiteke, kirol-portuaren erabilera bultzatzen ez duena, hain zuzen; horrez gain, portua bera jarduera hori bultzatzeko faktore izan daiteke. Beteranoen eremuan, 245 leku berri jarri eta instalazioa handitzea aurreikusi zen, eta hori, seguru asko, epe laburrean beteko da; baina, horrek ere ez du balioko badian erabilera hori gutxitzeko. Dirudienez, era horretako neurriak oraindik ez dira nahikoa arazo hori konpontzeko, eta, beraz, beharrezkoa izango da beste era bateko jarduketak bultzatzea.

- ***Aireportuak, berriz, iraunkortasunaren aurkako faktoreak ditu, baina zaila da lehenera ekartzea***

34,3 Ha-ko azalera betetzen du, eta, laborantza-gune baten gainean dago (garai batean, padurak ziren). Eremu hori betetzeaz gain, aireportu-inguruan zortasunak daude, eraikuntzak egiteko. Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, horiek onartu ziren unean (1997) zeuden instalazioak sendotu dira. Iraunkortasunaren ikuspegitik, toki heze bat okupatzea eta betetzea eta inguruko biztanleei trabak sortzea ez dira faktore mesedegarriak. Horrez gain, ordea, positiboagoak diren beste zenbait elementu aurki daitezke, besteak beste, eremu hori sekula gehiago ez okupatzea (jakina denez, kasu horretan eraikuntza-presioak izango ziren) eta garapena moteltzea (aireko zortasunak neurri murriztailetzat ezartzearen ondorioz).

Plan Zuzentzailea onartzean, egoera nabarmen aldatu zen, eta ondorioak handitu egin ziren; izan ere, hori lortzeko, hiri-eremu hurbilean aldaketa handiak egin behar ziren eta estuarioko natura-eremuak gehiago bete behar ziren. Baina Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailearen onespenarekin (uztailak 13ko FOM/2017/2006 ordenarekin), aurreko plana bertan behera gelditzen da eta neurri berdinak mantentzen dira aireportuan. Honela, egoera berdin mantenduko da kanpora begira eta egungo "oreka" ete gabe; hori, hain zuzen, onargarria izan daiteke iraunkortasunari dagokionez bere egoera egokiena berreskuratzeko: hau da, estuarioaren beste zati bat izatea.

2007ko urtarrilaren 22an Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia-San Sebastián, Irun eta Hondarribiko Udalek eta Gipuzkoako Bazkundeak Ortzibia, S.L. elkartea osatzen dute, aireportuaren hobekuntza eta modernizaziorako ekintzak aurrera eraman eta aireportua sustatzeko asmoarekin. Elkartea osatu ondoren, Administrazio Kontseilua osatzen duten 11 ordezkari izendatu zituzten: Eusko Jaurlaritzak aukeratutako hiru kide, Diputazioak aukeratutako hiru kide, beste bi kide Gipuzkoako Bazkundeak aukeratuta eta beste hiru udal bakoitzak aukeratuta.

2007ko azaroan Hondarribiko Udal Plenoak, aho batez, aireportuaren handitze lanen aurkako jarrera azaldu zuen Udaletxeko Kapitulu-Gelan izandako Pleno monografiko batean.

LURRAREN OKUPAZIO OSOAREN AUKERAK, UDALAZ GAINDIKO IKUSPEGITIK. BILAKAERAREN BESTE PAUSO BAT

- ***Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldera eta Donostialdera zabaldutako hiri-eremurantz***

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko funtzio-eremuaren hiri-bilakaera hirigune (Donostia, Irun, Errenteria, Hernani...) eta jarduera-gune (Pasaiako portua, muga) nagusien ingurura mugatu zen, hasiera batean; poliki-poliki, ordea, komunikazio-korridoreetara hedatuz joan da. Topografiari dagokionez, inguru hori ez da Gipuzkoako gainerako eremuak bezain gogorra; horregatik, eremu horretan egin berri diren garapenek haraneko muga guztiak gainditu eta hiri-korridore erdi jarraitua osatu dute. Korridore horrek, hain zuzen, konurbazio-ezaugarriak ditu, kosta-ertzaren paralelo doan barne-lerroan.

Hori dela-eta, Hondarribia hiri jarraitu batean dago, eta, bertan, ez dira ondo bereizten Hondarribiko, Irungo eta Hendaiako mugak; gainera, hiri-bilbe hori Baionatik Donostiaraino heda daiteke. Antolamendu-dokumentuetako aurreikuspenetan, halaber, hirigunea hazteko eta integratzeko eredu hori indartu da, eta orain arte libre egon diren zirrikitu-eremuak bete eta hiriguneak topografia txikiagoko eremuetara (batez ere, nekazaritza-lurretara) zabaldu dira.

Udalaz gaindiko plangintza-dokumentuak EAEko Lurraldea Antolatzeko Artezpideak dira, eta horien baitan kokatzen da lurralde-bilakaera; esparru hori, hain zuzen, neurri txikiagoan hautematen da Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialean eta Lurraldearen Arloko Planetan (antolamendu-artezpien mendean daudenak). Beste esparru- eta ahalmen-maila batean, Baiona-Donostia Euro-hiriaren prozesuak bilakaera-ereduari buruzko beste ikuspegi oso bat ematen du.

Plangintza horrez gain, beste ekimen batzuk sortzen ari dira, eta horiek, gainera, zehaztutako eremuak gainditu dituzte. Hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako eta Sustapenerako Departamenduak sustatutako Jarduketa Plan Integralak eta Lurralde Antolamenduari buruzko Eskema Gidatzaileak ahalegina egin dute egun Jaizkibelgo Korridore Intermodala deitzen zaion eremurako aurreikusitako azpiegituren hainbat proposamen kontuan hartzeko.

- ***Garraioarekin zerikusia duten azpiegiturak ezartzeko ekimen ugari gauzatzea, eta Jaizkibelgo Korridore Intermodala eta Jaizkibia SA osatzea. Hondarribitik eskatutako bost proposamen.***

Orain arte, garraio-sektorearen bilakaera Behobia inguruko lurraldean gauzatu da; baina, orain, heltze-maila desberdineko hainbat proposamen lantzen ari dira, eta horiek aldaketa handiak eragin ditzakete egun ezagutzen dugun Bidasoa-Txingudi eskualdean.

Pasaia-Irun ardatzean (eremu handiago baten baitan sartzen dena), hainbat forok (Pasaialdeko Erakunde-arteko Batzordeak, Jaizkibia Sak) bultzatuta, zenbait jarduketaren zirriborroak egiten ari dira, hainbat arloko planetan (Garraioaren Sare Intermodalaren eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerakina eta Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana) eta eremu-planetan (Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerakina).

Orain, Jaizkibelgo Korridore Intermodala deitzen zaion osotasun horren ezaugarri garrantzitsuenak trenbide-azpiegiturak eta Pasaiako portuaren kanpo-hedapena, logistika-plataformak eta bide-azpiegituretako sendogarriak dira.

Trenbide-sareari dagokionez, aurreikuspenak abiadura handiko euskal Y-arekin (merkantziak nahiz bidaiariak garraiatuko dituena) daude lotuta, batez ere. Bestalde, geltoki intermodalak egiteko hiru proposamen daude: Euskomodala (Bentetatik Hendaiara doan egungo trenbide-eremuan kokatua eta 100 ha betetzen dituena) eta Araso, Irunen, eta Larramon, Lezo-Gaintxurizketan. Alternatiba horien eraginez, hasierako aukerak birplanteatu eta horien osagarritasunak bilatu dira.

Logistika-plataformei dagokienez, ZAISAn daudenez gain, egun Lanbarren eremuan (Oiartzun; 50 Ha-ko hedadura) eraikitzen ari direna eta Gaintxurizketan aurreikusitakoa aipatu behar dira. Sare Intermodalaren Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerakinean, 100 Ha-ko plataforma intermodala aipatu da Bidasoarako (kokaleku zehatzik zehaztu gabe); gutxi gorabehera, Biriatu-inguruan eta Irun eta Hondarribi udalerrietan. Aurrerakin horretan, bestalde, 50 ha-ko logistika-jarduerak gauzatzeko eremua (ZAL) aipatu da, Pasaiako portuari laguntza emateko; hori, hain zuzen, Lezo, Pasaia, Oiartzunen eta Errenterian egin beharko litzateke.

Errepideei dagokienez, eremu horiek Lezon egingo den N-1 errepidearen bide-zatiarekin lotzea aurreikusi da; zati horrek lau bide izango ditu, eta Iruneraino

iritsiko da. Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakineko Eredu Alternatiboan ere A-8 autobidearen beste saihesbide bat proposatu da, hegoaldetik; horrela, A-8 autobidea metropoliko ardatz banatzaile bihurtuko litzateke, garapen berriei lotua.

Bestalde, Hondarribiak dagoeneko adostu du plana kudeatuko duen sozietatearen (Jaizkibia SA) kapitalaren bere zatia. Horrez gain, Jarduketa Plan Integralean bost proposamen sartzeko eskatu da: Euskotrenen linea Hondarribiraino (hondartzaraino) luzatzea, N-1 errepidea bitan banatzea, Zubietako enpresa-parkea sortzea, Zaldunbordan industria-eremu bat eraikitzea eta Justizen golf-zelai publiko bat egitea.

2.9. Hondarribiko Lurralde Antolamendua, iraunkortasunaren ikuspegitik. Laburpena

21. koadroa

Hondarribiko hirigintza-ereduaren bilakaera
• XIX. Mendeko bigarren erditik aurrera, hiria zabaldu egin zen; zabaltze hori, besteak beste, sarbideak hobetzeak eta udalerria aisialdirako eta uda-garaiko gunetzat espezializatzeak eragin zuten. Azken hori izan da, hain zuzen, udalerrian gerora izan den bilakaeraren ezaugarri. • 1915-1955 aldian, hazkundea moteldu egin zen. Etxe batean sartzeko sustapen publikoko lehenengo ekimenak egin ziren. • 1956tik, eraldaketa handiak izan ziren hirigintzan; hedapen handiko plangintza-tresnak onartu ziren, baina horiek ez ziren oso eraginkorrak izan antolakuntzarako. • Indarrean dauden Arau Subsidiarioen diagnosia (1995): bizitegi-espezializazioa, espekulazio-merkatua eta baliabide gutxien dituzten pertsonek udalerria uztea.
Hiri-lurren erabilerak
• Bizitegi-lurrak dira nagusi, eta, gainera, gehienak dentsitate txikiko tipologian sartzen dira; hori ez dator bat jatorrizko hirigunearekin. • Indarrean dagoen plangintzaren diagnositik ondorioztatutako helburua: garapena lurralde-edukieraren eta tokiko biztanleriak dituen premien mendean jartzea. • Plangintzako esku-hartzeko proposamenak: dentsitate ertaineko etxebizitza gehiago egitea, baina, horiez gain, dentsitate txikikoak ere ugaritu egin ziren • Benetako garapena: 1996-2004 bitartean, 1.267 etxebizitza egin ziren, eta horietatik %30 sustapen publikokoak.
Etxebizitza-parkea eta horren eragina lurraldean
• Etxebizitza-parkea hazi egin zen, eta etxebizitza bakoitzeko okupazio-tasan beherakada handia gertatu zen. • Bizitegi-lurren kontsumo-faktoreen portaera; izan ere, 2018rako baliabide guztiak agortu daitezke, biztanleria hazkunde-maila txikietan mantendu arren.

Berdeguneak eta estandarren betetze-maila
• Inguruaren kalitateak eta etxebizitza-dentsitate txikiak hornidura-estandarrak ez betetzea arintzen dute.
Ekonomia-jardueretarako lurra
• Tokiko industria-lurrak eta enpresa-parkea; plangintza-helburuak. • Helburuak birplanteatu egin dira; batez ere, ohiko jarduerak garatzeko lurrak bultzatu dira, eta, horretarako, Jaizkibelgo Korridore Intermodala hartu da oinarri (2005etik, udalerri bakarra sartu da). • Tokiko merkataritza-sektorearen egitura txikia dago, eta horiek ekipamendu handien eta horiek bultzatzen duten ereduaren eragina nabaritzen dute.
Bideetako, portuetako eta aireportuetako azpiegituren lurralde-iraunkortasuna
• Lehenagotik datozen arazoak eta motorizazioa eragiten duten ezarpen berriek sortutakoak; arazo horiek konpontzeko, hasiera batean, hiri-barneko bide-azpiegitura berriak eta kanpoaldearekin elkartzeko lotura berriak egin behar dira • Arrantza-instalazioak, lurraldeari dagokionez, bilduta daude. • Kirol-portuak jarduera bateratu du, baina ez du lortu badiako amarratzeak ordenatzea; hori zen, gainera, bere helburu nagusietako bat. • Aireportuan nabariak dira iraunkortasun-faltaren faktoreak, baina oso zaila da hasierako egoerara itzultzea. • Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailearen onespenarekin (uztailak 13ko FOM/2017/2006 ordenarekin), aurreko plana bertan behera gelditzen da eta neurri berdinak mantentzen dira aireportuan • 2007ko urtarrilaren 22an Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia-San Sebastián, Irun eta Hondarribiko Udalek eta Gipuzkoako Bazkundeak Ortzibia, S.L. elkartea osatzen dute, aireportuaren hobekuntza eta modernizaziorako ekintzak aurrera eraman eta aireportua sustatzeko asmoarekin. Elkartea osatu ondoren, Administrazio Kontseilua osatzen duten 11 ordezkari izendatu zituzten: Eusko Jaurlaritzak aukeratutako hiru kide, Diputazioak aukeratutako hiru kide, beste bi kide Gipuzkoako Bazkundeak aukeratuta eta beste hiru udal bakoitzak aukeratuta. • 2007ko azaroan Hondarribiko Udal Plenoak, aho batez, aireportuaren handitze lanen aurkako jarrera azaldu zuen Udaletxeko Kapitulu-Gelan izandako Pleno monografiko batean.

•
Aurreikusi den lurzoruaren erabateko okupazioa, udalaz gaindiko ikuspegitik. Pauso kualitatibo bat
• Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldera eta Donostialdera zabaldutako hiri-eremurantz • Garraioari lotutako azpiegiturak jartzeko ekimen ugari egin dira; horretarako, Jaizkibelgo Korridore Intermodala eta Jaizkibia SA sortuko dira. Hondarribian egindako bost proposamen.

3. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

3. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

3.1. Pertsonen mugikortasuna

3.1.1. Motorizazioa

Hondarribiko motorizazio maila urtez urte handituz joan da 2005 urtera arte. Igoera hau ibilgailu guztietan antzeman daiteke, jarraian agertzen den grafikoan ikus daitekeen bezala:

14. Taula. MOTORIZAZIO TASAREN EBOLUZIOA (1996-2005)

	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Turismoak	5.193	5.364	5.596	5.804	6.011	6.274	6.400	6.533	6.805	6.897
Motorrak	760	769	797	825	853	868	908	925	973	1028
Kamioiak	761	808	852	898	943	978	1.018	1.063	1153	1220
Autobusak	19	18	17	15	12	11	11	12	12	12
Industria-traktoreak	41	37	31	46	61	68	66	64	72	65
Bestelakoak	92	88	85	95	105	126	136	153	175	192
Guztira	6.866	7.084	7.378	7.682	7.985	8.325	8.539	8.750	9190	9.468

Iturria: Eustat

Ondorengo grafikoetan ere, argi ikus daiteke aurrez aipaturiko egoera. Hau da, motozikleta , kamioi eta furgoneta parkeak etengabeko hazkundea izan duela.

41. Grafikoa. MOTORIZAZIO TASAREN EBOLUZIOA. TURISMOA (1996-2005)



Iturria: Geuk egina Eustateko datuak oinarritzat hartuz

42. Grafikoa. MOTORIZAZIO TASAREN EBOLUZIOA. GAINERAKO IBILGAILUAK (1996-2005)



Iturria: Guk egina Eustateko datuak oinarritzat hartuz

2001etik aurrera, 100 biztanleetatik turismoa dutenen ratioa 41en gainetik aurkitzen da. Eskuratutako azken datuak 43,2an kokatzen du ratioa. Era berean, Hondarribiak duen motor kopurua altua dela ondorioztatzen da, batez ere Irungo datuekin alderatzen bada.

43. Grafikoa. 100 BIZTANLEKO IBILGAILU RATIOA (1996-2005)



Iturria: Guk egina Eustateko datuak oinarritzat hartuz

Era berean, Udalmap adierazle sistematik ateratako datuek ibilgailu parkea handituz joan dela baieztatzen dute. Eskuratutako azken datuen arabera, igoera honakoa izan da:

141. taula. IBILGAILU PARKEAREN EBOLUZIOA (2003-2005)

Adierazlea	Urtea	Datua
Ibilgailu-parkea	2005	0,59 (ibil./bizt.)
	2004	0,58 (ibil./bizt.)
	2003	0,56 (ibil./bizt.)

Iturria: Bidasoa Activa – Bidasoa Bizirikek erraztutako Udalmapeko datuak

3.1.2. Aparkalekuak

Hondarribian dauden aparkaleku kopuruari dagokionez, Udalaren arabera 6.000 dira, ibien kopurua kontuan hartu gabe. Aparkaleku horien banaketa, ezaugarrien arabera, honako hau da:

Kalean:

- Ordainduta: 2.600
- Doan: 3.400
- Ibiak: 1.007 Ez da zehazten ibi horiek zenbat autorentzako lekua duten.

Udalak 2004. urterako emandako datu horien arabera, badirudi aparkaleku-superabita dagoela; izan ere, horiek bakarrik kontuan hartuta, auto baino aparkaleku gehiago dago. Dena dela, ondorio hori ateratzeko, aparkalekuen berariazko azterketa egitea beharrezkoa litzateke; banaketa modu horretan eginda, zonalde batzuetan aparkaleku asko egon baitaiteke eta beste batzuetan oso gutxi, edo aparkaleku-arazoak uda partean bakarrik egon litezke, nahiz eta aparkatzeko leku asko egon, edo ordu-garaiaren arabera desberdintasun asko egon daitezke aparkatzerakoan. Eta hori bera da Herritarren Hautemate-inkestan islatu dena, herritarrek adierazi baitzuten arazo nagusietako bat trafikoa eta aparkalekua direla.

142. Taula. HERRITARREN PERTZEPZIO INKESTAKO EMAITZA BATZUK

	1.Aipamena	2.Aipamena	3.Aipamena
Trafikoa/Aparkalekia	%12,8	%6,0	%1,2
Etxebizitza	%12,8	%3,2	%0,0
Garraio publikoa	%9,2	%4,8	%0,4
Azpiegiturak	%10,8	%2,8	%0,8
Kultura eskaintza, aisia	%4,4	%4,8	%1,2
Lana	%4,0	%4,8	%0,4
Bigilantzia gehiago, hiri-segurtasuna	%2,8	%2,4	%0,8
Zarata	%2,4	%1,2	%0,4
Orokorrean prezio altuak	%2,4	%1,2	%0,4
Beharra dutei laguntza	%2,8	%0,4	%0,4
Ongi dago, ezer ez	%2,4	%0,0	%0,0
Garbitasuna	%1,6	%0,4	%0,0
Errausgailua ez eraikitzea	%1,2	%0,0	%0,0
Bestelakoak	%19,2	%11,6	%8,4
ED/EG	%11,2	%56,4	%85,6

Iturria: Herritarren pertzepzio inkesta 2005

Arazo hori nabarmenagoa da Puntalea, Alde Zaharra eta Amute-Kosta auzoetan, %20k baino gehiagok adierazi baitzuten hori zela arazo nagusietako bat.

3.1.3. Mugikortasunaren ezaugarriak

Oro har, banakako mugikortasuna dezente hazi dela esan behar da, eta eguneroko desplazamendu-kopurua gero eta handiago da. Hondarribiari dagokionez, 2,4 desplazamendu inguru egiten dira pertsonako eta eguneko; 5 minutuko iraupena baino gehiagokoak hartzen dira desplazamendutzat.

Atal honen helburua desplazamendu horiek ohiko parametroen arabera deskribatzea da; hau da, arrazoia, modua eta helmuga kontuan hartuta. Informazio hori Eusko Jaurlaritzak 2003an egindako Mugikortasun Inkestatik eta Agenda 21 esparruaren barruan egindako herritarren hautemate-inkestatik aterata dago.

3.1.3.1. Desplazamenduen banaketa modala

Hondarribian ematen diren desplazamenduek zein helmuga duten jakitea zaila izan arren, 2007ko EAEko Mugikortasun Azterketan jasotzen diren eskualdeko datuak har daitezke hurbilketa bat egiteko:

143. Taula. BIDASOA BEHEA JATORRI DUTEN DESPLAZAMENDUEN HELMUGA (2007)

Jatorria: Bidasoa Behea eskualdea

Helmuga	Desplazamendu kop.	%
Vitoria Gasteiz	296	0,17
Arabazo ibarrak	178	0,10
ARABA GUZTIRA	474	0,27
Enkarterriak	119	0,07
Bilbao	641	0,37
BIZKAIA GUZTIRA	760	0,44
Deba Garaia	249	0,14
Bidasoa Behea – barnekaldea	139.052	**79,66**
Donostia	15.062	8,63
Donostialdea	10.868	6,23

Goierri	343	0,20
Tolosaldea	1.093	0,63
Urola Kosta	790	0,45
GIPUZKOA GUZTIRA	167.457	95,93
EAEtik KANPO	5.865	3,36

Iturria: Guk egina 2007ko EAEko Mugikortasun Azterketan oinarrituz

43. Grafikoa
DESPLAZAMENDUEN BANAKETA OROKORRA BIDASOA BEHETIK EAEKO PUNTU EZBERDINETARA (2007)



Iturria: Guk egina 2007ko EAEko Mugikortasun Azterketa oinarritzat hartuz

44. Grafikoa

DESPLAZAMENDU GEHIENEN BANAKETA (2007)



Iturria: Guk egina 2007ko EAEko Mugikortasun Azterketa oinarritzat hartuz

Lehen grafikoan ikus daitekeen bezala, desplazamendua gehienak probintzia barruan ematen dira (%95,93). Gainera, bigarren grafikoari erreparatuz, desplazamendu portzentaia altu honetatik, barrukoak (eskualde beraren barnekoak) gehiengoa osatzen dutela ikus daiteke (%79,66). Jarraian, portzentaia txikiagoan, Donostiarako desplazamenduak (%8,63) eta Donostialderako desplazamenduak (%6,23) daude.

3.1.3.2. Arrazoia eta helmuga

Hondarribiko udalerrirako egindako Mugikortasun Inkestan islatzen diren desplazamenduak ondorengo grafikoan ikus daitezke. Grafikoa fidagarriagoa izateko, "etxera bueltatzea" arrazoia ez da kontuan hartu, gutxi gorabehera desplazamendu-kopuruen erdia hartzen baitu:

45. grafikoa. Desplazatzeko arrazoiak



Iturria: 2003ko Mugikortasun Inkesta. Eusko Jaurlaritza. Geuk egina.

Lanarekin erlazioa duten desplazamenduak ugarienak dira (%47). Jarraian desplazatzeko modu bakoitzaren ezaugarriak azalduko ditugu:

***Lanarekin erlazionatutako desplazamenduak*:**

a) Lan arrazoiengatik desplazatzen diren pertsonen adina:

46. Grafikoa



Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

Grafikoan ikus daitekeen bezala, lan arrazoiengatik desplazatzen diren pertsona gehienek 30 eta 49 urte bitartean dituzte.

b) Asteko desplazatutako egun kopurua, eguneko bidaien batezbestekoa, bidaiaren batezbesteko iraupena eta lan arrazoiengatik egindako batezbesteko distantzia:

144. Taula

Asteko desplazatutako egun kopurua	**5** egun
Eguneko batezbesteko bidaiak	**2,5** bidai
Bidaiaren batezbesteko iraupena	**17,1** minutu
Egindako batezbesteko distantzia	**12'703** Km.

Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

c) Lanera joateko erabilitako garraio mota:

47. Grafikoa
LANERA JOATEKO ERABILITAKO GARRAIO MOTA. HONDARRIBIA (2005)



Iturria: Herritarren pertzepzio inkesta 2005

Autoa da zalantzarik gabe, beste aukeren gainetik, lanera joateko gehien erabiltzen den ibilgailua(%63,7). Era berean, azpimarragarria da garraio publikoak duen erabilera urria, trenarekin batera %8 baino gutxiago erabiltzen baita (egiten duen distantzia kontuan hartuta, autoa eta motoarekin lehian ibiltzen den garraio aukera da). Potentzialak diren beste bi aukera lehiakorren artean (oinez edo bizikletaz mugitzea), lanera joateko garaian %18,6a oinez joaten da eta %1,8a bizikletaz.

d) Desplazamenduak helmuga duen herria:

145. Taula

UDALERRIA	ABSOLUTUAK	PORTZENTAIA
Irun	39	%54,9
Donostia	16	%22,5
Errenteria	2	%2,8
Zumarraga	2	%2,8

Oiartzun	2	%2,8
Andoain	2	%2,8
Vitoria-Gasteiz	1	%1,4
Zaldibia	1	%1,4
Hernani	1	%1,4
Hossegur	1	%1,4
Donibane Lohizune	1	%1,4
Iparralde guztian egiten du lan	1	%1,4
Astigarraga	1	%1,4
Tolosa	1	%1,4

Iturria: Herritarren pertzepzio inkesta 2005

Taulan ikus daitekeen bezala, laneko desplazamendu gehienak Irunerantz egiten dira (%54,9) eta ondoren Donostiara (%22,5). Hondarribiako biztanleak askoz gutxiagotan joaten dira gainerako herrietara.

Ikasketekin erlazionatutako desplazamenduak

a) Ikasketengatik desplazatzen diren pertsonen adina:

48. Grafikoa. Ikasketengatik desplazatzen diren pertsonen adina



Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

Espero bezala, ikasketengatik desplazatzen diren pertsonak 18 eta 29 adin tartean kokatzen dira (unibertsitatea, L.H., etab.). Hala ere, harrigarria da 40-49 eta 50-59 adin tartean aurkitzen direnek 30-39 adin tartekoek baino portzentaia altuago agertzea. Langabetuentzako ikastaroak eta esperientzia gelak (55 urtez gorakoentzat) izan daiteke honen arrazoi nagusia.

b) Asteko desplazatutako egun kopurua, eguneko bidaien batezbestekoa, bidaiaren batezbesteko iraupena eta ikasketengatik egindako batezbesteko distantzia:

146. Taula

Asteko desplazatutako egun kopurua	**4,3** egun
Eguneko bidaien batezbestekoa	**2** bidai
Bidaiaren batezbesteko iraupena	**28,5** minutu
Egindako batezbesteko distantzia	**13** Km.

Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

c) Ikastera joateko erabilitako garraio mota:

49. Grafikoa
IKASTERA JOATEKO ERABILITAKO GARRAIO MOTA. HONDARRIBIA (2005)



Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Kasu honetan ere desplazatzeko modu erabiliena autoa izaten jarraitzen badu ere (%40), bestelako garraio moten erabilpenean ezberdintasun nabaria ikusten da; garraio moten konbinazioa %25, autobusa %15, bizikleta %10 eta bai oinez zein motoz %5. Hala ere, kontuan hartu behar da, ikasleen baldintza ekonomikoak langileenak baino baxuagoak direla, eta hortaz, nahiz eta portzentaia txikiagoa izan, funtsean autoaren erabilpena oso altua dela sektore honetan ere.

d) Desplazamenduak helmuga duen herria:

147. Taula

UDALERRIA	ABSOLUTUAK	PORTZENTAIA
Donostia	12	%75,0
Irun	4	%25,0

Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Unibertsitate, eta oro har, formazio eskaintza zabalagoa dela eta, ikasketek Hondarribiko biztanleak Donostiarantz mugiarazten ditu (%75). Gainerako %25a Irunera desplazatzen da, azpiegitura mailan behintzat Bidasoa – Txingudi eskualdeko hiri osatuagoa baita.

Erosketekin erlazionatutako desplazamenduak

a) Erosketengatik desplazatzen diren pertsonen adina:

50. Taula. Erosketengatik desplazatzen diren pertsonen adina



Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

Erosketak egiteko desplazatzen direnen %25,4a 50-59 urte artean aurkitzen dira, %19,4a 40-49 urte artean eta %19,4a 70etik gora. Azken bi talde hauek ziurrenik etxekoandreek osatzen dute. Bestalde, 18-29 urte bitartekoen %3,7a baino ez da erosketatara desplazatzen, gurasoen etxetik joan ez direlako edo etxean egonda erosketarik ez dutelako egiten.

b) Asteko desplazatutako egun kopurua, eguneko bidaien batezbestekoa, bidaiaren batezbesteko iraupena eta erostera joaterakoan egindako batezbesteko distantzia:

148. Taula

Asteko desplazatutako egun kopurua	**4,5** egun
Eguneko bidaien batezbestekoa	**2** bidai
Bidaiaren batezbesteko iraupena	**6,8** minutu
Egindako batezbesteko distantzia	**1,155** Km.

Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

c) Erostera joateko erabilitako garraio mota:

51. Grafikoa
EROSKETETARA JOATEKO ERABILITAKO GARRAIO MOTA.
HONDARRIBIA (2005)



Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Aurreko *desplazamenduaren iraupena eta asteko desplazatutako egun kopuruak* Ikusten den bezala, erosketa gehienak txikiak dira eta udalerrian bertan egiten dira. Horren adierazgarri da erosketen %70,9a oinez egiten dela. Atzetik autoz egindako erosketak datoz %24,6arekin, ziurrenik erosketa handiak eta etxera bueltan autoa aparkatzeko tokia eskatzen dutenak. Gainerakoek, alegia, motoak garraio publikoak edo mota ezberdinen arteko konbinazioak erosketetarako duten baliagarritasuna txikia dela adierazten dute datuek, bai dendaz denda joateko aukerarik ematen ez duelako (erosketa txikien kasuan) edo zama handiak garraiatzeko lekurik ez duelako (erosketa handietarako).

d) Desplazamenduak helmuga duen herria:

149. Taula

UDALERRIA	ABSOLUTUAK	PORTZENTAIA
Irun	14	%87,5
Errenteria	1	%6,3
Donostia	1	%6,3

Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Taulan antzeman daitekeenez, Hondarribitik kanpora erosketak egitera joateko Irun da herririk hautatuena %87,5 batekin. Izan ere, denda mota eta kopuruari dagokionez, Irun ez da gehiegi desberdintzen Donostiatik.

Haurrak eramatearekin erlazionatutako desplazamenduak

a) Haurrak eramateko desplazatzen diren pertsonen adina:

52. Grafikoa. Haurrak eramateko desplazatzen diren pertsonen adina



Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

30-39 adin tartekoak, %47,2arekin, haurrak eramateko desplazamendu gehien egiten dituztenak dira. Jarraian, %25arekin, 40-49 adin tartekoak

agertzen dira, batez ere haurrak eskolara edo bestelako jardueretara eramaten dituzten gurasoez osatua (adin tarte horrek haur txikiak dituzten gurasoak direla adierazten du).

b) Asteko desplazatutako egun kopurua, eguneko bidaien batezbestekoa, bidaiaren batezbesteko iraupena eta haurrak eramaterakoan egindako batezbesteko distantzia:

150. Taula

Asteko desplazatutako egun kopurua	**4,3** egun
Eguneko bidaien batezbestekoa	**2,1** bidai
Bidaiaren batezbesteko iraupena	**8,7** minutu
Egindako batezbesteko distantzia	**1,893** Km.

Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

c) Erostera joateko erabilitako garraio mota:

53. Grafikoa

HAURRAK ERAMATEKO ERABILITAKO GARRAIO MOTA. HONDARRIBIA (2005)



Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Kasu honetan, haurrak eramateko autoz eta oinez egindako desplazamenduen ehunekoa berdina da, ziurrenik eskualdeak eskola, ikastola, eta abarren eskaintza zabala dela-eta.

d) Desplazamenduak helmuga duen herria:

151. Taula

UDALERRIA	ABSOLUTUAK	PORTZENTAIA
Hendaia	2	%40,0
Irun	2	%40,0
Frantziar eremua	1	%20,0

Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Irun eta Hendaiaren kasuan, desplazamenduen banaketa berdina da, hau da, bakoitzak desplazamenduen %40a erakartzen du. Arrazoien artean, hurbiltasuna eta auzoko hizkuntza ikasteko aukera egon daitezke.

Aisialdiarekin erlazionatutako desplazamenduak

a) Aisialdirako desplazatzen diren pertsonen adina:

54. Grafikoa. Aisialdirako desplazatzen diren pertsonen adina



Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

Grafikoan ikus daitekeen bezala, ez dago adin tarte nagusirik. 50-59 urte bitarteko multzoa da aisialdirako desplazamendu gehien egiten dituena (%22). Hurbil daude 18-29 eta 40-49 adin tartea osatzen dutenek, bakoitza %20,7arekin.

b) Asteko desplazatutako egun kopurua, eguneko bidaien batezbestekoa, bidaiaren batezbesteko iraupena eta aisialdirako egindako batezbesteko distantzia:

152. Taula

Asteko desplazatutako egun kopurua	2,9 egun
Eguneko bidaien batezbestekoa	2,1 bidaia
Bidaiaren batezbesteko iraupena	18,1 minutu
Egindako batezbesteko distantzia	9,339 Km.

Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

c) Aisialdira joateko erabilitako garraio mota:

55. Grafikoa Aisialdiran erabilitako garraio mota



Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Oraingoan oinezko desplazamendua nagusitzen da aisialdira joaterako garaian, %46arekin. Atzetik, baina indartsu, autoa dator %38 kasuetan, nolabait aurrez agertzen zen 9,339 kilometrotako *egindako batezbesteko distantzia* azaltzeko. Horretaz gain, beste behin, bai bizikleta zein garraio publikoa apenas erabiltzen diren.

d) Desplazamenduak helmuga duen herria:

153. Taula

UDALERRIA	ABSOLUTUAK	PORTZENTAIA
Irun	25	%51,0
Donostia	9	%18,4
Hendaia	4	%8,2
Oiartzun	3	%6,1
Nafarroa	2	%4,1
Frantzia	1	&2,0
Hondarribia	1	%2,0
Hernani	1	%2,0
Hossegur	1	%2,0
Donibane Lohizune	1	%2,0
Anglet	1	%2,0

Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Egiten diren desplazamenduen erdia baino gehiago Irun dute helmuga, eta %18,4ak Donostia. Honek, berriz ere, 9,339 kilometrotako *egindako batezbesteko distantzia* azaltzen du.

Asteko erosketarekin erlazionatutako desplazamenduak

a) Asteko erosketak egiteko desplazatzen diren pertsonen adina:

56. Grafikoa



Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

Eguneko erosketekin gertatzen denaren antzera, asteko erosketak egiteko desplazatzen den adin tarte nagusia 50-59 urte bitartekoa da %25arekin. Jarraian 40-49 eta 30-39 adin tartean aurkitzen dira %21,7a eta %12,2arekin hurrenez hurren. Oraingoan, ordea, 18-29 urte bitartekoen portzentaia ez da horren txikia, arruntagoa baita gazteek (pentsatzen dugunaren arabera, gehiengoa haurrik gabe dagoena) erosketak, egunero baino, aste beteko maiztasunarekin egitea.

b) Asteko desplazatutako egun kopurua, eguneko bidaien batezbestekoa, bidaiaren batezbesteko iraupena eta asteko erosketa egiteko batezbesteko distantzia:

154. Taula

Asteko desplazatutako egun kopurua	1,1 egun
Eguneko bidaien batezbestekoa	2 bidaia

Bidaiaren batezbesteko iraupena	9,8 minutu
Egindako batezbesteko distantzia	3,212 Km.

Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio inkestako (2005) datuetan oinarrituz

c) Asteko erosketak egitera joateko erabilitako garraio mota:

57. Grafikoa. Steko erosketak egitera joateko erabilitako garraio mota



Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Desplazamendu mota honetarako autoaren erabilera arruntagoa da, %83,5, gehienbat erosketa hauek produktu ezberdin ugari eskaintzen dituzten merkatal gune handietan egiten baitira. Normalean, gune hauek oinez iristeko zailtasuna agertzen duten puntuetan kokatzen dira (herriaren kanpoaldean), edo nahiz eta erdigunean egon, auto kopuru handi batek aparkatzeko tokia izaten dute. Bestalde, asteko erosketek egunerokoek baino zama handiagoa izaten dutenez, autoa izaten da desplazamendu hauetarako modurik erabiliena.

d) Desplazamenduak helmuga duen herria:

155. Taula

UDALERRIA	ABSOLUTUAK	PORTZENTAIA
Irun	51	%87,9
Oiartzun	5	%8,6
Errenteria	1	%1,7
Behobia	1	%1,7

Iturria: Herritarren pertzepziorako inkesta 2005

Eguneroko erosketekin gertatzen den moduan, asteko erosketak egiteko Irun da Hondarribiko biztanleek gehien aukeratzen duten herria (%87,9), lehen ere aipatu den bezala, duen komertzio eskaintza zabala dela eta.

Bestalde, **Udalmap** adierazle sistemak ere Hondarribitik kanpo lan eta ikasten duten biztanleen portzentaia jasotzen du. Ondorengo taulan aipatu balioak azaltzen dira:

156. Taula. Udalerritik kanpo bizi diren biztanleen inguruko adierazleak

Adierazlea	Urtea	Datua
Bizi den udalerritik kanpo lan egiten duen 16 urtetik gorako biztanlegoa	2001	69,52 %
Bizi den udalerritik kanpo ikasten duen 16 urteko edo gehiagoko ikasleak	2001	77,69 %

Iturria: Bidasoa Activa – Bidasoa Bizirik agentziak Udalmapetik erraztutako datuak

Emaitza hauek ikusita, logikoa dirudi desplazamendu gehienak lana izatea arrazoi, eta era berean, ulertzekoa da ikasketengatik ematen diren desplazamenduen portzentaia altua izatea. Izan ere, ikaslea den biztanleriaren adin tartea langile taldearena baino txikiagoa da.

3.1.3.3. Modua eta helmuga

Desplazatzeko moduari dagokionez, oinez eta autoz mugitzen direnen kopurua berdina da; oso normala Hondarribia bezalako herri batean, ezaugarriak eta tamaina kontuan hartuta. Garraio publikoa erabiltzen dutenen ehunekoa nahiko handia da: %6.

58. grafikoa Desplazatzeko moduak. 2003



Iturria: 2003ko Mugikortasun Inkesta. Eusko Jaurlaritza. Geuk egina.

Arestian ikusi dugun bezala, desplazamendu ia gehienak eskualdean bertan egiten dira. Kanpora egiten diren desplazamenduei dagokienez, autoa da gehien erabiltzen dena. Donostiara joateko, esate baterako, desplazamenduen %88 autoz egiten dira.

157. taula. DESPLAZATZEKO MODUAK. 2003

	Oinez		Autoa		Garraio publikoa		Bestelakoak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
DONOSTIA	0	0,0	2.194	13,2	222	10,5	79	3,4	2.495	6,6
ERRETERIA	0	0,0	466	2,8	152	7,2	71	3,0	689	1,8
IRUN	3.363	19,8	5.514	33,3	778	36,8	860	36,8	10.515	27,7
HONDARRIBIA	13.598	80,2	6.670	40,2	858	40,5	799	34,2	21.925	57,7
PASAIA	0	0,0	367	2,2	107	5,1	394	16,9	868	2,3
OIARTZUN	0	0,0	972	5,9	0	0,0	135	5,8	1.107	2,9
ANDOAIN	0	0,0	342	2,1	0	0,0	0	0,0	342	0,9
LASARTE	0	0,0	48	0,3	0	0,0	0	0,0	48	0,1
Guztira	16.961	100,0	16.573	100,0	2.117	100,0	2.338	100,0	37.989	100,0

Iturria: 2003ko Mugikortasun Inkesta. Eusko Jaurlaritza. Geuk egina.

Kontuan har daitekeen beste datu bat, Udalmap adierazle sistemak jasotzen duen taxi lizentzia kopurua da. Ikus daitekeenez, ez da lizentzia kopuruaren igoera ematen, agian biztanleriaren aldetik zerbitzu honen eskaera nabarmenik ez dagoelako.

158. Taula. TAXIEN IGURUKO UDALMAP ADIERAZLEAK

Adierazlea	Urtea	Datua
Taxi lizentziak	2006	8,09 $^{0}/_{000}$
	2005	8,09 $^{0}/_{000}$

Iturria: Bidasoa Activa – Bidasoa Bizirik agentziak Udalmapetik erraztutako datuak

3.1.4. Joanetorriak oinez eta bizikletaz

3.1.4.1. Desplazamenduak oinez

Hondarribiko udalerriaren forma ikusita, erraztasunak eskaintzen ditu oinez edo bizikletaz desplazatzeko, aldapa gutxi baititu. Zenbait oinezkoentzako gune daude Hondarribian:

- San Pedro kalea asteburuetan eta 17:00etatik aurrera aste tartean.
- Santiago, Denda, Ubilla, Pnpinot, margolari Etxenagusia, Egozki, Harategi, Joan Laborda zati bat, Gipuzkoa Plaza eta Apezpiku; horietan bizi direnak bakarrik sar daitezke ibilgailuz, eta aparkatzeko denbora mugatuta dago, 30 minutu.

Dena dela, horietako zenbait tokitara joatea ez da erraza, batez ere bizikletaz, aldapa handiak baitaude eta galtzada-harrizko zola baita.

Hala eta guztiz ere, interesgarria iruditu zaigu jakitea zenbat herritarrek pentsatzen duten oinarrizko zerbitzuak dauden tokietara joateko ez dela beharrezkoa motordun bitartekoa. Oro har, Hondarribiko herritarren artean egindako inkestatik ateratako datuen arabera, esan daiteke aisialdiko jarduerak dauden tokiak direla irisgarritasun kaskarren dutenek, esaterako, kirol-instalazioek eta kultura-etxeek; izan ere, herritar gehienek, oinez joatekotan, 15 minutu behar dituzte, gehitxo, agian.

Irisgarritasun hoberen duten zerbitzuen artean, gainerakoekin alde handia dutela, hondakinen gaikako bilketa-guneak dira, eta, jarraian, janari-dendak

eta autobus-geltokiak. Azken hori oso garrantzitsua da, horren araberakoa izango baita, neurri handi batean, garraio publikoa erabili edo ez.

Inkestaren datuak islatzean, jakina, subjektibotasuna kontuan hartu behar da. Horren harira, landu beharreko alderdietako bat ibilbideak behar bezala egokitzea da; hau da, ibilbide jakin bat oinez egitea ez dadila oztopo izan, eta hori bera jarduera interesgarri bihurtu.

Laburbiltzeko, esan daiteke, oinez egin beharreko ibilbide baterako gehienez 15 minutu bada arrazoizkoa, kirol-guneak eta kultura-etxea direla gabezia gehien erakusten dutenak.

59. grafikoa

Zenbat denbora ematen duzu oinez zure etxetik toki hauetara?



3.1.4.2. Bidegorriak

60. Grafikoa. Hondarribiako bidegorri sarea



Gaur egun, Hondarribian ez dago bidegorri-sarerik, baina bai bi zati handi samar, biak paralelo kostarekiko, benetako aukera eskaintzen dutenak aisialdi-guneetara joateko; esate baterako, hondartzaren ondoan dagoen kirol-gunera joateko, eta gero kai alderantz jarraitzen du eta horri moilako pasealekuaren hasiera gehitu behar zaio, aireportuaren ondoan.

Bizikletaz egin daitezkeen beste zati batzuk ere badira; Txiplaoko zolandean hasi eta Biteritik barrena sartzen dena, eta, han, bitan zatitzen dena, bata goiko alderantz doana, eta bestea S. Pedro kalerantz. Egokituta dagoen beste zati txiki bat ere badago Amute inguruan.

Aurreikusita dago epe motzera zati horiei jarraipena ematea, eta, horrela, udalerriko zenbait zonalde lotzeko beste aukera bat eskaini, oztopo orografikoak kontuan hartuta, jakina. Bestalde, gogoan izan behar da udalerrian badirela zonaldeak goiko aldean, eta bertara bizikletaz joatea oso zaila dela.

3.4.1.3. Gipuzkoako Bidegorri Sareen Planaren aurreikuspenak

Gipuzkoako bidegorrien Gidan adierazten den bezala, "iraunkortasuna eta mugikortasun arloan duen aplikazioa gizarte eta politika eztabaidaren parte dira".

Hori dela eta, duela urte batzuetatik hona, mugikortasun-iraunkortasun termino bien uztarketa bermatzeko hainbat txosten eta estrategia idatzi dira. Ekimen hauen ondorioz, Euskadiko Garraio Iraunkorreko Plan Zuzentzailea (2002-2012) onartu zen, iraunkortasunaren ikuspuntutik mugikortasun eskaerari erantzuna emateko. Planak duen ekintza lerroetako bat garraio mota alternatiboen sustapenean datza (oinezkoa, bizikleta eta garraio publikoa), berriz ere, mugikortasunaren inguruko eztabaidan bizikletari leku eginez. Honek Gipuzkoa mailan, bidegorrien eraikuntza-politiken garapenerako eta herrietako zein herrien arteko garraiorako bizikletaren sustapenenerako balio izan du.

Era honetan, 2002. urtean Gipuzkoako Bidegorri Sareen Plana idatzi zen. Ordutik hona, Aldundiak proposatutako bidegorri zenbait zati eraiki ditu. Gainera, Bizikletaren Lurralde Arloko Planaren idazketak Gipuzkoako Bidegorri Sareen Planean jasotako oinarrizko sarea zabaltzeko aukera ematen du.

Jarraian sarea osatzen duten ibilbide ezberdinak zehazten dira, Hondarribiako zatiari aipamen berezia eginez:

- **1.Ibilbidea: Donostia/San Sebastian – Muga**
- **2. Ibilbidea: Donostia/San Sebastian – Deba – Mutriku**
- **3. Ibilbidea: Donostia/San Sebastian – Ordizia, Lasarte-Oriarantz eta Leitzaranerantz doazen zatiekin**
- **4. Ibilbidea: Debakoa, Oñatiranzko adarrarekin.**
- **5. Ibilbidea: Urolakoa**
- **6. Ibilbidea: Bergara – Ordizia**

61. Grafikoa. GIPUZKOAKO BIDEGORRE SAREA

Iturria:
http://www4.gipuzkoa.net/sostenibilidad/es/07planificacion.asp?apartado=07_2

- **1. Ibilbidea: Donostia / San Sebastian – Muga:**

39 kilometrotako ibilbide honek hiriburua Irun eta Frantziako mugarekin lotzen ditu. Gainera, EuroVelo Sareak Iberiar Penintsularekin duen mendebaldeko lotura suposatzen du. Ibilbideak bi adarkadura ditu: lehenak Irun Nafarroako mugarekin lotzen du; bigarrenak, aldiz, Errenteriatik abiatuta, Arditurriraino iristen da Aiako Harria Parke Naturalean eta GKEan barneratuz. Etorkizunean, tokiko, eskualdeko eta foru-partaidetza eskatuko duen **Irun eta Hondarribiaren arteko lotura ere kontuan izan beharko da**.

Ibilbide hau igarotzen den lurraldea hiritartua aurkitzen da neurri handi batean, biztanle-dentsitatea eta ekonomia-jarduera handiarekin. Batez ere, Donostialdean, Pasaiako Badia eta Oarsoaldea eta Txingudiko esparruan. Ondorioz, sare hau interes bizia izango du eguneroko mugikortasunerako.

Gainera, proposaturiko trazaketa aisialdirako ere baliagarria da oso, hiritartutako guneak ingurumen-balio handiko eremuekin lotzen baititu (Aiako Harria eta Txingudi). Azkenik adierazi, txirrindularitza kirol modura praktikatzen dutenentzat, ibilbideak aukera emango duela bereziki arriskutsuak diren errepide-guneak saihesteko.

Bidegorri sarearen egungo egoerari dagokionez, Udalmap adierazle sistemari erreparatzen badiogu, Hondarribiako kasuan 2005-2006 urte bitartean sarea handitu ez dela ikus daiteke:

159. Taula. BIDEGORRI SAREA. HONDARRIBIA (2005-2006)

Adierazlea	Urtea	Datua
Bizikleta-bideak edo bidegorri sarea	2006	2,18 Km/10.000 biz.
	2005	2,18 Km/10.000 biz.

Iturria: Bidasoa Activa – Bidasoa Bizirik agentziak Udalmapetik erraztutako datuak

Bidasoaldeko Kalapie

Bizikletaren erabilerak geroz eta interes handiago piztu du, ez soilik administrazioan, baita gizartean ere. Hori dela eta, KALAPIE elkarteak (bizikleta hiri-garraio modu gisa sustatzeko 1989. urteko urrian sortutako "Hiri-txirrindulari Elkartea") 2007an Bidasoa-Txingudi eskualderako ordezkaritza bat sortu zuen, Bidasoaldeko KALAPIE izenez ezagutzen dena. Talde honen lehen ekimena Irungo Udaletxeari hiriko mugikortasun, trafiko eta garraioa jorratzen den eztabaida foroetan parte-hartzeko eskaera egitea izan zen, besteak beste Hiri-planeamenduko Aholku Kontseiluan parte-hartzeko.

3.1.5. Bidaiarientzako garraio publikoa

Hondarribian ez dago hiri-barruko garraio zerbitzurik, duen tamaina dela-eta ez baitauka udalerriak zerbitzua jartzeko betebeharrik. Irun eta Hondarribia lotzen dituen hiriarteko zerbitzuak egiten du lan hori, neurri batean, hiri-barruko zenbait gune lotzen baititu. Zerbitzu hori zabaltzeko aukera mahaigaineratzen ari gara, ibilbidea aldatuta; izan ere, egungo ezaugarriak ikusita hiri-barruko zerbitzutzat har daiteke.

Aipatu beharra dago ez dagoela tren-zerbitzurik udalerrian, eta, gainera, ordutegiak ez daude koordinatuta, ez eta, jakina, txartela ere, Irungo tren-zerbitzuekin.

3.1.5.1. Hiri-barruko garraioa

Udalerriko biztanleek dituzten kanpo-harremanak oso garrantzitsuak dira mugikortasun iraunkorraren ikuspuntutik. Lehen esan dugun bezala, aisialdia dela-eta desplazamendu dezente egiten dira Donostiara, bai eta alderantziz ere. Atal honetan, Gipuzkoako lurraldeari dagozkion datuak aztertuko ditugu.

Errepidea

Errepide bidezko hiriarteko bi zerbitzu daude; batetik, Irunera joan-etorriak egiteko, eta, bestetik, Donostiarako.

Hondarribia – Irun

Irun eta Hondarribia artean egunero 90 joan-etorri inguru egiten ditu zerbitzu horrek, 10 minutuan behin; hasiera batean, nahikoa dirudi. Zerbitzu hori eskaintzen bada, esan nahi du zonalde honetan beste zonaldeetan baino gehiago erabiltzen dela garraio publikoa, nahiz eta datuen arabera, gero eta bidaiari gutxiagok erabiltzen dutela islatu.

45. grafikoa





Iturria: Enpresak emandako datuak. Geuk egina

Datuek argi eta garbi adierazten dute 2001. urtearen hasieran jaisten hasi zela, pixka bat, eta gerora nabarmenagoa izan dela beherakada; beraz, 2004. urtean, kilometro bakoitzeko batez besteko bidaiari-kopurua 1,94 izan zen.

Zerbitzua egiten duen enpresak berak lehenago emandako datuekin alderatuta, esan daiteke beherakada izan dela, baina hiri-barruko zerbitzua dela kontuan hartuta, ratioa nahiko ona da; izan ere, 1eko ratioa edo gutxiagokoak ez dira batere arraroak, aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala. Dena dela, berez hiriarteko zerbitzua bada ere, bi udalerri lotzen baititu, ezaugarriei erreparatuta, bai maiztasunari, bai ibilbideari, zerbitzua hiri-barrukoa gehiago dela esan daiteke.

Hondarribia – Irun – Donostia

Joan-etorri zerbitzua 20 minutuan behin egiten du; beraz, lanegunetan 45 zerbitzu inguru egiten ditu. Trena erabiltzeko aukera handirik ez dago, lehendabizi Iruneraino joan behar baita. Errepidez, ordea, A-8 eta N-I aukerak ditugu eta lehia gogorra egiten diote, Hondarribian motorizazio-tasa handia baita.

46. grafikoa



Iturria: Enpresak emandako datuak. Geuk egina.

47. grafikoa



Iturria: Enpresak emandako datuak. Geuk egina.

Bidaiari-kopuruak etengabe behera egin du, eta 2002. urtean joera aldatu egin zen, eta, harrezkero, esan daiteke hazi baino egonkortu egin dela egoera. Adierazgarria da 1996-2004 epeari dagokion datua, linea horren erabiltzaile-kopurua 1.794.000 izatetik 1.269.000 izatera pasa baita; hau da, %29 gutxitu da.

Kilometro bakoitzeko garraiatutako bidaiariei dagokien ratioa 1,69koa da, 2001ekoa baino askoz ere txikiagoa, nahiz eta urte horretan pixka bat gora egin ratioak, lehen esan dugun bezala.

Uztailean, Hondarribia-Donostia ibilbidea egiten duen zerbitzu berria jarri da abian (autopistaz). Ibilbidea zuzenean egiten du, eta ordu oroko maiztasuna du. Hasiera batean, Hondarribiko herritarrentzat zerbitzu ona dela pentsatzen da, baina beharrezkoa da denbora pixka bat pasatzea, erabilerari buruzko balorazioa egin baino lehen.

22. koadroa. HIRIARTEKO GARRAIOAREN ESKAINTZA ETA ESKARIAREN EZAUGARRIEN KOADRO SINOPTIKOA



Iturria: Enpresek emandako datuak. Geuk egina.

3.1.5.2. Hiritarren hautematea

Hiritarren hautemate-inkestaren arabera, garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea ertaina da; 4 puntutik 2,5eko puntuazioa eman diote.

48. grafikoa



Prezioak, ohi bezala, ez du hain balorazio ona izan, 4tik 2 puntu eman diote hiritarrek.

Adinari dagokionez, edadetuenek baloratu dute ondoen zerbitzua, eta kontuan hartzekoa da hori, adin-tarte horretakoak baitira garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak.

Auzoka aztertuz gero, Zimazarga auzokoak dira garraio publikoaren zerbitzuaren kalitatea kaskarren baloratu dutenak, 4tik 2,1 puntu eman diote.

Edozein zerbitzuren kalitateari buruz iritzia eman behar denean, bertarako irisgarritasuna oinarrizkoa da. Garraio publikoko geltokiei dagokienez, nabarmentzeko modukoa da hiritarren iritzia: %64k dio etxetik 5 minutu baino gutxiagora duela geltokiren bat, eta %92,8k 15 minutu baino gutxiagora.

Auzo guztietakoek ez dute, ordea, gauza bera esaten. Arkolla, Zimizarga eta Jaitzubia auzoetan bizi direnek ez dute balorazio ona egin; izan ere, %62, %37 eta %36rentzat, hurrenez hurren, garraio publikoko lehen geltokia etxetik 15 minutu baino gehiagora dute.

3.1.5.3. Garraio Iraunkorra

Garraio-mota iraunkorrak sustatzearen ikuspuntutik, kontuan hartu beharreko alderdietako bat beren arteko intermodalitatea da. Aukera guztien artean, bizikletarena da interes handien pizten duena.

Garraio publiko guztien arteko intermodalitateak, autobusa-autobusa edo autobusa-trena, garraio-txartel bakarra izateko kudeaketa-sistemaren baten laguntza izan beharko luke. Aukera hori ez dagoenez, garraio-mota horrek oztopo asko ditu; batetik bestera aldatu behar izateaz gain, prezioa ere kontuan izan behar da, eta garraio-mota bakoitzeko txartela aldatu behar izatearen deserosotasuna ere bai.

Ibilgailu pribatuaren eta garraio publikoaren arteko intermodalitateari dagokionez, oso zaila da distantzia ez oso luzeetan, eta hori da Hondarribiaren kasua; %58 barne-desplazamenduak dira (horietatik %30 ibilgailu pribatuarekin egiten dira) eta kanpora egiten diren desplazamenduen %28 Irunera izaten dira (horietatik %52 ibilgailu pribatuarekin egiten dira). Beraz, badirudi beste mota bateko intermodalitateaz aritzea dela egokiena.

Horri dagokionez, desplazamenduetarako bizikleta beste aukera bat dela esatean, desberdindu egin behar da bizikletarekin edo bizikletarik gabeko intermodalitateen artean, intermodalitate-mota baldintzatzen baitu. Bizikletarik gabeko intermodalitateari dagokionez, helburua kontuan hartutako intermodalitateko aukera izango genuke, oso garrantzitsua, atez ateko mugikortasuna izango baikenuke.

Hiri-barruko garraioaren kasuan, mota-katean bizikletaren aukera sar dezaten zenbait proiektu daude. Errepide bidezko garraioari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Zuzendaritza aspalditik ari da zerbitzua eskaintzen duten ibilgailuek bizikleta eraman ahal izateko tresnaren bat jartzeko aukera aztertzen. Horrek aukera emango luke bizikletaz zenbait ibilbide-zati egiteko, autobusa erabili aurretik edo erabili ondoren.

3.1.5.4. Egungo garraio publiko erabiltzaileen egoeraren sintesia

Behin 2004 urtera arte autobus erabiltzaileen inguruko datuak aztertuta, ondorengo taulan 2005 eta 2006 urteetako datu-taula jasotzen da. Ikus daitekeenez, bertan beste garraio publikoko zerbitzu batzuk barneratu dira.

161. taula. GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILTZAILE-KOPURUA (2005-2006)

	2005. urtea	2006. urtea
Autobús zerbitzua		
Irun – Hondarribia	801.366	1.051.018
Hondarribia – Irun – Donostia (N-1etik)	-	941.340

Hondarribia – Donostia (A-8tik)	-	31.172
Hondarribia – Hendaia (uda garaia)	34.380	26.949
Aireportua – Donostia	-	11.339
Hondarribia – Txingudi Merkatal Gunea	180.380	-
Itsas-zerbitzua		
Hondarribia – Hendaia	-	341.500

Iturria: Guk egina 2005 eta 2006ko urteko txostenean oinarrituz. Jarduera Memoria. Datu Sozioekonomikoak. Bidasoa Activa – Bidasoa Bizirik.

Adierazi beharra dago, Hondarribia – Donostia ibilbidea autopistatik egiten zuen autobus zerbitzua aldatua izan dela. Egun ondorengo ibilbidea egiten du: Donostiatik aireportura, bertatik Hondarribiko San Kristobal plazara eta ondoren A-8 autobidetik Donostiara itzultzen da. Zerbitzu berri hau 2007ko martxoan jarri zen abian (Interbus konpainiako i-2 zerbitzua).

Bestalde, "Ondorengo lekuetara iristeko oinez zenbat denbora behar duzu?" inkestari erreparatuz ikus dezakegu hondarribitarren %64ak 5 minutu baino gutxiago behar dituela autobus geltoki batera hurbiltzeko. Biztanlegoaren %28,8ak 5-15 minutu bitartean behar ditu, eta soilik %7,2ak behar du 15 minutu baino gehiago autobus geltokiren batera iristeko. Azken kasu honetan, herritarren pertzepzio-inkestan jasotako emaitzen arabera, autobus geltokia urrunen duten auzoak Arkolla, Gomuz (mendialdea), Jaizubia eta Simisarga dira.

Edozein kasutan, herritarren pertzepzio-inkestan jasotzen den garraio publikoarekiko herritarren gogobetetze mailan ikus daitekeenez, autobus zerbitzuak emaitza kaskarrak erakusten ditu, batez ere bidaia-txartelaren prezioari dagokionez:

162. taula. GARRAIO PUBLIKOAREKIKO HERRITARREN GOGOBETETZE MAILA (2005)

	Ase gabe	Gutxi aseta	Nahiko aseta	Oso aseta	EE / EG
Garraio publiko zerbitzuen eskaintza eta kalitatearekiko gogobetetze	8,8%	36%	36,8%	10,8%	5,6%

maila					
Garraio publiko zerbitzuen kostuarekiko gogobetetze maila	24,0%	36%	22,4%	1,2%	16,4%

Iturria: Guk egina herritarren pertzepzio-inkestako datuetan oinarrituz (2005)

Ikus daitekeenez, garraio publiko zerbitzuen eskaintzari dagokionez, biztanleriaren gehiengoa gutxi aseta edo nahikoa aseta dago. Kostuaren kasuan, ordea, gogobetetze maila jaitsi egiten da eta biztanleriaren gehiengoa gutxi aseta edo batere aseta ez dagoela ikus daiteke. Hau ziurrenik autoaren erabilera handiaren zergatia izan daiteke.

Hala ere, emaitza hauek aldatu egin daitezke **Lurraldebus txartel bakarra martxan jartzea**rekin batera. Sistema hau 2006ko abenduaren 29an abiatu zen, Hernani-Donostia eta Hernani barruko zerbitzuetan esperientzia pilotu gisa. Erabiltzaileen artean izandako harrerak Gipuzkoako gainerako herrietara zabaltzea baimendu du.

Sistema honek Lurraldebus ekimenaren partaide diren zerbitzuak erabiltzeko aukera ematen du berriz kargatzeko txartelari esker. 2007ko ekainerako Gipuzkoako herri gehienetara zabaldu zen, Hondarribia-Irun, Hondarribia-Donostia (N-1etik) eta Donostia-Aireportua-Hondarribia (A-8tik) zerbitzuak barne.

Nahiz eta txartela ateratzeak 4 eurotako kostua izan, berehala amortizatzen da, bere erabilpenak beherapenak ekartzen baitizkio erabiltzaileri. Gainera, aipatu beharra dago, 2008ko otsailean bidaiaren prezioa merketu egin zela garraio publikoaren lehiakortasuna handituz. Jarraian zenbait adibide jasotzen dira:

163. Taula. 2008KO URTARRILA AMAIERARA ARTEKO LURRALDEBUS ZERBITZUAREN TARIFIKAZIOA

	Prezioa (eurotan)		
Hilabeteko bidaiak	**Hondarribia-Irun**	**Hondarribia-Donostia (N-1etik)**	**Donostia-Aireportua-Hondarribia (A-8tik)**
0-10	1,10	1,60	1,75
11-20	0,94	1,36	1,49
21-25		1,04	1,14
26-35	0,72		
36-50		0,48	0,53
51-75	0,33	0,16	0,18
+ 75	0,11		
Ohiko prezioa (txartelik gabe)	1,25	1,75	2

Iturria: www.lurraldebus.com

164. Taula. 2008KO OTSAILETIK AURRERAKO LURRALDEBUS ZERBITZUAREN TARIFIKAZIOA

	Prezioa (eurotan)		
Hilabeteko bidaiak	**Hondarribia-Irun**	**Hondarribia-Donostia (N-1etik)**	**Donostia-Aeropuerto-Hondarribia (A-8tik)**
1-40	0,66	0,96	1,05
41-70	0,33	0,48	0,53
+ de 71	0,11	0,16	0,18
Ohiko prezioa (txarteik gabe)	1,25	1,75	2

Iturria: www.lurraldebus.com

Era berean, epe laburrera Irun barruko autobus zerbitzua Lurraldebus sistemara atxikitzeak erabiltzaile kopuruaren igoera ekar dezake, kontuan

izanik erosketak egiteko, lanera joateko, eta bestetarako egiten diren desplazamendu gehienak Irunerantz izaten direla. Hondarribia-Irun autobus zerbitzuan eta Irun barruko autobus zerbitzuan txartel bakarra erabili ahal izateak, ondoko herrira hurbiltzeko eta bertan mugitzeko aukera erosoagoa eskaintzen duen neurrian, erabiltzaile kopurua handituz joango dela pentsa daiteke.

Hala ere, bidaia-txartelaren prezioa ez da garraio publikoaren erabilera mugatzen duen baldintza bakarra: **maiztasunak** ere garrantzia handia du. Gaur egun, Hondarribiko garraio publiko zerbitzuen maiztasuna ondorengo taulan ikus daiteke:

165. Taula. GARRAIO ZERBITZU PUBLIKOEN MAIZTASUNA

	Laneguna	Larunbatak	Igande eta jaiegunak
Autobus zerbitzua			
Irun – Hondarribia	12’	15’ (gauekoa 60’)	
Hondarribia – Irun – Donostia (N-1etik)	30’		
Hondarribia – Aireportua – Donostia (A-8)	1h – 1h15’	1h – 2h10’	
Hondarribia – Txingudi Merkatal Zentroa	1h		-
Itsas zerbitzua			
Hondarribia – Hendaia	15’		

Iturria: guk egina, garraio publikoaren enpresek erraztutako informazioa aintzat hartuz

Taulan ikus daitekeenez, zerbitzu gehienek maiztasun egokiak badituzte ere, Hondarribia – Donostia zerbitzuak ez du behar adinako maiztasunik (ordu erdiroko zerbitzua), kontuan izanda Hondarribia Gipuzkoako hiriburuarekin lotzen duen zerbitzua dela.

Hori dela eta, garraio publikoa sustatzeko gabezia honi irtenbide bat aurkitu beharko litzaioke.

3.1.6 Bidasoa-Txingudi eskualdeko mugikortasun plana

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Patzuergoak LEBER B.A. enpresa kontratatu zuen 2005 urtean Bidasoa-Txingudi eskualdeko Mugikortasun Plana idazteko.

Aipatu Planaren jarraipen batzordeak egindako lanaren ondoren, Leber b.a. enpresak mugikortasun planaren proposamenen txostena entregatu zuen 2007ko abenduan Patzuergoan. Aipatu txostenean eskualdeko 3 udalerrien – Hondarribia, Hendaia eta Irun- mugikortasunari lotutako alderdi orokorrak aztertzen dira, ondoren plana idatzi duen enpresak egindako proposamenak jasotzen direlarik.

3.1.6.1. Bidasoa-Txingudi eskualdeko mugikortasunaren alderdi orokorrak

Mugikortasuna eta Muga: Mugikortasun Globala

Bidasoa-Txingudi eskualdean gertatzen diren mugikortasun erak honako magnitude hurrenkeran ematen dira:

1. Udalerri bakoitzeko barne mugikortasuna
2. Udalerri horiek inguruko udalerriekin dituen kanpo erlazioak
3. Hiru udalerrien arteko erlazioak

Alde handiena Hondarribia eta Irunen arteko erlazioan ematen da, Hendaian eta Hondarribian ematen den barne mugikortasunaren antzeko magnitudean gertatzen dena. Horregatik, txostenak Hondarribia eta Irunen arteko erlazioa Planaren eskaera helburu moduan jotzen du, bigarren helburua bi udalerri horien artean ematen den erlazioa Hendaiarekin sustatzea izango litzatekeen bitartean.

166. Taula. ESKUALDEKO MUGIKORTASUN GLOBALA

JATORRIA	NORAKOA					
	Hondarribia	Irun	Hendaia	EAEko gainontzeko udalerriak	Espainiako gainontzeko udalerriak	Frantziako gainerako udalerriak
Hondarribia	22.000	11.400		6.400		
Irun	9.800	111.100		29.900		
Hendaia		2.650	28.800		1.800	8.900
EAEko gainontzeko udalerriak	3.100	13.600				
Espainiako gainontzeko udalerriak			950			

Frantziako gainerako udalerriak			8.900			

Iturria: Bidasoa-Txingudi eskualdeko Mugikortasun Plana. Berezko eraketa

Abiapuntua: Laneko Mugikortasuna

167. Taula. LAN ARRAZOIENGATIK EMATEN DEN ESKUALDEKO MUGIKORTASUNA

JATORRIA	NORAKOA					
	Hondarribia	Irun	Hendaia	EAEko gainontzeko udalerriak	Espainiako gainontzeko udalerriak	Frantziako gainerako udalerriak
Hondarribia	2.505	2.184		1.680		
Irun	979	16.980		5.377		
Hendaia		1.700			900	
EAEko gainontzeko udalerriak	499	3.921				
Espainiako gainontzeko udalerriak						
Frantziako gainerako udalerriak						

Iturria: Bidasoa-Txingudi eskualdeko Mugikortasun Plana. Berezko eraketa

Aurreko taulan agertzen den bida kopurua honako gaiekin zerikusia du:

- Hendaiako lan eskaintza murritza
- Hondarribiko enplegu eskaintzaren defizita.
- Irungo industria poligonoetan dagoen enplegu kontzentrazioa, bate zere Letxunborroko ardatzean.

Motordun ibilgailu bidezko mugikortasuna:

168. Taula. ESKUALDEKO MOTORDUN IBILGAILU BIDEZKO MUGIKORTASUNA

JATORRIA	NORAKOA									
	Hondarribia		Irun		Hendaia		EAEko gainontzeko udalerriak		Frantziako gainerako udalerriak	
Hondarribia	7.200	700	6.900	800			5.300	1.100		
Irun	5.200	1.800	42.200	8.800			20.100	9.500		
Hendaia	19.600	0							8.300	100
EAEko gainontzeko udalerriak	2.800	300	10.300	3.300						
Frantziako gainerako udalerriak					8.300	100				

Iturria: Bidasoa-Txingudi eskualdeko Mugikortasun Plana. Berezko eraketa

_ Autoa
_ Garraio publikoa

Ondorioak:

- Azpimarragarria da garraio publikoaren papera hiru udalerietan.
- Garraio publikoaren papera bereziki txikia da Hendaian
- Aipatzekoa da Bidasoa-Txingudi eskualdeko udalerrien artean dagoen harremana ez dela gehiengoa. Hori dela eta, autoa darabilten bidaiariak garraio publikoko erabiltzaile izatera igarotzeko neurriek arrakasta potentzial gutxiago dute erlazio horietara zuzentzen baldin badira.

Arrazoien araberako mugikortasuna:

Atal hau diagnosian aurreko atal batean aztertzen denez, Planean jasotzen diren hainbat faktore sozioekonomiko zerrendatzen dira jarraian:

- Familiak/Hektarea, Autoak/Hektarea eta Enplegu Osoa/Hektarea→ Irunek duen pisuan nabarmenki handiagoa da eta Hendaian kontzentrazioa txikiagoa.

- Enp. Industria/Hektarea→ Letxunborron ematen den kontzentrazioa bereziki nabarmena da Irunen.

- Enp. Merkataritza/Hektarea→ Hondarribiko eta Irungo hiriguneetan denda kopuru handiagoa dago.

- Enp. Zerbitzuak/Hektarea→ Zerbitzuena lorrean Irunen soilik aurki daiteke eskaintza nabarmen bat.

Azterketaren alderdi aipagarriak:

Aurreko puntuetan agertzen diren mugikortasun datuak lanegun batekoak dira.

Udako mugikortasunari erreparatuz, non aisiagatiko arrazoiak pisu handiena duen, honako ezaugarriak aipa ditzakegu:

Aforoei dagokionez:
- Hendaian soilik hazten da nabarmenki motordun ibilgailu pribatuen trafikoa udalerriaren sarreretan.
- Hondarribia eta Irunen gertatzen den aisialdi eta erosketengatiko trafikoaren igoera lanagatiko mugikortasunaren arrazoiarengatik ematen den trafikoa kontuan hartuz konpentsatuta geratuko litzateke.
- Salbuespena Hondarribiko hondartzarako sarrera da. Dena den, horrek ez du islarik kanpotiko sarreran, trafiko gehiena Hondarribiko udalerriaren barnetik datorrelako.

Aparkalekuaren inguruko ikerketari dagokionez:
- Hondarribian matrikula frantsesa duten autoen matrikulak %3 baino gutxiago dira eta Irunen, erosketa arrazoiengatik, zertxobait altuagoa da matrikula frantseseko auto kopurua (%5a).
- Udan, Hendaiako hondartzaren ondoan, Irungo egoiliarren kopurua, EAEko egoiliarrena eta departamentu bereko egoiliarrena –64 zenbakidun matrikula dutenak- hiru aldiz bidertzen da, Frantziako gainerako udalerrietako autoen presentzia 10 aldiz bidertzen den bitartean.

3.1.6.2. Jarduera proposamenak:

1. Ibilgailu pribatuaren egungo eragina arindu:

    a. <u>Trenbideen Lurralde Arloko Plana: Hondarribia-Irun tranbia</u>

        i. 1997ko Trenbideen Lurralde Arloko Planean jada aurreikusten zen Hondarribia eta Irunen artean tranbia zerbitzu bat ezartzearen aukera.

        ii. 3 aukera ezberdinen prestaketa, aintzat hartuz 10 minutu bitartekoa dela zerbitzua eta 17Km/ordukoa merkatu-abiadura:

            1. aukera:

            - Tranbia Hondarribiko Portua auzotik Irungo Renfeko geltokiraino.
            - Irunera iristen den tranbiatik Hendaiako hondartzarainoko autobus transbordadorea ezartzea (Hendaiako hirigunetik pasaz).

            2. aukera:

            - Tranbia Hondarribiko hondartzatik Irungo Nafarroa etorbidearen amaieraraino (Colon pasealekutik).
            - Autobus transbordadorea Irungo tranbiaren loturatik Hendaiako hondartzaraino, hirigunetik pasaz.

            3. aukera:
            - Tranbia Hondarribiko hondartzatik Irungo Nafarroa etorbideraino (Colon pasealekutik)
            - Tranbia Irundik Hendaiako hondartzaraino, azken honen hirigunetik igaroz.

        i. Ondorioak:

            - Uda eta neguan artean dauden mugikortasunaren inguruko ezberdintasunak eskaria erakartzeko desberdintasunetan islatzen da.
            - Tranbiako bidaiarien zati bat garraio publikoko zerbitzuetako bidaiarietatik hartzen dira, baina aldi berean, bidaiariak ere oinezkoen aldetik edo auto erabiltzaileetatik ere jaso ditzake. Aldi berean, tranbiak bidaiak eragin ditzake zenbait erlazio errazteko gaitasuna duelako, garraio publikoaren eskari netoa handituz.
            - Eguneroko eskariaren datuek urteko bidaiariak dakartza berekin, ondoren agertzen den moduan:

- Hondarribiko Portua auzoa – Irungo Renfe geltokia: 1.300.000 bidaiari
- Hondarribia-Irun tranbia: 3.100.000
- Hendaia-Irun tranbia: 1.600.000

b. Errepide sarea. Hondarribia:

i. Hasierako proposamena Portua auzoa ixtean datza, garraio publikoak, taxiek, zerbitzu publikoek, banaketa ibilgailuek eta bertako bizilagunek soilik sarrera izango duten babestutako eremu publiko bat sortuz. Babestutako eremu publiko bat sortuz. Proposamen honek aparkalekuen kudeaketa baten beharra dakar berekin, sorrera berriko oinezkoentzako eremuaren ertzaren ondoan aparkaleku berriak hornitzea posible izango litzatekeelarik. Azken hau saihesbideak erdialderako eta hondartzarako trafikoa bideratu dezakeela aprobetxatuz aurrera eraman daiteke.

ii. Oinezkoen eremu baten eraketa

iii. Tranbiaren sarrera baimentzea, kontuan hartuz tranbiaren plataforma autobus zerbitzuek ere erabiltzeko aukera izango luketela.

c. Aparkalekua

i. Desiragarria litzateke Bidasoa-Txingudi eskualdeko hiru udalerriek gai honetan irizpide koordinatuak ezartzea.

ii. Urte osoan zehar Hondarribiko hirigunea arautu, Hendaia eta Hondarribiko hondartzetako eremuak udararako geratuko liratekeelarik.

iii. Txandakatze bidezko aparkalekuen egoerari buruzko egoera uneoro eskaintzea (garajeak eta azalerako aparkalekuei dagokionez): hiri guneetarako sarreretan zein web gunean agertzen diren panel aldakorretan (bidai aurretiko informazioa litzateke).

d. Hondarribia-Hendaia hirigunea txalupa

i. Hondarribia Hendaiako kirol portuarekin lotzen duen txalupak egun duen arrakasta aintzat hartuz, honen zerbitzua luzatzea proposatzen da, Hondarribia eta Hendaiako alde zaharra lotzeko balio dezakeen lotura sortuz.

ii. Zerbitzua faseka ezar daiteke, hasiera batean udan bakarrik eta existitzen den zerbitzuarekin alderatuz, maiztasun txikiagoa izango duena.

iii. Zerbitzu berriak bi udalerrietako hiriguneak lotuko lituzke. Gainera, aurretik proposatutako babes neurriek zerbitzua indartzeko balioko lukete.

e. Salgaien banaketa mankomunatua

i. Bidasoa-Txingudin erosketengatik egiten diren joan-etorriek duten garrantzia aintzat hartuz, interesgarria da salgaien banaketarako sistema mankomunitatea ezartzea.

ii. Salgaien banaketa mankomunatuak autoaren menpe egon gabe erosketetara joateko aukera emango luke, zerbitzu honen bidez salgaiak etxeetara bidaltzen direlako.

iii. Zerbitzu honek inbertsio kostu bat eta eragile ezberdinen arteko koordinazio prozesu bat suposatzen dute. Aipatu zerbitzuak zentzua hartzen du baldin eta aldez aurretik kalitateko garraio publiko baten eskaintza baldin badago.

iv. Proposatzen den eredua *Bestufs* izeneko proiektu europarrak bultzatzen duena izango litzateke, eskualdean esperientzia pilotu bat aurrera eramanez gero diru-iturriak jasotzeko aukera legokeelarik.

v. Esperientzia pilotu ezberdinen zenbait adibide: Araudi Komun bat hartzea, Hurbileko Entrega-Eremuen Eraketa eta Zamen Finkapenerako Hiri Eremua.

f. Eztabaidarako proposamenak: Oinezkoentzako ardatzak eta eskualdeko txirrindulariak

i. *Oinezko joan-etorriak*: aisira bideratutako lotura pasealekuak sortzeko apustua.

ii. *Txirrinda Txingudin:*

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bidegorrien Planak herri arteko lotura Santiago zubitik egitea aurreikusten du.

- Bizikleta bideek ahalik eta zuzenenak izan behar dute eta udalerrien hiriguneak elkarrekin lotzeko

gai izan beharko lukete, erakartze fokuekin batera.

- Bizikleta, zenbait joan-etorrietarako alternatiba den garraiobidea da, ikerketak lantzen dituen distantziak bizikletaren erabilpenaren mailan kokatzen direla kontuan hartuz:

  - Irungo erdigunea→ Hondarribiko erdigunea: 5 Km
  - Irungo erdigunea→ Hendaiako erdigunea: 2,5 Km
  - Irungo erdigunea→ Hondarribiko hondartzara: 5Km (iparralde etorbide/Kolon pasealekua) eta 4,5 Km(Oxinbiribileko errotonda)

- Hondarribia eta Hendaia arteko txalupan bizikleta igo daiteke eta horrela alde batetik bestera igaro.

- Aipagarria da Irungo erdialdetik Hendaiako lotura beharrezkoa gertatzen dela. Lotura Irungo Iparralde etorbidetik eta Santiago zubitik izango litzateke. Era berean, lotura Hondarribirekin Amutetik eta aireportuko errepidetik izango litzateke.

- Errepide eremu edo ardatzak lasaitzeko neurriak, motordun ibilgailuen abiadura 30 Km/ordura mugatuz. Horrela, kale horiek bizikletaren erabiltzaileek erabiltzeko aukerak areagotu ditzake.

- Aintzat hartzea Europan bizikleten alokairuaren gaian zein autobus bidezko garraio azkarreko sistemen alorrean garatu diren proiektu ezberdinak.

4. Bidasoa-Txingudi eskualdean eskari gehiago egotea sustatu, (harreman gehiago eskualdeko udalerrien artean):

   a. *TeleComs* delakoen egitekoa. Txingudiko ataria:

i. Proposamen hau ez litzateke informazio gehiago sortzean oinarrituko, web gune berean eskualdeko udalerrietan zerbitzu eta jardueren arloan garrantzi bereziko informazio eskaintzan eta dagoen informazioaren koordinazioan baizik.

ii. Uneoro honako puntuen inguruan informatzea:

- Informazio estatikoa: museoak, jatetxeak…
- Informazio dinamikoa: ekintza kulturalak, …
- Beste eremu batzuetako aukerak: osasuna, hezkuntza, …
- Egungo garraiobideen inguruko informazio koordinatua: oinezkoen ibilbideak, bizikleta bideak, bizikleten aparkalekuak, garraio publikoko eskaintza eta aparkalekuen inguruko uneoroko informazioa.
- Informazioaren kudeaketa mankomunatu bat sustatu beharko litzateke, udalerri bakoitzean dagokion informazioa eguneratzeaz arduratuko diren pertsonak izendatuz.
- Lankidetzarako eskema berriak: erakundeen artean, ekimen publiko zein pribatuen artean esaterako.

3.2. Eskualdeko trafikoa

Eskualdeko bide-sarea bi errepide nagusik osatzen dute: N-I errepidea eta A-8 autopista (Bilbo-Behobia). Bai batak, bai besteak iparralderantz jarraitzen dute, eta antzeko ezaugarriko errepideak dira. Badira beste bi errepide ere, eta merezi dute aipatzea: N-638 errepidea, eskualdeko bi udalerriak eta Hondarribia N-I errepidearekin lotzen dituena, eta N-121 errepidea, Nafarroako iparraldetik Irunerantz sartzen dena. Hondarribiak, bestalde, badu beste errepide bat kanpora atzeratzeko: Jaizkibelgo errepidea, GI-3440; hala ere, estua da eta trazadura kaskarra du.

Grafikoa.
ESKUALDEKO TRAFIKOAREN SAREA



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hondarribiko udalerriak errepide nagusietarako sarbide txarrak ditu, N-I eta A-8 errepideetan sartzeko ibilgailu asko ibiltzen diren errepideetatik barrena pasa behar baita, gero eta ibilgailu astun gehiago ibiltzen diren errepideak dira horiek.



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Trafiko-intentsitatearen bilakaerari dagokionez, nabarmena da hazkundea, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala. Intentsitate handiena N-I errepideak du, Lintzirin parean, eskualdeko errepideen artean hor izaten dira auto-ilara handienak eta istripu-kopurua ere oso handia da. Dena dela, 2000. eta 2003. urteen arteko hazkundea kontuan hartuta, A-8 errepideak du EBI (Eguneko Batez Besteko Intentsitatea) handiena. Aipatzeko modukoa ere bada GI-2134 errepideak izan duen gorakada erabileran, eta lehen, batez ere, barruko errepidea bazen ere, orain eskualdeko trafikoa banatzen duen errepidea da.

Taula. ERREPIDEZ EGINDAKO ESKUALDEKO TRAFIKOAREN EBOLUZIOA (1980-2003)

ERREPIDEAK	URTE							
	1980	1990	1995	2000	2001	2002	2003	03/00
A-8. Behobia	5.160	6.400	7.300	12.695	13.628	14.932	19.831	56,21
N-1. Behobia	6.639	9.511	10.806	18.806	19.412	19.614	20.416	8,56
N-1. Lintzirin	15.080	22.305	32.203	32.203	32.675	32.675	34.038	5,70
N-638. Aeropuerto			21.605	21.605	23.578	23.578	25.355	17,36
GI-3440. Hondarribia			1.862	1.862	1.581	1.581	1.736	-6,77
GI-2134. Norte Irun			23.953	23.953	27.498	27.489	29.811	24,46

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Gehien erabiltzen diren errepideen azken datuen arabera, Bidasoa Beheko errepideetan ematen den bataz besteko erabilera handitu egin da.

Taula. BIDASOA BEHEKO ERREPIDEETAN EMATEN DEN AUTO ZIRKULAZIOAREN BATEZBESTEKOA (2005 – 2006)

AUTO KOPURUA

	2005 Urtea	2006 Urtea
IRUNEKO BIDESARIA (A-8)		
Dirección Donostia	20.119	21.412
Dirección Francia	19.096	20.338
Bi norabideetan guztira	39.215	41.750
BIRIATOU-KO BIDESARIA (A-63)		
Dirección Donostia	13.055	13.538
Dirección Francia	12.672	13.056
Bi norabideetan guztira	25.727	23.594
BESTELAKO ERREPIDEAK		
N-1	35.752	38.188
N-638 (Irun-Hondarribia)	26.370	27.860
N-121-A	-	20.475

Iturria: Bidasoa activa – Bidasoa bizirik

Txosten honetan behin eta berriz esan den bezala, errepideak askotan kolapsatu egiten dira eta, horren inguruan, zenbait erakunde ohartarazten ari da bide-sistema laster kolapsa daitekeela. Ondorengo grafikoak, gaur egungo egoera abiapuntu hartuta, errepide nagusien saturazioaren aurreikuspena islatzea du helburu.



Iturria: Eurohiriaren Garraio Azpiegituren etorkizuneko analisia

Horri irtenbidea emateko, errepide nagusietarako zenbait konponbide aurreikusten dira; N-Iean bi errei jarri Gaintxurizketan, A-8 errepidean hiru errei, dagoeneko abian jarrita.

Eskualdean gero eta gehiago erabiltzen ari den errepidea N-121a da; Baztango bailaratik barrena, Nafarroako iparraldetik, Irunera iristen dena. Bailararen eta Iruñearen arteko komunikabideak hobetzeak, saihesbidearen bitartez udalerri gehienetan, eta, batez ere, Belaten errepidea zabaldu ondoren, beste aukera bat gehiago dago Iruñea A-8 autopistarekin lotzeko eta Frantzia alderantz joateko irteerarekin lotzeko; lehen, errepide horretan oso jende gutxi ibiltzen zen. Horregatik, Irundik barrena gero eta ibilgailu astun gehiago pasatzen da nabarmen, eta, orokorrean, esan daiteke ibilgailu mota guztiak. Nafarroako Gobernuko agintariek ere horren berri eman digute, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala; hau da, gero eta ibilgailu astun gehiago ibiltzen dela:

N-121 errepidean ibilgailu astunen EBIaren bilakaera. 1999-04

N-121	1999	2004	% Gehikuntza.
Mugairi	1.664	3.038	82,57
Sunbilla	1.638	3.007	83,58
Bera	2.106	3.960	88,03
Gip. mugan	2.427	3.955	62,96

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Argi eta garbi ikus daiteke erabilerak gora egin duela nabarmen, kamioi-trafikoa gero eta handiagoa dela, eta A-8 edo N-I errepideekin lotzeko Irundik barrena gero eta ibilgailu astun gehiago pasatzen dela.

Errepide horren berri ematen jarraituz, aipatu behar da N-121 A errepidea zabaltzeko eta hobetzeko proiektu bat egiten ari direla; hain zuzen ere, Laskuraingo glorietatik, Behobian eta Endarlatsan. Beraz, pentsatzen dugu, proiektu hori gauzatuz gero, ibilgailu astunen joan-etorria berriz ere areagotu egingo dela, eta, ondorioz, Bidasoa-Txingudi eskualdeak duen trafiko-arazoa ere bai. Bestalde, gaineratu nahi dugu, proiektuaren arabera, errepidea zenbait eremu babestutatik barrena pasatzen dela; beraz, ingurumenari eragin diezaiokeen kaltea aztertzen ari dira.

Ondorengo taulan, Eskualdeko trafikoarekin zerikusia duten Udalmap-eko adierazleen sisteman agertutako datuak azaltzen dira:

Taula. MUGIKORTASUNAREN INGURUKO UDALMAP-EKO ADIERAZLEAK

Adierazlea	Urtea	Datua
Garraioari zuzendutako azalera	2006	%3,66
Errepideei zuzendutako azalera	2006	%0,79
EAEko beste herrietara desplazatzeko ematen den batezbesteko denbora	2007	56,80 minutu
Udalerrien arteko irisgarritasuna	2007	76,33 Km/ordu

Iturria: Bidasoa bizirik-ek emandako Udalmap-eko datuak.

3.2.1. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planaren zenbait proposamen

Donostialdea-Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialean eskualderako zenbait proposamen interesgarri egiten dira. Horietan gehiegi sakondu nahi ez badugu ere, nahitaezkoa da aintzakotzat hartzea garraioaren arazoa aztertzerakoan.
Proposamen horien artean, nabarmentzeko modukoa da hiribururako proposatu dutena: Bigarren Gerrikoa mugaraino zabaltzea. Proposamen horren ondorioz, egungo A-8 autopista birmoldatu egin beharko litzateke trafikoa banatzeko eta N-1 errepideari konponbidea eman. Horrela, trafikoa hierarkizatu egingo litzateke, eta banatu igarotze-zirkulazioa, barruko zirkulazioa eta ibilbide motzekoak. Zenbait sarbide ere proposatzen dira, A-8 autopistaren iragazkortasuna areagotuko dutenak, eta lehen esan dugun bezala, trafiko-arazoan eragina izango du.

Arestian aipatutakoaren harira, N-121 A errepideak gero eta garrantzi handiagoa izango du, Nafarroarekin lotzeko errepide gisa.

Bestalde, Hondarribira sartzeko bideen sistema orokorra Mendelu auzoaren iparraldean jartzea proposatzen da.

3.3. Trenbide-sarea

Txingudi eskualdeko trenbide-sarea bi sarek osatzen dute: RENFEk —ibilbide osoan bikoitza— eta Euskotrenek. Ibilbide nahiko berdintsua egiten dute biek, eta bidaiariak garraiatzeko erabiltzen dira, batez ere; Euskotren, esaterako, bidaiarientzat bakarrik da.

3.3.1. Proiektuak

Trenbidearen arloa da agian garrantzitsuena, eskualdean eragin dezakeenagatik. Izan ere, datozen urteetarako aldaketa handia aurreikusten da. Aldaketa edo bilakaera horrek esparru desberdinetan eragingo du; esaterako, hiri-arloan, jarduera horietarako aukeratzen den eremuaren arabera; eta, bestalde, trafikoa banatzeko moduan, salgaiena zein bidaiariena.

3-6

Trenbidearen inguruko proiektuei dagokienez, komenigarria da zenbait gai aztertzea:

Trenbide-sare berria. Euskal Y-a Trenbideen arloan, proiektu nagusietako bat EAEn. Proiektu hori abian jartzea eztabaida-iturri izan da, bai erakundeen

artean, bai herritarren artean; gaur egun, oraindik ere, obrak egiteko epeen inguruan zalantza ugari daude, baita sare frantsesarekin lotu behar den edo ez erabakitzearen inguruan ere.

Sare horren helburua kanpo-harremanak hobetzea da, eta Europako Garraio-Sarearekin elkartu, Gasteiz-Dax loturaren bitartez. Erabilera mistoa izango luke sareak, baina abiadura desberdina izango lukete —250 km/h-ko bidaiarientzat eta 90 km/h-ko salgaientzat—; horrek oraingo sarearen zirkulazio-kudeaketa hobetzen lagunduko luke. Ibilbideari dagokionez, Pasaiako Portuarekin lotzea aurreikusten da, salgaien trafikoan eragin handia izango lukeena.

Sarearen ezaugarriak kontuan hartuta, pentsatzekoa da geltoki gutxi izango dituela, baina horietako bat Irungo udalerrian izango dela aurreikusten da.

Irungo geltoki intermodala Trena abiapuntu dela, beste modu batzuekin lotzeko proiektua da. Asmoa Irungo zonaldea Pasaiako portuarekin lotzea da. Lotura horrek, bestalde, salgaiak garraiatzeko, Gipuzkoako barnealderantz jarraipena izan dezake. Hori, oraindik, aztertzen ari dira eta beste aukera bat baino ez da.

Lehendabiziko proposamena, 1996. urtean jarria abian, Hendaia-Irun Trenbide-Eremuaren antolamendua izan zen. Euskomodal elkarteak zehaztu eta garatu zuen proiektu horren arabera, salgaiak leku batetik bestera garraiatzeko gaitasuna izugarri handituko litzateke; horretarako, Plaiaundiko zonaldean 750 metro, estalpean, hartuko lirateke. Gainera, lehentasuna izango luke salgaiak batetik bestera garraiatzeko, trenbide-sarea hobetze aldera egingo liratekeen jardueretan.

Irungo geltoki intermodalaren gaiari dagokionez, Araso zonalderako plan partzial bat onartu da. Dena dela, Larramonen, Lezon, geltoki bat jartzeko proposamena ere badago, eta hasiera batean arestian aipatu duguna ordezkatzea zekarren. Hala ere, bi proposamenak osagarri izateko aukerak badira.

Irun eta Errenteria arteko trenbidea zabaldu. Trenbide-sarearen Lurraldearen Arloko Planak Donostia eta Hendaia arteko linean zenbait jarduera proposatzen ditu, eta horien artean, Irun eta Donostia arteko trenbidea zabaltzeko jarduera nabarmentzen da. Trenbidea zabalduz gero, posible izango litzateke 15 minutu oroko maiztasuna izatea. Eta maiztasuna areagotzeak, era berean, hiri inguruko zerbitzua emango luke Euskotrenek.

Hondarribia – Irun tranbia. Trenbide-sarearen Lurraldearen Arloko Planean tranbia aipatzen bada ere, gerora ez da ezer egin; beraz, gaur egun, esan daiteke proiektua izan beharrean aukera bat dela. Izan ere, Herri Lan eta Garraio Sailak abian jarri duen tranbia-programan ez dago. Hasiera batean, proiektua justifikatuta zegoen aireportuarekin lotura izango zuelako, baina, era berean, bi udalerrien arteko lotura azkarra eta eraginkorra izateko ere proposatzen zen.

3.4. Aireportua

Udalerriarentzat garrantzi handia duen ekipamendua bada ere, barne-mugikortasunaren ikuspuntutik ez du inolako eraginik. Kanpoaldean dagoenez eta hegazkinez bidaia daitekeen eremua kontuan hartuta, aireportu-jarduerak ez du eraginik Hondarribiko barne trafikoan.

Azken datuen arabera, 2006 urtean, aireportuak 12.076 aireontziko trafikoa izan zuen, guztira 368.009 bidaiari jaso zituelarik. Azken urteetan igoera handia eman da aireontzi eta bidaiari kopuruan.

Taula. HONDARRIBIAKO AIREPORTUKO AIREONTZI ETA BIDAIARI KOPURUA. (2000-2006)

URTEA	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Aireontziak	7.807	7.927	8.264	8.878	9.106	11.007	12.076
Bidaiariak	283.827	281.062	271.219	282.911	295.536	306.309	368.009

Iturria: Bidasoa activa – Bidasoa bizirik



Iturria: Bidasoa activa – Bidasoa bizirik. Berezko eraketa.

Azkenaldi honetan, Hondarribiko aireportuko eskaintza handitzen ari da; esate baterako, Malagara eta Sevillara zuzenean joateko, baita Madrilera eta Bartzelonara ere; halaber, Donostiatik zerbitzu erregularra ezarri da aireportuko sarrera-irteerak koordinatzeko. Zenbait erakunderen asmoa aireportuko jarduera indartzea bada ere, badira bideragarritasunaren inguruko zalantzak, Madrilera trenez azkar joateko aukerak baitaude. Bestalde, nahiz eta eskaintza zabaldu egin den, aireportuaren tamaina eta gaitasuna ezin da Loiukoarekin edo Biarritzekoarekin alderatu.

Dena dela, eta lehen aipatu dugun bezala, eskualdeko mugikortasunean oso gutxi eragiten du, eta une oso jakinetan erabiltzen den garraio-mota da.

Kanpo-mugikortasunari dagokionez, eta EAEko beste aireportukein alderatuz, esan daiteke bigarren mailako aireportua dela. Erabiltzaile gehienak eskualde bertakoak edo ingurukoak dira eta batez ere lan kontuengatik erabiltzen dute. Ondorengo grafikoetan, EAEko aireportu desberdinetan ematen den bidaiarien banaketa, hegaldi motak eta Hondarribiako aireportuan ematen diren hegaldien arrazoiak aztertuko dira.

EAEko bidaiarien banaketa aireportuaren arabera (2006)



Iturria: EAEko garraio eskaeraren imagina 2006

EAEko aireportuek 3.329.903 bidaiari izan zituzten 2006 urtean. Hauetatik %88,4a Loiun eman ziren eta portzentai txikiago batean Hondarribian (%7,7) eta Forondan (%3,9) izan ziren. Kontutan izan behar da hegaldi guztien ¾ nazionalak izan zirela eta beraz, soilik ¼ izan zen nazioartekoa. Hondarribiako kasuan, banaketa hau oraindik handiagoa da:

Hegaldi nazioanalak (2006)



Nazioarteko hegaldiak (2006)



Iturria: EAEko garraio eskaeraren imagina 2006

Bestalde, Hondarribiako aireportuan honakoak dira bidaiatzeko arrazoiak:

Bidaiariak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera sailkatuak

Bidaiariak bidaiaren arrazoiaren arabera. 2003



Iturria: EAEko garraio eskaeraren imagina 2006

Ikusitako datuak kontutan izanik, ondorengoa ondorioztatu daiteke:

- EAEko bigarren aireportu nagusia da baina Loiuko aireportuaren oso azpitik dago
- Ez da nazioarteko hegaldirik ematen, ia danak nazionalak dira
- Bidaiatzeko arrazoi nagusia lana da.

3.5 Garraioaren eta mugikortasunaren inguruko laburpena iraunkortasunaren ikuspegitik

Mugikortasun iraunkorraren ikuspegitik, pertsonen mugikortasunaren azterketa eta salgaiena bereizi behar dira.

Pertsonei dagokienez:

- Kontuan izan behar da oinez desplazatzen diren pertsonen kopurua; izan ere, asko dira, %55, eta modu desberdinez desplazatu ahal izateko eremu publikoei lehentasuna ematerakoan, islatu beharko litzateke.

- Gehienak lan-arrazoiengatik desplazatzen dira, %46 hain zuzen; bigarren arrazoia, berriz, aisialdia da, %33. Nahitaez mugitu behar izaten dutenen kasua hartuz gero, lana eta ikasketak sartzen dira multzo horretan, desplazamenduen %55ek osatzen dute kategoria hori. Horrek guztiak esan nahi du, egunero egiten diren desplazamenduen erdia baino gehiago errepikariak direla; hau da, jatorri eta helmuga berekoak dira ia desplazamendu guztiak.

- Udalerritik kanporako desplazamendu gehienak Irunera egiten dira, eta batez ere lana eta aisialdia dira bertara joateren arrazoi nagusiak, %53.

- Motorizazio-tasak goranzko joera du; lehen handia bazen ere, 100 biztanleko 42 ibilgailu zeuden 2003. urtean. 2005 urtean berriz, 43,2 ibilgailu zeuden.

- Gero eta gazteago motorizatzen dira, motoa da horren arrazoi nagusia. Horren eraginez, mugikortasunaren iraunkortasun-eskemetatik urruntzen ari dira gazteak, eta ibilgailu pribatua eskura izatea helburu bihurtzen ari da. Behin hori gertatuz gero, oso zaila da bestelako garraio-mota batzuetara jotzea.

- Irunera joan-etorriak egiteko garraio publikoaren eskaintza ona baino hobea da, eta Donostiarako, berriz, ez da oso ona.

3.6. Hondarribiko garraioari eta mugikortasunari buruzko sintesia, iraunkortasunaren ikuspuntutik

24. koadroa

Garraioa eta mugikortasuna
• Hondarribiko udalerrian motorizazio-mailak areagotu egin dira pixkanaka-pixkanaka 2005. urtera arte. Hazkundea orokorra izan da ibilgailu-mota guztietan • Eskualdean egiten diren ia desplazamendu guztiak probintzi berean ematen dira (%95,93). Aldi berean, portzentai honetatik, gehiengoa barrukaldean (eskualde barruan) ematen diren desplazamenduei dagokie (%79,66), ondoren Donostiara ematen diren desplazamenduak (%8,63) eta azkenik Donostialdeara ematen direnak (%6,23). • Udalerritik kanpo Irunera egiten dira desplazamendu gehien: lana (%54,9), ikasketak (%40,5), erosketak (%87,5) eta aiaialdia (%50a baino gehiago). • Kotxea da gehien erabiltzen den garraiobidea lanera joateko (%63,7), ikasketa arrazoiengatik (%40) eta erosketa handiak egiteko (%83,5) • Jende asko desplazatzen da oinez. (Desplazamenduen %55). • Egunero egiten diren desplazamenduen erdia baino gehiago errepikariak dira; hau da, jatorri eta helmuga berekoak dira ia desplazamendu guztiak. Beraz, planifika daitezke. • 2002. urtean Gipuzkoako Bidegorri Sareen Plana idatzi zen. Ordutik hona, Aldundiak proposatutako bidegorri zenbait zati eraiki ditu. Gainera, Bizikletaren Lurralde Arloko Planaren idazketak Gipuzkoako Bidegorri Sareen Planean jasotako oinarrizko sarea zabaltzeko aukera ematen du. 1.Ibilbideak: Donostia/San Sebastian – Muga, hiriburua Irun eta Frantziako

mugarekin lotzen ditu. Etorkizunean, tokiko, eskualdeko eta foru-partaidetza eskatuko duen Irun eta Hondarribiaren arteko lotura ere kontuan izan beharko da.

- Hondarribian bi bidegorri luze daude (kostarekiko paralelo), eta epe motzera horiek luzatzea aurreikusten da, sarea osatzea baita helburua. 2005 eta 2006 urteetan 2,18Km zeuden 10.000 biztanleentzat.
- Hiritarren hautemate-inkestaren arabera, garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea ertaina da; 4 puntutik 2,5eko puntuazioa eman diote. Prezioak, ohi bezala, ez du hain balorazio ona izan, 4tik 2 puntu eman diote hiritarrek. emaitza hauek aldatu egin daitezke Lurraldebus txartel bakarra martxan jartzearekin batera.
- Motorizazio-adina gero eta gazteagoa da.
- Irunera joan-etorriak egiteko garraio publikoaren eskaintza ona da: 2005-2006 bitarte, erabiltzaile kopurua 249.652 handitu da. Bestalde, Donostiara joan-etorriak egiteko garraio publikoaren eskaintza eskasa da.
- Azken datuen arabera, 2006 urtean, aireportuak 12.076 aireontziko trafikoa izan zuen, guztira 368.009 bidaiari jaso zituelarik. Azken urteetan igoera handia eman da aireontzi eta bidaiari kopuruan. Kanpo-mugikortasunari dagokionez, eta EAEko beste aireportukein alderatuz, esan daiteke bigarren mailako aireportua dala. Erabiltzaile gehienak eskualde bertakoak edo inguruikoak dira eta batez ere lan kontuengatik erabiltzen dute
- Bidasoa-Txingudi Mugikortasun Planaren proposamenen txostena 2007ko abenduan aurkeztu zen.

4. NATURA INGURUNEA

5. NATURA INGURUNEA

a. Natura Ingurunearen Deskribapena

Hondarribia udalerriak 3.085 hektareako azalera du, eta Gipuzkoako lurralde historikoaren ipar-ekialdearen muturrean dago, Txingudiko badiaren ezkerraldeko ertzean, Bidasoa ibaia itsasoratzen den tokian, Jaizkibel mendiaren oinean. Bizkaiko Golkotik hurbil egoteak eta orografiak baldintza klimatiko onak izatea eragiten dio Hondarribiari: urtaro lehorrik gabeko klima hezea, urteko batez besteko tenperatura 14º ©-koa da (maximoa 20´1º © eta minimoa 8º ©), urteko batez besteko prezipitazioa 1.500 L/m^2-koa da eta hezetasun handia (%76 batez beste).

Morfologiari dagokionez, Hondarribia udalerria ez da uniformea. Ipar-ekialde erdia Jaizkibelgo mendiak osatzen du –ipar-ekialde/hego-ekialde norabiderantz begira–, hegoaldeko isurialdeko hegalak Bidasoa ibaiaren estuariora eta Jaitzubia ibarrera jaisten dira, ibaiaren ibilbidea jarraituz Txingudiko estuarioan itsasoratu arte. Udalerriaren altuerarik handienak, Jaizkibelgo mendigunearen gailurrak, 543 metroko altitudea du.

Kosta-lerroa, iparraldetik, nahiko zuzena da, baina baditu zenbait irtengune eta horien artean hauek dira aipagarrienak: Turrilla punta (Murkotz) Pasaia udalerriarekiko mugan, Biosnar punta, Higer lurmuturra —Amuitz irlarekin batera Jaizkibelgo mendikatearen muga osatzen dute ipar-ekialdearen muturrean; eta Erentzin, Laondoko, Portomoko eta Kapelaundi ertzak. Higer lurmuturraz haratago kostaldeak hegoalderantz egiten du eta Bidasoaren estuarioaren ekialdeko ertza eratzen da.

Ibai-urei dagokienez, Bidasoa ibaiaz gain, honako erreka hauek dira nabarmentzeko modukoak: Martixko, Moundiko, Justiz eta Artzu, Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdean eta zuzenean itsasoratzen direnak; Esteutz,Txorrote eta Ugalde, Hegoaldeko isurialdean, Jaitzubia errekarekin bat egin eta Bidasoaren estuarioan itsasoratzen direnak; eta, azkenik, Txurruta, Txori eta Santa Engratzia, zuzenean Bidasoaren estuarioan itsasoratzen direnak. Aipatutako azken erreka horien amaierako zatiek padura-zonalde handia osatzen dute, gaur egun lehor daudenak eta bizitoki eta herri-kokaleku bihurtu direnak (Mendelu eta Amute-kosta auzoak, aireportua, Zumardia).

Nahiz eta Txingudiko badian jende asko bizi den, ezaugarri geografiko eta topografikoei esker, zenbait *fauna-espezie* topa daitezke, inguruko udalerrietan ez daudenak. Izan ere, hegazti-espezie askoren eta tximeleten

eta zenbait arrainen migrazio-bideen leku estrategikoetako batean dago Txingudi. Hegaztien artean ugarienak uretako espezie migratzaileak dira, Txingudiko badiako padurak denboraldi batez babesleku eta hornitze-leku gisa erabiltzen dituztenak; 242 hegazti-espezie erroldatu dituzte. Bestalde, Jaitzubia eta Jaizkibel lepidopteroen migrazio-bide garrantzitsuenetako bat da. Ipar-atlantikotik etorritakoen artean izokinak —Bidasoa ibaitik barrena jaisten dira— eta Jaitzubia eta Bidasoaren azken zatietan, garaiaren arabera, aingirak izaten ditugu. Itsasoan, ez oso urruti, zetazeoak ikusten dira eta askotan hurbiltzen dira kostalderaino.

Eusko Jaurlaritzak aginduta "Txingudiko ingurune fisikoaren azterketa" lana egin zuen Arantzadi Zientzi Elkarteak, 1983. urtean, lurraldearen sektorizazioa egin zuten zenbait aldagai kontuan hartuta, eta udalerrian hiru lurralde-unitate homogeneo zeudela ondorioztatu zuten:

a) *Jaizkibel (iparraldeko isurialdea)*

Harkaitz-substratua homogeneoa da, silizezko hareharriz eta zementu karetsuz osatua. Unitate hori Jaizkibelgo kostaldeko Sinklinalaren Mendi Unitatearen zati da; malda ertain eta handiak ugariak dira eta itsasoaren eraginaren ondorioz itsaslabarra du. Unitate osoak Kantauri itsasora isurtzen diren 17 errekako azpiarro independentea osatzen du. Lurra, oro har, pobrea, hareatsua, harroa eta lodiera eskasekoa da.

Zonalde nahiko soildua da, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduera gutxikoa; abeltzaintza jarduerak estentsiboak dira eta basogintzari dagokionez, zenbait espezie daude landatuta. Mendiaren zati handiena soildua dago, eta gailurrean larretarako zonaldeak eta otalur atlantikoak osatu dira, abereak bazkatzen diren lekua. Kosta aldera sartzea ez da erraza, itsasertzeko harkaitz-zonaldeetan ohikoa den landaretza mota dago; ibarretan eta erreka-zuloetan ere erriberatako landaretza, bai eta garai batean iparraldeko isurialdean zeuden antzinako hariztien zenbait aztarna ere.

b) *Hondarribiko landazabala edo harana (Guadalupeko malda, Jaizkibelgo hegoaldeko isurialdea eta Gaintxurizketa gaina)*

Substratua marga eta kareharria duelako bereizten da, aurreko mendigunearen malden erliebea eta Jaizkibelgo hegoaldeko isurialdea osatzen dutela, hondar-erliebedun ibar zabalekoak, muino txikien tankerara. Aurreko unitatean ez bezala, lurra sakona, buztintsua eta

emankorra da, lur arre motakoa, beheko aldean eta Jaitzubiko ibarrean, batez ere.

Paisaia gizartiatuagoa da, hiri-nukleoak eta betiko baserriz osatutako nekazaritza eremuak baitaude bertan; belardi- eta soro-landaretza da nagusi (lurra alorretan banatuta ageri da). Landaretza naturalaren hondarra oso mugatua da, Jaitzubia errekan isurtzen diren errekatxoen ibarrak estaltzen dituen haltzadia besterik ez da ageri. Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdearen goiko zatia soildu samarra dago, eta iratzez, otadiz eta larrerako otalurrez estalita dago. Hegoaldeko isurialdearen erdialdean, berriz, pinu- eta gaztainondo-basoak badira.

c) *Jaitzubiaren estuarioaren alubialak*

Substratua homogeneoa da, kuaternarioko ibai eta itsas jatorriko alubioi-sedimentuz osatua: legarra, harea eta lohia. Lurzorua sakona da, oso moldagarria eta emankorra, alubioi- eta gleys-motakoa (lur azpian putzuak daude). Ibaitik gertu dagoenez, paisaia ere hari egokitutakoa da: estuarioaren goraldiak eta beheraldiak eragindakoa, lohi-zonaldeak, dikeak. Nekazaritza-produkzio handiko unitatea da, eta ia gehiena baratzek eta laborantza estentsiboek hartzen dute; bestalde, etxebizitzak ere badira, baina dentsitatea ez da handia. Jaitzubiaren ibilguan, padura garbitzen ari direnez, landaretza naturala gero eta ugariagoa da, garai batekoa berreskuratzen ari da.

76. grafikoa. Hondarribiko unitate fisikoak.



Iturria: Geuk egina.

Gizakiaren eraginez izan diren aldaketen isla argi eta garbi ikus daiteke paduren bilakaeran. Bidasoako padurek izan duten garrantzi historikoa eta hedadura nabarmena da, 391,2 hektarea galdu baitira, gehienak gizakiaren eraginez.

173. taula. Bidasoako estuarioan galdutako azalera

Galdutako azalera guztia Hektareak	Kausa naturala Hektareak	Gizakiaren eraginez Hektareak
391,2	10,3	380,9

Iturria: Contribución de la acreción natural y la apropiación antrópica a la reducción superficial de las rías del País Vasco (Rivas eta Cendrero, 1992)

Urbanizatzea eta nekazaritza-eremu bihurtzea izan dira murrizketa hori eragin duten faktore garrantzitsuenak. Horrela, jarduera horiek gaur egun 175 eta 154 hektarea hartzen dituzte, eta marea-korrontearen eraginez modu naturalean sartu beharko lukeen ura ez da sartzen eremu horietan.

174. taula. Marea-kotaren azpitiko eremuak

	UNITATEA	AZALERA (hektareak)
Marea-kotaren azpitiko azalera	Kostako haitzak	-
	Hondartzak	22.34
	Dunak	-
	Ibai-ibilgua	205,50
	Fangalak	15,82
	Padurak	25,81
	Ihitokia	1,01
	Landazabala	153,93
	Haltzadia	1,67
	Sastrakadia	-
	Koniferoak	-
	Bete-lana	9,31
	Urbanizatua	174,98
	GUZTIRA	**610,38**

Iturria: Contribución de la acreción natural y la apropiación antrópica a la reducción superficial de las rías del País Vasco (Rivas eta Cendrero, 1992)

4.2 Landare-estalduraren azterketa eta bilakaera

4.2.1 Landaredi potentziala

Landaredia, beste faktore batzuen artean, klima, substratu eta geografiaren arabera hazten da leku jakinetan. Gizakiak nekazaritzako, abeltzaintzako eta bestelako jarduera batzuen eraginez landaredia eta lurraldearen ezaugarriak aldatu ditu, eta landaredi potentziala erabat aldatu du.

Jarraian, Hondarribia udalerriko landare-estaldura nolakoa izango litzatekeen deskribatu eta grafikoki adierazten da; hau da, gizakiaren eraginik gabeko egoera irudikatzen da, *landaredi potentziala* deitua, eta faktore naturalak besterik ez dira kontuan hartu ezaugarriak eta banaketa egiterakoan (klima, substratua, norabidea, altitudea...):

- Hostozabalek lurraldearen zati gehiena hartuko lukete, eta desberdina izango litzateke Jaizkibel mendiaren isurialdeen arabera. Hegoaldekoan, hariztiak eta baso mistoak. Iparraldekoan, berriz, ametz-basoak.

- Haltzadiek bi isurialdeetako haran-hondoak hartuko lukete.

- Itsasoaren eta paduraren ertzak hareatzetako, harkaitz-zonaldeetako eta paduretako landarediz estalita egongo lirateke.

Planoan banaketa hori ikus daiteke, eta udalerriko landaredi potentzialaren ideia orokorra eskaintzea du helburu.

78. grafikoa. Hondarribiko landaredi potentziala.



Iturria: EAEko ingurumenaren kartografia-sistema. Eusko Jaurlaritza, 2000.

Jarraian, landaredi potentziala osatzen duten unitateen aurkezpen zehatzagoa duzu; horietako bakoitzaren ezaugarriak nabarmendu dira, baita zein tokitan garatu ahal izango liratekeen ere.

175. taula. Hondarribiko landaredi potentzialaren unitateak.

UNITATEA	EZAUGARRIAK
Harizti atlantiarra *Quercus robur*	Lurzoru azidoetan, malda txikiko isurialdeen oinean eta hezetasun hedafiko handikoetan. Nahiz eta espezie nagusia *Q. Robur* den, bestelako Quercus motak ere badira (Harri-Qa, Q. Pirenaikoa), lizarrak, urkiak eta zuhaixka-estratu eta belar-geruza mota asko. Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdearen beheko zatia eta Jaitzubiko ibarraren beheko aldea estaliko lukete, bai eta iparraldeko isurialdeko itzalpeko bazterrak eta bazter hezeak ere
Baso misto hostoerorkorra	Malda handietan dauden ibarrak eta amildegietako aldeak estaltzen dituzte. Basoaren hiru estratu adierazgarrienak dituzte: zuhaitz-espezieak (ametz arrunta, pagoa, eta gutxiago gurbea, zumarra, gereziondoa, urkia, hagina, sahatsa, lizarra eta hurrondoa), zuhaixka-estratua (mota asko eta zuhaixka-espezie batzuk; esaterako, *Crataegus monogyna*, *Cornus sanguínea*) eta belar-geruza (*Polystichum setiferum* eta *Mercurialis perennis* espezieak, esaterako). Banaketa potentzialari dagokionez, lehia gogorra izango lukete harizti atlantiarrarekin, baina horiek baldintza kaskarragoa izango lukete.
Baso mistoa, ereinotzarekin	Ezaugarri beroagoak eta mediterraneoagoak, silizeo-, granito- eta hareharri-estratuetan hazten dira. Espezie adierazgarriak, zuhaitzen artean ereinotza (*Laurus nobilis*) eta gurbitza (*Arbutus unedo*) dira, txilarra eta erratza duen sastraka eta iratze eta belar mota asko. Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdeko amildegietako hondoak estaliko lukete
Hariztia *Quercus pyrenaica* (Ametz-basoa)	Batez ere, *Quercus pyrenaica* motakoa, lurzoru hareatsuetan silizearretan eta lehorretan hazten da. Baso zabalak dira, eta *Q. Pyrenaica* espezieaz gain, hauek osatzen dute: zuhaitz-estratuan *Q. Robur-a eta Fagus sylvatica;* zuhaixka-estratuan txilarra; eta belar-geruzan iratzea eta beste espezie batzuk, *Arenaria montana,* esaterako. Muinetan egongo lirateke batez ere; hau da, iparraldeko isurialdean eta Jaizkibel mendiaren gailurrean, 500 eta 700 metro arteko altueran
Haltzadi kantauriarra	Ur-ibilguak estaltzen dituen landaredia. Espezie nagusia *Alnus Glutinosa* da, eta zenbaitetan *Salix-espezie* batzuk izaten ditu lagun, bai eta laharra eta liana ere. Haltzadiek Jaitzubia ibarreko errekatxo eta erreka ertzak eta Jaizkibelen hegoaldeko isurialdeko zenbait amildegi estaliko lukete; ibai-erriberetan eta udalerriko erreketan badira, ur gazi gehiago dauden zonaldetaraino
Zakardiak	Hiru mota dira. Kostaldeko zakardia, itsasertzetik hurbil (besteak beste, *Erica vagans* eta *Genista hispanica, occidentalis*

UNITATEA	EZAUGARRIAK
	subespezieak biak); zakardi atlantiarra (txilarra, otea eta gramineo atlantiarra) eta esfagnalak, lurzoru siliziarretan eta hezeetan oso ohikoak, gaizki drainatutako lekuetan, ibai-ertzetan, iturburuetan eta putzuak dauden lurretan hazten dira. Azalera txikia hartuko lukete, soilduta dauden baso zatiak, zuhaiztiak dauden lekuen ertzak, eta, agian, haizeak ematen duen zonaldeetan, basorik gabeko guneetan
Larreak eta iratze-lekuak	Zakardiekin lotura handia dute; baso hostoerorkorren ordez osatzen dira eta lurzoru soilduak hartzen dituzte. Zenbait etapen ondorioz osatzen dira, asko edo gutxi, gizakiaren eta abereen jardueren ondorioz osatzen dira. Hiru larre-mota bereizten dira (*Agrostis curtisii*, *Agrostis capillaris* eta *Molinia caerulea).* Iratze-lekuak erdiartifizialak dira, gizakiaren eraginez ere sortzen dira, aurretik zegoen beste espezieren baten ordez; beraz, ez lirateke landaredi potentziala adierazten duen mapa batean islatuko
Ur gezetako landaredia	Ingurunearen ezaugarrien araberako belar-espezieak dira. Espezie honen presentzia garrantzitsua izango ez litzatekeenez, suposatzen da orain daudenak potentzialen oso antzekoak izango liratekeela. Osinetan eta Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdetik behera jaisten diren ibai-korronte ahuleko zonaldeetan haziko lirateke; besteak beste, espezie hauek dira: *Myriophyllum*, *Nuphar* eta *Nymphaea*
Paduretako landaredia	Batez ere, Bidasoaren estuarioaren beheko zonaldean egongo lirateke, Jaitzubiaren ubidean eta erreketan sartu eta aireportuko zonaldea estaliko lukete, bai eta Hondarribiko herriguneko zati txiki bat ere. Landaredi honen aniztasuna marea-mugimenduek eragindako estratifikazioaren araberakoa da; batez ere, belar-espezieak izango lirateke eta ihi, gramineo eta ziperazeo espezieak ugarienak, inguru horretan ohikoak diren beste espezie batzuekin batera. Espezie horiezaz gain, lezka-azalera handiak ere egongo lirateke
Lezkadiak	Aurrekoaren baldintza oso berdintsuko tokietan hazten da lezka; estratu nagusia *Phragmites australis* (lezka arrunt) da, eta beste espezie batzuekin batera ubide-ertzetan izaten da. Baliteke, Jaitzubiaren ubideko ertzak eta aldameneko erreketako ertzak hartzea, bai eta estuarioaren beste toki batzuk ere, padurarekin lotura handia dutenak.
Kostaldeko hareatzetako landaredia	Zonalde hareatsuetako inguruetara egokitutako espezieak dira. Lurzoru gazi eta lehorrak, eta haizearen eta marea-mugimenduen eraginak dira flora oso berezi horren hazteko lekua mugatzen dutenak. Landarediari dagokionez, batez ere belarrak dira.

UNITATEA	EZAUGARRIAK
	Hondartzan haziko lirateke, eta Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdeko amildegietan dauden ahoetako hareatza txikietan ere bai, baina gutxiago
Kostaldeko harkaitzetako landaredia	Kasik lurzorurik ez duen sustratuan, zenbait marga-estratu dituen hareharriak Hondarribiko portuko ebakiduran. Harkaitzak erosioaren, itsasoaren (gazitasun handia) eta haizearen eraginpean daude, flora oso jakina eragiten duten faktore mugatzaileak dira. Batez ere, belar-espezieak dira; espezie endemikoa delako nabarmentzeko modukoa da *Armeria euskadiensisa*, baina beste espezie batzuk ere badira: iratze fisurikoloa (*Asplenium marinum*) eta *Tamarix gallica* espezieko zenbait ale, Higerreko itsasargitik hurbil berez hazten dena. Jaizkibelgo kosta-lerro osoan dago
Harkaitz siliziarretako landaredia	Lurraldeko kotarik garaienetan daude, 500 metro inguruko altitudean eta Jaizkibel mendiaren isurialde pikoenetan. Espeziei dagokienez, landaredi nahiko pobrea da, eta belar-landareak dira nagusi (*Sedun sp.*, *Festuca rubra*...)
Belardiak	Haran-hondoetan eta malda txikiko muinoetan. Jaitzubia ibarraren hondoaren lurzoru emankorrena hartuko lukete belardiek (150 metro baino gutxiagoko altitudean), Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdean, batez ere.

Iturria: Txingudiko Ingurune Fisikoaren azterketa (Eusko Jaurlaritza, 1983) eta guk geuk egina

4.2.2 Gaur egungo landaredia

Azaleren banaketa orokorra honako hau da:

- Azaleraren heren inguru belardiek (%24,2) eta larreek (%5.1) hartzen dute; 865 hektarea, guztira.
- Beste herena sasia da (%30.5), 900 hektarea.
- Gainerakoa, %22,5 zuhaitzak dituen baso-azalera da, zuhaizti trinkoak nagusi dira (%16,4) zuhaizti sareen aldean (%6,1). Azalera ez-emankorra ere handi samarra da: 436 hektarea (azalera guztiaren %14.8).

Azaletik bada ere, hona hemen Hondarribiko gaur egungo landarediari dagokion planoaren deskripzioa.

79. grafikoa. Hondarribiko gaur egungo landaredia



Iturria: EAEko ingurumenaren kartografia-sistema, Eusko Jaurlaritza, 2000.

176. taula. Azaleraren banaketa orokorra

	Hondarribia		Bidasoa Beherea		Gipuzkoa	
	Hektarea	%	Hektarea	%	Hektarea	%
Ez-emankorra	436	14,8	1.176	16,5	12.054	6,1
Belardia	714	24,2	1.737	24,3	45.683	23,1

Larreak	151	5,1	200	2,8	6.994	6,5
Sastrakadia	900	30,5	1.209	16,9	13.933	7,0
Zuhaizti trinkiko basoa	483	16,4	2.139	30,0	110.973	56,0
Zuhaizti meatseko basoa	180	6,1	538	7,5	7.282	3,7
Jarduera-intentsiboak	89	3,0	142	2,0	1.114	0,6
Guztira	**2.953**	**100,0**	**7.141**	**100,0**	**198.033**	**100,0**

Iturria: EUSTAT, 1996

Gipuzkoari dagokionez, banaketa horrek bitxikeria nabarmenak erakusten ditu. Hondarribian, sasi-azalera Gipuzkoaren halako lau da, bai eta ez-emankortzat hartzen dena ere (Gipuzkoarena bikoizten du). Zuhaiztien azalera askoz ere txikiagoa da Hondarribian (%22,5 - %59,7 azaleraren aldean), zuhaizti trinkoaren kasuan aldea are nabarmenagoa da. Belardi eta larreen azalera besterik ez dira berdintsu samarrak. Begi bistakoa dirudi, azaleraren tamaina eta Jaizkibeli ematen zaion erabilera direla Hondarribiaren ezaugarri bereizle nagusiak, udalerriaren landarediari dagokionez.

Gipuzkoako kostaldeko beste udalerri batzuen aldean, Pasaia, Zarautz, Orio, Zumaia eta Deba, esaterako, Hondarribia bereizten da sasi-azalera handia duelako eta basogintzari eskainitako azalera murritza delako.

177. taula. Zuhaizti-azaleraren banaketa

	Hondarribia		Bidasoa Beherea		Gipuzkoa	
	Hektarea	%	Hektarea	%	Hektarea	%
Baso atlantiarra	175	26,4	551	20,6	12.225	10,7
Artea	--	--	--	--	2.162	1,9
Eukaliptoa	--	--	--	--	212	0,2
Pagoa	--	--	32	1,2	14.396	12,5
Pinu radiata	120	18,1	981	36,6	54.795	47,8
Pinu gorria	--	--	--	--	154	0,1
Erkametza	--	--	--	--	242	0,2
Bestelako koniferoak	112	16,9	261	9,7	17.307	15,1
Bestelako hostozabalak	256	38,6	852	31,8	13.247	11,5
Guztira	663	100,0	2.677	100,0	114.744	100,0

Iturria: EUSTAT, 1996

Zuhaiztien azalerari dagokionez ere, badira beste ezaugarri bereizle batzuk Gipuzkoako gainerakoaren aldean, azalera murritzaz gain. Hondarribian garrantzi berezia du baso atlantiarrak (%26,4 eta Gipuzkoan %10,7) eta beste hostozabalek (%38, 6 eta %11, 5, hurrenez hurren). Horren guztiaren ondorioz, koniferoen kopurua askoz ere txikiagoa da; izan ere, pinu radiata

udalerriaren zuhaizti-azaleraren %18,1 baino ez da, eta Gipuzkoan %47,8. Pinu radiataren azalerari dagokionez, adierazletzat lurralde osoaren azalera hartuz gero, egoera are eta desberdinagoa da: %4,1 eta %27,7.

Lehen aipatu ditugun kostaldeko udalerrien aldean, Hondarribia hostozabal ehuneko handia duelako nabarmentzen da, ia koniferoen halako bi. Zehatz-mehatz, baso atlantikoa udalerri honetan gainerakoetan baino handiagoa da eta pinu radiata espezieak hartzen duen azaleraren portzentajea txikiagoa da besteenaren aldean.

Landare-komunitateen zehaztasun gehiago 1982. urtean egindako kartografia-unitateen azterketan aurki daitezke, "Txingudiko Ingurune Fisikoaren Azterketa (Arantzadi Zientzi Elkartea, 1983)" lanean bilduak. Azaldu dugun banaketa orokorrari dagokionez, zakardi eta txilardien azalerak, harkaitz eta paduren azalerak eta baso atlantikoaren azalerak nabarmentzen dira. Koadroan azaltzen den zenbait informazio eguneratuta dago.

178. taula. Hondarribiko gaur egungo landaredia

UNITATEA	EZAUGARRIAK
Harizti atlantiarra *Quercus robur*	Ustiapen intentsiboaren eraginez azalera izugarri gutxitu da. Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdean besterik ez daude enklabe txikiak
Hariztia *Q. Pyrenaica*	Ez dago horien masa adierazgarririk, baina landareño eta mulu ugaridaude Jaizkibelgo zakardietan eta larreetan. Batez ere, abereek kimatu egiten dituztelako eta erre egiten dituztelako ez dira garatzen
Baso misto hostoerorkorrak	Oso gutxi, lehen aipatu dugunagatik. Horien ordez, landaketa ugari egin dira, bai koniferoak, bai haritz gorriak
Haltzadiak eta sahastiak	Horien tamaina oso aldakorra da, erreken eta ibaien egoeraren araberakoak dira. Erreken bi ertzetan ilara txikiak osatzen dituzte, eta batzuetan bakar bat, lurzorua laborantzarako erabiltzen delako edo azpiegitura jartzeko erabili delako
Baso mistoa, ereinotzarekin	Ezaugarri horietako baso bat dugu *Justiz* amildegian, Jaizkibelen. Enklabe oso garrantzitsua da, eta atmosfera-saturazioaren baldintzak bakarrak dira eskualdean
Zakardiak	Jaizkibel mendiaren isurialdeetan, metro gutxiko altueratik 500-600 metroko altitudera arte hazten da, larre eta iratze-lekuekin nahasian. Kostaldeko zakardiak itsasertzeko ezpondan daude, eta zakardi atlantiarra Jaizkibel mendiaren isurialdeetan hedatzen da, iparraldeko isurialdean, batez ere. Esfagnalak erreka eta sakonune heze askotan barrena sakabanatuta daude; Jaizkibelen, esate baterako, Erdiko erreka eta Erentzingo erreken ahoetan dauzkagu
Larreak	*Agrostis curtisii* espezieko larrea da hedatuena, Jaizkibelen dortsalaren gainean daude. *Agrostis capillaris* larrearen banaketari dagokionez, oso aldakorra da (lursail txikiak zakardian edo bestelako larreen barruan). *Molinia caerulea* larreak zonalde hezeagoak behar ditu (errekak edo

UNITATEA	EZAUGARRIAK
	sakonuneak), eta beste unitate handiagoen barruan egoten dira
Garo-lekuak	Jaizkibelgo isurialdeetan sakabanatuta, eta zerikusi handia du egiten diren mozketekin. Zonalde asko utzita daudenez, gero eta okerrago daude eta txilardi-otadi bihurtzen ari dira
Ur gezetako landaredia	Jaizkibelgo erreketako zonalde oso jakinetan, landaredi potentzialean eremu handi samarra hartzen zuten
Itsasertzetako hareatzak	Ia erabat desagertuta, eta, gainera, hareatzak berreskuratzea oso zaila izango da, hondartzaren egitura aldatu egin baita eta erabiltzaileek presio handia egin dutelako
Padurak	Landaredi mota hori Jaitzubiko paduretan dago gehien, udalerriaren hegoaldean. Espezieak mareen mailaren eta aldian-aldian izaten diren uholdeen araberakoak dira. Padura zenaren lagin txiki bat besterik ez da geratzen, 2004an handitu zuten Jaitzubian egin zuten, lanari esker
Lezkadiak	*Phragmites australis* espezieak zonalde zabalak hartzen ditu Jaitzubian, eta kostaldeko laborantza-zonalde txiki batzuek ere bai
Kostaldeko harkaitzak	Jaizkibelgo itsas-ezponda guztian hedatuta dago, segidan, etenik gabe; barrura ere hedatuta dago pixka bat, bost edo hamar metro inguru. Ez du aldaketa handirik jasan edo larririk, behintzat; batez ere, ekonomikoki ez delako errentagarria. Dena dela, gaur egun, Pasaiako zonaldean azpiegitura-lan handiak egiten ari direnez, egoera larriagoa da
Harkaitz silizeoak	Landaredia abeltzaintza-jarduerak baldintzatzen du, espezie nitrofiloak hazten baitira. Potentzialki on egiten dion zonaldeetan garatzen dira
Belardiak	Larre erdinaturalak, belar-espeziez osatua, eta aldian-aldian moztu egiten dituztelako irauten dute, bai segaz, bai ganaduak moztuta. Jaitzubia ibarraren hondoan daude, bai eta Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdean ere
Gizakiaren eraginarekin zerikusi zuzena duten bestelako formazioak	• Baratzeak eta soroak, Jaitzubiko antzinako padura zonalde handia hartzen dute: Kosta ibarra, aireportuko ingurua... • Landaredi antropofiloa, nitrofiloa, esaterako; gizakiaren eraginez eta egiten diren eraikuntzen ondorioz hazten da; landa-paisaiako horma eta harresietan ikus daiteke. • Konifero-landaketak, eta horien artean alertze japoniarra (*Larix kaempferi*), intsinis pinua (*Pinus radiata*) eta larizio pinua (*Pinus nigra*) dira ugarienak; Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdean daude, 150 metrotik gora 250 – 275 metroko altuera arte, gutxi gorabehera. Iparraldeko isurialdean ere badira ale batzuk, batez ere Higer lurmuturretik hurbil. • Hostozabal-landaketak; eta horien artean haritz gorriak (*Quercus rubra*) eta gaztainondoak (*Castanea sativa*) dira ugarienak, nahiz eta hedadura handia ez duten hartzen

Iturria: Txingudiko Ingurune Fisikoaren azterketa (Eusko Jaurlaritza, 1983) eta guk geuk egina

Hondarribiko udalerrian dauden flora-espezien artean, badira batzuk Habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren eranskinen batean aipatzen direnak. Habitatei buruzko Zuzentarauaren *II. Eranskinean* Europarako intereseko bi espezie aipatzen dira; bi iratze-espezie dira, eta iparraldeko isurialdeko ibarretan daude, eta Jaizkibelgo jatorrizko landarediaren "mikro-erreserba"

dira; erabat bitxiak dira latitude horietan. Bereziki Zaintzeko Zonalde izendatzea beharrezkoa da.

179. taula. Hautemandako Habitatei buruzko Zuzentarauaren II. Eranskineko flora-espezieak

Espeziea	Aipatutako populazioak eta habitatak	*CVEA:
Trichomanes speciosum	Silizesko harkaitzak dauden zoluguneak, eguzki gutxiko urtaroetan, babestutako eta itsasotik gertu dauden amildegi txikietan ur-jauzi txikiak dituela tarteka (Justiz)	IB
Woodwardia radicans	Bakarra hareharrien gainean, ur-jauzi bat ere bai (Turrilla Punta)	IB

Iturria: Jaizkibel Mendiaren Kudeaketa Plana. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

IV. eranskinean Europarako Intereseko Babes Hertsia behar duten espezieak zerrendatzen dira:

180. taula. Hautemandako Habitatei buruzko Zuzentarauaren IV. Eranskineko flora-espezieak

Espeziea	Aipatutako populazioak eta habitatak	(CVEA:
Spiranthes aestivalis	Jaizkibel mendiaren itsasldeko isurialdeko zohikaztegiak	B

Iturria: Jaizkibel Mendiaren Kudeaketa Plana. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

Azkenik, Habitatei buruzko Zuzentarauaren *V. Eranskinean*, Europarako intereseko espezieak aipatzen dira, eta horiek naturatik hartzea eta ustiatzea kudeaketa-neurriak hartzeko modukoa izan daiteke:

* **CVEA**: Catálogo Vasco de Especies Amenazadas, cuyas categorías son No Catalogada (NC), No Amenzada (NA), de Interés Especial (IE), Rara (R), Vulnerable (V) y en Peligro de Extinción (PE)

181. taula. Hautemandako Habitatei buruzko Zuzentarauaren V. Eranskineko flora-espezieak

Espeziea	Aipatutako populazioak eta habitatak	(CVEA:
Sphagnum L. Spp.	Ugari Jaizkibelen, zohikatz askoko enklabeetan, erreketako ertzetan eta itsaslabarretako silizeozko isurialdeetan ere bai	KG
Ruscus aculeatus L.	Hariztietan eta hostozabaletako baso mistoetan ugari, amildegietan babestutako hondoetan eta txilardiez estalitako sakonuneetan ere badira	KG

Iturria: Jaizkibel Mendiaren Kudeaketa Plana. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

Kontuan hartu beharreko beste espezie batzuk edo dauden egoeragatik zaindu behar direlako edo bitxiak direlako, honako hauek dira:

182. taula. Intereseko beste flora-espezie batzuk

Espeziea	(CVEA:
Drosera intermedia	B
Drosera rotundifolia	
Pinguicula lusitanica	IB
Armeria euskadiensis	B
Hymenophyllum tunbrigense	B
Iris latifolia	R
Quercus suber	IB
Stegnogramma pozoi	
Thelypteris palustris Schott	K
Cochlearia aestuaria	
Zostera noltii	K
Salicornia dolychostachya	

Iturria: Jaizkibel Mendiaren Kudeaketa Plana. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

80. grafikoa. Jaizkibel mendiko intereseko flora-espezieen zitak.



4.2.3 Flora exotikoa:

Gaur egun Hondarribian dauden espezie asko eta asko gizakiak ekarri ditu, bai landatzeko, bai baso- edo lorategi-ustiapenerako, eta horietako askok hemen habitat ezin hobea aurkitu dute hazteko eta hedatzeko, eta hemengoak baztertu egin dituzte eta lehiatu egin dute bizirik irauteko. Landare inbaditzaileak deitzen diegu.

Horiek hemen izateak eragin ikaragarria du; Bidasoaren estuarioaren zonaldean bakarrik jatorri exotikoko 22 espezie hauteman dira, "Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetan mehatxuan dagoen flora baskularraren azterketa" (I. Aizpuru et al, 2002) lanaren arabera. "Estuarioetako habitatetan gaitasun inbaditzaile handien duten eta ugarien dauden espezien artean *Baccharis halimifolia* eta *Aster squamatus* nabarmentzen dira, eta *Paspalum vaginatum* espeziea komunitate suhalofiloetan, dunetan eta utzitako belardietan. Ingurumen horietan *Spartina patens* espeziea ere hauteman da, Jaitzubian, eta espezie oso agresiboa da, Bizkaiko Golkoko zenbait estuariotatik barrena oso azkar hedatzen ari da."

Belardi hezeetan oso ugariak diren beste espezietako batzuk *Paspalum dilatatum*, *P. Vaginatum*, *Cyperus eragrostis* eta *Aster squamatus* dira. Mareen eragina duten zonaldeetan *Spartina alterniflora* espeziea daukagu, bertako kide *S. Maritima* espeziea erabat ordezkatu du Gipuzkoako estuarioetan.

Estuarioetan ditugun horiezaz gain, badira flora-espezie exotikoak baso-ustiapenerako ekarritakoak; esate baterako, zenbait konifero (*Pinus radiata*, *P. Pinaster*, *P. Nigra*, *Larix kaempferi*) eta zenbait hostozabal (*Quercus rubra*, batez ere). Lorategietarako ere ekarri dira zenbait espezie, horietako batzuk lehen aipatu ditugu, baina *Robinia pseudoacacia* espeziea ere gaineratu behar dugu, bertako hostozabalekin lehia gogorra baitu.

Udalerriko floraren inguruko datu gehienak 1983ko "Ingurune Fisikoaren azterketa" lanetik hartutakoak dira. Azken 23 urteetan landaredian gertatutako aldaketen inguruko daturik ez dugu, eta, beraz, diagnosi horretatik ateratako ondorioak oso mugatuak dira, gaur egungo egoerari dagokionez. Informaziorik eguneratuena "Jaizkibelgo Kudeaketa Plana" lanaren zirriborrotik jasotakoa da, inguru horretako Europarako intereseko espeziei buruzkoak, batez ere.

4.3 Ibai-ibilguen egoera ekologikoa

Hondarribian erreka asko eta asko jaio eta itsasoratzen da Jaizkibel mendigunearen bi aldeetan, uren banalerroa baita. Iparraldeko isurialdean zuzenean itsasoratzen diren 16 erreka zenbatu dira, eta, hegoaldekoan, hamarrek Jaitzubia errekan isurtzen dute, eta hori, era berean, Bidasoa itsasadarrean amaitzen da, balio ekologiko handiko padura-zonaldea osatzen dutela. Santa Engratzia erreka bete-betean Txingudiko badian itsasoratzen da, Puntalea parean, beste zenbait erreken ura jaso ondoren.

Erreketako uren kalitatea ez dago bakarrik uraren egoeraren baitan (*Ingurumen-faktoreei* eskainitako atalean aztertuko dugu), ubideen eta erriberen araberakoa ere bada.

EAEko ibaien egoera ekologikoa aztertzeko, 2004. urtean Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak "EAEko Gainazaleko Ur Masa Kontinentalen Karakterizazioa" gaiari buruzko txostena egin zuen. Egoera ekologikoa erabakitzeko (EQR), bi kalitate-indize hartu zituzten kontuan. Indize biologikoa, ornogabeen fauna bentonikoan oinarrituta (ibai-ibilguaren kalitatea); eta erriberako basoaren kalitate indizea (QBR). Horren ondorioz, bost kalitate-mota erabaki zituzten, 5 egoera ekologikoko mailei dagokiena: oso ona, ona, ertaina, eskasa eta gutxi.

Bidasoa Behereko eskualdeari dagokionez, Bidasoa ibaiaren arroa aztertzen da, eta horren barruan Jaitzubiarena ere bai, ezkerreko aldetik Bidasoarekin bat egiten baitute urek. 400 metro pasatxoko altitudean jaiotzen da, 10,56 kilometro ditu eta 28,63 km^2-ko arroa. Zuzenean itsasoratzen diren inguruko arroak ez ziren aztertu.

Jaitzubia ibaia aztertzeko arroa hiru zatitan banatu zen:

- Jaitzubia 1: itsasoratzen den zonaldetik industrialdea hasten den tokiraino, Jaitzubia eta Irungo Benten artean (1,7 Km.).
- Jaitzubia 2: Irungo Bentetako industrialdearen hasieratik industrialdea bukatzen den arte (1 Km.)
- Jaitzubia 3: Irungo Bentetako industrialdearen bukaeratik jaiotzen den tokiraino (3 Km.)

Lehenengo bi zatietan erribiren kalitatea oso txarra da, eta ona goiko aldean.

183. taula. Erriberen kalitatearen diagnosia (QBR indizea). Jaitzubia erreka

ZATIAK	QBR PUNTUAZIOA			
	Eskuinaldeko ertza	Ezkerraldeko ertza	Guztira	kalitatea
Jaitzubia 1	**20**	**15**	**18**	**Oso txarra**
Jaitzubia 2	5	0	2	Oso txarra
Jaitzubia 3	60	90	75	Ona

Iturria: EAEko gainazaleko ur masa kontinentalen karakterizazioa. Ibaiak eta urtegiak. Uren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza, 2004.

Egoera ekologikoa txarra da behealdeko bi zatietan eta ona goiko aldekoan.

184. taula. Jaitzubia ibaian zehaztutako hiru zatien egoera ekologikoa.

ZATIA	KALITATE-MOTA	EGOERA EKOLOGIKOA
Jaitzubia 1	**K**	**TXARRA**
Jaitzubia 2	K	Txarra
Jaitzubia 3	Iib	ona

Iturria: EAEko gainazaleko ur masa kontinentalen karakterizazioa. Ibaiak eta urtegiak. Uren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza, 2004.

Lehenengo zatian, arroaren kalitatearen eta erriberako basoaren kalitate-indizeak aztertuta, egoera ekologikoa txarra da. Kontuan izan behar da lehenengo zatia hiri-industria zonalde batetik barrena pasatzen dela, eta horren eraginez erriberen egoera kaskartu egiten da eta uraren kalitatea txartu. Egoera ekologikoa txarra dela esaten da, ura "gainazaleko ur masa-motari dagozkion kalitate biologikoaren adierazleen balioek aldaketa larriak izango dituztelako aztarnak hautematen direnean, eta gainazaleko ur masa-motaren baldintzak egoera normalean egonda, ohiko komunitate-biologikoak ez daudenean proportzio handietan (Urari buruzko Esparru Zuzentaraua, 2000/60/EE)".

Bukatzeko, ikerketak dio Jaitzubia ibaiaren erdiko eta beheko ibilgua egoera txarrean dagoela, Aranibar eta Bentetako hiri-industria zonaldeetataik barrena pasatzen delako. Horrek erriberak kaltetzen ditu eta uraren kalitatea txartu, zonalde horretan isurketak egiten baitira. Goiko zatiak, berriz, ia erabat baso-zonalde batetik barrena pasatzen denez, kalitate ona du. Isurketa horiek, orain, hodi-biltzaileak jasotzen ditu, gainerako hondakin-urekin batera, eta horiek guztiak arazketa-estaziora ponpatzen direnez, kutsaduraren proportzio handi bat ezabatzea lortu da; horregatik, gaur egun, uraren kalitatea hobea da, nahiz eta txartzen ari dela nabarmen ikusten den.

Txosten horrek berak aztertu diren ibaien inpaktu-azterketa zehazten du. Hondarribiari dagokion aztertutako zatian, lau zubi eta Txingudi ikastolaren bi hondakin-isurketa hauteman dira. Irungo isurketei dagokienez, urek Hondarribian egiten dute bat, eta txostenak dio Jaitzubiko uren kalitate txarraren eragile direla. Bestalde, Urtxabaleta parean, erriberan espezie exotiko inbaditzaileak daude.

81. grafikoa. Jaitzubia 1 zatian hautemandako inpaktuak



Iturria: EAEko gainazaleko ur-masa kontinentalen karakterizazioa. Ibaiak eta urtegiak. Uren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza, 2004.

Jaitzubia errekaz gain, Hondarribian erreka txiki ugari daude, baina horien kalitate ekologikoari buruzko daturik ez dugu. Informazio hori nahitaezkotzat jotzen da udalerriko uren kalitatea nolakoa den jakiteko, batez ere, isurialdearen bi aldeetako erreken ingurukoa, gizakien kontsumorako ura hartzeko zenbait ustiapen-gailu jarri baitira.

4.4. Fauna

4.4.1 Fauna-katalogoa

Hondarribiako udalerrian ekosistema- eta ingurumen-mota asko daudenez, fauna-espezieak ere ugari dira. Udalerriko fauna-katalogoa egiteko, horretaz edo horren inguruko azterketak egiten dituzten zenbait iturri eta azterketatara jo da.

- Arriskuan dauden Espezien Euskal Katalogoa (Eusko Jaurlaritza)
- Gipuzkoako hegazti habiagileen atlasa (Arantzadi ZE, 2001)
- Espainiako ugaztun lurtarren atlasa (Ingurumen Ministerioa, 2002)
- Espainiako anfibioen eta narrastien atlasa eta Liburu Gorria (Ingurumen Ministerioa, 2002)
- Espainiako arrain kontinentalen atlasa eta Liburu Gorria (Ingurumen Ministerioa, 2001)
- Euskal Autonomia Erkidegoko *Caraboideak* (Insecta: Coleoptera) (Eusko Jaurlaritza, 2003)
- Aiako Harriko Parke Naturaleko entomofauna (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003)
- NATURA 2000 inprimakia, Jaizkibel LIC (Europaren intereseko lekua); NATURA 2000 inprimakia, Txingudi-Bidasoa LIC; eta NATURA 2000 inprimakia, Txingudi ZEPA (Hegaztien Babesgune Berezi). Inprimaki horietan fauna babesteko Europako Zuzentarauen zenbait eranskinetan aipatzen diren fauna-espezien zerrendako zenbait espezie izendatzen dira. Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza.
- Txingudiko Ingurune Fisikoaren azterketa (Arantzadi Z.E., 1983) Eusko Jaurlaritzak eskatuta.
- Plaiaundiko (Irun) eta Jaitzubiko (Hondarribia) Parke Ekologikoko Hegaztien Katalogoa. Eusko jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza.
- Plaiaundiri buruzko txosten ornitologikoa (Itsas Enara Ornitologi Elkartea, 1996)

Espezieak babesteko egoera nola dagoen baloratzeko, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa eta 79/409/EEE eta 92/43/EEE Zuzentarauak kontsultatu

dira. Zerrenda bakoitzak kontserbazio-egoeraren arabera sailkatu ditu espezieak, eta autonomia, nazio eta Europa mailaren arabera:

- Fauna eta Baso-flora eta Itsas Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa (176/96 Dekretua eta 1997ko uztailaren 8ko Agindua):

G	Galzoriak
K	Kaltebera
B	Bakana
IB	Interes Berezikoa
AE	Arriskurik ez

- Hegazti basatiak babesteari buruzko 79/409/EEE Zuzentaraua ("Hegazti Zuzentaraua"):

I. eranskina	Babes Bereziko neurriak ezarri zaizkien espezieak
II. eranskina	II/1: ezarritako itsas- eta lurtar-zonaldeetan ehiza daitezke II/2: Estatu kideetan bakarrik ehiza daitezke
III. eranskina	III/1: komertzializa daitezkeen espezieak III/": Estatu kideek komertzializatzeko baimena eman dezaketen espezieak

- Habitat naturalak eta fauna eta flora basatia babesteari buruzko 92/43/EEE Zuzentaraua ("Habitat Zuzentaraua"):

I. eranskina	Europarako intereseko habitat natural-motak, zaintzeko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu behar direnak
II. eranskina	Europarako intereseko animalia- eta landaredi-espezieak, zaintzeko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu behar direnak
IV. eranskina	Europarako intereseko animalia- eta landaredi-espezieak, babes zorrotza behar dutenak
V. eranskina	Europarako intereseko animalia- eta landaredi-espezieak, naturatik biltzea eta ustiatzea arau daitezkenak

Jarraian aipatzen diren espezien izenak nondik hartu ditugun ere aipatzen da; hau da, EAEtik edo aipatu ditugun zuzentarauetatik.

a) Arrainak

185. taula. Hondarriako arrain espezieak

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Habitat Zuzentaraua
Anguilla anguilla	Ibai aingira	Anguila	AE	
Gasterosteus aculeatus	Arrain hiruarantza	Espinoso	K	
Carasiuss auratus	Urre-arraina	Carpín dorado o Pez rojo	AE	
Phoxinus phoxinus	Ezkailua	Piscardo	AE	
Chelon labrosus	Hondoetako korrokoia	Lisa	AE	
Pomatoschistus microps	Bokaletako zarboa	Cabuxino enano	AE	
Micropterus salmoides	Perka amerikarra	Perca americana	AE	

Platichthys flesus	Platusa latza	Platija	AE	

b) Anfibioak

186. taula. Hondarribiako anfibioen espezieak

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Habitat Zuzentarau a
Salamandra salamandra	Arrubioa	Salamandra común	AE	
Triturus helveticus	Uhandre palmatua	Tritón Palmeado	AE	
Triturus marmoratus	Uhandre marmolairea	Tritón jaspeado	AE	IV. eranskina
Alytes obstetricans	Txantxiku arrunta	Sapo Partero Común	AE	IV. eranskina
Bufo bufo	Apo arrunta	Sapo Común	AE	
Bufo calamita	Apo lasterkaria	Sapo Corredor	K	IV. eranskina
Rana perezi	Ur-igela	Rana Verde	AE	V. eranskina
Rana temporaria	Baso-igel gorria	Rana Bermeja	AE	V. eranskina
Hyla arborea	Zuhaitz-igel arrunta	Ranita de San Antonio		IV. eranskina

c) Narrastiak

187. taula. Hondarribiko narrastien espezieak

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Habitat Zuzentarau a
Lacerta schreiberi	Schreiber muskerra	Lagarto verdinegro	IB	II. eranskina IV. eranskina

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Habitat Zuzentarau a
Lacerta viridis	Muxker berdea	Lagarto verde	AE	IV. eranskina
Lacerta vivipara	Sugandila bizierrulea	Lagartija de Turbera	AE	
Podarcis muralis	Horma-sugandila	Lagartija roquera	AE	IV. eranskina
Podarcis hispanica	Sugandila iberiarra	Lagartija ibérica	AE	IV. eranskina
Coronella austriaca	Iparraldeko suge leuna	Culebra lisa europea	AE	IV. eranskina
Anguis fragilis	zirauna	Lución	AE	
Coluber viridiflavus	Suge berde-horia	Culebra verdiamarilla	IB	IV. eranskina
Elaphe longissima	Eskulapioren sugea	Culebra de esculapio	IB	IV. eranskina
Natrix maura	Suge biperakara	Culebra viperina	AE	
Natrix natrix	Suge gorbataduna	Culebra de collar	AE	IV. eranskina
Vipera seoanei	Seoane sugegorria	Víbora de Seoane	AE	

d) *Hegaztiak*

188. taula. Hondarribiako hegaztien espezieak.

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Hegazti Zuzentarau a
Gavia stellata	Aliota txikia	Colimbo chico	AE	I. eranskina
Gavia arcaica	Aliota arktikoa	Colimbo ártico	AE	I. eranskina
Gavia immer	Aliota handia	Colimbo grande	AE	I. eranskina

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Hegazti Zuzentaraua
Oceanodroma leucorhoa	Ekaitz-txori aundi	Paíño de Leach	AE	I. eranskina
Hydrobates pelagicus	Ekaitz-txirrin	Paíño común	B	I. eranskina
Tachybaptus ruficollis	Txilinporta txikia	Zampullín común	B	
Podiceps cristatus	Murgil handia	Somormujo lavanco	IB	
Podiceps auritas	Txilinporta urrebelarria	Zampullín cuellirrojo		I. eranskina
Podiceps nigricollis	Txilinporta lepabeltza	Zampullín cuellinegro	IB	
Phalacrocorax aristotelis	Ubarroi bolborin	Cormorán moñudo	B	
Botaurus stellaris	Txori zezen arrunta	Avetoro común	IB	I. eranskina
Ixobrichus minutus	Amiltxori txikia	Avetorillo común	B	I. eranskina
Nycticorax nycticorax	Amiltxoria	Martinete	B	I. eranskina
Ardeola ralloides	Lertxuntxo karramarrozalea	Garcilla cangrejera	IB	I. eranskina
Egretta garzetta	Lertxuntxo txikia	Garceta común	AE	I. eranskina
Egretta alba	Lertxuntxo handia	Garceta grande		I. eranskina
Ardea purpurea	Lertxun gorria	Garza imperial	B	I. eranskina
Ciconia nigra	Amiamoko beltza	Cigüeña negra	B	I. eranskina
Ciconia ciconia	Amiamoko zuria	Cigüeña blanca	B	I. eranskina
Plegadis falcinellus	Beltzarana	Morito		I. eranskina
Platalea leucorodia	Mokozabala	Espátula común	K	I. eranskina
Branta leucopsis	Branta musuzuria	Barnacla cariblanca		I. eranskina
Pernis apivorus	Zapelatz listorjalea	Abejero europeo	B	I. eranskina
Milvus migrans	Miru beltza	Milano negro	AE	I. eranskina

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Hegazti Zuzentaraua
Milvus milvus	Miru gorria	Milano real	K	I. eranskina
Neophron percnopterus	Sai zuria	Alimoche común	K	I. eranskina
Gyps fulvus	Sai arrea	Buitre leonado	IB	I. eranskina
Circaetus gallicus	Arrano sugezalea	Culebrera europea	B	I. eranskina
Circus aeruginosus	Zingira-mirotz	Aguilucho lagunero occidental	B	I. eranskina
Circus cyaneus	Mirotz zuria	Aguilucho pálido	IB	I. eranskina
Circus pygargus	Mirotz urdina	Aguilucho cenizo	K	I. eranskina
Accipiter nisus	Gabiraia	Gavilán común	IB	
Hieraaetus pennatus	Arrano txikia	Aguililla calzada	B	I. eranskina
Pandion haliaetus	Arrano arrantzalea	Águila pescadora	B	I. eranskina
Falco columbarius	Belatz txikia	Esmerejón	B	I. eranskina
Falco subbuteo	Zuhaitz-belatza	Alcotán europeo	B	
Falco peregrinus	Belatz handia	Halcón peregrino	B	I. eranskina
Rallus aquaticus	Uroilanda handia	Rascón	B	II/2
Porzana porzana	Uroilanda pikarta	Polluela pintoja	IB	I. eranskina
Porzana parva	Uroilanda hankaberdea	Polluela bastarda		I. eranskina
Porzana pusilla	Uroilanda txikia	Polluela chica	IB	I. eranskina
Crex crex	Giloia	Guión de codornices	IB	I. eranskina
Grus grus	Kurrilo arrunta	Grulla común	IB	I. eranskina
Tetrax tetrax	Basoilo txikia	Sisón común	K	I. eranskina
Himantopus himantopus	Zankaluzea	Cigüeñuela común	IB	I. eranskina

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Hegazti Zuzentaraua
Recurvirostra aboceta	Abozeta	Avoceta común	AE	I. eranskina
Burhinus oedicnemus	Atalarra	Alcaraván común	IB	I. eranskina
Glareola pratincola	Itxas-eperra	Canastera común		I. eranskina
Charadrius dubius	Txirritxo txikia	Chorlitejo chico	K	
Charadrius alexandrinus	Txirritxo hankabeltza	Chorlitejo patinegro	B	
Calidris alpina	Txirri arrunta	Correlimos común	B	
Philomachus pugnax	Borrokalaria	Combatiente	AE	I-II/2 eranskina
Limosa lapponica	Kuliska gorria	Aguja colipinta	AE	I. eranskina-II/2
Tringa glareola	Kuliska pikarta	Andarríos bastardo	AE	I. eranskina
Xenus cinereus	Terek zalduntxoa	Andarríos del Terek		I. eranskina
Actitis hypoleucos	Kuliska txikia	Andarríos chico	B	
Phalaropus lobatus	Mendebal-txori mokomehea	Falaropo picofino		I. eranskina
Larus melanocephalus	Antxeta burubeltza	Gaviota cabecinegra	AE	I. eranskina
Larus fuscus	Kaio iluna	Gaviota sombría	IB	II/2
Gelochelidon nilotica	Txenada mokobeltza	Pagaza piconegra	B	I. eranskina
Sterna caspia	Txenada mokogorria	Pagaza piquirroja	AE	I. eranskina
Sterna sandvicensis	Txenada hankabeltza	Charrán patinegro	AE	I. eranskina
Sterna hirundo	Txenada arrunta	Charrán común	AE	I. eranskina
Sterna paradisaea	Ipar-txenada	Charrán ártico	AE	I. eranskina
Sterna albifrons	Txenada txikia	Charrancito	AE	I. eranskina
Sterna dougallii	Txenada gorritza	Charrán rosado		I. eranskina

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Hegazti Zuzentaraua
Chlidonias hybridus	Itsas enara musuzuria	Fumarel cariblanco	AE	I. eranskina
Chlidonias niger	Itsas enara beltza	Fumarel común	B	I. eranskina
Asio flammeus	Zingira-hontza	Búho campestre	B	I. eranskina
Caprimulgus europaeus	Zata	Chotacabras gris	IB	I. eranskina
Alcedo atthis	Martin arrantzalea	Martín pescador	IB	I. eranskina
Upupa epops	Argi-oilarra	Abubilla	K	
Jynx torquilla	Lepitzulia	Torcecuello	IB	
Dendrocopos minor	Okil txikia	Pico menor	IB	
Lullula arborea	Pirripioa	Totovía	AE	I. eranskina
Riparia riparia	Uhalde-enara	Avión zapador	K	
Anthus campestres	Landa-txirta	Bisbita campestre	IB	I. eranskina
Luscinia svecica	Paparrurdina	Pechiazul	AE	I. eranskina
Phoenicurus phoenicurus	Buztangorri argia	Colirrojo real	K	
Saxicola rubetra	Pitxartxar nabarra	Tarabilla norteña	IB	
Locustella luscinioides	Benarriz gorrizta	Buscarla unicolor	G	
Acrocephalus paludicota	Ur-benarriza	Carricerín cejudo	IB	I. eranskina
Acrocephalus schoenobaenus	Benarriz arrunta	Carricerín común	G	
Acrocephalus scirpaceus	Lezkari arrunta	Carricero común	B	
Acrocephalus arundinaceus	Lezkari karratxina	Carricero tordal	B	
Sylvia undata	Etze-txinboa	Curruca rabilarga	AE	I. eranskina
Phylloscopus trochilus	Txio horia	Mosquitero musical	B	
Ficedula hypoleuca	Euli-txori beltza	Papamoscas cerrojillo	B	
Remiz pendulinus	Dilindaria	Pájaro moscón	IB	
Lanius collurio	Antzandobi arrunta	Alcaudón dorsirrojo	AE	I. eranskina
Lanius meridionales	Antzandobi errege	Alcaudón real	K	

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Hegazti Zuzentaraua
Lanius senator	Antzandobi kaskagorria	Alcaudón común	K	
Monticola solitarius	Arkaitz-zozo urdin	Roquero solitario	IB	
Corvus corax	Erroia	Cuervo	IB	
Carduelis spinus	Tarina	Lúgano	IB	
Emberiza schoeniclus	Zingira-berdantza	Escribano palustre	B	

e) *Ornogabeak*

189. taula. Hondarribiako ornogabeen espezieak

Izen zientifikoa	CVEA	Habitat Zuzentaraua
Lucanus cervus		II. eranskina
Euphydryas aurinia		II. eranskina

Hondarribiko udalerrian dauden ornogabe-espezien inguruan ezjakintasun handia dago. Aipagarrienak Jaizkibel mendiaren inguruan hauteman dira.

f) *Ugaztunak*

190. taula. Hondarribiako ugaztunen espezieak

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Habitat Zuzentaraua
Erinaceus europaeus	Triku arrunta	Erizo común	AE	
Talpa europaea	Sator arrunta	Topo europeo	AE	
Oryctolagus cuniculus	Mendi-untxia	Conejo común	AE	
Vulpes vulpes	Azeri arrunta	Zorro rojo	AE	
Felis catus	Katu arrunta	Gato cimarrón		
Sus scrofa	Basurdea	Jabalí	AE	

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Habitat Zuzentarau a
Crocidura russula	Satitsu arrunta	Musaraña común	AE	
Sorex coronatus	Millet satitsua	Musaraña tricolor/Millet	AE	
Sorex minutus				
Microtus agrestis	Larre-lursagua	Topillo agreste	AE	
Apodemos sylvaticus	Basasagua	Ratón de campo	AE	
Sorex minutus	Satitsu txikia	Musaraña enana	AE	
Neomys fodiens	Ur-satitsu ankazuria	Musgaño patiblanco	AE	
Crocidura suaveolens	Baratz-satitsua	Musaraña de campo	AE	
Sciurus vulgaris	Katagorri arrunta	Ardilla roja	AE	
Clethrionomys glareolus	Lursagu gorria	Topillo rojo	AE	
Arvicola terrestris	Ekialdeko ur-arratoia	Rata de agua norteña	AE	
Arvicola sapidus	Mendebaldeko ur-arratoia	Rata de agua	AE	
Pitymus lusitanicus	Lursagu lusitaniarra	Topillo lusitánico	AE	
Microtus pyrenaicus	Satain piriniarra	Topillo pirenaico	AE	
Microtus arvalis	Landa-lursagua	Topillo campesino	AE	
Micromys minutus	Uzta-sagua	Ratón espiguero	AE	
Rattus rattus	Arratoi beltza	Rata negra / campestre	AE	
Rattus norvegicus	Arratoi arrunta	Rata gris	AE	
Mus musculus	Etxe-sagua	Ratón casero	AE	
Glis glis	Muxar grisa	Lirón gris	K	
Mustela nivalis	Erbinudea	Comadreja	AE	
Mustela putorius	Ipurtatsa	Turón	IB	V. eranskina
Martes foina	Lepazuria	Garduña	AE	

Izen zientifikoa	Izena, euskaraz	Izena, gazteleraz	CVEA	Habitat Zuzentarau a
Meles meles	Azkonarra	Tejón	AE	
Genetta genetta	Katajineta arrunta	Gineta común	AE	V. eranskina
Felis silvestris	Basakatua	Gato montés	IB	
Pipistrellus pipistrellus	Pipistrelo txiki	Murciélago común	AE	
Pipistrellus kuhlii	Kuhl pipistrelo	Murciélago de borde claro	AE	
Rhinolophus ferrumequinum	Ferra saguzar handi	Murciélago Grande de Herradura	K	II. eranskina
Rhinolophus hipposideros	Ferra saguzar txiki	Murciélago pequeño de herradura	K	II. eranskina
Tursiops truncatus	Izurde handia	Delfín mular		II. eranskina
Delphinus delphis	Izurde arrunta	Delfín común		IV. eranskina

g) *Zenbait fauna inbaditzaile-espezie*

Nahiz eta udalerrian espezie inbaditzaile asko sartu ez diren, eraginak oso nabarmenak izan dira zenbait ekosistematan. Esate baterako, *Myocastor coipus* espeziea, koipua, Hego Amerika jatorriko karraskaria, zonalde hezeetan bizi dena. Badakigu Jaitzubiko paduretan bizi dela, eta zingiretako landaredia duela janari; horregatik, arrisku handia dago landaredi-mota hori gutxitzeko. Zonalde horretan bertan, Floridako dortoka ale batzuk ikusi dira, apoarmatu istilzaleari lekua kentzen ari zaiona; eta karramarro amerikarrak ere bai (*Procambarus klarkii*), bertako ibai-karramarroa baino agresiboagoa eta suntsikorragoa.

4.4.2 Fauna-unitateak

Udalerriko habitat-moten ondorioz, aurreko atalean deskribatutako fauna-aniztasuna eragin du. Beretzat egokiak diren ekosistemen baldintzen arabera banatzen dira espezieak, eta ingurumen bakoitzari egokitutako fauna-unitateak eratzen dira. Hondarribian, "Txingudiko Ingurumen Fisikoaren Azterketa (Arantzadi, 1983)" lanean, honako unitate hauek deskribatu dira (beltzez idatzita daudenak Espezie Mehatxatuen EAEko katalogoan, Hegaztien Zuzentarauaren I. Eranskinean edo Habitat Zuzentarauaren II., IV., edo V. Eranskinetan sailkatuta daude):

- *Belardiak eta zuhaiztiak:* haran- eta hegal-hondoetan, 200 metroko altituderaino; batetik, belardi eta laborantzarako izan daiteke; eta, bestetik, zuhaizti hostoerorkorrak. Espezie adierazgarrienak dira:

191. taula. Hondarribiko belardi eta zuhaiztien espezie adierazgarrienak

Triturus marmoratus	*Erithacus rubecula*	*Erinaceus europaeus*
Hyla arborea	***Milvus milvus***	*Talpa europaea*
Triturus helveticus	***Milvus migrans***	*Sorex araneus*
Alytes obstetricans	***Falco peregrinus***	*Crocidura russula*
Bufo bufo	***Circus cyaneus***	*Apodemys sylvaticus*
Rana perezi	***Circaetus gallicus***	*Micromys minutus*
Elaphe longsissima	*Turdus philomelos*	***Glis glis***
Lacerta vivípara	***Dentrocopos minor***	*Genetta genetta*
Lacerta viridis	***Jynx torquilla***	*Microtus agrestes*
Podarcis muralis	***Lanius collurio***	*Arvicola sapidus*
Anguis fragilis	***Pernis apivorus***	*Mustela nivalis*
Natrix maura	***Ficedula hypoleuca***	*Pipistrellus pipistrellus*
Vipera seoanei	*Emberiza citrinella*	*Lepus europaeus*
Natrix natrix	***Upupa epops***	*Oryctolagus cuniculus*
Lucanus cervus	*Sylvia communis*	*Meles meles*
	Accipiter nissus	***Rhinolophus ferrruquinum***
	Falco subbuteo	

- *Zakardia eta mendi-larrea:* Jaizkibelgo zakardiak eta larreak dira, 500 metroko altituderaino hedatzen direnak. Kostaldeko zakardiak eta zakardi atlantikoak sartzen dira unitate honetan; lehendabizikoak, Higerretik

itsasertzeko ezponda guztian hedatzen dira; eta, bigarrenek, Jaizkibel mendiaren isurialdeetako zatirik gehienak hartzen dituzte.

192. taula. Hondarribiko zakardi eta mendi-larreen espezie adierazgarrienak

Anthus trivialis	*Regulus ignicapillus*	*Vulpes vulpes*
Prunella modularis	*Picus viridis*	*Martes foina*
Sylvia undata	***Dendrocopos minor***	*Genetta genetta*
Saxicola rubetra	*Garrulus glandarius*	*Oryctolagus cuniculus*
Saxicola torquata	***Circaetus gallicus***	*Lacerta viridis*
Falco peregrinus		*Podarcis hispanica*
Falco tinnunculus		***Lacerta schreiberi***

- *Konifero-landaketak:* lurralde osoan egin dira konifero exotiko-espezien baso-birlandaketak, eta baso hostoerorkorretako berezko faunak bere habitata ordezkatu du ezaugarri oso desberdineko beste batekin (oihanpe pobreagoa, zuhaitz zaharren oinik gabekoa, eta, ondorioz, animalientzako aterpe gutxiago dago). Baso horiek oso azkar hazten direnez, fauna aldatu egiten da landaketaren garapen-mailaren arabera.

193. taula. Hondarribiko konifero-landaketen espezie adierazgarrienak

Anguis fragilis	*Turdus merula*	*Talpa europaea*
Lacerta viridis	*Parus ater*	*Apodemus sylvaticus*
Natrix natrix	*Regulus ingnicapillus*	*Vulpes culpes*
Dendrocopos major	*Passer montanus*	*Meles meles*
Garrulus glandarius	*Fringilla coelebs*	*Genetta genetta*
Troglodytes troglodytes	*Cuculus canorus*	*Sciurus vulgaris*
Erithacus rubecula	*Saxicola torquata*	*Sus scrofa*
Parus major	*Parus ater*	

- *Errekak:* Hegoaldeko isurialdeko errekak (Jaitzubia eta ibaiadarrak) eta iparraldeko isurialdekoak ditugu, zuzenean itsasoratzen direnak. Kategoria horren barruan iparraldeko isurialdeko esfagnalak ere sartzen dira.

194. taula. Hondarribiko erreken espezie adierazgarrienak

Jaitzubia	Hegoaldeko isurialdeko errekak
Phoxinus phoxinus	
Anguilla anguilla	



- *Itsaslabarrak:* Hondarribia eta Pasaia arteko muga inguratuz, Jaizkibelgo iparraldeko isurialdean, tamaina desberdineko itsaslabar ugari dago. Txingudiko Ingurumen Fisikoaren Azterketaren arabera, badira hegazti-habiagileen espezieak Jaizkibelgo harkaitzetan (belatz handia, belatz gorria...) interes handikoak. Ingurumen horietako espezie adierazgarrienak dira:

195. taula. Hondarribiko itsaslabarren espezie adierazgarrienak

Larus argentatus	***Gavia inmer***	***Sterna hirundo***
Larus fuscus	***Gavia arctica***	***Lanius collurio***
Larus ridibundus	***Gavia stellata***	***Chlidonias Níger***
Larus melanocephalus	***Oceanodroma leucorhoa***	***Monticola solitarius***
Phalacrocorax carbo	***Hydrobates pelagicus***	***Corvus corax***
Falco tinnunculus	***Sterna sandvicensis***	*Podarcis hispanica*
Falco peregrinus	***Sterna dougallii***	*Vulpes culpes*
Gelochelidon nilotica	***Sterna albifrons***	*Martes foina*

- *Baso hostoerorkorrak:* eskualde hezeetako baso hostoerorkorra berariazko aberastasun handiko ekosistema da, zoko asko izaten baitute, eta, horri esker, fauna geruza askotan bana daiteke, erlazio askotako sare konplexu bat osatzeraino. Espazioak hetereogenoak direnez, lurzorutik zuhaitzen adaburuetaraino, eta aukera trofikoak anitzak direnez, baso-mota honetako habitata espezien babesleku eta agertoki da. Zalantzarik gabe, ornodun lurtarren komunitate garrantzitsuena egituratzen da bertan, eta Txingudi ez da salbuespena, nahiz eta aspaldidanik zenbait kate-maila

galtzen ari den (karniboroak eta herbiboroak, otsoa eta oreina, esate baterako), kantauriar mendikate gehienetan gertatu den bezala.

Hondarribian Jaitzubiko hariztia daukagu, Jaizkibel Urbanizazioko terrenoetan, eta ezaugarri adierazgarrienetako bat zuhaitzen altuera handia da, bai eta oihanpe oso aberats bat ere, substratu egokia baitu, txori txikiko espezie ugari hazteko. Bestalde, Justiz-Guadalupeko amildegia azalera handi samarra duen gordeleku bakarra da Jaizkibelen, eta, beraz, faunak irautea oso garrantzitsua da.

Habitat horietako espezie adierazgarrienak dira:

191. taula. Hondarribiko baso ostoerorkorren espezie adierazgarrienak

Salamandra salamandra	*Certhia brachydactila*	*Regulus ignicapillus*
Triturus helveticus	*Fringilla coelebs*	*Sorex araneus*
Bufo bufo	*Pyrrhula pyrrhula*	*Apodemus sylvaticus*
Rana temporaria	***Pernis apivorus***	*Clethrionomys glareolus*
Anguis fragilis	***Accipiter nisus***	*Vulpes culpes*
Lacerta viridis	***Milvus migrans***	*Martes foina*
Elaphe longissima	*Scolopax rusticola*	*Mustela nivalis*
Coluber viridiflavus	*Cuculus canorus*	***Mustela putorius***
Hieraaetus pennatus	*Athene noctua*	*Meles meles*
Buteo buteo	*Strix aluco*	*Genetta genetta*
Erithacus rubecula	*Picus viridis*	***Felis silvestres***
Turdus merula	*Dendrocopos major*	*Sus scrofa*
Turdus philomelos	***Dendrocopos minor***	*Sciurus vulgaris*
Parus caeruleus	*Garrulus glandarius*	***Glis glis***
Parus major	*Corvus corone*	*Talpa europaea*
Sitta europaea	*Troglodytes troglodytes*	

- *Padura:* Txingudiko badiako unitate garrantzitsuena eta adierazgarriena da; bertan dauden espezie gehienak ez dira bertakoak, ipar eta erdialdeko Europatik etorritako migratzaileak baizik. Ekosistema hau zenbait habitat-motek osatzen dute; esate baterako, lezkadiek (*Phragmites australis* motako landaredi-komunitateak), lohia duten hondartzek, belardiek eta irlek. Faunari dagokionez, espezie ugarien dituena da; honako hauek dira adierazgarrienak:

191. taula. Hondarribiko paduren espezie adierazgarrienak

Anguilla anguilla	***Locustella luscinioides***	*Anas crecca*
Bufo calamita	*Locustella naevia*	*Anas platyrhyncos*
Calidris alpina	*Cettia cetti*	*Aythya ferina*
Calidris minuta	***Luscinia svecica***	*Vanellus vanellus*
Tringa totanus	***Botaurus stellaris***	*Turdus philomelos*
Tringa hypoleucos	*Ixobrychus minutus*	*Turdus iliacus*
Tringa ochropus	***Nycticorax nycticorax***	*Hirundo rustica*
Charadrius hiaticula	***Alcedo tais***	*Erithacus rubecula*
Limosa lapponica	***Emberiza schoeniclus***	*Fringilla coelebs*
Larus ridibundus	*Motacilla cinerea*	*Carduelis carduelos*
Larus argentatus	***Remiz pendulinus***	*Gallinago gallinago*
Acrocephalus arundinaceus	*Motacilla alba*	*Sturnus vulgaris*
Acrocephalus scirpaceus	*Cisticola juncidis*	*Rattus norvegicus*
Gallinula chloropus	***Egretta garzetta***	*Oryctolagus cuniculus*
Rallus aquaticus	*Ardea cinerea*	*Mustela nivalis*
Acrocephalus schoenobaenus	***Platalea leucorodia***	

Datu guztiak gutxi gorabeherakoak dira, bai inbentarioaren ingurukoak, bai fauna-unitateen ingurukoak. Datu osatuenak Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzak emandakoak dira —Txingudiko padurak zaintzean lortutakoak— eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Sailak emandakoak —oraindik egiten ari diren Jaizkibelgo Kudeaketa Planean jasotakoak—.

4.4.3 Espezie Mehatxatuak

Guztira, 123 espezie dira, eta Espezie Mehatxatuen EAEko katalogoan (CVEA) edo 92/43 (Habitat Zuzentaraua) eta 79/409 (Hegazti Zuzentaraua) zuzentarauetako eranskinen batean zerrendatuta daude.

198. taula. Hondarribiko espezie mehatxatuak

	Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa				Habitat Zuzentaraua			Hegazti Zuzentaraua
	G	K	B	IB	II. eranskina	IV. eranskina	V. eranskina	I. eranskina
Arrainak		1						
Anfibioak		1				4	2	
Narrastiak				3	1	8		
Ugaztunak		3		2	3	1	2	
Ornogabeak					2			
Hegaztiak	2	11	28	24				65
GUZTIRA	**2**	**17**	**28**	**29**	**6**	**13**	**4**	**65**

Iturria: Geuk egina.

Galzorian dauden bi hegazti-espezieak, benarriz gorrizta (*Locustella luscinioides*) eta benarriz arrunta (*Acrocephallus schoenobaenus*), marisma-habitatekoak dira.

Benarriz gorriztak ur ez oso sakonetan egiten du habia, ur gazi zein geza izan, landare urtar desberdinez estalita daudenetan, askotan zuhaixkez. Ez du gustuko gizakiak esku hartu ondorengo ingurua, ez eta habitat aldaketak nabarmen gertatzen diren guneak ere, eta ez dio onik egiten gizakiak esku-hartzea eta habitata aldatzea. Batez ere, hezeguneak lehortu direlako gertatzen den habitat-aldaketa, eta gaizki zaindu direlako gertatzen dena (suteak, zingiretako landaredia moztu, ur-mailaren aldaketa).

Benarriz arruntak zonalde hezeetan egiten du habia, baina itsasertzetako lezkarietan, nahiago izaten du lezkarietako ertzetan egin, bai eta zingiretako beste landaredi-motak dauden lekuetan, askotan zumeak eta bestelako zuhaixkak egoten diren lekuak, hain zuzen ere. Espezie horrentzat ere

mehatxu handiena habitata suntsitzea da, batez ere, lezkadiak eta beste zingira-habitat batzuk aldatzea eta suntsitzea.

Bi espezieen kasuan, kumeak dauden tokiak zorrotz babestea eta landare urtarren bidez itsasertzeko zonaldeak handitzea funtsezko neurriak dira espezie horiek kontserbatzeko, baina, bereziki, lezkadiak babestea da behar-beharrezkoa. Horri dagokionez, zerikusi handi du *Baccharis halimifolia* espeziea sartu izanak, lezkaria jaten duen landare inbaditzailea, sekulako lehiakidea baita. Horregatik guztiagatik,pentsatzen dugu Jaitzubiko padurak birpopulatzeak —horren ondorioz lezkadiak berreskuratu dira— bi espezie horiek babesten lagundu duela.

Hain larria ez bada ere, nabarmentzeko modukoa da bi *ugaztun-espezien* egoera, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan Kalteberatzat hartuta eta Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean aipatzen direnak. Ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*) eta Ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*) dira; horiek baso inguruetan egoten dira, lehena altuera handiagoko eta menditsuagoko zonaldeetan. Bai batak eta bai besteak Jaizkibelgo hareharrietako leizeak eta utzita dauden eraikuntzak erabiltzen dituzte kumeak hazteko eta hibernatzeko, baldin eta leizeak ez badaude ustiatuta eta bisitari asko ez bada joaten. Hondarribian, Jaizkibelen, "Turismoak ustiatu gabeko leizeak (8310)" daude, hiru, hain zuzen ere, eta horietatik bi kartografiatu dituzte; bata Txurtxipiko parajean, eta bestea Lezonabarretik oso hurbil, Pasaiako udalerriaren mugan. Biak Europarako interesekoak dira. Bi espezieak Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean zerrendatuta daude, honako hau gaineratzen duena:"Europarako intereseko animalia- eta landaredi-espezieak kontserbatzeko beharrezkoa da Babes Bereziko Eremu izendatzea".

Leize horiek dauden tokiraino iristea oso zaila denez, eta ekonomia-potentziala ez dutenez, esan daiteke habitat egonkorrak direla. Espezie horientzat gizakiaren presentzia kaltegarria denez, bai leizeetan, bai eraikin-hondarretan, kontserbatuko direla bermatzeko, beharrezkoa izango litzateke kumeak hazteko garaian eta hibernatzeko garaian gizakiek enbarazurik ez egitea, bai eta babeslekuak babestea eta kontserbatzea ere.

Arrainei dagokienez, nabarmentzeko modukoa da Arantzarrainaren egoera (*Gasterosteus aculeatus*), Bizkaiko kostaldeko zenbait tokitan eta Jaitzubia errekan bakarrik baitaude. Ur geza eta bare dagoen lekuetan daude, kostaldeko ibaietako behealdeko zati lasai eta landaredi urtar ugarikoetan, paduretan eta estuarioetan. Espezie horren mehatxu nagusiak dira: uraren kutsadura, ur-lehorketak eta populazioen isolamendua.

Jaitzubia errekaren egoera kontuan hartuta, esan daiteke espezie horren habitata ez dela egonkorra. Jaitzubiaren azken zatiaren egoera ekologikoa txarra da, industrialdeetako eta bestelako jardueretako isurketen ondorioz, eta arantzarrainari eragin diezaiokete. Marisma-ekosistemak kontserbatzea mesedegarria da espezie hori kontserbatzeko, CVEAk kalteberatzat hartutako espeziea.

Anfibioei dagokienez, Apo Lasterkaria nabarmendu behar da (*Bufo calamita*), isurialde mediterraneoan ohikoa bada ere, aldian-aldian kostaldean agertzen da. Izan ere, populazioetako bat Jaitzubian aurkitu da, "Txingudiko zonaldeko Apo Lasterkariaren (*Bufo calamita)* populazioaren egoeraren aurreazterketa (2004)", lanean adierazten den bezala, Arantzadi Zientzi Elkarteak egina. Ur geza dagoen zonaldeetako inguruetan, errepideetatik hurbil eta errepide ondoko lur mugituetan ere ikusi ziren ale batzuk. Auto-harrapaketak dira apo lasterkariaren mehatxu nagusia Jaitzubian.

Narrastiei dagokienez, Interes Bereziko hiru espezie daude CVEAren arabera, baina horietako bat, gainera, Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean ere zerrendatuta dago; beraz, horrek esan nahi du behar-beharrezkoa dela Babes Bereziko Eremuak osatzea, espeziaren iraupena bermatzeko. Schreiber muskerra da (*Lacerta schreiberi*), landazabalgo inguru askotan dagoen espeziea; landaredia ugaria den tokiak behar ditu, basoetakoa zein sastrakatakoa. Kostaldeko zakardietako zonaldeetan bizitzea ere bizi daiteke, baita zohikatz hezetako zonaldeetan ere, schreiber muskerra agertzen denean. Habitata kontserbatzeaz gain, beharrezkoa da gunearen hedadura jakin bat bermatzea eta beren artean lotura izatea, denboraren joanean isolamenduaren ondorioz ez desagertzeko.

Espezie horien eta udalerriko fauna globalaren egoerari buruz gutxi dakigunez, zailagoa da babesa ematea eta kontserbazioa mehatxatzen duten jarduerak ebaluatzea ere bai.

4.4.4 Natura-interesa duten enklabe nagusiak

Aurreko ataletan aztertutako faktoreek Hondarribiko udalerriko ingurune naturalak zenbateko balioa duen erakusten dute. Horiek guztiak bateratuta, lurraldeko enklabe interesgarrienak definitzen dituzte, jarraian dituzunak, hain zuzen ere; ordenamendu-agirietan duten garrantzia ere aipatzen da.

Iparraldeko isurialdea eta Jaizkibelgo kostaldeko hegala

Hondo harritsuetan eta ur mugituetan ohikoak diren itsaspeko fauna eta flora ditu, eta zenbait alga-espezie ere bai; esaterako, *Gelidium sesquipedalea,* ekonomikoki ustiatzen den espeziea. Balio ekologiko handiko zonaldea da eta horrela jasota dago zenbait agiritan (Txingudiko Ingurumen Fisikoaren Azterketa –itsasertzeko lerroa Natura Erreserba izatea proposatzen du-, EAEko Itsasertzeko Lurraldearen Arloko Plana...). Kostaldeko hegaleko multzoan, zonalde hauek nabarmentzen dira

- *Zuzenean itsasoratzen diren errekak*; horietan berezko landaredia kontserbatu egin da, bertara iristea oso zaila delako. Interes handiko landare-espezieak daude: *Woodwardia radicans* eta *Trichomanes speciosum* iratzeak; esfagnal-enklabe txikiak eta landare urtarrak Laondoko eta Arlatzetako badietan, Artzu errekan, erreketako putzuetan eta Jaizkibelgo zakardi zabalean. Lurra bustitzen eta putzuz betetzen dituzten erreken etengabeko ur-jarioa faktore erabakigarria da landaredi horri eusteko.
- *Justizgo baso laurazeoa*: Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdean dago, Guadalupeko ermitatik hurbil hasten da eta itsasorantz hedatzen da. Isurialde horretan ondoen kontserbatutako amildegia da, eta kasik ukitu gabe bere horretan egotea lortu du; basoaren eraketa-motari dagokionez, bakarra da lurraldean: baso laurazeoa. Estalkiaren azpian mikroklima berezia sortzen da, atmosfera-saturazio handikoa eta tenperatura epelekoa. Espezie botaniko interesgarriak, basoetakoak, oihandarrak eta tropikalak ugariak dira, eta horietako asko benetan bitxiak dira.
- *Turrilla punta ingurua*: Kaio hauskararen eta Kaio ilunaren habiagintzako zona bakarrak dira.

Jaizkibel mendigunearen gailurra

Hegazti harrapariek habiak egiteko erabiltzen dituzten harkaitzak, esaterako, Belatz handiak (CVEAk bakantzat hartua); eta ugaztun karniboroen babesleku ere badira, esaterako, azeriarena

Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdeko errekak

Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdean ibar ugari daude eta interes ekologikoko enklabeak dira, erriberen kalitate onagatik. Ondo kontserbatutako haltzadiak, lizardiak eta harizti txikiak daude erreketan; esaterako, Ogallurretako errekan (korridore ekologiko naturala osatzen dute Jaitzubiko paduren eta Jaizkibel mendiaren artean), Tellagorri eta Erdikoerrotaren parean eta Izpiztikuko errekak eta Bekoerrotako errekak bat egiten duten tokian

Jaitzubiko erriberak eta padurak

Duela gutxi inguru horretako zenbait zati berreskuratu dira. Itsasadarreko ura gazia denez, garrantzi handiko estuario-ekosistema eratu da, bai bitxia delako eta bai fauna eta flora aldetik oso aberatsa delako ere

Ur gezetako hezegune txikiak

Idoi natural gutxi dagoenez, *Goikoerrotako eta Etxakolako idoiak* natura-intereseko lekuak dira, anfibioen ugalketarako eta garapenerako oso garrantzitsuak baitira. Duela denbora gutxi, Jaitzubian ur gezetako zonaldeak eratu direnez (San Joakin aintzira eta Antonzoloko idoiak), ekosistema-mota hori gero eta ugariagoa da udalerrian

4.5 LURRALDEKO BALIABIDE NATURAL NAGUSIEN ANTOLAMENDUA ETA BABESA

4.5.2 Natura-ingurunea antolatzeko tresnak

- Udal-tresnak. Indarrean dagoen udal-plangintza 1997. urtean Hondarribiko Udalak onartutako Arau Subsidiarioak dira. Orain berrikusten ari dira.

- Udalaz gaineko tresnak. Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Legeak, maiatzaren 31ko 4/1990 legeak, EAEko lurraldearen antolamendurako honako tresna hauek ezarri zituen: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), Lurralde Plan Partzialak (LPP) eta Lurraldearen Arloko Planak (LAP)

- *Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partziala:* hamahiru udalerri hartzen ditu bere baitan, horien artean Hondarribia, eta udalaz gaineko mailan egituratzen eta antolatzen du lurraldea; abiapuntutzat hauek hartzen ditu: bizitegietarako lurzoru beharrak, jarduera ekonomikoen beharra eta azpiegitura-beharrak, eta, horretarako, ingurune fisikoa eta lurraldea hartzen ditu kontuan. Aurrerakina 2003ko urtarrilean aurkeztu zuten, eta, gaur egun, izapide-prozesua geldirik dago.
  - *Nekazaritza eta basogintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana:* lehenengoz, 2005eko urtarrilaren 10ean onartu zen, eta hauek dira helburu nagusiak: nekazaritza- eta basogintza-erabilerak planifikatzeko eta kudeatzeko jarduerak bideratzea, eta nekazaritza-sektoreko interesak defendatzea.
  - *EAEko ibaien eta erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana:* Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuz onartu zen. LAAren irizpideak garatzen eta zehazten ditu, gainazaleko uren ingurukoak.
  - *Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana:* lehenengoz, 2005eko otsailaren 28an onartu zen. Helburua honako hau da: erreferentzia-esparru bat ezarri lurralde-politikak eta hiri-jarduerak integratzeko, eta kontuan hartuta beti beharrezkoa dela babestea, kontserbatzea, hobetzea eta erabilerak arrazionalizatzea.

Natura-guneak babesteko neurri zehatzak:

199. taula. Hondarribiko baliabide naturalak babesteko neurriak.

Babestuta dauden Espazio Natural-motak	Izena	Azalera guztira	Bidasoa-Txingudi azalera	
		Hektareak	Hektareak	%
Txingudiko zonaldeko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia	--	153	153	100
Europarako Intereseko Tokiak (LIC)	Jaizkibel	2.434	1.549	63,6
	Txingudi-Bidasoa	122	122	100
Hegaztien Babesgune Bereziko Guneak (ZEPA)	Txingudi	134	134	100
Nazioarte-mailako Garrantzia duen Hezegunea (Ramsar Ituna)	Txingudi	130	130	100

Iturria: Geuk egina, antolamendurako eta babeserako neurriekin zerikusia duten agiri guztiak abiapuntu hartuta.

4.6 Natura-ingurunearen antolamendua eta babesa Hiri-Planeamenduan

Hondarribiko Arau Subsidiarioek (1997) antolatzen dute udalerria, eta hiru lur-mota sailkatzen dituzte: Hiri-lurra (466,6 hektarea), Lur urbanizagarria (92,2 hektarea) eta Lur ez urbanizagarria (2.526,2 hektarea); guztira, 3.085,0 hektarea. Zonabanatze globalean lur ez urbanizagarria hiru kategoriatan sailkatzen da, nekazaritza-eremua edo espazio libreen sistema orokorra den kontuan hartuta.

200. taula. Lur ez urbanizagarriaren zonabanatze globala

Kalifikazio Globalaren izendegia	Zonabanatzea	Eremuak
D. NEKAZARITZA-EREMUAK	D. 100 – Babes Bereziko Nekazaritza-eremuak	Iger lurmuturraren itsaslabarren zati batzuk
	D. 200 – Nekazaritza-eremuak (babesik gabeak)	Hondarribiko landazabala
F.ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA	F. 100 – Parkea	San Telmo eta Iger lurmuturraren zati bat (HIE 69 eta72)
	F. 200 – Atsedenlekua	Jaizkibel Mendia (HIE 71)
	F. 310 – Natura-intereseko eremua	Txingudi/Jaitzubia (HIE 70)
	F. 320 – Hondartzak	Hondarribiko hondartza

Iturria: Hondarribiko Arau Subsidiarioak (1997)

Zonalde horien eta Hirigintza-jarduerarako eremuen (HIE) ordenamendurako proposamenak jarduera-helburu hauetan multzokatzen dira, aurrerago banan-banan aztertuko ditugunak:

- *Jaizkibelgo atsedenlekuaren* garapena (eremu horretan dauden natura-balioko elementu eta guneak babesteko eta hobetzeko jarduerak ere hartu dira kontuan).
- *San Telmo-Higer aldeko parkea* egokitzeko jarduerak (eremu horretan dauden natura-balioko elementu eta guneak babesteko eta hobetzeko jarduerak ere hartu dira kontuan).
- *Txingudiko estuarioa eta Jaitzubiko eta Kostako ibarrak* lehenera ekartzeko eta babesteko jarduerak.

4.6.2 Hirigintza-jarduerarako eremuak 71 "Jaizkibel Mendia"

Hondarribiko Jaizkibel mendiaren zatia udalerriaren iparraldean dago eta 1.549 hektareako azalera du. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko Foru Arauari jarraiki, Basogintza Erabilerarako Lurzoru sailkatzen da Onura Publikoko Menditzat (2.036.1 zenbakia) hartzen den terreno guztia, eta Espazio Libreen Sistema Orokorraren barruan Atsedenleku sailkatzen da (F.200); bestalde, mendigunearen iparraldeko isurialdean *atsedenleku bat* jartzea pentsatzen da, Lezo eta Pasaiako udalerrietara heda daitekeena.

Arau Subsidiarioek berariaz jasotzen dute ezaugarri hauek dituen zonalde bat sortzeko proposamena: *"natura-babesa, abeltzaintza-, baso- eta itsaso-baliabideen kudeaketa arrazionala, eta atsedenlekua Jaizkibel mendigunean"*. Arauen helburu nagusia espazio horren ordenamendurako hau da: "*eremu horretako nekazaritza-ezaugarriak lehenera ekartzea eta babestea, eta atsedenleku izateko egokitzea*". Horrek esan nahi du espazio horretan egiten den edozein hiri-jarduerak honako helburu hau izan behar duela: "*natura- eta kultura-balioen gozamen didaktikoa, beharrezkoak diren zerbitzuak bakarrik jarrita edo daudenak hobetuta —aparkalekuak, ostalaritza-zerbitzuak eta jolastokia, ekipamendu osagarriak eta bestelakoak— natura-inguruneari inpaktu suntsitzaileak edo kaltegarriak ahalik eta gutxien egiteko konponbideak kontuan hartuta*".

Hondarribiko eremuan, aisialdirako erabilera bakarrik izango duten azpizonaldeak ere gaineratu dira: *Guadalupe eta Santa Barbarako Gotorlekua.* Aisialdirako guneek berez izaten dituzten helburuak proposatzen dira; esate baterako, aparkalekuak txukundu, autoen sarrera mugatu inolako bereizketarik egin gabe eta zerbitzuak hobetu. Eremu horretako lurzoru pribatuetako nekazaritzako jarduerak arautzea ere aurreikusten da, bai eta ostalaritza-zerbitzuak jartzea ere, baldin eta jarduera-orokorreko helburuekin bat etortzen badira.

Azkenik, halabeharrez zaindu behar diren zenbait elementu aipatzen dira: natura- eta arkeologia-interesekoak eta katalogatuta dauden eraikuntzak.

201. taula. Natura- eta arkeologia-interesekoak eta katalogatuta dauden eraikuntzak.

NATURA-INTERESEKO ELEMENTUAK	KATALOGATUTA DAUDEN ERAIKINAK
• Jaizkibelgo harkaitzak • Justizgo baso laurazeoa • Artzu errekako, Iturriolatxo errekako eta Moundiko errekako esfagnalak	• San Enrike gotorlekua • Karlistaldietako dorre militarrak • Guadalupeko gotorlekua • Santa Barbara ermita • Justiz baserria • Artzu baserria • Gornutz baserria
• Iskulin trikuharria • Jaizkibeleko harrespila	

4.6.3 Hirigintza-jarduerarako eremuak 70 "Jaitzubia"

Eremuak 865.000 m^2-ko azalera du, eta Hondarribiari dagokion zatian "*Txingudiko zonaldeko Baliabide Naturalen Babeserako eta Ordenamendurako Plan Berezia*" izenekoaren jarduera-eremua hartzen du; beraz, ordenamendua plan horrek ezarritako jarraibideen baitan dago, aurrerago azalduko direnak.

4.6.4 Hirigintza-jarduerarako eremuak 69 "Higer" eta 72 "San Telmo"

San Telmo eta Higer inguruak 165.860 m^2-ko azalera du eta paisaiari eta kokapenari dagokienez, pribilegiatua da. Parke bat egitea aurreikusita dago, zonalde horretan gero eta handiagoa den erabilera publikoko eskaerari erantzuteko.

Higer/San Telmo ingururako aurreikusita dagoen jarduera hau da: orain dagoen kanpin pribatuari osotasuna emateko parke bat jartzea, posible da udal-kanpina ere egitea, bai eta aisialdirako ostalaritza-zerbitzu osagarriak ere; aparkalekua txukuntzea eta handitzea, atsedenlekuak eta pic-nic guneak (San Telmo eta ingurua), bainatzeko zonaldeetara joateko bideak (Asturiaga, Amuitz) eta itsasorako sarbidea hobetzea proposatzen da, bai eta artifizialki babestutako bainu-zonaldeak jartzea ere.

202. taula. Arau Subsidiarioetan proposatutako espazio libreen sistema orokorra eta gaurdaino egindakoa

EREMUAK	Azalera (m^2)	2005. URTERAKO EGINDAKOA

Higer.	19.700	Ez da egin
San Telmo	146.160	Ez da egin
Guztira	165.860	

Iturria: Iturria: Hondarribiko Planaren Arau Subsidiarioak (1997) eta Hondarribiko Udala.

Eremu horien gaur egungo garapenari dagokionez, gaurdaino ez da ezer egin. Bere garaian, Plan Berezi bat agindu eta esleitu zen, baina ez da bete.

4.7 Antolamendurako udalaz gaineko tresnek natura-ingurunean izan duten eraginaren azterketa

4.7.2 Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Plana

Euskal Herriko Lurralde Planeamendurako legeak, maiatzak 31-aren 4/1990 legea, EAEaren lurralde planeamendurako tresnak finkatu zituen: Lurralde-Antolamendu Gidalerroak, Lurraldearen Zatiko Plana eta Lurraldearen Arloko Plana.

Eusko jaurlaritzaren otsailaren 11aren 28/1997 dekretuaren bitartez, EAEko Lurralde-antolamendu Irizpideak onetsi ziren betiko, hauek direlarik aipatutako Planen formulazio eta erredakziorako oinarriak.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, EAE lurraldearen banaketa egin zen, guztira 15 eremu funtzional finkatuz.

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko eremu funtzionala honako 13 udalerriek osatzen dute: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil. LAGetan finkatzen den izen ofiziala Donostia-San Sebastián Eremu Funtzionala da.

Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Plana 1992-1995 urteen bitartean hasi zen idazten. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, planaren elaborazioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 6 Zatikako Planen formulazio orokorraren barruan txertatu zen. Elaborazio fase hau 1995 urtean amaitu zen, non *"Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Eremu Funtzinalaren Lurraldearen Zatikako Planaren Aurrekaria"* argitaratu zen. Honekin batera, Gipuzkoako gainontzeko eremu funtzionalen LZPen aurrekariak ere gauzatu ziren.

Plan horrek natura-ingurunearekiko zenbait jarduera positibo ezartzen ditu (korridore ekologikoak, parkeak hiri-inguruan, babeserako zonaldeak) eta Hondarribiko udalerriari dagokionez, Gaintxurizketako zonalde batzuei, Jaizkibelgo hegalei eta Higerri eragiten die. Dena dela, zonalde horiei eragin kaltegarriak ekarriko dizkien hiri-garapenak edo azpiegiturak ere proposatzen ditu planak; hau da, jarduera kontrajarriak.

203. taula. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren proposamenak Hondarribiko natura-ingurunerako

	Jarduera-proposamenak	Eremuak	LPPak aurreikusitako hirigintza-jarduerak, aukeratutako eremuen inguruetarako
JARDUERAK NATURA-INGURUNEAN	Korridore ekologikoak	Gaintxurizketako eta Usategietako mendi-lepoak (Jaizkibel eta Aiako Harriak lotezko)	Errepideak, A-8a
		Jaitzubia eta Jaizkibel arteko isurialdeak	Dentsitate txikiko hirigintza-jarduera Jaizkibelgo hegoaldeko isurialdean
	Parkeak hiri-inguruan	Guadalupe –Higer inguruko parkea	
	Natura-aktiboak zaindu eta hobetu	jaizkibelgo hegalak	Dentsitate txikiko hirigintza-jarduera Jaizkibelgo hegoaldeko isurialdean

Iturria: Geuk egina, Donostialdea eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren aurrerakinean oinarrituta.

Dokumentu horrek, gainera, azpiegituren eta hiri-garapenen inguruan zenbait jarduera hartzen ditu barne, eta horiek Jaitzubiko zonaldeko natura-ingurunea eta baserriak dauden nekazaritza-eremuak kalte ditzakete.

203. taula. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren proposamenak Hondarribiko natura-ingurunerako

	Jarduera-proposamenak	Eremuak
GARRAIO- ETA KOMUNIKABIDE-SAREA	Hondarribirako sarbideak (Amuteko iparraldea)	Jaitzubiko ibarra
HIRI-KOKALEKUETARAKO SISTEMAK	Ibilbide-sare Leunak (Gaintxurizketako ibilbidea)	Gaintxurizketako gaina, Jaizkibelgo hegoaldeko isurialdea eta Jaitzubia errekaren iparraldea
	Hiri-hedapenerako eremu berriak	Hondarribiko landazabala
	Enprea- eta hornidura-parkeak (Zubietako enpresa- eta hornidura-parkea)	Mendelu eta jaitzubia arteko eremua

PLANIFIKAZIO-ESTRATEGIAK	Interes estrategikoko eremuak (etorkizunean, Hondarribirako sarbideak Amutetik barrena	Jaitzubiko eremua

Iturria: Geuk egina, Donostialdea eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partzialaren aurrerakinean oinarrituta

1997an berriro ekin zitzaion Gipuzkoako LZPen erredakzioari, oraingo honetan ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babespean. Ondoren LZP bakoitzaren erredakzioarekin (6 dira guztira) hasi ziren, beti ere, 1995 urteko aurrekariak jende aurrean jartzean jaso zituzten ekarpenak kontutan izanik. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planari dagokionez, lan berriek ez zuten aurrera egin eta geldirik geratu ziren azkenik.

82. grafikoa. Lurralde Plan Partzialaren eragina Hondarribiko natura-ingurunean



Iturria: Donostialdea eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partziala.

Berriki Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planaren erredakzioa berrabiaraztea erabaki den arren, kontutan izan behar da lehenengo aurrerakia egin zenetik 6 urte pasa direla. Hori dela eta, aurrerakiaren dokumento berria idaztea erabaki da.

Lehen aurrerakia idatzi zenetik (1995) 2002 urterarte, garapen desberdinak eman dira hirigintzan. Horregatik, oinarrizko datuen eguneratzearekin batera, garai hartan egindako dokumentoaren eduki eta alderdiak berriz ere aztertu beharko dira. Dena den, orokorragoak diren planteamenduak eta gaiak baliogarriak direnez, dokumento berriaren oinarrizko materiala bezala txertatu ahal izango dira.

4.7.3 Nekazaritza eta basogintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Lau antolamendu-kategoria ezartzen ditu: nekazaritza-abeltzaintza eta landazabala, mendia, ingurumena hobetzeko zonaldeak eta gainazaleko uraren babesa. Plan-ordenamenduak Hondarribiko lurralde osoa hartzen du, honako hauek izan ezik: Arau Subsidiarioetan hiri-lurtzat, lur urbanizagarritzat eta ez urbanizagarritzat hartzen diren zonaldeak; Txingudiko zonaldea (Jaitzubia eta Kosta ibarra), horren antolamendua Plan Bereziaren baitan baitago; LAPan EAEko Zonalde Heze izendatutako eremu hezeak; eta Itsasertzeko LAPk antolatzen dituen itsasertzeko zonaldeak. Gainera, Natura 2000 Sarean (Europaren Intereseko Lekua eta Hegaztien Babesgune Berezia) gaineratzen diren espazioak beren Kudeaketa-plana dutenean, planaren arabera antolatu eta kudeatuko dira.

Hondarribiari dagokionez, kategoria hauek dagozkio:

- *Balio estrategiko handiko nekazaritza-abeltzaintzakoa:* nekazaritza-sektorearentzako balio estrategiko handiko zonaldetzat hartzen dira, eta, horregatik, beste erabilera batzuen aldean, lehentasuna du eremu horiek zaintzeak eta babesteak. Hondarribian, kategoria horretan sartzen diren zonaldeak landazabalean daude, Arkolla inguruan eta Jaitzubiaren ibarrean eta iparraldean, batez ere.
- *Trantsizioko Landa Paisaia:* Balio estrategiko handiko gunetzat hartutako espazioekin edo basoren batekin mugakide diren zonaldeak; landazabaleko gune handi bat eta Jaizkibel mendiaren zenbait zati

hartzen dute. Gune horietan lehentasuna du nekazaritza-zonalde erabilgarriari eustea, eraikuntzak eta azpiegiturak egin ez daitezen.

- *Basoa:* zonalde basotsuak dira, bai espezie naturalena, bai sail landatuena ere (hedaduragatik Pinu insignis nabarmentzen da), eta helburua zuhaiztiak kontserbatzea da. Espezieak eta landaketa bakoitzaren funtzioak administrazioek erabakitzen dituzten zenbait faktoreren araberakoak izango dira. Zonalderik adierazgarriena Jaizkibel mendian dago, eta multzo batzuk Jaitzubiaren ibarreraino ere hedatzen dira.
- *Baso – Mendi Meatsa:* zuhaitzik gabeko edo zuhaitz urri edo degradatuak dituzten eremuak. Malda handiko edo lur gutxiko eremuak izaten dira eta zuhaizti txikiak edo zuhaitz-multzoak landatzea gomendatzen da. Udalerrian horrelako eremu gutxi dago, Jaizkibel mendigunearen gailurretik hurbil dauden zonaldean eta labarretan.
- *Urrakortasunaren eta higaduraren mapa:* gainera, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek jasotzen diren urrakortasunaren eta higaduraren Mapako eremuak hartzen dira kontuan. Horri dagokionez, ia Jaizkibel mendi guztia akuiferoen urrakortasun-eremutzat hartzen da, eta mendiaren hegoaldeko isurialdeko beheko zatia eremu higagarritzat.

4.7.4 EAEko ibaien eta erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana – Isurialde Kantauriarra

Plan horrek Hondarribiko udalerriko ur-ibilgu guztietako bi ertzetan dauden 100 metroko zabalerako lur-zerrendak antolatzen ditu. Hondarribiko arro nagusia Jaitzubikoa da, eta plan horren bitartez ibaien eta erreken ertzak eremutan banatzen dira zenbait irizpideren arabera. Ertzen kalitateari dagokionez, garrantzitsuena *Ingurumenaren Osagarrien arabera egiten den ertzen eremu-banaketa* da; lau eremu berezi sailkatzen dira, eta horietako bakoitzeko ingurumena babesteko berariazko politika behar da. Lau kategoriatatik bi udalerrian izendatu dira:

- *Lehentasunezko Natura-Intereseko Eremuetako Ertzak:* Txingudiko Plan Bereziaren arloan sailkatzen diren ibaien eta erreken ertzak dira. LAP horren arabera, ertz horiek Arroaren Babeserako Eremu kalifikazioa behar dute, eta hori bera antolamendurako agirietan definitzen da.

- *Ondo Kontserbatutako Landaredia duten Ertzak:* ertzetako landarediaren kontserbazioaren arabera definitu dira, eta landaredia zaintzea komenigarria den zonaldeak aukeratu dira. Ertz horietarako ondo kontserbatutako landaredi klimazikoa lortu nahi da; beraz, lehenera ekartzeko jarduera arinak baimentzen dira. Hondarribian Lur Ez Urbanizagarritzat hartutako eremuetan ondo kontserbatutako landaredia ertz hauek dute:

- Txiplaoko errekaren zati bat, Txiplaoandi baserriaren parean. Zati hori Jaitzubiaren arroatik kanpo dago.
- Putzuandiko erreka, Goiko luberria parean

Gainera, errekaren zati batek hiri-lurraren eremua ere hartzen du, eta ondo kontserbatutako landaredia duen ertzatzat hartzen da.

Antolamendua 10 Km^2 baino gehiagoko arroa duten ur-ibilguei bakarrik ezartzen zaie zehatz-mehatz, eta arro txikiagokoei LAParen Araudi Orokorra aplikatzen zaie.

4.7.5 EAE-ko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

LAP horren arabera, itsasertzatzat gutxienez 500 metroko zabalera duen eremua hartzen da, itsasoaren ur-bazterreko beheko mugatik neurtuta eta mareen eraginaren eremutik neurtuta (itsasmailaren gainetik 5 metroko kota hartzen da kontuan).

Planaren helburua Itsas-Lurtar Jabari Publikoa babestea da, ikuspuntu sozialetik, ekologikotik eta baliabide naturaletatik hartuta. Hondarribiari dagokionez, udalerriaren itsasertz guztia hartzen du, Pasaiako udalerriko mugatik Jaizkibelen, Jaitzubiko ibarreraino.

LAP horrek zonalde bakoitzerako arautu diren erabilerak bere baitan hartzeko (kontserbaziorako duen balioaren arabera) duen gaitasunaren arabera banatzen ditu itsasertzeko eremuak. Itsasertzaren antolamendurako kategoriak honako hauek dira:

- *Babes Berezia (BB):* eremu hauetan aplikatzen da: natura-balio garrantzitsuak, paisaia-balio garrantzitsuak, zientzia-balioa, hauskortasun handia... dituztenak.
    - *Babes Berezi Zorrotza (BBZ):* balio ekologiko handia duten eremuak dira; esate baterako, 60º baino gehiagoko inklinazioa duten itsaslabarrak, lurraldeko itsasoko irlak, hondartza naturalak eta zonalde bitxiak. Zonalde horietan ingurunea degradatzen duten giza jarduerak mugatu nahi dira, babes zorrotza sustatu nahi da eta landarediaren kontserbazio aktiboa bultzatu. Jaizkibelgo itsasertz guztia Babes Zorrotz kalifikatu dute, askotan 100 metro baino gehiagoko zatiak dituen zerrendan.
    - *Babes Berezi Bateragarria (BBB):* espazio horiek babestu beharreko ingurumen-balioak dituzte, baina bateragarri egin behar dute horien kontserbazioa eta baliabide primarioen aprobetxamendua, lehendik zuen egoera errespetatuta beti ere. Hondarribian, Babes Bateragarritzat, besteak beste, honakoak hartu dira: zerrenda txikiak Xixurko kalan, Artzuko Portua eta Asturiagako hondartza.
- *Ingurumen hobekuntza (IH):* balio handiagoko eremuetatik hurbil egoteagatik hobetzea egokia irizten diren zonaldeak dira: baso degradatuak, kalitate gutxiko lurzorua, sastrakadiak... Honako hauek bereizten dira:
    - *Ekosistemen hobetze-guneak (MA1):* gizakiaren eraginez degradatu diren zonaldeak, baina egoera itzulgarria denean. Zezentegietako erreka nabarmendu behar da, ur-ibilgua eta ertzak kategoria horretan sartzen baitira.
    - *Birgaitu beharreko Gune Degradatuak (MA2):* berez birgaitzeko aukera eta ingurumen-balio txikiagoa izanagatik ere, leheneratzeko jardueraren bat beharrezko dela pentsatzen diren zonaldeak, bai Babes Bereziko eremuetatik hurbil daudelako edo beste arrazoi batzuengatik. Jaizkibelgo zonaldean Babes Zorrotz kalifikatutako eremuaren ondoko ia zerrenda osoari eman diote izendapena.
- *Basoa (B):* argi eta garbi baso izan daitezkeen guneak dira, bai baso naturalak, bai landatutakoak (paisaia-osagaiak eta aisiarako osagaiak dituela nabarmena bada). Hondarribian, batez ere Jaizkibelgo

itsasertzean daude gune horiek, birgaitu beharreko gune kalifikatutakoekin tartekatuta, eta San Telmo inguruan.

- *Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabal guneak(NAL):* nekazaritzarako eta abeltzaintzarako oso lurzoru onak dira horiek, bai eta ingurumen-balio eskaseko lurzoruetan dauden zonalde hondatu eta gizartiatuak. Hondarribian, hiri-ingurutik gertuen dauden zonaldeetan eta San Telmo inguruan daude gune horiek.
- *Erabilera Bereziko Guneak. Hiri Hondartzak (EB):* ingurumen balio-handikoak izanagatik aisialdirako erabilera eman zaien guneak dira kategoria hori osatzen dutenak; hau da, Hondarribiko hondartza.

Antolamendu horrek ez ditu bere baitan hartzen natura-gune babestuetan dauden zonaldeak (Txingudiko Plan Bereziko gunea, esate baterako), dagozkien antolamendu-agirien bitartez arautuko baitira. Halaber, Natura 2000 Sarean parte izateko proposatutako guneak ere (Europarako Intereseko Tokiak –LIC- eta Hegaztien Babesgune Bereziko Guneak –ZEPA-) LAP horren antolamenduaren eremutik kanpo geratuko dira bakoitzari dagokion Kudeaketa Plana indarrean jartzen denean, eta, horrela, aipatu dugun kontserbaziorako sareko zati izango dira behin betiko. Eta, azkenik, beste LAP batzuen bitartez antolatzen diren lurzoruak ere antolamendu horren eremutik kanpo geratzen dira; esaterako, erreka, ibai edo hezeguneetako ertzak, eta interes orokorreko portuak.

369. grafikoa. Itsasertzeko Lurraldeko Arloko Planaren Zonabanatzea, Hondarribiko iparraldeko isurialdean



Iturria: EAEko itsasertzeko LAP. Eusko Jaurlaritza

4.8 Babesteko neurriek bere gain hartzen dituzten natura-guneen berariazko azterketa

4.8.2 Jaizkibel Mendia

Hondarribiko udalerriko iparraldean dago Jaizkibel mendia eta 1.549 hektareako azalera du; hau da, udalerriaren hedadura guztiaren %50. Nahiz eta azken urteotan pixkanaka-pixkanaka degradatzen joan den, batez ere suteen eraginez, kokapenari eta aberastasun ekologikoari esker, aniztasunari garrantzi handia ematen dioten nazioarteko erakundeen aldetik iritzi onak jaso ditu.

a) Ingurumen-balioak

Orain arte aipatu dugun bezala, Jaizkibelek natura- eta kultura-balio handiak ditu.

Gipuzkoako Geomorfologia- eta Edafologia-azterketa (1991) lanaren arabera, Jaizkibel mendia probintziako sei geologia-intereseko eremuetako bat da, hamaika interes-puntu baititu, eta horietatik 6 Hondarribiko udalerrian daude.

Hidrogeologiari dagokionez, formazio hori kutsadurarekiko ikaragarri kaltebera da. Beraz, isurketek akuiferoei izugarri eragin diezaiekete, eta horietako askok zenbait herrigune hornitzen ditu.

Berezko landaredia oso leku jakinetan bakarrik badago ere, habitat asko kontserbatu ahal izan dira, batez ere bertara iristea zaila den tokietan. Berezko landaredia duten toki horiek garrantzi handiagokoak dira, espezie izugarri bitxiak baitaude (*Armeria euskadiensis* espezie endemikoa, esaterako) eta bakarrak latitude horietan (iratze tropikalak, esate baterako).

Jaizkibel mendiaren azaleraren zati handi bat *larreek* hartzen dute, batez ere iparraldeko isurialdean, eta horietako askok habitat interesgarriak osatzen dituzte (*Deschampsia flexuosa* eta *Molinia caeruela* espezieak dauden larrediak, esaterako) bai eta txilardiek ere, *Erica vagans* espeziez eratuak. Paisaia zenbait konifera-landaketez osatua dago, batez ere hegoaldeko isurialdea, baina iparraldekoan, erriberako basoetan eta baso hostoerorkorretako zenbait zokoetan ere badira; esaterako, ameztiak eta hariztiak. Azken horiek Jaizkibelgo landaredi potentzialak badira ere, ez

dituzte ale zaharreko benetako basoak osatzen, baizik eta tamaina txikiko eta gazteko baso txikiak, abereen eta suteen eraginez.

Espezie bitxienak eta ingurumenean ondoen egokitutakoak iparraldeko isurialdeko *kostaldeko itsaslabarretan* daude, giza jardueraren eragina oso txikia izan den lekuetan, bertaraino iristea oso zaila baita.

Iparraldeko isurialdeko erreketan ere Interes handiko landare-espezieak daude: *Woodwardia radicans* eta Trichomanes speciosum iratzeak; esfagnal-enklabe txikiak eta landare urtarrak Laondoko eta Arlatzetako badietan, Artzu errekan, erreketako putzuetan eta Jaizkibelgo zakardi zabalean. Lurra bustitzen eta putzuz betetzen dituzten erreken etengabeko ur-jarioa faktore erabakigarria da landaredi horri eusteko.

Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdean, Guadalupeko ermitatik hurbil hasi eta itsasorantz hedatzen dena, *Justizko baso laurazeoa* daukagu. Isurialde horretan ondoen kontserbatutako amildegia da, eta kasik ukitu gabe bere horretan egotea lortu du; basoaren eraketa-motari dagokionez, bakarra da lurraldean: baso laurazeoa. Estalkiaren azpian mikroklima berezia sortzen da, atmosfera-saturazio handikoa eta tenperatura epelekoa. Espezie botaniko interesgarriak, basoetakoak, oihandarrak eta tropikalak ugariak dira, eta horietako asko benetan bitxiak dira.

Faunari dagokionez, faunari eskainitako atalean esan dugun bezala, Jaizkibelek fauna-interes handia du, eskualderako, naziorako eta Europako intereserako espeziek aurki baitaitezke. Interes bereziko lekuak badira, esate baterako honako hauek:

- *Turrilla puntako ingurua:* Kaio hauskararen eta Kaio ilunaren habiagintzako zona bakarrak dira.
- Jaizkibel mendigunearen gailurra, hegazti harrapariek habiak egiteko erabiltzen dute, esaterako, Belatz handiak (CVEAk bakantzat hartua), eta ugaztun karniboroen babesleku ere bada.

b) Kultura- eta historia-ondarearen balioak

Jaizkibelek duen interesa ez da bakarrik naturari dagokiona, bertan kultura- eta historia-intereseko aztarna ugari baitago. Jaizkibelgo Kudeaketa Planean jasota dauden *Elementu edo Gune Arkeologikoak* honako hauek dira:

- Jaizkibelgo Estazio Megalitikoa:
  - Iskulin, Jaizkibel III eta IV eta Atxiñarko trikuharriak

- Jaizkibel I-eko harrespila
- Santa Barbarako trikuharria eta Jaizkibel I-eko harrespila (gaur egun, ez dago)

- Balizko gune arkeologikoak:

- Higer Itsasargia
- Marla I eta Marla II
- Elortxuri
- Guadalupe
- Bioznar
- Ahuntzbizkar
- Aiardi
- Justiz
- Justizko Beheko errota
- Justizko Goiko errota
- Santa Barbara ermita
- Burkaitzeko harpea
- San Telmo gaztelua
- Artzu baserria
- Justiz baserria
- San Enrike gotorlekua
- Artzu Errota (hondarrak)

- Gune edo elementu arkeologikoak EAEko Monumentu edo Monumentu Multzo izendatzeko:
  - Lexonabar leizea
  - Txurtxipi leizea
  - Gaztarrotzeko leizea (Pasaiarekiko mugan).

Interes arkeologikoa duten bestelako ondasunak ere badira, San Telmoko ermita, esaterako, baina nahiz eta katalogatu zuten, ez dago babestuta. Bestalde, aipatzeko modukoak dira Arantzadi Zientzi Elkartea Hondarribiko Udalaren laguntzarekin egiten ari den ikerketa-lana; gaur egun, II. Azterketa-kanpaina egiten ari dira Jaizkibel mendian, Hondarribian. *"Hondarribian gaurdaino aurkitu diren aztarnategi prehistoriko kopurua handi samarra da, eta horiek batez ere mendiaren iparraldeko isurialdean daude (6 megalito, bi leize eta estali gabeko hemeretzi kokaleku)". Arkeologia Prehistoriko Saileko zuzendaritzak dio baldintzak betetzen direla Jaizkibel benetako erreserba arkeologikotzat hartzeko, isolatu samarra (giza jardueraren eraginez gutxi hondatuta, eta giza taldeen sarrera-korridorean kokatua, kontinentetik Penintsulara eta alderantziz).* (Jaizkibeleko Kudeaketa Planetik hartutako testua).

Ondare arkitektoniko-historikoari dagokionez, Hondarribiko eremuan honako hauek daude:

- Ondare kulturala Monumentu Multzo izendatuta (bide-trazadura Santiago Bidearen euskarri gisa): memento honetan, Santiago Bidearen trazadura proposamen-fasean dago

- Ondare Kultural izendatuta eta sailkatuta, Monumentu kategoriarekin:

    - Guadalupeko gotorlekua
    - Dorreak
    - San Enrike gazteluaren aztarnak
    - San Telmoko gaztelua

- Proposatutako ondare higiezinak Monumentu edo Monumentu Multzo izendatzeko:
    - Santa Barbara ermita
    - Guadalupeko Andra Mariaren gotorlekua
    - Higer Itsasargia

- Proposatutako ondare higiezinak, Udal Planaren bitartez babesteko

    - Gornutz baserria
    - Altxakotxiki baserria
    - Garaikoetxea baserria

Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak zonaldean garatzeak zenbait eraikuntza altxatzea ekarri du, eta horietako askok ondare historiko balioa dute eta *Ondare etnografiko-kultural* gisa hartu dira; esate baterako, harkaitzen babes naturala aprobetxatuta egindako zenbait borda.

c) Atsedenlekurako erabilera publikoa

Jaizkibelek kalitate handiko paisaia eskaintzen die bisitariei, eta hori probatzeko ikusi besterik ez dago bertara inguratzen den jendetza. Hondarribian, batez ere *Guadalupen* pilatzen da erabilera publikoa, jende gehien erakartzen duen lekua baita. Eremu horretan santutegia, gotorlekua, atsedenlekua mahai eta guzti, jolasentzako zonaldea, kirol-zirkuitua eta bi jatetxe daude. Itsasargitik hurbilen dagoen zonaldean, plater-tiroketarako gune bat dago. Gainera, hirugarren sektorearen *turismo-eskaintza* handia da:

- *Justiz eta Artzu baserriak*: ondare-interesa duten baserriak dira, gaur egun nekazaritza-turismo eta pic-nic gune bihurtuta, hurrenez hurren; jende asko bertaratzen da, batez ere udako hilabeteetan.

- *Nekazaritza-turismoak:* nekazaritza-turismo guztiak Hondarribiko udalerrian erroldatuta daude (Arotz-Enea, Postigu, Maidanea, Txenduneabe Aspi eta Iketxe)
- *Kanpina:* Higer Itsasargi eta Jaizkibel kanpina, eta Juan S. El Cano aterpetxea.

Jaizkibelen, gainera, isurialdearen altuera desberdinetan eta gailurrean zehar *bide* asko dago. Bide-sare horrek eta paisaia gozagarri eta ikusgarriek ere jende ugari erakartzen dute eta bisitariak ugari izaten dira urte guztian. Hondarribiko Udalak horietako zenbait bideetan seinaleak jarri ditu. Bideei dagokienez, bestalde, itsasertzeko bideari jarraipena ematea falta zaio Erentzinetik aurrera; izan ere, aukera emango luke Hondarribia eta Pasaia artean bidea izateko, bide arina eta ingurumena kaltetzeko arriskua duten zonaldeetatik barrena pasa gabe. Erabilera publikoa kontuan hartuta, zenbait hobekuntza egin daitekeela ere ikusten da; esate baterako, atsedenguneak eta ingurua ezagutarazteko panelak.

Kontserbazioarekin bateragarri diren erabilera horiezaz gain, motoak eta quad-ak ere ugari ibiltzen dira inguru horretan eta lurzorua kaltetzeaz gain, gainerako erabiltzaileei enbarazua eragiten diete. Hondarribiko Udalak udako hilabeteetan bide horiek itxi egiten ditu, ibilgailuak ez daitezen pasa. Bestelako arazo batzuk ere sortzen dira: zaborra bildu gabe utzi, suteak eta aske ibiltzen diren zakurrak, batzuetan abereei eraso egiten dietenak.

Mendiaren erabilera egokia bermatzeko, Jaizkibeletaz arduratzen den basozain bat dago. Honetaz gain, eremu naturalen kudeaketaz arduratzen diren Gipuzkoako Foru Aldundiko bi pertsona daude, Gipuzkoa osorako zerbitzua eskeintzen dutelarik.

d) Abeltzaintzarako erabilera

Gaur egun, 11 jabek 614 abelburu dituzte, eta horiek Hondarribiko Jaizkibelgo terrenoetan ibiltzen dira. Jabe gehienek buru gutxi batzuk besterik ez dute, bik izan ezik: batak, 100 buruko behi-azienda, eta besteak, 200 ardi. Halaber, 100 hektareako espazioa hesitu da, pottokak bultzatzen dituen elkarte batek erabiltzeko.

204. taula. Abelburu kopurua Jaizkibelen (Hondarribia)

Behiak	Ardiak	Behorrak	Pottokak
126	312	116	60

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

Kudeaketari dagokionez, honako honetan oinarritzen da: itxiturak jarri (batez ere, zuhaiztiak dauden eremuak babesteko), sasiz garbitu eta fitozida eta ongarrien bitartez lurra tratatu, larre-gunea hobetzeko eta areagotzeko. IKT, SA enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egindako ikerketaren arabera (Jaizkibelgo eremurako jarduera-plana, 2003), inbertsioa 3 milioi euro ingurukoa da. Emaitza ekonomikoez gain, ingurumenaren inguruko emaitzak ere eztabaidagarriak dira. Abelburuek itxiturak hautsi eta basoa birgaitzeko helburuarekin babestuta dauden terrenoetan sartzen dira, eta basoa garatzea oztopatzen ari dira, horretarako erabakitako tokietan. Beraz, nahiz eta abelburu asko ez egon inguru horretan, mendi guztian barrena hedatzen dira kalteak.

e) Babeserako neurriak

2004ko abenduaren 7an onartu ondoren (urte bereko hilaren 29an Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), Jaizkibel Natura 2000 Sarean izenekoan dago, Europarako Intereseko Toki gisa (LIC). Ezaugarri hauengatik onartu dute espazioa Europako arloan:

205. taula. Europarako intereseko Jaizkibelgo espezieak eta habitatak

LIC Jaizkibel – ES2120017			
	Eremuak		**Azalera (Hektarea)**
	Jaizkibel EPM, Hondarribi, Lezo eta Pasaiako udalerrietan dagoena		2434
Espezieak	**Mota – Zuzentaraua**		**Espezie-kopurua**
	Hegaztiak – 79/409/EEE Zuzentarauaren I. Eranskina		17
	Hegazti migratzaileak		20
	Anfibioak eta narrastiak – 93/43/EEE Zuzentarauaren II. Eranskina		1
	Ornogabeak – 92/73/EEE Zuzentarauaren II. Eranskina		2
	Landareak – 92/73/EEE Zuzentarauaren II. Eranskina		2
Habitat (*Lehentasuna duten habitatak)	**CORINE kodea**	**Habitat-mota (Habitat Zuzentarauaren I. Eranskina)**	**Estaldura (%)**
	1230	Itsaslabar atlantiarretako landaredi-komunitateak	2,2
	3110	Landaredi anfibiodun ur oligotrofikoak	-
	4020*	Europako hegoaldeko txilardi hezeak	0,3

	4020*	*Molinia caerulea* espezieadun txilardi hezeak	0,4
	4030	*Ulex europaeus* espezieko otadiak	21,5
	4040*	*Erica vagans* espezieko iparraldeko txilardiak (kostako txilardiak)	14,5
	6230*	*Deschampsia flexuosa* espeziedun belardiak	4,0
	6410	*Molinia caerulea* espeziedun belardiak eta horiekin lotura duten komunitateak	9,8
	6510	Belar ondu atlantiarreko larreak	2,5
	7150	*Rhynchosporion* espeziearen zohikatz-estratuaren gaineko sakonunean	0,2
	8220	Harkaitz silizeoak, landaredi kasmofitikoduna	-
	8310	Turismoak ustiatu gabeko leizeak	-
	91E0*	Ibaietako lizardi-haltzadiak, urak gora egiten duenean hezeak	0,1
	9230	Harizti kantauriarrak	5,1

Iturria: NATURA 2000 inprimakia eta Jaizkibelgo Kudeaketa Plana.

Gainera, kontserbatzeko helburuarekin beste 4 fauna espezie eta 8 flora espezie garrantzitsu daude; horien artean, *Armeria euskadiensis*, euskal itsasertzeko landare endemikoa.

1989. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak "Jaizkibel mendiaren Antolamendu Planaren Aurrerakina" egin zuen (Arantzadi Z.E.), eta 1995. urtean "Jaizkibel mendiaren Antolamendu Plana" (IKT, SA). Gune hori NATURA 2000 Sarean sartu dutenez, 2004. urtean *EKOS: Ingurumen Azterketak* enpresari "Kudeaketa Plana" egiteko eskatu zitzaion, Europarako intereseko izendatu ziren habitatak babesteko eta birgaitzeko, bai eta flora- eta fauna-espezie garrantzitsuak ere. Oraingoz, plan horren zirriborroa bakarrik daukagu, eta lan hau egiteko bertatik zenbait informazio jaso dugu.

Kudeaketa Planak 9 helburu ezarri ditu, eta zenbait neurriren arabera garatuko dira. Jarraian, helburuen, neurrien eta horiek eragiten dien eremu guztien zerrenda duzu:

206. taula. Jaizkibelgo Kudeaketa Planak proposatutako helburuak eta neurriak

HELBURUA	
1. Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdeko habitatak eta intereseko espezieak kontserbatu	
NEURRIA	**EREMUA**
1.1 I. Eranskinean aipatzen diren lehetasunezko habitatak kontserbatuko direla bermatu	-Txilardi higrofilo atlantiarrak -*Erica vagans* espezieko kostaldeko txilardi lehorrak -*Deschampsia flexuosa* espeziedun belardiak -*Rhynchosporion* espeziearen zohikatz-estratuaren gaineko sakonunean -Ibaietako urek gora egiten duenean lizardi-haltzadiak hezeak
1.2 Iintereseko espezieak eta habitatak babestuko direla bermatu	-Habitat Zuzentarauaren II. Eta IV. Eranskinetako espezieak, eskualde-mailako intereseko espezieak eta habitatak -Europarako intereseko habitat guztiak barne
1.3 Hegazti Zuzentarauaren I. Eranskineko hegazti-habitaten babes berezia bermatu	-Hegaztiak eta beren habitatak Zuzentarauaren I. Eranskineko espezieak -Europarako intereseko habitat guztiak barne
1.4 Esfagnalei eutsiko zaiela bermatu	-*Rhynchosporion* espeziearen zohikatz-estratuaren gaineko sakonuneak -Landaredi anfibiodun ur oligotrofikoak -Molinia caerulea espezieadun txilardi hezeak
1.5 Drainatze-sereari eta uraren kalitateari eutsiko zaiela bermatu	-Jaizkibelgo sare hidrologiko osoa, eta ondorengo habitatak eta horien mende dauden espezieak: - Landaredi anfibiodun ur oligotrofikoak - Txilardi higrofilo atlantiarrak - *Rhynchosporion* espeziearen zohikatz-estratuaren gaineko sakonuneak - Ibaietako urek gora egiten duenean lizardi-haltzadiak hezeak - *Salís sp.* Dagoen zonalde lohitsuetako sastrakadiak
1.6 Zakardi eta larre-guneen kudeaketa sustatu, artzaintzarako	-Txilardi higrofilo atlantiarrak -Europako txilardi lehorrak -*Erica vagans* espezieko kostaldeko txilardi lehorrak -*Deschampsia flexuosa* espeziedun belardiak -*Molinia caerulea* espeziedun belardiak
1.7 Belar ondu atlantiarreko larreen kudeaketa sustatu, flora- eta fauna-aberastasuna optimizatzeko	- Belar ondu atlantiarreko larreak
1.8 Harkaitz-habitatak zaindu	-Itsaslabarrak -Harkaitz silizeoak, landaredi kasmofitikoduna -Turismoak ustiatu gabeko leizeak
1.9 Baso-habitatak zaindu	-Ibaietako urek gora egiten duenean lizardi-haltzadi hezeak

	-*Q. Robur eta Q. Pyrenaica* espeziko hariztiak -*Salís sp.* Dagoen zonalde lohitsuetako sastrakadiak -*Q. Robur* nagusi den baso mistoa -gaztainadi galoiberiarrak

HELBURUA	
2. Hegoaldeko isurialdeko baso potentzialak lehenera ekarri	
NEURRIA	**EREMUA**
2.1 Hegoaldeko isurialdeko basoetako habitat naturalak zaindu	-*Q. Robur* eta *Q. Pyrenaica* espeziko hariztiak -*Q. Robur* nagusi den baso mistoa -Gaztainadi galoiberiarrak
2.2 Baso-landaketak baso potentzialekin ordezkatu	-*Q. Robur* eta *Q. Pyrenaica* espeziko hariztiak -*Q. Robur* nagusi den baso mistoa -Gaztainadi galoiberiarrak

HELBURUA	
3. Jaizkibelgo paisaiaren kalitatea zaindu	
NEURRIA	**EREMUA**
3.1 Jaizkibelen egingo diren jardueretan paisaia-irizpideak ezarri	- Jaizkibel mendiko habitat guztiak

HELBURUA	
4. Erabilerak zuzendu eta bateragarri egin	
NEURRIA	**EREMUA**
4.1 Jaizkibel mendiaren erabilera didaktikoa eta turismo iraunkorra sustatu	Jaizkibel mendiko eremu guztiak
4.2 Kudeaketa-helburuen arabera antolatu berriz erabilerak	
4.3 Legez kanpoko txabolak bota	
4.4 Jaizkibel mendirako sarbide motorizatu guztiak arautu	
4.5 Euskal-arrazako abelburuen erabilera sustatu	

HELBURUA	
5. Habitat naturalen kudeaketa eta ondare-balioei eustea bateragarri egin	
NEURRIA	**EREMUA**
5.1 Mendia kudeatzen dutenen eta kultura-ondareko teknikarien arteko informazio trukea sustatu	- Jaizkibel mendiko eremu guztiak
5.2 Habitat-kudeaketak eta kultura-ondareari buruzko ikerketak koordinatu	

HELBURUA	
6. Ezaguera zientifikoak hobetu	
NEURRIA	**EREMUA**

HELBURUA	
6. Ezaguera zientifikoak hobetu	
NEURRIA	**EREMUA**
6.1 Habitaten kontserbazio egoera eta landaredi- eta animailia-populazioen egoera jakiteko irizpide objektiboak zehaztu	- Jaizkibel mendiko eremu guztiak
6.2 Txilardi lehorrak berreskuratzeko plana zehaztu (4030)	- Europako txilardi lehorrak
6.3 *Deschampsia flexuosa* espezieko belardiei buruzko informazioa ikuskatu eta osatu (6210*)	*Deschampsia flexuosa* espeziedun belardiak
6.4 Kostako txilardiei buruzko (4040*) eta txilardi higrofiloei buruzko (4020*) informazioa ikuskatu eta osatu	-Txilardi higrofilo atlantiarrak -*Erica vagans* espezieko kostaldeko txilardi lehorrak
6.5 Belar ondu atlantiarrari buruzko informazioa ikuskatu eta osatu	- Belar ondu atlantiarreko larreak -*Rhynchosporion* espeziearen zohikatz-estratuaren gaineko sakonuneak
6.6 Ur-ibilguekin zerikusia duten habitatei buruzko informazioa osatu	-Ur-ibilguekin zerikusia duten habitatak: -Landaredi anfibiodun ur oligotrofikoak -Ibaietako urek gora egiten duenean lizardi-haltzadi hezeak

HELBURUA	
7. Kudeaketaren administrazioa, koordinazioa eta koherentzia	
NEURRIA	**EREMUA**
7.1 Kudeaketaz eta jarraipena eginteaz arduratuko diren taldeak zehaztu	Gipuzkoako Foru Aldundia
7.2 Arau-esparrua eta politika sektorialak egokitu	-Gipuzkoako Foru Aldundia -Eusko Jaurlaritza
7.3 Higer lurmuturra, Amuitz irla eta hegoaldeko isurialdeko azalera gehiago sartu Jaizkibel espazioaren mugetan	Gipuzkoako Foru Aldundia
7.4 Itsas hondoa sartu Jaizkibel espazioaren mugetan	
7.5 Egungo lurzoru militarren titulartasuna lortu	
7.6 Jaizkibel mendiari buruzko datu guztiak batu	
7.7 Espazioari eragin diezaioketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu	

HELBURUA	
8. Informazioa helarazi	
NEURRIA	**EREMUA**
8.1 Informazioa helarazi	Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa-organoa

HELBURUA	
9. Kudeaketa nola doan ikusi, ebaluazioa egin eta ikuskatu aldian-aldian	
NEURRIA	**EREMUA**
9.1 Intereseko espezien jarraipena egin	- Intereseko espezieak - Intereseko habitat guztiak
9.2 Zakardi, larre-gune eta belardien jarraipena egin	- Txilardi higrofilo atlantiarrak - Europako txilardi lehorrak - *Erica vagans* espezieko kostaldeko txilardi lehorrak - *Deschampsia flexuosa* espeziedun belardiak - *Molinia caerulea* espeziedun belardiak - Belar ondu atlantiarreko larreak
9.3 Esfagnalen jarraipena egin	- *Rhynchosporion* espeziearen zohikatz-estratuaren gaineko sakonuneak
9.4 Errekekin zerikusia duten habitaten eta espezien jarraipena egin	- Jaizkibelgo iparraldeko isurialdeko errekak - Landaredi anfibiodun ur oligotrofikoak
9.5 Harkaitzetako habitaten eta espezien jarraipena egin	- Itsaslabarrak - Harkaitz silizeoak, landaredi kasmofitikoduna - Turismoak ustiatu gabeko leizeak
9.6 Basoetako habitaten eta espezien jarraipena egin	-Ibaietako urek gora egiten duenean lizardi-haltzadi hezeak -*Q. Robur* eta *Q. Pyrenaica* espezieko hariztiak -*Salís sp.* Dagoen zonalde lohitsuetako sastrakadiak -*Q. Robur* nagusi den baso mistoa -Gaztainadi galoiberiarrak
9.7 Erabileren bilakaeraren jarraipena egin	- Jaizkibel mendiko eremu guztiak
9.8 Kudeaketa-plana indarrean jarri eta ikuskatu	- Jaizkibel mendiko eremu guztiak

Iturria: Jaizkibel Mendiaren Kudeaketa Plana Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

Azkenik, aipatu beharra dago 1996 urteko abenduaren 24an onetsi zirela Hondarribiako planeamendua arautzen duten Arau Subsidiarioak. Baina bai Jaizkibel Garrantzia Komunitarioko Eremuaren aitormena (2004) bai eta EAEko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren behin betiko onespena, beranduago eman ziren. Hori dela eta, biei lotutako araudiak ez daude jasotak Hondarribiako Arau Subsidiarioetan. Dena den, Hondarribiako Hiri-Planeamenduaren Plan Orokorra gauzatzea aurreikusita dago eta bertan, aipatutako arloak txertatuko dira.

Hurrengo grafikoak, Itsasetzearen Babeserako LAP 2007aren Hondarribiko zonaldea azaltzen du.

84. grafikoa. Itsasetzearen Babeserako LAP 2007aren Hondarribiko zonaldea



H

Oina

Jia

Garapen berriko lehentasunezko ere
Garapen berriko lehentasunezko eren
Garapen berriko lehentasunezko e
Garapen berriko lehentasunezko
Garapen berriko lehe

Ibaien eta Erreken Ertzal
Arloko Plana (Hirigintzako osag

Komunikazioe
Hirigintza g

Heze

Urdaibai, Txingudi, Babestutako

Oharra: Natura 2000 sarean
dira irud

Ekainaren 30eko 2/2006 legeak, Hirigintza eta Lurzoruaren legeak, hiritarren parte-hartzea bermatzeko xedearekin (planen dokumentazioari atxikita joango diren programen adierazpenen bitartez adibidez), honakoa adierazten du 109 artikuloan: Hiri-planeamenduaren onespen orokorrean konpetentzia duen udalerri orok, Hiri-planeamenduaren Aholku Kontseilua sortu behar du. Kontseiluak, bi helburu beteko ditu:

- Parte-hartzearen beharra bermatu
- Hiri planeamenduko tresnen adierapen eta onespenean laguntzea, zehazki, Plan Orokorrari lotutako zehaztapenak.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Jaizkibelgo LICaren Kudeaketarako Plana gauzatzen ari da. Egun, oraindik borradorea da baina onespena lortzen duen dataren arabera, planaren irizpideak Hondarribiako Hiri Planeamenduaren Plan Orokorrean txertatuak izan beharko dira.

4.8.3 Txingudiko badia eta Jaitzubiko ibarra

Ingurumen-balioak

Ezagutzen diren ekosistema guztien artean, hezeguneak dira aberatsenetakoak, eta, bereziki, dituen biotopoengatik Txingudiko badia da Euskal Herrian balio ekologiko handien duen hezeguneetako bat. Ekologia aldetik oso gune garrantzitsua da, baina oso espazio jakin batera mugatuta geratu da; Hondarribian, hain zuzen, toki hauetan: Jaitzubia ibarra, Kostako ibarra eta San Rafaelgo urmaela. Nahiz eta oso handia ez den, padura-zonalde garrantzitsuenetako bat da EAEn.

Zenbait faktoreren eragina dutelako dira gune garrantzitsu:

- *Estuarioak dauden zonaldeak berez duten balio ekologikoa.* Paduren berezko ezaugarriei esker, produktibitate biologikoa handia izateko ezaugarri ezin hobeak sortzen dira, eta, hori, era berean, oso mesedegarria da inguruko itsas ondorako.
- *Ingurune urtarrak eta lurtarrak anitzak direnez,* elkarren artean zerikusi handia duten fauna-komunitateak sortzeko aukera dago.
- *Hegazti-migrazioaren fenomenoa.* Txingudi, itsasoaren eta mendikate kantauriar eta piriniarraren arteko nahitaezko igarobide, hegazti migratzaileak hornitzeko eta babesteko toki estrategikoa da.
- *Alubioi-ibarren laborantza-potentziala.*

- *Estaldura kuaternarioen azpiko mantu akuiferoa* baliabide hidrologiko garrantzitsua da, eta Jaitzubiko eta Bidasoako alubioi-ibarrei oso erraz eragin diezaioke.

Jaitzubia errekak Aiako Harriko mendi inguruetako urak jasotzen ditu (Ugalde eta Mokozorrotz erreken bitartez) eta Jaizkibel menditik barrena jaisten direnak, gero, badian itsasoratzeko. Haran mugakideekin zuzenean lotura duen padura-zonalde bakarra da, eta erliebe leuneko landazabala eta landuta dauden ibarrak hartzen ditu; Hondarribiko berezko padura-zoko bakarra da. Uraren kalitatea oso ona ez bada ere, ertzetan, oraindik ere, lezkadiak eta lohi-zonaldeak badira, batez ere itsasbehera denean. Zangaluzeaz gain, Jaitzubian bestelako txori txiki-espezieak ere badira; lezkariak, benarrizak eta ihi-txoriak, besteak beste; inguruko landazabal-guneetako zuhaiztiak antzandobi arruntaren, zepelatzen lepitzulien, txinboen, kazkabeltzen eta beste batzuen habitata dira.

Zoritxarrez, galzorian bi hegazti-espezie daude (CVEA): benarriz gorrizta eta benarriz arrunta; horien habitata, lezkaria, Jaitzubiko paduretan irauten du. Bestalde, apo lasterkariak ikusi dira ur gezetako urmaeletan eta kalteberetzat katalogatuta daude. Arantzarrainak (Kaltebera) ere badira, dezente, errekako ura bare dagoen zonaldeetan.

Jaitzubiko paduretako landaredia aldatu egin da azken bi urteetan, birpopulatzeko jarduerak hasi zituztenez geroztik. Lezkadiek (*Phragmites australis*) ur gezetako gune handia hartu dute, baina badira bestelako espezieak ere ur gazitan hazteko duten gaitasunaren arabera sakabanatuta. *Zostera noltii* (alga itxura duen landarea) lurzoru nahiko hareatsuetan sustraitzen da eta marea biziak direnean itsasbeheran agerian geratzen dira; *Salicornia ramosissima* ur gaziko azaleko guneetan dago; *Spartina alterniflora* marearen arabera geratzen den lurzoruaren arabera hazten da; *Scirpus maritimus* eta *Juncus maritimus* ihitzak marearen arabera aldian-aldian urak ezohiko tokiak hartzen dituen lurzoruetan daude; eta, gainera, Bizkaiko Golkoan espezie endemikoa den *Cochlearia aestuaria* aipatu behar da, ertz lohitsuak hartu baititu. Arboladiei dagokienez, birpopulatzen hasi zirenean zenbait espezie landatu zituzten; esate baterako, ur gazitako espezie *Tamarix gallica*, zumeak (*Salix sp.*), haltzak (*Alnus angustifolia*) eta lizarrak (*Fraxinus excelsior*).

Kostako zonaldea da agian giza jarduera handien jasaten duen gunea. Produktibitate handiko lurzoruak dira, nekazaritza-jarduera handia den gunea eta berezko landaredia zenbait lezkari-zonaldeetan baino ez da ageri.

Atsedenlekurako erabilera publikoa

2004. urteko birgaitze-lanen ondorioz, gunea aisialdirako egokituta dago, eta, horregatik, jende asko izaten da Jaitzubiko padura-inguruetan. Ekologia aldetik ere interes handia du, hegazti asko eta paisaia zoragarria delako, eta izadizaleentzat eta hegaztiak ikustea gustuko dutenentzat oso toki erakargarria da. Bideak badirenez eta azpiegitura ere bai, paseorako, eta natura begiratzeko eta ikasteko gune paregabea da. Halaber, bertara iristen direnek informazioa jasotzeko gunea dute, bai eta bisitaldi gidatuak egiteko aukera ere.

Duela gutxi Goikoerrotako errota zaharberritu zuten, Hondarribiko Udalarena, eta aterpetxe eta interpretazio-gune izateko egokituko dute. Udalaren asmoa errota martxan jartzea da (prest dago) eta, horrezaz gain, bi zerbitzu horiek ere eskaini. Jaitzubiko paduretatik hurbil dagoenez, sarbide erosoko korridorea erabiltzeko aukera dagoenez eta inguru horretako ingurumen-balioa handia denez (erreka bat eta udalerriko haltzadi handiena), oinezkoentzako bide bat jartzeko aukera bada, eta guneko erakargarritasuna areagotzeaz gain, erabilera ere areagotu egingo litzateke.

Babeserako neurriak

- *Txingudiko Zonaldeko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia*

  Txingudiko padurak Gipuzkoako hezegune garrantzitsuenak dira eta EAEko bigarrenak. Hezegune horien iraupena eta berreskurapena bermatzeko, 2001eko irailaren 26an Eusko Jaurlaritzak Txingudiko Zonaldeko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia onartu zuen, Hondarribiko alderako, eta planaren xedapenak udal-plangintzan integratu zituzten.

85. grafikoa. Txingudiko Zonaldeko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia

Plan Berezi horren helburu nagusia Bidasoako eta Jaitzubiko bokaleetako estuario-ekosistemak babestea da, eta bertan garatzen diren jarduerak eta babesa bateragarri egitea. Hondarribiko udalerriko gune hauek hartzen ditu plan bereziak:

207. taula. Txingudiko Plan Bereziaren babes-mailak eta eremuak

Babes-mailak	Plan Bereziak bere baitan hartzen dituen eremuak	Azalera (Hektarea)
Babes Berezia	Jaitzubia errekaren bi ertzeetako sektoreak	34,88
	San Rafaelgo urmaela	3,20
	Kostako ibarra (marea-kanalak)	1,08
Nekazaritza-babesa	Jaitzubiko ibarra (Babes Bereziari ez dagokion zatia)	32,30
	Kostako ibarra	15,56
Azalera guztia		**87,02**

Iturria: Txingudiko Zonaldeko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia. **Babes integrala duten** zonaldeak badira (Bidasoako irlak, Bidasoa ibaiaren terrazen ertzak), **Babes Berezia dutenak** (plaiaundi eta Oxinbirinbilaren ertza) eta **Babes Arrunta** dutenak (Oxinbirinbileko gainerako guztia eta ZAISAren ertzak) Irunen. Koadroaren koloreak bat datoz 8. planoko zonabanatzearekin.

Plan Bereziak, Hondarribiari dagokion zatian, honako garapen-jarduera hauek hartzen ditu:

- Aireportuko urmaelaren (San Rafael) ingurumen kudeaketarako programa, 2003an egin zen.
- Jaitzubia ibarreko babes bereziko zonaldeetako lurzorua administrazioak eskuratzeko programa. 2003an eta 2004an egikaritua.
- Jaitzubia ibarreko babes bereziko zonaldeetako padurak berreskuratzeko programa. 2003an eta 2004an egina.
- Jaitzubiko eta Kostako ibarretako nekazaritza-babeseko zonaldeak ingurumen- antolamendurako eta –integraziorako programa. Egiteko.

86. grafikoa. Plan Bereziak Hondarribian hartzen duen eremua



Iturria: Txingudiko Zonaldeko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia

Plan Berezian aurreikusitakoari jarraiki, Jaitzubiko ibarra berreskuratzeko jarduerei 2003an ekin zioten, eta, horretarako, lehendabizi, administrazioak Babes Bereziko Zonaldeko guneak bere egin zituen.

Esan beharra dago Plan Bereziaren eremuan aurkitzen diren baratzetan egiten den kudeaketaren inguruko daturik ez dagoela. Egun, ez dago daturik ez eta ikerketarik gai honen inguruan (ongarri kimiko, pestizida eta herbiziden erabilerak eragindako lurzoruaren kutsadura).

2003. urtearen bukaeran eta 2004an egin ziren Jaitzubia berreskuratzeko aurreikusita zeuden jarduera ia gehienak, eta honako hauek izan ziren:

208. taula. Jaitzubiko ibarra berreskuratzeko egindako jarduerak.

INGURUMEN-BERRESKURAPENA
• Dikeak bota/berreskuratu • Landaredi inbaditzailea ezabatu • Marea-uholdeak hazi eta irlak itxuratu • Ur gezeko zonaldeak ezarri • Belar-espezieak erein uretatik kanpo geratzen diren eremuetan
EKIPAMENDUAK JARRI ETA ERABILERA PUBLIKOA
• 1.800 metroko oinezkoentzako ibilbide nagusia eta 1.100 metro bigarren mailako ibilbidekoak • Bunkerra begiratoki gisa egokitu • 5 aparkaleku eraiki. • Informazio-panelak jarri • Ibilgailuak kontrolpean edukitzeko itxitura jarri • Informazioa jasotzeko etxolak • Bisitaldi gidatu-zerbitzua
BIDEAK LEHENERATU
• 770 metroko errepide-zatia berriz egin eta hobeto jarri • Orain dauden zubiak egokitu • Nekazaritza-babeseko lurzoruen drainatze-sistema hobetu eta babestu • Linea elektrikoak lurperatu (goi-tentsioko 400 metro, erdi-tentsioko 440 metro) • Aireko linearen kableatua ordezkatu
INGURUMENAREN KUDEAKETA

• Landaredi-pantailak eta zuhaitz-eremuak landatu
• Ikerketa eta jarraipen zientifikoa (hegazti-erroldak astero)
• Espezie inbaditzaileak zaindu:
  ○ *Myocastor coipus* espeziearen izurritea mendean izan
  ○ *Baccharis halimifolia* espeziearen izurritea mendean izan

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza

Eginda dauden jarduera horiezaz gain, epe ertainean ekipamendua hobetzeko honako jarduera hauek egitea aurreikusten da:

- Norberak ibilbideak egin ahal izateko ingurua ezagutarazteko panelak jarri
- Bideak eta ibiltokiak luzatu. Plaiaundirekin lotu (Irun)
- Hegazti-behatokiak jarri
- Erabilera publikoko altzari gehiago jarri

- *Txingudi-Bidasoa Europaren Intereseko Lekua (LIC) eta Hegaztien Babesgune Bereziko Gunea (ZEPA) Txingudin*

Txingudiko padurak oso aberatsak dira bai habitaten garrantziaren aldetik, bai espezien ugaritasunagatik (batez ere, hegaztiena), eta Europa mailan ere balio handikoak dira; izan ere, Plan Bereziaren barruan sartzen diren zenbait gune Natura 2000 Sarea osatzen duten guneen zerrendan gaineratu dira, eta, batetik, Europaren Intereseko Leku izendatu dituzte (habitaten garrantziagatik) eta, bestetik, Hegaztien Babesgune Bereziko Zonalde izendatu dute (hegazti-espezie ugari dagoelako, horietako asko babestuta edo espezie mehatxatuen zerrendan aipatzen dira).

2004ko abenduaren 7an onartu zuten Txingudi-Bidasoa Europaren intereseko leku izatea, eta Hondarribiko zatiari dagokionez, Kostako gunea ez da hor sartzen. Balio aipagarrienak, bakoitzaren fitxan aipatzen denaren arabera, ondorengo espezie eta habitatek dute.

209. taula. Europaren intereseko espezieak eta habitatak Txingudi-Jaitzubia LICen

TXINGUDI-BIDASOA		
	Eremuak	**Azalera (Hektarea)**
	Bidasoako irlak, Plaiaundiko eta Jaitzubiko padurak eta Alundako eta Lastaolako terrazak	122
Espezieak	**Mota – Zuzentaraua**	**Espezie-kopurua**
	Hegaztiak – 79/409/EEE Zuzentarauaren I. Eranskina	32
	Hegazti migratzaileak	31
	Ugaztunak – 92/43/EEE Zuzentarauaren II. Eranskina	2
	Arrainak – 92/43/EEE Zuzentarauaren II. Eranskina	3

	Ornogabeak – 92/73/EEE Zuzentarauaren II. Eranskina		1
Habitat (*Lehentasuna duten habitatak)	**CORINE kodea**	**Habitat-mota (Habitat Zuzentarauaren I. Eranskina)**	**Estaldura (%)**
	1310	Salikornia duen urteroko landaredi aitzindaria eta eremu lohitsu eta hareatsuetako beste batzuk	6
	1420	Sastrakadi halofilo mediterraniarrak eta termoatlantiarrak (*Arthrocnemetalia fructicosae*)	4
	1330	Larre-gune gazi atlantiarrak (*Glauco-Puccinellietalia maritimae*)	4
	1320	Spartina duten larre-guneak (*Spartinion marítimi*)	4
	91E0	**Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (*Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae*) duten baso alubialak	3
	1150	* Kostaldeko aintzirak	1

Iturria: NATURA 2000 LIC Txingudi-Bidasoa inprimakia. Eusko Jaurlaritza.

Halaber, gune hori berbera, eremuaren aldetik zenbait aldaketaren ondoren, Hegaztien Babesgune Bereziko Zona (ZEPA) izendatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko garrantzitsuenetako bat.

210. taula. Europaren intereseko espezieak eta habitatak, Txingudi ZEPA

Txingudi			
	Eremuak		**Azalera (Hektarea)**
	Bidasoako irlak, Plaiaundiko eremua, Jaitzubiko zati bat, San Rafaelgo aintzira eta Alundako eta Lastaolako terrazak		134
Espezieak	**Mota – Zuzentaraua**		**Espezie-kopurua**
	Hegaztiak – 79/409/EEE Zuzentarauaren I. Eranskina		11
	Hegazti migratzaileak		37
	Arrainak – 92/43/EEE Zuzentarauaren II. Eranskina		2
Habitat (*Lehent	**CORINE kodea**	**Habitat-mota (Habitat Zuzentarauaren I. Eranskina)**	**Estaldura (%)**

asuna duten habitatak)	1310	Salikornia duen urteroko landaredi aitzindaria eta eremu lohitsu eta hareatsuetako beste batzuk	4
	1420	Sastrakadi halofilo mediterraniarrak eta termoatlantiarrak (*Arthrocnemetalia fructicosae*)	3
	1330	Larre-gune gazi atlantiarrak (*Glauco-Puccinellietalia maritimae*)	3
	1320	Spartina duten larre-guneak (*Spartinion marítimi*)	3
	91E0	**Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (*Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae*) duten baso alubialak	0
	1150	* Kostaldeko aintzirak	0

Iturria: NATURA 2000 Txingudi ZEPA inprimakia. Eusko Jaurlaritza.

- *Nazioarte mailako garrantzia duen hezegunea (Ramsar Ituna)*

2002ko urriaren 24an, Txingudi Nazioarte mailako hezegune izendatu zuten (Ramsar), eta Ramsar herrian, Iranen, 1971n Hezeguneei buruzko Konbentzioan sinatutako zerrendan erroldatu zuten. Erroldatutako gunea eta ZEPAk aintzat hartzen duena oso antzekoa da, 129,97 hektarea, eta Hondarribiari dagokionez, gune hauek hartzen ditu: Jaitzubia ibaiaren ibarra eta bokalea, eta San Rafaelgo urmaela (aireportua), 61,68 hektareakoa.

211. taula. Nazioarte mailako garrantzia duen hezegunearen azalera, Txingudiri dagokiona

Eremuaren izena	Udalerria	Azalera (Hektarea)
Jaitzubiko ibarra eta itsasadarra	Hondarribia	61,68
Plaiaundi	Irun	39
Bidasoako irlak	Irun	29,29
GUZTIRA		**129,97**

Iturria: Ramsar hezeguneen informazio-fitxa. Eusko Jaurlaritza, 2005.

Zerrenda horren barruan egoteak, Eusko Jaurlaritzak eta Ingurumen Ministerioak hala eskatuta, gune hori babesteko konpromisoa hartzea dakar; zerrenda horretan mila hezegune inguru aipatzen dira, eta munduko garrantzitsuenetakoak daude.

Txingudi Ramsar toki aukeratzeko arrazoi giltzarrietako bat hegazti negutar eta migratzaileentzat, bai urtarrentzat, bai lurtarrentzat, duen garrantziagatik izan da.

4.9 HONDARRIBIKO NATURA-INGURUNEARI BURUZKO HAUSNARKETAK IRAUNKORTASUNAREN IKUSPEGITIK

HONDARRIBIKO ANIZTASUN EKOLOGIKOA (BIODIBERTSITATEA)

- ***Estuario, landazabala eta mendia, unitate adierazgarriak.***

Hondarribia bi unitate oso desberdinen artean dago: estuarioa eta mendia. Eta horien artean landazabala hedatzen da. Azalerari dagokionez, Jaizkibel mendiak udalerriaren erdia hartzen du (3.085 hektarea), iparraldeko mugan itsaslabarrak ditu eta horien gainean zakardi atlantiarrak. Barrualdean padurak eta hareatzak, gaur egun oso aldatua gizakiaren eraginaren ondorioz. Landazabalak erdialdeko gunea hartzen du, belardi- eta zuhaizti-mosaiko batez osatua. Hori guztia batuta, bi isurialdeetako ibai-ibilguek korridore ekologiko-funtzioa betetzen dute.

- ***Gaur egungo landaredia, giza eraldaketaren emaitza, hariztiak eta ametz-basoak nagusi diren landaredi potentzial baten gainean***

Gaur egungo ekosistemen egoerak aldaketa handiak islatzen ditu, gizakien jarduerek eraginda. Lurraldearen baldintzek hostozabalak nagusi diren landaredia eragiten dute, eta Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdea ametz-basoek hartzen dute, hegoaldeko isurialdea hariztiek eta ibarrak haltzadi atlantiarrek. Padura, hareatzak eta itsaslabarrak dauden zonalde txikiagotan, ingurune horietan ohikoak diren landarediak garatu dira.

Hondarribiako gaur egungo landaredi banaketa oso desberdina da Gipuzkoarenaren aldean; esaterako, zuhaizti-azalerak hedadura txikiagoa du (%22,4 eta %59,7, hurrenez hurren), sasiz betetako guneen azalera, ordea, askoz ere handiagoa da (%30,5 eta %7,0) eta ez produktiboa (%14,8 eta %6,1). Hostozabalak ugari daude, zuhaitzak dauden zonaldean, eta beste ezaugarri garrantzitsuetako bat da; zuhaiztien azaleran baso atlantikoak %26,6 hartzen du. Pinu radiatak azaleraren %4,1 hartzen du, eta Gipuzkoan, berriz, %27,7.

Beraz, paisaiari dagokionez, Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdea zakardiek eta txilardiek osatzen dute, eta hegoaldeko isurialdeko ibarrak belardiek eta hostozabalen basoek, tartean-tartean etxebizitza-eraikuntzak ageri direla. Izkin batean itsaslabarrak, eta beste aldeko izkinan hondar-paduren enklabeak, ingurune urbanizatuan.

Irudi horren eta potentzialaren artean nabarmenena ametz-basoen galera da (Jaizkibel mendiaren multzo osoaren %5) eta hariztiena ere bai. Aniztasun gutxiagoko unitateetan nabari da ibai-ibilguetako haltzadi-zerrendak estuagoak direla, kostaldeko hareatzetako landaredia desagertu egin dela eta baso mistoa ereinotzarekin enklabe jakin batera mugatu dela.

- ***Gizakien jarduerak ekosistemen eraldaketan zerikusi zuzena du***

Egoera hori eragiten duten faktoreek gizakiaren jarduerarekin lotura dute. Honako hauek nabarmen daitezke: nekazaritza eta abeltzaintza, suteak, baso-ustiaketa, urbanizazioa, erabilera marjinalak eta espezie exotikoak.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza: Abeltzaintza eta basogintza izan dira landaredi potentziala aldatzeko gehien eragin dutenak. Hariztiak moztu ziren egurretarako, eta larre- eta laborantza-zonalde bihurtu ondoren, hegoaldeko isurialdeko gaur egungo landazabala eratu da. Padurari dagokionez, lehorketek ("itxituren" bidez) nekazaritzarako eta larrerako lurzoruak eragin zituzten, eta inguru horretako nekazaritza-paisaia osatu zuten. Enklabe isolatuek bakarrik eutsi diote berezko landarediari. Jaizkibel mendiaren iparraldeko hegalean, abeltzaintza-erabilera estentsiboa bultzatu da tratamendu berezien bidez; lehen, ametz-basoek hartzen zuten lurzoru hori. Zonalde horretan eta hegoaldeko hegalean, XX. Mendean konifero-espezieak birpopulatzeari ekin zioten, eta horrek jatorrizko egoera erabat eraldatzea zekarren.

Sua: Suak berebiziko garrantzia du bat-bateko eraldaketan. Larreak hobetze aldera erabili izan da betidanik sua. Gaur egun, hain agresiboak ez diren bestelako moduak erabiltzen dira, nahiz eta zenbaitetan ingurumen-arazoak eragiten dituzten. Larrean aritzen diren abereei esker, sute-arriskua gutxitu egin da, ez baitute uzten belarra hazten; batez ere, hegoaldeko isurialdean antzeman daiteke hori. Bestelako kudeaketa-bitartekoak ere erabiltzen dira; esate baterako, berreskuratutako zonaldeak babesteko itxiturak egiten dira, sasiak kendu eta garbitu egiten da eta ongarriak eta belar-pozoiak erabili bazkalekuen produktibitatea areagotzeko.

Urbanizazioa: Nekazaritzaren eraginez eraldatuta zeuden zonaldeak urbanizatu dira batez ere. Gehienetan mendi zatiak kendu edo betelana egiten zen, lurzorua egokitzeko, harresiak altxatu ahal izateko, eta itsasertzean eta ibai-ibilguetan harri-lubetak jartzeko. Gizakiaren jarduera nabarmenagoa izan da padura izan zitezkeen zonaldetan eta haranetan. Hiri-hedapena bitxia izan da, eraikuntza isolatuak edo dentsitate gutxikoak, baina azalera handiak hartu dituzte. Dena dela, alde positiboa ere badu horrek; berezko landaredia zuten

enklabeak irauteko mesedegarria izan da, beste erabilera batzuek eragin zezaketen erabateko eraldaketak ez baitira gertatu (dentsitate handiko urbanizazioak, industrialdeak, azpiegiturak...).

Erabilera marjinalak: Zenbait enklabe egoki antolatu gabe hartu, eta lurraldean zehar sakabanatzen direnak eta inguruan inpaktu larria eragiten duten jarduerak dira erabilera marjinalak; esate baterako, eraikuntzarako material-biltegiak, lorategi-hondakinak, ezertarako balio ez duten material-biltegiak eta obra-hondakinak.

Espezie exotikoak: Azkenik, flora exotiko-espeziek zenbait ingurumen aldatzen ari dira. Basogintzarekin zerikusia duten espeziez gain, Hondarribiari dagokionez, padurekin zerikusia duten espezieak nabarmendu beharko lirateke (basoetako edo lorategietako kolonizatzaileak) baita larrekoekin zerikusia duten espezieak ere (tratamenduen bitartez sartzen direnak).

- ***Orain dauden fauna-espezie zerrenda luzea, baina habitaten eraldaketen eraginez galtzeko mehatxuan daudenak***

Guztira, 123 espezie dira Espezie Mehatxatuen EAEko katalogoan (CVEA) edo 92/43 (Habitat Zuzentaraua) eta 79/409 (Hegazti Zuzentaraua) zuzentarauen eranskinen batean zerrendatuta daudenak. Jarraian, egoera larrienen daudenak aipatzen dira, eta arrazoiak eta arazoak ere adierazten dira:

Hegaztiak: Paduretako habitateko bi espezie daude Galtzeko Arriskuan: benarriz gorrizta eta benarriz arrunta. Bi espezien kasuan, kumeak dauden tokiak zorrotz babestea eta landare urtarren bidez itsasertzeko zonaldeak handitzea funtsezko neurriak dira espezie horiek kontserbatzeko, baina, bereziki, lezkadiak babestea da behar-beharrezkoa. Alderdi horri dagokionez, Jaitzubia birpopulatzeak bi espezie horien egoera hobetzea eragin dezake.

Ugaztunak: Hain larria ez bada ere, nabarmentzeko modukoa da bi ugaztun-espezien egoera, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan Kalteberatzat hartuta eta Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean aipatzen direnak. Ferra-saguzar handia eta ferra-saguzar txikia dira baso-zonalde horiek hartzen dituzten espezieak. Jaizkibelgo hareharrietan egindako leizeak erabiltzen dituzte, bai eta utzita dauden eraikin eta eraikuntzak ere. Gizakiek oso erraz kalte ditzaketenez, bizirik iraun dezaten beharrezkoa litzateke gehiegi ez hurbiltzea.

Arrainak: Arrainei dagokienez, nabarmentzeko modukoa da Arantzarrainaren egoera, Bizkaiko kostaldeko zenbait tokitan eta Jaitzubia errekan bakarrik

baitaude. Espezie horren mehatxu nagusiak dira: uraren kutsadura, ur-lehorketak eta populazioen isolamendua. Eta mesedegarria da marismak kontserbatzea eta lehenera ekartzea, baina faktore kaltegarria da Jaitzubiko errekaren kutsadura, gaur egun ere hala baitago.

Anfibioak: apo lasterkaria da nabarmentzeko modukoa, eta horien mehatxurik handiena auto-harrapaketak dira.

Narrastiak: schreiber muskerra nabarmendu behar da; landaredia ugaria den landazabal-inguruneetan eta zohikatz hezeetako zonaldeetan egoten da. Habitata kontserbatzea eta iragazkor eustea nahitaezkoa da, ez isolatzeko.

Espezie horien eta udalerriko fauna globalaren egoerari buruz gutxi dakigunez, zailagoa da babesa ematea eta kontserbazioa mehatxatzen duten jarduerak ebaluatzea ere bai.

- ***Natura-interesa duten enklabe nagusiak***

Naturaren ikuspuntutik eta kontserbaziorako lehentasunezko ikuspuntutik aztertutako faktoreen arabera, hauek dira natura-interesa duten enklabeak:

  - Iparraldeko isurialdea eta Jaizkibel mendiaren kostaldeko isurialdea. Hauek nabarmentzen dira: zuzenean itsasoratzen diren errekak, Justizgo baso laurazeoa eta Turrilla puntako inguruak.
  - Jaizkibel mendigunearen gailurra
  - Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdeko errekak
  - Jaitzubiko erriberak eta padurak
  - Ur gezetako hezegune txikiak

LURRALDE ANTOLAMENDURAKO TRESNA OROKORRETATIK ONDORIOZTATUTAKO ANTOLAMENDUA ETA BABESA

- ***Indarrean dagoen udal-planak ez ditu bere gain hartzen babeserako estatus berriak eta helburuak lortzeko ikuspegi desberdinak ditu.***

Lur Ez Urbanizagarriaren zonabanatze hau ezartzen du eta lurzoru mota horrekin zerikusia duten Hirigintza-jarduerarako eremuko beste araubide batzuk ere bai:

- Babes bereziko landa-zonaldeak: Higer lurmuturraren itsaslabarretan dauden eremuak
- Landa-zonaldeak (babesik gabeak)
- San Telmo-Higer inguruko parkea
- Jaizkibel mendiko atsedenlekua
- Natura-intereseko gunea: Txingudi/Jaitzubia
- Hondartza

Babes-maila handiena babes bereziko landa-zonaldeek dute (Higerreko itsaslabarrak) eta Txingudi/Jaitzubiak. Lehendabizikoari dagokionez, erabilerak oso mugatuak dira eta natura-ingurunea zaintze aldera zuzendutakoak bakarrik. Txingudiri dagokionez, Txingudiko Zonaldeko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Babes-bereziko Planaren jarraibideak aplikatzen dira; bertan, Babes Bereziko zonaldeak eta Abeltzaintza-babesa ezartzen dira, eta zenbait balio natural kontserbatzea eta leheneratzea bermatzen dute.

San Telmo-Higer ingurua eta Jaizkibel mendia Espazio Libreen Sistema Orokorraren zati gisa kalifikatuta daude; lehenengoa parketzat, eta bigarrena atsedenlekutzat. San Telmo-Higer inguruko parkeari begira (16,6 hektarea) hiri-jatorriko aisialdi-jarduerak bilduko dituen gune ordenatu bat ezartzea aurreikusita dago.

Jaizkibel mendiari begira, berriz, natura-gune babestu izatea proposatzen dute, abeltzaintza- eta basogintza-baliabideak arrazionalki kudeatuko dituena, baita ingurune urtarrak eta aisialdirakoak ere. "Landa" ezaugarriak zaintzeko eta leheneratzeko lehentasuna ezarri da eta aisialdirako gune gisa egokitzeko ere bai. Orain dauden hiri-jarduerak finkatzen dira, eta erabilera didaktikorako beste jarduera batzuk eta zerbitzuetakoak mugatu, inpaktu txikikoak baimenduta. Bi atsedenleku ezartzen dira (Guadalupe eta Santa Barbarako gotorlekua) eta nahitaez zaindu beharreko zenbait enklabe edo elementu: natura-interesekoak, arkeologia-interesekoak eta katalogatutako eraikuntzak.

Europarako intereseko leku izendatu baino lehenagoko arauak dira, eta mendialdeko zenbait enklabek bakarrik zuten nolabaiteko babesa. Landa-erabilera emateak, gune guztian da posible, ez du beti esan nahi habitaten babesarekin bateragarria denik. Aisialdirako gunea ere ez dago eremutan banatuta, ezta behar adina mugatuta ere. Beraz, beharrezkoa dirudi plana Kudeaketa Planari egokitzea, Txingudi/Jaitzubian egin den bezala.

- ***Lurralde Zatikako Planaren aurrerakinak natura-guneekiko kontraesanean dauden proposamenak mahaigaineratzen ditu***

Hondarribiko natura-ingurunea oso garrantzitsua denez, plan bat baino gehiago ezartzen dira: Donostialdea eta Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partziala, Nekazaritza eta basogintza eta Natura-ingurunea antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, EAEko erreken eta ibaien Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana eta EAEko Itsasertzeko Lurraldearen Arloko Plana.

LPPari dagokionez, natura-ingurunea hobetzeko proposamenak daude, baita naturan eragiten duten beste arlo batzuetako proposamenak ere. Lehendabizikoen artean, hauek proposatzen dira: "korridore ekologikoak" (Gaintxurizketan eta Jaizkibel eta Jaitzubia arteko isurialdean), Guadalupe-Higer inguruan "hiri-parkea", eta Jaizkibelgo isurialdeetako "natura-aktiboak kontserbatzea eta hobetzea". Bigarrenen artean, hauek nabarmentzen dira: Amutetik barrena "zenbait sarbide", Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdetik barrena "ibilbide-sare leunak", landazabalean "hiri-zabalkunderako guneak" eta Zubietako "enpresa-parkea".

Jarduera horiek kontrajarriak dira, eta gaur egungo natura-ingurunean atzera egitea dakarte; zenbait gune babestea proposatzen da eta, era berean, urbanizatzea. Halaber, paradigmatikoa da Gaintxurizketako korridore ekologikoaren adibidea; azpiegitura-jarduera asko pilatzen baitira bertan. Agiria ez da oraindik onartu, izapide-prozesua geldirik baitago; beraz, kontserbazioaren ikuspuntutik, beste agiriren batek ordezkatuko duen edo oraingoa aldatuko duen itxaropena dugu oraindik.

1997an berriro ekin zitzaion Gipuzkoako LZPen erredakzioari, oraingo honetan ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babespean. Ondoren LZP bakoitzaren erredakzioarekin (6 dira guztira) hasi ziren, beti ere, 1995 urteko aurrekariak jende aurrean jartzean jaso zituzten ekarpenak kontutan izanik. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planari dagokionez, lan berriek ez zuten aurrera egin eta geldirik geratu ziren azkenik.

Berriki Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planaren erredakzioa berrabiaraztea erabaki den arren, kontutan izan behar da lehenengo aurrerakia egin zenetik 6 urte pasa direla. Hori dela eta, aurrerakiaren dokumento berria idaztea erabaki da.

Lehen aurrerakia idatzi zenetik (1995) 2002 urterarte, garapen desberdinak eman dira hirigintzan. Horregatik, oinarrizko datuen eguneratzearekin batera,

garai hartan egindako dokumentoaren eduki eta alderdiak berriz ere aztertu beharko dira. Dena den, orokorragoak diren planteamenduak eta gaiak baliogarriak direnez, dokumento berriaren oinarrizko materiala bezala txertatu ahal izango dira.

- ***Lurraldearen Arloko Planek balorazio nahikoa ezartzen dute, baina ez dira lotesle antolamendurako beste tresna batzuetarako***

Nekazaritza eta basogintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana: Lur Ez Urbanizagarriaren kategoriak ezartzen ditu, baina beste tresna batzuen bitartez babestutako zonaldeak kanpo gertatzen dira. Nahitaez lotesleak ez badira ere, jarraibideak kontuan izan behar dira udal-planak onartzerakoan, bai eta gainerako LAPak ere. Zenbait kategoria ezartzen dira; esate baterako, "balio-estrategiko handiko nekazaritza-abeltzaintza" guneak (Arkollako zonaldea eta Jaitzubiko ibarra eta iparraldea), "Trantsizioko landa-paisaia" (landazabala), "Baso-guneak" (Jaizkibel eta Jaitzubiko ibarraren zati bat), "Baso-Mendi Meatsa" (Jaizkibel mendiaren gailurra eta labarrak) eta urrakortasunaren eta higaduraren mapan aipatzen diren kategoriak (Jaizkibel).

Gaur egungo egoerari dagokionez, LAP horren mugak bat datoz, erabilitako metodologiatik oso normala. Dena dela, kontraesanak udal-planaren aldaketa-helburuekin, LAParekin eta beste LPP batzuekin gerta daitezke, Lur Ez Urbanizagarriaren arloan jarduera asko eta garrantzitsuak proposatzen baitira. Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdea, landazabaleko guneak eta Gaintxurizketa ingurua dirudite proposamen kontrajarriko lekuak izan daitezkeela.

EAEko eta isurialde kantauriarreko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LAPak udalerriko ur-ibilguetako bi ertzetan dauden 100 metroko zabalerako lur-zerrendak antolatzen ditu. Ingurumenaren osagarrien arabera egindako zonalde-banaketa da nabarmentzeko modukoa, zonalde horiek ingurumenaren babeserako politikaren helburu izan beharko baitute. Hondarribian bi kategoria daude: "Lehentasunezko Natura Intereseko Eremuetako Ertzak" (Txingudiko Zonaldeko Baliabide Naturalak babesteko eta Antolatzeko Plan Bereziaren arloan daude) eta "Ondo kontserbatutako Landaredia duten Ertzak" (Txiplaoko errekan eta Putzuandiko errekan). Antolamendu hori Jaitzubiko arroarentzat egin da. Gainerako arroetan araudi orokorra ezartzen da.

Hondarribian LAP horren antolamenduari dagokionez, nabarmentzeko modukoa da ondo kontserbatutako landaredia duten zatiak oso gutxi direla,

gaur egun oso aldatuta dagoen adierazgarri. Balorazio horrek oso mugatua dirudi erriberako landaredi dezente kontserbatzen duten beste erreken zatiek duten benetako kalitatearekiko. Aipagarriak dira, besteak beste, Bekoerrotako erreka, eta pixka bat gutxiago Ogallurretako erreka eta Idurmendietako erreka.

Azkenik, EAEko Itsasertzeko LAPk Jabari Publikoko eremu urtar-lurtarraren gutxieneko 500 metroko zerrenda hartzen du babesteko, ikuspuntu sozialetik, ekologikotik eta baliabide naturaletatik; gutxieneko 500 metro horiek itsasertzetik eta itsas-mareak eragiten duen lurzorutik, hiri-ingurua izan ezik, abiatuta neurtzen dira. Antolamendurako zenbait kategoria ezartzen ditu, hona hemen horietako batzuk: "Babes Berezi Zorrotza", "Babes Berezi Bateragarria", "Ekosistemen Hobetze Guneak", "Birgaitu beharreko Gune Degradatuak", "Basoak", "Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabal guneak" eta "Erabilera Bereziko Guneak. Hiri-Hondartzak". Nabarmentzeko modukoa da babes zorrotzeko guneetarako aurreikusitako araudia (itsaslabarrak dauden guneetarako da, eta gizakiaren jarduera mugatzea eta landaredia kontserbatzea dakar), baita itsaslabarren inguruko zonaldeetarako aurreikusitakoa ere, birgaitu beharreko gune degradatutzat hartzen baitira; hau da, zakardiek eta larre-guneek hartzen dituzten zonaldeak.

Gaur egungo egoerari eta eremurako dauden proposamenei dagokienez, kontraesanak sor daitezke abeltzaintza-erabileraren eta hainbeste eskaera izan dituen Justiz-Txurtxipiko golf-eremuaren erabileraren artean; izan ere, eremu horiek hobetzeko gunetzat hartzen dira eta babes zorrotzeko eremuetatik gertu dauden zonaldeak dira.

BABESTEKO NEURRIEK BERE GAIN HARTZEN DITUZTEN NATURA-GUNEEN BERARIAZKO AZTERKETA

- ***Europaren interesekoak diren habitatak babestea lehentasuna duen Kudeaketa Plana du Jaizkibelek, oraindik egiten ari direna***

Hondarribiak bi natura-gune ditu berariazko neurriren batek babesten dituena: Jaizkibel mendia eta Jaitzubiko eta Kostako ibarren zatiak; hau da, udalerriaren azaleraren erdia baino gehiago hartzen dute (%52).

Jaizkibel natura- eta kultura-ondare garrantzitsukoa da, zein babes-maila duen ikusi besterik ez dago, bai udalaren aldetiko babesa, bai udalaz

gaindikoa. Gainera, Europaren Intereseko Toki izendatu dute, eta gune horretako erabilerak antolatzeko Kudeaketa Plana egiten ari dira. Plan horrek, zirriborroa egiten ari dira, Europaren intereseko habitatak babestea du funtsezko helburuetako bat, izan ere, Natura 2000 Sarean sartzearen arrazoia izan zen:

- Iparraldeko isurialdeko habitatak eta intereseko espezieak kontserbatu
- Hegoaldeko isurialdeko baso potentzialak lehenera ekarri
- Paisaiaren kalitatea zaindu
- Erabilerak zuzendu eta bateragarri egin
- Habitat naturalen kudeaketa eta ondare-balioei eustea bateragarri egin
- Ezaguera zientifikoak hobetu
- Kudeaketaren administrazioa, koordinazioa eta koherentzia
- Informazioa helarazi
- Kudeaketa nola doan ikusi, ebaluazioa egin eta ikuskatu aldian-aldian

Plan horren arabera, lehentasuna duten habitatak kontserbatzeko jarduerak abeltzaintzari eustea eskatzen du, Txilardi hezeek eta *Deschampsia flexuosa* duten larrediak bizirik irauteko. Halaber, Belar ondu atlantiarra duten larreak kontserbatzeko abereak larrean aritzea gomendagarria dela ere badio planak, eta, esfagnalei dagokienez, larre-jarduera txikiak on egingo lioke enklabea kontserbatze aldera. Izan ere, zakardi eta larre-guneei eusteko (Europarako intereseko habitatak) larratze estentsiboa proposatzen du; hala ere, oraindik ez da egin behar bezalako azterketa larre-eremuek zenbateko abere kopurua jasan dezaketen jakiteko.

Landaredi harkaiztarrari eta lizardi-haltzadiei dagokienez (lehentasunezko habitatak), ordea, inolako jarduerarik ez egitea proposatzen du planak; izan ere, ikerketaren arabera, landaredi-klimaxa dira nor bere eremuan. Halaber, baso-habitatei dagokienez ere (Haltzadi kantauriarra, harizti kantauriarrak, gaztainadi galoiberiarrak, *Q. Robur* harizti azidofilo ibero-atlantiarra eta gune lohitsuetako sastrakadiak), ez du neurririk proposatzen, eta zirtatzen du habitat horien arazo nagusia suteak direla, urte askotan mendia suntsitu dutenak. Sare hidrologikoarekin zerikusia duen landaredia kontserbatzeko, aldian-aldian ibaiaren-beheko uraren kalitatea ikuskatzea proposatzen du.

Proposamen horien inguruan, esku artean duzun Tokiko Agenda 21a idazten ari den taldearen ustez, egokia litzateke hausnarketa egitea kudeaketa-planaren norabide nagusiari buruz; hau da, gizakiaren eraginez sortutako

zenbait habitat indartu nahi dira, eta ez baldintza naturalek eragindako habitatak. Izan ere, horrela, iparraldeko isurialdeko zakardi eta larre-guneetako habitatak indartzen dira, eremu horretako landaredi potentziala osatzen duten ameztien eta baso mistoen kaltetan, eta horien egoera gero eta kaskarragoa da nabarmen.

Azkenik, aipatu beharra dago 1996 urteko abenduaren 24an onetsi zirela Hondarribiako planeamendua arautzen duten Arau Subsidiarioak. Baina bai Jaizkibel Garrantzia Komunitarioko Eremuaren aitormena (2004) bai eta EAEko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren behin betiko onespena, beranduago eman ziren. Hori dela eta, biei lotutako araudiak ez daude jasotak Hondarribiako Arau Subsidiarioetan. Dena den, Hondarribiako Hiri-Planeamenduaren Plan Orokorra gauzatzea aurreikusita dago eta bertan, aipatutako arloak txertatuko dira.

Ekainaren 30eko 2/2006 legeak, Hirigintza eta Lurzoruaren legeak, hiritarren parte-hartzea bermatzeko xedearekin (planen dokumentazioari atxikita joango diren programen adierazpenen bitartez adibidez), honakoa adierazten du 109 artikuloan: Hiri-planeamenduaren onespen orokorrean konpetentzia duen udalerri orok, Hiri-planeamenduaren Aholku Kontseilua sortu behar du. Kontseiluak, bi helburu beteko ditu:

- Parte-hartzearen beharra bermatu
- Hiri planeamenduko tresnen adierapen eta onespenean laguntzea, zehazki, Plan Orokorrari lotutako zehaztapenak.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Jaizkibelgo LICaren Kudeaketarako Plana gauzatzen ari da. Egun, oraindik borradorea da baina onespena lortzen duen dataren arabera, planaren irizpideak Hondarribiako Hiri Planeamenduaren Plan Orokorrean txertatuak izan beharko dira.

- ***Abeltzaintza-jarduera arautzea eta eremua zehaztea, Jaizkibel kontserbatzeko giltzarria da***

Kudeaketa Planak artzaintza ere proposatzen du antolatu beharreko lurralde zati handi samarrarentzat, baina intentsitate desberdinak gomendatzen ditu. Metodo hori, teorian aplikagarria eta emaitza onak ekarriko dituena, ez dator bat gaur egungo jarduera horrek zenbait habitaten ingurumen-kalitatean eragiten duenarekin —eragin handi samarra gainera—, nahiz eta ez den animalia kopuru handia aritzen dena.

Gaur egungo kudeaketak, nahiz eta 614 abelburu baino ez izan, itxiturak egitea eskatzen du (zuhaitzak babesteko), sasiz garbitzea eta fitozidak erabiltzea ere bai. Horiei esker, suteen arazoa murriztu bada ere, itxiturak hautsi egiten dituzte eta uraren kalitatean eragin dezakete, eta, horrek guztiak, mendiaren ingurumen-kalitatean eta mendia lehenera ekartzean eragin dezake. Beraz, nahiz eta abelburu asko ez egon inguru horretan, mendi guztian barrena hedatzen dira kalteak.

Ezaugarri horiek ebaluazio sakonago batean aztertu beharko lirateke, eta kudeaketa-planean integratu.

- ***Giza jardueraren eraginez Txingudiko paduren atzerakada historikoa, eta birgaitze-prozesu baten bitartez zati batzuk berreskuratuta***

Padurek Txingudiko azalera handia hartzen zuten (610 hektarea). 391,2 hektarea ere galdu ziren, gehienak gizakiaren jardueren eraginez (380,9 hektarea), laborantza- eta urbanizazio-jarduerengatik, batez ere. 130 hektarea daude babestuta eta ur-ibilguak gehituz gero (200 hektarea), esan nahi du etorkizunean azalera potentzialaren erdia baino gehiagok iraungo duela, nahiz eta azalera horren zenbait eremu ez diren padura izango, eta beste erabilera batzuk izango dituen.

Beraz, abeltzaintza-erabilerarako azalera da Hondarribiko udalerrian Plan Bereziak babesten duen azalera handiena: 40 hektareak dute Babes Berezia eta 48 hektarea Abeltzaintza-babesekoak dira (hedadura gehiena itsas-marearen kota azpian dago, nahiz eta zenbait ibar ere hartzen dituen). Halaber, babestutako gunetik kanpo badira marearen kota azpiko eta hezegune potentzialeko azalerak, eta nahiz eta oraindik hiri-erabilerarik emango ez zaien, zerbait egitea aurreikusita dago (Zubieta-Mendelu). Nahiz eta eremu-banaketa hori akordio baten eta lurzoruaren erabileren artean oreka bilatu nahi izanaren emaitza izan, ez du esan nahi lehen esandakoarekiko erreferentzia galdu behar denik.

- ***Txabolak eta urbanizatzeko eta azpiegiturak jartzeko kanpoko presioa ugaritu egin dira, antolaketarik gabe, paduren inguruko arazoak***

Babestutako guneen barne-erabileren artean, mugan dauden zonaldeetara ere hedatzen da arazoa, abeltzaintza-erabilerako txabolen inpaktua da nabarmendu beharrekoa. Arau Subsidiarioetan ere jasotzen dira horren

inguruko arauak, eta horien arabera, abeltzaintza-erabilerarako eraikuntzak kontrolik gabe eraikitzeak auzo pobre baten paisaia eragingo luke, eta eremu horietako arazo nagusietako bat da. Plan Berezian honako programa hau aurreikusita dago: "Jaitzubiko eta Kostako ibarretako abeltzaintza-babeseko zonaldeetako ingurumena antolatzeko eta integratzeko programa", eta horren bidez arazoari irtenbidea eman daiteke, nahiz eta azalera-eremu horretatik kanpo ez litzatekeen aplikagarria izango, eta beharrezkoa izango litzateke horren inguruan erabaki politikoren bat neurriak aplikatzeko.

Babestutako guneetako eraso-zonaldeetan eragina izaten duten kanpoko faktoreei dagokienez, nabarmentzeko modukoa da azpiegituren eta urbanizazioaren presioa. Faktore horiek etorkizunean areagotzeko joera dute, N-1 errepidea handitu egingo baitute eta biribilgune goratu bat eraiki, eta inguruko sektore batzuk urbanizatu egingo dituzte.

Berariazko araudia duen zonalde aringarriren bat ez izateak, birgaitze-jarduerekin lortutako ingurumen-kalitatea bere horretan geratzea ekar dezake, eta habitatak desegitea edo kaltetzea eta espazio naturalen artean loturarik ez izatea.

NATURA-GUNE BABESTUETAKO INTEGRAZIO- ETA BABES-FAKTORE KOMUNAK

- ***Oztopo fisikoek eta kokalekuek natura-guneen isolamendua eragiten dute***

Habitaten galtze-prozesuak eta basoetako bizidunen-populazioen galtze-prozesuak, natura-gune guztira hedagarriak, Bidasoa Beherean babestutako natura-guneetan ere antzeman dira. Natura-guneak isolatuta egoteak eta beren artean loturarik ez izateak biodibertsitate-irlak sortzea eragiten du, eta, ondorioz, espezie askoren populazioak ahultzea eta mugimendua eta hedapena mugatzea. Gainera, "ertz-efektua" areagotu egiten da, habitaten eta populazioen berezko garapena kaltetu dezaketen jarduerek perimetroan eragin handiagoa ekar dezaketelako. (urbanizazioa, industria, azpiegiturak...).

Duela gutxi egindako "Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea" izeneko azterketan, IKT, SA enpresak 2005ean egina Eusko Jaurlaritzarentzat, Natura 2000 Sarean zerrendatutako espazioetako basoetako habitaten artean lotura egitea proposatzen da; esate baterako, Jaizkibel eta Aiako Harria. Bi horientzako Gaintxurizketako gainetik barrena

korridore ekologiko bat egitea proposatzen da, eta gaur egun dauden azpiegituren eta aurreikusita daudenen artean kontraesanak antzematen dira.

87. grafikoa. Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoa



Iturria: IKT, "Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea". 2005

- ***Ibarrek natura-guneen arteko lotura-funtzioa betetzen dute***

Hondarribiko udalerriaren barruan, bi natura-gune nagusiak (Jaizkibel eta Jaitzubiko padurak) Hondarribiko landazabalaren bitartez lotuta daude, eremu oso gizartiatua, baina errekek funtsezko lotura-funtzioa betetzen dutena. Ibar horietako batzuk ondo kontserbatutako landaredia dute, eta korridore ekologiko-funtzioa betetzen dute. Ondorengo hauek aipa ditzakegu, baina zehatzago aztertu beharko litzatekeen gaia da:

- Ogallurretako errekaren ibarra; ondo kontserbatutako landaredia du, bai erriberan, bai amildegiaren hegaletan.
- Erdikoerrotako haltzadia; Bekoerrotako eta Ipiztikuko erreken ondoan dago eta Jaitzubiko padurekin zuzenean lotuta dago.

- ***Legezko estaldura eskasa, Txingudiko padurak eta Jaizkibel Natura 2000 Sarean sartzearen ondorioz sortutako araudia ez betetzeagatik***

Jaizkibel eta Txingudiko padurak ez daude EAEko Natura Gune Babestuen Sarean, eta, beraz, ez dira zenbait neurri aplikatzen; esate baterako, Biotopo

Babestu edo Parke Natural izendapenei dagozkienak. Paduren kasuan, babes-mota hauek ditu: antolamendurako tresna orokorrak (udala eta EAEa), Plan Berezian onartutakoak eta Ramsar zerrendan sartzeak eragindakoak. Bi espazio horiek elementu komun bat dute: Natura 2000 Sarean integratuta daude.

Gaur egungo egoera Europaren intereseko lekuen aldean (LIC), onartutako eta abian jarritako Kudeaketa Planen gabezia da; horrek babesa ez dagoelako sentsazioa eragiten du eta hasiera batean bateragarriak ez diruditen erabilerak espero izatea ere bai. Padurei dagokienez, neurri horrezaz gain Plan Berezia ere badu, ikus daiteke hirigintza arloari bakarrik eragiten diotela arauek, eta zenbait jarduera ez dituela kontuan hartzen; esate baterako, ehiza, arrantza, marisko bilketa eta nabigazioa.

Beraz, Kudeaketa Planak onartzen ez diren bitartean arazoak izango dira; batetik, hutsune legala, eta, bestetik, espazio horiek babesteko mailaren inguruko zehaztasun gabezia. Horrek babes-mailako urrakortasuna, aldaketaren bat izateko arriskua eta malgutasuna eragiten du.

4.10 HONDARRIBIKO NATURA-INGURUNEA, IRAUNKORTASUNAREN IKUSPUNTUTIK. SINTESIA

60. koadroa

HONDARRIBIKO ANIZTASUN EKOLOGIKOA
• Estuarioa, landazabala eta mendia, unitate adierazgarriak. • Gaur egungo landaredia, giza eraldaketaren emaitza, hariztiak eta ametz-basoak nagusi diren landaredi potentzial baten gainean • Gizakien jarduerek ekosistemen eraldaketan zerikusi zuzena dute • Orain dauden fauna-espezie zerrenda luzea, baina habitaten eraldaketen eraginez, galtzeko mehatxuan daudenak • Natura-interesa duten enklabe nagusiak ▪ Iparraldeko isurialdea eta Jaizkibelgo kostaldeko hegala ▪ Jaizkibel mendigunearen gailurra ▪ Jaizkibel mendiaren hegoaldeko isurialdeko errekak ▪ Jaitzubiko erriberak eta padurak ▪ Ur gezetako hezegune txikiak
LURRALDE ANTOLAMENDURAKO TRESNA OROKORRETATIK ONDORIOZTATUTAKO ANTOLAMENDUA ETA BABESA
• Indarrean dagoen udal-planak ez ditu bere gain hartzen babeserako estatus berriak eta helburuak lortzeko ikuspegi desberdinak ditu • 1996 urteko abenduaren 24an onetsi ziren Hondarribiako planeamendua arautzen duten Arau Subsidiarioak. Baina bai Jaizkibel Garrantzia Komunitarioko Eremuaren aitormena (2004) bai eta EAEko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren behin betiko onespena (2007), beranduago eman ziren. Hori dela eta, biei lotutako araudiak ez daude jasotak Hondarribiako Arau Subsidiarioetan. Dena den, Hondarribiako Hiri-Planeamenduaren Plan Orokorra gauzatzea aurreikusita dago eta bertan, aipatutako arloak txertatuko dira. • Gipuzkoako Foru Aldundiak Jaizkibelgo LICaren Kudeaketarako Plana gauzatzen ari da. Egun, oraindik borradorea da baina onespena lortzen duen dataren arabera, planaren irizpideak Hondarribiako Hiri Planeamenduaren Plan Orokorrean txertatuak izan beharko dira. • Lurralde Plan Partzialaren aurrerakinak kontraesanean dauden proposamenak mahaigaineratzen ditu, natura-guneekiko. Lehenengo aurrerakia egin zenetik 6 urte pasa direla kontutan izanik, aurrerakiaren dokumento berria idaztea erabaki da.

- Lurraldearen Arloko Planek balorazio nahikoa ezartzen dute, baina ez dira lotesle antolamendurako beste tresna batzuetarako
- Ekainaren 30eko 2/2006 legeak, Hirigintza eta Lurzoruaren legeak, honakoa adierazten du 109 artikuloan: Hiri-planeamenduaren onespen orokorrean konpetentzia duen udalerri orok, Hiri-planeamenduaren Aholku Kontseilua sortu behar du.

Babesteko neurriek bere gain hartzen dituzten natura-guneen berariazko azterketa

- Europaren interesekoak diren habitatak babestea lehentasuna duen Kudeaketa Plana du Jaizkibelek, oraindik egiten ari direna
- Abeltzaintza-jarduera arautzea eta eremua zehaztea, Jaizkibel kontserbatzeko giltzarria da
- Giza jardueraren eraginez, Txingudiko paduren atzerakada historikoa, eta birgaitze-prozesu baten bitartez zati batzuk berreskuratuta
- Txabolak eta urbanizatzeko eta azpiegiturak jartzeko kanpoko presioa ugaritu egin dira, antolaketarik gabe, paduren inguruko arazoak

Natura-gune babestuetako integrazio- eta babes-faktore komunak

- Oztopo fisikoek eta kokalekuek natura-guneen isolamendua eragiten dute
- Ibarrek natura-guneen arteko lotura-funtzioa betetzen dute
- Legezko estaldura eskasa, Txingudiko padurak eta Jaizkibel Natura 2000 Sarean sartzearen ondorioz sortutako araudia ez betetzeagatik

5. INGURUMEN BEKTOREAK

5. INGURUMEN BEKTOREAK

Atal honetan Hondarribiko ingurumenaren iraunkortasuna aztertuko dugu, ingurumen-bektoreak banaka-banaka hartuta: ura, lurzorua, energia, hondakinak, atmosfera eta zarata.

5.4 Ura

5.4.2 Sarrera

Ur-zikloaren iraunkortasuna Txingudin bi udalerrietako ur-sarreren, barrualdean gertatzen diren hartu-emanen eta kanpo alderako ur-irteeren araberakoa da. Beraz, udalerrietako ur-eskuragarritasunaren, kontsumoaren eta baliabideari emandako erabileren arabera neurtuko dira udalerrien balantze hidrikoak. Nahitaezkoa da sartzen den eta ateratzen den uraren kalitatea aztertzea, bi udalerriek ingurumenaren kutsaduran eta ingurumenaren balioen kontserbazioan eragiten dutena neurtzeko.

Iraunkortasunaren aldetik, uraren kudeaketa honako honetan datza: hiriak ingurumenaren gainean eta baliabideen gainean eragiten duen presioa gutxituko duen politikaren bat abian jartzean, bai zuzeneko kontsumoaren bitartez, bai isuritakoaren bitartez.

Honako alderdi hauek aztertzen dira:

- Baliabide hidrikoak Txingudin: eskuragarritasuna
- Eraginkortasuna ur-banaketan eta ur-kontsumoan
- Saneamendua: sarearen hedadura eta kudeaketa
- Ibaietako eta erreketako uren kalitatea

Aipatu behar da uraren ziklo integralaren kudeaketa Txingudin **Txingudiko Zerbitzuak, SA** elkartearen eskumena dela; ardura hauek ditu:

- Ura bildu, hornitzeko
- Ura tratatu, edateko ur bihurtzeko
- Banatu
- Saneamendua egin
- Hondakin-urak araztu eta
- Itsasora isuri

Hasiera batean, Txingudiko ur-horniketa Sociedad Aguas del Norte, SA enpresak kudeatzen zuen, eta gero (1981eko urritik 1990eko urtarrila arte) Uraren Udal Zerbitzuak. 1990. urtean eratu zen Txingudi Zerbitzuak, SA.

Ondoren, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak, orduan zituzten instalazioak nola zeuden jakin eta ebaluatu behar zituenez, eta etorkizunean beharrak zeintzuk izango ziren ere jakin behar zuenez, Bidasoa Behereko hornikuntza- eta saneamendu-plana idatzi zuen 1993. urtean.

Lortutako informazioak Irun eta Hondarribiko udalerriak batera hartzen ditu. Modu horretan, uraren zikloaren ikuspegi integrala lor daiteke; dena dela, zenbait atalen inguruan herri bakoitzak bere datuak lortu ahal izan ditu.

5.4.3 Uraren ziklo integrala Txingudin

5.4.3.1 Baliabide hidrikoak. Bilketa eta eskuragarritasuna

Irunek eta Hondarribiak ur-ibilguen sare garrantzitsua dute; horien artean nabarmentzeko modukoak dira: Bidasoa ibaia, Endara erreka eta Aiako Harritik eta inguruetatik iparraldeko norabidetik barrena jaitsi eta zuzenean estuarioan itsasoratzen diren erreka multzoa. Ibarla eta Olaberria errekak dira edo Jaitzubian Ugalde eta Mokozorrotz errekak.

Euskal Herrian mendebalderago dagoen ibaia da Bidasoa, Berderitz (Nafarroa) eta Izpegi arteko lepoan jaio eta Bizkaiko Golkoan itsasoratzen da 66 kilometroko ibilbidea egin ondoren. Ardatz nagusiaren luzeraren %20 inguru EAEtik barrena pasatzen da.

Itsasoratu baino lehen egiten duen ibilbide luzean, Bidasoa ibaiak beste erreka batzuen urak ere jasotzen ditu; esaterako, Endara (Endarlatsan), Jaitzubia, Ibarla eta Estebenea.

- **Bilketa**

Irun eta Hondarribia udalerriak edateko urez hornitzeko bi iturri daude. Alde batetik, hornidura-sare nagusia, batez ere, Endarako urtegiak osatzen du; 5.000.000 metro kuboko bolumena du eta gai da egunero Elordiko edateko ur-araztegia behar adinako urez hornitzeko, batez beste, 27.600 metro kubo egunero (320 l/s). Eta bestetik, ordezko horniketa; bolumen txikiagokoa da

eta, batez ere, Jaizkibelen bildutako urek hornitzen dute.[9] Endarako urtegiaren ondoan Domikokoa dago, 0,365 Hm^3-ko bolumena duena.

Ondorengo tauletan uraren bilketa azaltzen da, beti ere, jatorriaren arabera:

212. taula. Hartutako ura jatorriaren arabera

JATORRIA	BOLUMENA (m^3)	%
Endarako urtegia	8.390.280	90,1
Jaizkibel	922.019	9,9
Guztira	**9.312.299**	**100**

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

88. grafikoa. Kontsumora bideratutako uraren jatorria



[9] Uraren ziklo osoa. 2003ko memoria. Txingudiko Zerbitzuak, SA

89. grafikoa. Ur bilketa. 1998-2003.



Aipatu behar da landa-zonaldean badirela etxebizitzak sistema orokorreko hartuneen bitartez hornitzen ez direnak, eta hornikuntza-sarera lotuta ez daudenak.

Landa-zonaldeak hornitu ahal izateko egindako inbertsio handiei esker, sistema orokorrari lotuta ez dauden hartuneen bitartez hornitzen diren etxebizitza kopurua oso txikia da (%2); Guadalupeko ermita (Hondarribia) inguruan egingo duten zonaldea, ur-depositu bat egingo dute bertan, eta Irungo Bidasoa auzoa hartuta, zenbait etxebizitza eta baserri baino ez dira geratuko Edateko ur-tratamenduko estazioak (EUTE) hornitu gabe, eta horiek, jakina, ez da oso zentzuzkoa edateko uren araztegiko hornikuntza-sarearen bitartez hornitzea; eta zer esanik ez Jaitzubia Urbanizazioko (golf-zonaldea) txaleten kasuan, beren hornidurarako sistema pribatua baitute eta ez dira Txingudi Zerbitzuak elkarteko bezeroak.

Urtegiak duen bolumena ez da nahikoa bi udalerrietako urteko ur-kontsumoaren eskaria bermatzeko euri gutxi egiten duenean, eta, horregatik, urtero zenbait hilabetez, Edateko ur-tratamenduko estaziora (EUTE) Jaizkibelgo ura eramaten da, urtegiko emari buxatua murrizteko.

- **Eskuragarritasuna**

Eskaria gero eta handiagoa denez, hiria hazten ari denez eta eskualdean zenbait lehorte-garai izaten denez, ura kudeatzeaz arduratzen den elkartea baliabide hidriko berriak ikertzen ari da, eskualdeko ur-eskarirako osagarri izateko gai izango direnak.

Garrantzitsua da aipatzea Endarako urtegiaren funtzioa osatzeko asmoz, eta epealdi ezberdinetan (1989/1990, 1995 urtea eta 2002 urtea) gertatu izan diren lehorte aldiak aintzat hartuz, Mankomunitatea beste ur iturburu batzuk bilatzeko lanetan hasi zela. Hondarribiako udalerriak Artzu, Goikoerrota, Justiz eta Molino putzuak eskeini zituen.

Egindako ikerketak Alunda-Lastaola eta Jaizkibelgo putzuetan egin ziren Eusko Jaurlaritza, EEE (Energiaren Euskal Erakundea) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Burututako bilaketen ondorioa izan zen Jaizkibelgo magaletatik Alunda eta Lastaolatik baino ur bolumen handiagoa atera daitekeela. Badirudi Jaizkibeldik 200 litrorainoko ur bolumena ateratzeko aukera egongo litzatekeela. Beraz, iraunkortasunaren ikuspuntutik Endarako urtegiaren funtzioa osatuko duten putzuen erabilpenak ingurumen eragin

negatibo txikiagoa eta gastu ekonomiko txikiagoa izango luke urtegi berri bat egitea edo dagoen urtegia handitzeko lan egitea baino.

Ordutik hona Mankomunitateak Endarako urtegiaren eta putzuen arteko erabilpen bateratua gauzatzen du, urtegiak duen ahalmena ez baita nahikoa egon daitezkeen lehorteei aurre egiteko. Beraz, putzuek eskualdeko ur hornikuntzaren funtzio osagarria betetzen dute.

Egindako azterketaren arabera, baliabideen eskuragarritasun handien duten akuiferoak Jaizkibelgoa eta Lastaola-Alundakoa dira, Bidasoa ibaiaren alubioi-terrazetan.

- **Jaizkibel**. Gaur egun, 90 l/s hartzen dira eta 200 l/s-koa izan daiteke. Txingudiko Zerbitzuak elkarteak Jaizkibelgo ur guztiak putzu bakar batera bideratzea aurreikusten du, hodi egoki baten bidez, eta EUTEra (Edateko ur-tratamenduko Estazioa) ura bideratuko duena.
- **Lastaola-Alunda**. Txingudiko Zerbitzuak elkartearen arabera, gaur egun 6 putzu daude, 60 l/s-ko hartzeko aukera ematen dutenak. Bidasoa ibaiko urak dira, lurraren azpian iragazten direnak, eta, nahiz eta itsasotik gertu egon, gazitzen ez direnak. Gaur egun, ez da aurreikusten ur horiek erabiltzea.

Baliabide hidrikoen eskuragarritasuna jarduera-eremu nagusietako bat eta garrantzitsuenetako bat da Txingudiko Zerbitzuak elkartearentzat.

Eskuragarritasunari dagokionez, Txingudiko Zerbitzuak elkartearen nahia ur-hornidura bermatzea da, nahiz eta lehorte-sasoia luzatu. Elkarte berberaren arabera, Jaizkibelgo urak bideratuz gero, hornidura bermatu ahal izango litzateke.

5.4.3.2 Bideratzea eta tratamendua

Atal honi dagokionez, beharrezkoa da aipatzea 90eko hamarkadako lehendabiziko urteetan Irunen eta Hondarribian hornitzen zen uraren kalitatea kaskar samarra zela. Ez zegoen EUTErik eta hornidura-sarea bukatu gabe zegoen. Beraz, horren inguruan Txingudiko Zerbitzuak elkarteak garatu dituen jarduera nagusiak Bidasoa Behereko Eskualdeko Hornidura eta Saneamendu Planaren esparruan, honako hauek izan dira:

- Elordiko Edateko ur-tratamenduko estazioa (EUTE).
- Jaizkibeldik Elordiko EUTEra bideratu sistema.
- Endaratik Elordiko EUTEra bideratu sistema.

- Goikoerrotatik Elordiko EUTEra bideratu eta Iparragirre Behetik ponpatu.
- Bi udalerritako landa-zonaldeetara hornidura-sistema.
- Ura hartzeko instalazioak eta lehendik zeuden biltegiak konpondu.
- Hornidura-sarea berritu eta handitu.
- Hornidura sarearen urrutiko agintea eta urriko kontrola jarri.

Horrek guztiak, zerbitzua eta kudeaketa nabarmen hobetu du. Hornitzen den uraren kalitatea hobea da eta sarea hobeto dabil, Bidasoa Behereko populazioaren %99 EUTEn tratatutako urez hornitzen da.

❑ Elordiko EUTEa

Estazioa eraikitzeak eskualdean bizi diren biztanleei hornitzen zitzaien uraren kalitatea nabarmen hobetzea ekarri du. Edateko ura Elordiko EUTEan ekoizteak hazkunde txiki bat eragin zuen, 2003. urtean %1,4 gehiago aurreko urtekoarekin alderatuta.

Estazioak 400 l/s-ko tratatzeko gaitasuna du. Ondorengo grafikoetan urteko produkzioaren bilakaera eta Elordiko EUTEn egunean batez beste tratatzen den emari-kopurua ikus daiteke.

90. grafikoa. Elordiko EUTEn produkzioaren urteko bilakaera



91. grafikoa. Elordiko EUTEn egunean batez beste tratatzen den emari-kopurua



Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Tratamenduari dagokionez, ondorengo jarduerak egiten dira ur arrunta edateko ur bihurtzeko:

- Aurreoxidazioa, ozonoarekin edo kloro-dioxidoarekin
- Birmineralizazioa, karearekin edo karbono-dioxidoarekin
- Koagulazioa-malutapena
- Dekantazioa: bi dekantagailu, *pulsator lamelar* motakoak
- Iragazketa: bost hondar-iragazki
- Desinfekzioa eta Pharen azken egokitzapena
- EUTEaren biltegiko irteerako 5 tutuetako klorazioa.

Sare publikoko horniduraren edateko uraren kontrola Txingudiko Zerbitzuak elkarteak egiten du lehendabizi eta sistematikoki. Emaitzei begira, aipatu behar da giza kontsumorako uraren kalitatearen inguruko arautegia betetzen dela, 140/2003 errege-dekretua. Jarraian, ura tratatu aurreko eta ondorengo ezaugarriak adierazten dira.

213. taula. Ura tratatu aurreko eta ondorengo ezaugarriak

	UR GORDINA	TRATATUTAKO URA
Uhertasuna (NTU)	1,2	0,3
Eroankortasuna (μS/cm)	94	171
Oxidakortasuna (mg O_2/l)	0,6	<0,2
Burdina (μg/l)	54	2
Manganesoa (μg/l)	41	4
Aluminioa (μg/l)		65
Kaltzio-gogortasuna (ºF)	3,2	7,7
Alkalinitatea (ºF)	2,9	7,1
pH	7,1	8,0
Kloro askea (mg/l)	-	0,43
Kolf. Guztira (u.f.c./100 ml)	2227	0
Gorotz-Kolif. (u.f.c./100 ml)	17	0
Gorotz-Estreptokokoak(u.f.c./100ml)	6	0
Langelierren asetze-indizea	-2,3	-0,46

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak, 2004ko memoria

Osagarri modura, Txingudi Zerbitzuak elkarteak noizean behin azterketak egiten ditu leku jakinetan, kontsumitzaileek uraren kalitatearen inguruan erreklamazioak edo galderak egiten dituenean.

5.4.3.3 Edateko uraren banaketa eta kontsumoa

- **Edateko ura banatzeko sarea**

Elordiko EUTEan tratatutako ura hornidurarako bost biltegiren bidez banatzen da edateko uararen banaketa-sarera. Ura biltzeko gaitasuna, guztira, 50.000 m3-koa da; hau da, bi egunetako kontsumoari dagokiona.

Gaur egun, %95 baino gehiagok jasotzen du Elordiko EUTEan tratatutako ura. Txingudiko Zerbitzuak elkarteak kudeatzen duen udal-sareak —Hondarribiko Jaizkibelgo goiko aldeko zonaldeak eta Irungo Bidasoa auzoak bakarrik—,

beste bi hartunetako ura jasotzen du. Banatu aurretik ur hori desinfekzio-prozesutik pasatzen da, eta modu horretan bihurtzen edateko ur. Udal-saretik kanpo, Jaitzubiko golf-zonaldeak hornidura-sistema pribatua du, eta jabekideen komunitateak kudeatzen du.

Jarraian, ur-banaketaren gaur egungo sarea, banatzen den ur-bolumena eta dauden biltegiek zein proportzioan banatzen duten ura zehazten da.

92. grafikoa. Eskualdearen ur-banaketaren gaur egungo sarea



214. taula. Ur-banaketaren bolumena guztira

Sarean txertatutako ur-bolumena	7.195.115 m^3

Iturria: Txingudiko ZerbitzuakTxingudi

93. grafikoa. Dauden ur-andelen artean egiten den banaketaren portzentaiak



Fuente: Servicios de Txingudi

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak emandako informazioaren arabera, zenbatu ezin den eta galtzen den ur-bolumena honako hauen eragina da:

- Sareko garbiketa
- Iruzurrezko kontsumoa
- Ur-kontagailuaren kontabilizazio-akatsa
- Benetako galerak sare publikoan
- Etxeetako ur-hartuneetan jarioak (sare pribatuak)
- Suteak
- Lorategi publikoak ureztatzea
- Matxurak sarean
- Beste norbaitek tutuak puskatzea
- Kontsumo publikoak (iturriak, hondartzak, etab.)
- Instalazioen garbiketa

Sarean benetako galera %25 dela esan daiteke, iruzurrezko kontsumoa barne.

Txingudi Zerbitzuak elkartearen helburua sarean galerak %20ra murriztea da (iruzurrezko kontsumoa barne); kudeatzeaz arduratzen den elkarteak berak dioenez, portzentaje hori murrizteak esan nahi du gaur egungo banaketa-sarean ahalik eta galera gutxien izatea lortu behar dela. Garapenaren garaikoa da gaur egungo sarea, zenbait tutuk 30, 40 eta 80 urte ere badituzte, eta zuntz-zementuzko hodiz osatuta dago, hodi berrietarako erabiltzen den burdinurtua baino material kaskarragokoa.

Epe luzera, gaur egungo sareak berritzea aurreikusita dago, eta modu horretan etekina gehitu ahal izango da (10 urteren buruan etekina %85 ingurukoa izan daiteke).

Ur isurien arrazoi nagusia ur biltegietatik ateratzen den emaria eta etxeetako kontadore zatigarrietan jasotzen den ur emariaren artean dagoen aldea da. Kontrolatzen ez den uraren bi mota bereiz daitezke:

- Ageriko galerak: kontrolatuta ez dauden kontsumoak dira (kontrolatu gabeko kontsumoak) eta zio nagusiak ureztatzeak, kaleen garbiketa, zenbait lanen ur- hartzeak, kontagailuen akatsak (onartuak) eta egon daitezkeen iruzurrezko erabilerak dira.

- Ur isurien adierazlea: ur isuriak % 20-30 ingurura iristen dira eta hauen kausa nagusiak, beste batzuen artean, hoditeriaren egoera txarra edo ur hartuneetan egon daitezkeen galerak dira.

Aldi berean, garrantzitsua da azpimarratzea ur ez kontrolatu bolumenari erreparatuz neurtzen dela orain eta ez hainbeste portzentaiatan (azken kontzeptu hau albo batera uzten ari d auraren inguruko adituen foroetan). Beraz, erabiltzen den neurria bolumena/ur-hartunea/eguna da.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak sarean gerta daitezkeen ur-ihesak etengabe kontrolatzen ditu. Kudeatzen duen elkartearen aldetik, oso ohitura ona da, eta honako hau egiten dute:

- Gaueko kontrola, ezohikoak ez diren ur-kontsumoak hautematen dira, sarean izan daitekeen ur-ihesen baten adierazle.
- Urteroko kanpaina orokorra, ur-ihesak ikuskatzeko.
- Sarea zatika kontrolatzeko proiektua.

Txingudiko Zerbitzuakek Mankomunitateko bezeroen ur-kontagailuak aldatu ditu, guztira 30.000 ur-kontagailu inguru, eta kudeaketa eta informazioa hobetzea lortu da.

2003 urtetik hona herritarrei emandako zerbitzua hobetzeko eta uraren kontsumoa zein sareko galerak murrizteko asmoz, Mankomunitateak aurrera eramandako jarduerak askotarikoak izan dira. Jarduera horietatik berrienak Anakako auzoan uraren banaketa sarea berritzea eta eskualdeko hornikuntza sarea arlokako banaketa proiektuan izango lirateke. Azken honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzak proiektuarentzat 300.000 euroko diru laguntza onartu du. Aipatu behar da diru kantitate hori Jaurlaritzak uraren banaketa sareak hobetzeko bideratzen duen kantitate handiena dela.

Gogorarazi beharra dago Eusko Jaurlaritzak 2007ko maiatzean edateko uraren hornikuntza sareen errendimendua hobetzeko egiten diren proiektuak idazteko diru laguntza deialdia egin zuela. Eskualdeari dagokionez, Mankomunitateko teknikariek idatzi eta aurkeztu zuten proiektua bere osotasunean. Aipatu proiektuak eskualdeko sarea 16 zonalde edo sektoretan banatzea eta sistema informatiko batetara konektatuta egongo diren 29 kontrol-punturen ezarpena suposatuko du (sistema informatikoan Hondarribiko eta Irungo hornikuntza sarearekin lotutako 300 Km inguruko hoditeria azalduko da). Proiektu hau 2008 urte amaierarako martxan egongo da.

Azpimarratu beharra dago, era berean, behin dauden sareak berrituta eta sarearen arlokako banaketa proiektua gauzatuta (edo antzeko ekimenak aurrera eramanda) %15-20ko ur galeren neurri horretatik jaistea.

- **Uraren kalitate-kontrola iturburuan eta ura banatzeko sarean**

  - <u>Ur-kalitatearen kontrola eta jarraipena iturburuan</u>

Araztegian sartzen den ura Elordiko EUTEan egunero kontrolatzen da, eta, horrezaz gain, aldian-aldian, bildutako ur-kalitatearen azterketa sakona egiten da, 1988ko irailaren 30eko Ministro Aginduan ezarritako parametroen arabera, edateko ur bihurtuko den gainazaleko urak izan behar dituen ezaugarriei buruzkoa da agindua.

  - <u>Ur-kalitatearen kontrola ura banatzeko sarean</u>

Txingudiko Mankomunitaterako kontrol- eta zaintza-unitate gisa, Txingudi Zerbitzuak elkarteko Kalitateko Departamentuak ura banatzeko sarean eta iturri publikoetan uraren kalitatearen ohiko kontrola egiten du.

Hornitzen den uraren kalitatea ona da, aztertutako %98 lagin baino gehiagok edateko ur kalifikazioa izan baitute; gaur egun indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egin zen azterketa. Sare publikoan edateko ur txar kalifikazioa lagin oso gutxik jaso zuten, eta, gainera, osasun publikorako inolako arriskurik ez zuten kontzentrazioa zuten.

Txingudi Zerbitzuakek egindako 2004ko Memorian honako hau jasotzen da:

- Uhertasunari dagokionez, aztertutako laginetatik %92k Errege-dekretuak (140/2003koa uhertasunari buruzkoa) ezarritako uhertasun-balioa baino gutxiago eman zuten, eta 4 laginek edateko ona izateko mailatik gorako balioa eman zuten. Maila eman ez zuten laginak Lujunea eta Lastaola hornidura-zonaldeetakoak ziren, eta horietan euriak eragin handia izaten du hartuneetan.
- Kloroari dagokionez, sarean egindako kontrolen %95 kloro-balioaren maila ezin hobea zen, 0,2 eta 1 mg/l. Artekoa. 1 mg/l-ko mailatik gorako balioak landa-zonaldeetako sarean aurkitu dira, Elordiko EUTEak hornitzen ez duena; sare horietan, zenbaitetan, klorazio-sistemak arazoak izaten ditu uraren ezaugarriek izaten dituzten aldaketetara egokitzeko.
- Uraren kalitatearen inguruan 13 kexa edo galdera izan dira; horietatik 9 zapore/usainagatik, hiru uhertasunagatik eta bat edateko ur txarraren inguruan argibidea nahi zuelako. Kexaren bat hondar-kloroaren kopurua behar baino handiagoa izan zelako egin zuten, eta nahiz eta kloro askearen kontzentrazioa 0,8 mg/l-koa baino txikiagoa izan, kontsumitzaileek antzeman egin zuten.

- **Ur-kontsumoa**

Jarraian Txingudiko Zerbitzuetan bildutako datuak adierazten dira:

215. taula. Irun e hondarribian tarifa motaren arabera fakturatutako uraren urteko m3

IRUN ETA HONDARRIBIAN TARIFA MOTAREN ARABERA FAKTURATUTAKO URTEKO M3								
TXINGUDI	**2.000**	**2.001**	**2.002**	**2.003**	**2.004**	**2.005**	**2.006**	**2.007**
Etxekoa	3.509.882	3.555.969	3.575.325	3.594.411	3.726.336	3.639.012	3.566.497	3.393.663
Etxekoa ez dena	1.418.346	1.524.486	1.587.571	1.573.958	1.547.588	1.530.354	1.531.522	1.443.189
Etxebizitza-lorategia konbinatua	13.629	30.794	41.571	59.469	75.714	87.306	99.924	100.683
Etxebizitza-igerilekua konbinatua	2.451	5.664	8.446	5.786	6.252	8.138	8.019	7.955
GUZTIRA	**4.944.308**	**5.116.913**	**5.212.913**	**5.233.624**	**5.355.890**	**5.264.810**	**5.205.962**	**4.945.490**
Aurrekoo urtearekiko aldaketa		3,49%	1,87%	0,4%	2,34%	-1,7%	-1,12%	-5%
BIZTANLEAK	71.675	72.986	73.582	74.616	75.494	76.338	76.670	77.317
Etxeko kontsumoa/biztanleak (Litroak/eguna)	134,78	134,85	134,98	134,37	138,2	134,03	131,3	124,1

216. taula. Hondarribian faktura motaren arabera fakturaturako uraren urteko m3

HONDARRIBIAN FAKTURA MOTAREN ARABERA FAKTURATURAKO URTEKO M3								
HONDARRIBIA	**2.000**	**2.001**	**2.002**	**2.003**	**2.004**	**2.005**	**2.006**	**2.007**
Etxekoa	872.302	828.980	812.048	827.063	851.747	833.252	813.637	766.355
Etxekoa ez dena	335.028	319.546	346.068	343.834	333.188	325.951	324.287	292.823

Etxebizitza-lorategia konbinatua	5.452	12.110	13.984	21.945	29.910	36.833	41.037	39.939
Etxebizitza-igerilekua konbinatua	1.902	3.938	6.703	3.983	3.465	4.915	4.120	4.318
GUZTIRA	**1.214.684**	**1.164.564**	**1.178.803**	**1.196.825**	**1.218.310**	**1.200.951**	**1.183.081**	**1.103.435**
Aurrekoo urtearekiko aldaketa		-4,13%	1,22%	1,53%	1,80%	-1,42%	-1,49%	-6,73%
BIZTANLEAK	15.050	15.368	15.546	15.727	15.986	16.077	16.254	16.364
Etxeko kontsumoa/biztanleak (Litroak/eguna)	160,113	150,65	146,76	148,60	151,69	149,11	144,76	135,72

2000. eta 2007. urteen artean, Irun eta Hondarribiko udalerrietako biztanle kopurua 71.675 izatetik 77.317 izatera iritsi da; hau da, %7,87 gehitu da biztanleria. Epe horretan ur-kontsumoa ere areagotu egin da, hain zuzen, %0,02. Hondarribiari dagokionez, kontsumoa %9,1 jeitsi da, eta biztanle kopurua berriz %8,7 areagotu da.

Erabilerari dagokionez, berriz, 2000. eta 2007. urteen artean, Hondarribian etxeko kontsumoa %7,8 txikitu da, eta etxekoa ez dena %12,6 gutxitu.

2007. urtean etxeko ur-kontsumoa Hondarribian 135,7 litro/biztanle/egunean izan da.

Ur-kontsumoaren kopuruari eusteko, Txingudi Zerbitzuak elkartea "kontsumo arrazionalari buruz etengabe ari da oharrak" ematen. Uraren inguruko foro guztietan, gero eta gehiago onartzen da uraren erabilera arrazionala bultzatzeko faktore nagusia prezioa dela. Horri dagokionez, Txingudiko Zerbitzuakek bezeroei uraren benetako prezioa ezartzen die beti, Ebko Uraren esparru Zuzentarauak agintzen duen bezala.

2000-2007 urteetan zehar Eskualdearen eta Hondarribiaren biztanle kopuruak jasan dituen aldaketak eta ur kontsumo totala grafiko batean errepresentatzen badira:

94. grafikoa. Hondarribiko biztanleriaren bilakaera (2000-2007)



95. grafikoa. Hondarribiko ur kontsumo totalaren bilkaera (2000-2007)



Bi grafikoak alderatzen badira, Hondarribiako biztanleriak 2000-2007 urteetan hazkunde konstante bat izan duela ikus daiteke. Ur kontsumo totalak berriz, 2000 eta 2001 urteen artean beherantza egin zuen arren, orokorrean gorantza egin du 2004 urterarte. Urte honetatik aurrera, biztanleria handitzen joan den arren, ur kontsumoak beherantza egin du 2006 eta 2007 urteen artekoa izanik jatsiera garrantzitsuena.

Taulan erakusten diren ur kontsumo mota ezberdinen artean, etxekoa da kontsumo handienak jasaten dituena. Etxeko kontsumoa litrotan eta biztanle eta egunen baitan errepresentatzen bada:

96. grafikoa. Hondarribiko etxeko ur kontsumoaren bilakaera (l/biz. Egun)



Grafikoan ikus daitekeenez, ur kontsumo totalaren antzerako tendentzia izan du azken urteotan. Hau da, 2001 eta 2004 urteen bitartean kontsumoak gorantza egin zuen. Puntu honetan, tendentziak aldaketa nabarmena jasaten du eta kontsumoak behea egiten du 2007 urterarte.

Ondorengo taulak udal kontsumoak jasotzen ditu:

217. taula. Hondarribiko Udalaren ur kontsumoa (2004-2007)

KONTSUMOAK (Urteak/m^3)	2004	2005	2006	2007
IKASTOLA PEDRO AGUINAGALDE	1.495	1.421	1.600	0 (OBRAS)
IKASTOLA PUNTAL	57	82	100	97
PARVULARIO SORETA	240	95	113	90
IKASTOLA SATARKA	911	902	963	834
IKASTOLA TALAIA	---	---	494	991
HONDARTZA KIROLDEGIA	25.971	27.884	28.565	32.656
HONDARTZA FUTBOL	3.546	4.860	5.327	2.681
HONDARRIBIKO UDALETXEA	184	194	247	283
URTEKO UDAL KONTSUMOAK (iturriak, ureztaketa eta udal eraikinak, goian aipatutakoak izan ezik)	23.499	32.842	28.514	18.874
GUZTIRA	55.903	68.280	65.923	56.506

Taulan ikus daitekeenez, udal kontsumoak gorantza egin du, zehazki %1,07.

Ur kontsumoan ematen diren ur galerak gutxitzeko xedearekin egiten diren lanez aparte, Ura baliabide bezala azaltzen duten Ingurumen Hezkuntzako jarduerak ere egiten dira. Mankomunitateak lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutako bisita gidatuak egiten ditu Endarako urtegira, Elordiko EUTEra, Hondartzako ponpaketa estaziora eta Atalerrekako HUAra. Bisita hauen helburua, Txingudiko uren kudeaketa sistema erakusteaz aparte, ikasleei urak duen garrantzia erakustea da (aurreztearen garrantzai,...). Bestetik, aipatu beharra dago Mankomunitateak hainbat ekintza antolatzen dituela Uraren Nazioarteko Eguna ospatzeko.

- **Uraren prezioa**

Uraren azken prezioa Hondarribian prezioak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen ditu, eta honako zerbitzuengatik ezartzen du: hornidura, saneamendua eta uraren ziklo integralaren inguruko bestelako zerbitzuak eta jarduerak, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak onartutakoak.

Uraren prezioan lau kontzeptu hartzen dira kontuan. Honako hauek dira:

- Edateko uraren hornidura-zerbitzuaren eskuragarritasuna eta mantenimendua.
- Saneamendu- eta estolda-sareen eskuragarritasuna eta mantenimendua.
- Uraren hornidura-zerbitzuaren erabilera.
- Hondakin-uren eta hondakin-ur potentzialen benetako hustuketa.

Prezioari dagokionez, m^3 uraren prezioa bera da, ez du zerikusirik kontsumoarekin (tarifa ez da kontsumoaren araberakoa, nahiz eta gehiegi kontsumituz gero zigortzen den: emaria bider hartunearen diametroa). Uraren prezioa erabileraren araberakoa da; horrela, erabilera "etxebizitza-lorategia-igerilekua" bada, "etxekoa" baino garestiagoa da, eta hori neurri egokitzat hartzen dugu.

5.4.3.4 Saneamenduaren kudeaketa

Txingudiko Zerbitzuakek saneamenduaren kudeaketaren inguruan egindako jardueren helburuak honako hauek dira:

- Etxeko eta industriako hondakin-urak biltzen direla bermatzea.

- Hirietako euri-urak behar bezala husten direla bermatzea, behean dauden zonaldeetan ura ez pilatzeko eta uholdeak ez izateko.
- Euri-urak eta hondakin-urak hustea ingurua kaltetu gabe.

Bidasoa Behereko Eskualdeko Hondakin-uren Saneamendurako plana honakoan datza: Bidasoa ibaian eta erreketan isurtzen diren hiri- eta industria-hondakin guztiak ezabatzean; lehendabizi hondakin-uren kolektore batean biltzen dira, eta Hondakin-uren Araztegi-estaziora garraiatzen dira, han tratatu ondoren itsasora botatzeko.

Plana osatzen duten kolektoreak bi taldetan bana daitezke: Bidasoa ibaiaren ertzeko kolektorea, Biltzaile deituko dioguna, eta erreka guztien ertzetan dauden kolektoreak, urak biltzailera garraiatzen dituztenak.

Salbuespenak ere badira, landa-inguruko zenbait etxebizitza ez daude sareari lotuta eta putzu septikoak dituzte. Kasu horietan, eta baldin eta saneamendu-sarea etxebizitzatik gertu pasatzen ez den, Txingudiko Zerbitzuakek bi aukera proposatzen ditu:

- putzuaren erabiltzaileak berak hartzea kudeaketaren ardura, eta, beraz, saneamendu-tasa ez luke ordaindu behar izango, edo
- saneamendu-tasaren ordainetan, Txingudiko Zerbitzuak putzua garbitzeaz arduratzea. Gehienek azken sistema hori aukeratzen dute (2004. urtean 88 putzu septiko kudeatu dira).

Txingudiko Zerbitzuak Mankomunitatea eta Communauté de Communes Sud Pays Basque-ren arteko hitzarmena

2008ko otsailaren 6an, Konpantzia edo Konferentzako irlan ("Isla de los Faisanes"), Txingudiko Zerbitzuak Mankomunitatea eta Communauté de Communes Sud Pays Basque erakundeak hitzarmen bat sinatu zuten. Honen bitartez, Behobie, Biriatou eta Joncaux (Hendaia) herrietan sortzen diren etxeetako eta industrietako hondakin urak Txingudiko Zerbitzuen Saneamendu Sarera isuriko dira. Hitzarmena sinatu ahal izateko eta honela, udalerri hauek jasaten duten Bidasoako saneamendu arazoak ekiditeko, Uraren Zikloaren Kudeaketa Integrala Ordenantzaren 15. artikuloa kendu behar izan da.

Ur-hartunea Behobiako auzoan izango da, behin Nazioarteko zubia igarota, Bidasoako ezkerreko ertzean. Bi hodiak Sanemandu Sarearen interzeptore nagusira lotuko dira eta Behobiako ponpaketa estazioaren kapazitatea handituko da.

CCSPBk ordainduko ditu Mankomunitateko kolektorearekin lotzeko egin beharko diren lan guztiak. Bere gain hartuko ditu Behobiako hondakin uren ponpaketa estazioaren egokitzapenak suposatzen dituen gastuak ere. Lan guztien zenbatekoa 140.000€ izango da (BEZ barne).

Kontraprestazio ekonomikoa ustiapen kostuen, garraio kostuen, ponpaketa kostuen eta arazketa kostuen baitan kalkulatuko da; baita 2012 urterate amortizazio teknikoetan emago diren gutxinakako igoerak kontutan hartuta ere. Ustiapen kostuak EAEko KPIaren baitan errebisatuko da. 2012 urtetik aurrera, KPIaren kuota ustiaketa kostuaren totalari aplikatuko zaio, honi dagozkion amortitzaioak gehitu behar zaizkio. 2008 urterako, ondoriozko kuota 0,5610 euro/m3 izango da, hortaz, urte osoko ingresoa 150.000 eurotakoa izango da.

- **Kolektore-biltzailearen ibilbidea**

Txingudi Zerbitzuakek dio Bidasoa ibaiaren ezkerreko ertzean dagoen kolektoreak edo biltzaileak Behobia auzoan ekiten diola ibilbideari, Nazioarteko Zubiaren ondoan, eta Mendipe, Zaisa eta Behobiako herriguneko zonaldeko ur beltzak biltzen dituela.

Ondoren, saneamendu-sarea non dagoen azaletik erakusteko bada ere, ibilbidearen grafikoa duzu.

97. grafikoa. Saneamendu-sarearen ibilbidea



Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Guztira, biltzaile orokorrak 7.700 metroko luzera du eta 1.500 milimetroko diametroa.

❑ Atalerrekako HUA-a

Atalerrekako Hondakin-uren Araztegia (HUA) 2003ko maiatzean jarri zen abian. HUAren ezaugarri nagusiak jarraian zehazten dira:

218. taula. Atalerrekako Hondakin-uren Araztegiaren (HUA) ezaugarri nagusiak.

Ur-tratamendua	Diseinuzko emaria: 660 l/sg. Puntako emari: 1.200 l/sg. Gehienezko emari: 2.000 l/sg. (200rko maiatza, %75-80ra) SS sarreran: 230 mg/l. SS sarreran: < 60 mg/l. OEBa sarreran: 191 mg/l. OEBa irteeran: < 60 mg/l.	Arbastura. Desondarketa-Koipegabetzea. Emari-neurketa. Biologikoa (Karga Altua). Dekantazioa. Lohi-birzikulazioa.
Lohi-tratamentua	Eguneko Lohi Lehor-Bolumena: 5,94 tona Lehortasuna bukaeran: 80-90%.	Gehiegizko lohi-garbiketa. Loditu. Digestioa. Tarteko biltegiratzea. Deshidratazioa. Lehorketa termikoa. Helmuga,
Energia-sorrera	BIOGAS Diseinuzko emaria: 80,2 m^3/h. Gehienezko ekoizpena: 280 Kwh.	KOGENERAZIOA Gehinezko Ekoizpen Termikoa: 1.023.572 Kcal/h. Gehienezko Ekoizpen Elektrikoa; 1.545 Kwh

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Atalerrekako HUAren hiru alderdi dira azterketa honetan nabarmentzeko modukoak.

- HUA berriaren ezaugarri nagusietako bat **lohi-tratamendua** da. Uren araztegiaren areak industria hondakin geldo moduan ("residuos industriales inertes") sailkatzen dira eta batez ere materia organikoz osatuta daude. Hondakin horiek gertu dagoen zementu-fabrika batean erretzen dira (Rezola zementu-fabrikarekin akordioa dute) edo lehen sektorean erabiltzen dira (bigarren aukera). 2006 urtean orotara 838.609 kilo are kudeatu ditu Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateak; 2005 urtearekin alderatuz, %33,67 gehiago kudeatu da.

- Halaber, lantegian bertan kontsumitzeko **energia** sortzen da; gainera, soberakin horren bidez HUAko obrak amortizatu ahal izango dira. Asteburuetan, sareko energia erabiltzen da, arrazoi ekonomikoengatik.
- Ura ez da **hirugarren mailan tratatzen**, nahiz eta industria-kontsumoan berriz erabilgarri izan zitekeen (Irun eta Hondarribiko jarduera-ekonomikoen ekoizpen-prozesuen beharren arabera), edo ureztatzeko edo beste aukera batzuetarako ere izan zitekeen. Araztu ondorengo uraren kalitatea ona izango balitz, berriz erabili ahal izango genuke, eta, beraz, ur garbi gutxiago kontsumituko litzateke; dena dela, aukera hori, azkenean, ez da egin.

Karga altuko tratamendu biologikoak ez du aukera ematen eskatzen diren balioak lortzeko, 91/271 Zuzentaraua eta 509/96 Errege-dekretuaren araberakoak, isuritako hondakin-urekin, hiriko hondakin-uren tratamendu-instalazioetakoak; izan ere, proiektu- eta eraikuntza-faseetan kontuan izan zen Euskal Herriko Kostako itsasertza "ez hain sentikor" izendatu zutela (Saneamendurako eta Arazketarako Plan Nazionala, Obra Publiko, Garraio eta Ingurumenerako Ministerioa, 1995; eta EAEko Saneamendurako eta Arazketarako Plan Zuzentzaile eguneratua, Eusko Jaurlaritza 1999), eta posible da tratamendu ez hain bortitza egitea, 11/95 Errege-dekretu Legearen 7.2.a) artikuluari jarraiki.

Duela gutxi, 168/2004 autonomia-dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak isurketa-zonaldeak zuen "ez hain sentikor" izendapena bertan behera utzi du; bestela, zazpi urteko epean araztegiari buruzko Zuzentarauak eskatzen duena lortzeko tratamendu-prozesua egokitu egin beharko luke. Dena dela, Dekretuan bertan onartzen da Atalerrekako araztegiaren isurketa-guneko inguruko kostako zenbait zati gaur egun "ez hain sentikor" izenda daitezkeela, baina nahiago izan da oraintxe bertan ez izendatzea eta ingurumenaren egoeraren eboluzioaren zaintzaren datuen arabera, aldian-aldian egiten diren izendapenen ikuskaritzan hurrengo batean kalifikatu berriz, eta, modu horretan, ez litzateke beharrezkoa izango tratamendu-mota aldatzea.

❑ Itsasora isurtzen diren uren kontrola

1997. urteaz geroztik, hiriko hondakin-uren ezaugarriak nola dauden ikuskatzen da. 2003. urteko irailaz geroztik, abian jarri zen, proba gisa, Atalerrekako HUA-a; beraz, posible da araztutako hondakin-urak itsasora isurtzea.

Irailaz geroztik, hondakin-uren analisiak eta HUAko arazketa-prozesuaren kontrola HUAko laborategian egiten dira. Enpresek egiten dituzten isurketak ere kontrolatzen dira, izan ere, gaur egun hondakin-urak saneamendu-sarera isurtzen dituzte. Txingudiko Zerbitzuak SA elkarteak HUAk egiten dituen isurketen ezaugarri-parametroen jarraipena egiten du egunero, eta isurketaren baimenak ezartzen dituen parametro osagarrien kontrola hilean behin egiten du.

Lehenengo ustiapen urtean, batez besteko ezabatze-errendimendua %70ekoa izan zen solido esekietan, %76 OEB5etan (Oxigeno-eskari biologiko 5) eta %68 OEKetan (Oxigeno-eskari kimiko). Lortutako emaitzek instalazioaren diseinu-baldintzak betetzen dituzte, eta litekeena da lantegiko lanak orekatzen eta optimizatzen direnean errendimendu hobeak lortzea etorkizunean.

Dauzkagun azken datuen arabera, Atalerrekako HUAn araztutako uren ezaugarriak honako hauek dira:

219. taula. Atalerrekako HUAn araztutako uren ezaugarriak

Parametroa	BALIOA
Tenperatura (ºC)	16,8
Eroankortasuna (µS/cm)	3872,1
pH	7,7
Uhertasuna (NTU)	34
esekidura-solidoak (mg/l)	60
DBO_5 (mg O_2/l)	61,4
DQO (mg O_2/l)	130,4
Amonioa (mg/l)	31,1
Nitrógeno totala Kjheldal (mg/l)	24,7
Ortofosfatoak (mgP/l)	1,9
Parametroa	**BALIOA**
Fosforo totala (mg P/l)	2,4
Burdina (mg/l)	0,80
Manganeso (mg/l)	0,17
Kobre (mg/l)	0,17
Zink (mg/l)	0,05
Kadmio (mg/l)	<0,03
Kromo (mg/l)	0,10
Nikel (mg/l)	0,12

Plomo (mg/l)	<0,4
Coniforme totalak (u.f.c.)	9.10^{6}
E. coli (u.f.c.)	$1,4 . 10^{6}$

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak, 2004ko memoria

Ur horiek gero itsasora isurtzen dira 300 metroko luzera duen itsaspeko hustubide baten bitartez.

❑ Industria-isurketen kontrola

Txingudiko Mankomunitateko isurketei buruzko Ordenantza 97-12-27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (hutsen zuzenketa, GAOren 122. zenbakian, 1998-7-1ekoa), kolektorera isurtzen diren industria-isurketak zerrendatzen eta arautzen hasi ziren. 2003. urtean enpresa askok erreketara isurtzen bazituzten ere, kolektore-sarea jartzen bukatzen ari den heinean, gaur egun gutxi batzuk baino ez dute erreketara botatzen jarraitzen.

Gaurdaino (2005eko maiatza), guztira 136 baimen eman dira, eta horien artean isurketa kutsatzaileak egiten dituzten ia enpresa guztiak daude. Baimen ia guztiak kutsagarriak izan daitezkeen jarduerei dagozkie, industriako hondakin-ur ez oso arriskutsuak isurtzen dituztenak. Horrelakoetan, hondakin toxiko eta arriskutsuen kudeaketa ondo egin dela egiaztatzen da.

Baimena eskatzen duten enpresatara ikuskapen-bisitak egiteaz gain, isurketak egiten dituzten enpresetan ikuskapenak eta aldian-aldian laginak egiten dira, baimenean ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko. Ikuskapen horietan ezarritako mugak gainditzen zituzten bi enpresa hauteman ziren. Txingudiko Zerbitzuak elkarteak adierazi du enpresa horiek bat-batean hartu zituztela neurriak eragindako kalteak konpontzeko.

❑ Isurketa-motak

Txingudiko Mankomunitateak isurketei buruz idatzitako ordenantzari esker, isurketen kudeaketa hobetu da, bai eta eratorrien kontrol- eta ikuskapen-sistemak ere. Araztu gabeko hondakin-uren isurketek eragindako ingurumen-inpaktua murrizten ari da pixkanaka-pixkanaka.

Dena dela, eta EAEko Gainazaleko Ur Masen Zaintzarako Sareak 2004. urtean argitaratutako txostenaren arabera, 2003an egindako analisietan oinarrituta, Bidasoa ibaiaren unitate hidrologikoan zenbait isurketa-mota egin dira; batez ere, Jaitzubia ibaian, zonaldeko industria-jarduerako isurketak izan dira, metalaren sektorekoak eta elikagaiak manipulatzen dituzten enpresetakoak, batik bat; zenbait hiriko hondakin-urak edo hirikotzat hartzen direnenak isuri direla ere hauteman da. Txingudiko Zerbitzuakek emandako azken informazioen arabera, arazo hori konpondu da; izan ere, 2004. urtean Jaitzubiko errekara egiten ziren isurketa ia guztiak Jaitzubiko kolektoreari lotu ziren, eta 2005eko ekainean errekara isurtzen zituen enpresa bakarrarenak ere kolektorera lotu ziren, ordura arte ezin izan baitzuen, baldintzak betetzen ez zituelako. Gaur egun, zenbait hiriko eta hiritzat har daitezkeen hondakin-uren isurketak falta dira lotzeko, baina ez dira Mankomunitatearen eskumenekoak, urbanizazio pribatukoak baitira (Jaitzubia urbanizazioa), hornidurarako eta saneamendurako sare pribatua dute (70. hamarkadan eraiki zutena) eta Jaitzubia errekara isurtzen dituen hondakin-ura araztu behar badute ere, ez dute araua betetzen.

Mankomunitateak Eusko Jaurlaritzan salaketa tarteratu zuen egoera hori salatu eta Jaurlaritzak dagozkion legezko neurriak aurrera eramaten behartzeko. Oraingoz ez dago erantzun ofizialik Eusko Jaurlaritzaren aldetik (eskumena berea da).

Agian, Bidasoa ibaiaren uretako inpaktu garrantzitsuena hidrokarburo-ihesak dira, euri-uren sarera joaten direnak eta estuarioraino iristen direnak. Pentsatzen da gasolina-hondarrak direla, ZAISA biltegietakoak, gasolindegietakoak eta biltegietakoak, hidrokarburoak banatzeko gailuak ez dituztelako behar bezala zaintzen. Isurketa horiek nolabaiteko ingurumen-inpaktua eragiten dute, hasiera batean Bidasoako zati horretako uretako bizidunei, ikusmenezko inpaktua ere bai, eta gizartean kezka ere pizten dute, gainazaleko uretan orbanak ikusten baitira.

Erreketara egiten den ur beltzen isurketari dagokionez, noizean behin bakarrik gertatzen dira, kolektoreek gainezka egiten dutenean eta ur beltzak sarean dauden gainezkabideetatik ateratzen direnean. Konponbide azkarra duten noizbehinkako arazoak izaten dira.

Kolektoreetako interzeptoreetatik euri urak eta gorotz-urak doaz (sareen banaketa %50ean dago egina). Kolektoreetan gainezkabideak daude eta gerta daiteke batzuetan aipatu gainezkabideak funtzionamenduan jartzea urak ibaira isurtzeko (hori gertatzen da kantitate batetik gora euria ari duenean).

Praktikan erabiltzen den irizpide nagusia 5/1eko proportzioko diluziotik aurrera isur daiteke, baina Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateak koefiziente hori baino zorrotzago jokatzen du (ingurumenaren aldetik zorrotzago, izan ere, badiak jasan dezakeen gehienezko karga baino koefiziente txikiagoan isurtzen baitu), 1/10 koefizientean kokatuz.

Aldi berean, Mankomunitateak alarma sistemak ezarriko ditu gainezkabideetan. Horrela, kolektorean ataskua badago eta ibaira isurtzen hasiz gero, modu azkar batean antzeman ahal izango da arazo hau eta beharrezko neurriak hartu. Alarma sistemari dagokionez, horietan uraren maila neurtzeko neurgailuak ezarriko dira, Mankomunitatean alarmak jo dezan arazorik egonez gero.

5.4.3.5 Iturburua: kalitatea

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen saila da **ur kontinentalen kalitatea** aztertzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen den erakundea, Uren Kalitatearen Zaintzarako eta Kontrolerako Sarearen eta ibaien Ingurumen Egoeraren bidez; **itsasertzeko uren kalitateaz** ere arduratzen da, Itsasertzeko Uren Kalitatearen Zaintzarako eta Kontrolerako Sarearen bidez.

98. grafikoa. Bidasoako Hidrologia-unitateko estazioen kokapena eta egoera ekologikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritza

Bidasoako Hidrologia-unitateko estazioen kokapena eta egoera ekologikoa:

- Urdina: oso ona
- Berdea: ona
- Horia: onargarria
- Laranja: eskasa

- Gorria: txarra.

Bidasoako Hidrologia-unitateari dagokion tomoaren arabera (EAEko Gainazaleko Ur Masen Zaintzarako Sarea), Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritzak 2004. urtean argitaratua, **Bidasoako BI-555 estazioa Endarlatzan**, egoera ekologikoari dagokionez, **ona** da. Makroornogabeen komunitatea egoera onean dago, nahiz eta kutsadura organikoaren zenbait zantzu antzeman diren, dominantzia-fenomenoek adierazten dutenez. Arrainen komunitatearen egoera ere ona da, nahiz eta izokinak eta loinak hauteman ez diren. Tarte arriskutsua da, ur-ibilguan itzaletan dauden zatietan natura gutxi dago, eta erriberako basoaren kontserbazioaren aldean kalitate eskasekoa da. Kutsatzaile bereziak hauteman badira ere (nitritoak eta solido esekiak daudela egiaztatu da) ez dituzte ingurumen-kalitatearen arauak urratzen.

Jaitzubia BIJA-050 estazioaren egoera ekologikoak **txarra** kalifikazioa izan du. Makroornogabeen kopurua oso urria da, eta populazioa oso desegituratuta dago. Fauna horren ikerketa egin ondoren ikusi da ura oso kutsatuta dagoela, hipereutrofizatuta, ingurumenaren andeakuntza ere antzematen da, ekosistema ibaitarra gaizki kontserbatuta dago eta ingurumenak ez du heterogeneotasuna. Estazio horretan ez da arrainik ikusi eta aldaketa larriak jasan ditu toxikotasun-maila handiko kutsaduraren eraginez, nitrito, amonio eta karga organiko kontzentrazioak, zianuroak eta arrainentzat hilgarriak diren metal astunak hauteman dira. Erriberako basoaren kontserbazio-maila oso txarra da. BIJA-050 estazioan Jaitzubiaren egoera ekologikoa txarra da, makroornogabeen eta arrainen komunitateek duten kalitate txarrak baldintzatuta. Kalitate fisiko-kimikoa txarra da.

Zinkaren Zaintzaren Sareak aurten adierazi du 995/2000 Errege-dekretuak ezarritako muga gainditu duela lagin batek, eta errege-dekretu horrek urteko batez bestekorako ezarritakoa ere gainditu du. Kobreak ere mugak gainditu ditu egin diren lau laginetatik hiruk, eta, ondorioz, urteko batez bestekoak ere indarrean dauden kalitate-arauek ezarritakoa gainditu du. Aipatu behar da argitaratu diren datuak 2003koak direla, eta balitekeela egoera hobetzea datozen urteetako azterketa emaitzetan.

Bidasoa ibaiaren estuarioan hiru estazio-lagin daude gaur egun: E-BI5 estazioa, barrualdeen dagoena, Zaintza sarean sartu zen 2002an, eta E-BI10 eta EBI20 estazioetan jarraipena hasi zirenetik egiten dira laginak. E-BI5 estazioaren egoera ekologikoa **onargarria** da (2002an bezala), nagusiak baino kalifikazio kaskarragoa du. Orokorrean, egoera ona da, baina zenbait kutsadura-balio kalitate-arauek ezarritakoaren gainetik daude (esate

baterako, kadmioa). E-BI10 estazioak denboraren joanean kalifikazio desberdinak izan ditu, kutsadura-maila arina eta handiaren artean, joera nabarmenik gabe azken urteak arte. Estazio horren egoerak okerrera egin zuen isurketa-gune horretatik hurbil beste isurketa bat egin zutenean, nazioarteko zubitik ibaian gora egiten ziren isurketa guztiak biltzen baitzituen; 1995. urtean gertatu zen. Azken hiru urteetan, saneamenduaren arloan aurrerapen handiak izan direnez, aztertutako parametro eta elementu guztiek hobera egin dute, eta orain egoera ona da. Kanpoalderago dagoen estazioak ere (E-BI20) kalifikazioan aldaketak izan ditu, jarraipena egiten hasi zirenetik, kutsadura arina eta handia artekoa izan da, eta 2003an egoera ona zen. Estuario horren arazo nagusia hiri- eta industria-isurketak izan dira; hala ere, azken hiru urteetako bilakaera osa baikorra izan da, eta kutsadura murriztu egin da.

Frantziako aldean oraindik ere 10 bat hiri-isurketa daude, batez ere Faisaiaren irlaren eta nazioarteko zubien (Santiago) artean, eta Hendaiako kai zaharraren eta arrantza portuaren artean. Gainera, padurak lehenera ekartzeko jarduerak egin dira, eta ingurumenaren kalitatea hobetzen lagun dezakete.

Duela gutxi argitaratu den ikerketa baten emaitzek adierazten dutenez, estuarioko komunitate bentonikoak nabarmen eta azkar ari dira berreskuratzen, estuarioan egiten ziren isurketak desbideratu eta Bidasoako hondakinen biltze-zerbitzua abian jarri zenetik.[10]

Itsasertzeko zonaldearen, L-BI10 estazioak ordezkatzen du, egoera ekologikoa **ontzat** har daiteke. Zonalde horren egoera alda daiteke, urteen arabera, Atalerrekako emisarioaren eraginaren arabera. Hiriko hondakin-urak isurtzen diren inguruaren kalitatearen jarraipena egin da, horretarako propio ezarritako Zaintza Planaren barruan. AZTIk egindako azterketak uraren, moluskuen, bentosaren eta sedimentuen kalitate-analisiak jasotzen ditu. Emaitzek adierazten dutenez, uraren, sedimentuaren eta biotaren kalitatean isurketak inpaktu txikia eragin du. Bakteriologiagatik hauteman da isurketa-gunetik 300 metro baino gutxiagora dauden urak eta sedimentua kaltetuta daudela, eta 500 metro baino gutxiagora dagoen biota ere bai; materia organikoak, elikagaiek eta metal astunek ia ez dute inpakturik eragiten. Ikerketa horrek berak dio araztegia abian jartzeak bakteria-dentsitatea gutxitzea eragin duela, eta horrek aldi berean, Hondarribiko hondartzako bainurako uraren kalitateak hobera egiten lagundu duela.

[10] *Hiriko hondakin-uren isuriak desagertzeak Macoma komunitate txikian izan duen eragina, Bidasoa ibaiaren estuarioaren uhartean (Bizkaiko golkoa).* L. Garmendia, M. Marquiegui, F. Aguirrezabalaga, I. Cruz eta L. Cantón, Bol. Inst. Esp. Oceanogr. 19 (1-4). 2003: 265-281 2003: 265-281

Ondorengo tauletan Bidasoaren Hidrologia-unitateen egoera ekologikoa laburbiltzen da.

220. taula. Bidasoaren Hidrologia-unitateen egoera ekologikoa I

ZUZENTARAUAREN OSAGAIAK		U.H. Bidasoa	
		Bidasoa	Jaizubia
		BI-555	BIJA-050
Adierazle biologikoak	*Fitopl/IBD*	-	-
	Makrofitas	Onargarria	Eskasa
	Makroinb. Bentonikoak	Ona	Txarra
	Fauna iktiologikoa	Ona	Txarra
EGOERA BIOLOGIKOA		Ona	Ona
Adierazle Fisiko kimikoak	*Kondizio orokorrak*	Ona	Txarra
	Ed. Espezifikoak (>L.D)	Bai	Bai
	Ed. Espezifikoak (>N.C)	Ez	Ez
Adierazle Hidromorfologikoak	*Urertzeko basoa(QBR)*	Eskasa	Txarra
	Aldaketa morfol. Nabarmenak	Ona	Ona
EGOERA EKOLOGIKOA		Ona	Txarra

Iturria: Eusko jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritza

221. taula. Bidasoaren Hidrologia-unitateen egoera ekologikoa II

ZUZENTARAUAREN OSAGAIAK		U.H. Bidasoa			
		Estuarioa			Itsasertza
		E-BI5	E-BI10	E-BI20	E-BI10
Adierazle biologikoak	*Fitopl/IBD*	-	Ona	Ona	Ona
	Makrofitas	-	-	-	-
	Makroinb. Bentonikoak	Ona	Oso ona	Ona	Ona
	Fauna iktiologikoa	-	-	-	-
EGOERA BIOLOGIKOA		Ona	Ona	Ona	Ona
Adierazle Fisiko kimikoak	*Adierazle Fisiko kimikoak*	Oso ona	Ona	Oso ona	Oso ona
	Ed. Espezifikoak (>L.D)	Bai	Bai	Bai	Bai
	Ed. Espezifikoak (>N.C)	Bai	Ez	Ez	Ez

Adierazle Hidromorfologikoak	*Adierazle Hidromorfologikoak*	-	-	-	-
	Aldaketa morfol. Nabarmenak	Oso ona	Oso ona	Oso ona	Oso ona
EGOERA EKOLOGIKOA		Onargarria	Ona	Ona	Ona

Iturria: Eusko jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritza

Ibaien eta itsasoko uren kalitatearen analisiak Eusko Jaurlaritzak egiten ditu (ibai eta erreken analisiak Aldundiak ere egiten ditu) –EAEko ur masen egoeraren jarraipen sareak ditu-. Estazio desberdinetan aztertzen den urak parametro batzuen baitan analizatzen dira eta hauen betetze mailaren arabera sailkatuko dira. Ur masen sarearen inguruko informazioa honako web orrian azaltzen da: www.uragentzia.euskadi.net.

5.4.4 Iraunkortasunaren analisia: Ura

2000. eta 2007. urteen artean fakturatu den ur-kontsumoa %9,16 gutxitu da Hondarribian (biztanleria-kopuruak %8,73 egin du gora). Beraz, **berariazko ur-kontsumoak** behera egin du.

Erabilerari dagokionez, berriz, 2000. eta 2007. urteen artean, Hondarribian etxeko kontsumoa %12,14 gutxitu da, eta etxekoa ez dena %12,6. Biztanle bakoitzaren ur kontsumoa eguneko 135,7 litro izan da 2007 urtean.

Endarako urtegiak duen bolumen-gaitasunak eskaria betetzen du, euri gutxi egiten duen garaian izan ezik, eta orduan Jaizkibelgo hartuneetara jotzen da.

Dena dela, eta EAEko Gainazaleko Ur Masen Zaintzarako Sareak 2004. urtean argitaratutako txostenaren arabera, 2003an egindako analisietan oinarrituta, Bidasoa ibaiaren unitate hidrologikoan zenbait isurketa egin dira; batez ere, Jaitzubia ibaian, zonaldeko industria-jarduerako isurketak egiten dira, metalaren sektorekoak eta elikagaiak manipulatzen dituzten enpresetakoak, batik bat; zenbait hiriko hondakin-urak edo hiritzat hartzen direnenak ere isuri direla hauteman da. Txingudiko Zerbitzuakek emandako azken informazioen arabera, arazo hori konpondu da; izan ere, 2004. urtean Jaitzubiko errekara egiten ziren isurketa ia guztiak Jaitzubiko kolektoreari lotu ziren, eta 2005eko ekainean errekara isurtzen zituen enpresa bakarrarenak ere kolektorera lotu ziren, ordura arte ezin izan baitzuen, baldintzak betetzen ez zituelako. Gaur egun, zenbait hiriko eta hiritzat har daitezkeen hondakin-

uren isurketak falta dira lotzeko, baina ez dira Mankomunitatearen eskumenekoak, urbanizazio pribatukoak baitira, eta hornidurarako eta saneamendurako sare pribatua dute.

Azkenik, Txingudiko Zerbitzuak elkarteak egiten duen uraren kudeaketa-lana ona da, eta Irun eta Hondarribiko udalerrietan eskaintzen diren zerbitzuak nabarmen hobera egiteaz gain, ur kontinentalen kalitateak eta eskualdeko itsasertzeko uraren kalitateak ere hobera egin dute nabarmen. Heziketa-mailan ere zenbait jarduera egiten ari dira, eta ikasleei uraren zikloa irakasten zaie (lehen hezkuntzatik aurrera). Auzo-elkarteek ere ateak zabalik dituzte eta bisitak egin ditzakete uraren zikloa nola den ikusteko.

5.5 Lurzorua

5.5.2 Sarrera

Lurzoruan bizi gara eta bertan garatzen dira ia giza jarduera guztiak; hori da gure ingurunea. Materia mineralak, materia organikoak, urak eta aireak osatzen dute. Bertan, halaber, bizidun asko bizi da.

Lurzorua artifizial bihurtzen ari gara 1990. urteaz geroztik nabarmen, etengabeko etxebizitza eraikuntza eta obra zibilak dira prozesu horren eragile nagusiak. Joera hori esku-artean duzun Hondarribiko diagnosian aztertzen da Lurralde Antolamendu eta Ingurumen atalean; beraz, atal honetan ez da zehaztasun handirik emango. Bakar-bakarrik nabarmendu nahi dugu lurzorua zigilatzeak lurraldean aldaketa atzeraezinak eragiten dituela; paisaiak erabat aldarazten du eta kaltetutako natura-guneen egunerokotasuna nahitaez aldarazten du.[11]

Duela gutxi EAEko lurzoruak garrantzi handiagoa zuen nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenaren ikuspegitik. Egoera hori pixkanaka aldatu egin da, lehen sektoreak behera egin du, eta bigarren eta hirugarren sektoreek, berriz, gero eta presentzia handiago dute.
Azken urteotan EAEn kutsadurak kaltetutako zenbait lursail ari gara hautematen eta ari dira agertzen, batez ere 70eko eta 80ko hamarkadetako garapen industrialaren garaian isurketak behar bezala ez zirelako egiten.

Halaber, biztanleak hiriguneetan pilatzen joan dira (horrek dakarrenarekin: kontsumoa eta hondakinen sorrera, etab.) eta, ondorioz, zonalde horiek asko hazi dira eta, era berean, hain urria den lurzoruan sekulako presioa egin da.

Lurzoruari eragiten zaion kaltea eta urari eta aireari eragiten zaiona tamaina berekoak dira, nahiz eta batzuetan hain nabarmena ez izan; hala ere, garrantzitsua da jakitea zein tokitan kutsa daitekeen errazago lurzorua.
Leku horietako batzuk honako hauek dira: industria-parkeak, zabortegiak, biztanleria asko duten hiriguneak, material kimikoen, erregaien, olioen eta abarren biltegiak, eta ahaztu gabe askotan ongarri- eta pestizida-kopuru handiak erabiltzen dituzten nekazaritza-zonaldeak.

[11] Iturria: EAEko Ingurumen Egoera, 2004an. IHOBE.

Azkenik, gure ingurunea da, bertan bizi gara, eta, beraz, isolatuta ez gaudenez, kutsatzaileak bide desberdinetatik irits daitezke eta iristen dira bizidunengana, jarraian dagoen marrazkian ikus daitekeen bezala.

99. grafikoa. Lurzoruaren, uraren eta airearen kutsadurak izan ditzaken ibilbide desberdinen irudia



Iturria: www.eccentrix.com/members/umweltgeologie

5.5.3 Iraunkortasunaren analisia: lurzorua

Hondarribiari dagokionez, ez dago informazio nahikorik lurzoruaren kalitatearen arloan arazoak dauden edo ez baloratzeko. Udaletxeko iturriek adierazi dute udalerrian ez dagoela kutsadura-arazorik lurzoruan.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko lege berriak (1/2005 Legea) lurzoruaren kalitatea nolakoa den jakiteko eta kontrolatzeko prozesua arautzen du. Prozedura hori abian jarriko da 17. artikuluan zerrendatzen diren egoerak gertatuz gero; egoera horiek, kutsatzailea izan daitekeen jardueraren bat jasaten duten edo jasan duten lekuetan abian jarri beharreko jarduerekin dute zerikusia (jarduera hedatu, lur-mugimenduko proiektuak abian jarri, jarduera bertan behera utzi behin betiko, lurzoruari kalifikazioa aldatu, edo kutsatzailea izan daitekeen jardueraren bat abian jarri).

Eusko Jaurlaritzak 2007ko azken Gobernu Kontseiluan, *Euskal Autonomi Erkidegoko Lurzoru Kutsatuen 2007-2012ko Plana* onetsi zuen. Plan honen

bitartez, hiritarrek lurzoru garbi eta kalitatezkoaz gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi da.

Planak hiru programa ditu eta lau helburu estrategikotan zehazten da: Lurzoruaren kalitatea hondatzea prebenitzea; lurzoru poluituen arrazoizko berreskuratzea sustatzea; erabiltzen ez diren eta kalitatea hondatua duten lurzoruak erabilera berrietarako berriz erabiltzea; lurzoruak balorizatzea poluitzen ez duten eta balio erantsi altua duten erabilerekin .

Aipatutako hiru programak EZAGUTU, ERAGIN eta EKIN dira. 9 ekintza-lerro garatzen dituzte, 19 ekintza zehatzak jasoaz. Ekintza hauek, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategiarekin (2002-2020) bat datoz eta gainera lege-irizpideak, merkatuaren ekonomiaren funtzionamendua eta Administrazioko maila ezberdinen integrazioa eta lankidetza kontutan hartzen dituzte. Honela, gizakiak sortutako kutsaduraren aurkako ekintzak aurreikusten ditu, industriaren eraginez kutsatutako lurzoruetan oinarrituz (kutsadura zehatza edo zehaztugabea izan daiteke).

Plana, Euskal Herriko diagnosi batetik abiatzen da non industriak izan duen pisu handia isladatzen duen. Lurzorua kutsatzen zuten jarduerak (metal produktuen ekoizleak eta honi lotutako industria), eraikuntzak eta hiri garapenak pisu handia eduki zuten Euskal herriaren historian, ez zirelarik kontutan hartu ingurumenean zuten inpaktua. Honela, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera erabilgarriaren % 16,5en gainean gutxi gorabehera —7.898 Ha ditu— lurzorua polui ditzaketen jarduerak egin dira, azken bi mendeetako tradizio industrial luzea dela eta. Azken urteotan egindako ikerketen bidez lortutako emaitzetan oinarrituz eta inbentarioan sartu den azalera guztiaren —poluitutzat hartu den azalera— estrapolazio bat eginez, 1.279 Ha eta 3.120 Ha bitarteko azalera aldatu edo poluitu dela kalkulatu da; hots, EAEko azalera erabilgarriaren %2,7 eta %6,5 artean.

Lurzorua polui dezaketen jarduerak egin diren lekuen banaketa espazialari dagokionez, Bilbo Metropolitarreko (%32,5), Donostiako (%30) eta Araba erdialdeko (%13) eremu erabilgarriek Euskal Autonomia Erkidegoan inbentariatuta dagoen poluituta egon daitekeen azaleraren %75 osatzen dute. EAEko lurzoru eta lurrazpiko uren kutsatzaile nagusiak honakoak dira: metalak, olio mineralak, hidrokarburoak, polizikliko aromatikoak, konposatu organiko aromatiko lurrunkorrak.

Planaren aurrekontua 25,55 milio eurotakoa da. Bestalde, Administrazio ezberdinen eta enpresa pribatuen dirua jaso nahi da, datozen urteetan, dokumentoan jasotzen diren helburuekiko konpromezua hartu beharko dutelarik.

5.5.4 Kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak garatzen dituzten instalazioak, Hondarribian

IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak 1998an "EAEko lurzorurako kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak dituzten instalazioen inbentarioa", izeneko azterketa egin zuen, eta helburua honako hau zen: gaur egungo jardueren ondorioz, edo ibilbide historikoan egindako jardueren ondorioz, kutsatuta egon daitezkeen kokalekuak hauteman, gizakiaren osasunerako eta natura-ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeelako.

Ikerketa horretan 9 kokaleku hauteman ziren Hondarribiko udalerrian eta, guztira, 1,74 hektarea hartzen zituzten.

Instalazio-motaren arabera, Hondarribian zerrendatutako lursailak honela banatzen dira:

222. taula. Instalazio-motaren arabera, Hondarribian zerrendatutako lursailen banaketa

Instalazio-mota	Zerrendatutako lursail-kopurua	Azalera (Hektarea)
Aktiboak	6	0,65
Ez aktiboak	-	-
Zabortegiak	3	1,09
Eraldatuta	-	-
	-	-
GUZTIRA	**9**	**1,74**

Iturria: Guk egina, IHOBEren datuak abiapuntu hartuta

Instalazio aktiboak kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak gaur egun egiten dituzten instalazioak dira.

Instalazio ez aktiboak noizbait kutsatzaileak izan zitezkeen jarduerak garatu zituzten instalazioak dira, baina orain, memento honetan, geldirik daudenak beste jardueraren bati edo erabileraren bati ekiteko.

Zabortegiak izeneko atalean aktiboak eta ez aktiboak sartzen dira, baimena dutenak eta ez dutenak, baita isurketak egiten diren toki solteak baina zabortegitzat har ezin daitezkeenak ere.

Instalazio eraldatuen taldean noizbait kutsatzaileak izan zitezkeen jarduerak garatu izan dituztelako zerrendan erantsi diren instalazioak sartzen dira, baina, gaur egungo erabilera edo jarduerak ez kutsatzaileak garatzen

dituztenak. Instalazio eraldatutzat har daitezke bai zabortegiak, bai garai batean industrialak izan ziren lursailak.[12]

5.5.4.1 Instalazio aktiboak

Kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerei edo instalazio aktiboei dagokienez, Hondarribian sei hauteman dira. Jarraian dagoen taulan Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) deskripzioa eta dagokion azalera adierazten dira.

223. taula. Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) deskripzioa eta dagokion azalera

EJSNaren deskripzioa	Jarduera-kopurua	Azalera (m^2)
Bilketa eta biltegiraketa (Gasolina-zerbitzuguneak)	4	3.960
Hondarribiko aireportua	1	116
Txatarraren handikazko merkataritza (Desegintza)	1	1.820
GUZTIRA	**6**	**5.896**

Taulak adierazten duenez, zabortegiek eta gasolina-zerbitzuguneek Hondarribian inbentariatu den azalera guztiaren %98 hartzen dute.

5.5.4.2 Instalazio ez aktiboak eta zabortegiak

A priori gehien zaindu behar diren instalazioak dira. Hondarribiari dagokionez, inbentarioan ez da instalazio ez aktiborik zerrendatu.

Ondorengo taulan udalerrian inbentariatu diren zabortegiak adierazten dira:

224. taula. Hondarribian inbentariatu diren zabortegiak

Zabortegi-kodea	Helbidea	Egoera administratiboa	Zabortegi-mota	Benetako azalera (m^2)	Oharrak
20036-00001-01	Semigarga	Baimena ez	Geldoak	3454	• Ez aktiboa • Estaldura, lurra eta harea; 40 cm inguruko lodiera.

[12] Iturria: EAEn, lurra kutsa dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioa, IHOBE.

Zabortegi-kodea	Helbidea	Egoera administratiboa	Zabortegi-mota	Benetako azalera (m^2)	Oharrak
20036-00007-01	Jaitzubia, 142 Zaldunborda baserria	Ez dakigu	Industriala	6008	• Ez aktiboa • Irungo eta Hondarribiko udaletxeetako hondakin geldoak dira isuritakoak Tailer txikietako olioak eta balbulatxoak.
20036-00008-01	Zaldunborda baserria	Ez dakigu	Industriala	1470	• Aktiboak • Isuritakoa geldoa eta hustutegiak garbitu ondorengo hondakinak dira; partikularrenak eta obra-kamioietakoak.

Iturria: EAEn lurra kutsa dezaketen jarduerak dituzten instalazioen inbentarioa. IHOBE 1998.

5.5.4.3 Instalazio eraldatuak

Garai bateko orube industrialak, noizbait lurra kutsa zezaketen jarduerak izan dituzten instalazioak eta orain inbentarioan sartzen ez diren beste erabileraren bat dutenak, nahiz eta erabilera berriari ekiteko aldaketa-prozesuari buruzko zalantzak izan, lursail inbentariatutzat hartu dira. Dena dela, Hondarribian ez da mota horretako instalaziorik erantsi zerrendan.

5.5.5 Iraunkortasunaren analisia: kutsa daitezkeen lurzoruak

Hondarribiko udalerrian **jarduera kutsatzaileak jasan dituzten eta gaur egun jasaten dituzten lurzoruak daude**, dena dela, jarduera kopurua oso txikia da, baita horiek hartzen duten eremua ere.

Instalazio horietan ez da lagin- eta azterketa-kanpainarik egin ikerketaren bat osatzeko, beraz, inbentarioan zerrendatuta dauden lurzoruei dagokienez, **ezin da jakin kutsatzailerik baden eta zenbateko kontzentrazioa duten.**

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko lege berriak (1/2005 Legea) lurzoruaren kalitatea nolakoa den jakiteko eta kontrolatzeko zein prozesu eman behar den arautzen du. Prozedura hori abian jarriko da 17. artikuluan zerrendatzen diren egoerak gertatuz gero; egoera horiek, kutsatzailea izan daitekeen jardueraren bat jasaten duten edo jasan duten

lekuetan abian jarri beharreko jarduerekin dute zerikusia (jarduera hedatu, lur-mugimenduko proiektuak abian jarri, jarduera bertan behera utzi behin betiko, lurzoruari kalifikazioa aldatu, edo kutsatzailea izan daitekeen jardueraren bat abian jarri).

5.6 Energia

5.6.2 Sarrera

Gizakiak etengabe egiten dituen edozein jarduerari ekiteko, baita bizirik irauteko ere, energia behar da. Etengabe ari gara energia kontsumitzen. Gizarte industrializatuetan, ondasunen produkzioa areagotzeko beharrak berekin dakar nahitaezko energiaren kontsumoa gehitzea, baita energia izango dugula bermatzea ere. Dena dela, gertatzen dena da, energia-iturriak eskura izatea eta erabiltzea arazo dela gizakiarentzat. Arazo horrek zenbait alderdi ditu:

- Neurri handian edo txikian, natura-ingurumenari inpaktua eragiten diogu eta, ondorioz, gizakiari ere bai, ingurunearen zati den aldetik. Inpaktu horien artean, nabarmentzeko modukoa da klima-aldaketa, oinarrian energia-arazo bat da, erregai fosilak erretzen direlako.
- Gaur egun energia-iturri ez berriztagarriak gehiegi erabiltzen dira eta denboraren joanean horiek agortu egingo dira.
- Energia-iturri ez konbentzionalak erabiltzeak, atomikoa esate baterako, ondorio txarrak ditu izugarri konplexua baita eta, ondorioz, oso arriskutsua baita erabiltzeko.

Energia hainbeste merkatzeak, ez dira kostu guztiak kontuan hartzen (ingurumenari eragiten zaizkionak barne), eta herrialde garatuetan energia hain eskuragarri izateak, trantsizioa eragin du, eta energia gehiegi kontsumitzera eraman gaitu. Gizarte, herrialde edo hiri batek kontsumitzen duen energia kopurua etengabe areagotzen ari da, modu beldurgarrian, eta horrek, gehienetan, besteekiko desoreka arazoa eragiten du.

Garapenerako Nazio Batuen Programaren —GNBP— Energiari Buruzko Munduko Txostenaren arabera, 2000ko irailekoa, Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Nazio Batuen Sailaren arabera eta Energiaren Mundu Kontseiluaren arabera:

> *Gutxienez datozen 50 urteetan mundua energiaz hornitzeko muga fisikorik ez dagoela dirudien arren, gaur egungo energia-sistema ez da jasangarria, bai ekitatezko arrazoiengatik, bai ingurumenaren inguruko arrazoiengatik eta arrazoi ekonomiko eta geopolitikoengatik.*

Europako Ingurumen Agentziak 2004. urtean argitaratutako ikerketak (*EEA Signals 2004*) EB osatzen duten 25 herrialdeetan kontsumitutakoa eta zein iturri erabili duten islatzen du, datuak gutxi gorabeherakoak dira.

100. grafikoa. Ebaren energia kontsumoaren bilakaera eta aurreikuspena (1990-2030)



Energia kontsumoa guztira (petrolio (crudo) tonaren baliokidea)

Berriztagarria
Energia nuklearra
Gas naturala eta deribatuak
Ikatza, lignito eta deribatuak
Petrolioa (crudo) eta petrolioaren produktuak

Iturria: Europako Ingurumen Agentzia. *EEA Signals 2004*

Duela gutxi arte udalerrietako arduradunek energiarekin zer ikusia zuten bere buruari galdetzen bazioten ere, orain beren gain ere badagoela antzematen da; "Pentsatzeko modu aldaketa hori honakoek eragin dute: energia-kostuak (batez ere, argiteria publikoak), lurraldean sareak hartzen duen tokiak (elektrikoak eta gasarenak) eta kutsadurak, errekuntzek, erregai likidoen isurketek eta gasak atmosferan isurtzeak eragiten dutena". [13]

Hondarribiak, Irunek bezala, kanpotik ekartzen du kontsumitzen duen energia eta etxeetako, industrietako komertzioetako eta zerbitzuetako jarduerek behar duten energia.

Energia eskariaren, energia kudeaketaren eta eraginkortasunaren azterketa baldintzatzen duen faktorea Hondarribian energiaren *inputs* eta *outputsak* zenbatekoak diren jakiteko zailtasuna da. Udalerri-mailan oso datu gutxi daudelako gertatzen da hori, eta energia hornitzen duten erakundeek datu horiek jakinarazi nahi ez dituztelako da, batez ere.

5.3.2 Energia-balantzea

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko energia-balantzeari buruzko ikuspegi globala erakusteko, 2003. urtera arte autohornikuntzaren tasa-eboluzioa nolako izan den ikus daiteke.

[13] Energia eta jokabide zuzenak; Joaquín Corominas.

101. grafikoa. Energiaren autohornikuntza tasa



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Sektorekako kontsumoari dagokionez, 2002ko EAEko Garraio eta Ingurumenaren adierazleek erakusten dutenaren arabera, **garraioaren sektoreak egindako energia-kontsumoak** %29 egin zuen gora 1990-1999 urteen artean. Gainerako sektoreek, berriz, epe berean %1,3 egin zuten gora. Errepideak kontsumitzen du garraioak erabiltzen duen energia guztiaren %93; hau da, EAEn kontsumitutako guztiaren %27.
Lurralde historikoei dagokienez, Bizkaiak barne-kontsumo gordinaren %54 kontsumitzen du, eta Euskadik azken energia-kontsumoaren %44. Gipuzkoak azken energia-kontsumoaren %38 kontsumitzen du, eta Arabak %18.

Beheko grafikoan lurralde historiko bakoitzaren kontsumoa zehazten da.

102. grafikoa. Ekoizpen eta kontsumo banaketa lurraldeka



Ekoizpen eta kontsumoen banaketa lurraldeka.
Distribución por territorios de producción y consumos.

ktep 2004

	PEP	CIB	CFE
EUSKADI	401,6	7.270,3	5.573,8
ARABA / ÁLAVA	46,1	1.051,1	984,7
BIZKAIA	271,5	3.774,3	2.480,7
GIPUZKOA	84,0	2.444,9	2.108,4

PEP= Producción de Energía Primaria / Energia primarioaren produkzioa
CIB= Consumo Interior Bruto / Barne kontsumo gordina
CFE= Consumo Final Energético / Azken energia-kontsumoa

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Gipuzkoa, energia-balantzeari dagokionez, argi eta garbi azpitik geratzen da. Energia-kontsumoa ekoizpena baino askoz ere handiagoa da, nabarmen. Energia ekoizten duen iturri nagusia lurraldean Pasaiako zentral termikoa da; ikatza erabiltzen du, gaur egun eskura dauden beste energia-iturriak baino askoz ere kutsatzaileagoa (gas naturala...).

Ondorengo grafikoetan Gipuzkoan 2003. urtean azken energia-kontsumoaren banaketa islatzen da, iturrien eta sektoreen araberakoa.

103. grafikoa. Gipuzkoako kontsumoaren egitura sektoreka. 2003



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

104. grafikoa. Gipuzkoako barne kontsumo gordina energiaka. 2003



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Ekoitzitako energia kopurua oso txikia da (Pasaiako zentral termikoarena izan ezik) eta, beraz, energia-balantzea Gipuzkoan negatiboa da.

5.3.2.1 Energia-ekoizpena Hondarribian

Eguzki-panelak jarri dituzten sustapen pribatuko etxebizitza-multzo bakarra dago; gaur egun, energia berriztagarriko udal-eraikinik ez dago.

Ondorengo taulan, 2006 urtean Hondarribian sortutako energia berriztagarrien datuak azaltzen dira:

225. taula. Eguzki energi termikoaren ekoizpena. Hondarribia 2006

Energia mota	Instalazio kopurua	Azalera (m2)	Ekoizpena (Tep/urte)
Eguzki energia termikoa	8	95,8	6,23

5.7 Urtean erabiliko denaren ustezko bataz bestekoa: 1.000 ordu eta potentzia osoan.

Iturria: EVE 2006/12/31

Bihurtze faktorea: 1 MW/ordua = 0,086 tep

226. taula. Eguzki energi fotoboltaikoaren ekoizpena. Hondarribia 2006

Energia mota	Instalazio kopurua	Azalera (Wpico)	Ekoizpena (KW/urte)
Eguzki energia fotoboltaikoa	4	12.576	12.576

5.8 Urtean erabiliko denaren ustezko bataz bestekoa: 1.000 ordu eta potentzia osoan.

Iturria: EVE 2006/12/31

Bihurtze faktorea: 1 MW/ordua = 0,086 tep

Eskualdeari dagokionez, Atalerrekako Hondakin-uren Araztegiak ekoizten du energia, bai bere funtzionamendurako behar duena, bai saltzeko. Uraren atalean esan genuen bezala, adierazi nahi dugu asteburuetan, diru-arrazoiengatik, sareko energia erabiltzen dutela.

Txingudin hiriko hondakin solidoentzako erraustegi bat jartzeko proiektua dago, gaur egun baimenak izapidetze-prozesuan, eta diseinuaren atalean autokontsumorako eta saltzeko energia sortzea aurreikusita dago (urtean 6Mw energia gordin sortuko dutela adierazten dute).

5.3.2.2. Energia-kontsumoa Hondarribian

Informazio gutxi dagoenez, ez da posible azken energia-kontsumoari buruzko azterketa zehatzik egitea Hondarribia-mailan. Petrolioaren eratorrien inguruan ez dago daturik, eta udalerri-mailan gutxi gorabeherako bat ematea auto kopurua eta Eguneko Batez Besteko Intentsitatea abiapuntu hartuta, ez du zentzu askorik, datuak ez liratekeelako oso fidagarriak izango.

Gasaren zein elektrizitatearen kontsumoen inguruan, aipatu beharra dago Tokiko Agenda 21en prozesuetan murgilduta dauden udalerrien kasuan, iraunkortasun adierazleen sistema bat martxan dagoela duela urte batzuetatik hona. Adierazle sistema horren baitan, energiaren aldagaia ere neurtzera bideratzen diren adierazleak daude, tartean, gasaren eta elektrizitatearen kontsumoak.

Gasaren eta elektrizitatearen kontsumoak ezagutzeko, horiek hornitzen dituzten enpresetara eskaera bideratu behar da. Hori egin zen Hondarribiko diagnostikoa idazten hasi ginen unean, eta soilik Iberdrolak erraztutako datuak lortu genituen (Gas Naturalek ez). Hori dela eta, diagnosian elektrizitate kontsumoaren datuak agertzen dira eta ez gasarenak. Egoera hori ikusita, Tokiko Agenda 21en prozesuetan sartuta dauden beste udalerri batzuekin batera, Txingudiko Udaltalde 21etik (Irungo diagnosian ere gauza bera gertatzen zelako) Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ihoberi eskatu zitzaien energia hornitzaile diren enpresekin harremanetan jartzeko, datuak errazteko garaian trabarik jar ez zitzaten. Gauzak horrela, Ihobek zentralizatzen ditu orain udalerrien datu eskaera horiek (Ihobek egiten du eskaera eta gero honek udalerri bakoitzari dagozkion datuak bidaltzeaz arduratzen da) baina horretarako, Ihobek jarri duen baldintza da udalerria *Udalsarea 21*en kide izatea. Hori dela eta, Hondarribia Udalsarea 21en sartzen denean, datu horiek lortzeko erraztasun handiagoa izango du.

Energia-balantzearen atalaren sarreran EAEren inguruan gutxi gorabeherako datuak adierazi ditugu. Gas naturalari dagokionez, ez dugu daturik. **Kontsumo elektrikoari** dagokionez, duela gutxi Iberdrolak emandako datuak ditugu, udalerrian fakturatutako kontsumo elektrikoaren ingurukoak.

Lortutako datuen arabera:

227. taula. Fakturatutako energia sektoreka

	Fakturatutako energia		
Sektore ekonomikoa	**2002**	**2003**	**2004**
Etxebizitzak	22.441.495	21.928.498	24.509.134
Industria	2.584.928	2.785.862	2.662.305
Zerbitzuak	21.836.745	23.396.314	24.938.363
Sailkatu gabeak	152.262	215.243	220.183
Guztira, urtean	47.015.430	48.325.918	52.329.984

Iturria: Iberdrola

Energia-kontsumoari dagokionez, 2002. eta 2004. urteen artean, fakturatutako energia-kontsumoak %11 egin du gora, eta kontratu kopuruak, berriz, %7 egin du gora.

Epe horretan etxeetako kontsumoak eta industriako kontsumoak gora egin du, %9 eta %3, hurrenez hurren (kontratu kopurua ere gehitu da, %8 eta %1), zerbitzu-sektorearen kontsumoak ere %14 egin du gora (kontratuak %5 gehitu dira).

Nabarmentzeko modukoa da, beraz, zerbitzuen sektoreak kontsumoan izan duen gorakada.

2006 urteari dagokionez, honakoak dira udalerriko elektrizitate kontsumoei buruzko datuak:

228. taula. Hondarribian fakturatutako energia sektoreka.

SEKTORE EKONOMIKOA	2006AN FAKTURATUTAKO ENERGIA
Etxebizitzak	25.384.237
Industria	2.017.269
Zerbitzuak	25.074.534
Sailkatu gabeak	247.313
Guztira, urtean	52.723.353

Iturria: EAEko elektrizitate datuak 2006 (Ihobe)

Taulan ikus daitekeen moduan, 2004ko datuekin alderatuz, energiaren kontsumoa sektore guztietan igo da Industria sektorean izan ezik (2004

urtean 2.662.305 KW/ordu kontsumitzetik 2006an 2.017.269 KW/orduko kontsumitzera igaro da).

2004 eta 2006 urteen artean fakturatutako energiaren kontsumoa %12,14 igo da

5.3.3. Eraginkortasun energetikoa

Iraunkortasunaren inguruko printzipioek, energiaren alorrean aplikatuta, honakoetara bideratzen gaituzte:

- Energia arrazionalki erabiltzera, energia aurreztera, energiari eraginkortasuna ateratzera.
- Gutxiago ekoiztera eta energia kutsatzaileak gutxiago erabiltzera eta horiek energia garbiekin ordezkatzera. Ohiko energia-iturriak ordezkatzera (baliabide ez berriztagarrietan oinarrituta daudenak) energia-iturri berriztagarriekin (besteak beste, eguzki-energia, eolikoa eta minihidraulikoa).

Hondarribian zenbait jarduera antolatu dira udalerrian energia-kontsumoa gutxitzeko eta argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko helburuarekin (argiteria publikoaren %90etan emaria murrizteko gailuak jarrita daude). Bestalde, BOEko proiektu bat eta CADEM akordio batera iristea aurreikusita dago, energia aurreztea eta eraginkortasun energetikoa bultzatzeko.

Energiaren alorrean, Hondarribiko udalak eta EVEk (Energiaren Euskal Erakundea) 2006ko uztailaren 10an hitzarmen bat sinatu zuen udalerrian energiaren kontsumo gutxitu eta aurrezpena sustatzeko asmoz elkarrekin mota ezberdinetako ekintzak aurrera eramateko.

Ordutik hona gauzatu diren sentsibilizazio ekimenak honakoak izan dora:

- Energia Bizi izeneko erakusketa mugikorra: Hondarribian egon zen 2006kon uztailaren 10 eta 16a bitartean

- Kontsumo baxuko bonbillen doako banaketa:

- 2007ko azaroak 26: 119 unitate banatu ziren
- 2008ko apirilaren 3an Hondarribian 500 bonbilla dohainik banatzea aurreikusten da

Aldi berean, energia aurrezteko udalak aurrera eramandako beste ekintzetako bat Gabon garaiko argiterian kontsumo baxuko bonbillen ezarpena izan da. Ekintza hau 2007ko eta 2008ko Gabonetan gauzatu da.

5.3.4. Iraunkortasunaren analisia: energia

Kontsumo elektrikoari dagokionez, **zerbitzuen sektorea** da nabarmentzeko modukoa, **kontsumoa gehitu** duelako (batez ere, ostalaritzak): 2002. eta 2004. urteen artean %14 egin du gora.

Erabiltzen diren **energia-iturriak batez ere ez berriztagarriak** dira.

Balorazioa positiboa da udalerrian **eraginkortasun energetikoa** hobetze aldera egin diren **jardueren inguruan.** Argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetze aldera egin diren jarduerak nabarmentzeko modukoak dira (argiteria publikoaren %90ek du emaria gutxitzeko gailua jarrita).

5.4.Hondakinak

5.4.1. Sarrera

Natur zientziek definitzen dutenaren arabera, hiria ekosistema ireki bat da, materia, elikagaiak, energia, ura... inportatzen dituena, eta hondakinak eta kutsadura esportatzen dituena. Hondarribia ez da salbuespena. Bertako biztanleek, bizirik irauteko eta ekintzak egin ahal izateko, amaigabeko elementu-zerrenda behar dute, eta eraldatu eta erabili egiten dituzte, eta erabilgarri ez direnean baztertu eta orduan hondakin bihurtzen dira. Ondoren, materialen bizitza-zikloa adierazten da, hondakin bihurtu arte.

105. grafikoa. Materialak hondakinak bihurtzen diren arte jarraitutako ibilbidea.



Iturria: Eusko Jaurlaritza

Hondakinek, behar bezala kudeatzen ez badira, ingurumenean arazo larriak eragin ditzakete (lurzorua, ura eta airea kutsatu, paisaia aldarazi, natura-ingurumena degradatu), eta horiek, era berean, kutsadura dagoen inguruan bizi direnei ere kalteak eragiten dizkiete.

1997 urteaz geroztik Hondarribiko udalak, Irungo udalak bezala, uraren zikloari eta hondakinen kudeaketari dagozkion eskumenak Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateari esleitu zizkionez, udalek urteko aurrekontuetan partida bat finkatzen dute eskumen horiek aurrera eramateko. Honela, hondakinei buruzko 10/1998 Legeak, apirilaren 21ekoa eta hirietako eta udalerrietako hondakinak eta hondakin arriskutsuak arautzen dituena, ezarritakoari jarraiki, Txingudiko Zerbitzuak S.A. erakundea da Txingudin hiriko hondakinak biltzeaz, garraiatzeaz eta "ezabatzeaz" arduratzen dena.

Zerbitzua antolatu ondoren, Mankomunitatea lanean aritu zen Txingudiko Zonaldeko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Integrala diseinatzen eta abian jartzen.

Plan Integralak Txingudiko Zonalderako hiri-hondakinen kudeaketa integratua egiteko modua garatu ditu (Irun, Hondarribia, Hendaia); bi kudeaketa-modu lotzen ditu: batetik, Txingudiko Mankomunitatearena (Irun eta Hondarribia), eta, bestetik, Hendaiako udalerriarena.

Hiri-hondakina honako hauen batuketa dela esan daiteke: etxeetako hondakinak (EH), hondakin industrialak, merkataritzako hondakinak eta hiriko gisa har daitezkeen erakundeetako hondakinak (HIME) eta azkenik, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak obra txikietan eta etxeko konponketetan sortzen direnak.

Halaber, hondakin Arriskutsuak eta Sanitarioak deitutakoak ere badira, Nekazaritzan, Abeltzaintzan eta Basogintzan sortzen diren hondakinak ere bai, baina horiek ez dira Txingudiko Zerbitzuak enpresaren eskumenekoak.

Aipatzeko modukoa da Irunen eta Hondarribian azken urteotan etxebizitza-, industria- eta biztanle-kopurua hazi egin dela, eta horrek sortzen den hiri-hondakinen kopuruan eta tipologian eragina duela.

1999. urteaz geroztik, edukiontzietan eta horien babesguneetan modernizazio-prozesu bati ekin zaio, edukiontzien eremuak ahalik eta ondoen jartzeko eta, halaber, hiritarrei beharrezkoak diren erraztasunak emateko hondakinak gaika uzteko dagokien lekuetan. Modernizazio-prozesu horrek eman ditu emaitzak: 442 edukiontzi-babesgune, eta horietatik %56 babesgune oso dira, hau da, gaika banatutako edukiontzi guztiak.

2004-2007 urteen artean honako jarduera hauek egin ziren:

- Edukiontzietan mekanismo bereziak jarri dira, kontrol informatikoa hobetzeko.
- Beira-bilketa alde zaharrean eta oinezkoentzako guneetan, ate parean egiten jarraitzen da.
- Txingudiko Zerbitzuak elkarteari jakinarazi zaizkion 2.643 arazoetatik 2.418ri konponbidea eman die (%91). Gainerako %9 Txingudi Zerbitzuakek bidegabekotzat hartu zituen, bezeroak berak bertan behera utzi zuelako edo konponbidea ez zelako Txingudiko Zerbitzuaken eskumenekoa edo beste arrazoiren batengatik bidegabe iruditu zitzaiolako.
- Sentsibilizazio-jarduerak:
  - Ingurumen-hezkuntzarako kanpaina Txingudiko Zerbitzuak berak bultzatua (2004ko azaroaren bukaera aldera). Kanpainaren helburua hiritarren parte-hartzea eta birziklatze-indizeak gehitzea izan zen, baita gai horrek Irunen eta Hondarribian duen eraginaren inguruan hiritarrek gehiago jakitea ere. Bertako komunikabideetan mezuak igorri ziren (Irun Irratia, herriko prentsa eta aldizkarietan eta Localia TB). Egutegi eta elastiko hezigarriak banatu zitzaizkien (423 Hondarribian eta 1.543 Irunen) inkestak egiten zituztenei edo SMS bat bidaltzen zutenei. Posterrak jarri ziren zenbait ikastetxetan, kultura-etxetan eta kirol-zentrotan, Irunen zein Hondarribian.
  - Ingurumen-hezkuntzarako kanpaina, bideak garbitzeko: txikleen arazoa. 2005eko otsailaren 25etik martxoaren 21a arte Txingudi Zerbitzuak elkarteak Irunen eta Hondarribian bideak garbitzea helburu zuen kanpaina egin zuen bigarren urtez jarraian. Bideak garbitzen zituzten heinean, kalean zeuden milaka eta milaka txiklek eragiten duen arazoaz ohartaraztea izan zen helburua. Kanpainak iraun bitartean, herriko komunikabideen bidez mezu hezitzaileak igorri ziren, eskualdeko zinema-aretoetan bertako telebistako spot bat eman zen, banderatxoak eta zenbait *display* jarri ziren Irungo eta Hondarribiko erdialdeetan, kale-antzerkiak antolatu ziren herrietan, eta, azkenik, bideen garbiketa gai zuen eskolako materiala banatu zen.
  - Norberak konpostatzeko kanpaina: Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko mankomunitateen elkarlanean, 2005 urtean abian jarritako kanpaina da. Kanpainaren helburua eskualdeko 500 familiak sukaldeko eta lorategiko hondakin biodegradagarriak konpostatzea zen, horretarako beharrezko baliabideak eskainiz; ingurumen hezitzaile baten bidez etxeko konpostajeari buruzko

tailerrak eman ziren aurrez interesa aurkeztu zuten herritarren artean, izena eman zuten familia bakoitzeko konposta egiteko gailu bat banatu zen eta konposta egiteko aholkuen gida praktiko bat. Ontzietara bota zitezkeen hondakinak lorategiko eta sukaldeko soberakinak ziren. Kanpainaren lehen zatian (2005-2006 ikasturtea) 225 konpost gailu banatu ziren eta bigarren zatian (2006-2007) 275.

- "Birziklatzen lagunduko dizun ontzia" izeneko kanpaina: helburua eskualdeko biztanleen artean birziklapena sustatzea izan zen, denboran zehar antzemandako 3 gabezi desberdinei aurre egiteko asmoz:

    - Etxean hondakinak bereizteko toki falta
    - Birziklapenari eta gaikako bilketari buruzko informazio gabezia
    - Edukiontzi horira bota behar diren ontzi motei buruzko zalantzak

  Kanpaina honetan interesa zuten biztanleei txarla bat eman zitzaien aurretik eta ondoren birziklapena sustatzeko ontziak banatu zitzaizkien bertaratutakoei. 2006 urtean 5.000 ontzi banatu ziren orotara eskualde mailan eta 2007an 1901 ontzi.

Hondarribiko udalak Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateari urtero esleitutako diru-kopuruaz gain, *Udaltalde 21 Txingudi* proiektuaren sorrerarekin, udalak garapen iraunkorrarekin zerikusia duten gai ezberdinei buruzko sentsibilizazio kanpainak gauzatu ditu Irungo udalarekin eta Bidasoa bizirik-ekin batera 2005, 2006 eta 2007 urteetan zehar (urte bakoitzerako partida zehatz batekin). Hondakinen gaiari erreparatuz, 2005-2006 eta 2006-2007 urteetako Gabon garaian martxan jarritako kanpainak aipa ditzakegu:

- Garapen iraunkorra, Tokiko Agenda 21 eta Txingudiko Udaltalde 21 egitasmoa ezagutzera emateko kanpaina (2005-2006): 2 udalerrietako Santo Tomas jaietako txosnetan plastikozko edalontzien erabilpena ekiditeko asmoz edalontzi berrerabilgarriak banatu ziren, eguneroko erosketak egiteko poltsak banatu ziren egun ezberdinetan kalean eta merkatal guneetatik gertu, Txingiko Udaltalde 21en helburuak eta jardunbide egokiak jasotzen zituen gida batekin. Jardunbide egokien gida, era berean, tokiko zein eskualde mailako informazio puntuetan ere eskuragarri egon zen.

Gida Hondarribiko web gunearen Agenda 21en atalean ere aurki daiteke.

- Gabonetan kontsumo arduratsua sustatzeko kanpaina (2006-2007): aurreko kanpainan edalontzi berrerabilgarriek eta eguneroko erosketak egiteko ehunezko poltsek izandako harrera ikusita, berriz ere banatu ziren herritarren artean. Berrikuntza moduan, foileto berrian Gabonetan arduraz kontsumitzeko aholku baliagarriak eta norberak bere kontsumo ohiturak aztertu eta ebaluatzeko galdera eta erantzun sorta bat agertzen zen. Aldi berean, Ficobako haurren Gabonetako parkean kontsumo arduratsua bultzatzeko ingurumen hezkuntza jokoak, antzerkia eta tailerrak antolatu zituen Udaltalde 21ak.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak jakinarazten duen informazioak Txingudi guztia hartzen badu, atal honetan hiri-hondakinak sortzeari eta kudeatzeari dagokionez, eskualdearen egoera aztertuko da. Ahal denean, informazioa banatu egingo da Hondarribiari dagozkion datuak adierazteko.

Azkenik, hondakinen inguruko informazioa Txingudiko Zerbitzuen web orrian aurki daiteke www.txinzer.com

5.4.2. Hondakinen sorrera eta kudeaketa Txingudin

Ondorengo taulak Txingudiko Zerbitzuak elkarteak kudeatutako hondakin guztien azken urteotako bilakaera biltzen du

229. taula. Txingudiko Zerbitzuak elkarteak kudeatutako hondakin guztien azken urteotako bilakaera

	2000		2001		2002		2003		2004	
BALORIZAGARRIAK	**kg**	**Kg/biz/egun**	**kg**	**Kg/biz/egun**	**kg**	**Kg/biz/egun**	**kg**	**Kg/biz/egun**	**kg**	**Kg/biz/egun**
HIRIKOAK.	27.265.350	1,05	26.717.410	1,02	28.310.550	1,06	28.147.600	1,04	28.570.280	1,04
HIRIKO BOLUMEN HANDIKOAK	1.363.250	0,05	1.390.780	0,05	925.760	0,03	1.049.510	0,04	1.112.640	0,04
INDUSTRIALAK	4.411.640	0,17	3.526.880	0,13	2.380.490	0,09	2.687.170	0,10	3.509.685	0,13
BOLUMEN HANDIKO INDUSTRIALAK	618.550	0,02	404.520	0,02	311.840	0,01	293.350	0,01	330.660	0,01
BESTE BATZUK	82.000	0,00	77.925	0,00	151.226	0,01	241.100	0,01	0	0,00
GUZTIRA	**33.740.790**	**1,30**	**32.117.515**	**1,23**	**32.079.866**	**1,20**	**32.418.730**	**1,20**	**33.523.265**	**1,22**
BIRZIKLAGARRIAK										
HIRIKOAK	4.128.776	0,16	4.428.089	0,17	5.637.798	0,21	6.561.500	0,24	8.213.453	0,30
INDUSTRIALAK ETA DENDETAKOAK	3.132.635	0,12	4.918.644	0,19	5.673.901	0,21	5.110.582	0,19	4.955.686	0,18
GUZTIRA	**7.261.411**	**0,28**	**9.346.733**	**0,36**	**11.311.699**	**0,42**	**11.672.082**	**0,43**	**13.169.139**	**0,48**
EEH	**2.379.520**	**0,09**	**2.106.575**	**0,08**	**2.610.372**	**0,10**	**2.423.040**	**0,09**	**2.176.160**	**0,08**
GUZTIRA	**43.381.721**	**1,67**	**43.570.823**	**1,67**	**46.001.937**	**1,73**	**46.513.852**	**1,72**	**48.868.564**	**1,78**

Iturria: Geuk egina, Txingudiko Zerbitzuak elkartearen datuetan oinarrituta

OHARRA: birziklagarria hitzak, hondakin mota bakoitzarentzat dauden edukiontzitan jasotzen diren hondakinei egiten die erreferentzia eta beraz, sortzaileak sailkatzen dituenak. Balioztagarria hitzak berriz gainontzeko hondakinei egiten die erreferentzia –batzuk errekuperatu daitezke eta beste batzuk ez-. Hau da, hondakin balioztagarrietan ere sailkapen bat egiten da eta kudeatzaile bateri bidaltzen zaizkio birziklatu/errekuperatu daitezen.

5.4.2.1. Etxeetako hiri-hondakinak

Hiritarrek berde ilun koloreko edukiontzietan uzten dituzten hondakinak dira, "zabor" deitzen dioguna.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak emandako datuen arabera, batez beste 395,2 kg/biztanleko/urteko hondakin sortzen dugu (1,08 kg/biztanleko/eguneko). 2003. urtean 29.558.390 kilo hondakin sortu ziren guztira, eta 2004. urtean 29.799.240 kilo; beraz, %0,81 hazi zen, eta biztanleria, berriz, %1,7.

Txingudi Zerbitzuak elkarteak modu honetan banatu ditu etxeetako hiri-hondakin izendatutakoak:

230. taula. Sortutako hondakin kopurua jatorriaren arabera (2004)

KONTZEPTUAK	2004an SORTUTAKO KOPURUA
Etxeetako Hhak	24.457.480
Nekazaritzako eta Alde Zaharreko Hhak	1.351.580
Janari-dendetako eta ostalaritzako Hhak	2.877.540
Bolumen handikoak, etxeetakoak	1.112.640
GUZTIRA	29.799.240

Iturria: Geuk egina, Txingudiko Zerbitzuak elkartearen datuetan oinarrituta

Edukiontzietatik bildutako etxeetako hiri-hondakinei dagokienez (etxeetako eta ostalaritzako hondakinak, berde ilun koloreko edukiontzietan utzitakoak), azken 10 urteetan bildutakoen bilakaera ikus daiteke jarraian:

231. taula. Azken 10 urteetan bildutako hiri-hondakinen bilakaera

. URTEA	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Tona	25.893	26.873	29.189	28.702	32.373	32.454	31.998	28.311	28.509	28.687

Iturria: Geuk egina, Txingudiko Zerbitzuak elkartearen datuetan oinarrituta

"Txingudiko Eskualdeko Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralaren (PIRUAT) jarraibideak kontuan hartuta egindako osagarrien azterketa, guk geure aldetik egindakoez gain, etxeetako hiri-hondakinen osagarriak taula honetan adierazten dira:

232. taula. Etxeetako hiri-hondakinen osagarriak

Materia organiko Ustelkorra	44,49%
Papera-kartoia	23,07%
Plastikozko Ontziki arinak	10,35%
Beira	6,69%
Geldoak	5,57%
Konplexuak	4,25%
Metalezko Ontziki arinak	2,32%
Bestelako ontzikiak	0,98%
Metal Ferrikoak, ez ontzikiak	0,98%
Bolumen handikoak	0,69%
Etxeko Hondakin Arriskutsuak	0,62%
GUZTIRA	**100,00%**

Etxeetako hiri-hondakin handiei dagokienez, dagoeneko birziklagarriak ez direnak sartzen dira eta egurrezko altzariek, leihoek, etxeko gauzek eta abarrek osatzen dute. Hiri jatorrikoak dira eta bitan banatzen dira: kalean jasotakoak eta Emausen biltegikoak.

Bidasoa-Txingudiko Eskualdean berreskuratzen ez diren hondakinak, gaur egun, San Markoseko zabortegira eramaten dira baina 2008ko martxoaren 31tik aurrera zabortegia behin betiko iritsiko da. Apiriletik aurrera nahiz eta hondakinak San Markosek duen transferenzia estazioan konpaktatuko diren, azkenik Beasain, Azpeitia eta Zarautzeko zabortegietara bideratuko dira. Erabaki honen helburua hondakinen tamaina txikitzea da Lapatx, Urteta eta Sasietako zabortegien itxiera ahal den guztia atzeratzeko.

Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateko 2006ko memoriaren datuak aintzat hartuz, urte horretan sortutako hiri hondakinen %29,51 birziklagarria zen, % 1,66 uren araztegiko lohietatik balioztatutako kopurua litzateke (porlan fabriketara eramaten da erregai moduan erabiltzeko) eta gainontzekoa -%68,83a- balioztagarria izan zen (San Markos-eko zabortegira eramaten da). Hiri hondakin kontzeptuaren baitan barneratuta daude etxeko hondakinak eta hiri hondakinekin asimilagarriak diren industria, merkataritza eta erakundeetatik eratorritako hondakinak. Datu hauetatik kanpo daude eraikuntza eta eraispen lanetatik eratorritako hondakinak.

Azkenik, aipatu beharra dago 2006-2007 bitarte, Txingudiko 500 familien artean 500 banakako konpostatzaile banatu zirela. Hondakin organikoaren "gainontzekoa" bezela ezagutzen den zatia gutxitzeko helburuarekin.

Etxeetako hondakin organikoen bilketa eta tratamenduaren inguruko informazio zehatzagoa lortzeko honako iturriak erabilidaitezke:

- *Txingudiko Eskualdeko Hiri-Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala 2002-2016 (PIRUAT)*. Dokumentu osoa www.txinzer.com web gunean kontsulta daiteke.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuko web gunean (www.gipuzkoaingurumena.net) Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiri hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten oinarrizko agiri eta dokumentuak esekita daude.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak momentu honetan onarpen fasean dagoen Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana gauzatu du. Planean honako azpiegiturak aurreikusten dira Bidasoa zonalderako:

- 2 Garbigune
- Konpost Planta 1

Era berean, Lurralde Historikoan, LAPak beharrezkoak diren edo jadanik existitzen diren berreskuratze eta birziklatze plantak 2016 urteari begira, jabetza publiko eta pribatua izango dutela zehazten du. Errausketa Plantari dagokionez, Donostiako Zubieta auzoan eraikitzea aurreikusten da.

Lehen aipatu den bezala, Hiri Hondakinen Azpiegituren LAPa onarpen fasean dago eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren onespena izan beharko du. 2007 urtearen bukaeran Txingudiko Mankomunitateak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutoak onartu zituen, honela eta gainontzeko Mankomunitateekin batera, organoan partaide bihurtu zelarik. Hori dela eta, Planaren inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izango du.

5.4.3. Etxeetako hiri-hondakin birziklagarriak

Birziklatzeko erabiliko diren hondakinak dira eta leku jakinetatik jasotzen dira aukeratu ondoren: etxeak, bulegoak, dendak, ostalaritza-instalazioak eta janari-dendak.

Ondorengo taulan, birziklagarriak diren eta jaso diren etxeetako hiri-hondakinen azken urteotako bilakaera adierazten da:

233. taula. Birziklagarriak diren eta jaso diren etxeetako hiri-hondakinen azken urteotako bilakaera

. URTEA	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
kg	4.128.776	4.428.089	5.637.798	6.561.500	8.213.453	8.045.621	8.222.301
Kg/biz./egun	0,16	0,17	0,21	0,24	0,30		0,30

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

2006 urtean 8.222.301 Kg handakin jaso dira, gaikako bilketaren %55,20. Aurreko urtearekin alderatuz, %2,2 gehiago jaso da pisua kontutan izanik.

2006 urtean jasotako hondakin guztien %31,17 errekuperatu da. Portzentai honen barruan, konposta egiteko erabili diren hondakinak eta birziklatutako hondakinak (%29,51) sartzen dira. Era berean, hondakin berriztagarriak hartzen ditu kontutan, ur haraztegitik etorritako lohiak hain zuzen ere (%1,66).

➢ Papera eta kartoia

Gaur egun, hirian sortzen diren hondakinak jasotzeko bi bide daude:

- Edukiontziak
- Erakunde eta eskolak

Bestalde, aipatu nahi dugu, Txingudiko Zerbitzuak elkarteak baimena emanda, beste kudeatzaile batzuk ere aritzen direla aspaldidanik paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa egiten industria jakinetan. Ondorengo taulan birziklatu den paper eta kartoi kilogramo kantitatearen bilakaera azaltzen da:

234. taula. Birziklatu den paper eta kartoi kilogramo kantitatearen bilakaera

Urtea		2004	2005	2006
EDUKIONTZIA	IRUN	2.186	2.358	2.531
	HONDARRIBIA	546	590	633
	GUZTIZKO PARTZIALA	2.732	2.948	3.164
ATEZ ATEKOA	HIRIKO DENDETAKOAK	806	834	621
	INDUSTRIALA BAIMENDURTAKO K.	582	628	675
	GUZTIZKO PARTZIALA	1.388	1.462	1.296
	GUZTIRA	**4.120**	**4.410**	**4.460**

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Hiriko edukiontzitan jasotzen den paper kopurua aztertzen bada, kopuru hau 3.164 Tn dira, 2005 urtearekiko %6,8ko igoera suposatzen du.

Paperaren eta kartoiaren bilketaren bilakaera azken 10 urteetan honako hau izan da:

235. Papera eta kartoi bilketaren bilakaera (1995-2006)

URTEA	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Tn.	634	904	1.099	1.410	2.179	2.864	2.885	3.047	3.148	4.120	4.410	4.460
Ratioa/Kg/ Biz./urte	9,05	12,91	15,71	20,14	31,13	40,91	41,22	41,74	42,48	54,64	58,45	58,42

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Atez ate egiten den bilketa jeitsi egi da zerbitzuan emandako aldaketak direla eta . Orain, tona hoiek industriaren bilketa barruan sartzen dira eta horregatik jetsi da ratioa 58,45 Kg/biz/urte-tik 58,42 Kg/biz./urte-ra.

Azkenik, sailkatze enpresaren arabera, bildutako paper eta kartoi guztiaren %2,5 material desegokia edo nahi ez den materiala da.

- **Beira**

2006. urtean 2.175 tona bildu dira beirarentzat propio jarritako edukiontzietatik, 2003. urtean baino % 2,8 gehiago.

Ostalaritzan atez ateko zabor bilketa egiten da, baita oinezkoentzako zonaldeetan eta hirigune historikoetan ere. Hondarribiako alde zaharraren ezaugarri bereziak kontutan izanik, ezin da normalean egiten den igluen bitarteko zerbitzuan sartu. Ondorioz, zerbitzu berezi bat eskeintzen zaie 5 edukiontzi leku zehatzetan ezarriz.

Beiraren bilketa-eboluzioa azken 10 urteetan honako hau izan da:

236. Beira bilketaren bilakaera (1995-2006)

URTEA	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Tona Irun	410	532	604	651	674	860	922	1.080	1.142	1.200	1.383	1.426
Tona Hondarribia			69	335	367	513	518	476	579	664	609	551
Atez atekoa								52	118	112	122	198
Guztira	410	532	673	986	1.041	1.373	1.440	1.608	1.839	1.976	2.114	2.175

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Atez ate jasotako beiraren kopurua% 60 igo da, 198 tona jaso direlarik 2006 urtean.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak adierazi du bildutako beira guztiaren %1,68 bakarrik dela material desegokia edo nahi ez dena.

- **Ontziki arinak**

Ontzikiak Urnietako plantara eramaten dira. 2006. urtean 944 tona ontziki arin bildu dira, 2005ean baino %10,92 gehiago.

Birziklatutako ontziki arinen ratioa 12,32 kg/biztanleko/urteko da (2005. urtean baino 1,08 kilo/biztanleko/urteko gehiago).

Ontzikien gaikako bilketa 1999. urtean jarri zen abian. Ondorengo taulan, harrezkero bildutako kopuruaren bilakaera ikus daiteke.

237. taula. Ontzikien gaikako bilketan jasotako ontzi kopurua

URTEA	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Tona	179	451	500	593	666	751	851	944

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Urnietako eta Legazpiko **ontziak** bereizteko plantetan 2004. urtetik 2006. urtera bitartean tratatu diren kopuruak eta lortu diren errendimenduak beheko taulan daude jasota:

238. taula. Urnietako eta Legazpiko ontziak bereizteko plantetan tratatu diren kopuruak eta lortu diren errendimenduak

Ontziak bereizteko planta	Deskribapena	2004	2005	2006
Legazpi	Sarrera (t/u)	2.207	2.399	2.802
	Birziklatze-errendimendua (%)	63,5	61,1	60,0

	Birziklatzea (t/u)	1.402	1.465	1.682
Urnieta	Sarrera (t/u)	4.074	4.654	4.964
	Birziklatze-errendimendua (%)	77,0	75,3	72,0
	Birziklatzea (t/u)	3.136	3.504	3.574
Batez besteko errendimendua 2004-2005		**%70**		

Iturria: Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurraldeko Arloko Plana

Taulan agertzen diren datuetatik ondoriozta daiteke 2006. urtean Gipuzkoako ontzien sailkapenerako bi plantetan tratatu ziren ontzi arinen kopuruak 7.766 tonatara iritsi zirela, eta bi plantetako batez besteko errendimendua, 3 urte horietan (2004, 2005 eta 2006), % 70ekoa izan zela.

Bi planta horiek, etorkizunean, ontziak bereizteko eta sailkatzeko instalazioen oinarria izaten jarraituko dute.

239. taula. 2006ean gaika bildutako ontzi eta ontzien hondakinetatik berreskuratutako materiala

2006ean **gaika bildutako ontzi eta ontzien hondakinetatikberreskuratutako materiala**		
MATERIALA	**HAUTATUTAKOA GUZTIRA ETA BIRZIKLATZAILEARI EMANDA (Kg.)**	**PISUA%**
PEAD	192.900	9,17
PEBD	354.280	16,85
PET	241.660	11,49
Bestelako plastikoak	440.760	20,97
Brik-a	287.340	13,67
Altzairua	426.580	20,29
Aluminioa	10.680	0,50
Papera eta kartoia (*)	124.740	5,93
Beira (*)	22.737	1,08

Guztira	2.101.677	100

(*) Hurrengo ontzi honfdakinak ez dira edukiontzi horian isuri behar edukiontzi berezia baitute: urdina paper-kartoiarentzat eta berdea beirarentzat

Iturria: San Markos mankomunitateko 2006ko memoria, Urnietako ontzien sailkapen plantan bildutako ontzien hondakinetatik berreskuratutako materiala zehazten duena.

240. taula. San Markosen gaika bildutako ontzien sailkapena. (1999-2006)

	GIPUZKOA			BIZKAIA		NAFARROA	KANTABRIA
	Guztira	**Urnieta**	**Legazpi**	**Amorebieta**	**Artigas**	**Tudela**	**Santander**
1999	835.830	-	84.370	751.460	-	-	-
2000	1.566.530	-	-	846.480	49.240	670.810	-
2001	1.876.720	755.970	-	186.360	397.900	168.520	366.570
2002	2.197.200	2.197.220	-	-	-	-	-
2003	2.662.500	2.662.500	-	-	-	-	-
2004	3.385.005	3.385.005	-	-	-	-	-
2005	3.832.440	3.832.440	-	-	-	-	-
2006	-	3.076.600	-	1.247.410	-	-	-

Iturria: San Markos mankomunitateko 2006ko memoria.

Ontziki arinen edukiontziak ematen die arazo gehien hiritarrei hondakinak egoki bereizterakoan; izan ere, edukiontzi-mota horretan material bat baino gehiago utz daiteke.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak emandako datuen arabera, Txingudin egiten diren bilketa horien ondorioz birziklatutako ontzikia purutasun handikoa da, ezpurutasun portzentaia %17,76 bakarrik baita (ohiko portzentaia %20 eta 30 artekoa izaten da).

- **Etxeetako hiri-zura**

Etxeetako zurari dagokionez (altzariak, batez ere), bildutako kopurua %15 gutxitu da.

Dena dela, egurraren gaikako bilketa, guztira, %10 areagotu da 2003. urtekoarekin alderatuta; izan ere, industria-ekoizle handietatik biltzen hasi da material hori.

Berrerabilpenari dagokionez, Emaús-ek badu etxez-etxeko gaikako bilketa zerbitzu bat –902 455 855 telefono zenbakira hots egin behar da- (edo bestela, norbera joan daiteke zuzenean Emaús-ek Irungo Anaka auzoan duen eraikinera) etxeko altzariak, etxeko tresna elektronikoak edo erabilitako ehunak jasotzeko (arropa, trapu zaharrak, eta bar). Emaús-ek Donostian aurkitzen den "Ekocenter" izeneko berrerabilpen zentroan konpontzen ditu eskaintzen duen zerbitzuaren bidez bildutako hondakinak. Ondoren, Emaús-en "Topagune" izeneko 2. eskuko dendetan salgai jartzen dituzte konpondutako objektuak. Irunen badago "Topagune" denda bat Lope de Becerra kaleko 6. zenbakian.

2004. urtean zuraren gaikako bilketa 423 tonakoa izan da, eta hori Txingudiko Zerbitzuak elkarteak bildu du, eta 23 tona Emauseko konponketa-tailerretik bildutakoak dira.

Azkenik, Txingudiko Zerbitzuak elkarteak emandako datuen arabera, 2006 urtean etxeetako hiri-zuraren produkzio-ratioa 5,04 kilo/biztanleko/urteko da.

- **Ehuna**

2004. urtean 148 tona ehun bildu ziren. Ehunaren birziklatze-ratioa 1,96 kg/biztanleko/urteko da, 2003. urtean baino 0,1 gehiago.

Bilakaera jarraitua, Txingudiko Zerbitzuak elkarteak emandako datuen arabera, taula honetan adierazten da:

241. taula. Ehunaren bilketaren bilakaera

URTEA	2001	2002	2003	2004
Tona	28*	130	138	148
Ratioa Kg/biz./urte	1,59	1,78	1,86	1,96

5.9 hiru hileko bilketari dagokio

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Aldi berean, 2006ko 2. hiruhilekotik aurrera Txingudiko Zerbitzuak edukiontzi zurian utzitako ehunezko hondakinak Oldberri S. Coop. Enpresari ematen dizkio, azken honek jasotako ehunak berrerabiltzera bidera ditzan (Donostiako alde zaharrean dagoen *Kitzin* dendan saltzeko, esatea baterako).

Emaús Fundazioak ere zerbitzu hau eskeintzen du (begiratu etxeetako hiri-zura atalean)

- **Pilak**

2004. urtean 9.915 kilo pila bildu dira gaikako bilketaren bidez. Horrek esan nahi du iaz baino %9,95 gehiago bildu dela. Bestalde 2006 urtean 4.654 Kg jaso dira, oso kantitate txikia 2004 urtearekin alderatuz gero, %53,06 hain zuzen ere.

Pila-bilketaren eboluzioa 1999. urteaz geroztik, jarraian adierazten da:

242. taula. Pila-bilketaren bilakaera

URTEA	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2006
kg	7.290	6.689	8.240	10.336	9.018	9.915	4.654

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

2006 urtean bilketa-ratioa 0,06 kg/biztanleko/urteko da.

Lerro zuria, grisa eta marroia

Lerro zuriaren gaikako bilketari dagokionez (arropa-garbigailuak, hozkailuak...), bildutako hondakin-kopurua 2004. urtean handiagoa izan da, aurreko urtean baino 8.000 kilo gehiago, eta birziklatze-ratioa 0,50 kg/biztanleko/urteko izan da.

Lerro gris eta marroiari dagokionez (ordenagailuak, irratiak, telebistak...), birziklatze-ratioa 0,325 kg/biztanleko/urteko da.

Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateak edukiontzien ondoan, kalean, utzitako hondakin elektriko eta elektronikoak jasotzeko zerbitzu bat du. Astean 6 egunetan eskaintzen da zerbitzua eta bildutakoa Bizkaian dagoen "Indumental Recycling" enpresara eramaten da. Bestalde, hondakin mota hauek ere San Narciso-ko Garbigunera eramateko aukera dago (Helbidea: Olaberria-Bentak bidea, z./g. Irun. Telefonoa: 902 11 93 84. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:30-13:00 eta 15:30-18:30).

Beste aukera bat Emaús fundazioak Irungo Anaka auzoan duen zentrora eramatea da, konpontzeko aukera egonez gero, hondakin mota hauek berrerabiliak izan daitezen.

- **Inausketa eta lorezaintza**

Inausketa eta lorezaintzako hondakin-kopuruari dagokionez, 2004. urtean 700 tona bildu ziren, aurreko urtean baino 62,58 gehiago. Kopuru horren arabera, ratioa 9,287 kg/biztanleko/urteko da.

2005ean eta 2006an abian jartzeko zenbait proiektu aurreikusita daude: hondakin-mota hori biltegiratzeko tokiak handitu, nork bere konposta egiteko gailuak ezarri eta inausketa eta lorezaintza hondakin pribatuak bildu (oraindik ere aztertzen).

- **Etxeetako olioa eta etxeetako hondakin arriskutsuak**

Erabilitako olioa eta etxeko beste hondakin arriskutsuak hilabete bakoitzaren 3. larunbatean jasotzen dira, eguerdiko 12etatik ordu bietara Benta zaharreko aparkalekuan, horretarako prestatutako gaikako bilketarako ibilgailuaren bidez.

Jasotzen diren etxeko hondakinak honakoak dira:

- Sukaldeko olioa.
- Lanparak eta fluoreszenteak.
- Termometroak.
- Automozio hondakinak: olioak, bateriak, iragazkiak, balazta likidoa, eta abar.
- Tresna elektriko-elektronikoak: Ordenagailuak, Irrati-walkmanak, TV aginteak, Telefono mugikorrak, Kalkulagailuak, Argazki-makinak, eta abar.
- Tinta eta toner kartutxoak.
- Disketeak-Cdak-DVDak.
- Argazkigintza: finkatzaileak, bainuak.
- Txiskeroak.
- Kolak, pinturak, bernizak eta disolbatzaileak.
- Pilak eta bateriak.
- Garbiketa produktuak.
- Erradiografiak.
- Aerosol ontziak: intsektizidak, eta abar.
- Pestizidak-pozoinak.

HIRI HONDAKINEN BILKETA ETA BIRZIKLAPENERAKO AZPIEGITURAK

Euskal Autonomi Erkidegoa

Hiri hondakinak sailkapena eta birziklapena mota ezberdinetako plantetan egiten da. Eusko Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden **hondakinen sailkapen azpiegiturak** ondorengoak dira:

243. taula. Eusko Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden hondakinen sailkapen azpiegiturak

LURRALDE HISTORIKOA	SAILKAPEN AZPIEGITURA
GIPUZKOA	- Urnietako ontzi arinen sailkapen planta - Legazpiko ontzi arinen sailkapen planta - Etxeetako tamaina handiko hondakinak (altzariak, aparailuak,…) eta ehunezko hondakinak (arropa, tratu zaharrak, …) jaso, tratamendua eman eta balioztatzeko Ekocenter eraikina (Donostia)
BIZKAIA	- Amorebietako ontzien sailkapen planta - Ortuellako tamaina handiko hondakinen birziklatze planta - Indumental Reciclyng (Erandio): telekomunikazio ekipoak edo bestelako tresna elektriko eta elektronikoak tratatzeko planta. - Ehun-hondakinak berreskuratu, berrerabili eta birziklatzeko Zamudion dagoen Berohi planta
ARABA	- Jundizko ontzien sailkatze planta

244. taula. EAEn egun dauden eta aurreikusten diren hondakinen tratamendurako azpiegiturak:

TRATAMENDUA	AZPIEGITURA	Lurralde Historikoa	INSTALAZIOA	OHARRAK	Lehendik zegoen (L) / Berria da (B)
Birziklapena	Ontzietako hondakinen sailkapena	EAE	4	1. Zornotzako instalazioa (Bizkaia) – 13.000 t 2. Urnietako instalazioa (Gipuzkoa) –10.000 t 3. Legazpiko instalazioa (Gipuzkoa) – 3.000 t 4. Jundizko instalazioa (Araba) – 10.000 t	L
Birziklapena	Edukiontzi horiko filmak birziklatzeko instalazioa	Bizkaia	1	Berriro pikortatzea lortzea, film frakzioak edukiontzi horia jatorri duen prozesu baten bidez. 8.000t	L
Birziklapena – minimizazioa	Telekomunikazio-ekipoak eta beste zenbait ekipo elektriko eta elektroniko desmuntatzeko eta tratatzeko instalazioa	Bizkaia	1	Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak tratatzeko gaitasuna, hiriko nahiz industriako hondakinak izan. 34.000t	L

Konpostajea	Konpost-instalazioak	Araba	Batzuk	Tratamendu mekaniko-biologikoaren instalazioan dagoen konpostatzeko instalazioa (18.000 t ggb) Lurraldean zehar hedatuta dauden konpostatzeko instalazio txikiak.	L
Konpostajea	Instalazio zentralizatua, beharren arabera banatuta dauden beste zenbait instalazioren laguntza izan dezakeena	Bizkaia	Bat edo batzuk		B
Konpostajea	Konpost instalazioak	Gipuzkoa	3	60.000 t, gutxi gorabehera	B
Tratamendu mekanikobiologikoa (TMB)	Tratamendu mekaniko-biologikoa (TMB)	Bizkaia	1	Zentralizatutako instalazio bakarra, diseinu eta eraikuntza modularra dituena (141.061-183.814t)	B
Tratamendu mekanikobiologikoa (TMB)	Tratamendu mekaniko-biologikoa (TMB)	Araba	1	Batera bildutako hondakinen bidezko digestio aerobioaren linea (62.000 t ggb). Batera bildutako	L

				hondakinaren frakzio mehearen bidezko biometanizazio-linea (40.000t)	
Energia berreskuratzen duen Errausketa	Energia berreskuratzen duen errausketa	Bizkaia	1	Zabalgarbi (2 linea, 424.079-464.779 t)	L/B
Energia berreskuratzen duen errausketa	Energia berreskuratzen duen errausketa	Gipuzkoa	1	----------	B

Iturria: *EAEn Hiri-Hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko ildoak (Zirriborroa, 2007ko urria)*

Oharra: - Taulan ez dira agertzen hiri hondakinen zabortegiak ezta *Garbigune*ak ere.

- Koloretan markatu dira Gipuzkoako LLHH aurkitzen diren edo aurreikusten diren azpiegiturak: urdinez ontzien sailkapenerako plantak; orlegiz konpost-plantak eta laranjaz errauste planta.

B. Eskualdean gaikako bilketaren bidez jasotzen diren hondakinak honako planta eta enpresetara bideratzen dira:

Eskualdean gaikako bilketaren bidez jasotzen diren hondakinen xedeari dagokionez, honako plantetara edo enpresetara bideratzen dira:

Ontzi arinak

Hauek Urnietan dagoen ontzien sailkatze plantara eramaten da. Sailkatze plantan edukiontzi horian botatako hondakinak honako azpi taldetan sailkatzen dituzte:

- Plastikoa: PET, PEAD, LDP, PEAD , brik-ak, nahastutako plastikoak.
- Aluminioa
- Metala
- Edukiontzi horian agertu den papera eta kartoia

Horiek bereizita eta fardeletan bilduta, *Ecoembes* enpresa arduratzen da material hauek kudeatzeaz. Horretarako, sailkatze plantan biltzen dituen materialekin lehiaketak/enkanteak egiten ditu, hautetara birziklatze enpresak aurkez daitezen. Urnietako ontzien sailkatze plantari dagokionez, azken enkantetik ateratako datuak honakoak dira (material mota eta horietako bakoitza zein enpresak birzikaltzen duen zehazten da):

245. taula. Urnietako ontzien sailkatze plantan, azken enkantetik ateratako emaitzak

Hondakinmota	Esleitutako enpresa	Kokapena
PET (*polietilen tereftalato*)	Iparpet Reciclying	Lekunberri (Nafarroa)
LDP (dentsitate baxuko polietilenoa)	Bizkaiko Plastiko Birziklategia	Amorebieta (Bizkaia)
Brik-ak	Stora Enso	Bartzelona
PAD (dentsitate altuko polietilenoa)	Eslava Pláticos	Valentzia
Nahastutako plastikoa	Ligeplas S.A.	Toledo
Aluminoa	Procesos Metalúrgicos S.A.	Bartzelona
Papera eta kartoia	Despanorsa Gestión Integral de Residuos	Gipuzkoan egoitza bat Donostian eta bigarrena Legorretan
Metala	Lajo y Rodriguez S.A.	Gasteiz

Papera eta kartoia

"Despanorsa Gestión Integral de Residuos" enpresara eramaten da jasotako papera eta kartoia. Despanorsa enpresak 2 egoitza ditu Gipuzkoan; bata Donostian eta bestea Legorretan.

Beira

Laudion (Araba) dagoen beirategira eramaten da ("Recuperadora de Vidrio Aguado e Hijos, S.L.") Ecovidrio elkarteak eta mankomunitateak jasotako beira. Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateak 2001 urtean egin zuen bat Ecovidrioren beiraren bilketa zerbitzuaren hitzarmenarekin.

Pilak

Pilak Sondikan (Bizkaia) dagoen "Recipilas" enpresara eramaten dira birziklatzera.

Etxeko olioa

"EcoGras Recuperación y Reciclado S.L." enpresa arduratzen da bilketa zerbitzuaz eta baita tratamenduaz ere. Enpresa hau Donostian kokatuta dago. Ecogras enpresak jasotako olioa biodiesela egitera bideratzen da (bioerregaia).

Lerro marroi eta griseko hondakinak

Etxeko aparailu elektrikoak, ordenagailuak, …: Indumetal Recycling s.a. enpresara (Asua-Erandio, Bizkaia) eramaten dira birziklatzeko.

Ehunak

Emaús-en zerbitzuaren bidez jasotako ehunak Donostiako Ekocenter eraikinera eramaten dira eta ehuna botatzeko edukiontzi zurietan jasotakoak Sarea fundazioko Oldberri S. Coop.-ek kudeatzen ditu Errenteriako Masti Loidi industria gunean kokatuta dagoen fabrikan. Ehunei dagokion tratamendu eman ostean, horien berrerabilpena sustatzen da, 2. eskuko denda edo ferietan saltzeko edo behartsuei banatzeko, esate baterako.

Zurak

Txingudiko mankomunitateak jasotako zurak San Markos-eko zabortegira eramaten dira. San Markos mankomunitateko 2006ko memorian jasotzen denaren arabera, zabortegian jasotako
altzariak eta egurrak egurrezko hondakinak tratatzeko eremura eramaten dira zabortegian bertan. Bertan birrindu eta ezpaldu egiten dira eta, ondoren, oholtza aglomeratuak egiteko fabriketara eramaten dira. 2006. urtean guztira 16.757.760 kg egur-hondakin birziklatu dira San Markos-eko zabortegian jasotako zura osotik (2005. urtean baino % 20,16 gehiago). Birziklatutako

zura kopura nabarmenki igo da, disuasio-tasa baitago eta bereizi gabeko materiala botatzea zigortua baitago. Gainera, ekoizleak aldez aurretik sailkatutako materialak saritu egiten dira.

Bestalde, Emaús-ek eskaintzen duen bilketa zerbitzuaren bidez jasotako altzariak Donostiako Ekocenter-era eramaten dira bertan dagokion tratamendua emateko.

Inauste eta lorezaintza hondakinak

Sastrakak garbitzeko lanetatik eratortzen diren hondakinak dira eta Ormaiztegin dagoen Konposgune enpresara eramaten dira bertan konposta egiteko.

Animalia hilak

Hiri guneetako animalia hilak Txingudiko Zerbitzuak San Marko zabortegira eramaten ditu. Landa eremuko animalia hilak Behemendi landa garapeneko elkarteak kudeatzen ditu (ondoren, San Markos-eko zabortegira eramaten dituzte)

San Narciso Garbigunean jasotzen diren hondakinak

· Pneumatikoak: Neuciclaje enpresara eramaten dira birziklatzeko (Zamudio, Bizkaia).
· Hondakin handiak: San Markos-eko zabortegira eramaten dira. Mankomunitate honen 2006ko memorian aipatzen denaren arabera, zabortegian tamaina handiko hondakinak manipulatzeko makina bat dago, hondakinak bi zatitan bereizten dituena: batetik, konposizioarengatik berreskuratu daitezkeenak, eta bigarrenik, oraingoz aprobetxatzeko aukerarik ez dutenak (azken hauek zabortegiko deuseztapen eremura eramaten dira). Berreskura daitezkeen hondakinei erreparatuz, langileek hondakinak honela bereizten dituzte:

· Altzariak eta egurrak egurrezko hondakinak tratatzeko eremura eramaten dira zabortegian bertan. Bertan birrindu eta ezpaldu egiten dira eta, ondoren, oholtza aglomeratuak egiteko fabriketara eramaten dira.
· Aparatu elektrikoen eta elektronikoen hondakinak kaioletan sartzen dira. Kaiolak prestatuta daude tratamendu-zentroraino garraiatzeko, kasu honetan, Indumetal Recycling, S.A. enpresara eramateko.
· Gainerako hondakinak batez ere material ferrikoz osatuak daude eta dagokion birziklapen edo aprobetxamendu-zirkuituan sartzen dira kudeatzaile baimenduaren bidez.

2006. urtean tamaina handiko tresnen 2.787.640 kg hondakin berreskuratu dira, zabortegian jasotakoaren %50a baino gehiago.

· Etxeko obra hondakinak: San Markos zabortegian eta Arasoko zabortegian estaltze eta egokitze lanak egiteko bigarren mailako lehengai moduan erabiltzen dira.

· Hondakin geldoak: Aizmendiko zabortegira eramaten dira (Donostian kokatuta dago). Zabortegi honetan industria jardueratik eratortzen diren hondakin geldoak tratatzeaz gain, hondakin eta eraispen-hondakinak ere bota daitezke. San Markos mankomunitateko 2006ko memorian jasotzen dena aintzat hartuz, Aizmendiko zabortegian sartu diren hondakin guztietatik %55,41 birziklatu egin dira; izan ere, hondakinak bigarren mailako lehengai bezala (metalak, kartoia, egurra eta ontziak) berreskuratzeaz gain, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak zabortegiaren barruan pistak eraikitzeko berrerabili dira. Hala, ez da ordezkatze-materialik sartu.

· Lerro marroia eta grisa: Bizkaiko Indumetal Reciclyng enpresak jasotzen ditu eta bere fabrikan birziklatzen dira era honetako hondakinak.

Araso zabortegia

Gaintxurizketan *Vascontainer* enpresak kudeatzen duen Araso zabortegia aurkitzen da, zeinak industria jatorrizko hondakinak eta eraikuntzatik eratorritako hondakinak tratatzen dituen –hondakin geldoak eta ez arriskutsuak-. Araso zabortegia 2002 urtetik dago martxan eta 1,5 milio metro^{3-}rainoko materialak kudeatzeko ahalmena du. 8 hektareako azalera du orotara, nahiz eta egun erdia dagoen okupatuta. Zabortegi honen gaineko kontrola gauzatzea Eusko Jaurlaritzaren menpe dago.

Araso zabortegian jasotako industria jatorriko hondakinen geldoen datuak Agenda 21en diagnosiaren 5.4.3.1 puntuko 68. koadroan agertzen dira.

Arasoko zabortegian *Vascontainer* enpresak jasotzen dituen hondakinei buruzko, tratamenduari eta kontrolari buruzko informazio gehigarria honako web gunean aurki daiteke: www.vascontainer.com

5.4.3.2. Hiri-hondakintzat har daitezkeen Industria-hondakinak

Industria poligonoetan jasotako hondakinen eboluzioa honakoa izan da:

246. taula. Industria poligonoetan jasotako hondakinen bilakaera

	2004	2005	2006
Guztira (Kg)	9.308.842	11.264.435	13.594.126

2006. urtean, 13.594 tona hondakin bildu ziren Industria-poligonoetan. Txingudiko Zerbitzuak honela sailkatzen ditu:

- **Industria-hondakin geldoak (4.413 tona):**

Ondorengo taulak industria-hondakin geldoen portzentaje-eboluzioa nolakoa izan den erakusten du:

247. taula. Industria-hondakin geldoen portzentaien (osoarekiko) bilakaera

	2002	2003	2004	2005
Hondakin geldo industriala San Markos	20,07	32,40	55,64	42,26
Hondakin geldoa birziklagarriarekin nahastuta	18,61	0,04	0,45	0,20
Geldoak, Arason bilduak	29,79	37,86	0,06	30,19
Araztegiko hondarrak	0,00	0,00	11,00	7,99
Bolumen handiko industrialak	6,71	7,57	11,11	7,95
Portzelanak	21,63	18,53	16,67	8,82

- **Industria-hondakin birziklagarriak (4.896 tona):**

Ondorengo taulak industria-hondakin birziklagarrien portzentaje-eboluzioa nolakoa izan den erakusten du:

248. taula. Industria-hondakin birziklagarrien portzentaiaren (osoarekiko) bilakaera

	2002	2003	2004	2005
Kartoi industriala	16,55	17,14	17,82	19,35
Baimendutako kudeatzaileen kartoia	40,68	36,57	34,32	31,32
Paletak/egurra/zurgintza	33,69	36,32	37,95	40,93
Plastiko birziklagarriak	0,51	0,57	0,58	0,50
Pneumatikoak	0,14	0,16	0,26	0,22
Burdinak eta metalak	8,43	9,23	9,07	7,68

2004. urtean geldo izendatzen diren bildutako industria-hondakinen kopurua %38,72 handiagoa izan da aurreko urtekoarekin alderatuta, eta bildutako birziklagarrien kopuruak %13,46 egin du gora. Biak kontuan hartuta, %24,18 gehiago bildu da.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak adierazi du, material birziklagarri kopuru hori biltzeko, enpresen jarraipen eta kontrol zuzena egin dutela, eta enpresen produkzio-motaren arabera antolatu dituztela jarduerak eta horietara moldatu.

Atez ateko hondakin-bilketa sistema ere ezarri da, eta enpresek eta tailerrek ekoizten duten hondakin-motaren araberako edukiontziak jartzean datza.

Industria-hondakinen bilketa-zerbitzuaren eboluzioa nolakoa izan den erakusten du ondorengo taulak:

249. taula. Industria-hondakinen bilketa-zerbitzuaren bilakaera

Bilketa-zerbitzua	2002	2003	2004	2005	2006
Industria-poligonoetan atez ateko zerbitzu zuzena duten enpresa kopurua	521	587	621	650	833
Zerbitzuetan dauden edukiontzi-kopurua	41.478	43.240	51.321	-	-

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak honako hau adierazten du:

- Enpresek lehen baino parte hartze handiagoa dute zatiak bereizten.
- Industrialdeetan zeuden industriako bolumen handiko gaiak botatzeko gune beltzak kentzen ari dira, hainbat enpresak (besteak beste, arotz-lan metalikoak egiten dituzten enpresek) hondakinak San Nartzisora eramaten baitituzte.
- Industria-arotzeria sartzeak eta industria-egurren bilketa-lerroa zabaltzeak (altzariak eta tratatutako egurrak ere kontuan hartuz) eragin positiboa izan du, birziklatutako egur-kopurua handitu egin baita.

5.4.3.3. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak:

Txingudiko eskualdean San Nartzisoko Hondakinen Depositu Alternatiboan uzten diren hondakin-mota horren inguruko datuak bakarrik ditugu.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak dio hondakin-mota hori ez dela erabat ondo kudeatzen: Ibarbideetan betelanak egiteko hondakin horiek garraiatzen dituzten garraiolariak, kontrolik gabeko isurketak, hondakin-nahasketa kontrolik gabe erre obretan, etab.

Arlo horren inguruan egin zen ikerketa estrategiko baten arabera, 2003an egin zuen deialdia Gipuzkoako Aldundiak, honako behar hauek hauteman zituzten: azpiegitura, jarduerak koordinatu (Lurralderako Plan Integral baten bitartez), kontrolerako eta jarraipena egiteko zenbait elementu ezarri eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko planak egin obra-proiektuetan.

2003.urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak eraikuntza eta eraispenen ondorioz sortzen diren hondakinen kudeaketari buruzko azterlan bat egiteko lanak esleitu zituen. 2005. urtean azterketa horren emaitzak aurkeztu ziren eta Foru Aldundiak bertatik ondorioztatu zuen Donostialdean hondakin horiek tratatzeko planta finko bat kokatzeko beharra zegoela eta gainontzeko mankomunitateei zerbitzua eskaintzeko planta mugigarri bat edukitzea. Horrez gain, transferentzia estazio bat edukitzea Tolosaldeko eskualdean. Era berean, 16 *Garbigune* berriren sare 1 egitea proposatu zuen Aldundiak, egun dagoen sarea lurralde ikuspuntu batetik handitzeko. Garbiguneen bidez saihesten dira, besteak beste, hondakinen kontrolik gabeko isurketak. Horretarako, isurketa-puntua hiritarrari, etxeko obra txikiak egiten dituzten gremioei, dendei eta bulegoei hurbiltzen zaie. Gainera, ahal izanez gero, hondakinak berreskura daitezke.

Gipuzkoako Hiri Hondakinen azpiegituren Lurralderako Arloko Planeko 5.3.1 puntuan jasotzen dena kontuan hartuz, Bidasoa-Txingudiko eskualdean etorkizunean 2 Garbigune gehiago egitea aurreikusten da (orain martxan dagoen Garbigunea San Narciso-koa da), 2016 urterako eskualdean orotara 3 Garbigune egongo direlarik. Horietako bat, Arasoko Garbigune berria izango dena, 2007ko abenduaren 10ean eraikitzen hasi zen Txingudiko Zerbitzuen mankomunitatea, bolumen handiko hondakinak eta hiri bideetan jarritako edukiontzietan bota behar ez den guztia bertara eramateko. Garbigune berriak 3.500m^{2}ko azalera izango du eta Decathlon-en atzealdean kokatuko da (Txingudi merkataritza gunean). Obra horiek ORSA. S.L. enpresari esleitu zaizkio 744.646,48 eurotan, eta bost hilabeteko epea izango du egiteko.

Honakoak dira Arasoko Garbigunera eraman ahal izango diren hondakinak:

- Lerro marroi eta grisa**:** telebistak, bideoak, musika ekipoak, ordenagailuak, faxak..
- Lerro zuria: hozkailuak, garbigailuak, mikrouhin labeak...
- Obra hondakinak: komunak, konketak, azulejoak, oholtzak, hodiak, obra hondakinak...
- Bolumen handiko hondakinak: altzariak, koltxoiak...

- Bestelakoak: zurezko paletak, eta tratatu gabeko hondakin geldoak, egurra, inauste eta lorezaintza hondakinak, pladurra, eskaiola, pneumatikoak...

Txingudiko Zerbitzuen mankomunitateak kudeatu dituen eraikuntza eta eraispenetatik eratorritako hondakinen datuak entitate honen urteko memorietan aurki daitezke. 2006 urteari dagokionez, San Narcisoko Garbigunean mota honetako 2.569.120 Kg hondakin kudeatu ziren.

Egun, obra txikietan sortzen diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinak San Nartzisoko Hondakinen Depositu Alternatiboan biltzen dituzte. Hondakin horiek, azkenik, San Markoseko eta Arasoko zabortegiak estaltzeko eta egokitzeko bigarren mailako materialtzat erabiltzen dira.

2003. eta 2006. urteen bitartean jarraian adierazten diren kopuruak kudeatu ziren:

250. taula. Kudeatutako eraikuntza- eta eraispen-hondakin kopuruak (2003-2006)

2003 (tona)				**2004 (tona)**			
Obra-hondakinak	Beira laua	Portzelana	**Guztira**	Obra-hondakinak San Nartziso	Beira laua	Portzelana	**Guztira**
1.260	84	718	**2.062**	1.223	90	503	**1.816**
2005 (Tn.)				**2006 (Tn.)**			
Escombro	Beira laua	Portzelana	**Guztira**	Obra-hondakinak San Nartziso	Beira laua	Portzelana	**Guztira**
2.443	96	475	**3.015**	2.125	123	321	**2.569**

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Obra handietako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, Txingudiko Zerbitzuak elkartearen eskumenekoak ez direnak, edukiontzi trapezoidaletan biltzen dira eta zenbaitetan ez da jakiten zer egiten den hondakin horiekin. Lursailetan uzten dira kontrolik gabe, ez dugu daturik uzten diren kopuruen inguruan.

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak egoera aztertu ondoren, adierazten du ez dagoela lurralderako plan integralik horretan aritzen diren eragile guztien jarduerak koordinatzeko eta koordinatutako kontrola eta jarraipena egin behar dela. 2004. urteko memorian, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen arloan hautemandako beharrak zein diren erakusten da. (www.txinzer.com)

5.4.3.4. Hondakin Arriskutsuak eta Sanitarioak

Irungo eta Hondarribiko enpresek eta hainbat erakundek sortutako hondakin arriskutsuak baimendutako gestoreek kudeatzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila arduratzen da kudeaketa horiek egokiak izateaz. Hondarribian modu espezifikoan sortutako hondakin arriskutsuen kopuruari edo tipologiari buruzko daturik ez dago eskuragarri.

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak hondakin arriskutsuak kudeatzeko zerbitzua ematen die urtean 10 tona baino gutxiago sortzen dituzten enpresei. Ohiko prozesua honako hau izaten da: enpresak Ganberari kontsulta egin, gero enpresa kudeatzaileak mezu bat bidali edo dei bat egin, ondoren eskaintza egin, onarpen-dokumentuak bidali, eta, azkenik, hondakinak bildu.

Hurrengo taulan, azken 7 urteetan, Gipuzkoan, Ganberak emandako zerbitzuaren bitartez kudeatu diren hondakin-kopuruak adierazi dira. Ikus daitekeenez, bilakaera oso positiboa izan da.

251. taula. Ganberak emandako zerbitzuaren bitartez kudeatu diren hondakin-kopuruak. Gipuzkoa

	2.001	2.002	2.003	2004	2005	2006	2007
Jasotako deiak	265	385	337	294	302	280	
DSA duten enpresa kopurua	123	228	340	407	506	586	639
Bilketa kopurua	85	199	289	335	399	416	450
Kudeatutako Kg kopurua	148.510	238.619	360.243	434.465	443.298	433.959	523.761

Iturria: Gipuzkoako Merkataritza Ganbera

DSA duten enpresa kopurua: Gestorearen onespen dokumentoa jaso duten enpresa kopurua. Honetarako enpresak lehenagotik gestorearen eskaintza onartu behar du. Urtez urte batzen den zifra metatua da.

Bilketa kopurua: artero emnadako zerbitzuak.

Txingudiko eskualdean aztertu diren enpresak eta zerbitzuaren bidez kudeatu dituzten hondakinak honako taula honetan zehaztu dira:

252. taula. Txingudiko eskualdean aztertu diren enpresak eta zerbitzuaren bidez kudeatu dituzten hondakinak

Epealdia	Informazioa jaso duten enpresak	Eskaintza jaso duten enpresak	Eskaintza onartu duten enpresak	Egindako kudeaketa kopurua (erretiroak)	Kudeatutako Kg kopurua
2001-2003an Bildutakoa	109	70	27	45	61.180
2004	22	15	8	42	59.266
2005	23	31	11	42	36.262
2006	14	18	3	44	37.648
2001-2006an Bildutakoa	168	134	49	173	194.348
2007ko lehen hiruilekoa	10	18	3	21	34.891
2007ko bigarren hiruilekoa	6	5	1	21	21.861
2007an Bildutakoa	16	23	4	42	56.752

Iturria: Gipuzkoako Merkataritza Ganbera

Eskualdeari buruzko datu historikoak aldi labur bati dagozkionez, ezin da ekoizle txikien kudeaketaren bilakaera zehatz-mehatz baloratu. Eskura dauden datuen arabera, 2004. eta 2005. urteen arteko bilakaera positiboa izan da.

Lortu diren datuek, 2001 eta 2007 urteen artean eman den eboluzioa positiboa izan dela adierazten dute.

5.4.3.5. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako hondakinak

Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako hondakinak jarduera horietan aritzetik sortutakoak dira. Bidasoa Bizirik elkarteak ustiapen horien eta eboluzioaren inguruan zenbait datu eman ditu, Txingudiko eskualdeari dagozkionak:

253. taula. . Nekazarita eta abeltzaintza ustiapenetarako bideratzen den lur azalera. Txingudi (1998-2004)

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
deklaratutako nekazaritza-azalera	1.743	1.836	1.881	1.649	1.202	1.172	1.195
deklaratutako baso-azalera	644	808	789	790	70	753	782
besteak	72	3	120	117	118	121	106
deklaratutako azalera guztia	2.459	2.647	2.790	2.556	2.050	2.046	2.083
	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
ustiapenak guztira	318	343	353	338	386	397	404
ustiapen tamaina	5,48	5,35	5,33	4,88	3,11	2,95	2,96

Iturria: Bidasoa Bizirik

Datu horien arabera, 2000. urteaz geroztik ustiapenek hartzen duten azalera-kopurua %34 murriztu da. Nekazaritzari eskainitako azalera-kopurua nahiko nabarmen murriztu da, eta basogintzak hartzen duen azaleraren eboluzioak gorabehera handiak ditu.

Eskualdeko ustiapen-kopuruak, guztira, gora egin du, eta nekazaritzak hartzen duen azalera, berriz, murriztu egin da; beraz, nekazaritza-azalera/ustiapen kopuruak behera egin du nahiko nabarmen.

Jarraian, ustiapen-motak zehaztuta erakusten dira:

254. taula. Hondarribia eta Iruneko ustiapen-motak

USTIAPEN-MOTA	IRUN	HONDA.	GUZTIRA	%GUZTIRA
Basogintza	82	11	93	12,64%
Behi-azienda duten ustiapenak	66	51	117	15,90%
Ardi-azienda duten ustiapenak	73	30	103	13,99%
Lore-laborantza duten ustiapenak	128	32	160	21,74%
Fruta-	49	45	94	12,77%

laborantza duten ustiapenak				
Baratze edo lore laborantza duten ustiapenak	59	88	147	19,97%
Negutegia duten ustiapenak	3	19	22	2,99%
Guztira	460	276	736	100

Iturria: Bidasoa Bizirik

- **Nekazaritzako hondakinak**

Arestian erakutsitako datuek adierazten dute 2004. urtean 152 nekazaritza-ustiapen zeudela Hondarribiko udalerrian.

Ustiatzeko modukoak ez direlako albo batera uzten diren hondakin organikoez gain (sustraiak, zurtoinak, etab.), eta hondatutakoez (usteldutakoa) eta landare-osasunerako ontziez gain —horiek guztiak zenbatzea oso zaila da, erraz zatitzen baitira—, hondakin plastiko kopuru handia sortzen da, belar-boletakoak batez ere, eta negutegietakoak ere bai, gutxiago horiek.

Eskualdeko ekoizleek belar-bolak "biltzeko" plastikoak eta negutegi-plastikoak gaika biltzeko zerbitzua dute; hain zuzen, zerbitzu hori Foru Aldundiko Nekazaritza Departamenduak sustatu eta Behemendi Landa Garapen Elkarteak gauzatzen du.

Ustiatzeko modukoak ez direlako albo batera uzten diren hondakinak (sustraiak, zurtoinak, etab.) eta hondatutakoak (ustelduta) ongarri gisa erabiltzen dira lursail horietan beretan. Bestalde, landare-osasunerako ontziak baimendutako zerbitzurako izaten dira. Azkenik, belar-boletako hondakin plastikoak eta negutegietako hondakin plastikoak, azken horiek gutxiago, birziklatu egiten dira.

- **Abeltzaintzako hondakinak**

2004. urtean, Hondarribian, 81 abeltzaintza-ustiategi zeuden.

Abeltzaintza-jardueratik sortzen diren hondakinak bi multzotan bana daitezke: gorotzak edo mindak eta animalia gorpuzkiak.

- Mindak. Abeltzaintza-hondakin handiena da eta abereen sabelustearen ondorioz sortzen da. Ustiapen intentsiboetan bakarrik dira kontuan hartzeko modukoak, abelburu kopuruagatik eta ekoizpen-kontzentrazioagatik.
- Animalien gorpuzkiak. Abeltzaintza-ustiapen intentsiboetan eta abeltzaintza-ustiapen estentsiboetan arrazoi desberdinengatik mendian hildako animaliak (inork hil gabe) Behemendik zenbatzen ditu partzialki, eta ez ditugu Irun eta Hondarribiari dagozkien datuak banatuta.

Nekazaritza-hondakinekin gertatzen den bezala, Behemendi Nekazaritza Garapenerako Agentziak mindak kudeatzeko zerbitzu bat ematen du; hain zuzen, upelen bidez ukuiluko minda hustu egiten dute, eta, ondoren, ongarri organikotzat zelaietan zabaldu edo, bestela, tratatzeko eramaten dute.

Ustiapenetan edo mendian hildako animalien kudeaketa Behemendi Nekazaritza Garapenerako Agentziak eskaintzen du, baina zenbait aldaketa izan dira 2001eko uztailean Entzefalopatia Espongiforme Transmitigarria EET gaixotasuna azalduz geroztik (behi eroak), araudia aldatu egin baita eta haietara egokitu behar izan dute. 12 hilabete baino gehiago dituzten behiak Arriskuko Material Espezifikotzat (AME) hartzea, baita edozein adinetako ardiak eta ahuntzak ere, aldaketak eragiten ditu espezie horien bilketan. Egun, Foru Aldundiak biltzen eta garraiatzen ditu hildako abelburuak.

Mindak lursailetan eta zelaietan ongarri erabiltzen dira —nork bere lursailean edo beste norbaitenean— eta horretarako kuota-erosketa sistema dago. Animalien gorpuzkiei dagokienez, antzina, San Markoseko zabortegira eramaten ziren eta han karearekin lurperatzen ziren. Gaur egun, erre egiten dira.

- **Basogintzako hondakinak**

2004. urtean, 43 basogintza-ustiategi zeuden Hondarribiko udalerrian.

Ustiategien ondorioz sortutako hondakinak inausketa- eta garbiketa-hondarrak dira, baita bestelako baso-ustiapenen batetik sortutakoak ere. Ez dakigu hondakin-mota horren kopurua zenbatekoa den. Ez dute berariazko probetxurik, egurrak izan ezik; aldian-aldian jabeek berek ematen diote

probetxua edota zenbaitetan Udalari eskatzen diote beste norbaitenak edo udalarenak.

Egoera berezietan, baina oso gutxitan, lehengai bihurtzen dira; hesola, esaterako, itxiturak egiteko.

Batez ere, lurzoruaren ongarri eta mantenugaien ekarpen natural gisa erabiltzen dira.

5.4.4. Bide-garbiketa

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak adierazi du 2004ko uztailaz geroztik garbiketa-zerbitzuak optimizatu egin direla, garbiketarako ibilbideak diseinatu direnetik; diseinu hori ondorengo adierazleen arabera eta kale-antolaketaren arabera egin da:

- Oinezko asko ibiltzen den merkataritza-guneak.
- Ikastetxe, kirol-zentro eta jolastokietako inguruak eta sarrerak.
- Parkeak, plazak eta haurren jolasak dauden eremuak.
- Ostalaritza-dentsitate handiko zonaldeak (pubak, diskotekak, tabernak, etab.).
- Biztanleria-dentsitatea eta auzo-mota.
- Urte-sasoia, klima eta biztanleen ohiturak.
- Ibilgailuen trafikoa, errepide laster eta kaleko aparkalekuak.
- Ohiko puntu beltzak eta zonalde gatazkatsuak.
- Eskailerak, hiri-altzariak eta garbiketa eragotzi edo garbitzea ezinezko egiten duen edozein ekipamendu dauden lekuak.

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak, 2004ko memoria

Horien arabera erabakitzen da zein maiztasunarekin garbitu behar diren, eta sortzen den benetako zikinkeriaren arabera.

Sortzen diren arazoei eta jasotzen diren kexei dagokienez, ondorengo tauletan erakusten dira, arazo-motaren eta eskatu duen erakundearen arabera banatuta:

255. taula. Bide-garbiketari buruzko kexak arazo-motaren eta eskatu duen erakundearen arabera I

		JASOAK		KONPONDUAK		DESEGOKIAK	
BG	Paperontzia (matxura eskaerak)	148	%9,85	138	%93,24	10	6,76
	Kale-garbiketa	440	%29,27	344	%78,18	96	21,82%
	Hildako animaliak	25	%1,66	14	%56,00	11	44,00
	Etxaurreak(pintadak/kartelak)	101	%6,72	84	%83,17	17	16,83
	Ospaketak	61	%4,06	59	%96,72	2	3,28
	Bestelako kexak	32	%2,13	21	%65,63	11	34,38
	Garbiketa bereziak	47	%3,13	39	%82,98	8	17,02
	Bestelako gertakariak	10	%0,67	4	%40,00	6	60,00
	Arratoien pozoia	639	%42,51	639	%100,00	0	0,00
1.503		1503	%100,00	1342	%89,29	161	%10,71
		1503		1342	%89,29	161	%10,71

256. taula. Bide-garbiketari buruzko kexak arazo-motaren eta eskatu duen erakundearen arabera II

		BG	
HOND. UDALA	UDALETXEA	13	0,86%
2,66%	TOKIKO POLIZIA	18	1,20%
	HHZ.	9	0,60%
IRUNGO UDALA	PEL. CIUD.	37	2,46%
	ALKATETZA	18	1,20%
	KULTURA	42	2,79%
	B.SOCIAL	2	0,13%
32,14%	POLITIK TALDEAK	1	0,07%
	OBRAS Y MNTO.	7	0,47%
	URBANISMO	2	0,13%
	BESTEAK	1	0,07%
	HHZ.	296	19,69%
	TOKIKO POLIZIA	77	5,12%

KIROL/KUL./GAS. ELK.	**7**	**0,47%**
KOM./OSTEL. ELKARTEAK	3	0,20%
BIZILAGUN ELK.	**31**	**2,06%**
JABEKIDEAK	54	3,59%
FCC	**93**	**6,19%**
PARTIKULARRAK	767	51,03%
TXINGUDIKO ZERB.	**25**	**1,66%**
	1.503	100,00%

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak, 2004ko memoria

Jasotako eskaeren %51 partikularrenak dira; eta nabarmentzeko modukoa da eskarien %42k arratoien inguruko arazoarekin zerikusia dutela. Txingudiko Zerbitzuak elkarteak adierazi du zenbait zonaldetan arratoiak agertzea obren ondorio izan dela (batez ere Irunen), karraskarien habitatean eragiten baitute. Obra horiek, era berean, bestelako arazo batzuk ere eragiten dituzte: lokatz-arrastoak, hautsa harrotu, hirigunean begi-inpaktua.

Horren inguruan, Txingudiko Zerbitzuak elkarteak adierazi du *etxebizitza berriak eta industrialdeak eraikitzen ari direla —Irunen 1.500 biztanle inguru gehiago izango dira eta Hondarribian 400, etxebizitzak epeka ari dira entregatzen—, eta ondorioz, 2005ean ere egoera berdintsua izango dela*.

Bilakaerari dagokionez, eskaera kopurua txikiagoa da (2003an 1.587 eskaera izan ziren, eta 2004an 1.503). Aurreko urteetan zenbat kexa/eskaera izan ziren ez dakigu; beraz, bilakaera-aldia 2003-2004 urteetara mugatu da. Garbitasun-, paperontzi- eta fatxada-eskaerak epe horretan pixka bat gehiago izan dira, eta arratoi-garbiketaren ingurukoak gutxiago izan dira.

Guztira, 2004. urtean, 904 ordu eman dira Hondarribian bide-garbiketak egiten.

5.4.5. Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala 2002-2016 (PIRUAT)

Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Kudeaketarako Plan Integralaren helburua honako hau da: "Etorkizuneko hiri-hondakinen kudeaketak kalitatezko zerbitzua eskaintzea hiritarrei, arrazoizko prezioan eta ingurumenarekiko babes-maila guztiak kontuan hartuta, eta indarrean dagoen arautegiak eskatzen duen guztia eta garapen iraunkorraren printzipio guztiak betetzen direla".

Plan estrategikoak Txingudiko zonaldeko lurralde-eremua hartzen du, eta Hondarribiak, Irunek eta Hendaiak osatzen dute.

Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala ezarriko den epeari dagokionez, hondakin-isurketei buruzko Zuzentarauak ezarritakoaren araberakoa da, eta 2002-2016 epea izango duela erabaki da. Plana ondo kudeatzeko eta gauzatzeko epea hiru alditan zatitu da: 2002-2006, 2006-2009 eta 2010-2016.

5.10 Planaren printzipio estrategikoak

Plan Integralaren politika eta jarduera baldintzatzen duten printzipio estrategikoak honako hauek dira[14]:

Europako Erkidegoko Kudeaketa-hierarkiaren printzipioa. Hondakin-kudeaketarako Europako Erkidegoko Estrategiak, 1990ekoa (R4), definitutako hondakinen kudeaketarako aukeren hierarkia-mailak ezarritakoari jarraiki, eta 1996ko Europako Erkidegoko Estrategiak (R5) (R6) eta Europako gainerako Programek eta Zuzentarauek berretsitakoa, Plan Integralak ondorengo lehentasun-ordenaren arabera gauzatzen ditu jarduerak:

- Prebentzioa
- Balorizazioa
  - Birziklatu, konposta egin
  - Energiaren aprobetxamendua
- Ezabatu

Bai hondakinen kudeaketarako Europako Erkidegoko hierarkia, bai gainerako printzipioak eta lehentasunak malgutasunez ezarri behar dira, eta egoera jakinen baldintzetara egokitu behar dira, baina ikuspegi globala kontuan hartuta.

Horrek esan nahi du, hondakin-kudeaketa jakin batean lehentasunen ordena alda daitekeela (esate baterako, birziklatu, berriz erabili ordez) nabarmena baldin bada, ingurumenaren ikuspegitik, hartutako erabakiak kalte gutxiago eragingo dituela.

Horrela onartzen du Europar Batasuneko Eskualdeetako Komiteak egin zuen txostenean, "hondakinen sorrerarako Europako Erkidegoko Estrategiaren

[14] Iturria: Irungo Udala

ikuskapenari buruzko Batzordearen jakinarazpenean" (HAMABI, 116/74-80 zk., 97/4/14koa); "...bereziki adierazi nahi dugu nahitaezkoa dela malgutasun-tarte bat aurreikustea lehentasunen printzipioan materialen balorizazioa ezartzerakoan, ezaugarri geografikoak kontuan hartzea posible izan dadin; esate baterako, biztanleriaren dentsitatea, materialak berriz tratatzeko instalazioak badiren, baita kaltetuta dauden materialen ezaugarriak ere".

Kudeaketa Integratuaren Printzipioa. Aurreko printzipioa, bestalde, Kudeaketa Integratuaren Printzipioa kontuan hartuta ezarri behar da; izan ere, printzipioak dio kudeaketa-maila bakar bat edo azpiegitura bakar bat ez dela gai bera bakarrik hondakin guztiak kudeatzeko, ezin direlako aurreikusi sortuko diren hondakinak, hondakin guztiak ezin direlako birziklatu edo guztiekin ezin delako konposta egin.

Beraz, iraunkortasuna helburu dela kudeatu behar da, hondakinek dituzten baliabideak —materialak eta energia— ahalik eta gehien aprobetxatuta, eta prebentzio-jarduerak aurreikusteaz gain birziklatzeko jarduerak eta azpiegitura ere aurreikusi behar da kudeatzerakoan; eta, azkenik, isurketa-jarduerak ere aurreikusi behar dira, aprobetxatzeko beste aukerarik ez duten hondakinekin, osagarri arriskutsuak edo arriskugarritasunak ezabatu ondoren, beti ere.

Kudeaketa aurreratua honako honetan oinarritzen da: kudeaketa integratua, Europako Erkidegoko Hierarkia-maila guztietan jarduerak egiten direla, eta horien guztien nahasketak kudeaketa alternatiboak osatzen dituela.

Hiri-hondakinak (HH) sortzeko orduan Prebentzio-printzipioa. Hondakinak ahalik eta gehien gutxitzeko Nazio Batuen helburuari jarraiki, eta Europar Batasunak proposatutakoari jarriki, hau da, gero eta hondakin gehiago sortzeko egungo joera eten egin beharko litzatekeela eta ahal den neurrian kontrako joerari ekin, Plan Integralak aintzat hartzen du hondakin-kopurua gutxitzeko beharra, edo, behinik behin, gero eta hondakin gehiago sortzearen joera moteldu, eta prebentzio-jarduerak antolatu nahi ditu, herri-mailan prebentzio-jarduerek duten mugak kontuan hartuta.

Hhak balorizatzeko maximizazio-printzipioa. Plan Integralak, Nazio Batuen helburuekin eta Europako Batasunaren printzipio eta adierazpenekin eta, bereziki, 5. programan adierazitakoarekin (alegia, hondakinak poluzio-iturri potentzial bat izateaz gain, bigarren mailako lehengaiak izan daitezkeela) edota hondakinei buruzko Zuzentarauetan hondakinetatik abiatutako lehengaien berreskuratzearen eta energiaren produkzioaren

sustapenari dagokionez, behin baino gehiagotan adierazitakoarekin bat eginik, material berreskuragarriak eta hondakinetan bildutako energia ahalik eta gehien balorizatzea hartzen du printzipio gisa.

Energia aprobetxatzeari dagokionez, Plan Integralak 1990eko Europako Erkidegoko Estrategiaren 8. zenbakian ikusizkoarekin bat egiten du errausketa hondakinen bolumena murrizteko eta energia berreskuratzeko baliabide baliagarria izan daitekeela adierazten duenean.

Halaber, Plan Integralak 1996ko Europako Erkidegoko Estrategiak berretsitakoarekin bat egiten du, lehentasun handiena hondakinen prebentzioa dela eta, ondoren, balorizazioa eta, azkenik, hondakinen deuseztapen segurua direla dioenean.

Hhak isurtzeko orduan minimizazio-printzipioa Europako Erkidegoko printzipio orokorrei eta isurketara bideratutako hondakin-kopurua eta hondakin-toxikotasuna murriztu behar direla dioen 1990eko Europako Erkidegoko Estrategiaren 8. zenbakia ikusizkoaren adierazpenari jarraiki.

1996ko Europako Erkidegoko Estrategiaren 53. atalari jarraiki, bertan adierazten denez, hondakinak isurtzeak irtenbiderik txarrena eta azkena izan beharko luke, ingurumenean eragin handia baitu, epe luzerako ondorioak kontuan hartuta batez ere. Halaber, hondakinen kudeaketari lotutako estrategietan isurketa saihestu beharko dela adierazten du, eta, ezinezkoa izanez gero, zabortegira bota beharreko hondakinen kantitatea ahalik eta gehien murriztuko da, hondakinen prebentzioari eta balorazioari lotutako jardueren bidez, bereziki. Azkenik, balorizatu ezin diren hondakinak eta hondakin geldoak bakarrik onartu beharko liratekeela zabortegietan adierazten du.

Era berean, lehentasun gisa hondakin horien azken deuseztapenaren murriztapena aipatzen duen ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko Zuzentaruak egindako zehaztapenekin bat eginik.

Plan Integralak Hhen isurketa minimizatzea eta isurketa "azken hondakinetara" mugatzea proposatzen du, Frantziako 92/646 Legean deskribatzen denaren arabera (E32). Lege horrek azken hondakinentzat egungo baldintza tekniko eta ekonomikoetan eta, bereziki, zati balorizagarria erauztearen edo bere izaera poluitzaile edo arriskutsua murriztearen bidez tratatu ezin den hondakin oro hartzen du (hondakin baten tratamenduaren emaitzazkoa zein bestelakoa).

Mugaz haraindiko laguntzaren printzipioa. Gai honen inguruko Europako politikaren esparruan, Plan Integralak mugaz haraindiko laguntza oinarrizko elementutzat hartzen du, Planaren lurralde-eremua definitzerakoan; planak Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalerriek osatutako Txingudiko eskualdea hartzen du.

Laguntza behar ez izatearen printzipioa. Hondakinen kudeaketari lotutako printzipio hori oinarrizkoa da Europako Batasunean zein nazioartean. Eta hori bera da Plan Integralak helburutzat proposatzen duena; hau da, Txingudiko eskualdea (Irun, Hondarribia eta Hendaia) gai izatea lurraldean sortutako HH gehienak kudeatzeko: bildu, bereizi eta balioa eman.

Dena dela, Plan Integralak printzipio hori mugaz gaindiko laguntzaren printzipioekin eta aldameneko kudeaketa-unitateekin (aurrerago landuko ditugu) batera proposatzen du, eta printzipio horren interpretazio juridikoaren esparruan ere bai.

Hurbiltasunaren printzipioa. Europako Erkidegoko zein nazioarteko esparruko printzipio horrek hondakinak sortzen diren lekutik ahalik eta hurbilen kudeatzeko beharra planteatzen du. Plan Integralak printzipio horren espiritua betetzen du, Txingudiko eskualdean —Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalerriek osatutako lurralde-eremua— eta, nolanahi ere, alboko lurraldeetan sortutako hiri-hondakin gehienak kudeatzea proposatzen baitu.

Hori guztia, printzipio horren interpretazio juridikoaren esparruan.

Aldameneko Kudeaketa Unitateekin Lankidetza-printzipioa. Plan Integralak printzipio hori laguntzarik behar ez izatearen eta hurbiltasunaren printzipioekin lotzea proposatzen du eta, horrela, mugaz haraindiko laguntzaren printzipioarekin hasitako bidea laguntzarekin osa dadin; batez ere, zenbait azpiegitura —birziklatzeko, balorizatzeko eta deuseztatzeko— Txingudiko eskualdearen aldameneko kudeaketa-unitateekin batera erabiltzerakoan; hau da, San Markoseko Mankomunitatea eta, hedaduraz, Gipuzkoako lurralde historikoaren gainerakoa, Syndicat Intercommunal pour l´Elimination de Déchets de la Côte Basque Sud (SIEDCBS), bai eta gainerako Euskal Herria ere.

Administrazio-subsidiariotasunaren eta erantzukizun partekatuaren printzipioa. Europako Erkidegoko jardunean batera aplikatzen diren bi oinarrizko printzipio dira, eta hala jasotzen ditu ingurumenaren arloa lantzen duen 5. Ekintza Programak.

Arestian garatutako lankidetza-printzipioekin batera lotuta landu behar diren printzipio horiei jarraiki, Txingudiko eskualdeak Plan Integrala ondorengoan oinarrituta gauzatuko du: lurralde-eremuaren barnean kudea daitezkeen hiri-hondakin guztiak eremu horretan bertan kudeatuko ditu eta eremuko udalerriek zenbait hondakin irizpide tekniko, ekonomiko edo ingurumenari dagokionengatik kudeaketa-unitate zabalagoen bitartez gestionatu behar direla uste badute, beste administrazioetara joko dute kudeaketa-maila hedatuagoetan irtenbide partekatuak bilatzeko.

Prezio-gardentasunaren printzipioa. Prezioen gardentasuna, hondakinen kudeaketa-kostu guztiak islatzen dituen prezioen politika gisa ulertuta, Nazio Batuen helburuetan eta Europako politiketan jasotako xede bat da.

Horrela, adibide moduan, hondakinak isurtzeari buruzko 199/31/EE Zuzentarauak printzipio hori jasotzen du; izan ere, bertan adierazten denez, Estatu kideek zabortegi bat ezartzeak eta ustiatzeak eragiten dituen kostu guztiak erakunde ustiatzaileak zabortegi horretan edozein hondakin-mota deuseztatzeagatik kobratzen duen prezioarekin estalita geratuko direla bermatzeko bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

Printzipio hori aplikatuta, Plan Integralak Hhen kudeaketa-kostu garbiak gutxienez tarifa bidez erabiltzaileei ezarri beharreko azken prezioei eranstea proposatzen du.

Kudeaketa-kostu garbitzat honako hau hartzen da: guztizko kostuek (amortizazioa barne hartuta) eta birziklatzeko materialen salmentarekin, sortutako energiarekin edo etxeko ontzien kudeaketaren ondoriozko birziklatzerako ekarpenekin lortutako sarrerek elkarren artean duten diferentzia.

Printzipio horrek "poluitzen duenak ordaindu egin behar du" dioen printzipio orokorra islatzen du praktikan.

Informazio-gardentasunaren printzipioa. Kudeaketa demokratikoari, oro har, eta ingurumenaren kudeaketari, bereziki, lotutako oinarrizko printzipio hori nazioarteko instantzia guztien helburuen artean jasota agertzen da.

Printzipio hori, gainera, Nazio Batuek komunitateek hondakin solidoen kudeaketa egiteko prozeduren plangintzan eta aplikazioan izan beharreko parte-hartzea instituzionalizatzeko duten helburua bete aurretik hartu behar da kontuan.

Printzipioak aplikazio bikoitza du:

- Hiritarren eta, beraz, komunikabideen aurrean.
- Politika, gizarte eta erakundeetako ordezkarien aurrean.

5.11 Eremu objektiboa

Printzipio horiek ezartzeko eta hondakinei buruzko Zuzentarauak dioenari jarraiki, Plan Integralak 2016. urterako eremu objektibo bat ezarri du, balorizazioaren eta deuseztatzearen inguruan. Honako hau da:

257. taula. Kudeaketa integratuaren helburuak (RD&RICIA hondakinen inguruan) lurraldeka, 2016rako

Kudeaketa integratuaren helburuak (RD&RICIA hondakinen inguruan) lurraldeka, 2016rako					
Lurralde-eremua	Balorizazioa			Ezabatu	Guztira
	Birziklatu (%)	konposta egin (%)	Errausketa, energia berreskuratuta (%)	Isurketa (%)	(%)
Txingudiko Mankomunitatea (Irun, Hondarribia)	37,1	3,8	59,1	0	100
Txingudiko zonalkdea (Irun, Hondarribia, Hendaia)	36,7	3,8	59,5	0	100

Iturria: Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala

Hau da, Txingudiko eremurako:

- Birziklatutakoaren kopurua, konposta barne, sortutako hiri-hondakin guztien %40,5 izango da.
- Errausketa bidez, energia berreskuratuta, sortutako hiri-hondakin guztien %59,5 ezabatuko dira.
- Lehen mailako hiri-hondakinak ez dira isuriko, aldez aurretik tratatuak izan ez badira.

Helburu nagusia kudeaketarako Europako Erkidegoko Hierarkiaren Printzipioaren arabera hondakinen tratamendu integratua egitea da: gaika bildutako (kalitateari lehentasuna emanda) hondakinak ahalik eta gehien birziklatu eta konposta egin, eta, azken irtenbide gisa, berriz erabili ezin diren hondakinak edo birziklatu ezin direnak erre edo balorizazio energetikoa eman.

Hiri-hondakinaren motaren arabera, 2026. urterako helburuak Txingudiko eremuan jarraian aipatzen direnak dira:

258. taula. Kudeaketa integratuaren helburuak (RD&RICIA hondakinen inguruan), 2016rako

Kudeaketa integratuaren helburuak (RD&RICIA hondakinen inguruan), 2016rako										
Hondakin-mota	**Balorizazioa**						**Ezabatu**		**Guztira**	
	Birziklatu		konposta egin		Errausketa		Isurketa			
	Tona/urte	%	Tona/urte	%	Tona/urte	%	Tona/urte	%	Tona/urte	%
RD	10.952	31,6	1.426	4,1	22.240	64,3	0	0,0	34.618	100
RICIA	9.049	47,0	578	3,0	9.626	50	0	0,0	19.253	100
RU	20.001	**37,1**	2.004	**3,8**	31.866	**59,1**	0	0,0	53.871	100

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Helburu horiek lortzeko, behar diren politikak, jarduera-programak eta azpiegiturak definitzen dira.

Halaber, sortutako hiri-hondakinen kopurua ahalik eta gehien murrizteko jarduerak zehazten dira, hondakin motaren arabera, gainera (lehen mailakoak, bigarren mailakoak eta hirugarrenekoak), bai eta hondakinak berriz erabili ahal izateko egin beharreko jarduerak ere. Horren guztiaren inguruan, gaineratu nahi dugu ezarri dugun murrizteko helburua azaltzea oso zaila dela; izan ere, Tokiko Administrazioak kontrolatu ezin dituen zenbait faktoreren baitan baitago: hazkunde ekonomikoa, hondakin gutxiago sortzeko politika fiskalak, etab.).

Proposatutako jarduera nagusietatik honako hauek dira nabarmentzeko modukoak:

- **Murrizteko jarduerak:**
    - Lehen mailako eta bigarren mailako hondakinak sortzen dituzten enpresa, erakunde eta sektoreko elkarte nagusiekin akordioak sinatu, hala nahi dutelako.

- Eskualdeko administrazioei hondakinak murrizteko zenbait neurri agindu bihur ditzan eskatu, kudeaketa-planak eta hondakinen murrizketa, esaterako; agindu horiek lehen mailako eta bigarren mailako hondakinak sortzen dituzten enpresa eta erakunde jakinentzat izango lirateke.
- Azken kontsumitzaileek hirugarren mailako hondakinak ahalik eta gutxien sortzeko jarduerak ezartzeari bultzada eman.

- **Berriz erabiltzeko jarduerak:**
  - Jabeak alde batera utzi behar dituen produktuen eta tresnen inguruan:
    - Tamaina handiko hondakinen gaikako bilketa sustatu
    - Irabazi-asmorik gabe hondakinak bildu, konpondu eta zaharberritu eta erabilitako gauzak eta tresnak saltzen dituzten elkarteak eta erakundeak lagundu.
    - Erabilitako tresnak eta gauzak saltzeko sistemak eta zirkuituak (azokak, feriak...) sortzeko laguntza eman.
    - Erabilitako etxeko produktuak erosi eta saltzen dituzten enpresak barreiatu
  - Ontziei eta enbalajeei dagokienez, horretan ari diren sektoreen artean akordioak sustatzen saiatuko gara, honetarako:
    - Berriz erabil daitezkeen hirugarren mailako enbalajeak erabiltzeko, erabilera bakarrekoak erabili ordez.
    - Eusteko eta handitzeko, hala dagokionetan, berriz erabil daitezkeen beirazko lehen mailako ontziak erabiltzen dituzten lekuak.
    - Berriz erabil daitezkeen beirazko lehen mailako ontziak biltzeko, garbitzeko eta komertzializatzeko.

5.12 Planaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren azpiegiturak

Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak ezarritako helburuei aurre egiteko beharrezkoak diren azpiegitura-multzoa zein diren zehaztu ditu. Gaikako bilketa egiteko edukiontzi berrietan oinarritutako azpiegitura; garbiguneak/dechéteries; birziklatzeko eta konposta egiteko azpiegiturak; balorizazio energetikoa lortzeko azpiegiturak; zepak heltzeko eta errautsak inertizatzeko plantak eta isurketarako azpiegiturak. Jarraian, horiek zehaztuko ditugu.

- **Edukiontzi berriak**

Gaikako bilketarako edukiontzi berriak jartzeko inbertsioari esker, helburua lortzea lortu da: biztanle / edukiontzi ratioa 300 baino txikiagoa da.

- **Garbiguneak / dechéteries**

Puntu garbiak edo Hondakinak Hautaz Biltegiratzeko Guneak (HHB) ere deitzen zaie; hondakinak biltzeko instalazioak dira eta jendea borondatez joaten da hondakinak bereizita botatzera. Autoz ere joan daiteke, eta etxean sortutako hondakinak edo profesionalek edo negozio txikietakoek ekoitzitakoak gaika biltzeko edukiontziak egoten dira.

Gaur egun, Txingudiko eskualdeak San Nartzisoko garbigunea du eta hondakinak biltzeko tarteko azpiegitura da.

San Nartzisoko Hondakinen Depositu Alternatiboan ondorengo hondakin hauek kudeatu ziren, eta azken 2 urteetan jarraian erakusten diren datuak bildu dira:

259. taula. San Nartzisoko Hondakinen Depositu Alternatiboan kudeatutako hondakinak

Hondakin-mota	2.003		2.004	
	Bidaia-kopurua	Pisua	Bidaia-kopurua	Pisua
Obra-hondakinak	173	1.195	153	1.247
Lerro marroia eta grisa	16	30	20	24
Egurrak	167	343	161	404
Metalak	31	79	35	97
Egur nahasketa	6	14	2	5
Pneumatikoak	1	8	1	14
Pladur igeltsua	18	62	29	110
Plastikoa	54	116	54	103
Inausketa-hondarrak	27		52	
Beira laua	18	85	17	90
Bolumen handikoak	145	254	184	307
Guztira	**656**	**2.562**	**708**	**2.402**

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Txingudiko Zerbitzuak elkarteak emandako datuen arabera, nabarmentzeko modukoa da konposta egiteko tratatutako inausketa-hondarren kopurua, %62,8 areagotu baita.

Plan Integralak 2006. urterako hiru garbigune eraikitzea proposatzen du (3 Irunen, 1 Hondarribian eta 1 Hendaian). Batez besteko dentsitate itxurazkoa 18.000 biztanle/garbigune ratioa lortzea da helburua. Aipatu nahi dugu Irunen garbigune bat eraikitzeko lanei ekiteko prozesua bukatzear dagoela eta, gainera, Hondarribian beste garbigune bat jartzeko proiektuari ekin berri diogula.

- **Birziklatze / konpostatzeko azpiegiturak**

Ezarritako helburuak lortzeko, Plan Integralak zehaztu ditu birziklatzeko eta konposta egiteko beharrezkoak diren azpiegiturak. Beraz, edukiontziez eta garbiguneez gain, konpost-planta bat, hondakinak bereizteko eta sailkatzeko plantak, eta etxeko hondakinak, industria-, merkataritza- eta erakunde-hondakin asimilagarriak tratatzeko birziklatze-plantak behar direla adierazi du.

Aipatu nahi dugu, planta horiek Txingudiko eremutik kanpo egongo liratekeela, beste mankomunitateekin batera erabiltzeko.

- **Balio energetikoa emateko azpiegitura**

Planaren arabera, hondakinak sortu ondoren, berriz erabili ezin daitezkeenei, ez birziklatu ez konposta ezin daitezkeen hondakinei balio energetikoa emango zaie errausketa-instalazioren batean eta energia berreskuratuko da; instalazio hori Txingudiko eremuan bertan eraikiko da eta abenduaren 4ko 2000/76/EE Zuzentarauak, hondakinak errausteari buruzkoa, xedatutako eskakizunak beteko ditu.

Txingudiko Hondakinen Plan Integralak eskualdeko biztanleria-kopuruaren eboluzioa eta hondakin-ekoizpenaren eboluzioa zenbatekoa izan daitekeen aurreikusi du, eta hazkundea neurrizkoa izango dela estimatu du, bai biztanle-kopuruari dagokiona, bai hondakin *per capitei* dagokiena. Aurreikuspena kontuan hartuta, errausketa-azpiegituraren tamaina eta bolumena egokitu dira.

Memento honetan, proiektua IPPC/EIA tramitean dago, eta, dagoeneko, legeak ezarritako entzunaldi tramitea bete da eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak horren inguruan ebazpena eman zain gaude.

Administrazioko derrigorreko tramite horiez gain, informazioaren eta komunikazioaren alorrean agerraldi publiko eta bilera asko egin dira, bai komunikabideetan, bai mota guztietako auzo-elkarteekin, informazioa eskatu baitzuten, eta PIRUATaren inguruan eta bilakaeran iritzi gehiago jakin nahi zituztelako, eta, bereziki, Zaldunbordako erraustegiaren inguruan.

Jarraian, jarduera edo ekitaldi garrantzitsuenak aipatzen dira, administrazioak araututakoez gain, horietan Txingudi Zerbitzuak elkarteak parte hartu baitu edo sustatu baititu:

1.- Akordioaren aurkezpen publikoa, mugaz haraindiko hondakinen inguruan plan bat idazteko, Txingudiko eta Hendaiako mankomunitateetako zerbitzu-elkarteen artean. Hiru alkateen prentsaurrekoa (2000/05/30); komunikabideetan oihartzun handia izan zuen.

2.- Irungo Udaletxeko Ingurumen Batzordearekin eta PIRUATa egin zutenekin bilera (2000/06/01).

3.Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateko Batzordeko kideei, Mankomunitatean ordezkaririk ez duten udaletxeko talde politikoei eta Hendaiako Udaletxeko zinegotziei PIRUATaren azken aurrerakina aurkeztu (2001/05/07).

4.- Hendaiako Udaletxeko osoko bilkurari PIRUATa aurkeztu (2001/06/01).

5.- Tarragonako erraustegira bidaia, Mankomunitateko, Irungo Udaletxeko eta Hendaiako Udaletxeko ordezkari politikoekin, Irungo Udaletxeko Ingurumen-teknikariarekin eta Bentak, Artia eta Larreaundiko zenbait auzokiderekin (21/06/2001).

6.Irungo auzo elkarte guztietako ordezkariei PIRUATa aurkeztu, aurreproiektua eta kokapen posibleak (2002/11/09).

7.PIRUATa eta erraustegiaren aurreproiektua aurkeztu Hondarribiko Udaletxeko pleno-aretoan (2003/03/11).
8.- Bentak auzoko auzo elkartean PIRUATa, erraustegiaren proiektuaren aurrerakina eta kokalekua aurkeztu (2003/06/02).

9.- Hendaiako Baleak elkartean PIRUATa, erraustegiaren proiektuaren aurrerakina eta kokalekua jendaurrean aurkeztu, Abertzaleen Batasuna talde politikoak hala eskatuta (2003/06/18).

10.- Hendaiako Udaletxeko osoko bilkurari erraustegiaren proiektuaren aurrerakina eta kokalekua, eta lankidetzarako mugaz haraindiko akordioa aurkeztu (2003/09/17).

11.Donostiako Alderdi Popularraren egoitzan erraustegiaren proiektua era kokalekua aurkeztu (2003/10/30).

12.- Jaitzubiko "A" partzelen Jabeen Elkarteko auzokideei erraustegiaren proiektua eta kokalekua aurkeztu, Golfeko egoitza sozialean (2004/01/14).

13.- Jaitzuabiako "A" partzelen Jabeen Elkarteko ordezkariekin Zaldunbordako partzela bisitatu (2004/02/03).

14.Jaitzubiko "A" partzelen Jabeen Elkarteko auzokideei erraustegiaren proiektua aurkeztu deialdi irekian; proiektuaren egileek aurkeztu zuten (2004/02/12).

15.- Irungo, Hondarribiko eta Hendaiako zinegotziei Zaldunbordako erraustegiaren proiektua aurkeztu (2004/02/20).

16.- Irungo PSOEren egoitzan Zaldunbordako erraustegiaren proiektua aurkeztu (2004/03/03).

17.Urdanibiako auzo elkartean erraustegiaren proiektua aurkeztu (2004/03/08).

18.- Irungo industrialdean erraustegiaren proiektua aurkeztu (2004/03/31).

19.- Iparraldeko zenbait herritarri erraustegiaren proiektua aurkeztu, Hendaiako Udaletxean (2004/04/05).

20.- Zaldunbordako Erraustegi-plantaren (Gaintxurizketa) proiektuari buruzko jardunaldiak antolatu, FICOBAn (Irun) (2004/04/20-21-22).
21.- Zaldunbordako erraustegiari buruzko mahaingurua antolatu, Txingudi ikastolan (2004/05/19).

22.- Irungo Batzokian erraustegiaren proiektua aurkeztu (2004/06/02).

23.- Nostian herriko (A Coruña) tratamendu mekaniko – biologikoaren planta bisitatu, Bentak auzoko auzo-elkarteko batzordeko kideekin, Irungo Alkatearekin eta Irungo Ingurumen zinegotziarekin (2004/12/17).

24.- Irungo Argoiak elkartean erraustegiaren proiektua aurkeztu (2005/02/16).

25.- Irungo Pio Baroja institutuan erraustegiaren proiektua aurkeztu (2005/03/23).

26.- Txingudiko Zerbitzuak elkarteko Administrazio Kontseiluko kideekin bidaia, Mallorcako, Danimarkako eta Suediako hondakinen kudeaketaren eta errausketaren inguruko esperientziak ezagutzera (2005/09/19tik 24ra).

2004. urtearen hasieraz geroztik, erraustegiaren kontrako protesta-mugimenduak izan dira, eta administrazioak araututako administrazio-izapideen bidez kezkak bideratzeko aukera izan dute; zehatz-mehatz lehen aipatutako IPPC/EIAren bitartez; horien inguruan, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-agintariak mintzatuko dira laster.

Protesta-mugimendu horiezaz gain, "Txingudi Bizirik" hiritarren plataformaren bidez bideratuta batez ere, hainbat aldarrikapen-ekintza ere egin dira (manifestazioak, sinadura-bilketa, prentsaurrekoak, herri-kontsultak, giza kateak, hitzaldiak, azokak, zuhaitz-landaketak, Ficobako "Bioterra" lehiaketan parte hartu, etab.) erraustegiaren aurka egiteko, eta horiek guztiek komunikabideetan oihartzun handia izan dute. Berriak eta iritziak kontsulta daitezke ez bakarrik beren web orrian (www.txingudibizirik.org), Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak duen orrian ere bai (www.txinzer.com).

Arartekon kexak aurkezteko ekimena ere haiena da (Txingudiko Zerbitzuak Mankomunitateak irmo erantzun zion kexa horien ondorioz Arartekok egindako txostenari), bai eta Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Alternatiboa izendatu zutena egitea ere, jauzi kualitatibo handia izan zena.

Halaber, proiektuaren plangintza hasi zenez geroztik, gertaera garrantzitsuenak honako hauek dira:

2000 martxoa – 2001 urria:
PIRUATa idatzi, hasierako onarpena, jendaurrean jakinarazi, alegazioak ebatzi eta behin betiko onartu.
2001. urtearen amaiera- 2002. urtearen amaiera

Hiri-hondakinentzako erraustegi-plantaren —energiaren balorizazioa eta guzti— aurreproiektua idatzi, ingurumen-inpaktua aldez aurretik aztertu eta non eraikiko de ikertu.

2002. urtearen amaiera– 2003. urtearen amaiera

Proiektua idatzi, ingurumen-inpaktua aztertu, hiri-antolamendurako Plan Berezia.

2003. urtearen bukaera – gaur egun:

Proiektu osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari aurkeztu, Ingurumen Baimen Integratua tramitatzeko.

2001eko ekainaz geroztik, PIRUATa jendaurrean aurkeztu zenean, Txingudi Zerbitzuak elkarteak web orria du eta oraindik ere badu, eta han PIRUATa eta erraustegiaren proiektua osatzen duten elementu nagusi guzti-guztiak erakusten dira.

Errauste Planta eraikitzeko proiektuan eman diren aldaketak:

Hondarribiko udala eta Irungo udala Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateko kide izanik, Mankomunitatearen erabakitze organoaren baitan Gipuzkoako Hondakinen Patzuergoa sartzea adostu zuten 2007ko abenduaren 17an, Patzuergoaren estatutuak eta kide izateko diru-sarrera onartuz (210.000€ 4 urteko epealdian -52.500€ urteko-). Era honetan, Txingudiko errauste plantaren proiektua baztertu eta Gipuzkoako Lurralde Historikoari zerbitzua emango dion errauste plantara eramango dira Bidasoa-Txingudi eskualdean sortzen diren hondakinetatik birziklatzen ez den zatia. Errauste planta Donostiako lurretan dagoen Zubieta auzoan eraikitzea aurreikusten da (Donostiako udalak 2008ko urtarrilaren hasieran eman zion hasiera Zubietako lurretan errauste planta eraikitzeko hirigintza izapideari).

Bidasoa-Txingudiko eskualdeak Gipuzkoako Hondakinen Patzuergoan duen ordezkaritza %7koa da. Gainontzeko mankomunitateei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, honakoa da Patzuergoan duten ordezkaritza maila: San Markos mankomunitateak %29, Debabarrenak %7koa, Sasietak %6, Debagoienak %6, Tolosaldeak %5, Urola Kostak %4, Urola Erdiak %3 eta Gipuzkoako Foru Aldundiak %33koa. Aipatzekoa da San Markos mankomunitatea zela Gipuzkoako Hiri Hondakinen Patzuergoarekin lankidetza hitzarmena sinatzeko falta zen mankomunitatea eta otsailaren 12an berretsi duela.

PIGRUG 2002-2016 dioenaren arabera, birziklatzen ez den zatia Zubietan eraikitzea aurreikusten den errauste plantara eramango da. Azpimarratu behar da Gipuzkoako Hondakinen Patzuergoari dagokiola errausketa planta eraikitzearen inguruko azken erabakia hartzea. Une honetan, zati hori San Markos mankomunitateko zabortegira eramaten da, otsailaren amaieran ixtea aurreikusten dena. Behin San Markoseko zabortegia itxita, eskualdeko zaborren zati hori, San Markos mankomunitatea osatzen duten udalerrien zaborrarekin batera, Beasaingo Sasieta zabortegira (Goierriko udalerriei zerbitzua ematen diona), Azpeitiko Lapatx zabortegira (Urola Erdiari zerbitzua ematen diona) eta Urola Kostako zabortegira (Zarautzen kokatuta dagoen Urteta zabortegia) bideratuko da. Gipuzkoako Hondakinen Zabortegiko lehendakariordeak otsailaren 8an adierazi zuen moduan, azken zabortegi horiek 2009 uztailaren 16rako ixtea aurreikusten du Patzuergoak, ondoren, birzikla ezin daitekeen hondakinen zatia Zubietako errauste plantara eramango delarik. Ildo honetan, Patzuergoaren lehendakariordeak epe motzera lurraldeko hondakinak kudeatzeko plana eraldatuko dela aipatu zuen, etorkizunean errauste plantara bideratuko den zabor kopurua 100.000 tonatan murrizteko helburua jasotzeko asmoz.

Aipatu beharra dago Gipuzkoako Hondakinen Patzuergoa otsailaren 14an bildu zela *Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa S.A.* sortzeko. Sozietate hori arduratuko da lurralde ikuspegitik Patzuergoak beharrezkotzat jotzen dituen azpiegiturak garatu eta kudeatzeaz (erraustegia, konpost-plantak, eta abar.)

- **Zepak eta errautsak**

Balorizazio energetikoaren prozesuan sortzen diren zepak heltzeko planta batean tratatuko dira, planta horretan bertan egongo dena, eta, horrela, eraikuntza-material gisa erabili ahalko dira zepak, baimenduta dauden erabileretarako. Errautsak zakuratu eta handik garraiatu egingo dira, horiek tratatzeko baimena duten kudeatzaileengana eramateko.

d) Inbertsioen programazioa

Azpiegitura berrietan egindako inbertsioa eta egin beharrekoa hurrengo koadroan azaltzen da:

260. taula. Azpiegitura berrietan egindako eta egin beharrekoinbertsioa

Plan Integralaren ondorioz, azpiegitura berrietarako inbertsioak, 2002-2016			
Azpiegitura-mota	Kopurua	Inbertsioa, guztira	Portzentaje
Edukiontziak	234	210.354€	0'39%
Garbiguneak	3	1.803.036€	3'31%
Erraustegia, energia berreskuratzeko eta errautsak inertizatzeko planta.	1	52.000.000€	95'20%
Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa		601.012€	1'10%
Guztira		54.614.402€	100%

Iturria: Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala

5.4.6. Iraunkortasunaren analisia: hondakinak

Ondorengo taulan, azken urteotako birziklatze-portzentajeen bilakaera eta isuritako hondakinena adierazten dira:

261. taula. birziklatze-portzentaien eta isuritako hondakinena bilakaera

	2000	2001	2002	2003	2004
Birziklatutako hondakinak (%)	17,00%	22,54%	26,08%	26,65%	27,64%

Honetan, berriz, ekoitzitako hondakin guztien bilakaera, biztanleriaren bilakaerarekiko:

262. taula. ekoitzitako hondakin guztien bilakaera, biztanleriaren bilakaerarekiko

Kg/biz./urte	2000			2001			2002			2003			2004		
	Birziklatu	Zaborteg ia	GUZTIRA	Birziklatu	Zaborte gia	GUZTIRA	Birziklatu	Zaborteg ia	GUZTIRA	Birziklatu	Zaborteg ia	GUZTIRA	Birziklatu	Zaborte gia	GUZTIRA
Etxeetako hondakinak	57,84	402,23	460,08	61,78	393,25	455,03	77,24	402,65	479,89	88,55	397,28	485,83	108,93	393,67	502,60
RICIA	43,89	70,47	114,36	68,62	54,85	123,47	77,74	36,89	114,63	68,97	40,22	109,19	65,73	50,93	116,66
EEH	0,00	33,34	33,34	0,00	29,39	29,39	0,00	35,77	35,77	32,70	32,70	65,40	0,00	28,86	28,86
GUZTIRA	101,73	506,04	607,77	130,40	477,49	607,89	154,98	475,30	630,28	190,22	470,20	660,42	174,66	473,47	648,12

Lortutako informazioa aztertu ondoren, honako hau nabarmendu nahi dugu:

- Urtetik urtera gero eta hondakin gehiago birziklatzen da. 2004. urtean, ekoitzitako hiri-hondakinen %27,6 birziklatu dira Txingudiko eskualdean. Zabortegirako diren hondakin-kopuruak gora egin du pixka bat. 2006 urtean jasotako hondakin guztien %31,17 berreskuratu da.
- Edukiontzi berdean biltzen diren etxeko hondakinen osagai nagusia sukaldatu gabeko janari-hondarrek osatzen dute; izan ere, zenbait arrazoirengatik, benetan kontsumitzen den baino elikagai-kopuru handiagoa erosteko joera baitago.
- **Europako Erkidegoko Hierarkiaren printzipioak** prebentzioari ematen dio lehentasuna (ondoren, birziklatzeari, konpostari eta energiaren aprobetxamenduari), eta Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Plan Integralean (PIRUAT), berriz, **hondakin-kopurua murrizteko eta hondakinak berriz erabiltzeko helburuak** (prebentzioarekin lotuta daude) ez daude zenbatuta eta, beraz, ez daude bat ere zehaztuta.
- **Birziklatze-sistemak ez du bere gain hartzen sortutako guztia** (muga teknikoengatik, kostuengatik eta bestelakoengatik). Txingudin birziklatutako hondakinen ehunekoa Gipuzkoako handiena da. Hondakin guztiak kontuan hartuta, birziklatutako portzentajea gero eta handiagoa da; beraz, PIRUATak 2016. urterako proposatuko jarraibideak betetzen ditu, bai eta indarrean dauden Europako Erkidego helburuak eta Europako Erkidegoko helburu berriak ere. Dena dela, Europako herrialde garatuenekin alderatuz gero, hondakinen %40 baino gehiago birziklatzen dute (Belgika, Austria eta Herbehereak, besteak beste), hobetzeko aukerak baditugu.

106. grafikoa. hondakinen kudeaketa europar batasunean



- Bidasoa-Txingudiko Eskualdean berreskuratzen ez diren hondakinak, gaur egun, San Markoseko zabortegira eramaten dira baina 2008ko martxoaren 31tik aurrera zabortegia behin betiko istea aurreikusten da. Apiriletik aurrera nahiz eta hondakinak San Markosek duen transferenzia estazioan konpaktatuko diren, azkenik Beasain, Azpeitia eta Zarautzeko zabortegietara bideratuko dira.

- Eskualdean energia berreskuratzeko **errausketa**-planta bat eraikitzearen inguruko erabakiari dagokionez, nahiz eta komunikazio-ahalegin handia egin, web orrian horri buruzko informazioa etengabe eman, hitzaldiak eta konferentziak eman eta abar, oraindik ere zenbait herritarren kexa jakinak entzuten dira. Egun, 2008, **errausketa**-planta Donostiako Zubieta auzoan eraikiko dala aurreikusten da.

- **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinei** dagokienez, obra txikietako hondakinak San Nartzisoko Hondakinen depositu Alternatiboan biltzen dira. Hondakin horiek bigarren mailako material gisa erabiltzen dira zabortegiak estaltzeko eta egokitzeko. Obra handietako hondakinak, berriz, askotan ez dakigu zer egiten den horiekin. Kontrolik gabe uzten dira lurzoruan, eta horien inguruko daturik ez dugu. Ez dago lurralde-

plan integralik hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten eragileen jarduera guztiak koordinatzeko (ez dago kontrolik, ezta jarraipen koordinaturik ere). Horren inguruan, **hobetze aldera egiteko zenbait urrats** ematen ari dira.

5.5. Atmosfera

5.5.1. Sarrera

Atmosferaren kutsadurak aldaketak eragin ditzake ingurumen-sisteman, zenbait prozesuren bidez eta horien araberako eraginak sorrarazten dituzte. Normalean, azertutako kalteak bitan sailkatzen dira: globalak eta tokikoak (hirian).

Maila globalean hiru kalte nagusi eragiten ditu:

- Klima-aldaketa, negutegi-efektuko gasak pilatu egiten direlako.
- Erradiazio-kopurua areagotu, ozono-geruza gero eta txikiagoa delako (atmosferan dauden osagai ornokloratuek ere eragiten dute).
- Ingurumenaren azidifikazioa, kutsatzaile azidoak euri azidoaren bidez dauzkagu.

Hiri-mailan industriak, berogailuak eta trafikoak isuritako gasak zonalde txikietan pilatzen dira, zenbait baldintzen arabera hedatzen direnak hartzaileetatik oso distantzia txikira, eta horiek zenbait kalte eragiten dituzte.

Epidemiologiaren inguruko gero eta ikerketa gehiagok adierazten dute airean dauden substantzia-kontzentrazio handien eta ondorio kaltegarrien artean lotura dagoela; beraz, horien eraginpean denbora luzez egoteak gizakien osasunean ondorioak izan ditzake.

Atmosferaren kutsadurak leku jakin batean, normalean, pertsonen osasunean ondorio kaltegarriak eragiten ditu. Ekosistemak ere eragiten ditu, kutsatzaile jakin batzuek landaredia- edo animalia-populazioei eragiten dien neurrian. Kalte materialak ere eragiten ditu erabilera publikoko ondasunetan eta ondasun kulturaletan; esate baterako, metalen eta harrien korrosioa, zenbait material organikoren oxidazioa —pinturak eta gomak, esaterako— eta fatxadetan partikulen pilaketa.[15]

Atmosfera-ingurumenaren kalitatearen inguruko arazoa ikertzeak bi alderdiren azterketa egitea dakar: kutsatzaileen emisioa eta inmisioa.

[15] Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila, Eusko Jaurlaritza (www.euskadi.net)

- **Emisioa.** Kutsatzaileak airean azaltzearen prozesua.

- **Inmisioa.** Kutsatzaile baten kontzentrazioa da (prozesu guztietatik eratorritakoa) puntu jakin batean. Neurri handi batean, faktore meteorologikoen —haizeak eta tenperaturak— eta topografiaren araberakoa da, eta kutsatzaileak atmosfera-ingurumenean barreiatze-mailan eragiten dute.

107. grafikoa. Emisio eta inmisio kontzeptuen inguruko irudia



Jarraian, airearen kalitatea Hondarribian zehazteko, emisio-iturri nagusiak eta inmisio atmosferikoaren mailak zehazten dira.

5.5.2. Emisio atmosferikoaren iturri nagusiak

Kutsatzaileen emisio-guneak betidanik bitan banatu izan dira:

- Gune mugikorrak: batez ere, autoak.
- Gune finkoak: etxeetakoak (berogailuak, sukaldeak, gas-berogailuak) eta industriakoak.

EAEn, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko 2004ko Ingurumen-adierazleek erakusten dutenaren arabera:

263. taula. EAEn, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko 2004ko Ingurumen-adierazleak

Kutsatzaileen emisio atmosferikoa	1990-2002	☹	– 1990. eta 2002. urteen artean **emisioak gora egin** du, bai substantzia azidoena, bai ozono troposferikoan eragiten dutenena: %7 eta %1, hurrenez hurren. – NO_x, SO_2 y COV substantzien emisioen bilakaera ikusita, **oraindik asko falta zaigu** Europar Batasunak ezarritako **helburuak lortzeko**. 2002. urtean hiru kutsatzaileen emaisioak egin du gora (%10 baino gehiago NO_x, %18 baino gehiago SO_2 eta %5 baino gehiago COV).
Negutegi-efektuko gasen emisioa	1990-2003	☹	– 1990. eta 2003. urteen artean negutegi-efektuko gas garrantzitsuenen zuzeneko **emisio**-kopuruak Euskal Herrian %28 **egin du gora**. – 2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan 19,4 milioi tona CO_2 isuri ziren; hau da, kopurua 2002. urtekoari zegokionaren antzekoa. – 2002. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan biztanle bakoitzeko sortutako GEI kopurua 11,7 tona CO_2-ri dagokiona izan zen; hau da, Europar Batsunak isuritakoa baino pixka bat gehiago (10,9) eta Espainian isuritakoa baino ere bai (9,9).

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Kutsatzaileen emisio-gune nagusitzat hiru jarduera-mota hauteman dira Hondarribian:

- Ibilgailuen trafikoa
- Etxeak
- Industria (oso urria udalerrian)

Jarraian ematen diren xehetasunak kualitatiboagok dira kuantitatiboak baino. Txingudiko zonaldean atmosferara isurtzen diren gas kutsatzaileen inbentariorik ez dago.

- **Ibilgailuen trafikoa**

EAEn ibilgailuen trafikoa da kutsatzaileen emisio-iturri nagusietako bat.

2002ko Garraio eta Ingurumen adierazleek erakusten dutenaren arabera, garraioaren sektorearen CO2ko isurketa EAEn %70 hazi zen, 1990. urtearen eta 2000. urtearen artean. Eta 1990. urtean, **garraioaren sektorearen CO2ko isurketen portzentajea beste gainerako sektoreekiko** %14 izan zen; pentsatzen da 2000. urtean portzentajea %20koa zela.
Trafikoaren eraginez isuritako emisioen ezaugarri garrantzitsua da lurzoruaren mailan sortzen direla (ihes-hodiak); beraz, biztanleengan eragin handiagoa dute beste gainerako jardueren aldean, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki.

Azeleratzeagatik, geldialdiak egiteagatik eta abarrengatik isurtzen dira batez ere hirigunean.

Gasolinazko motorrek batez ere monoxidoa, karbono-dioxidoa, nitrogeno-oxidoak, azufre-dioxidoak, partikulak eta erre gabeko hidrokarburoak isurtzen dituzte. Oraindik ere beruna duen gasolina erabiltzen duten gasolinazko autoek aurrekoak isurtzeaz gain, beruna ere isurtzen dute atmosferan. Diesel-motorrei dagokienez, batez ere partikula solidoak isurtzen dituzte (kedarrez osatutakoak), eta horiek ihes-gasetan egoteak ke beltza deitutakoa, erregai-partikula likidoak eta karbono-dioxidoz, azufre-dioxidoz eta nitrogeno-dioxidoz osatutako osagai gaseosoak eragiten dituzte. Diesel-motorrek errekuntza aire askorekin egiten dutenez, CO oso gutxi isurtzen dute.

Aurreko horiezaz gain, autoetako ihes-hodiek Osagai Organiko Hegazkorrak isurtzen dituzte (OOH edo VOC ingelesez), eta U.S. National Library of Medicine erakundearen arabera:

> *Osagai organiko hegazkorren eragina osasunean osagaien arabera oso desberdina izan daiteke, eta toxikotasun-maila handikoak izan daitezke edo orain artean dakigun ondorio kaltegarririk ez dute. Ondorioak osagaien nolakotasunaren araberakoak dira eta haien eraginpean egondako denboraren araberakoak.*

Europako Ingurumen Agentziak 2004. urtean argitaratutako ikerketa baten arabera, garraioak gero eta CO2 gehiago isurtzen du; horixe bera adierazten dute ondoren dituzun bai testuak, bai grafikoak.

> Autoek orain sistema eraginkorragoak dituzte. *Dena dela, CO2 isurketak murriztu badira ere, garraio-bolumenak gora egin du; beraz, horrek esan nahi du errepide bidezko garraioaren CO2 isurketa %20 inguru hazi dela.*

108. grafikoa. Garraioak eragindako emisio kutsatzaileen bilakaera (1990-2001)



Iturria: Europako Ingurumen Agentzia. *EEA Signals 2004*

Trafikoaren kutsadura-maila kontrolatzeko moduetako bat autoen ihes-hodiek isuritako gasak aztertzea da (Kontseiluaren 92/55/EEE Zuzentarauak, 1992ko ekainaren 22koa, araututako jarduera). Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) Irunen egoteak isurketen murrizketa eragiten du; izan ere, ihes-hodiek isurtzen duten gas-kopurua neurtzen dute eta autoak behar bezala jartzera behartzen dute.

Eskualdearen joera ekonomikoak garraioaren eta logistikaren sektore ingurukoak dira, eta ibilgailuen trafikoa handia izatea eragiten du (Irunen, batez ere), eta, beraz, kutsatzaile asko sortzen eta isurtzen dira atmosferan.

Jarduera industrialak

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak EPER Euskadi erregistroa jarri du abian, eta helburua honako hau da: egiten diren emisioei buruzko informazioa biltzea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen (IPPC) eranskinean gaineratzen diren jardueretako bat garatzen duten enpresena. EPER Inbentarioa osa dezaketen enpresa guztiak kutsatzaileak dira, IPPCaren barruan egoteagatik.

Hondarribian enpresa bakar bat dago EPER Inbentarioan, Zaldunbordan dago; beraz, alde horretatik, kutsatzaileen emisioa oso urria da.

Etxeak

Etxeko tresnen artean, kutsatzaileak isurtzen dituzte, batez ere, berogailu-galdarek eta ura berotzen duten gailuek. Isurtzen den gas-kopurua eta gasen ezaugarriak erabilitako erregaien araberakoak dira. Petroliotik eratorritako erregai likidoak gero eta gutxiago erabiltzen dira eta horien ordez gas naturala erabiltzea gero eta ohikoagoa da; beraz, osagai kutsatzaileen emisioa gero eta txikiagoa da.

Oro har, esan behar dugu, udalerri- eta lurralde-mailan ez dagoela emisioei buruzko berariazko azterketarik, eta, beraz, ez da posible Hondarribian dauden emisio-guneetatik isurtzen diren kutsatzaile-kopurua eta kutsatzaileen osagarriak gehiago zehaztea eta hobeto jakitea zein diren.

Nabarmendu nahi genuke, beste autonomia-erkidego batzuetan emisio-mapak egiten ari direla.

5.5.3. Kiotoko protokoloa

1992an Rio de Janeiron Lurraren Goi-bilera izan zenetik hamahiru urte pasa dira, eta joan den otsailaren 16an 141 herrialdetan Kiotoko Protokoloa jarri zen indarrean, negutegi-efektuko gasen emisioa murrizteko.

Errusiako Parlamentuak eta Gobernuak Kiotoko Protokoloa sinatu zutenetik, gasak isurtzen dituzten %55 herrialderen sinadurak lortu dira.

Nahiz eta hori lortu ez, Europar Batasunak onartua zuen 2003ko Zuzentaraua. Horrek herrialdekako emisio-mugak ezartzen zituen, Estatu kideek ezinbestean betebeharrekoak. Estatu espainiarrari, 2008-2010 eperako, 1990. urtean zuen emisio-kopurua %15 areagotzea zegokion.

2002. urteko datuen arabera, EAEren gas-isurketa %28,6 areagotu zen 1990ean zuenarekin alderatuta, eta EBk ezarritako irizpideak jarraituta ez luke %15 baino gehiago izan behar. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren 2003ko Adierazleen arabera, EAEn garraioaren sektorea da proportzioan gehien hazten ari dena, negutegi-efektuko gasen isurketari

dagokionez. Azken hamarkadan, industriaren gas-isurketa %25 murriztu da, eta garraioaren sektorearena, berriz, %72 hazi da (petrolio-deribatuen erreketa-prozesuak eragindako isurketak). Etxebizitza-sektorearen emisioa, energia-kontsumoarekin lotua, %34 hazi da eta hiri-hondakinena %30.

EAEko Ingurumenaren Egoera 2004ko dokumentuak, IHOBEk argitaratua, honako hau dio: *EAEn negutegi-efektuko gasen emisio-kopurua oso handia da oraindik ere, eta Estatu espainiar osorako Kiotoko Protokoloan hitzartutakoaren oso gainetik dago kopurua (%15 gehiago), 2008-2012 eperako aurreikusitakoa*.

5.5.4. Inmisio atmosferikoaren mailak

EAEn, 2001-2003 eperako aire-kalitatearen adierazleak erakusten duenaren arabera (Ingurumen-adierazleak 2004):

- *2003. urtean **airearen kalitateak** txarrera egin du; batez beste, 10 egunetan izan zen airearen kalitatea txarra edo oso txarra, eta 2002. urtean, 3 egunetara ere ez zen iristen batez bestekoa.*
- *Partikulen kontzentrazioari (**PM_{10}**) dagokionez, 2003. urtean 22 estaziok gainditu zuten 35 aldiz baino gehiagotan giza osasunaren babeserako eguneroko batez bestekoaren balioa.*
- ***Ozonoari** dagokionez, 2003. urtea bereziki izan zen arazotsua; giza osasuna babestea bermatzen duen maila 33 aldiz gainditu zen, batez beste.*

Irunen 1996. urteaz geroztik neurtzen da atmosferaren kutsadura. 2004. urtean poluzioa neurtzeko beste kabina bat jarri zen antzinako Jaizkibel ikastetxean (Duana kalea, z/g); kabina Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sareak jarri du, Eusko Jaurlaritzarena. Irunen, halaber, beste kabina bat ere badago Ikust-Alai finkako lorategian, Eusko jaurlaritzako Ingurumen Osasuneko Unitatearena; kabina horrek batera neurtzen ditu PM_{10} (partikula handiak) eta metal astunen mailak.

Hondarribian ez dago, 2005. urtean, udalerriko inmisio atmosferikoaren mailak neurtzen dituen kabinarik.

5.5.5. Iraunkortasunaren analisia: atmosfera

Hondarribian ez da **emisioen inguruko** ikerketarik, atmosferan isurtzen den kutsatzaile-kopurua eta kutsatzaile motak baloratzeko. "EPER Euskadi" erregistroan zenbait enpresa daude, egiten dituzten emisioengatik.

Eskualdean **inmisio-mailak** neurtzeko bi kabina daude: batak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Osasuneko Unitatearenak, PM_{10} izenekoak (partikula handiak) eta metal astunak erregistratzen ditu; eta besteak, Euskal Autonomia Erkidegoko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearenak, SO_2, NO, PM_{10}, CO, O_3 eta NO_2 kutsatzaileak. Biak Irungo udalerrian daude eta erregistratutako datuak epe laburrari dagozkio.

Beraz, pentsatzen dugu, **informazio gutxi dela baloratzeko** modu fidagarrian Hondarribiko **airearen kalitatearen** egoera.

Eskualdeaz gaindi dagoen informazioak, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen estrategiaren 2003ko Adierazleek emandakoak, adierazten du EAEn garraioaren sektorea dela negutegi-efektuko gas-emisioan, proportzioan, gehien hazi dena. Azken hamarkadan, industriaren gas-isurketa %25 murriztu da, eta garraioaren sektorearena, berriz, %72 hazi da (petrolio-deribatuen erreketa-prozesuak eragindako isurketak). Etxebizitza-sektorearen emisioa, energia-kontsumoarekin lotua, %34 hazi da eta hiri-hondakinena %30.

EAEko Ingurumenaren Egoera 2004ko dokumentuak, IHOBEk argitaratua, honako hau dio: EAEn negutegi-efektuko gasen emisio-kopurua oso handia da oraindik ere, eta Estatu espainiar osorako Kiotoko Protokoloan hitzartutakoaren oso gainetik dago kopurua (%15 gehiago), 2008-2012 eperako aurreikusitakoa.

5.6. Ingurune-hotsa

5.6.1. Sarrera

Europako erkidegoen Kontseiluaren Ebazpenak, 1977ko maiatzaren 17koa, honela definitu zuen ingurune-hotsa: gizakiarentzat desatsegina izan daitekeen hots-multzoa, eragiten duen enbarazuagatik, nekeagatik, asalduragatik eta zenbaitetan minagatik, maila handian edo txikian onartezina dena. Zentzu zabalean, giza jarduera oztopatzen duen edozein hots izan daiteke.

Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (OCDE) emandako datuen arabera, Estatu espainiarra Europako herrialde zaratatsuena da eta munduan bigarrena, Japoniaren atzetik.

Euskadiko ehun udalerrik baino gehiagok, horien artean hiru hiriburuak, baimenduta dauden 70 dezibeleko maila gainditzen dute, batez ere, trafiko handiko errepideetatik gertu egoteagatik. EAEko 2004ko Ingurumen-adierazleek emandako datuen arabera, EAEko biztanleriaren %18 errepide-sareak eragindako hots-maila handiaren eraginpean bizi da, %2 trenak eragindakoaren pean eta %1 baino gutxiago industrialdeek eragindakoaren pean.

Azken urteotan ingurumen-hotsak egunean denbora gehiago hartzen du (gaueko zirkulazioa, asteburuak, oporrak) bai eta espazio gehiago ere (landa-eremuak eta hiri handietako bizitegi-zonaldeak).

Ingurune-hotsa hedatu egin da, hein handi batean, ibilgailuen trafikoak eta aireko zirkulazioak gora egin duelako eta biztanleria-dentsitatea ere hazi egin delako. Horren guztiaren ondorioz, eguneroko bizimoduan zarata eta hotsen eraginpean gaude.

Atmosferaren kutsadurarekin gertatzen den bezala, gero eta nabarmenagoak dira denbora luzez ingurune-hotsa handia dagoen lekuan egoteak dakartzan kalteak osasunean. Hots handia kalean, lantokian eta baita etxean ere izaten dugu eta pertsonen ongizatean eragiten du (azken ondorioak hots-motaren, denboraren eta norberaren sentikortasunaren araberakoak izango dira; baina kalte larriak ere eragin ditu, esaterako, entzumen-gaitasuna urritu pixkanaka, loaren nahastea, suminkortasuna eta bihotz-erritmoan aldaketak).

Ondorengo taulan hotsak pertsonengan eragin ditzakeen ondorioak laburbilduta adierazten dira; hots horiek jatorri eta intentsitate jakinekoak dira:

264. taula. hotsak pertsonengan eragin ditzakeen ondorioak. Jatorri eta intentsitate jakinak.

ONDORIOAK	ZARATA-MOTAK (ADIBIDEAK)	INPRESIO SUBJEKTIBOA	Dba-MAILA	HITZ EGITEKO AUKERA	MAILA HORIEK DITUZTEN LEKUAK
• Entzumen-gaitasunaren galera • **Gorreria**	• Turborreaktorea • Obretako zulagailu pneumatikoa • Auto-klaxona (10 metroko distantziara)	• Gorreria-mina	130	• Ezinezkoa	• Aireportuko pista • Zarata ikaragarri handiko tailerrak
		• Zarata jasangaitza	120		
		• Mingarria	110		
• Enbarazu-mailak • **Erosotasun eza**	• Zarata-isilgailu gabeko motoak • Oihua (3 metroko distantziara) • Haurrak jolasean	• Zarata oso nekagarria	100	• Oihu eginda	• Tailer zaratatsuak • Diskotekak • Pubetan (barruan)
			90		
			80	• Zaila	• Tailer arruntak • Tabernetan (barruan)
	• Ke-erauzgailua • Arropa-garbigailua • Iratzargailua • Zurrunga	• Giro jasangarria	70	• Ozen hitz egin da	• Hiri-barruko trafiko handia • Egongela TB piztuta dagoela • Azalera handiko guneak • Mekanografia-bulegoak
			60		
• **Erosotasun-maila**	• Arropa igurtzi • Txiklea jan • Hozkailua (1 metroko distantziara)	• Zarata arrunta	50	• Normal hitz eginda	• Hiri-barruko trafiko gutxi • Etxebizitza zaratatsua
			40		
			30		• Parkeak eta lorategiak • Liburutegia • Esolako gelak
	• Eskumuturreko erlojua • Eltxo bat hegan (2 metroko distantziara)	• Isiltasuna	20	• Isilik hitz eginda	• Grabazio-estudio • Laborategi akustikoa
			10		

Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila, Eusko Jaurlaritza (www.euskadi.net)

Iturri horrek berak dio zarata ingurumen-kutsatzailetzat hartzen duela eta kontuan hartu behar dela osasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea osatzen duten plangintza guztietan.

Hondarribian ez da ingurune-hotsa ebaluatzen duen ikerketarik. Hotsen inguruko berariazko ordenantzarik ere ez dago.

Ondorengo atalean, dagoen informazio urri horretaz baliatuta, udalerriko **ingurune-hotsaren** egoera aztertuko dugu.

5.6.2. Ingurune-hotsaren emisio-iturri nagusiak

Kualitatiboki, hotsaren emisio-iturri nagusiak (mugikorrak eta finkoak) honela sailkatzen dira:

- **Trafikoa (iturri mugikorra):** udalerrira sartzeko eta ateratzeko bideak, hiri barruko bideak eta hirien arteko bideak. Udalerrian dauden hots-gune guztietatik ibilgailuen trafikoak eragindakoa hartzen da nabarmenentzat.

  Trafikoaren zaratak Hondarribian eragiten dituen arazoak Irunen baino gutxiago dira, ibilgailu gutxiago ibiltzen baita Hondarribian. N-I errepidearen zati bat baino ez da pasatzen udalerritik barrena eta, gainera, hirigunetik urrun geratzen da.

- **Hondarribiko aireportua (iturri mugikorra).** Hegazkinen trafikoak, eta batez ere, aireratzeak eta lurra hartzeak hots-maila handia eragiten dute. Horren inpaktua ez da gertuko zonaldeetan bakarrik igartzen, urrutirago dauden zonaldeetan ere antzematen da.

- MD-88 erreaktoreak Hondarribiko aireportuan lanean hasi zirenetik (1992. urtea) Labein Ikerketa Teknologikoetarako Zentroak eta Lydteknisk Institut-ak (Entzumen-institutu daniarra) Donostia-Hondarribiko aireportuak biztanleriarengan eta hegaztiengan eragiten duen entzumen-inpaktuaren azterketa-lana egin zuen. Hondarribiko herrigune kaltetuenak Mendelu, Amute eta Puntal dira.

  Donostiako Aireportuaren Plan Zuzentzaileko, Aenak proposatuta 2000ko ekainean egina, II. liburukian entzumen-inpaktuari atal bat eskaintzen zaio, eta kurba isofonoko planoak ere baditu, gaur egungo eta aurreikusten den entzumen-inpaktuaren kalteak islatzeko.

Ez dago hegazkin berriek sortzen duten zarataren inguruko daturik.

- **Industria (iturri finkoa).** Industria-prozesu gehienetan zarata sortzen da, eta batez ere enpresan lan egiten duten langileei eragiten die, baina inguruan bizi diren biztanleei ere bai. Arazo horiek areagotu egiten dira hiria gero eta gehiago hedatzen ari delako eta industrialdeetatik gero eta hurbilago daudelako bizitegi-zonaldeak.

  Hondarribian ez da izan, udaletxeak esan duenez, industriak sortutako zarata-arazorik.

- **Ostalaritza- eta aisialdi-jarduerak.** Gaueko aisialdi-jarduerak zonalde jakinetan pilatzen dira eta zaratak enbarazu egiten du, bai lokaletan bertan sortzen direnak (ez daude behar bezala hosgabetuta), bai lokaletatik kanpo dagoen jendeak, motozikletek edo autoek sortutakoak.

  Hondarribiko Udalak adierazi du tabernek, jatetxek eta diskotekek sortzen duten zarata ez dela nabarmentzeko modukoa. Lehendabiziko bietan ez da arazorik hauteman, eta diskotekei dagokienez, oso ondo hosgabetuta daude. Aipatzeko modukoa da, eguraldi ona egiten duenean eta jendea udalerrian barrena paseatzera ateratzen denean, oro har udalerri osoan zarata-maila handitu egiten dela, eta bereziki taberna eta jatetxeen inguruetan; baina, udaletxearen arabera, udalerrian normaltzat ematen da eta onartu egiten da.

  Ez dago ostalaritza eta aisialdi jarduerek sortutako zarataren neurketarik

- **Merkataritza-jarduerak (iturri finkoa).** Merkataritza-jarduerak zarata-enbarazuak sorrarazten ditu, bai jarduerak berak eragiten dituenak (haizagailuek, hozkailuek... sortutako zarata), bai jarduerarekin zerikusia duten bestelakoek eragiten dituztenak (ibilgailuen trafikoa, karga eta deskarga, alarmak...) eta enbarazu horiek areagotu egiten dira lana gauez egiten badute. Hondarribian ez da iturri-mota horrekin zerikusia duen arazorik hauteman.

- **Komunitate-jarduerak (iturri finkoa).** Etxeetan sortzen den zarata da. Esate baterako, musika-tresnen hotsak, etxeetan egiten diren musika-entseguen hotsak, konpainiako animalien hotsak, alarmena eta etxetresna elektrikoen hotsa (gauean egiten dute enbarazu), etxeko obrena (brikolajea) eta igogailuek eragindako hotsa. "Hots sozialak" deitutakoak ere multzo horretan sartzen dira; esaterako, festetako kontzertuak eta txosnak, etxafuegoak eta petardoak, txosnetako musika eta festetako etxolak. Lehendabizikoen kasuan, bizikidetzako arauen bidez, eta, azken

irtenbide gisa kode zibilaren bidez, konpontzen dira arazoak. Bigarrenen kasuan, herrikideen arteko bizikidetza-errespetuaren bidez eta noizean behin egiten diren jarduera horien hots-maila kontrolatuta konpontzen dira arazoak.

Nahiz eta Txingudin aurkitzen diren hegazti espeziei buruzko datu zehatzak badauden (Plaiaundi Parke Ekologikoan datu horiek jasotzen dituzte eta diagnosian ere agertzen dira), Plaiaunditik aipatu digutenaren arabera, ez dago aireportuak espezie horiengan eragin ditzakeen ondorioak aztertzen dituen ikerketarik. Aldiz, AENAk bere garaian aireportuan eta inguruetan dauden hegaztien inguruko azterketa bat egin zuen aire trafikoan eta nabigazioan izan zitzaketen eraginak ikertzeko asmoz.

5.6.3. Ingurunearen soinu-presioa Hondarribian

5.6.3.1. EAEko hots-mapa.

EAEko hots-mapak, 2000. urtean Eusko Jaurlaritzako Lurralde antolamendu eta Ingurumen Sailak egina, tokiko entzumen-inpaktua hautematen du, komunikabideetan —errepideak eta trenbidea— eta industria-jardueretan sortutakoarekin zerikusia duena.

Hondarribitik barrena errepide gutxi pasatzen denez, eta udalerriko industria-jarduera txikia denez, ez da nabarmentzeko moduko kutsadura akustikoa hauteman.

108. grafikoa. EAEko hots-mapa



5.6.4. Udalerriko ingurune-hotsaren araubidea

2003. urteko abuztuaren 6an ostalaritza-establezimenduak eta aisialdi-jarduerak instalatzea, zabaltzea eta martxan jartzea arautzen zuen Udal Ordenantzaren testu bategina onartu zen.

Ordenantza horrek hotsen atalean honako hau ezartzen du: lokal barruan baimenduta dauden hots-mailak, gehieneko hots-mailak, bai inguruko etxebizitzetan (35 dB(A) egunez eta 28 dB(A) gaueko 10:00etatik aurrera), bai establezimenduen kanpoaldean (50 dB(A) egunez eta 35 dB(A) gaueko 10:00etatik aurrera), baita beharrezkoak diren kontrol-sistemak ere.

Hotsen inguruko berariazko ordenantzarik ez dago Hondarribian.

5.6.5. Iraunkortasunaren analisia: Ingurune-hotsa

Aireportuko jarduerak eragiten duen hotsari dagokionez, udaletxeak adierazi du ez duela herritarren kexarik jaso, hegazkin-kopurua handia ez delako bertan ibiltzen dena eta, gainera, gaur egun eragiten duen hotsa herritarrek onartuta dutelako. Kexa formalik jaso ez arren, aireportuaren ondoan bizi diren bizilagunen ezinegona hautematen da.

Herriko erdialdeko zenbait kaletan eta festa-garaian, jende asko biltzen denez (bai bertakoa, bai aisialdirako etorritako turistak), hots-maila handi samarrak eragiten dira, udaletxeko teknikariek egindako analisi kualitatiboaren arabera. Baina ez da bereziki arazo-sortzaile, ezta jasangaitza ere.

Hondarribian ez da, beraz, ikuspegi kualitatibotik arazo handirik hauteman, ingurune-hotsari dagokionez orokorrean, baina bai ordea aireportuak sortzen dituen hotsen inguruan, batez ere Amute auzoan.

. Ikuspegi kuantitatiboari dagokionez, ez dago udalerri-mailan azterketa sakonagoa egiteko nahiko informaziorik.

Ostalaritza-establezimenduak eta aisialdi-jarduerak instalatzea, zabaltzea eta martxan jartzea arautzen duen Udal Ordenantza bat bada, establezimenduen kanpoaldean eta inguruko etxebizitzetan baimenduta dauden gehieneko hots-

mailak ezartzen dituena. Beharrezkoak diren kontrol-sistemak zein diren ere ezartzen du.

5.7. Hondarribiko ingurumen-bektoreak, iraunkortasunaren ikuspuntutik. Sintesia

85. koadroa

Ura
• **Etxeko ur-kontsumoaren ratioa 2007. urtean 135,7 litro/biztanleko/eguneko da. 2000-2007 epean** ur-kontsumoak **%9,1 egin du behera,** eta populazioa %8,7 hazi da. • Erabilerari dagokionez, aipatzeko modukoa da **etxeko kontsumoa %12,1 jaitsi dela**, eta **etxekoa ez den ur-kontsumoa %12,6 murriztu** da. • 2004-2007 urteetan udal kontsumoak gora egin du %1,07. • Endarako urtegiak duen **bolumen-gaitasunak** eskaria betetzen du, euri gutxi egiten duen garaian izan ezik, eta orduan Jaizkibelgo hartuneetara jotzen da. **Hornikuntzarekin** zerikusia duten arazoak konpontzeko beharra hauteman da, erreserba berriak aurkituta eta azpiegitura gehiago jarrita. • **Endarlatzako** estazioetako, **Bidasoa** ibaiaren estuarioko eta **itsasertzeko** zonaldeko uren **egoera ekologikoa ona** da, eta **Jaitzubiko** estazioko uren **egoera ekologikoa,** berriz, **txarra** da. Saneamendu-Planaren barruan azkenaldian egindako jarduerei esker, datozen urteetan **hobera egingo** duela **aurreikusten** da. • Txingudiko Zerbitzuak "eskualdeko hornikuntza sarea arlokako banaketa proiektua" aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari. Honen helburua, eskualdeko sarea 16 zonalde edo sektoretan banatzea eta sistema informatiko batetara konektatuta egongo diren 29 kontrol-punturen ezarpena suposatuko du (sistema informatikoan Hondarribiko eta Irungo hornikuntza sarearekin lotutako 300 Km inguruko hoditeria azalduko da). Proiektu hau 2008 urte amaierarako martxan egongo da. • Mankomunitateak alarma sistemak ezarriko ditu gainezkabideetan. Horrela, kolektorea ataskua badago eta ibaira isurtzen hasiz gero, modu azkar batean antzeman ahal izango da arazo hau eta beharrezko neurriak hartuko dira. • **Nabarmena** da Irun eta Hondarribia udalerriei eskainitako **zerbitzuak hobera** egin duela, bai eta eskualdeko **ur kontinentalen eta itsasertzeko uren kalitateak** ere **hobera egin duela**.
Lurzorua
• **Ez dago informazio nahikorik** udalerriko lurzoruaren kalitatearen arloan arazoak dauden edo ez baloratzeko. Udaletxeko iturriek adierazi dute udalerrian ez dagoela kutsadura-arazorik lurzoruan. • Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko lege berriak lurzoruaren kalitatea nolakoa den jakiteko eta kontrolatzeko zein prozesu eman behar den arautzen du, eta prozedura hori abian noiz jarri behar den ere bai.

- Eusko Jaurlaritzak 2007ko azken Gobernu Kontseiluan, *Euskal Autonomi Erkidegoko Lurzoru Kutsatuen 2007-2012ko Plana* onetsi zuen. Plan honen bitartez, hiritarrek lurzoru garbi eta kalitatezkoaz gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi da.

Energia

- **Kontsumoei** dagokienez, **Kontsumoei** dagokienez, 2002-2004 epean **kontsumo elektrikoa hazi egin da** sektore guztietan. Epe horretan etxeetako kontsumoak eta industriako kontsumoak gora egin du, %9 eta %3, hurrenez hurren (kontratu-kopurua ere gehitu da, %8 eta %1), **zerbitzu-sektorearen** kontsumoak ere %14 egin du gora (kontratuak %5 gehitu dira). 2002-2006 epean **kontsumo elektrikoa hazi egin da** sektore guztietan, idustria sektorean izan ezik non %24,23 jeitsi da kontsumoa. Orokorrean, 2004 eta 2006 urteen artean fakturatutako energiaren kontsumoa %24,4 igo da.
- Erabiltzen diren energia-iturriak **batez ere ez berriztagarriak dira.** Oso eskasak dira energia berriztagarrien iturriak eta gainera danak pribatuak dira, hau da, ez dago udal instalaziorik energia berriztagarriekin.
- Hondarribiko udalak eta EVEk (Energiaren Euskal Erakundea) 2006ko uztailaren 10an hitzarmen bat sinatu zuen udalerrian energiaren kontsumo gutxitu eta aurrezpena sustatzeko asmoz elkarrekin mota ezberdinetako ekintzak aurrera eramateko.
- **Balorazioa positiboa** da udalerrian **eraginkortasun energetikoa** hobetze aldera egin diren **jardueren** inguruan. Aipatzeko modukoak dira argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetze aldera hartutako neurriak.
- Egun, Ihobek zentralizatzen ditu udalerrien energia datu eskaera (Ihobek egiten du eskaera eta gero honek udalerri bakoitzari dagozkion datuak bidaltzeaz arduratzen da) baina horretarako, Ihobek jarri duen baldintza da udalerria *Udalsarea 21*en kide izatea. Hori dela eta, Hondarribia Udalsarea 21en sartzen denean, datu horiek lortzeko erraztasun handiagoa izango du.

Hondakinak
• Urtetik urtera gero eta hondakin **gehiago birziklatzen** da. Dena dela, zabortegirako diren hondakin-kopuruak ere gora egin du.Edukiontzi berdean biltzen diren **etxeko-hondakinen osagai** nagusia sukaldatu gabeko janari-hondarrak dira. Txingudiko Zerbitzuak elkartekoek adierazi dute kontsumitzen duguna baino gehiago erosteko joera dagoela.**Europako Erkidegoko Hierarkiaren printzipioak** prebentzioari ematen dio lehentasuna (ondoren birziklatzeari, konpostari eta energiaren aprobetxamenduari), eta Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Plan Integralean (PIRUAT), berriz, hondakin-kopurua **murrizteko eta hondakinak berriz erabiltzeko helburuak** (prebentzioarekin lotuta daude) ez daude zenbatuta eta, beraz, ez daude bat ere zehaztuta. Hondakinak sortzearen prebentzioan badugu oraindik zer hobetua.Nahiz eta Txingudin **birziklatutako hondakinen ehunekoa** Gipuzkoako handiena izan, badago zer hobetua oraindik. Eskualdean energia berreskuratzeko **erraustegi**-planta bat eraikitzearen inguruko erabakiaren inguruan, herritarren artean kexak izan dira, informazio argia ez delako eman eta erabakia hartu aurretik ez delako debaterik izan. Hori dela eta protesta mugimendu bat sortu da. Gaur egun, erraustegi-planta Donostako Zubieta auzoan eraikitzea dago aurreikusia. ▪ Ez dago **eraikuntza- eta eraispen-hondakinen** arloan lurralde-plan integralik hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten eragileen jarduera guztiak koordinatzeko (ez dago kontrolik, ezta jarraipen koordinaturik ere). Horren inguruan, hobetze aldera egiteko zenbait urrats ematen ari dira. • Bidasoa-Txingudiko Eskualdean berreskuratzen ez diren hondakinak, gaur egun, San Markoseko zabortegira eramaten dira baina 2008ko martxoaren 31tik aurrera zabortegia behin betiko iritsiko da. Apiriletik aurrera nahiz eta hondakinak San Markosek duen transferenzia estazioan konpaktatuko diren, azkenik Beasain, Azpeitia eta Zarautzeko zabortegietara bideratuko dira. • Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak momentu honetan onarpen fasean dagoen Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana gauzatu du. Planean 2 Garbigune eta Konposta egiteko Planta bat aurreikusten dira Bidasoa zonalderako. 2016 urterako eskualdean orotara 3 Garbigune egongo dira, horietako bat, Arasoko Garbigune berria izango delarik, 2007ko abenduaren 10ean eraikitzen hasi zena. • 2006 urtean jasotako hondakin guztien %31,17 errekuperatu da. Portzentai honen barruan, konpost egiteko erabili diren hondakinak eta berziklatutako hondakinak (%29,51) sartzen dira. Era berean, hondakin berriztagarriak hartzen ditu kontutan, ur

haraztegitik etorritako loiak hain zuzen ere (%1,69).

- Hondakin arriskutsuak eta sanitarioen inguruan lortutako datuen arabera, 2001 eta 2007 urteen artean eman den eboluzioa positiboa izan da.

Atmosfera

- EPER Euskadi erregistroak enpresa gutxi batzuk baino ez ditu biltzen, emisioen arabera aukeratuta, eta Hondarribian ez da **emisioen** inguruko ikerketarik, atmosferan isurtzen den kutsatzaile-kopurua eta kutsatzaile motak baloratzeko. Eskualdean **inmisio-mailak** neurtzeko bi kabina daude: batak PM_{10} partikulak (partikula handiak) eta metal astunak erregistratzen ditu, eta besteak SO_2, NO, PM_{10}, CO, O_3 eta NO_2. kutsatzaileen mailak. Biak Irungo udalerrian daude eta ditugun datuak denbora epe laburrari dagozkio. Beraz, pentsatzen dugu, **informazio gutxi dela** modu fidagarrian **baloratzeko** Hondarribiko **airearen kalitatearen** egoera.
- *EAEn negutegi-efektuko gasen emisio-kopurua oso handia da oraindik ere, eta Estatu espainiar osorako Kiotoko Protokoloan hitzartutakoaren oso gainetik dago kopurua (%15 gehiago), 2008-2012 eperako aurreikusitakoa.*

Ingurune-hotsa

- **Aireportuko** jarduerek eragiten duen **hotsari** dagokionez, udaletxeko arduradunek adierazi dute ez dela herritarren kexa formalik izan. **Erdialdeko** zenbait **kaletan** eta **festa-garaian hots-maila handi samarrak** sortzen dira, udaletxeko teknikariek egindako azterketa kualitatiboaren arabera. Baina ez da bereziki arazo-sortzaile, ezta jasangaitza ere. Hondarribian ez da, beraz, ikuspegi kualitatibotik arazo handirik hauteman orokorrean (bai ordea zehazki aireportuaren gaian), ingurune-hotsari dagokionez.
- Ez **daukagu eskura informazio nahikoa azterketa sakonagoa** egiteko.

6. HONDARRIBIKO DIAGNOSIA: HAUTEMANDAKO JOEREN INGURUKO ONDORIOAK

Eskura daukagun informazioa lortu eta aztertu ondoren, zenbait hausnarketa-ondorio atera ditugu, egun Hondarribiko udalerrian dauden joeren inguruan:

- Azken 25 urteetan, 65 urtetik gorako biztanleak %50 ugaldu dira eta 19 urtetik beherakoak, berriz, ia erdira gutxitu dira. Beraz, joera nabaria da, populazioa zahartzen ari da, Gipuzkoako gainerako lurraldean eta EAEn gertatzen ari den bezala.
- Kezka dago adinik txikienetako hezkuntza-ekipamenduetan aurreikusitako beharraren inguruan. 2010 urtean martxan jarriko den haurtzaindegi berri bat aurreikusten da.
- Ikuskizun handi samarrak antolatzeko ekipamendu gabezia hauteman da.
- Gizarte-ongizateko zerbitzuen eskaerak gora egin du, eta pertsona helduentzako egoitzetan ez dago leku nahikorik.
- Kirol-ekipamenduen eskaintza bikaina.
- Egungo osasun zentroaren instalazioak ez dira egokiak. Hauen berrikuntza aurreikusten da.
- Bizitegitarako lurzoruari dagokionez, erabilera nagusia, dentsitate txikikoak asko dira eta jatorriko herrigunearekin alde handia dago.
- Hondarribian bizi diren 10 langiletik ia 7k udalerritik kanpo egiten du lan. Beraz, Hondarribia lohiri gisa indartzen ari dela esan daiteke.
- Etxebizitza-merkatuaren hedapen handia, eta bigarren etxea duten pertsonen ehuneko garrantzitsua. Etxebizitzako gero eta jende gutxiago bizi da.
- Bizitegietarako lurzoruaren erabilerari dagokionez, 2018. urterako baliabidea agor daiteke, hau da lurra, nahiz eta biztanleria oso gutxi hazten ari den.
- Baliabide gutxi dituzten herritarrak udalerritik joaten ari dira.
- Hondarribiko langabezia-tasa %7,7 da, EAEkoa baino txikiagoa eta Gipuzkoakoa baino apur bat handiagoa (%8,5 eta %7,5, hurrenez hurren). 2006 urterako ‰ 52,41 da, beraz, beheraka egin du.
- Udalerriko jarduera ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuena da garrantzi handien duena; izan ere, bertan bizi den biztanleriaren %66,3 ari da zerbitzuen sektorean lanean, %20,6 industriaren sektorean, %6,1 eraikuntzan eta lehen sektorean %7.
- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorea moteltzen ari da pixkanaka eta hondar-jarduerarako joera hazten.
- Hondarribiko arrantza-jarduerak garrantzi handia du, bai okupazioari dagokionez, bai jarduerari dagokionez. Izan ere, lehen sektorean

biztanleria landunaren %7k egiten du lan, eta kopuru horren %5,6k arrantza-jardueran.

- Industriari dagokionez, metalurgia da nagusi, nahiz eta udalerrian jarduera urria izan.
- Hondarribiko merkataritza-dentsitate indizearen arabera, 54 establezimendu daude 1.000 biztanleko, lurraldeko batez bestekoa baino askoz ere kopuru txikiagoa (70,6). 2006 urtean indizea 13,73establezimendu/1.000 biztanleko zen, beraz jeisten ari da. Merkataritza-gune handiak ugaritzen ari dira hiri-inguruko zonaldeetan, eta, horren ondorioz, aisialdi-erosketekin zerikusia duen mugikortasuna hazten ari da.
- Aspalditik datorren antolamendu arazoa, bai eta motorizazioa sustatzeko azpiegitura berrien arazoa; hasiera batean, barrualdeko bide-azpiegitura berriekin eta kanpoaldearekin lotzeko bide berriekin konpontzeko modukoak.
- Aireportuak, berriz, iraunkortasunaren aurkako faktoreak ditu, lehenera ekartzeko konponbide zailekoak.
- Garraioarekin zerikusia duten azpiegiturak ezartzeko ekimen ugari, Jaizkibel eta Jaizkibiako Korridore Intermodala SA osatuz. Pilaketa horren bideragarritasunaren eta iraunkortasunaren inguruan zalantza ugari daude eta jarduerak aztertzen ari dira; bestalde, lurralde-eragina Bidasoa-Txingudirako erabakigarria izango da. Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldera eta Donostialdera zabaldu den orbanarantz.
- Bestalde, Herritarren Hautemate-inkestan (Hondarribiko 250 hiritarri egindako inkestetan oinarrituta), herriari eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerek bigarren balorazio txarrena jaso dute herritarren asebetetze orokorraren mailaren arabera; hain zuzen, "enplegu-aukerak" alderdiak soilik atera du balorazio txarragoa. Balorazio hori txikiagoa da, inkestatutako pertsonak gazteagoak diren heinean.
- Gaur egungo landaredia, giza eraldaketaren emaitza, hariztiak eta ametz-basoak nagusi diren landaredi potentzialaren gainean.
- Fauna-espezie zerrenda luzea, baina habitaten eraldaketen eraginez galtzeko mehatxuan daudenak.
- Indarrean dagoen udal-planak ez ditu bere gain hartzen babeserako estatus berriak eta helburuak lortzeko ikuspegi desberdinak ditu.
- Lurraldearen Zatikako Planaren aurrerakinak kontraesanean dauden proposamenak mahaigaineratzen ditu; horiek natura-guneak bultzatzearen ingurukoak dira.
- Abeltzaintza-jarduera arautzea eta eremua zehaztea, Jaizkibel kontserbatzeko giltzarria da.

- Txabolak, eta urbanizatzeko eta azpiegiturak jartzeko kanpoko presioa ugaritu egin dira, antolamendurik ez dago eta paduren inguruko arazoak daude.
- Oztopo fisikoek eta kokalekuek natura-guneen isolamendua eragiten dute.
- Gehien erabiltzen den garraiobidea kotxea da.
- Jende asko desplazatzen da oinez.
- Egunero egiten diren desplazamenduen erdia baino gehiago errepikariak dira; hau da, jatorri eta helmuga berekoak dira.
- Desplazamendu gehienak Irunera joateko dira.
- Motorizazio-tasak goranzko joera du.
- Motorizazio-adina gero eta gazteagoa da.
- Irunera joan-etorriak egiteko garraio publikoaren eskaintza ona da. Donostiarako zerbitzua, berriz, eskasa.
- Legezko estaldura eskasa, Txingudiko padurak eta Jaizkibel Natura 2000 Sarean sartzearen ondorioz sortutako araudia ez betetzeagatik.
- 2007. urtean etxeko ur-kontsumoa Hondarribian 135,7 litro/biztanleko/eguneko izan da. Erabilera, berriz, 2000. eta 2007. urteen artean, Hondarribian etxeko kontsumoa %12,1 jeitsi da, eta etxekoa ez dena %12,6 gutxitu. Azpimarratu beharra dago 2000-2007 epealdian, Hondarribiko biztanleria %8,7 igo dala.
- Energia-kontsumoei dagokienez, 2002-2004 epean kontsumo elektrikoa hazi egin da sektore guztietan. Epe horretan etxeetako kontsumoak eta industriako kontsumoak gora egin du, %9 eta %3, hurrenez hurren (kontratu-kopurua ere gehitu da, %8 eta %1), zerbitzu-sektorearen kontsumoak ere %14 egin du gora (kontratuak %5 gehitu dira). 2004-2006 epean energiaren kontsumoak sektore guztietan gorantza egin du industri sektorean izan ezik, honetan, %24,23a jetsi da. Orokorrean 2004-2006 epean fakturatutako energia %12,14 igo da. Erabiltzen diren energia-iturriak, batez ere, ez berriztagarriak dira. Energia berriztagarriak erabiltzen dituen udal instalakuntzarik ez dago.
- Urtetik urtera gero eta hondakin gehiago birziklatzen da. Dena dela, zabortegirako diren hondakin-kopuruak ere gora egin du.Edukiontzi berdean biltzen diren etxeko-hondakinen osagai nagusia sukaldatu gabeko janari-hondarrak dira.Europako Erkidegoko Hierarkiaren printzipioak prebentzioari ematen dio lehentasuna (ondoren, birziklatzeari, konpostari eta energiaren aprobetxamenduari), eta Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Plan Integralean (PIRUAT), berriz, hondakin-kopurua murrizteko eta hondakinak berriz erabiltzeko helburuak (prebentzioarekin lotuta daude) ez daude zenbatuta, eta, beraz, ez daude bat ere zehaztuta. Hondakinak sortzearen

prebentzioan badugu oraindik zer hobetua.Nahiz eta Txingudin birziklatutako hondakinen ehunekoa Gipuzkoako handiena izan, badago zer hobetua oraindik.

- Eskualdean energia berreskuratzeko erraustegi-planta bat eraikitzearen inguruko erabakiaren inguruan, herritarren artean kexak izan dira, informazio argia ez delako eman eta erabakia hartu aurretik ez delako debaterik izan. Hori del eta protesta mugimendu bat sortu da. Egun (2008 urtea), erraustegi-plantaren eraikuntza, Donostiako Zubieta auzoan aurreikusten da.
- Pentsatzen dugu, informazio gutxi daukagula modu fidagarrian baloratzeko Hondarribiko airearen kalitatearen egoera.
- Hondarribian ez da ikuspegi kualitatibotik arazo handirik hauteman, ingurune-hotsari dagokionez. Ez daukagu eskura informazio nahikoa horren inguruan azterketa sakonagoa egiteko. Dena den, aireportuaren inguruko arazoak bistakoak dira.